

Prozedura Zibilaren Legea

1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilarena
BOE (2000/01/08)

2023/12/20ko testu kontsolidatuaren itzulpena

20
24

Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala (IZO)



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

TESTU KONTOLIDATUA	30
I	30
II	31
III	32
IV	32
V	33
VI	34
VII	35
VIII	38
IX	39
X	44
XI	47
XII	50
XIII	52
XIV	52
XV	56
XVI	57
XVII	59
XVIII	64
XIX	66
XX	67
ATARIKO TITULUA	69
Arau prozesalez eta haien aplikazioaz	69
▪ 1. artikulua. Prozesuaren legezkotasun-printzipioa.	69
▪ 2. artikulua. Arau prozesal zibilen aplikazioa denboran.	69
▪ 3. artikulua. Arau prozesal zibilen lurralde-eremua.	69
▪ 4. artikulua. Prozedura Zibilaren Legearen izaera osagarria.	70
I. LIBURUA	70
Judizio zibilei buruzko xedapen orokorrez	70
I. TITULUA	70
Judizioan agertzeaz eta jarduteaz	70
▪ 5. artikulua. Jurisdikzio-babes motak.	70
I. KAPITULUA	70
Alderdi izateko gaitasunaz, gaitasun prozesalaz eta legitimazioaz	70
▪ 6. artikulua. Alderdi izateko gaitasuna.	70
▪ 7. artikulua. Agerraldia judizioan eta ordezkaritza.	71
▪ 7 bis artikulua. Desgaitasuna duten pertsonentzako eta adineko pertsonentzako doikuntzak.	72



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 8. artikulua. Gaitasun prozesala osatzea.	73
▪ 9. artikulua. Gaitasunik eza ofizioz hautematea.	73
▪ 10. artikulua. Prozesuko alderdi legitimo izatea.	73
▪ 11. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen eta interesen defentsarako legitimazioa.	73
▪ 11 bis artikulua. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea defendatzeko legitimazioa.	74
▪ 11 ter artikulua. Tratu-berdintasunerako eta sexu-orientazio eta -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo sexu-ezaugarriengatik ez diskriminatzeko eskubidea defendatzeko legitimazioa.	74
▪ 11 quater artikulua. Arte eta kulturako norberaren konturako langileen edo autonomoen eskubide eta interesak defendatzeko legitimazioa.	75
II. KAPITULUA	75
Alderdi-aniztasunaz	75
▪ 12. artikulua. Auzikidetza.	75
▪ 13. artikulua. Jatorriz demandatzaile edo demandatu ez diren subjektuen esku-hartzea.	76
▪ 14. artikulua. Eragindako esku-hartzea.	76
▪ 15. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubide eta interes kolektiboak eta lausoak babesteko prozesuetako publizitatea eta esku-hartzea.	77
▪ 15 bis artikulua. Lehia defendatzeko prozesuetan eta datuak babesteko prozesuetan esku hartzea.	77
▪ 15 ter artikulua. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea defendatzeko prozesuetako publizitatea eta esku-hartzea.	78
▪ 15 quater artikulua. Tratu-berdintasunerako eta sexu-orientazio eta -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo sexu-ezaugarriengatik ez diskriminatzeko eskubidea defendatzeko prozesuetako publizitatea eta esku-hartzea.	78
III. KAPITULUA	79
Prozesuko ondorengotzaz	79
▪ 16. artikulua. Prozesuko ondorengotza, heriotzagatik.	79
▪ 17. artikulua. Ondorengotza, auziaren objektua eskualdatzeagatik.	80
▪ 18. artikulua. Ondorengotza, eragindako esku-hartzearen kasuetan.	80
IV. KAPITULUA	80
Alderdien xedatze-ahalmenaz prozesuaren eta haien uzien gainean	81
▪ 19. artikulua. Auzilarien xedatze-eskubidea. Transakzioa eta etendura.	81
▪ 20. artikulua. Uko-egitea eta atzera-egitea.	81
▪ 21. artikulua. Amore-ematea.	82
▪ 22. artikulua. Prozesua amaitzea, uzia prozesutik kanpo betetzeagatik edo ostean objektua bat-batean desagertzeagatik. Utzarazpena ezerezean uztearen kasu berezia.	82
V. KAPITULUA	83
Prozesuko ordezkartaz eta defentsa teknikoaz	83
▪ 23. artikulua. Prokuradorearen esku-hartzea.	83
▪ 24. artikulua. Prokuradoreari ahalordea ematea.	84
▪ 25. artikulua. Ahalorde orokorra eta ahalorde berezia.	85
▪ 26. artikulua. Ahalordearen onarpena. Prokuradorearen eginbeharrak.	85
▪ 27. artikulua. Zuzenbide osagarria ahalorde-emateari buruz.	86
▪ 28. artikulua. Prokuradorearen ordezkartza pasiboa.	86
▪ 29. artikulua. Funts-hornidura.	87
▪ 30. artikulua. Prokuradoreak kargua uztea.	87
▪ 31. artikulua. Abokatuaren esku-hartzea.	88
▪ 32. artikulua. Abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartze ez-nahitaezkoa.	88
▪ 33. artikulua. Prokuradorearen eta abokatuaren izendapena.	89
▪ 34. artikulua. Prokuradorearen kontua.	90



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 35. artikulua. Abokatuen zerbitzu-sariak.	91
II. TITULUA	92
Jurisdikzioaz eta eskumenaz	92
I. KAPITULUA	92
Auzitegi zibilen jurisdikzioaz eta arazo prejudizialez	92
1. atala. Auzitegi zibilen jurisdikzioaren hedaduraz eta mugez	92
▪ 36. artikulua. Jurisdikzio-ordena zibilarren hedadura eta mugak. Nazioarteko eskumenik eza.	92
▪ 37. artikulua. Jurisdikziorik eza. Auzitegi zibilen abstentzioa.	93
▪ 38. artikulua. Ofizioz hautematea nazioarteko eskumenik eza eta jurisdikziorik eza.	93
▪ 39. artikulua. Alderdi-eskariz hautematea nazioarteko eskumenik eza edo jurisdikziorik eza.	93
2. atala. Arazo prejudizialez	93
▪ 40. artikulua. Prejudizialitate penala.	93
▪ 41. artikulua. Errekurtsoak, prejudizialitate penalagatik jardunak eteteari buruzko ebazpenaren aurka.	94
▪ 42. artikulua. Arazo prejudizial ez-penalak.	94
▪ 43. artikulua. Prejudizialitate zibila.	95
▪ 43 bis artikulua. Europako arazo prejudiziala.	95
II. KAPITULUA	96
Eskumena zehazteko erregelez	96
▪ 44. artikulua. Legeak eskumena aurretiaz zehaztea.	96
1. atala. Eskumen objektiboaz	96
▪ 45. artikulua. Lehen auzialdiko epaitegien eskumena.	96
▪ 46. artikulua. Lehen auzialdiko epaitegi batzuen espezializazioa.	96
▪ 47. artikulua. Bake-epaitegien eskumena.	96
▪ 48. artikulua. Ofizioz hautematea eskumen objektiborik eza.	97
▪ 49. artikulua. Alderdi-eskariz hautematea eskumen objektiborik eza.	97
▪ 49 bis artikulua. Eskumena galtzea, emakumeen aurkako indarkeriazko egintzak gertatzen direnean.	97
2. atala. Lurralde-eskumenaz	98
▪ 50. artikulua. Pertsona fisikoen foru orokorra.	98
▪ 51. artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko entitateen foru orokorra.	98
▪ 52. artikulua. Lurralde-eskumena kasu berezietan.	99
▪ 53. artikulua. Lurralde-eskumena, akzio-metaketa dagoenean eta demandatu-aniztasuna dagoenean.	101
▪ 54. artikulua. Lurralde-eskumenari buruzko arauen xedapenezko izaera.	101
▪ 55. artikulua. Esanbidezko sumisioa.	101
▪ 56. artikulua. Isilbidezko sumisioa.	102
▪ 57. artikulua. Esanbidezko sumisioa eta banaketa.	102
▪ 58. artikulua. Ofizioz hautematea lurralde-eskumena.	102
▪ 59. artikulua. Lurralde-eskumenik eza alegatzea.	102
▪ 60. artikulua. Lurralde-eskumenaren gatazka negatiboa.	103
3. atala. Eskumen funtzionalaz	103
▪ 61. artikulua. Eskumen funtzionala, loturagatik.	103
▪ 62. artikulua. Ofizioz hautematea errekurtsoez arduratzeko eskumena.	103
III. KAPITULUA	103
Deklinatoriaz	104
▪ 63. artikulua. Deklinatoriaren edukia, hura proposatzeko legitimazioa eta hartaz arduratzeko auzitegi eskuduna.	104
▪ 64. artikulua. Deklinatoria proposatzeko une prozesala eta berehalako ondoreak.	104
▪ 65. artikulua. Deklinatoria izapidetzea eta erabakitzea.	104
IV. KAPITULUA	105



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Jurisdikzioa eta eskumena gai duten errekurtoez	105
▪ 66. artikulua. Nazioarteko eskumena, jurisdikzioa, arbitrajepean edo bitartekaritzapean jartzea eta eskumen objektiboa gai duten errekurtoak.	105
▪ 67. artikulua. Lurralde-eskumena gai duten errekurtoak.	106
V. KAPITULUA	106
Auzigaien banaketaz	106
▪ 68. artikulua. Banaketaren nahitaezkotasuna. Tratamendu prozesala.	106
▪ 69. artikulua. Banaketa egin beharreko epea.	106
▪ 70. artikulua. Urgentziatzko neurriak banatu gabeko auzigaietan.	107
III. TITULUA	107
Akzioen eta prozesuen metaketaz	107
I. KAPITULUA	107
Akzio-metaketa	107
▪ 71. artikulua. Metaketaren ondore nagusia. Akzioen metaketa objektiboa. Metaketa ebentuala.	107
▪ 72. artikulua. Akzioen metaketa subjektiboa.	107
▪ 73. artikulua. Akzio-metaketa onargarritasuna, zio prozesalengatik.	108
II. KAPITULUA	108
Prozesu-metaketa	109
1. atala. Prozesu-metaketa: xedapen orokorrak	109
▪ 74. artikulua. Prozesu-metaketa helburua.	109
▪ 75. artikulua. Prozesu-metaketa eskatzeko legitimazioa. Ofizioz erabakitako metaketa.	109
▪ 76. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa prozesu-metaketa.	109
▪ 77. artikulua. Prozesu metagarriak.	110
▪ 78. artikulua. Prozesu-metaketa bidezkontasunik eza. Salbuespenak.	110
▪ 79. artikulua. Zer prozesutan eskatu edo ofizioz erabaki behar den metaketa.	111
▪ 80. artikulua. Prozesu-metaketa hitzezko judizioan.	111
2. atala. Auzitegi berean ebazkizun dauden prozesuen metaketaz	111
▪ 81. artikulua. Prozesuak metatzeko eskaera.	111
▪ 82. artikulua. Prozesuak metatzeko eskaera hasieran ezestea.	112
▪ 83. artikulua. Prozesuak metatzeko intzidentea bideratzea eta erabakitzea. Errekurtsoak.	112
▪ 84. artikulua. Metaketa ematen duen autoaren ondoreak.	112
▪ 85. artikulua. Metaketa ukatzen duen autoaren ondoreak.	113
3. atala. Auzitegi ezberdinetan ebazkizun dauden prozesuen metaketaz	113
▪ 86. artikulua. Arau aplikagarriak.	113
▪ 87. artikulua. Prozesuak metatzeko eskaera.	113
▪ 88. artikulua. Prozesuak metatzeko eskaera egitearen edo jardunak ofizioz hastearen ondore ez-etengarria.	113
▪ 89. artikulua. Prozesuak metatzea bidezkoa dela deklaratzeko duen autoaren edukia.	114
▪ 90. artikulua. Auzitegi errekerituak metaketa-errekerimendua hartzea eta auzilariei ikustaldia ematea.	114
▪ 91. artikulua. Metaketa-errekerimenduari buruzko ebazpena.	114
▪ 92. artikulua. Auzitegi errekerituak metaketa onartzearen ondoreak.	114
▪ 93. artikulua. Auzitegi errekerituak prozesu-metaketa ez onartzearen ondoreak.	115
▪ 94. artikulua. Desadostasuna bideratzea auzitegi eskudunaren aurrean.	115
▪ 95. artikulua. Desadostasunaren erabakia.	115
▪ 96. artikulua. Bi prozesu baino gehiagoren metaketa. Metaketaren errekerimendu anitz.	115
▪ 97. artikulua. Bigarren metaketa-intzidente baten debekua.	116
4. atala. Prozesu singularrak prozesu unibertsalei metatzeaz	116
▪ 98. artikulua. Zer kasutan egokitzen den prozesu singularrak prozesu unibertsal bati metatzea.	116



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

IV. TITULUA	116
Abstentzioaz eta errekusazioaz	117
I. KAPITULUA	117
Abstentzioaz eta errekusazioaz: xedapen orokorrak	117
▪ 99. artikulua. Legearen aplikazio-eremua eta legezkotasun-printzipioa.	117
▪ 100. artikulua. Abstentzio-eginbearra.	117
▪ 101. artikulua. Errekusatzeko legitimazio aktiboa.	117
II. KAPITULUA	117
Epaileen, magistratuen, Justizia Administrazioaren letraduen, fiskalen eta auzitegi zibilen zerbitzura dauden langileen abstentzioaz	117
▪ 102. artikulua. Epaileen eta magistratuen abstentzioa.	118
▪ 103. artikulua. Justizia Administrazioaren letraduen abstentzioa.	118
▪ 104. artikulua. Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko Kidegoetako funtzionarioen abstentzioa.	118
▪ 105. artikulua. Adituen abstentzioa.	119
▪ 106. artikulua. Fiskaltzako kideen abstentzioa.	119
III. KAPITULUA	119
Epaileen eta magistratuen errekusazioaz	119
▪ 107. artikulua. Errekusazioa proposatzeko denbora eta modua.	119
▪ 108. artikulua. Errekusazio-intzidentek instruitzeko eskumena.	120
▪ 109. artikulua. Errekusazio-intzidentea bideratzea eta hark auzigai nagusian sortzen dituen ondoreak.	121
▪ 110. artikulua. Errekusazio-intzidentea erabakitze eskumena.	121
▪ 111. artikulua. Errekusazio-intzidentearen berezitasunak hitzeko judizioetan. Bestelako kasu bereziak.	122
▪ 112. artikulua. Intzidentearen erabakia, kostuak eta isuna.	122
▪ 113. artikulua. Autoaren jakinarazpena eta errekursoak.	122
IV. KAPITULUA	122
Auzitegi zibiletako Justizia Administrazioaren letraduen errekusazioaz	123
▪ 114. artikulua. Arauketa aplikagarria.	123
▪ 115. artikulua. Errekusazioa. Errekusazio-intzidentek instruitzeko eta ebazteko eskumena.	123
▪ 116. artikulua. Errekusatuaren txostena.	123
▪ 117. artikulua. Errekusatuak errekusazioa onartzea.	123
▪ 118. artikulua. Errekusatuak aurka egitea, eta errekusazioa bideratzea.	123
▪ 119. artikulua. Justizia Administrazioaren letradu errekusatua ordeztzea.	124
V. KAPITULUA	124
Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko kidegoetako funtzionarioen errekusazioaz	124
▪ 120. artikulua. Legeria aplikagarria.	124
▪ 121. artikulua. Errekusazioa. Errekusazio-intzidentea instruitzeko eta ebazteko eskumena.	124
▪ 122. artikulua. Errekusazio-idazkia ez onartzea.	124
▪ 123. artikulua. Intzidentea bideratzea; errekusatuak errekusazioa onartzea ala ukatzea.	125
VI. KAPITULUA	125
Adituen errekusazioaz	125
▪ 124. artikulua. Adituen errekusazioaren eremua.	125
▪ 125. artikulua. Adituen errekusazioa proposatzeko modua.	125
▪ 126. artikulua. Errekusazio-idazkia onartzea.	126
▪ 127. artikulua. Errekusazio-intzidentea bideratzea eta erabakitzea.	126
▪ 128. artikulua. Kostuak.	127



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

V. TITULUA	127
Jardun judizialez	127
I. KAPITULUA	127
Jardun judizialen tokia eta presentzia telematikoaren bidezko prozesu-egintzak	127
▪ 129. artikulua. Jardun judizialen tokia.	127
▪ 129 bis artikulua. Prozesu-egintzak presentzia telematikoaren bidez egitea.	127
II. KAPITULUA	128
Jardun judizialen denboraz	128
1. atala. Egun eta ordu baliodunaz	128
▪ 130. artikulua. Egun eta ordu baliodunak.	128
▪ 131. artikulua. Egun eta ordu baliodunak baliodun bihurtzea.	129
2. atala. Epeaz eta epemugez	129
▪ 132. artikulua. Epeak eta epemugak.	129
▪ 133. artikulua. Epeen zenbaketa.	130
▪ 134. artikulua. Epeen luze-erantzuna.	130
▪ 135. artikulua. Idazkien aurkezpena, egintza prozesalen denbora-betekizunaren ondoretarako.	131
▪ 136. artikulua. Preklusioa.	132
III. KAPITULUA	132
Arartekogabetasunaz, publizitateaz eta hizkuntza ofizialaz	132
▪ 137. artikulua. Presentzia judiziala deklarazioetan, frogetan eta ikustaldietan.	132
▪ 137 bis artikulua. Jardun judizialak bideokonferentzia-sistemaren bidez egitea.	133
▪ 138. artikulua. Ahozko jardunen publizitatea.	133
▪ 139. artikulua. Kide anitzeko auzitegien deliberamenduen sekretua.	134
▪ 140. artikulua. Jardunei buruzko informazioa.	134
▪ 141. artikulua. Irispidea liburu, artxibo eta erregistro judizialekiko.	135
▪ 141 bis artikulua.	135
▪ 142. artikulua. Hizkuntza ofiziala.	135
▪ 143. artikulua. Interpretaren esku-hartzea.	135
▪ 144. artikulua. Hizkuntza ez-ofizialean idatzitako dokumentuak.	136
IV. KAPITULUA	136
Fede publiko judizialaz eta jardunak dokumentatzeaz	136
▪ 145. artikulua. Fede publiko judiziala.	136
▪ 146. artikulua. Jardunak dokumentatzea.	137
▪ 147. artikulua. Jardunak dokumentatzea irudia eta soinua grabatzeko eta erreproduzitzeko sistemen bidez.	138
▪ 148. artikulua. Autoak eratzeko, zaintza eta kontserbatzea.	138
V. KAPITULUA	139
Komunikazio judizialeko egintzez	139
▪ 149. artikulua. Komunikazio-egintza motak.	139
▪ 150. artikulua. Ebazpenen eta antolaketa-erako eginbideen jakinarazpena.	139
▪ 151. artikulua. Komunikazio-denbora.	140
▪ 152. artikulua. Komunikazio-egintzen forma. Erantzuna.	140
▪ 153. artikulua. Prokuradore bidezko komunikazioa.	142
▪ 154. artikulua. Prokuradoreei egintzak komunikatzeko lekua.	142
▪ 155. artikulua. Komunikazio-egintzak oraindik pertsonatu ez diren edo prokuradoreak ordezkatzeko ez dituen alderdiekin. Egoitza.	143
▪ 156. artikulua. Auzitegiaren ikerketak egoitzari buruz.	145
▪ 157. artikulua. Arlo Zibileko Auzi-iheslarien Erregistro Zentrala.	145



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

158. artikulua. Komunikazioa entrega bidez.	146
159. artikulua. Komunikazioak lekukoekin, adituekin eta judizioan alderdi ez diren bestelako pertsonekin.	146
160. artikulua. Komunikazioak igortzea postaz, telegramaz edo antzeko bitartekoen bidez.	146
161. artikulua. Komunikazioa ebazpenaren kopiaren edo zedularen bidez.	147
162. artikulua. Komunikazio-egintzak bitarteko elektronikoz, informatikoz eta antzekoez.	148
163. artikulua. Komunikazio Egintzen Zerbitzu Erkide Prozesala.	149
164. artikulua. Komunikazioa ediktu bidez.	149
165. artikulua. Komunikazio-egintzak laguntza judizial bidez.	150
166. artikulua. Komunikazio-egintzen deuseztasuna eta konponketa.	150
167. artikulua. Ofizioak eta manamenduak igortzea.	150
168. artikulua. Komunikazio prozesalean esku hartzen duten funtzionarioen eta profesionalen erantzukizuna.	151
VI. KAPITULUA	151
Laguntza judizialaz	151
169. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa laguntza judiziala.	151
170. artikulua. Zein organori dagokion laguntza judiziala ematea.	152
171. artikulua. Exhortoa.	152
172. artikulua. Exhortoa igortzea.	152
173. artikulua. Exhortoa betetzea.	153
174. artikulua. Alderdien esku-hartzea.	153
175. artikulua. Exhortoa itzultzea.	153
176. artikulua. Alderdien arretarik eza laguntza judizialean.	154
177. artikulua. Nazioarteko lankidetzak judiziala.	154
VII. KAPITULUA	154
Auzigaien bideratzeaz, ikustaldiaz eta erabakiaz	154
1. atala. Abiarazte arruntaz	154
178. artikulua. Kontu-ematea.	154
179. artikulua. Bultzada prozesala eta prozesuaren etendura, alderdien akordioagatik edo beste inguruabar batzuenagatik.	155
180. artikulua. Magistratu txostengilea.	156
181. artikulua. Magistratu txostengilearen funtzioak.	156
2. atala. Ikustaldiez eta agerraldiez	156
182. artikulua. Ikustaldien seinalamendua.	157
183. artikulua. Ikustaldiaren edo beste egintza prozesal batzuen beste seinalamendu bat eskatzea.	158
184. artikulua. Ikustaldiak egiteko denbora.	159
185. artikulua. Ikustaldiak egitea.	159
186. artikulua. Eztabaiden zuzendaritza.	160
187. artikulua. Ikustaldiak dokumentatzea.	160
188. artikulua. Ikustaldiak edo beste egintza prozesal batzuk etetea.	160
189. artikulua. Atzeratutako ikustaldien seinalamendu berria.	162
189 bis artikulua. Agerraldiez.	162
190. artikulua. Epaitzaile-aldaketak ikustaldiak seinalatu ondoren, eta errekusazio posiblea.	162
191. artikulua. Ikustaldiaren osteko errekusazioa.	163
192. artikulua. Ikustaldiaren ondoren formulatutako errekusazioaren erabakiaren ondoreak.	163
192 bis artikulua. Justizia Administrazioaren letradua aldatzea seinalamenduaren ondoren. Errekusazio posiblea.	163
193. artikulua. Ikustaldiak etetea.	163
3. atala. Auzigaien bozketez eta epaitzez	164



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 194. artikulua. Zein epaileri eta magistraturi dagokion epaitza ematea.	164
▪ 194 bis artikulua. Justizia Administrazioaren zein letraduri dagokion ebaztea.	164
▪ 195. artikulua. Autoen edukiari buruz magistratuak informatzea kide anitzeko auzitegietan.	165
▪ 196. artikulua. Ebazpenen deliberamendua eta bozketa kide anitzeko auzitegietan.	165
▪ 197. artikulua. Ebazpenak eztabaidatzeko eta bozkatzeko modua kide anitzeko auzitegietan.	165
▪ 198. artikulua. Ebazpenen bozketa.	165
▪ 199. artikulua. Ikustaldiaren ondoren ezindutako magistratuen botoa.	166
▪ 200. artikulua. Ikustaldira edo agerraldira bertaratutako epailearen edo Justizia Administrazioaren letraduaren ezintasuna.	166
▪ 201. artikulua. Botoen gehiengoa.	166
▪ 202. artikulua. Diskordiak.	167
▪ 203. artikulua. Ebazpenen idazketa kide anitzeko auzitegietan.	167
▪ 204. artikulua. Ebazpenen sinadura.	167
▪ 205. artikulua. Boto partikularrak.	168
VIII. KAPITULUA	168
Ebazpen prozesalez	168
1. atala. Ebazpenen motez, formaz eta edukiaz eta haiek emateko, publikatzeko eta artxibatze	168
moduaz	168
▪ 206. artikulua. Ebazpen-motak.	168
▪ 207. artikulua. Behin betiko ebazpenak. Ebazpen irmoak. Gauza epaitu formala.	169
▪ 208. artikulua. Ebazpenen forma.	170
▪ 209. artikulua. Epaien formari eta edukiari buruzko erregela bereziak.	170
▪ 210. artikulua. Ahozko ebazpenak.	171
▪ 211. artikulua. Ebazpen judizialak emateko epea.	171
▪ 212. artikulua. Epaiak publikatzea eta artxibatzea.	171
▪ 213. artikulua. Epai-liburua.	172
▪ 213 bis artikulua. Dekretu-liburua.	172
▪ 214. artikulua. Ebazpenen aldaezintasuna. Argitzea eta zuzentzea.	172
▪ 215. artikulua. Epai eta auto akastunak edo osatugabeak konpontzea eta osatzea.	173
2. atala. Epaiaren barne-betekizunez eta ondoreez	173
▪ 216. artikulua. Erregututako justiziaren printzipioa.	173
▪ 217. artikulua. Froga-zama.	173
▪ 218. artikulua. Epaien exhaustibotasuna eta kongruentzia. Zioak.	174
▪ 219. artikulua. Epaiak likidazioaren erreserbarekin.	175
▪ 220. artikulua. Etorkizunerako kondenak.	175
▪ 221. artikulua. Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen elkarteek sustatutako prozesuetan emandako epaiak.	175
▪ 222. artikulua. Gauza epaitu materiala.	176
3. atala. Antolaketa-eginbideez	177
▪ 223. artikulua. Antolaketa-eginbideak.	177
▪ 224. artikulua. Antolaketa-eginbideak berrikustea.	177
IX. KAPITULUA	177
Jardunen deuseztasunaz	177
▪ 225. artikulua. Erabateko deuseztasuna.	177
▪ 226. artikulua. Jarduteko modua, larderia edo indarkeria dagoenean.	178
▪ 227. artikulua. Jardun prozesalen deuseztasun-deklarazioa eta deuseztatze-uziak.	178
▪ 228. artikulua. Jardunak deuseztatze salbuespenezko intzidentea.	178
▪ 229. artikulua. Ezarritako denboraz kanpo egindako jardun judizialak.	179



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 230. artikulua. Egintzak kontserbatzea.	179
▪ 231. artikulua. Konpontzea.	179
X. KAPITULUA	179
Autoak berreraikitzeaz	179
▪ 232. artikulua. Fiskaltzaren eskumena eta esku-hartzea.	179
▪ 233. artikulua. Jardunak berreraikitzeke espediente hastea.	180
▪ 234. artikulua. Alderdiak agerraldirako zitatzea. Haiek ez joatearen ondoreak.	180
▪ 235. artikulua. Agerraldiaren hasiera. Eztabaidarik eza. Froga eta erabakia.	180
VI. TITULUA	181
Jardun judizialak bukatzeaz eta auzialdia iraungitzeaz	181
▪ 236. artikulua. Alderdiek prozedura bultzatzea, eta iraungitzea.	181
▪ 237. artikulua. Auzialdia iraungitzea.	181
▪ 238. artikulua. Iraungitzea baztertzea, ezinbestegatik edo alderdien aurkako borondateagatik.	181
▪ 239. artikulua. Auzialdiaren iraungitzea baztertzea betearazpenean.	182
▪ 240. artikulua. Auzialdia iraungitzearen ondoreak.	182
VII. TITULUA	182
Kostu-tasazioaz	182
▪ 241. artikulua. Prozesuko kostuen eta gastuen ordainketa.	182
▪ 242. artikulua. Kostuak tasatzeko eskaera.	183
▪ 243. artikulua. Kostu-tasazioa egitea.	183
▪ 244. artikulua. Alderdiei helaraztea. Onespena.	184
▪ 245. artikulua. Kostuen tasazioa aurkaratzea.	184
▪ 246. artikulua. Aurkarapena izapidetzea eta erabakitzea.	185
VIII. TITULUA	186
Fede on prozesalaz	186
▪ 247. artikulua. Fede on prozesalaren erregelak errespetatzea. Haiek ez betetzeagatik isunak.	186
II. LIBURUA	186
Deklarazio-prozesuez	187
I. TITULUA	187
Deklarazio-prozesuen xedapen komunez	187
I. KAPITULUA	187
Kasuan kasuko prozesua zehazteko erregelez	187
▪ 248. artikulua. Deklarazio-prozesu motak.	187
▪ 249. artikulua. Judizio arruntaren eremua.	187
▪ 250. artikulua. Hitzezko judizioaren eremua.	188
▪ 251. artikulua. Munta zehazteko erregelak.	190
▪ 252. artikulua. Erregela bereziak objektu- edo alderdi-aniztasuna duten prozesuetan.	192
▪ 253. artikulua. Demandan munta adieraztea.	193
▪ 254. artikulua. Muntagatiko judizio-mota ofizioz kontrolatzea.	193
▪ 255. artikulua. Munta eta muntagatiko judizio-mota aurkaratzea.	194
II. KAPITULUA	194
Atariko eginbideez	194
▪ 256. artikulua. Atariko eginbide motak eta haien eskaera.	194
▪ 257. artikulua. Eskumena.	197



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 258. artikulua. Atariko eginbideei buruzko erabakia eta errekurtsua.	197
▪ 259. artikulua. Atariko eginbideak gauzatzeko zitazioa.	197
▪ 260. artikulua. Atariko eginbideak gauzatzeari aurka egitea. Erabakiaren ondoreak.	198
▪ 261. artikulua. Eginbideak gauzatzeari ezezkua ematea.	198
▪ 262. artikulua. Kauzioa aplikatzeari buruzko erabakia.	199
▪ 263. artikulua. Lege berezietan aurreikusitako atariko eginbideak.	199
III. KAPITULUA	199
Dokumentuen, irizpenen, txostenen eta bestelako bitarteko eta tresnen aurkezpenaz	199
▪ 264. artikulua. Dokumentu prozesalak.	200
▪ 265. artikulua. Auzigaiaren funtsari buruzko dokumentuak eta bestelako idazki eta objektuak.	200
▪ 266. artikulua. Kasu berezietan galdatutako dokumentuak.	201
▪ 267. artikulua. Dokumentu publikoak aurkezteko modua.	201
▪ 268. artikulua. Dokumentu pribatuak aurkezteko modua.	201
▪ 268 bis artikulua. Dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.	202
▪ 269. artikulua. Hasierako aurkezpenik ezaren ondorioak. Kasu bereziak.	202
▪ 270. artikulua. Hasierakoa ez den une prozesalean dokumentuak aurkeztea.	202
▪ 271. artikulua. Aurkezpenaren behin betiko preklusioa eta erregelaren salbuespenak.	203
▪ 272. artikulua. Hasierakoa ez den une prozesalean justifikatu gabe aurkeztutako dokumentua ez onartzea.	203
IV. KAPITULUA	203
Idazkien eta dokumentuen kopiez eta haien helarazpenaz	203
▪ 273. artikulua. Idazkiak eta dokumentuak aurkezteko modua.	204
▪ 274. artikulua. Bulego judizialak beste alderdi interesdunei kopiak helaraztea, prokuradoreek esku hartzen ez dutenean.	205
▪ 275. artikulua. Kopiak ez aurkeztearen ondoreak.	205
▪ 276. artikulua. Idazkien eta dokumentuen kopiak helaraztea, prokuradoreak esku hartzen duenean.	205
▪ 277. artikulua. Prokuradore bidezko helarazpena ez egitearen ondoreak.	205
▪ 278. artikulua. Helarazpenaren ondoreak, epeen aribideari eta zenbaketari dagokienez.	206
▪ 280. artikulua. Kopia baten zehaztugabetasuna salatzea eta ondoreak.	206
V. KAPITULUA	206
Frogaz: xedapen orokorrak	206
1. atala. Frogaren objektuaz, beharraz eta ekimenaz	206
▪ 281. artikulua. Frogaren objektua eta beharra.	207
▪ 282. artikulua. Froga-jardueraren ekimena.	207
▪ 283. artikulua. Froga-jarduera desegokia edo alferrekoa.	207
1. bis atala. Froga-iturrietarako irispideaz, lehiaren zuzenbidea hausteagatik kalteak erreklamatzeko prozeduretan	207
▪ 283 bis a) artikulua. Frogak erakustea, lehiaren zuzenbidea hausteagatik eratorritako kalteengatiko akzioak egikaritzeko prozesuetan.	208
▪ 283 bis b) artikulua. Konfidentzialtasunari buruzko erregelak.	208
▪ 283 bis c) artikulua. Gastuak eta kauzioa.	209
▪ 283 bis d) artikulua. Eskumena.	210
▪ 283 bis e) artikulua. Zein unetan eskatu froga-iturrietara iristeko neurriak.	210
▪ 283 bis f) artikulua. Prozedura.	210
▪ 283 bis g) artikulua. Froga-iturrietara iristeko neurriaren betearazpena.	211
▪ 283 bis h) artikulua. Froga-iturrietara iristeko neurriak gauzatzeari oztopoak jartzearen ondorioak.	211
▪ 283 bis i) artikulua. Lehiaren agintaritza baten espediente batean dauden frogak erakustea.	212



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 283 bis j) artikulua. Lehiaren agintaritza baten espedienterako irispidearen bidez eskusiboki lortu diren frogen erabilerari ezarritako mugak.	213
▪ 283 bis k) artikulua. Konfidentzialtasunaren eta froga-iturrien erabileraren betebeharrak ez betetzearen ondorioak.	214
2. atala. Proposamenaz eta onarpenaz	214
▪ 284. artikulua. Froga proposatzeko modua.	215
▪ 285. artikulua. Proposatutako frogan onargarritasunari buruzko ebazpena.	215
▪ 286. artikulua. Egitate berriak edo jakin berriak. Froga.	215
▪ 287. artikulua. Frogaren zilegitasunik eza.	216
▪ 288. artikulua. Zehapenak, aurreikusitako epean froga ez gauzatzeagatik.	216
3. atala. Froga gauzatzeari buruzko beste xedapen orokor batzuez	216
▪ 289. artikulua. Frogak gauzatzearen modua.	216
▪ 290. artikulua. Bananduta gauzatzen diren froga-egintzetarako seinalamendua.	217
▪ 291. artikulua. Alderdien zitazioa eta esku-hartze posiblea judiziotik kanpo frogak gauzatzean.	217
▪ 292. artikulua. Entzunaldira agertzearen nahitaezotasuna. Isunak.	217
4. atala. Froga aurreratzeaz eta ziurtatzeaz	218
▪ 293. artikulua. Froga aurreratzeko kasuak eta kausak. Eskumena.	218
▪ 294. artikulua. Aurretiazko frogaren proposamena, onarpena, denbora eta errekursoak.	218
▪ 295. artikulua. Aurretiazko froga kontraesanaz gauzatzea.	218
▪ 296. artikulua. Aurretiazko frogaren jardunetako materialen zaintza.	219
▪ 297. artikulua. Froga ziurtatzeko neurriak.	219
▪ 298. artikulua. Betekizunak. Froga ziurtatzeko neurriak hartzeko prozedura. Kontrakautelak.	220
VI. KAPITULUA	221
Frogabideez eta presuntzioez	221
▪ 299. artikulua. Frogabideak.	221
▪ 300. artikulua. Frogabideak gauzatzearen hurrenkera.	221
1. atala. Alderdien galdeketa	222
▪ 301. artikulua. Alderdien galdeketa kontzeptua eta subjektuak.	222
▪ 302. artikulua. Galdeketa edukia eta galderen onarpena.	222
▪ 303. artikulua. Formulatzeko galderak aurkaratzea.	223
▪ 304. artikulua. Ez agertzea eta egitateak isilbidez onartzea.	223
▪ 305. artikulua. Galdeketa erantzuteko modua.	223
▪ 306. artikulua. Auzitegiaren ahalmenak eta abokatuen esku-hartzea. Galdeketa gurutzatua.	223
▪ 307. artikulua. Deklaratzeari ezezkia ematea, erantzun iheskorak edo ondorioz ateratzen uzten ez dutenak, eta egitate pertsonalak onartzea.	224
▪ 308. artikulua. Galdeketa egitate ez-pertsonalei buruzko deklarazioa.	224
▪ 309. artikulua. Pertsona juridikoari edo nortasun juridikorik gabeko entitateari galdeketa egitea.	224
▪ 310. artikulua. Deklaratzaileen inkomunikazioa.	225
▪ 311. artikulua. Egoitzako galdeketa.	225
▪ 312. artikulua. Egoitzako galdeketa aktan jasotzea.	225
▪ 313. artikulua. Egoitzako galdeketa laguntza judizial bidez.	226
▪ 314. artikulua. Alderdien galdeketa berriro egiteko debekua.	226
▪ 315. artikulua. Galdeketa kasu berezietan.	226
▪ 316. artikulua. Alderdien galdeketa balorazioa.	226
2. atala. Dokumentu publikoez	227
▪ 317. artikulua. Dokumentu publiko motak.	227
▪ 318. artikulua. Dokumentu publikoen bidez froga eratzeko modua.	227



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 319. artikulua. Dokumentu publikoen froga-indarra.	227
▪ 320. artikulua. Dokumentu publikoaren froga-balioa aurkaratzea. Erkatzea edo egiaztatzea.	228
▪ 321. artikulua. Lekukotza edo ziurtagiri osatugabeak.	229
▪ 322. artikulua. Erkatzeko edo egiaztatzeko modukoak ez diren dokumentu publikoak.	229
▪ 323. artikulua. Atzerriko dokumentu publikoak.	229
3. atala. Dokumentu pribatuez	229
▪ 324. artikulua. Dokumentu pribatu motak.	230
▪ 325. artikulua. Froga eratzeko modua.	230
▪ 326. artikulua. Dokumentu pribatuen froga-indarra.	230
▪ 327. artikulua. Merkatarien liburuak.	231
4. atala. Aurreko bi atalenzako xedapen komunez	231
▪ 328. artikulua. Alderdiek elkarri dokumentuak erakusteko eginbeharra.	231
▪ 329. artikulua. Erakusteari ezezkoa ematearen ondoreak.	231
▪ 330. artikulua. Hirugarrenek dokumentuak erakustea.	232
▪ 331. artikulua. Erakutsitako dokumentuen lekukotza.	232
▪ 332. artikulua. Entitate ofizialen erakuste-eginbeharra.	232
▪ 333. artikulua. Testu idatziak ez diren dokumentuen kopiak ateratzea.	232
▪ 334. artikulua. Kopia erreprografikoen froga-balioa eta erkaketa.	233
5. atala. Adituen irizpenaz	233
▪ 335. artikulua. Adituen irizpenaren objektua eta helburua. Objektibotasunez jarduteko zina edo promesa.	233
▪ 336. artikulua. Demandarekin eta erantzunarekin ekartzea alderdiek izendatutako adituek egindako irizpenak.	234
▪ 337. artikulua. Irizpenak iragartzea, demandarekin edo erantzunarekin batera ekarri ezin direnean. Geroago ekartzea.	234
▪ 338. artikulua. Irizpenak demandaren osteko jardun prozesalen arabera ekartzea. Judizioan edo ikustaldian adituek esku hartzeko eskaera.	235
▪ 339. artikulua. Auzitegiak adituak izendatzeko eskaera, eta eskaera horri buruzko ebazpen judiziala. Auzitegiak adituak izendatzea, alderdiak eskatu gabe.	235
▪ 340. artikulua. Adituen baldintzak.	236
▪ 341. artikulua. Adituaren izendapen judizialerako prozedura.	236
▪ 342. artikulua. Aditu izendatuari deitzea; onartzea eta izendatzea. Funts-hornidura.	237
▪ 343. artikulua. Adituen narrioak. Narrioen denbora eta forma.	237
▪ 344. artikulua. Narrioaren kontra jartzea eta hura baloratzea. Zehapena, narrio ausartegia edo desleiala dagoenean.	238
▪ 345. artikulua. Aditu-eragiketak eta haietan alderdiek esku hartu ahal izatea.	238
▪ 346. artikulua. Auzitegiak izendatutako adituak irizpena egitea eta berrestea.	238
▪ 347. artikulua. Adituen jardun posiblea judizioan edo ikustaldian.	239
▪ 348. artikulua. Aditu-irizpenaren balorazioa.	239
▪ 349. artikulua. Letrak erkatzea.	240
▪ 350. artikulua. Erkaketarako dokumentu zalantzagabeak edo idazketa-multzoa.	240
▪ 351. artikulua. Letrak erkatzeari buruzko irizpena egitea eta baloratzea.	241
▪ 352. artikulua. Bestelako frogen beste aditu-irizpen instrumental batzuk.	241
6. atala. Azterketa judizialaz	241
▪ 353. artikulua. Azterketa judizialaren objektua eta helburua eta azterketa hori erabakitzeke ekimena.	241
▪ 354. artikulua. Azterketa judiziala gauzatzea eta alderdiek eta adituek esku hartzea.	241
▪ 355. artikulua. Pertsonen azterketa.	242
▪ 356. artikulua. Azterketa judiziala eta adituarena elkarrekin gauzatzea.	242
▪ 357. artikulua. Azterketa judiziala eta lekuko bidezko froga elkarrekin gauzatzea.	242



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 358. artikulua. Azterketa judizialaren akta.	242
▪ 359. artikulua. Bitarteko teknikoak erabiltzea azterketa judiziala jasota uzteko.	243
7. atala. Lekukoen galdeketaz	243
▪ 360. artikulua. Frogaren edukia.	243
▪ 361. artikulua. Lekuko izateko egokitasuna.	243
▪ 362. artikulua. Lekukoak izendatzea.	244
▪ 363. artikulua. Lekuko-kopurua mugatzea.	244
▪ 364. artikulua. Egoitzako lekuko-deklarazioa.	244
▪ 365. artikulua. Lekukoen zina edo promesa.	244
▪ 366. artikulua. Lekukoek deklaratzeko modua.	245
▪ 367. artikulua. Lekukoarentzako galdera orokorrak.	245
▪ 368. artikulua. Formulaturako galderen edukia eta onargarritasuna.	246
▪ 369. artikulua. Galderen onarpena aurkaratzea eta ez-onartzearen aurka protestatzea.	246
▪ 370. artikulua. Onartutako galderei buruz lekukoa aztertzea. Lekuko aditua.	246
▪ 371. artikulua. Sekretua gordetzeko eginbeharra duten lekukoak.	247
▪ 372. artikulua. Galdeketa alderdiek esku hartzea eta hura zabaltzea.	247
▪ 373. artikulua. Bekaldura lekukoen artean eta haien eta alderdien artean.	247
▪ 374. artikulua. Lekuko-deklarazioak jasotzeko modua.	247
▪ 375. artikulua. Lekukoentzako kalte-ordainak.	248
▪ 376. artikulua. Lekukoen deklarazioak baloratzea.	248
▪ 377. artikulua. Lekukoen narriokak.	248
▪ 378. artikulua. Narrioen denbora.	249
▪ 379. artikulua. Narrioei buruzko frogak eta aurkakotza.	249
▪ 380. artikulua. Txosten idatzietan jasota dauden egitatei buruzko galdeketa.	249
▪ 381. artikulua. Pertsona juridikoen eta erakunde publikoen ardurapeko erantzun idatziak.	250
8. atala. Hitzaren, soinuaren eta irudiaren erreproduktzioaz eta prozesurako garrantzitsuak diren datuak artxibatzea eta ezagutzea ahalbidetzen duten tresnez	250
▪ 382. artikulua. Filmatzeko, grabatzeko eta antzeko tresnak. Froga-balioa.	251
▪ 383. artikulua. Erreproduktzioaren akta eta kasuan kasuko materialen zaintza.	251
▪ 384. artikulua. Prozesurako garrantzitsuak diren datuak artxibatzea, ezagutzea edo erreproduktzea ahalbidetzen duten tresnez.	251
9. atala. Presuntzioez	252
▪ 385. artikulua. Legezko presuntzioak.	252
▪ 386. artikulua. Presuntzio judizialak.	252
VII. KAPITULUA	252
Arazo intzidentalez	252
▪ 387. artikulua. Arazo intzidentalen kontzeptua.	252
▪ 388. artikulua. Prozedurari buruzko arau orokorra.	253
▪ 389. artikulua. Pronuntziatzen bereziko arazo intzidentalak.	253
▪ 390. artikulua. Aurretiaz pronuntziatu beharreko arazo intzidentalak. Demandaren aribidea etetea.	253
▪ 391. artikulua. Aurretiaz pronuntziatu beharreko arazoak. Kasuak.	253
▪ 392. artikulua. Arazo intzidentalen planteamendua. Halakoak ez direnak ez onartzea.	253
▪ 393. artikulua. Arazo intzidentalak onartzea, bideratzea eta erabakitzea.	254
VIII. KAPITULUA	254
Kostuak ordaintzeko kondenaz	254
▪ 394. artikulua. Lehen auzialdiko kostuak ordaintzeko kondena.	254
▪ 395. artikulua. Kostuak ordaintzeko kondena, amore ematen denean.	255



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 396. artikulua. Kostuak ordaintzeko kondena, atzera egiteagatik amaitzen denean prozesua.	255
▪ 397. artikulua. Apelazioa kostuen gaian.	256
▪ 398. artikulua. Kostuak apelazioan eta kasazio-errekurtsoan.	256
II. TITULUA	256
Judizio arruntaz	256
I. KAPITULUA	256
Hasierako alegazioez	256
1. atala. Demandaz eta haren objektuaz	256
▪ 399. artikulua. Demanda eta haren edukia.	256
▪ 400. artikulua. Egitateak eta oinarri juridikoak alegatzearen preklusioa.	257
▪ 401. artikulua. Akzio-metaketaaren preklusio-unea. Demandaren zabaltze objektiboa eta subjektiboa.	257
▪ 402. artikulua. Akzio-metaketa aurka egitea.	258
▪ 403. artikulua. Demanda onartzea, eta hura ez onartzeko salbuespenezko kasuak.	258
▪ 404. artikulua. Demanda onartzea, demandatua epatzea eta erantzuteko epea.	258
2. atala. Demanda-erantzunaz eta errekonbentzioaz	258
▪ 405. artikulua. Demandari erantzuna eta erantzunaren forma.	258
▪ 406. artikulua. Errekonbentzioaren edukia eta forma. Demandarekin loturarik ez duen errekonbentzioaren eta errekonbentzio inplizituaren onartezintasuna.	259
▪ 407. artikulua. Errekonbentzio-demandaren helburuko pertsonak. Errekonbentzioari erantzutea.	260
▪ 408. artikulua. Konpentsatzeko eta demandaren oinarri den negozio juridikoa deuseztatzeko alegazioaren tratamendu prozesala. Gauza epaitua.	260
▪ 409. artikulua. Erantzunaren eta errekonbentzioaren uziak bideratzea eta erabakitzea.	260
3. atala. Prozesua ebazkizun egotearen ondoreez	260
▪ 410. artikulua. Auzibitatearen hasiera.	261
▪ 411. artikulua. Jurisdikzioaren betikotasuna.	261
▪ 412. artikulua. Demanda aldatzeko debekua eta aldaketa onargarriak.	261
▪ 413. artikulua. Inguruabarren aldaketaren eragina funtsari buruzko epaian. Prozesutik kanpo asebetetzea. Interes legitimoa galtzea.	261
II. KAPITULUA	261
Judizio aurreko entzunaldiaz	261
▪ 414. artikulua. Entzunaldiaren helburua, une prozesala eta subjektu esku-hartzaileak.	262
▪ 415. artikulua. Adiskidetze- edo transakzio-ahalegina. Largespena, aldebiko atzera-egiteagatik. Akordioaren homologazioa eta efikazia.	263
▪ 416. artikulua. Arazo prozesalak aztertzea eta ebaztea, jurisdikzioari eta eskumenari buruzkoak bazter utzita.	263
▪ 417. artikulua. Arazo prozesalak aztertzeko hurrenkera eta haiei buruzko ebazpena.	264
▪ 418. artikulua. Gaitasun- edo ordezkaritza-akatsak. Haiek ez konpontzearen edo zuzentzearen ondoreak. Auzi-ihesaren deklarazioa.	264
▪ 419. artikulua. Akzio-metaketa onartzea.	264
▪ 420. artikulua. Auzia borondatez osatu ahal izatea. Ebazpena, beharrezkoa den auzikidetzaren kasu eztabaidagarrietan.	265
▪ 421. artikulua. Ebazpena, auzibitate edo gauza epaitua dagoenean.	265
▪ 422. artikulua. Ebazpena, muntagatik prozedura desegokia denean.	266
▪ 423. artikulua. Ebazpena, gaiagatik prozedura desegokia denean.	266
▪ 424. artikulua. Jarduera eta ebazpena, demanda akastuna denean.	266
▪ 425. artikulua. Erabaki judiziala, berariaz aurreikusitakoen antzekoak diren inguruabar prozesalak daudenean.	267
▪ 426. artikulua. Alegazio osagarriak eta argigarriak. Uzi osagarriak. Demandaren eta erantzunaren ostean gertatutako edo ezagututako egitateak. Puntu horiei buruzko dokumentuen aurkezpena.	267



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 427. artikulua. Alderdien jarrera aurkeztutako dokumentuen eta irizpenen aurrean.	268
▪ 428. artikulua. Egitate eztabaidagarriak finkatzea eta berehalako epai posiblea.	268
▪ 429. artikulua. Froga proposatzea eta onartzea. Judizioaren seinalamendua.	268
▪ 430. artikulua. Judizioaren beste seinalamendu bat eskatzea.	270
III. KAPITULUA	270
Judizioaz	270
▪ 431. artikulua. Judizioaren helburua.	270
▪ 432. artikulua. Alderdiak agertzea eta ez agertzea.	270
▪ 433. artikulua. Judizio-ekitaldiaren garapena.	270
IV. KAPITULUA	271
Epaiaz	271
▪ 434. artikulua. Epaia.	271
▪ 435. artikulua. Azken eginbideak. Bidezketasuna.	272
▪ 436. artikulua. Azken eginbideak gauzatzeko epea. Osteko epaia.	272
III. TITULUA	272
Hitzezko judizioaz	272
▪ 437. artikulua. Demandaren forma. Akzio-metaketa objektiboa eta subjektiboa.	273
▪ 438. artikulua. Demandaren onarpena eta erantzuna. Errekonbentzioa.	274
▪ 438 bis artikulua. Lekuko-prozedura.	276
▪ 439. artikulua. Demanda ez onartzea kasu berezietan.	277
▪ 440. artikulua. Ikustaldirako zitazioa.	279
▪ 441. artikulua. Kasu bereziak hitzezko judizioaren hasierako izapidetean.	280
▪ 442. artikulua. Alderdiak ikustaldira ez joatea.	283
▪ 443. artikulua. Ikustaldiaren garapena.	283
▪ 444. artikulua. Aurka egiteko kausa tasatuak.	284
▪ 445. artikulua. Froga, azken eginbideak eta presuntzioak hitzezko judizioetan.	285
▪ 446. artikulua. Frogari buruzko ebazpenak, eta errekursoak.	285
▪ 447. artikulua. Epaia. Gauza epaiturik eza kasu berezietan.	285
▪ 447 bis artikulua. Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak jabetza industrialaren arloan eman dituen eta administrazio-bidea agortzen duten ebazpenen aurkako errekursoak izapidetzeko berezitasunak.	286
IV. TITULUA	287
Errekurtsoez	287
I. KAPITULUA	287
Errekurtsoez: xedapen orokorrak	287
▪ 448. artikulua. Errekurtsa jartzeko eskubideaz.	287
▪ 449. artikulua. Errekurtziko eskubidea kasu berezietan.	288
▪ 450. artikulua. Errekurtsoetan atzera egiteaz.	288
II. KAPITULUA	289
Berraztertze- eta berrikuspen-errekurtsoez	289
▪ 451. artikulua. Berraztertzean errekurrituak diren ebazpenak. Etete-ondorerik eza.	289
▪ 452. artikulua. Berraztertze-errekurtsoaren epea, forma eta ez-onartzea.	289
▪ 453. artikulua. Alderdi errekurrituen entzunaldiaz eta ebazpenaz.	289
▪ 454. artikulua. Ebazpen judizialen aurkako berraztertze-errekurtsa ebazten duen autoaren errekurrieintasuna.	290
▪ 454 bis artikulua. Berrikuspen-errekurtsa.	290
III. KAPITULUA	290
Apelazio-errekurtsoaz eta bigarren auzialdiaz	290
1. atala. Apelazio-errekurtsoaz eta bigarren auzialdiaz: xedapen orokorrak	290



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 455. artikulua. Apelazioan errekurragarriak diren ebazpenak. Eskumena eta lehentasunezko izapidetzea.	291
▪ 456. artikulua. Apelazio-errekurtsoaren eremua eta ondoreak.	291
2. atala. Apelazioa bideratzeaz	291
▪ 457. artikulua. Apelazioa prestatzea.	292
▪ 458. artikulua. Errekurtsoa jartzea.	292
▪ 459. artikulua. Apelazioa, arau edo berme prozesalak hausteagatik.	292
▪ 460. artikulua. Errekurtsoa jartzeko idazkiarekin batera aurkez daitezkeen dokumentuak. Frogak eskatzea.	293
▪ 461. artikulua. Errekurtsoa jartzeko idazkia alderdi apelatuari helaraztea. Errekurtsoari aurka egitea eta epaia aurkaratzea.	293
▪ 462. artikulua. Lehen auzialdiko auzitegiaren eskumena apelazioan zehar.	294
▪ 463. artikulua. Errekurritutako ebazpenaren behin-behineko betearazpena.	294
▪ 464. artikulua. Frogak onartzea eta ikustaldia seinalatzea.	294
▪ 465. artikulua. Apelazioa ebaztea.	294
▪ 466. artikulua. Bigarren auzialdiko epaiaren aurkako errekurtsok.	295
▪ 467. artikulua. Kasazio-errekurtsoa, arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsok baietsi ostean probintzia-azuzitegiek emandako epaien aurkakoa.	295
IV. KAPITULUA	296
Arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsok	296
▪ 468. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpen errekurragarriak.	296
▪ 469. artikulua. Zioak. Aurretiazko salaketa auzialdian.	296
▪ 470. artikulua. Errekurtsoa jartzea.	296
▪ 471. artikulua. Errekurtsoa jartzeko idazkiaren edukia.	296
▪ 472. artikulua. Autoak igortzea.	296
▪ 473. artikulua. Onarpena.	296
▪ 474. artikulua. Alderdi errekurrituen aurkakotza.	296
▪ 475. artikulua. Ikustaldia eta frogak.	297
▪ 476. artikulua. Epaia. Ondoreak.	297
V. KAPITULUA	297
Kasazio-errekurtsoak	297
▪ 477. artikulua. Kasazio-errekurtsoaren zioa eta kasazioan errekurragarriak diren ebazpenak.	297
▪ 478. artikulua. Eskumena. Errekurtsoen aldiberekotasuna.	298
▪ 479. artikulua. Errekurtsoa jartzea. Aurretiazko salaketa auzialdian. Lehentasunezko izapidetzea.	298
▪ 480. artikulua. Errekurtsoa prestatzeari buruzko ebazpena.	299
▪ 481. artikulua. Errekurtsoa jartzeko idazkiaren edukia.	299
▪ 482. artikulua. Autoak igortzea. Alderdiak epatzea. Ziurtagiriak egiteari ezezkoa ematea.	300
▪ 483. artikulua. Errekurtsoa onartzeari buruzko erabakia.	300
▪ 484. artikulua. Eskumenari buruzko erabakia onartze-izapidetan.	300
▪ 485. artikulua. Onartzea eta gainerako alderdiei helaraztea.	301
▪ 486. artikulua. Deliberamendua, bozketa eta epaitza. Balizko ikustaldia.	301
▪ 487. artikulua. Epaia. Ondoreak.	301
▪ 488. artikulua. Kasazioko eta arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsok bideratzea eta erabakitzea, auzi bereko auzilariak aparteko errekurtsok ezberdina aukeratzen dutenean.	302
▪ 489. artikulua. Foru-kasazioko eta arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsok bideratzea eta erabakitzea, auzi bereko auzilariak aparteko errekurtsok ezberdina aukeratzen dutenean.	302
VI. KAPITULUA	302
Legearen intereseko errekurtsok	302
▪ 490. artikulua. Legearen interesean errekurragarriak diren ebazpenak.	302



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 491. artikulua. Legearen interesean errekurritzeko legitimazioa.	303
▪ 492. artikulua. Jartzea eta bideratzea.	303
▪ 493. artikulua. Epaia.	303
VII. KAPITULUA	303
Kexa-errekurtsoaz	303
▪ 494. artikulua. Kexan errekurigarriak diren ebazpenak.	303
▪ 495. artikulua. Bideratzea eta erabakitzea.	303
V. TITULUA	304
Auzi-ihesaz eta epai irmoak hutsaltzeaz eta demandatu auzi-iheslaria berriro entzuteaz	304
▪ 496. artikulua. Auzi-ihesaren deklarazioa eta ondoreak.	304
▪ 497. artikulua. Jakinarazpenen araubidea.	304
▪ 498. artikulua. Ediktu bidez zitaturako edo epaturako demandatu auzi-iheslariari prozesua badela komunikatzea.	304
▪ 499. artikulua. Demandatuaren geroagoko agerraldia.	305
▪ 500. artikulua. Demandatu auzi-iheslariak errekurtso arruntak egikaritzea.	305
▪ 501. artikulua. Epai irmoa hutsaltzea auzi-iheslariaren eskariz. Zer kasutan den bidezkoa.	305
▪ 502. artikulua. Hutsaltze-akzioaren iraungitze-epeak.	305
▪ 503. artikulua. Gauza epaituaren ondorek gabeko epaien hutsalketa baztertea.	306
▪ 504. artikulua. Betearazpenaren balizko etendura. Hutsalketaren prozedura.	306
▪ 505. artikulua. Hutsaltze-epaia.	306
▪ 506. artikulua. Kostuak.	306
▪ 507. artikulua. Prozedura bideratzea epai baieslearen ondoren.	307
▪ 508. artikulua. Demandatuaren jarduerarik eza eta beste epai bat.	307
VI. TITULUA	307
Epai irmoen berrikuspenaz	307
▪ 509. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpen errekurigarriak.	307
▪ 510. artikulua. Zioak.	307
▪ 511. artikulua. Legitimazio aktiboa.	308
▪ 512. artikulua. Jartzeko epea.	308
▪ 513. artikulua. Gordailua.	309
▪ 514. artikulua. Bideratzea.	309
▪ 515. artikulua. Betearazpenaren balizko etendura.	309
▪ 516. artikulua. Erabakia.	310
III. LIBURUA	310
Nahitaezko betearazpenaz eta kautela-neurriez	310
I. TITULUA	310
Titulu betearazleez	310
I. KAPITULUA	310
Epaiez eta gainerako titulu betearazleez	310
▪ 517. artikulua. Akzio betearazlea. Titulu betearazleak.	311
▪ 518. artikulua. Epai judizialean edo ebazpen arbitralean edo bitartekaritza-akordioan oinarritutako akzio betearazlea iraungitzea.	312
▪ 519. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen akzio betearazlea, onuradunen banakako zehaztapenik ez duen kondena-epaian oinarritua. Kontratazioaren baldintza orokorreko buruzko akzio indibidualak egikaritu diren prozeduretan emandako epaien ondoreak hedatzea.	312



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 520. artikulua. Judizialak edo arbitralak ez diren tituluetan oinarritutako akzio betearazlea.	313
▪ 521. artikulua. Epai deklaratio hutsak eta epai eratzailak.	313
▪ 522. artikulua. Epai eratzaileri men egitea eta haiek betetzea. Beharrezkoak diren jardun judizialak eskatzea.	314
II. KAPITULUA	314
Atzerriko titulu betearazleez	314
▪ 523. artikulua. Betearazte-indarra Espainian. Prozedurari aplikagarri zaion legea.	314
II. TITULUA	314
Ebazpen judizialen behin-behineko betearazpenaz	314
I. KAPITULUA	314
Behin-behineko betearazpenaz: xedapen orokorrak	314
▪ 524. artikulua. Behin-behineko betearazpena: demanda eta edukia.	315
▪ 525. artikulua. Behin-behinean betearazgarriak ez diren epaiak.	315
II. KAPITULUA	316
Lehen auzialdian emandako kondena-epaien behin-behineko betearazpenaz	316
1. atala. Behin-behineko betearazpenaz eta hari aurka egiteaz	316
▪ 526. artikulua. Lehen auzialdiko kondena-epaien behin-behineko betearazpena. Legitimazioa.	316
▪ 527. artikulua. Behin-behineko betearazpena eskatzea, hura abiaraztea eta errekursoak.	316
▪ 528. artikulua. Behin-behineko betearazpenaren eta jardun betearazle zehatzen aurkakotza.	316
▪ 529. artikulua. Behin-behineko betearazpenaren edo jardun betearazle zehatzen aurkakotza bideratzea.	317
▪ 530. artikulua. Behin-behineko betearazpenaren eta neurri betearazle zehatzen aurkakotzari buruzko erabakia. Errekurriezintasuna.	318
▪ 531. artikulua. Behin-behineko betearazpenaren etendura, diruzko kondenak direnean.	318
2. atala. Behin-behinean betearazitako epaia errebokatzeaz edo konfirmatzeaz	319
▪ 532. artikulua. Behin-behinean betearazitako ebazpena konfirmatzea.	319
▪ 533. artikulua. Diru-zenbatekoa ordaintzeko kondenak errebokatzea.	319
▪ 534. artikulua. Errebokazioa, kondenak diruzkoak ez direnean.	320
III. KAPITULUA	320
Bigarren auzialdian emandako kondena-epaien behin-behineko betearazpenaz	320
▪ 535. artikulua. Bigarren auzialdian emandako epaiak behin-behinean betearaztea.	320
▪ 536. artikulua. Bigarren auzialdian konfirmatzea behin-behinean betearazitako ebazpena.	321
▪ 537. artikulua. Bigarren auzialdian behin-behinean betearazitako ebazpena errebokatzea.	321
III. TITULUA	321
Betearazpenaz: xedapen orokorrak	321
I. KAPITULUA	321
Betearazpenaren alderdiez	321
▪ 538. artikulua. Nahitaezko betearazpenaren alderdiak eta subjektuak.	321
▪ 539. artikulua. Ordezkaritza eta defentsa. Betearazpenaren kostuak eta gastuak.	322
▪ 540. artikulua. Betearazlea eta betearazpenpekoa, ondorengotza dagoenean.	322
▪ 541. artikulua. Betearazpena irabazpidezko ondasunetan.	323
▪ 542. artikulua. Betearazpena zordun solidarioaren aurka.	323
▪ 543. artikulua. Aldi baterako elkarteak edo entitateak.	324
▪ 544. artikulua. Nortasun juridikorik gabeko entitateak.	324
II. KAPITULUA	324
Auzitegi eskudunaz	324
▪ 545. artikulua. Auzitegi eskuduna. Ebazpenen forma nahitaezko betearazpenean.	324
▪ 546. artikulua. Lurralde-eskumena ofizioz aztertzea.	326
▪ 547. artikulua. Deklinatoria nahitaezko betearazpenean.	326



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

III. KAPITULUA	326
Betearazpena abiarazteaz	326
▪ 548. artikulua. Ebazpen prozesalak edo arbitralak edo bitartekaritza-akordioak betearazteko itxaronaldia.	326
▪ 549. artikulua. Demanda betearazlea. Edukia.	326
▪ 550. artikulua. Demanda betearazlearekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak.	327
▪ 551. artikulua. Betearazpen-agindu orokorra eta betearazpenaren abiaraztea.	328
▪ 552. artikulua. Betearazpena abiaraztea ukatzea. Ofiziozko kontrola. Errekurtsoak.	329
▪ 553. artikulua. Jakinarazpena.	330
▪ 554. artikulua. Berehalako neurriak betearazpena abiarazteko autoaren ostean.	330
▪ 555. artikulua. Betearazpenak metatzea.	330
IV. KAPITULUA	330
Betearazpenari aurka egiteaz eta legearen edo titulu betearazlearen aurkako betearazpen-egintzak aurkaratzeaz	331
▪ 556. artikulua. Ebazpen prozesalak edo arbitralak edo bitartekaritza-akordioak betearazteari aurka egitea.	331
▪ 557. artikulua. Titulu ez-judizialetan edo ez-arbitraletan oinarritutako betearazpenari aurka egitea.	331
▪ 558. artikulua. Aurkakotza, gehiegizko eskabideagatik. Berezitasunak.	332
▪ 559. artikulua. Akats prozesalengatik aurkakotza bideratzea eta ebaztea.	332
▪ 560. artikulua. Funtzari buruzko zioengatik aurkakotza bideratzea.	333
▪ 561. artikulua. Funtzari buruzko zioengatik aurkakotza ebazten duen autoa.	333
▪ 562. artikulua. Lege-haustea betearazpenaren aribidean aurkaratzea.	334
▪ 563. artikulua. Titulu betearazle judizialarekin kontraesanean dauden betearazpen-egintzak.	335
▪ 564. artikulua. Betearazpenpekoaren defentsa juridikoa, betearazpenari aurka egiteko kausetan ez dauden egitateetan eta egintzetan oinarritua.	335
V. KAPITULUA	335
Betearazpena eteteaz eta amaitzeaz	335
▪ 565. artikulua. Betearazpenaren etenduraren norainokoa eta arau orokorra.	335
▪ 566. artikulua. Epai irmoa hutsaltzen edota berrikusten denean, betearazpena etetea, largestea eta hari berriro ekitea.	336
▪ 567. artikulua. Errekurtso arruntak jartzea eta etetea.	336
▪ 568. artikulua. Etetea, konkurtso- edo aurrekonkurtso-egoerak daudenean.	336
▪ 569. artikulua. Etetea, prejudizialitate penalagatik.	337
▪ 570. artikulua. Betearazpenaren amaiera.	337
IV. TITULUA	337
Diruzko betearazpenaz	337
I. KAPITULUA	337
Diruzko betearazpenaz: xedapen orokorrak	337
▪ 571. artikulua. Titulu honen eremua.	338
▪ 572. artikulua. Zenbateko likidua. Betearazpena, eragiketen saldoagatik.	338
▪ 573. artikulua. Kontu-saldoa dela-eta, demanda betearazlearekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak.	338
▪ 574. artikulua. Betearazpena, korrituak aldakorrek direnean.	339
▪ 575. artikulua. Zenbatekoa zehaztea eta betearazpena abiaraztea.	339
▪ 576. artikulua. Berandutze prozesalaren korrituak.	340
▪ 577. artikulua. Zorra atzerri-dirutan.	340
▪ 578. artikulua. Epe berriak edo zor guztia mugaeguneratzea.	340
▪ 579. artikulua. Diruzko betearazpena, bereziki hipotekatutako edo pignoratutako ondasunak daudenean.	341
II. KAPITULUA	341
Ordaintze-errekerimenduaz	342



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 580. artikulua. Zer kasutan ez den bidezkoa ordaintze-errekerimendua.	342
▪ 581. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa ordaintze-errekerimendua.	342
▪ 582. artikulua. Ordaintze-errekerimenduaren tokia.	342
▪ 583. artikulua. Betearazpenpekoak ordaintzea. Kostuak.	342
III. KAPITULUA	343
Ondasunen enbargoaz	343
1. atala. Ondasunen trabaz	343
▪ 584. artikulua. Enbargoaren norainoko objektiboa eta nahikotasuna.	343
▪ 585. artikulua. Enbargoa saihestea kontsignazio bidez.	343
▪ 586. artikulua. Kontsignatutako zenbatekoaren destinoa.	343
▪ 587. artikulua. Enbargatzeko unea.	344
▪ 588. artikulua. Zehaztu gabeko enbargoaren deuseztasuna. Kreditu-erakundeetan irekitako kontuak enbargatzea.	344
▪ 589. artikulua. Betearazpenpekoaren ondasunak azaltzea.	344
▪ 590. artikulua. Betearazpenpekoaren ondarearen ikerketa judiziala.	345
▪ 591. artikulua. Elkarlanerako eginbeharra.	346
▪ 592. artikulua. Hurrenkera enbargoetan. Enpresak enbargatzea.	346
2. atala. Hirugarrenen ondasunen enbargoaz eta jabari-hirugarrengotzaz	347
▪ 593. artikulua. Betearazpenpekoarena izatea. Enbargoa ofizioz kentzeko debekua.	347
▪ 594. artikulua. Geroago eskualdatzea betearazpenpekoarenak ez diren ondasun enbargatuak.	348
▪ 595. artikulua. Jabari-hirugarrengotza. Legitimazioa.	348
▪ 596. artikulua. Jabari-hirugarrengotza jartzeko unea eta besterik gabe errefusatu ahal izatea.	348
▪ 597. artikulua. Bigarren hirugarrengotzaren eta geroagokoen debekua.	348
▪ 598. artikulua. Hirugarrengotza onartzearen ondoreak.	349
▪ 599. artikulua. Eskumena eta bideratzea.	349
▪ 600. artikulua. Legitimazio pasiboa. Borondatezko auzikidetza. Demandatua ez den betearazpenpekoaren esku-hartzea.	349
▪ 601. artikulua. Jabari-hirugarrengotzaren objektua.	349
▪ 602. artikulua. Ez erantzutearen ondoreak.	350
▪ 603. artikulua. Hirugarrengotzari buruzko ebazpena.	350
▪ 604. artikulua. Ebazpen baieslea eta enbargoa kentzea.	350
3. atala. Ondasun enbargaezinez	350
▪ 605. artikulua. Ondasun guztiz enbargaezinak.	350
▪ 606. artikulua. Betearazpenpekoaren ondasun enbargaezinak.	351
▪ 607. artikulua. Soldatak eta pentsioak enbargatzea.	351
▪ 608. artikulua. Mantenua emateko kondenagatiko betearazpena.	352
▪ 610. artikulua. Berrenbargoa. Ondoreak.	353
▪ 611. artikulua. Soberakina enbargatzea.	353
▪ 612. artikulua. Enbargoa hobetzea, murriztea eta aldatzea.	353
4. atala. Enbargatzailearen lehentasunaz eta eskubide hobeko hirugarrengotzaz	354
▪ 613. artikulua. Enbargoaren ondoreak. Prebentziozko idatzoharrak eta hirugarren edukitzaileak.	354
▪ 615. artikulua. Eskubide hobeko hirugarrengotzaren denbora.	355
▪ 616. artikulua. Eskubide hobeko hirugarrengotzaren ondoreak.	355
▪ 617. artikulua. Prozedura, legitimazio pasiboa eta auzikidetza.	355
▪ 618. artikulua. Ez erantzutearen ondoreak.	355
▪ 619. artikulua. Betearazleak amore ematea eta atzera egitea. Lehentasunezko hirugarrengotzadunak parte hartzea betearazpenaren kostuetan.	356



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 620. artikulua. Epaiaren ondoreak. Hirugarrengotzaren kostuak eta hirugarrengotzadunak parte hartzea betearazpenaren kostuetan.	356
5. atala. Ondasun higigarrien eta eskubideen trabaren bermeaz	357
▪ 621. artikulua. Diruaren, kontu korronteen eta soldaten enbargoaren bermeak.	357
▪ 622. artikulua. Korrituen, errenten eta fruituen enbargoaren bermea.	357
▪ 623. artikulua. Baloreen eta finantza-tresnen enbargoaren bermea.	358
▪ 624. artikulua. Ondasun higigarrien enbargo-eginbidea. Enbargoaren bermea.	358
▪ 625. artikulua. Efektu edo ondasuntza publikotzat hartzea.	358
▪ 626. artikulua. Gordailu judiziala. Gordailuzaina izendatzea.	359
▪ 627. artikulua. Gordailuzainaren erantzukizunak. Bitarteko gordailuzainak.	359
▪ 628. artikulua. Gordailuaren gastuak.	359
6. atala. Higiezinak eta inskribatzeko moduko bestelako ondasun batzuk enbargatzeko bermeaz	360
▪ 629. artikulua. Enbargoaren prebentziozko idatzoharra.	360
7. atala. Administrazio judizialaz	360
▪ 630. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa.	361
▪ 631. artikulua. Administrazioa eratzea. Administrazioaile eta kontu-hartzaileak izendatzea.	361
▪ 632. artikulua. Administrazioaile-karguaren edukia.	361
▪ 633. artikulua. Administrazioailearen jarduteko modua.	362
IV. KAPITULUA	362
Premiamendu-prozeduraz	362
1. atala. Ondasun enbargatuak diru bihurtzeko xedapen orokorrak	362
▪ 634. artikulua. Betearazleari zuzenean entregatzea.	362
▪ 635. artikulua. Akzioak eta beste sozietate-partaidetza mota batzuk.	363
▪ 636. artikulua. Aurreko artikuluetan ez dauden ondasunak edo eskubideak diru bihurtzea.	363
2. atala. Ondasun enbargatuak baloratzea	364
▪ 637. artikulua. Ondasunen balioespena.	364
▪ 638. artikulua. Aditu tasatzailea izendatzea, errekusatzea eta betearazleak eta betearazpenpekoak esku hartzea tasazioan.	364
▪ 639. artikulua. Aditu izendatuaren jarduna eta alderdien eta geroagoko hartzekodunen esku-hartzea tasazioan.	365
3. atala. Diru bihurtzeko hitzarmenaz	365
▪ 640. artikulua. Diru bihurtzeko hitzarmena, Justizia Administrazioaren letraduak onetsitakoa.	365
4. atala. Pertsonak edo erakunde espezializatuak ondasunak diru bihurtzeaz	366
▪ 641. artikulua. Pertsona edo erakunde espezializatuak ondasunak diru bihurtzea.	366
▪ 642. artikulua. Zamak irautea eta ezerezteak.	368
5. atala. Ondasun higigarrien enkanteaz	368
▪ 643. artikulua. Enkantea prestatzea. Balio handirik gabeko ondasun enbargatuak.	368
▪ 644. artikulua. Enkanterako deialdia.	368
▪ 645. artikulua. Enkantearen iragarkia eta publizitatea.	369
▪ 646. artikulua. Enkantearen iragarkiaren eta publizitatearen edukia.	369
▪ 647. artikulua. Eskaintza egiteko betekizunak. Betearazle lizitatzailerak.	369
▪ 648. artikulua. Enkante elektronikoa.	370
▪ 649. artikulua. Enkantearen garapena eta amaiera.	371
▪ 650. artikulua. Errematea onestea. Ordainketa. Ondasunak adjudikatzea.	372
▪ 651. artikulua. Ondasunak betearazleari adjudikatzea.	373
▪ 652. artikulua. Eskaintza egiteko eratutako gordailuen destinoa.	373
▪ 653. artikulua. Enkantearen porrota.	374



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 654. artikulua. Betearazleari ordaintzea, gerakinaren destinoa zehaztea, ordainketak egozte eta, betearazpena nahikoa ez denean, ordaintzeke dagoen zorra ziurtatzea.	374
6. atala. Ondasun higiezin enkanteaz	374
▪ 655. artikulua. Atal honen aplikazio-eremua, eta modu osagarrian aplikatzea aurreko ataleko xedapenak.	374
▪ 655 bis artikulua. Ondasun higiezin enkantea.	375
▪ 656. artikulua. Jabariaren eta zamen ziurtagiria.	376
▪ 658. artikulua. Betearazpenpekoaz bestelako pertsona baten izenean inskribatutako ondasuna.	377
▪ 659. artikulua. Geroago inskribatutako eskubideen titularrak.	378
▪ 660. artikulua. Komunikazioak egiteko modua.	378
▪ 661. artikulua. Betearazpena errentariei eta egitezko okupatzaileei komunikatzea. Edukitza-egoeraren publizitatea.	379
▪ 662. artikulua. Hirugarren edukitzailea.	379
▪ 663. artikulua. Higiezin enbargatuen titulazioa aurkeztea.	380
▪ 664. artikulua. Tituluak ez aurkeztea edo ez egotea.	380
▪ 665. artikulua. Titulu-gabezia osatu gabeko enkantea.	380
▪ 666. artikulua. Higiezinak baloratzea enkantera ateratzeko.	380
▪ 667. artikulua. Enkanterako deialdia.	381
▪ 668. artikulua. Iragarkiaren edukia eta enkanterearen publizitatea.	381
▪ 669. artikulua. Enkanterearen baldintza bereziak.	382
▪ 670. artikulua. Errematea onestea. Ordainketa. Ondasunak hartzekodunari adjudikatzea.	382
▪ 671. artikulua. Posturagilerik gabeko enkantea.	384
▪ 672. artikulua. Higiezin enkantean lortutako zenbatekoen destinoa.	384
▪ 673. artikulua. Eskurapenaren inskripzioa: titulu.	384
▪ 674. artikulua. Zamak ezereztea.	385
▪ 675. artikulua. Edukitza judiziala eta higiezinaren okupatzaileak.	385
7. atala. Ordaintzeko administrazioaz	386
▪ 676. artikulua. Administrazioa eratzea.	386
▪ 677. artikulua. Administrazio modua.	386
▪ 678. artikulua. Kontu-ematea.	387
▪ 679. artikulua. Administrazioari buruzko eztabaidak.	387
▪ 680. artikulua. Administrazioa amaitzea.	387
V. KAPITULUA	387
Ondasun hipotekatu edo pignoratu gaine betearazpenaren berezitasunez	387
▪ 681. artikulua. Bahi edo hipoteka bidez bermatutako zorren ordainketa galdatzeko prozedura.	388
II. KAPITULUA	399
Gauzak entregatzeko eginbeharrengatiko betearazpenaz	399
▪ 701. artikulua. Gauza higigarri zehatza entregatzea.	399
▪ 702. artikulua. Gauza generikoak edo zehaztugabeak entregatzea.	400
▪ 703. artikulua. Ondasun higiezinak entregatzea.	400
▪ 704. artikulua. Entregatu beharreko higiezinaren okupatzaileak.	401
III. KAPITULUA	401
Zerbait egiteko eta ez egiteko betebeharrengatiko betearazpenaz	401
▪ 705. artikulua. Errekerimendua egitea eta epea finkatzea.	401
▪ 706. artikulua. Guztiz pertsonala ez den zerbait egiteko kondena.	402
▪ 707. artikulua. Epaia komunikabideetan publikatzea.	402
▪ 708. artikulua. Borondate-deklarazio bat egitera kondenatzea.	402
▪ 709. artikulua. Guztiz pertsonala den zerbait egiteko kondena.	403



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 710. artikulua. Zerbait ez egiteko kondenak.	404
▪ 711. artikulua. Hertsapen-isunen munta.	404
IV. KAPITULUA	404
Kalte-galeren, fruituen eta errenten likidazioaz eta kontu-emateaz	404
▪ 712. artikulua. Prozeduraren aplikazio-eremua.	404
▪ 713. artikulua. Likidazioa eskatzea eta kalte-galeren zerrenda aurkeztea.	405
▪ 714. artikulua. Zorduna kalte-galeren zerrendarekin ados egotea.	405
▪ 715. artikulua. Zordunak aurka egitea.	405
▪ 716. artikulua. Zenbateko zehatza finkatzen duen autoa.	405
▪ 717. artikulua. Ez-diruzko prestazio baten diruzko baliokidea zehazteko eskabidea.	406
▪ 718. artikulua. Fruituen eta errenten likidazioa. Eskaera, eta zordunari errekerimendua egitea.	406
▪ 719. artikulua. Hartzekodunak likidazioa aurkeztea eta hura zordunari helaraztea.	406
▪ 720. artikulua. Administrazio baten kontuak ematea.	406
VI. TITULUA	407
Kautela-neurriez	407
I. KAPITULUA	407
Kautela-neurriez: xedapen orokorrak	407
▪ 721. artikulua. Beharrezko alderdi-eskaria.	407
▪ 722. artikulua. Kautela-neurriak prozedura arbitralean eta atzerriko auzietan.	407
▪ 723. artikulua. Eskumena.	408
▪ 724. artikulua. Eskumena kasu berezietan.	408
▪ 725. artikulua. Eskumena ofizioz aztertzea. Prebentzioz kautela-neurriak agintzea.	408
▪ 726. artikulua. Kautela-neurrien ezaugarriak.	408
▪ 727. artikulua. Kautela-neurri zehatzak.	409
▪ 728. artikulua. Arriskua, berandutze prozesalagatik. Eskubide onaren itxura. Kauzioa.	410
▪ 729. artikulua. Hirugarrengotzak, prebentziozko enbargoa dagoenean.	411
II. KAPITULUA	411
Kautela-neurriak hartzeko prozeduraz	411
▪ 730. artikulua. Kautela-neurriak eskatzeko uneak.	411
▪ 731. artikulua. Kautela-neurrien eransgarritasuna. Behin-behineko betearazpena eta kautela-neurriak.	412
▪ 732. artikulua. Kautela-neurrien eskaera.	412
▪ 733. artikulua. Demandatuari entzutea. Salbuespenak.	412
▪ 734. artikulua. Alderdiei entzuteko ikustaldia.	413
▪ 735. artikulua. Kautela-neurriak hartzea erabakitzen duen autoa.	413
▪ 736. artikulua. Kautela-neurriak ukatzen dituen autoa. Eskaera berriro egitea, inguruabarrak aldatuz gero.	414
▪ 737. artikulua. Kauzioa ematea.	414
▪ 738. artikulua. Kautela-neurria betearaztea.	414
III. KAPITULUA	414
Demandatuari entzun gabe hartutako kautela-neurriei aurka egiteaz	414
▪ 739. artikulua. Kautela-neurriari aurka egitea.	415
▪ 740. artikulua. Aurka egiteko kausak. Ordezko kauzioa eskaintzea.	415
▪ 741. artikulua. Aurkakotza eskatzaileari helaraztea, ikustaldian agertzea eta erabakia hartzea.	415
▪ 742. artikulua. Kalte-galerak ordainaraztea.	415
IV. KAPITULUA	415
Kautela-neurriak aldatzeaz eta kentzeaz	416
▪ 743. artikulua. Kautela-neurriak aldatu ahal izatea.	416
▪ 734. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera bideratu eta ebatziko da aldaketa-eskaera.	416



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ 744. artikulua. Neurria kentzea, epai ez-irmoaren ondoren.	416
▪ 745. artikulua. Neurriak kentzea, absoluzio-epai irmoaren ondoren.	416
V. KAPITULUA	416
Kautela-neurrien ordezeko kauzioaz	416
▪ 746. artikulua. Ordezko kauzioa.	417
▪ 747. artikulua. Ordezko kauzioa eskatzea.	417
IV. LIBURUA	417
Prozesu bereziez	417
I. TITULUA	417
Desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko neurri judizialak xedatzeari, filiazioari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuez	417
I. KAPITULUA	418
Xedapen orokorrez	418
▪ 748. artikulua. Titulu honen aplikazio-eremua.	418
▪ 749. artikulua. Fiskaltzaren esku-hartzea.	418
▪ 750. artikulua. Alderdien ordezkaritza eta defentsa.	419
▪ 751. artikulua. Prozesuaren objektuaren xedaezintasuna.	419
▪ 752. artikulua. Froga.	419
▪ 753. artikulua. Izapidetzea.	420
▪ 754. artikulua. Publizitatea baztertzea.	421
▪ 755. artikulua. Epaiak erregistro publikoetara iristea.	421
II. KAPITULUA	421
Desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko neurri judizialak hartzeari buruzko prozesuez	421
▪ 756. artikulua. Aplikazio-eremua eta eskumena.	421
▪ 757. artikulua. Legitimazioa eta esku-hartze prozesala.	422
▪ 758. artikulua. Erregistro-ziurtagiria eta demandatua pertsonatzea.	422
▪ 759. artikulua. Nahitaezko frogak lehen eta bigarren auzialdian.	422
▪ 760. artikulua. Epaiak.	423
▪ 761. artikulua. Judizialki hartutako laguntza-neurriak berrikustea.	423
▪ 762. artikulua. Kautela-neurriak.	424
III. KAPITULUA	425
Filiaziori, aitasunari eta amatasunari buruzko prozesuez	425
▪ 764. artikulua. Filiazioa lege zehaztea, epai irmo bidez.	425
▪ 765. artikulua. Seme edo alaba adingabeari edo desgaitasuna izan eta laguntza behar duen seme-edo alabari dagozkion akzioak egikaritzea. Prozesuko ondorengotza.	425
▪ 767. artikulua. Berezitasunak prozedura- eta froga-gaietan.	426
▪ 768. artikulua. Kautela-neurriak.	426
IV. KAPITULUA	427
Ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuez	427
▪ 769. artikulua. Eskumena.	427
▪ 770. artikulua. Prozedura.	427
▪ 771. artikulua. Behin-behineko neurriak, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda baino lehenagokoak. Eskaera, agerraldia eta ebazpena.	429
▪ 772. artikulua. Demanda baino lehenagoko behin-behineko neurriak konfirmatzea edo aldatzea, hura onartzen denean.	430



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

- 773. artikulua. Behin-behineko neurriak, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda onartzetik eratorritakoak. 430
- 774. artikulua. Behin betiko neurriak. 431
- 775. artikulua. Behin betiko neurriak aldatzea. 431
- 776. artikulua. Nahitaez betearaztea neurriei buruzko pronuntziamentuak. 432
- 777. artikulua. Elkarrekin adostuta edo ezkontideetako batek bestea ados egonda eskaturiko banantzea edo dibortzioa. 432
- 778. artikulua. Eliza-auzitegien ebazpenen edo ezkontza rato eta burutugabeari buruzko erabaki pontifikalen efikazia zibila. 434

IV BIS KAPITULUA

437

Adingabeak itzultzeari edo bueltatzeari buruzko neurriak, nazioarteko oste kasuetan

437

- 778 quater artikulua. Aplikazio-eremua. Arau orokorrak. 437
- 778 quinquies artikulua. Prozedura. 438
- 778 sexies artikulua. Nazioarteko lekualdaketa edo atxikipen bat zilegia ez dela deklaratzeko. 441

V. KAPITULUA

441

Adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenei aurka egiteaz, adopzioan baiezkkoa eman beharra zehazteko prozeduraz eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak erregistro zibilarren gaian emandako ebazpen eta egintza jakin batzuei aurka egiteaz.

442

- 779. artikulua. Prozeduraren lehentasunezko izaera. Eskumena. 442
- 780. artikulua. Adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenei aurka egitea. 442
- 781. artikulua. Adopzioan baiezkkoa eman beharra zehazteko prozedura. 443
- 781 bis artikulua. Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak erregistro zibilarren gaian emandako ebazpenei eta egintzei aurka egitea. 444

II. TITULUA

444

Ondareen zatiketa judizialaz

444

I. KAPITULUA

444

Jaraunspenaren zatiketaz

444

1. atala. Jaraunspena zatitzeko prozeduraz

444

- 782. artikulua. Jaraunspenaren zatiketa judiziala eskatzea. 445
- 783. artikulua. Batzarrerako deialdia, kontularia eta adituak izendatzeko. 445
- 784. artikulua. Kontularia eta adituak izendatzea. 446
- 785. artikulua. Kontulariari dokumentazioa entregatzea. Onartutako enkargua betetzeko betebeharra eta hura egiteko epea. 446
- 786. artikulua. Zatiketa-eragiketak gauzatzea. 446
- 787. artikulua. Zatiketa-eragiketak onestea. Haiei aurka egitea. 447
- 788. artikulua. Jaraunsle bakoitzari adjudikatutako ondasunak entregatzea. 448
- 789. artikulua. Prozedura amaitzea, jaraunskideen akordioagatik. 448
- 790. artikulua. Jaraunspeneko ondasunak eta hildakoaren dokumentuak segurtatzea. 448
- 791. artikulua. Jaraunspenaren gaineko esku-hartze judiziala, jasota ez badago badela testamenturik edo oinordetza legitimora deitutako ahaidetik. 449
- 792. artikulua. Jaraunspenaren gaineko esku-hartze judiziala, jaraunsle-deklarazioa edo jaraunspenaren zatiketa judiziala izapidetzen ari den bitartean. Jaraunspenaren hartzekodunen eskariz esku hartzea. 450
- 793. artikulua. Lehenengo jardunak eta interesdunak zitatzea inbentarioa egiteko. 450
- 794. artikulua. Inbentarioa egitea. 451
- 795. artikulua. Jaraunspeneko ondasuntza administratzeari, zaintzeari eta kontserbatzeari buruzko ebazpena. 451
- 796. artikulua. Jaraunspenaren gaineko esku-hartze judiziala amaitzea. 452
- 797. artikulua. Jaraunspen-administratzailearen karguaren jabetza. 452



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

- 798. artikulua. Jaraunspena administratzaileak ordezkatzeara. 453
- 799. artikulua. Kontuak periodikoki ematea. 453
- 800. artikulua. Azken kontu-ematea. Kontuak aurkaratzeara. 453
- 803. artikulua. Inbentarioko ondasunak besterentzeko debekua. Debeku horren salbuespenak. 454
- 804. artikulua. Administratzailearen ordainsaria. 455
- 805. artikulua. Mendeko administrazioak. 455

II. KAPITULUA 455

Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko prozeduraz 455

- 806. artikulua. Aplikazio-eremua. 455
- 807. artikulua. Eskumena. 456
- 808. artikulua. Inbentarioa eskatzea. 456
- 809. artikulua. Inbentarioa egitea. 456
- 810. artikulua. Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeara. 457
- 811. artikulua. Partaidetza-eraentza likidatzeara. 457

III. TITULUA 458

Prozesu monitorioaz eta kanbio-prozesuaz 458

I. KAPITULUA 458

Prozesu monitorioaz 458

- 812. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa prozesu monitorioa. 458
- 813. artikulua. Eskumena. 459
- 814. artikulua. Prozedura monitorioaren hasierako eskabidea. 459
- 815. artikulua. Eskabidea onartzea eta ordaintze-errekerimendua egitea. 459
- 816. artikulua. Zordun errekeritua ez agertzea eta betearazpena abiaraztea. Korrituak. 461
- 817. artikulua. Zordunak ordaintzea. 461
- 818. artikulua. Zordunak aurka egitea. 461

II. KAPITULUA 462

Kanbio-judizioaz 462

- 819. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa. 462
- 820. artikulua. Eskumena. 462
- 821. artikulua. Hasiera. Demanda. Ordaintze-errekerimendua eta prebentziozko enbargoa. 462
- 822. artikulua. Ordainketa. 463
- 823. artikulua. Enbargoa kentzea. 463
- 824. artikulua. Kanbio-aurkakotza. 463
- 825. artikulua. Aurkakotzarik ezaren ondoreak. 463
- 826. artikulua. Kanbio-aurkakotza bideratzea. 464
- 827. artikulua. Aurkakotzari buruzko epaia. Efikazia. 464
- Lehenengo xedapen gehigarria. Izaera arrunta eta eskumen-titulua. 464
- Bigarren xedapen gehigarria. Muntak eguneratzea. 465
- Hirugarren xedapen gehigarria. Ikustaldiak, entzunaldiak eta agerraldiak jasota uzteko bitarteko materialak eta giza baliabideak. 465
- Laugarren xedapen gehigarria. Dokumentuen eta tresnen kopiak lortzeko tasak. 465
- Bosgarren xedapen gehigarria. Prozesu zibil jakin batzuk arintzeko neurriak. 465
- Seigarren xedapen gehigarria. Ondasun higiezinak adjudikatzea. 468
- Zazpigarren xedapen gehigarria. 468
- Zortzigarren xedapen gehigarria. Aurrekariak bitarteko elektronikoen bidez bidaltzea. 469
- Bederatzigarren xedapen gehigarria. Sistema elektronikoen gauzatutako funtzio prozesalak. 469
- Hamargarren xedapen gehigarria. Irtenbide teknologiko seguruak izatea. 469





1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

▪ Lehenengo xedapen iragankorra. Ebazpen interlokutorioen edo behin betikoak ez diren ebazpenen aurkako errekurtsoen araubidea.	469
▪ Bigarren xedapen iragankorra. Prozesuak lehen auzialdian.	470
▪ Hirugarren xedapen iragankorra. Prozesuak bigarren auzialdian.	470
▪ Laugarren xedapen iragankorra. Auzigaiak kasazioan.	470
▪ Bosgarren xedapen iragankorra. Judizio betearazleak.	470
▪ Seigarren xedapen iragankorra. Nahitaezko betearazpena.	470
▪ Zazpigarren xedapen iragankorra. Kautela-neurriak.	471
▪ Xedapen indargabetzaile bakarra.	471
▪ Azken xedapenetako lehenengoa. Jabetza Horizontalaren Legearen erreforma.	473
▪ Azken xedapenetako bigarrena. Jabetza Intelektualari buruzko Legearen erreforma.	474
▪ Azken xedapenetako hirugarrena. Sozietate Anonimoen Legearen erreforma.	475
▪ Azken xedapenetako laugarrena. Lehia Desleialari buruzko Legearen erreforma.	475
▪ Azken xedapenetako bosgarrena. Patenteen Legearen erreforma.	475
▪ Azken xedapenetako seigarrena. Kontratueta Baldintza Orokorrei buruzko Legearen erreforma.	476
▪ Azken xedapenetako zazpigarrena. Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko Legearen erreforma.	477
▪ Azken xedapenetako zortzigarrena. Arbitrajeko Legearen erreforma.	478
▪ Azken xedapenetako bederatzigarrena. Hipoteka Legearen erreforma.	478
▪ Azken xedapenetako hamargarrena. Kanbio-letra eta Txekeari buruzko Legearen erreforma.	481
▪ Azken xedapenetako hamaikagarrena. Lan-arloko Prozeduraren Legearen erreforma.	481
▪ Azken xedapenetako hamabigarrena. Prozedura Kriminalaren Legearen erreforma.	484
▪ Azken xedapenetako hamahirugarrena. Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilar eta Aseguruari buruzko Legearen erreforma.	486
▪ Azken xedapenetako hamalaugarrena. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen erreforma.	486
▪ Azken xedapenetako hamabosgarrena. Doako Laguntza Juridikoaren Legearen erreforma.	486
▪ Azken xedapenetako hamaseigarrena. Araubide iragankorra aparteko errekurtsoen gaian.	486
▪ Azken xedapenetako hamazazpigarrena. Araubide iragankorra abstentzioari eta errekusazioari, jardunen deuseztasunari eta ebazpenak argitzeari eta zuzentzeari buruzko gaitan.	487
▪ Azken xedapenetako hemezortzigarrena. Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legearen proiektua.	487
▪ Azken xedapenetako hemeretzigarrena. Konkurtso Legearen proiektua.	487
▪ Azken xedapenetako hogeigarrena. Gai Zibileko Nazioarteko Lankidetzaren Juridikoari buruzko Legearen proiektua.	487
▪ Azken xedapenetako hogeita batgarrena. 805/2004 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 21ekoa —aurkaratu ez diren kredituentzat Europako titulu betearazle bat ezartzen duena—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.	487
▪ Azken xedapenetako hogeita bigarrena. 2201/2003 (EE) Erregelamendua, Kontseiluarena, 2003ko azaroaren 27koa —ezkontza eta guraso-erantzukizuna gai duten ebazpen judizialen eskumenari, aitortpenari eta betearazpenari buruzkoa— Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.	489
▪ Azken xedapenetako hogeita hirugarrena. 1896/2006 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa —Europako prozesu monitorioa ezartzen duena—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.	490
▪ Azken xedapenetako hogeita laugarrena. 861/2007 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2007ko uztailaren 11koa —Europako munta txikiko prozesua ezartzen duena—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.	492
▪ Azken xedapenetako hogeita bosgarrena. 1215/2012 (EB) Erregelamendua, Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko abenduaren 12koa —gai zibileko eta merkataritzako ebazpen judizialen eskumen judizialari, aintzatespenari eta betearazpenari buruzkoa—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.	494



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

- Azken xedapenetako hogeita seigarrena. 650/2012 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko uztailaren 4koa —eskumenari, lege aplikagarriari, ebazpenen aintzatespenari eta betearazpenari buruzkoa, «mortis causa» oinordetzen gaian dokumentu publikoen onarpenari eta betearazpenari buruzkoa eta Europako oinordetza-ziurtagiria sortzeari buruzkoa—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak. 498
- Azken xedapenetako hogeita zazpigarrena. 655 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko maiatzaren 15ekoa —kontuak atxikitzeko Europako aginduari buruzko prozedura ezartzen duena gai zibileko eta merkataritzako zorren mugaz gaindiko kobrantzak sinplifikatzeko helburuarekin—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak. 503
- Azken xedapenetako hogeita zortzigarrena. Europar Batasuneko arauetan araututako prozesuen edo tresna prozesalen formularioak. 503
- Azken xedapenetako hogeita bederatzigarrena. Indarrean sartzea. 504



TESTU KONTOLIDATUA

JUAN CARLOS I.a
ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta Nik berronetsi egiten dudala.

ZIOEN AZALPENA

I

Babes judizial eraginkorra izateko guztiok dugun eskubidea, Konstituzioaren 24. artikulua lehenengo apartatua adierazita dagoena, bat dator gizarteak justizia zibil berri bat edukitzeko duen irrikarekin eta behararekin, eta, hain zuzen ere, eraginkortasuna du justizia berri horrek ezaugarritzat.

Justizia zibil eraginkorrak esan nahi du, justiziaren kontzeptuak berezko baitu, berme prozesal guztiak izatea. Baina, aldi berean, esan nahi izan behar du erantzun judizial azkarragoa ematea, denboran askoz hurbilagoa babes-eskaeretatik, eta gauzak aldatzeko gaitasun erreala handiagoarekin. Hortaz, tresna-multzo bat esan nahi du, tresnok bideratuta daudela kasu zehatzetan juridikotasuna behin betiko zehazteko behar den denbora murriztera, hau da, epai hurbilagoak prozesuaren hasieratik, kautela-neurri eskuragarriagoak eta efikazagoak, nahitaezko betearazpen arinagoa hura sustatu behar duenarentzat, eta eskubide zein interes legitimoak benetan asetzeko arrakasta-aukera gehiagoarekin.

Ez kreditu zibil edo merkataritzakoaren izaerak, ezta prozesu zibiletan ebatzi beharreko egoera pertsonal eta familiarrek ere, ez dute justifikatzen urteak igaro behar direnik harik eta lortu arte ebazpen efikaz bat, gai izango dena aldaketa erreala sortzeko auzitegi zibiletara jo beharra izan dutenen bizimoduan.

Babes judizial zibilaren eraginkortasunak berekin ekarri behar du Justizia hurbil dakiola justiziaepekoari, eta hori ez datza Justiziaren irudia hobetzean itxuraz irisgarriagoa dela agerrarazteko, baizik eta lan juridikzionala prozesalki egituratzean, halako moldez non auzitegiak auzigai bakoitza hobeto bideratu beharko baitu eta hartaz hobeto arduratu beharko baitu, hala hasierako planteamenduan eta, halakorik bada, eragozpenak nahiz aurrebaldintza prozesalen gabeziak arazteko beharri begira —ez baitago ezer eragingabeagorik prozesua auzialdiko absoluzio-epaiarekin bukatzea baino—, nola eztabaidagarria benetan zer den zehaztean eta froga gauzatzean eta baloratzean aintzat hartuta ahozkototasuna, publizitatea eta arartekogabetasuna. Horrela, prozesuaren errealitateak desegin egingo du Justizia urrunaren irudia, itxuraz izapide gehiegiren eta luzeen amaieran agertzen baita, izapideotan zaila izanik hautematea epaitegien, auzitegien eta haiek osatzen dituztenen interesa eta ahalegina.

Justizia zibil eraginkorrak, azken finean, esan nahi du epai hobeak izatea, gure zuzenbide-iturrien sistemaren barruan, etorkizunerako erreferentzia sendoak eratzen dituztenak eta, hartara, lagungarri direnak auziak saihesteko eta legearen aurreko berdintasuna indartzeko, betiere murriztu barik epaitzeko askatasuna eta beharrezkoak diren jurisprudentziaren eboluzio eta aldaketa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Prozedura zibilaren lege berri honek, bere osotasunean, inspirazio eta helburu du justiziapekoen interesa, alegia, subjektu juridiko ororen interesa, eta, horrenbestez, gizarte osoarena. Alde batera utzi gabe justizia zibilaren protagonista diren profesional guztien esperientzia, ikuspuntuak eta proposamenak, hala ere, lege honen begietan daude, lehenik eta behin eta batez ere, beren eskubide eta interes legitimoentzat benetako jurisdikzio-babes eraginkorra eskatzen edo eskatu ahal dutenak.

II

Xedapen guztiak helburu horietara bideratuta, prozedura zibilaren lege berri honek bat egiten du mundu osoan zentzuzkoagotzat hartu diren joera eraldatzaileekin eta, babes judiziala behar beste bakarrik atzeratzeko bidean, hau da, epaia prestatzeko nahitaezko jardunak gauzatuta eta epai egokia bermatuta norgehiagoka prozesal saihetsezinerako behar beste bakarrik atzeratzeko bidean, arrakasta erreal handiena izan duten esperientziekin.

Dagoeneko, munduan ez dira onartzen, oinarri juridiko ahulak dituztelako eta errealtatean porrot egin dutelako, justizia zibila berritzatzeko formula sinplistik, panazeatzat hartutako osagai gutxi batzuetan oinarritzen direnak. Esate baterako, gauza ohartarazia da ezen aldaketa positiboa ez datzala kosta ahala kosta edozein motatako kasutan egintza prozesalak bateratzean. Era berean, ez da gomendagarritzat jotzen, ezta efikaza denik frogatu ere, justizia zibileko protagonistei esleitu dakizkien zereginen funtsa eraldatzea.

Ezaguna da, bestalde, nolako emaitza kaskarrak izan dituzten erreforma mimetikoek, zeintzuek oinarri baitute eredu juridiko desberdinetako erakunde prozesalak handik hona aldatzea. Ez da zentzuzko oinarri nahikoa, mimetismo hori arrazoitzeko, auzitegiek edo tresna prozesalek izen berbera edo antzekoa izatea. Eta are zentzugabeagoa da joera, arrunki oharkabea, justizia propioa beste herrialde edo eremu geografiko eta kultural batzuetako justiziarekin oso-osorik ordeztzekoa. Ezbairik gabe, ezinezkoa da horrelako ordezpena, baina joera horren eragin hutsa oso asaldagarria da legeen erreformarako: arazo berriak eta larriagoak sortzen dira, hobekuntza nabaririk ia-ia proposatu edo lortu barik.

Besteren erakundeak eta esperientziak barneratzea positiboa izan dadin, ezinbestekoa da batzuk eta besteak ondo ezagutu eta ulertzea, eta horrek esan nahi du zehatz-mehatz ezagutu eta ulertu behar direla haiek osatzen duten eredu edo sistema osoa eta inspirazio-iturri dituzten printzipioak, haien sustrai historikoak, funtzionamenduaren aurrebaldintzak —giza aurrebaldintzetatik hasita— eta abantaila eta desabantaila errealak.

Prozedura zibilaren lege hau egiterakoan, baztertu egin da, aldaketarako metodo gisa, pieza isolatuak inportatu eta elkarren artean loturarik izan gabe ezartzea, horrek ezinbestean baitarama eredu-gabeziara edo koherentziarik gabeko sistemara, modu asaldagarrian elkarrekin nahasiz aurkako ereduak edo kontraesanezkoak. Legeak justizia zibil berri bat eratzen du; izan ere, egungo gure errealtatetik abiatuta xedatzen ditu, ez hitz eta manu isolatuen bidez, baizik eta erregulazio erabat artikulatu eta koherenteen bitartez, lehen aipatutako funtsezko berrikuntzak eta aldaketak, jurisdikzio zibilar dagokion babesa eraginkorra izan dadin, berme guztiek.



Lege prozesal zibil eta erkide berri bat egitean, ezin da alde batera utzi epaien eta ebazpenen egokitasuna, eta ezin zaio ekin erreformari erredukzionismo kuantitatibo eta estatistiko baztergarri batekin, soilik arduratuko baita auzigaiak ebazteaz eta lehen baino lehen ebazteaz. Babes judizial benetan eraginkorra eta azkarra behar denez gero eta bermeak murriztu gabe lor daitekeenez gero, lege honek nabarmen gutxitzen ditu izapideak eta errekursoak, baina, esanda dagoen bezala, ez du alde batera uzten alderdien arteko gatazkaren agerpen logiko eta justifikatu gisa uler daitekeen oro, ez eta, aldi berean, epaia emateko une prozesala behar bezain landuta egotea ere.

III

Historia eta kulturaren ikuspuntutik, aitortu behar da ikaragarria dela 1881eko Prozedura Zibilaren Legearen balioa. Alabaina, ikuspuntu hori dela bide, zeinak jasotzen baitu errealitatearen esangura, aitortu behar da ezen, jurisdikzio-ordena zibilean justizia hobeto banatzeko erreforma partzialen metodoa agortuta egoteaz gain, badagoela lege berri baten beharra, aurreko apartatueta adierazitako planteamenduak modu zeharo berritzailean bil eta egitura daitezen.

Aprobetxatu egin behar da mende batetik gorako esperientzia juridikoa, baina kode prozesal zibil berri bat behar da, gaindituko duena lege zaharraren konplexutasun handiak eta haren moldaketa kontaezinek eta xedapen bitxiegiak sortutako egoera. Batez ere, lege berri bat behar da, aurre egin eta erantzuna emango diona hainbat arazori, iragan mendeko legearekin konponezin edo ebazgaitz. Baina, batez ere, prozedura zibilaren lege berri bat behar da, zeinak, gure kultura-eremu bereko beste herrialde batzuetako lege prozesal zibiletako balio iraunkorreko printzipioak, erregelak eta irizpideak errespetatuz, egiazki adierazi eta hezurmamituko baitu babes judizialaren eraginkortasunarekiko konpromisoak berarekin dakarren mentalitate-aldaketa sakona, baita arlo zibilaz bestelako jurisdikzio-ordenetan ere; izan ere, lege prozesal osagarria eta erkidea izatekoa da lege berri hau.

Gizarte-eraldaketek eskatzen eta aldi berean ahalbidetzen dute erabateko prozesu-berrikuntza, erreforma partzial baten edo batzuen berezko edukia gainditzeko duena. Urte askotan, esparru juridiko-material berrien babes jurisdikzionalak eragin du erregela prozesal bereziak sortzea lege substantibo modernoetan, nahiz eta hori beti erabat justifikatuta egon ez. Baina gizarteak eta zuzenbidearen arloko profesionalek izaera orokorreko sinplifikazio bat eta aldaketa bat eskatzen dute, errealitateari bizkarra eman gabe —sarritan gero eta konplexuagoa baita—, baizik eta bide berriak sortuz konplexutasun hori modu egokian tratatzeko. Berrikuntza hori beharrezkoa zelako konbentzimenduaren lekukotza baliozkoa dira azken hamarkadetan Prozedura Zibilaren Lege berri baterako egindako lan ofizial eta partikular ugariak.

Estatu-zentzua gizarteari zor zaion zerbitzu eskuzabalaren adierazle garbia izanik, lege honek ez ditu bazter utzi lan horiek, justu kontrakoa baizik. Prozedura Zibilaren Lege hau egiteko, balio eta interes handiko osagaiak izan dira 1881eko Legearen hainbat manu egoki, lege horrek sortutako jurisprudenzia nahiz doktrina oparoa eta organo eta entitate desberdinek nahiz profesional eta ospe handiko adituek egindako txosten eta iradokizunak, eta, horregatik, aintzat hartu dira xehe-xehe. Orobat, zehatz-mehatz eta probetxu osoz aztertu dira, hala Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren nahitaezko txostena, nola Estatu Kontseiluari eskatutakoa. Beraz, baieztatu daiteke ezen guztiz zabala eta bizia izan dela instituzioen eta pertsona kualifikatuen parte-hartzea lege hau egitean, desiragarria eta komenigarria zen moduan.

IV



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Lege honetan, berdin-berdin saihesten dira hala gehiegizko luzera nola eskematismoa, zeina, atzerriko lege prozesal batzuek ezaugarri badute ere, arrotz baitzaie gure tradizioari eta xehetasunezko prozedura-arauketari, mota honetako kodeen jasotzaileek nahiago izan baitute arauketa hori, bateragarriagotzat jo izan dutelako haien aplikazio egokiarekin eta seguruarekin. Hala, bada, gehiegikeria arautzaileetan erori gabe —intzidentzia oro aurreikusi nahi izateagatik ebazten dituztenak baino arazo gatazkatsu gehiago planteatzen baitituzte—, lege honek 1881eko Legeak jaso ez edo gainetik jaso zituen auzigai eta gai ugari jorratzen ditu.

Hutsune horiek betetzean, lege honek, egia esan, edukia zabaltzen du, baina, hala eta guztiz ere, legea ez da luzeagoa —alderantziz— edo konplikatuagoa bilakatzen, osoagoa baino. Legegilearen zeregina eta erantzukizuna da ez uztea erantzun argirik gabe, erraztasun faltsu baten aitzakian, urte askotako esperientziak agerian utzi dituen arazo errealak.

Lege honen edukian ez dago ezer berririk erantzunik ez dakarrenik mende batetik gora jurisprudentziak eta doktrinak legezko gidalerro argirik gabe jorratu behar izan dituzten garrantzi juridikoko galderen aurrean. Erabat onartezintzat jo da, arau bidezko konponbideei dagokienez, lege errazaren itxura ematea omisioen bidez, errealtatearen konplexutasunaren aurrean begiak itxiz eta, funtsean, errealtate hori argi eta garbi ukatuz.

Prozedura benetan errazteko, errepikapenak ezabatu dira, arauketa-eskasiak osatu, eta deklarazio-prozesuei, errekurtsioei, nahitaezko betearazpenari eta kautela-neurriei antolaketa berri bat eman zaie, zeinak argia, erraza eta osoa izan nahi baitu, aintzat hartuta auzien errealtatea eta auzitegiei, justiziapekoei eta moduren batean edo bestean justizia zibilarekin lankidetzan aritu behar dutenei dagozkien eskubideak, ahalmenak, eginbeharrak eta kargak.

Bestalde, legeak ahaleginak egiten ditu edozein herritarrek ulertzeko moduko hizkera erabiltzeko, zeinak errespetatuko baititu teknika juridikoan ezinbestekoak diren galdakizunak eta ezabatuko baititu esapide egun zaharkitu eta ulergaitzak, auzitegien usadio zaharrei lotuagoak teknika juridikoaren galdakizunei baino. Halaber, saihestu egiten du doktrinarismo-itxura ere; hori dela-eta, ez du desegokitzen jotzen, justu kontrakoa baizik, errealtate bererako adierazpen-aniztasuna erabiltzea fenomeno hori hizkera arruntan nahiz juridikoan barneratu denean. Horrela, esate baterako, eutsi egiten zaio “judizio” eta “prozesu” terminoak sinonimo gisa erabiltzeari, eta, batzuetan, “uzia” edo “uziak” hitzak erabiltzen dira, eta, beste batzuetan, “akzioa” edo “akzioak”, 1881eko Legeak eta geroagoko jurisprudentziak eta doktrinak inongo arazorik gabe egin zuten bezala mende batez baino gehiagoz.

Ahalik eta gehien murrizten dira barne-igorpenak, batez ere igorpenaren xede diren manuei buruz ezer zehazten ez dutenak. Artikuluak zenbakidun apartatueta zatitzeko joerari heldu zaio —betiere beharrezkoa bada— eta ahalegina egin da apartatuok berez esanahia izan dezaten, paragrafo soilek ez bezala, elkarrekin lotuta ulertu behar baitira. Eta, gehiegizko zehaztasunetan erori gabe, jurisdikzio-organoa aipatzeko “auztegi” terminoa aukeratu da, zeinak, berez ez du ezer adierazten organoaren kide bakarreko edo anitzeko izaerari buruz. Aukera horrekin, “epaitegiak eta auzitegiak” esapidea artikuluan askotan behin eta berriz errepikatzea saihesteaz gain, kontuan hartzen da ezen, legeria organikoak ezarritakoari helduz, posiblea dela kide anitzeko auzitegien aurrean bideratzea prozesu zibil jakin batzuetako lehen auzialdia.

V

Duen eduki orokorrari dagokionez, lege hau osatzeko bazter utzi da borondatezko jurisdikzio deritzonari buruzko gaia, zeina, beste herrialde batzuetan bezala, hobe baitirudi beste lege batean arautzea eta bertara



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

eramatea dagoeneko nahitaezkoa ez den adiskidetzearen gaineko xedapenak, baita gatazka judizialik gabeko jaraunsle-deklarazioari buruzkoak ere. Era berean, lege hau bat dator lehendik hartutako irizpide batekin, zeinaren arabera lege espezifiko batek arautu behar baitu konkurtso-zuzenbidea. Gai horiei buruz 1881eko Prozedura Zibilarren Legean dauden xedapenak indarrean iraungo dute, soilik, lege horiek onetsi eta indarrean sartu arte.

Aurreko ekimenekin bat eginez, Prozedura Zibilarren Lege berriak lege prozesal erkidea izateko xedea ere badauka, eta, horretarako, aldi berean, asmoa da, batetik, indarrean dagoen Botere Judizialaren Lege Organikoak, 1985ekoak, edukia mugatzea bere izendapenak adierazten duenera, eta, bestetik, bat etortzea Konstituzioaren 122. artikulua lehengo apartatua adierazitakoarekin. Manu horretan aipatzen den epaitegien eta auzitegien "jardunbidea" ezin da ulertu —eta ez du inoiz horrela ulertu ez Konstituzioaren osteko legegileak ezta jurisprudentziak eta doktrinak ere— arau prozesalei egindako aipamen gisa; arau horiek, aitzitik, berariaz aipatzen dira beste konstituzio-manu batzuetan.

Horrela, bada, ez dago inolako eragozpenik Botere Judizialaren Lege Organikoa arau prozesalez gabetzeko, eta asko dira, gainera, horren aldeko arrazoiak; arau horietako asko egokiak dira baina ez daude behar bezala kokatuta eta zalantza asko eragiten dituzte; izan ere, indarrean daude prozedura-legeetakoekin batera. Zentzuzkoa denez, lege honek etekina ateratzen die 1985eko arauketa prozesalean zeuden alde positiboak.

Aipamen berezia merezi du hartu den erabakiak lege honek arau dezan, bere alderdi hertsiki prozedurazkoan, abstentzioaren eta errekusazioaren erakundea. Gai horrek alde desberdin asko jasotzen ditu, ezbairik gabe, eta lege prozesalen ardurapean zegoen, baina 1985eko Botere Judizialaren Lege Organikoak arautu zuen, abstentzio- eta errekusazio-kausen zerrenda berri bat eginez. Hala ere, lege prozesalek gai horren inguruko xedapenei modu formalean eutsi zieten arazo batzuk sortu ziren, eta, bestetik, 1985eko arauketa hobe zitekeen, eta, hain justu ere, horixe egin zen neurri batean abenduaren 4ko 5/1997 Lege Organikoaren bidez.

Lege honek aukera ematen du hobekuntza hori burutzeko, aurre eginez errekusazio ausartegiaren arazoari, edo luzatzeko asmoz egiten direnei, edo epaile edo magistratu errekusatua berehala ordeztzekoei. Ildo horretan, zehatzago arautu da, izapidetzeko ez onartzeko arrazoi gisa, epez kanpo egindako errekusazioa, eta arindu eta errazten dira hasierako izapidetak, prozedura ahalik gutxiena eralda dadin. Amaitzeko, munta handiko isuna aurreikusten da errekusazioentzat, baldin eta, ebaztean, fede gaitzoz proposatutakotzat jotzen badira.

VI

Prozedura zibilarren lege berriaren oinarri izaten jarraitzen du erregututako justiziaren printzipioak edo xedapen-printzipioak, izan ere, printzipio horretatik haren arrazoizko ondorio guztiak ateratzen baitira, begiradan harturik, ez bakarrik, erregela gisa, prozesu zibilek bilatzen dutela subjektu juridiko jakin batzuen eskubideak eta interes legitimoak babestea, subjektu horiei dagokiela ekimen prozesala eta prozesuaren objektuaren eraketa, baizik eta, horretaz gain, subjektu horiei esleitutako zama prozesalek eta subjektuok eskatzen duten babes judiziala lortzeko daramaten eginbide logikoak zentzuz eratu ahal eta behar dutela jurisdikzio-organoaren lana, guztion onurarako.

Oro har, prozesu zibilak erantzuna ematen dio norbere eskubideak eta interes legitimoak kontuan izanda babes judiziala beharrezkotzat jotzen duenaren ekimenari. Aipatutako printzipio prozesalaren



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

arabera, ez da zentzuzkotzat jotzen jurisdikzio-organoaren ardura izatea ikertu eta ziurtatu beharra egiazkoak ote diren egitateak, zuzenbidearen arabera babes-erantzuna eskatu nahi duen kasua eratzten dutelakoan alegatutakoak. Era berean, auzitegia ez da zamatzen, aukeran dauden guztietatik, kasuan-kasuan zein babes-mota dagokion erabakitzeke eginbehar eta erantzukizunaz. Babesa behar duela uste duenari berari esleitzen zaizkio zamak, alegia, hura eskatu eta behar besteko zehaztasunez zehaztekoa, egitateak alegatu eta frogatzekoa, eta babes haren uziei dagozkien oinarri juridikoak adieraztekoa. Hain zuzen, zama horiei guztiei aurre egitea defentsa-gabeziarik gabe eta behar besteko bermeekin egin dadin, abokatuaren laguntza izateko beharra ezartzen zaie alderdiei, kasu oso sinpleetan izan ezik.

Prozesuaren funtsezko oinarri hori —nahitaez bete beharreko interes publikoa nagusi den kasuetan izan ezik— ez da inondik inora oztupo izango auzitegiak ezagutzen duen zuzenbidea aplikatu dezan, lege honetan egiten den moduan, eskatzeko kausaren ikuspegi juridikoak zehaztutako mugen barruan. Eta adierazitako printzipio horrek are gutxiago eragozten du legeak nabarmenki indar ditzan auzitegien hertsatze-ahalmenak, ebazpenak betetzeari dagokionez, edo zeha ditzan babes eraginkorra lortzearen aurka nabarmen doazen portaera prozesalak. Aitzitik, xedapen horiek harmonian daude alderdiei emandako zereginarekin, galdagarria izanik alderdiek beren gain hartzea prozesuari atxikita dauden zamak eta erantzukizunak, kalterik egin gabe prozesuko gainerako subjektuei eta Justizia Administrazioaren funtzionamenduari.

VII

Xedapen orokorren eremuan, legeak berrikuntza ugari egiten ditu hiru helburu nagusirekin: modu osoagoan eta zentzuzkoagoan arautzea orain arte legezko arauketarik izan ez duten hainbat gai eta arazo, jardun prozesalak hobeto garatzen ahalegintzea, eta epaian bete-betean asmatzeko bermeak indartzea.

Legeak merezi duten garrantzia ematen die, besteak beste, honako gai hauei buruzko xedapen orokorrei: jurisdikzioa eta eskumena, prozesuaren subjektuak, haien egintzak eta eginbideak, ebazpen judizialak eta errekursoak; helburua da prozesuaren fase desberdinetan benetan aplikagarriak diren jarraibideak eratzea, arau edo araudi osoak errepikatzeke beharrik izan gabe.

Alderdiei dagokionez, legeak manu berriak dauzka, gai hori arautzen dutenak modu osoago batean eta ordena eta argitasun handiagoarekin; ondore prozesalek, gainditu egiten du pertsona fisikoaren eta juridikoaren dualismoa, eta hobetu egiten ditu prozesuko ondorengotzari, auzikidetzara gehitutako esku-hartzeari eta eragindako esku-hartzeari buruzko beste alderdi batzuk. Orobat, zehatzago ezartzen dira auzilarien zereginak eta erantzukizuna, esanbidez eta batera arautu baitira xedapen-egintzak (uko-egitea, amore-ematea eta atzera-egitea eta transakzioa), bai eta, tokirik egokienean, alegazioaren eta frogaren zama ere. Gai horiei buruzko arauak esplizitatzen dute jurisprudentziaren eta zientzia juridikoaren lorpen baketsua dena, eta ez dira garrantzi gutxiak prozesua epai justu baten bidez amai dadin.

Alderdiei lotuta, nahiz eta egiazki gainditu haien aitortpen eta tratamendu prozesala, egoki dirudi adieraztea lege honek nola heltzen dion interes juridiko kolektiboen errealtateari, interes horiek prozesura ekarri dituztenean, ez bakarrik zuzeneko kaltea jasan eta babes indibiduala nahi dutenek zein ukitu-taldeen, baizik eta interes haiek defendatzeko eratu eta legez gaitu diren pertsona juridikoek ere.

Errealitate horrek, zeina kontsumitzaileei eta erabiltzaileei erreferentzia eginez aipatzen den, erantzuna jaso du lege honetan, erantzun zorpekoa eta instrumentala arau substantiboek orain xedatzen duten eta etorkizunean xeda dezaketen horrekiko, zertaz eta, kolektibitate diren heinean, kontsumitzaile eta



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

erabiltzaileen eskubide eta interesei aipatutako erakundeen bitartez eman nahi zaien babes zehatzaren gaiaz, gai zail eta eztabaidagarria bera. Babes horretarako bide gisa, ez da beharrezkotzat jotzen prozesu edo prozedura berezi bat, baizik eta, toki egokietan kokatutako arau berezi batzuk.

Batetik, posible da inolako zailtasunik gabe gauzatzea pertsona juridikoen eta taldeen jardun prozesala, haien nortasunari, gaitasunari eta prozesuko ordezkaritza dagokionez. Eta, bestetik, entitate horien legitimazio berezia aurreikusten duen arauaren ostean, legeak beste manu batzuk jasotzen ditu, toki egokietan, hala, demandatzaile izan gabe, esku hartzeko interes zuzena izan dezaketenei prozesuan deitzeari buruzkoak, nola akzioak eta prozesuak metatzeari buruzkoak, baita epaiari eta haren nahitaezko betearazpenari buruzkoak ere.

Izaera orokorrarekin aurreikusten den esku-hartze prozesal zabalak bide ematen du bazter batera utz dadin demandak hasiera nahitaez metatu behar izatea, baita, prozesuak bideratzeko orduan, horrek halabeharrez ekarriko lukeen atzerapena ere, atzerapen horrek eragotziko bailuke, sarri askotan, lortu nahi den babesaren eraginkortasuna. Epaien efikazia subjektiboari dagokionez, babes kasuak askotarikoak izateak nahitaez dakar arau orokortzaile oker bat saihestu beharra. Horrenbestez xedatzen da ezen auzitegiak, epaiari dagokion efikazia zehazteko, edukiaren arabera eta jokoan dauden eskubide eta interesak babesten dituen indarreko lege substantiboak ematen duen babesari jarraikiz jokatu duela. Hortaz, Legeak eskaintzen dituen tresna prozesalak ez daude estu-estu mugatuta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes kolektiboaren egungo aurreikuspenetara; aitzitik, Legea irekita geratzen da lege substantiboetan gerta litezkeen moldaketa eta aldaketetara, babes horri dagokionez.

Azkenik, erabaki da ez aurretiazko kauziorik galdatzea ezta modu berezian arautzea ere kostuak ordaintzeko kondena, aipagai diren prozesuetan. Laguntza juridikoaren doakotasunari dagokionez, Prozedura Zibilarren Legea ez da arau egokia erabakitzeke zein entitateri eta zein kasutan aitortu edo eman behar zaion doakotasun hori.

Prokuradore bidezko nahitaezko ordezkaritza eta abokatuaren aginduzko laguntza lege honetan eratzean, ez da funtsezko aldaketarik egiten aurreko xedapenen aldean. Esperientziak, ahobatezko hainbat txostenek aldezturik, bermatzen du egokia dela erabaki hori. Hala ere, lege honek ez ditu erantzun gabe uzten arrazionalizazio-galdakizunak: ezabatu egiten da ahalordeak askiesteko betekizuna, aspalditik zentzurik ez zuelako, eta erabat bateratzen da prokuradore bidezko ordezkaritza eta abokatuaren laguntza beharrezkoak diren eremu materiala. Sistema prozesal berrian, indartu egiten dira prokuradoretzaren eta abokatutzaren erantzukizunak, halako moldez non azpimarratu egiten den haien funtzioak justifikatzea.

Jurisdikzioari eta eskumenari dagokionez, legeak arautzen du deklinatoria tresna bakarra dela aurrebaldintza prozesal horiek alderdi-eskariz kontrolatzeko, eta zehazten du demandari erantzun aurretik erabili behar dela tresna hori.

Modu horretan, amaiera ematen zaie, batetik, “nazioarteko eskumen (edo eskumenik eza)” deritzonari eragiten zioten lege-hutsuneei, eta, bestetik, ordenarik eta harmoniarik gabeko arauketa bati, zeinean elkarrekin nahastu egiten baitziren —eta sarritan nahaspilatu ere— deklinatoria, inhibitoria eta salbuespena, eta askotan emaitza ez desiragarria gertatzen baitzen, hau da, auzialdiko absoluzio-epaia ematea, jurisdikziorik edo eskumenik ezagatik, kontraesanezko alegazio eta frogak eginik prozesu osoaren ondoren. Lege honen arabera, gauzen izaerarekin bat dator, kalterik egin gabe auzitegiak prozesuko aurrebaldintza horiek ofizioz zaintzeari, alderdi pasiboaren aurretiazko adierazpena, halako moldez non, adierazpenik



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

ezean, prozesuak ez duen aurrera egingo edo, beste kasu batzuetan, auzitegi eskudunaren aurrean jarraituko duen aurrera.

Inhibitoria, demandatuaren aurkaratze-ahalmena errazteko erakunde prozesala, ezabatzea justifikatzen da, ez bakarrik lurralde-eskumenaren tratamendu prozesala sinplifikazio komenigarri baterako — deklinatoria/inhibitoria bitasunak sarritan beharrik gabe eta modu asaldagarrian korapilatzen baitzuen tratamendu hori—, baizik eta, halaber, demandatuarentzat askoz zailtasun txikiagokoa delako, hogeita batgarren mendearen atarian, auzigaiaz arduratzen ari den auzitegiaren aurrean agertzea. Edonola ere, eta demandatuari eragozpen larriak saihesteko, legeak aukera ematen du deklinatoria haren egoitzako auzitegiaren aurrean aurkezteko, gero berehala igor dakion auzigaiaz arduratzen ari den auzitegiari.

Jurisdikzioari dagokionez eta hein handi batean baita eskumen objektiboari dagokionez ere, Botere Judizialaren Lege Organikoaren manuen mendean jartzen da lege hau, baina, hala ere, manu horiek, lege prozesaletara egiten dute igorpena auzitegia aurretiaz lege zehazteko beste mekanismo batzuei dagokienez, zeinak baitira gai jakin batzuetako eskumen funtzionala eta, bereziki, lurralde-eskumena. Arau egokiak ezartzen dira gai horietarako.

Lege honek irizpide orokorrak mantentzen ditu lurralde-eskumena esleitzeko, alferrik biderkatu gabe gaiagatiko foru bereziak eta nahitaez aplikatu beharreko xedapen bihurtu gabe erregela horiek guztiak. Horrela, bada, jarraitzen da alderdien sumisioa ahalbidetzen kasu askotan, baina hobetu egiten da demandatzailearen eta demandatuaren isilbidezko sumisioaren araubidea, eta bereziki aurreikusten da zein kasutan gauzatzen diren jardun jakin batzuk demanda jarri, onartu eta demandatua epatu aurretik, hala nola atariko eginbideak edota kautela-neurrien eskaera eta balizko erabakia.

Foru orokor gisa egoitza hartzeko lege-aurreikuspenek erantzuten diete esperientziak agerian jarritako beharrezane, arauketa errealista eta malguago baten bidez, eta, kasu orotan, oreka bilatu nahi dute bi alderdien interes legitimoen artean.

Oinarri hartuta arauketa jurisdikzional organikoa eta zeharo errespetatuz bertan xedatzen dena, auzigaiaz banatzeko oinarritzko diziplina eratzen da lege honetan, zeinak, logikoa denez, kontuan hartzen baititu alde prozesalak eta alderdien bermeak, eta ahaleginak egiten ditu, aldi berean, justizia zibila errealtate eta irudi hobea izan dezan. Beraz, ez da arauketa bikoiztasunean erortzen, ezta lege eremu zehatzaren mugetatik harago joaten ere. Gauza bat da gobernu-funtziotzat har dadila banaketa-arauak finkatu eta aplikatzea, eta ez jurisdikzio-funtziotzat, eta beste gauza bat da, oso bestelakoa, funtzio hori betetzeak garrantzia prozesalik edo jurisdikzionalik batere ez izatea.

1881eko prozedura-legearen manu isolaturen batek jada ezartzen zuen ondorio prozesalen bat banaketari dagokionez. Lege honek zer eta garapen logiko bat gauzatzen du, 1881eko legeak “eskumen erlatibo” zeritzon haren proiektio prozesalarena, Konstituzioaren 24. artikuluko bigarren apartatuari begira, izan ere, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, ez baitu garrantzirik gabekotzat jo banaketa-araurik ez izatea, ezta arau horiek haustea ere.

Izan ere, argi dago banaketak zehaztuko duela azkenean nor izango den kasuan kasuko auzigaiaz arduratuko den “epaile arrunta”. Eta, nahiz eta konstituzioaren araberrakotzat jo den azken zehaztapen hori ez dela zertan eginik lege-mailako arau baten zuzeneko aplikazioaren bidez, ostera ere, logika eta teknika



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

juridiko onaren arabera, ez litzateke onargarria gobernu-zehapena izatea ondorio bakarra, baldin eta ez balira aplikatuko, edo urratuko balira, lege ez diren arau haiek, auzigaiaren ardura “epaile arrunt” batek beste baten ordeztu har dezala zehazten dutenak. Nekez justifika liteke aldi berean existitzea, batetik, gobernu-zehapen hori, zeinak aitortuko lukeen “epaile arrunta” aurrez zehaztu behar duenaren arau-haustea, eta, bestetik, ondore prozesalik ez izatea beren kasua aurrez zehaztutako arauen arabera egokitzen den auzitegiak ebaztea eskubide dutenentzat.

Horregatik guztiagatik, lege honek lehendabizi aurreikusten du ezen alega eta zuzen daitekeela auzigai-banaketari buruzko legezkotasunaren balizko haustea, eta, mekanismo hori antzua suertatzen bada, aurreikusten du, erabateko deuseztasunaren zehapen gogorra saihesteko —jurisdikzioari eta eskumen objektiboari buruzko lege-hausteei erreserbatua baitago eta ofizioz deklaratu baitaiteke—, ezen alderdi kaltetunaren eskariz deusezta daitezkeela ebazpenak, banaketa-arauen arabera auziaz arduratu behar zuen organoaz bestelako batek emanak.

Lege honetan, lehenik eta behin, arauketa bateratua jaso du prejudizialitateak, 1881eko Legeak bildutako arau barreiatu eta zehaztugabeen ordeztu. Baina, horrez gain, prejudizialitate penalarik dagokionez, erregela orokortzat jotzen da prozesu zibila ez etetea, salbu eta auzi kriminal bat baldin badago, non ikertzen ari baitira, delitu-itxurako egitate gisa, prozesu zibileko alderdien uzien zentzuzko oinarri den egitate bat edo batzuk eta, horretaz gain, baldin eta prozesu penalean emango den epaiak eragin erabakigarria izan badezake prozesu zibilean eman beharreko epaian.

Horrela, bada, prejudizialitate penalarik prozesu zibilean eragina izateko, kereila onartu bat edo salaketa artxibatu gabe bat baino zerbait gehiago behar da. Baina, aipatutako elementu guztiak izanda ere, prozesu hori ez da etengo harik eta epaia emateko zain soilik egon arte. Kasu berezi batek, soilik, ekarriko du berehalako etendura, hain zuzen ere, prozesu zibilera ekarritako dokumentu bat penalki faltsua izateak, betiere dokumentu horrek epaitzaren zentzua erabaki badezake.

Prejudizialitate penalarik tratamendu arrazoizkoagoari amaiera emateko —halako moldez non aldi berean saihesten den prozesu penala bidegabe geldiaraz edo atzeraraz dadila oinarriarik gabeko kereila edo salaketen bitartez—, esanbidez ezartzen da ezen erantzukizun zibila izango dela etenduraren luzamenetik eratorritako kalte-galerengatik, baldin eta epai penalarik deklaritzen badu autentikoa dela dokumentua, edota haren faltsutasuna frogatu ez bada.

Aurreikusten da, halaber, penalarik ez diren arazo prejudizialak planteatzea, etete-ondore lotesleak izan ditzaketenak, baldin eta prozesu zibileko alderdiak ados badaude ondore horiekin. Eta, azkenik, prejudizialitate zibila ere onartzen da, etete-ondoreekin, baldin eta prozesuak metatu ezin badira edo prozesuetako bat laster amaitzeaz badago.

VIII

Prozesu zibilaren objektua alde desberdinak dituen gaia da, haiek guztiak garrantzi handikoak. Ezagunak dira doktrinaren eztabaidak eta jurisprudenzian nahiz lan zientifikoetan bildutako teoria eta joera desberdinak. Lege honetan, hainbat tokitan arautzen da gai hori, baina erregela berrien helburu bakarra da arazo errealek ebaztea, 1881eko Legeak ebatzi barik ez ezik, ebazteko modu errazik gabe ere uzten zituenak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Legeak bi irizpide inspiratzaile ditu abiapuntutzat: batetik, segurtasun juridikoaren beharra, eta, bestetik, justifikazio eskasa egotea justiziapeko berberak prozesu desberdinen mende jartzeko eta kasuan kasuko jurisdikzio-organoen jarduera eragiteko, noiz eta prozesu bakar batean zentzuz ebatz daitekeenean arazoa edo auzigaia.

Irizpide horiek oinarri harturik, zeintzuk berme prozesalen osotasunarekin harmonian batu behar baitira, lege honek preklusio-erregela bat ezartzen du egitateak eta oinarri juridikoak alegatzeko, jada ezaguna dena gure Zuzenbidean eta beste ordenamendu juridiko batzuetan. Ildo berean, legeak saihestu egiten du negozio juridikoen deuseztasunari buruzko eztabaiden dualtasun bidegabekoa —bata, salbuespenaren bidetik; bestea, demandaren edo akzioaren bidetik—, bereizita tratatzen du konpentsazioaren alegazioa, eta zehaztu egiten du berritzat jo daitezkeen egitateen eremua, itxuraz aurreko beste baten berdina den bigarren uzi bat oinarritzearen ondoretarako. Puntu horietan guztietan, jurisprudentzia eta doktrina sendoan oinarritzen dira manu berriak.

Oinarrizko inspirazio berbera izanda, hau da, alferrik ez ugaritzea edozein prozesuk dakartzan jurisdikzio-jarduera eta mota orotako zamak, objektu-aniztasunaren araubideak helburu du ekonomia prozesala lortzea eta, aldi berean, prozesu-esparru objektibo bat eratzea, berarekin ez dakarrena bideratu beharreko prozedura dela-eta komeni ez den konplexutasunik edo, behintzat, auziak bideratzeari eta erabakitzeari oztopoak jartzen ez dizkiona behar besteko arrazoirik gabe. Ondorioz, debekatzen da auzi-jartzailearen uziekin loturarik ez duen errekonbentzioa, eta, hitzezko judizioetan, oro har, akzio-metaketa mugatzen da.

Akzio-metaketaren arauketa berriztatu egiten da, oro har, hobekuntza batzuen bitartez, eta, bereziki, orain arte existitzen ez zen tratamendu prozesal zehatz baten bidez. Prozesuen metaketari dagokionez, argitu egiten dira hura bidezko egiten duten aurrebaldintzak, baita erakunde horren betekizun eta eragozpen prozesalak ere, prozedura ahalik eta gehien sinplifikatuz. Gainera, legeak prozesu-metaketaren erabilera okerra saihesteko arauak jasotzen ditu: ez da metatzea onartuko, baldin eta geroagoko prozesua nahiz prozesuak eragotz badaitezke auzibitate-salbuespenaren bitartez edota haietan planteatutakoa bideratu ahal izan bazen akzioak hasieran metatuz, demanda zabalduz edo errekonbentzio bidez.

IX

V. tituluak, jardun judizialei buruzkoak, modu ordenatuan aurkezten ditu Botere Judizialaren Lege Organikotik ekarritako zenbait arau, esperientziak gomendatutako hobekuntza batzuk eginez.

Nabarmentzeko modukoa da xedapenetan bereziki azpimarratzen dela ezen frogia-egintzetan, agerraldietan eta ikustaldietan nahitaezkoa dela publizitatea eta epailearen edo magistratuen presentzia —ez bakarrik txostengilearena, organoa kide anitzekoa bada—. Arau orokorretan behin eta berriro adierazi den hori oso-osorik zehaztu da prozesu bakoitza arautzean, baina, kasu orotan, erabateko deuseztasunaz zehatzen da xedatutakoa haustea, presentzia judizialari edo zentzu zabalean arartekogabetasunari dagokienean.

Fede emateari dagokionez, legeak errefusatzeko ditu idazkari judizialen oinarrizko zeregin horren aurkako zenbait proposamen; hala ere, legea saiatzen da fede-emaileen erantzukizun hori heda ez dadin benetan behar dena eta ahal dena baino gehiago. Horrela, legeak fede-emaile publiko judizialaren esku-hartzea galdatzen du, auzitegian edo auzitegiaren aurrean egiten diren jardun prozesalak modu fede-emailean jasota geratzeko, eta aitortzen du idazkiak hartzeko aukera ondore horretarako ezar daitezkeen



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

erregistroan, ulertzen baita fede publiko judizialak bermatzen dituela harrerari buruz erregistro horretan dauden datuak.

Jardunak dokumentatzeko, erabili ahal izango dira, aktak, oharra eta eginbideak ez ezik, osotasuna eta autentikotasuna bermatzen dituzten bitarteko teknikoak ere. Era berean, ahozko ikustaldiak eta agerraldiak erreproduzitzeko moduko euskarrietan erregistratu edo grabatu beharko dira.

Komunikazio-egintzak modu antolatuan, argitasunez eta esangura praktikoz arautzen dira. Halaber lortu nahi da ezen auzilariak eta haien ordezkariak, beren guztien onerako, eginkizun aktiboagoa eta efikazagoa izatea, bide batez arinduz auzitegien kudeaketa-lan justifikatugabea eta, batez ere, ezabatuz izapidetzea atzeratzen duten "hutsarteak".

Eredu berri horren osagai garrantzitsu dira auzitegiak prokuradoreak; alderdien ordezkari direnez eta prozesuari buruzko ezaguera teknikoak dituzten profesionalak direnez, jakinarazpenak har ditzakete, eta aurkako alderdiari idazki eta dokumentu asko helarazi. Prozesuen izapidetzan bidegabeko luzamenik gerta ez dadin, prokuradore-elkargoei ere ardura ematen zaie, hain zuzen ere, haien jakinarazpen-zerbitzuek, Botere Judizialaren Lege Organikoan jada aurreikusitakoek, efikaziaz jardun dezaten.

Komunikazio-egintzen efikaziari buruzko kezka eraginda —auzi ugari ebaztean bidegabeko atzerapenen eragile baita—, erabakitasunez hautatu du Legeak garrantzia ematea eroldan edo entitate zein erregistro publikoetan jasotako egoitzei, zeren ulertzen baita ezen gizalegezkia eta sozialki onargarria den portaera bat ez dela uztartzen pertsonen egoitza horiekin axolagabetasunez nahiz arduragabekeriak jokatzearekin. Komunikazio-egintzen ondoreetarako, noizbehinkakoa ez den lantokia ere hartzen da egoitzatzat.

Illo horretan, asko dira aipatutako komunikazio-egintzen araubidean egindako aldaketak, eta ediktueta azkeneko eta muturreko aukera gisa soilik jotzen da.

Prozesuan nahitaezkoa bada prokuradoreak esku hartzea edo, nahitaezkoa ez denean, ordezkaritza horrekin pertsonatzen badira alderdiak, komunikazio egintzak, duten xedea dutela, prokuradoreen bitartez gauzatzen dira. Prokuradore bidezko ordezkaritza nahitaezkoa ez bada edo prokuradorea oraindik pertsonatu ez bada, posta ziurtatu hartu-agiridun bidez egingo da komunikatzeko lehen ahalegina egoitza moduan izendatutako tokian edo, auzitegiak komunikazioak arrakasta izateko egokiago irizten badio, toki gehiagotan. Soilik bide horrek huts egiten badu saiaturik da auzitegia komunikazioa egiten komunikatu beharrekoa entregatuz, dela helburuko pertsonari, dela berariaz aurreikusitako beste pertsona batzuei, helburukoa aurkitzen ez bada.

Demandatua hasierako agerraldirako epatzearen edo zitatzearen ondoreetarako, demandatzaileari dagokio zehaztea toki bat edo batzuk komunikazio-egintzen ondoreetarako egoitza gisa, nahiz eta, logikoa den bezala, demandatuak, behin agertu ondoren, beste egoitza bat izenda dezakeen. Demandatzaileak ez badaki zein den egoitza edo zehaztutako tokian egindako komunikazioak arrakastarik izan ez badu, auzitegiak ikerketak egin beharko ditu, zeinen efikazia indartzen baitu lege honek.

Epeen gaian, legean erabat ezabatzen dira zehaztapen judizialeko epeak, eta errealitatea kontuan hartuta ezartzen dira gainerakoak, hau da, aintzat hartuta justizia zibileko protagonista nagusien esperientzia



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

eta 1881eko Legearen erreforma partzial batzuen emaitzak. Zentzu horretan, egiaztatu da ezen, alderdien egintzentzat legeak ezarritako epea sistematikoki murrizteak ez dakarrela desiratzen den epai emateko denbora-tarte laburragoa izatea. Epe oso laburrak ez dira inongo panazea azken buruan lor dadin ebazpen bat eman dadila, behar diren bermeekin, babes eraginkorreko uziei atzerapenik gabe erantzuten diena.

Lege honek, bada, alderdien egintzei dagokienez, epe labur baina behar bestekoak aukeratu ditu. Eta auzitegiarentzako epe askori ere dagokienez, berriz, aurreikusi da laburrak izatea, jurisdikzio-organoei behar bezalako arreta jarriko dutela ziurtatuta. Aitzitik, entzunaldien, judizioen eta ikustaldien seinalamenduari dagokionez —Legean erabakitako egintza-bateratzea dela-eta berebiziko garrantzia duena deklarazio-prozesu berrien egituran—, saihestu egiten dira beteko ez diren aginduzko arauak, eta aukeratzen da konfiantza izatea ezen auzitegiaren egutegiak, egintza horiei dagokienez, egokitu egingo zaiela, bai prozesuen egoerari, bai legeaz eta erregelamendu bidez ezarritako eginbeharra betetzeari, Justizia Administrazioa zerbitzari guztiei dagokien horri.

Lehen auzialdian epai emateko epeei dagokienez, hamar eguneko ezartzen da hitzezko judiziorako, eta hogeikoa, judizio arrunterako. Epeok ez dira, berez, laburrez jotzeko modukoak; bai, aldiz, zentzuzkoak eta betetzeko modua dutenak. Izan ere, kontuan hartu behar da ezen, aipatu den prozesu arruntaren egitura berriak badakarrela berekin epaileek jada ezagutza handia izatea auzigaiez eta, hortaz, horiek amaieran aztertu edo berraztertu beharrik ez izatea, halako moldez non ez duten orduan beharrik izango bananduta gauzatutako frogaren eginbideak banan-banan aztertzeke, ezta alderdien hasierako alegazioak eta haien uziak, zeintzuk, sarritan, onartu zirenetik ez zituzten berriro ere arretan hartu.

Hitzezko judizioetan, agerikoa da epai emateko unea hurbil dagoela frogetatik eta uzietatik nahiz haien oinarrietatik. Prozesu arruntan, judizio-ekitaldiak gauzatzen du epaiaren hurbiltasun hori, frogarekikoa — eta, horrenbestez, neurri handi batean, auziarekikoa—, eta judizio aurreko entzunaldiak ere, zeinean zehaztu behar baita eztabaidaren objektua, hurbilago jartzen ditu alderdien uziak auzia erabakitzeko jurisdikzio-jardueratik.

Legeak, orainari adi eta geroari aurrea hartuz, irekita uzten ditu ateak bitarteko elektronikoa, telematikoa eta antzekoak erabiliz egin daitezkeen idazki zein dokumentuen aurkezpena eta jakinarazpen egintzak, baina justiziapekoak eta herritarrak behartu gabe bitarteko horiek izatera, eta komunikazio horien galdakizunak arautzeki utzi gabe. Bitarteko horiek erabiliz gauzatutako egintzek ondorengo guztiak izan ditzaten, beharrezkoa izango da erabilitako tresnek bermaturik ekartzea ezen komunikazioa eta komunikatutakoa ziurtasunez esleitu ahal zaizkiola batzuen eta bestearen egile gisa agertzen denari. Era berean, bermatuta egon behar dira hala komunikazioa osorik jasotzea nola legearen arabera garrantzitsuak diren gainerako inguruabarrak.

Zentzuzkoa da aurreikustea, eta hala egin da, ezen, erabilitako bitartekoaren ezaugarriek ziurtasun horiek ez dakartzatenean edota bitarteko hori nolako edo halako erraztasunez manipulatzeke moduko denean, baldintza gisa jar dadila, egiaztatze- nahiz frogatze-ondoreetarako idazkiek eta dokumentuek efikazia izan dezaten, beroriek aurkeztea eta ekartzea, behar den azterketa eta egiaztapena egiteko moduan. Baina, hala ere, zentzuzko kautela horiek ez dute eragotzi behar ez aurrerapen zientifiko eta teknikoaren aitorpena ezta haiek prozesu zibilean txertatzeko aukera ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Puntu horretan, araudikerian erortzea saihesten du legeak, hura ez baitzaio egokitzen ez haren izaerari ezta desiragarria den haren denbora-proiektzioari ere. Jurisdikzio-organoei dagokienez, aipatutakoen moduko komunikazio-bideak ezartzeko eta haien ezaugarri teknikoak zehazteko, lege-oinarri aproposak dira Botere Judizialaren Lege Organikoak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta Gobernuari ematen dizkien eskudantziak. Prokuradoreei eta abokatuei dagokienez, baita justiziapeko askori dagokienez ere, zentzuzkoa da uste izatea komunikazio-bide tradizionalak bestelakoak erabiltzen hasiko direla, lege honetan ezarritako betekizunak betetzen dituztenak, haien ahalmenen eta auzitegiek dituzten baliabideen arabera.

Legeak informatika-sistema judiziala aurreikusi du laguntza judizialerako, zeinaren araubidepean dagoen, beste hobekuntza batzuen artean, bake-epaitegiek eman beharreko laguntza. Gai horretan, auzitegiei ahalmen zentzuzkoa ematen zaie, hertsatu eta zehazteko, alderdien arretarik ezak eragindako atzerapenei dagokienez.

Lehen aipatutako lehenengo liburuaren V. tituluaren egindako beste berrikuntza adierazgarri batzuk dira, besteak beste, ikustaldia egin aurretik beste seinalamendu bat aurreikustea, ahalik eta gehien saihesteko ikustaldiak eten daitezela, baita arauak zehaztea ere, auzigaiaren bozketari eta epaitzari dagokionez zentzu hertsian arartekogabetasuna bermatzeko; horren harira ezarri da, zentzuzko salbuespenak gorabehera, epaia eman behar izatea judizioan edo ikustaldian frogan gauzatzea ikusi duten epaile eta magistratuek.

Arau horiekin, lege honek ez du puzten prozesu zibilean arartekogabetasunak duen garrantzia, eta ez du utopia bat helburutzat; izan ere, arartekogabetasuna garrantzitsua da edozein motatako auzigaiak egoki eta prozesu zibil berriek lege honetan duten antolaketak ezartzen du bateratuta gauzatu behar direla frogak eta gauzatze horrek hurbil egon behar duela epaia emateko unetik.

Ebazpen judizialei buruzko kapituluaren berrikuntza gisa nabarmentzen dira haien aldaezintasunari eta haiek argitzeari zein zuzentzeari buruzkoak. Segurtasun juridikoa areagotzen da azken bi horiek bidezkoak diren kasuak egokiro zehaztuta, eta tresna bat gehitzen da, ofizioz edo alderdi-eskariz, azkar konpontzeko ageriko pronuntziamendu-omisioak, okerraren ondorioz omisioak izan dituzten epaiak osatuz.

Legeak behar besteko zehaztasunez arautzen du erakunde berri hori, hartaz gehiegi abusa ez dadin, eta nabarmentzekoa da, bestalde, epaien formari eta edukiari buruzko manuak areagotu egiten duela xedapen-atalean izan beharreko arreta, zeren xedatzen du atal horretan egin daitezela alderdien uziei dagozkien pronuntziamendu guztiak eta ez du onartzen isilbidezko pronuntziamendurik, orain arte sarritan oinarri juridikoetan jasoak.

Modu horretan, ez da behartu beharko “argitze-errekurtso” deritzonaren mekanismoa, eta saihestu ahal izango dira errekurtso arruntak eta apartekoak, pronuntziamendu-omisioagatik inkongruentzian oinarrituak. Argi dago, eta legean ere argi geratzen da, ezen erakunde horrek ezertan ere ez duela erasotzen epai osatugabeak izan dezakeen irmotasuna. Izan ere, batetik, jada emandako pronuntziamenduak irmoak dira ezbairik gabe, eta, bestetik, debekatzen da haiek aldatzea; omititu zirenak gehitzea soilik onartzen da.

Zentzu oso desberdineko proposamenen aurrean, legeak antolaketa-eginbideak mantentzen ditu, baina eduki zabalagoa emanez horiei, eta ebazpen-proposamenak ezabatzen ditu; orain arte, bi horiek idazkari judizialen ardurapekoak izan dira. Legeak auzitegien jardun-esparrua argitzeko egiten duen ahaleginaren barruan kokatzen dira neurri horiek; auzitegiei dagokie probidentziak, autoak eta epaiak ematea, eta idazkari judizialek, berriz, garrantzi handiko beste zeregin askoren artean, fede publiko judiziala emateko eginkizun



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

ordezkaezina dute, eta prozesuaren antolaketa egokiaz arduratu behar dute, modu eskusiboan, antolaketa-eginbideen bitartez.

1985eko Botere Judizialaren Lege Organikoak sartutako ebazpen-proposamenek ez dute balio izan idazkari judizialen ezaguera tekniko zalantzagabeaz baliatzeko; aitzitik, proposamenok areagotu egin dute idazkari judizialen eta auzitegien eginkizunei buruz zegoen nahastea, eta epaitegi eta auzitegieta jarduteko irizpide desberdinak sortzea ekarri dute, eta horrek maiz segurtasunik eta asebetetzetik eza sortu du. Horren ondorioz, ez da egokitzen jo proposamenoi eustea, eta nahiago izan da organo judizialen jardunbidea hobe dezaketen formula alternatiboak ematea.

Illo horretatik, legeak erabaki du, batetik, xehetasunez definitzea zer diren probidentziak eta autoak, eta zehaztea noiz eman behar diren batzuk eta noiz besteak manu zehatz bakoitzean. Horrela, nahitaez, auzitegiek ebatzi behar dute erabaki judizial bat behar duen arazo prozesal oro, probidentzia bidez edo auto bidez, kasuaren arabera. Baina, beste alde batetik, legeak idazkari judizialei prozesuaren antolaketa formala eta materiala esleitzen die, hau da, prozesua bultzatzeko ebazpenak, eta testuan zehar adierazten du noiz eman behar den, forma inpertsonalak erabiliz, antolaketa-eginbide bat; forma horiek aukera ematen dute ondorioztatzeko dagokion jardura idazkari judizialek gauzatu behar dutela, prozesua behar bezala izapidetzeko arduradunak dira-eta.

Lege honen berrikuntzak dira, halaber, beste arau batzuk, itzal handieneko jurisprudentzia eta doktrinari jarraikiz, epaiaren edukiari buruzko erregelak agertzen dituztenak. Esaterako, iuxta allegata et probata erregelari buruzko manuak, froga-zamari buruzkoak, kongruentziari buruzkoak eta gauza epaitu materialari buruzkoak. Garrantzitsuak dira, berebat, likidazio-erreserbarekin ematen diren epaiak, zeinak mugatu nahi baitira ezinbestekoak diren kasuetara soilik, eta etorkizuneko kondenak arautzen dituzten xedapenak.

Froga-zamari dagokionez, legeak gaintzen ditu orain arte existitzen zen arau orokor bakarraren terminoak, esangura urrikoak, eta jurisprudentziak dagoeneko modu baketsuan onartutako kontzeptuak sartzen ditu.

Froga-zamari buruzko arauak erregela erabakigarriak dira alderdien jardura bideratzeko, nahiz eta judizialki soilik aplikatzen diren ziurtasuna lortzen ez denean prozesu bakoitzeko egitate eztabaidagarriari eta garrantzitsuei buruz. Eta, aldi berean, erregela horiek, ondo aplikatuz gero, ahalbidetzen dute epaileak konfiantza izatea egitateak epaitzean egoki aritzeaz, non eta ez den galdagarria egitateak argitzeko aukerak ofizioz agortu behar izatea tartean interes publiko bat dagoelako. Hori guztia dela-eta, garrantzitsutzat jo behar da legegintza-ahalegin hori.

Epaien behar besteko exhaustibotasunari eta kongruentziari buruzko manua, zehaztasun batzuekin aberasteaz gain, osatu egiten da kongruentziari eragingarritasun guztia ematen dioten beste arau batzuekin; arau horietako batzuk aipatu dira jada. Gauza epaituari dagokionez, lege honek doktrinarismo oro baztertu du, eta, hala eta guztiz ere, urrundu egin da ia-ia izaera metajuridikoa duten ikuskera gaintuetatik; teknika juridiko onenarekin bat etorri, gauza epaitua funtsean prozesu-izaera duen erakundetzat hartzen du, zuzenduta dagoena eragoztera auziak alferrik errepika daitezela eta ahalegintzera bat etor daitezela prejudizialki elkarri lotuta dauden auzigaien funtsari buruzko epaiak, aurretiaz epaitutakoarekiko lotura positiboa ezarrita.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Ikuspuntu horrekin, alde batera utzita egiazkotasun-presuntzioaren ideia, “gauza epaituaren santutasun” topikoa eta epai askoren ondore juridiko-materialekin sortutako nahastea, ulertzen da ezen, oso ondo justifikatutako salbuespenak gorabehera, alderdiak berberak izan behar direla gauza epaituak berariazko efikazia izan dezan. Beste elementu batzuei dagokienez, legeak xedatzen du gauza epaituak eraginkor egin behar duela egitateak eta oinarri juridikoak alegatzeko preklusio-erregela, lehen aipatutakoa.

Lege honetan, egintza prozesalen deuseztasuna arautzeko, lehenik eta behin, erabateko edo zuzenbide osoko deuseztasunaren kasuak zehazten dira. Eutsi egiten zaio erabateko deuseztasun-kasuak salatzeko sistema arruntari, errekurtsoen bidez edo ofiziozko deklarazio bidez prozesuari amaiera ematen dion ebazpena eman aurretik.

Alabaina, berresten da beharrezkoa dela, Konstituzio Auzitegiak bere garaian nabarmendu zuen bezala, konponbide prozesal zehatz bat kasu batzuetarako, zeinetan akatsa gertatu zen uneagatik ezin baita erabateko deuseztasuna ofizioz deklaratu ezta errekurtsu bidez salatu ere, akatsak larriak izan eta ukaezina den defentsa-gabezia eragin arren. Adibidez, epaia eman aurreko ikustaldietan jarduteko aukerarik ez izatea edo epaia ezagutzeko aukerarik ez izatea bidezkoak diren errekurtsuak jartzearen ondoretarako.

Nolanahi ere, kongruentziarik eza at utzi da bide prozesal horretatik. Izan ere, izaera desberdina du prozesuari amaiera ematen dieten ebazpenen kongruentziarik ezak, eta ez du beti erabateko deuseztasuna ekartzen; kasu askotan, ez da beharrezkoa jardunak aurreko egoerara itzultzea deuseztasun-akatsak eragindako defentsa-gabezia konpontzeko, eta, omisioagatiko inkongruentzia nabaria denean, lege honek beste tratamendu bat ematen du, lehen azaldu bezala.

Egia da ezen, jardunak deuseztatzeko salbuespenezko intzidentearen bidez, uki daitezkeela irmotzat jo behar diren epaiak eta bestelako amaierako ebazpenak. Baina legegileak ezin dizkio, irmotasunaren izenean, begiak itxi aurretik dagoen erabateko deuseztasunari ebazpena ukitzen duelako haren ezaugarri guztiekin —irmotasuna barne— eta ondore guztiekin. Beraz, legeak nahiago izan du deuseztasunari heltzea nola eta deuseztasun horren izaera oinarri hartuta, eta ez beste erakunde batzuen existentziak zehazten dituen errealtateekiko antzekotasuna oinarri hartuta; horixe gertatzen da, berbarako, berrikuspen-errekurtsoarekin edo auzi-ihesean dagoen kondenatuari emandako entzunaldiarekin.

Orain hizpide dugun salbuespenezko konponbidearen oinarri gisa aurreikusi diren kasuetan, eta ez zaio egoki iritzi deuseztasuna kausa horiekin nahasteari, eta, babes judizial eraginkorra lortzeko, ez da komenigarritzat jo epai irmoak hutsaltzeko ezarritako prozedura bideratzea, ezta epai irmoak hutsaltzeko eskumena duen organora deuseztasuna eramatea ere.

Beste eskubide prozesal batzuekin gertatzen den bezala, beti dago arriskua jardunak deuseztatzeko salbuespenezko eskaera bidegabe erabiltzeko; baina legeak aurre hartzen dio arrisku horri, ez soilik eskaera oinarritzeko kasuak kontu handiarekin zehaztuz, baizik eta beste erregela batzuk ezarrit: betearazpena ez etetea, kostuak ordaintzera kondenatzea eskaera ezesten den kasuan eta isuna ezartzea eskaera ausartegitzat jotzen denean. Gainera, agerikoa bada eskaerek oinarriarik ez dutela, auzitegiek eskaera horiek errefusa ditzakete, probidentzia laburki arrazoitu bidez, eta kasu horietan ez da intzidentea bideratu beharko ezta autoa eman beharko ere.

X



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Lege honen II. liburuak, deklarazio-prozesuei buruzkoak, bideratu behar den prozesua zehazteko erregelak jasotzen ditu xedapen komunei buruzko kapituluan. Gaiaren eta muntaren inguruko irizpideak konbinatuta egiten da zehaztaperen hori. Baina, lege honetan, 1881ekoan bezala, gaia faktore nagusitzat jotzen da muntaren aldean, eta horrez gain askoz ere garrantzi handiagoko elementutzat, lege honek babes judizialaren eraginkortasunarekin daukan kezkaren ondorio logiko gisa. Eta, hain zuzen ere, eraginkortasun horrek eskatzen du ezen, gaia oinarri hartuta, azkar ebatz daitezela auzi eta arazo asko —orain arte baino azkarrago—, kontuan hartu gabe auzigaiko interesaren diruzko balioa.

Hau une egokia da azaltzeko zer-nolako tratamendua ematen zaion lege honetan, begirada Konstituzioaren 53.2 artikuluan jarrita, prozesu zibilarren esparruan, askotarikoa den arren, modu bateratuan aintzat hartzeko moduko gai bati: oinarritzko eskubideak.

Ahobatezko interpretazioarekin bat etorritz, ulertu behar da ezen Konstituzioko aipatutako manuan jasotzen den sumariotasuna ez dela ulertu behar zentzu hertsian edo tekniko-juridikoan; hau da, alegazioak eta frogak mugatzeagatik ez da ulertu behar gauza epaiturik ez dagoenik; gainera, gai horri behar bezala ekiteko, ezinbestekoa da bereiztea, batetik, prozesutik kanpo urratu diren oinarritzko eskubideak, eta, bestetik, haien izaeragatik edo edukiagatik prozesu baten baitan bakarrik urra edo hauts daitezkeen oinarritzko eskubideak.

Lehenengoei dagokienez, lehentasunez izapidetuko den prozesu batera eraman ahal eta behar dira lehenbailehen babestu daitezkeen: jurisdikzionalari geroago hartuko da kontuan prozesuaz kanpoko egitatea edo portaera, oinarritzko eskubidearen ustezko urraketa sortzen duena. Eta aipatutako konstituzio-manuaren helburua da, duda-mudarik gabe, babes judiziala ahalik eta azkarren ematea.

Aldiz, berez eskubide eta berme prozesalak diren oinarritzko eskubideei dagokienez, guztiz zentzugabea izango litzateke, Zuzenbideak jurisdikzio arruntean aurreikustea eskubide eta berme horien balizko urraketa erantzuteko, hala prozedura paralelo bat edo batzuk, nola oinarritzko eskubidea urratu eta konpondu gabe utzi duen prozesuaren atzetik beste prozesu bat. Agerikoa da lehenengo irtenbidearekin zentzugabekeriaren eremuan bete-betean sartuko ginatekeela. Eta bigarrenak jurisdikzio-prozesuak bikoiztea ekarriko luke. Eta, areago, gutxienez hitz egin liteke bikoiztasunaz —zeina guztiz alferrekoa eta, paradoxikoki ere, lortu nahi denaren aurkakoa baita—, izan ere, bigarren prozesu horretan, hipotesi gisa begiratuta, halaber gerta bailiteke, edo gertatu uste, oinarritzko eskubideen beste urraketa bat, eduki prozesalekoa.

Hori guztia dela-eta, aipatutako lehen multzoko oinarritzko eskubideei dagokienez, hau da, ondasun juridiko estrajudizialen ingurukoak direnei dagokienez, legeak ezartzen du lehentasunez izapidetzeko prozedura jakin baten bitartez bidera daitezela kasuan kasuko prozesuak, zeina azkarragoa baita Oinarritzko Eskubideen Babes Jurisdikzionalari buruzko 1978ko Legeak ezarritako prozedura-bidea baino: judizio arrunten prozedura, demanda eta erantzuna idatziz aurkeztuta, eta ikustaldia eta epaia jarraian dituela.

Aitzitik, izaera prozesaleko oinarritzko eskubideei dagokienez, zeinen urraketa edozein auzitan gerta daitezkeen, legeak baztertzen du prozedura berezi bat ezartzea arau-hausteen salaketei aurre egiteko, zentzugabekoa baita, eta irizten dio gertatu diren prozesuan bertan konpondu behar direla balizko arau-hausteak. Lege honen xedapen ugarik helburu horri erantzuten dio puntu eta arazo oso desberdinetatik. Xedapenok bideratuta daude Konstituzioan jaso diren berme prozesalei babes azkarra ematera. Xedapen horietatik gehienek izaera orokorra dute; izan ere, arautzen duten gaiak beti ekar baitezake izaera prozesaleko oinarritzko eskubideak babesteko beharra, eta, beraz, ez du zentzurik lehentasunezko



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

izapidetzea ezartzeak. Alabaina, eta erregela berezien adibide soil gisa, aipa daiteke lehentasunez izapidetzen direla kexa-errekurtso guztiak eta demandak onartzen ez dituzten auto jakin batzuen aurkako apelazio-errekurtsoak. Esperientzia aintzat hartuta, legea modu berezian arduratzen da, ikusiko den moduan, defentsa-gabezia kasuez, erabateko deuseztasunaz jota, baldin eta jazo daitezkeen unea dela-eta haiei aurre egin ezin bazaie errekurtso bidez edo auzitegiaren ofiziozko jardun bidez.

Berriro ere helduz prozedura-bide desberdinei auzigai-motak esleitzeari, legeak, laburbilduz, hitzeko judizioarentzat erreserbatzen ditu eztabaidagai errazekoak eta interes ekonomiko txikia dutenak; demanda laburraren bidez hasten da judizio hori, eta ikustaldirako berehalako zitazioarekin jarraitzen du aurrera. Gainerako auziek judizio arruntaren bidea jarraitu behar dute; judizio horren ezaugarriak dira, halaber, kontzentrazioa, arartekogabetasuna eta ahozketasuna. Edonola ere, nahiz eta kasu askotan gaia irizpide erabakigarria izan prozedura zehazteko, muntak badu oraindik ere paper garrantzitsu bat, eta hura zehazteko erregelak nabarmen aldatu dira, eduki eta egitura hobeak hartuz, esperientziari jarraikiz, eta, bestalde, ahalegina egin da hasierako zehaztugabetasuna mugatzeko egiazki inolako kuantifikaziotan biltzeko modukoak ez diren kasuetara, kuantifikazioa erlatiboa izanda ere.

1881eko Prozedura Zibilaren Legean ezarri ziren atariko eginbide prozesalak ez zeuden oso urrun erabileran erabat desagertzetik, erabilgarritasunik ez zutelakoan, kontuan harturik ondorio urriak zekartzala aurreikusitako prestatze-portaerak egiteari uko egiteak, nahiz eta auzitegiak justifikatutzat jo interesdunaren eskaera. Zio horiek direla bide, prozedura zibila erreformatzeko ekimen batzuek erakunde hori bazter uztearen alde egin zuten.

Hala ere, lege honen oinarrian, prozesua prestatzeko neurri efikazak har daitezkeelako uste osoa dago. Batetik, zabaldu egiten dira eska daitezkeen eginbideak, baina eginbideok zehaztugabeak izatearen muturrera iritsi gabe. Bestetik, justifikaziorik gabeko ezezkoaren aurrean, ondorio praktikoak aurreikusten dira, kalte-galerengatiko erantzukizuna baino askoz ere eraginkortasun handiagokoak, gehiegikeria hertsatzaileetan erori gabe.

Ekitatzeko oreka bilatu nahian, atariko neurrien eskatzaileari kauzioa galdatzen zaio, neurrian subjektu pasiboei eragin dakizkiekeen gastuak eta kalte-galerak konpentsatzeko, berezitasun batekin: neurrian gainera eskumena daukan auzitegiak berak sumarioki erabakiko du kauzioarekin zer egin.

Prozesuaren hasierako uneetan, demandarekin edo pertsonatzearekin batera, aurrebaldintza prozesal jakin batzuk egiaztatzeko agiriak aurkezteaz gain, garrantzi handikoa da, aurkako alderdiaren informaziorako, auzigaiaren funtsari buruzko dokumentuak ere aurkeztea, eta lege honen arauketak gehitzen dizkie horiei alderdien uzientzat funtsezkoak diren egitateak (esaterako, hitzak, irudiak eta zifrak) jasotzen dituzten bitartekoak eta tresnak, baita irizpen idatziak eta egitatei buruzko txosten jakin batzuk ere. Arau berriek aurreikusten dute, halaber, demandaren onargarritasunerako kasu jakin batzuetan galdatutako dokumentuen aurkezpena, eta argi ezartzen da ezen, logikoa eta zentzuzkoa denez gero, badagoela aurkeztea hasierakoak ez diren uneetan funtsari buruzkoak diren dokumentuak, baldin eta aurkako alderdien alegazioen ondorioz soilik jarri bada agerian dokumentu horien garrantzia.

Puntu honetan, beste batzuetan bezala, legeak areagotzen ditu alderdien zamak, eta ahalik eta gehien murrizten du espediente, artxibo eta erregistro publikoetara jotzeko aukera. Zehaztasun osoz arautzen dira funtsari buruzko dokumentuak eta beste idazki eta tresna batzuk hasierako unetik kanpo aurkezteko aukerak, eta haien ezagutzarik zein eskuratzerik lehenago ez izana hitzimatearen edo zin egitearen ordeiz inguruabar hori justifikatzeko zama ezartzen da. Horrekin bat etorritik, auzitegiari ahalmena ematen zaio



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

dokumentuak kontuan hartzea bidezkoa ez dela erabakitzeko, baldin eta, jarduketak gauzaturik, justifikatuta agertzen ez badira dokumentuon berri ez izana eta haiek lortzeko ezintasuna. Dokumentuen aurkezpenean fede gaiztoa edo luzamen-asmoa hautemanenez gero, isuna ere ezarri ahal izango du auzitegiak.

Idazkien eta dokumentuen kopiak entregatzeko eta gainerako alderdiei helarazteko arauketari dagokionez, berrikuntza garrantzitsua da jada aipatu dena, hau da, prokuradoreen ardurapean uztea helarazpena, baldin eta haiek esku hartu badute eta pertsonatu badira. Auzitegiak helarazpena egindakotzat joko du, jakin dakienetik kopiak prokuradore-elkargoak antolatutako jakinarazpen-zerbitzuan entregatu direla. Horrela, zentzutasunez kentzen zaie lan horren zama jurisdikzio-organoei eta, bereziki, langile ez-jurisdikzionalei, zeren, ondo aztertuz gero, ez baita ez beharrezkoa ez berezkoa haiek lan hori egitea, beste lan batzuk halabeharrez kaltetuta. Gainera, lehenago esan bezala, sistema berriak aukera emango du "hutsarteak" ezabatzeko; izan ere, behin idazkiak eta dokumentuak aurkeztu eta haiek helarazi direla egiaztatuta, epeak zenbatzen hasiko dira osteko edozein jardun prozesal egiteko.

XI

Lehen auzialdiko eta, bidezkoa denean, bigarren auzialdiko deklarazio-prozesu guztietarako arauak direnez, badirudi zuzenagoa dela frogari buruzko arauak jurisdikzio-jarduera deklaratiiboaren xedapen orokorretan kokatzea prozedura-mota zehatz bat artikulatzen dutenen artean baino.

Froga, horrela kokatuta eta garrantzia prozesala besterik ez duten Kode Zibileko manuak indargabetuta, hiru alderdi desberdinetan arautu da lege honetan, desiragarria den batasun eta argitasunaz eta, gainera, nabarmen hobetuta.

Batetik, zehaztu dira frogaren objektua, froga-jarduera hasteko ekimenari buruzko erregelak, haren onargarritasunaren ingurukoak, egokitasun- eta erabilgarritasun-irizpideen arabera, eta horiei gehitu behar zaie zilegitasunarena, zeinaren tratamendu prozesala, orain arte izan ez duena, manu sinpleen bidez arautzen baita.

Bestetik, prozedurari dagokionez, frogaren gauzatze sakabanatuari aurre eginez, berrikuntza oso-oso garrantzitsua dakar legeak, hau da, froga oso-osorik judizioan edo ikustaldian gauzatzea, eta xedatzen du ezen, justifikatutako arrazoiak direla bide ekitaldi publiko horietan presentzia judiziala erabat bermatuz gauzatu ezin diren eginbideak, ekitaldi horiek baino lehenago gauzatu beharko direla. Halaber, aurretiazko froga eta frogaren ziurtatzea arautzen dira, horiek arau isolaturen batean baino ez baitziren jasotzen 1881eko Legean.

Azkenik, frogabideek, presuntzioekin batera, aldaketa ugari eta garrantzitsuak jaso dituzte lege honetan. Aldaketa horien guztien artean, lehendabizi aipatu daiteke ezen legeak izaera irekia duela egitateen alegazioak egiazkoak direla ziurtatzeko oinarri izan daitekeen ororen errealitateari dagokionez, irekitasun hori ezin baita bateratu frogabideek kopuru zehatz eta itxia dutelako ideiarekin. Orobat, nahitaezkoa da berariaz onartzea hitzak, soinuak eta irudiak edo datu, zifra eta eragiketa matematikoak jasotzeko eta erreproduzitzeko tresnak.

Bestalde, aldatu egiten da, argitasun eta malgutasun handiagoaren bidean, sustraituenak eta iraunkorrenak diren frogabideak ulertzeko eta gauzatzeko modua.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Ordezkatu egin da aitortza, larregizko zorak zituela-eta bere jatorri historikoekiko, neurri handi batean gaindituta daudenak, eta, gainera, zin egitearekin nahasturik zegoela-eta: haren ordeztu, alderdien deklarazioa jarri da, zeina “posizioei erantzutea” delakoaren zurruntasunetik zeharo urruntzen baita. Galdeketa libre batean egindako galderei buruzkoa izan behar du alderdien deklarazio horrek, horrela bermatzen baitira erantzunak bat-batekoak izatea, galderak egiteko malgutasuna eta, azken buruan, prestatu gabeko deklarazioaren osotasuna.

Alderdien deklarazioaren balorazioari dagokionez, guztiz logikoa da kontuan hartzen jarraitzea, egitateak finkatzeko ondoretarako, egitateotan esku hartu duen alderdiak aitortuta izatea egiazkoak direla harentzat ondorio kaltegarriak dakarzkieten egitate horiek. Aitzitik, ez da arrazoizkoa legeak beti erabateko frogabalia ematea onarpen edo aitortzen horri. Azken hamarkadetan jurisprudentziak baieztatu eta doktrinarik onenak justifikatu izan dutenez, balorazio librea ezarri behar da, aintzat hartuta gauzatzen diren gainerako frogak.

Frogari buruzko manuen artean, egitateei buruzko jurisdikzio-judizioa eratzeko ondoretarako bakarrik arautu ditu lege honek dokumentuak, nahiz eta, begi-bistakoa denez, efikazia horrek zeharkako eragin nabarmena izango duen trafiko juridikoan. Prozesu zibilaren ikuspuntutik, dokumentu publikoak izan dira beti, eta hala izaten jarraitu beharrekoak dira, aipatutako egitateen gaineko judizioaren orduan indar argia eta jakina eman ahal zaaien haiek, eta hori komenigarria ere bada. Dokumentu pribatuak dira, aldiz, prozesuko ziurtasuna oinarritzeko indar hori ez dutenak, eta, horrenbestez, balorazio librearen edo kritika zintzoaren arabera erregelen mende geratzen dira, salbu eta haien egiazkotasuna aitortzen badute haiengatik kaltea jasan dezaketeneak.

Legez baimendu edo gaitutako fede-emaile jakin batzuen esku-hartzean jarritako konfiantzatik eratortzen da dokumentu publikoen frogabala berezia. Lege prozesalak eman behar du esku hartze horren berri, bere ondore zehatzetarako eta ulertzeko moduko hizkeran, baina ez da arau egokia fede-emaileen betekizunak, eskumen-esparrua eta haren beste esparru batzuk ezar daitezkeen. Legeria prozesalari, halaber, ez dagokio arauak interpretatzeko eztabaidak ebaztea, ez fede emateko eginkizunari buruz, ezta negozio juridikoak dokumentu bidez jasotzen laguntzeko ematen duen aholkularitza juridikoari buruz ere. Eta lege honentzat are arrotzagotzat jo da dokumentu formen betekizunak zehaztea, negozio horiei dagozkienak, edota legeak aurretiaz emandako bideak aldatzea.

Beste eredu batzuei begira, eta negozio juridikoen kostu ekonomikoak ustez txikiagotzeko asmoarekin, iritzi-korrante batzuek proposatu dute trafiko juridiko pribatuan, hots, merkataritzakoan eta zibilean, fede publikoa erabat aldatzea, baina, hala ere, lege honek begirunez hartzen du fede-emate hori. Begirune hori, nolana ere, bat dator justiziapekoen interes legitimoarekin eta, zalantzarik gabe, Justizia Administrazioaren interesarekin; izan ere, legearen helburua da, oroz gain, alderdi bakoitzak argi eta garbi azaltzea zein posizio duen bere aurka ekarritako dokumentuekiko, halako moldez non alderdiak dokumentuok onartzen baditu edo haien autentikotasuna aurkaratzen ez badu, desagertu edo gutxitu egingo den egitateei buruzko eztabaida.

Era berean, adierazi behar da lege batzuen manuetan dokumentu publiko gisa hartu direla “aurkako frogabala” izenekoa onartzen duten dokumentuak, nahiz eta onarpen hori, batzuetan, esanbidez ezarri, eta, besteetan, isilbidez. Lege honek errespetatu egiten ditu beste legerietako xedapen horiek, baina behartuta dago bereizita arautzera dokumentu publiko horiek eta berez erabateko frogabala egiten duten gainerakoak, orain arte aztertutakoak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Oinarri horiek kontuan hartuta, badirudi osoa eta argia dela lege honek dokumentu bidezko frogaren inguruan egindako arauketa bateratua. Gainerakoan, frogari buruzko arauen beste alderdi batzuek konpondu egin dituzte praktikan zentzurik gabe geratu diren gai batzuk. Dokumentu bidezko frogan ezin izango da bildu egitateen ziurtasuna finkatzeko prozesura ekarri den guztia, baldin eta gainerako frogabideetan bildu ezin izan bada. Irizpen eta txosten idatziak egin eta ekarri ahal izango dira, dokumentu-itxura hutsekoak, baina adituen eta lekukoen irizpen- eta txosten-izaera dutenak; alderantziz, ez da bazter uzten, legeak aurreikusita baitauka, froga gauzatzeko tresna berriak erabiltzea, nahiz eta egun konbentzionalak izan ez, datuak, zifrak eta kontuak jasotzeko euskarri gisa, hain zuzen ere, azken finean, dokumentu bidezko frogan pareko balioa jaso beharko dutenak.

Nahitaezko salbuespenak eginik interes publiko bat asebate behar duten prozesu zibilei dagokionez, lege hau koherentziaz lerratu da ulertzera ezen adituen irizpena frogabidea dela prozesu baten esparruan, non, aipatutako salbuespenak salbu, auzitegiari ez zaion eginbeharrik ezartzen eta ez zaio erantzukizunik ematen alderdiek formulatutako babes-uzien oinarri diren egitate erabakigarrien egiazkotasuna ikertzeari eta egiaztatzeari dagokionez. Eta, horregatik, alderdiek izendatutako adituen irizpenak sartu dira, eta auzitegiei erreserbatzen zaie aditu-izendapena alderdiek hala eskatzen dutenerako edo behar-beharrezkoa denerako.

Horrela, 1881eko Legean jasotako arauketa katramilatsuaren aldean, asko erraztu da aditu-froga gauzatzeko prozedura. Baztertu egiten da adituen errekusazioa, haien irizpena alderdiek ekarri badute, eta narriatuak izan daitezke soilik; baina, hala ere, aditu guztiek zin edo promes egin behar dute beren jardunean bereziki objektiboak eta inpartzialak izango direla, eta, haiei guztiei dagokionez, lege honetan badira irizpenak azaltzera, argitzera eta osatzera bideratutako xedapenak, kontra-jartze osoa dutenak.

Hala, aditu-jarduera, zeinaren hemeretzigarren mendeko arauketak islatzen baitzuen haren izaeraren arazo ebatzi gabea —hots, frogabidea ote zen ala epaile-jardueraren osagarri nahiz lagungarri—, oso-osorik dator bat, orain, froga-jarduera eraendu behar duten printzipio orokorrekin; horregatik, haren balorazio askeak zentzua hartu egin du. Beharrezkoa den argitze horren zeharkako ondorea da, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, adituei garaiz eta egoki ordaintzeko ohiko arazo praktikoa konpontzea edo, behintzat, arintzea.

Alabaina, lege hau jakitun denez handia dela adituen lanak bere baitan biltzen dituen eragiketa eta adierazpen askotariko aniztasuna, berriaz urruntzen da 1881eko arauketatik, hartara kasuismorik gabe onartzeko frogabide hori askotarikoa eta zabala dela, eta arreta emanez, beste frogabide batzuen aldean, maiz izaten duen izaera instrumentalari, ez baita letrak erkatzean soilik erakusten.

Lekukoen galdeketari dagokionez, alderdien deklarazioari buruz jaso direnen antzeko gogoeta batzuek gomendatu dute Legeak hautatzea galdeketa hasieratik librea izan dadila. Arau honetan halaber arautzen da alderdiek aurretiaz ekarritako txostenetan jasotako egitateen gaineko galdeketa, eta aurreikusten da pertsona juridikoen deklarazioa, publikoena nahiz pribatuena, halako molde, non, esperientziak gomendatzen dituen berezitasunekin batera, bermatuta utz dadin kontra-jartzea eta arartekogabetasuna froga gauzatzean.

Legeak, azterketa judiziala era zabalagoan ulertzen baitu, halaber jasotzen ditu frogabideen artean, esanda dagoen bezala, ez bakarrik hitzak, soinuak eta irudiak jasotzeko eta erreproduzitzeko bidea ematen duten tresnak, baizik eta datuak eta zifra zein eragiketa matematikoak artxibatze balio dutenak ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Lege honetan sartuta daude presuntzioak, egitate jakin batzuen ziurtasuna finkatzeko metodo gisa, eta behar beste arautu da froga-zama, pieza nagusia, interes publikoa oinarritzkoa ez den prozesu zibil batean; horrenbestez, ezabatu daiteke froga zibilaren arauketen bikoiztasuna, Kode Zibilaren manu batzuk indargabetuz.

XII

Esperientziak erakusten du, mundu osoan, ezen alderdien hasierako alegazioen ondoren berehala jotzen bada ahozko ekitaldi batera, non, epaia ere berehala eman aurretik, alegazio osagarrien eta frogen jarduera guztiak kontzentratzen baitira, honako bi arrisku hauetatik bat egon ohi dela ia beti: bata, txit larria, auzigaiak ebatz daitezela kontra-jartze osoa bermatzen duten erregela guztiak kontuan hartu gabe eta epaitzaren oinarri izan behar duten elementu guztietan desiragarria den arreta jarri gabe; bestea, judizio-edo ikustaldi-ekitaldira berehala joanda itxuraz irabazi den denbora gal dadila etendurak eta intzidentziak direla-eta, izan ere, horiei inola ere ezin baitzaie beti iritzi justifikatugabe eta luzagarri hutsak direnik, baizik eta, maiz, beharrezkoak direla, auzigaien konplexutasunarengatik.

Bestalde, babes judizialaren eraginkortasunaren eskakizun arrazoizkoa eta Konstituzioaren arabera da ahalik eta arinen ebatz daitezela prozesuko aurrebaldintzei eta akatsei buruz gerta litezkeen arazoak, halako moldez non ahalik eta gehien ekidin daitezen hala auzigaiaren funtsa aztertzeraz jotzen ez duten epaia, nola edonolako ebazpena objektuari buruz ebatzi gabe prozesuari amaiera ematen diona, alderdien eta auzitegiaren alferreko ahalegin neketsuen ondoren.

Ondorioz, esanda dagoen bezala, konplexutasunik gabeko auzigaietan edo berebiziko azkartasunez babesa erreklamatzeko dutenetan soilik komeni da ekitaldiak ahalik eta gehien bateratzera jotzea. Beste kasu batzuetan, judizio arrunta da legeak ematen duen bide zuzena, aurretiazko entzunaldia duela, prozesua araztera eta eztabaidaren objektua finkatzera zuzendua.

Premisa horiekin, legeak bi bide desberdin atontzen ditu, izaera orokorrarekin, jurisdikzio-babes deklaratioarentzat: batetik, izendapenak duen erraztasun adierazgarriagatik "judizio arrunt" deritzon prozesua, eta, bestetik, "hitzezko judizio" deritzona.

Prozesu horiek biltzen dituzte, kasu batzuetan xedapen partikularrei esker, oraintsu arte lau prozesu arruntentzat ebazten ziren auziak, bai eta berariaz arautu gabeko intzidente guztiak ere; ondorioz, prozedura intzidental komuna ere ezaba daiteke. Eta Prozedura Zibilaren Lege berri honek, era berean, bide ematen du, bermeak gutxitu gabe, aurre egin dakien orain arte prozedura zibilaren lege komunaz bestelako hamaika legetan jasotzen ziren auzigaiak. Horren erakusgarri garbia dira xedapen indargabetzaileak eta azken xedapenak.

Honela, bada, prozedura horiekin sinpletu egiten dira jurisdikzio-babes askoren eta askotarikoen bide prozesalak. Aldiz, hauxe ez da egiten, ez bailuke ez arrazoirik ez zentzurik izango: berezitasun justifikatuak alde batera uztea, hala onargarritasunerako edo prozedura hasi ahal izateko aurrebaldintza bereziei dagokienez, nola prozeduraren beraren alderdi jakin batzuei dagokienez.

Galdagarria eta desiragarria da, ez kosta ahala kosta bateratzea, baizik eta beharrezkoa ez dena ezabatzea eta, batez ere, amaiera ematea argi eta garbi gehiegizkoa den arau-sakabanaketari. Bestalde, ezin zaie atea itxi geroke lege-xedapenei, zentzuzkoa eta konstituzionala ez delako; aitzitik, ahaleginak egin



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

behar dira lege honetako manuak behar bestekoak izan daitezen, haien aurreikuspenarengatik eta malgutasunarengatik, gai eta arazo jurisdikzional berriei aurre egiteko.

Legeak deklarazio-prozesuak diseinatzeko, arartekogabetasuna, publizitatea eta ahozkoasuna eraginkorrak izan daitezkeen. Hitzeko judizioetan, ikustaldiaren garrantziarengatik; judizio arruntan, demandaren eta erantzunaren ondoren, judizio aurreko entzunaldia eta judizioa bera direlako prozeduraren unerik garrantzitsuenak, bata zein bestea epaitzailearen nahitaezko presentziarekin egin beharrekoak.

Oro har, prozesu arruntaren garapena honela laburbil daiteke:

Aurretiazko entzunaldian, lehenik ahaleginak egiten dira prozesua amaituko duen alderdien arteko akordio bat edo transakzio bat lortzeko, eta, akordio hori lortzen ez bada, ebatzi egiten dira prozesuko aurrealdintzei eta oztopoei buruzko balizko arazoak, zehatz-mehatz zehazten dira alderdien uziak eta haien eztabaidaren esparrua, berriro ahaleginak egiten dira auzilarien arteko akordio bat lortzeko eta, akordiorik lortu ez bada eta egitate eztabaidagarriak badaude, froga egokiak proposatzen eta onartzen dira.

Judizioan, frogak gauzatzen da, hari buruzko konklusioak formulatzen dira, eta gai juridikoei buruzko txostenekin amaitzen da, salbu eta alderdi guztiek nahiago badute idatziz informatu edo auzitegiak egoki irizten badio. Gainera, komeni da berriro aipatzea bi auzialdietako jardun publiko eta ahozko guztiak jasota geratuko direla grabatzeko eta erreproduzitzeko tresna egokien bidez, kalterik egin gabe beharrezkoak diren aktei.

Legeak ezabatu egiten ditu "hobeto erabakitzeko eginbideak" deiturikoak, eta haien ordeaz azken eginbide batzuk jartzen ditu, aurrekoen aurrealdintzak ez bezalakoak dituztenak. Aldaketa horren arrazoi nagusia da koherentzia egotea jada aipatutako funtsezko inspirazioarekin, hain zuzen ere, erregela gisa, prozesu zibilen hasieran, garapenean eta amaieran gailendu behar duenarekin. Gainera, komenigarria da judizio-ekitaldiaren garrantzia indartzen duen guztia, epaiaren aurreko jardura hertsiki beharrezkoa den horretara mugatuz. Horrenbestez, azken eginbide gisa, soilik izango dira onargarriak frogak-eginbideak, baldin eta, behar bezala proposatu eta onartuak izanez gero, ezin izan baziren gauzatu haiek eskatu zituen alderdiari ezin egotzizko arrazoiengatik.

Legeak bidegabekotzat jotzen du proposa zitekeen baina proposatu ez zen edozer gauzatzea, bai eta auzitegiak, alderdien auzi-berdintasuna hautsiz, edozein jardura gauzatzea ere bere arretarik eta ardurarik eza ordeztzeko. Erregela horri egindako salbuespenak arretaz aztertu dira, eta ekitate-irizpideei erantzuten diete, baina justifikatu gabeko aukerarik eman barik egitura prozesala desordenatzeko edota kontra-jartzearen berdintasuna kaltetzeko.

Prozesuen izaera sumarioari dagokionez, zentzu tekniko-juridikoan, legeak xedatzen du ez dutela gauza epaituaren indarrik izango honako epai hauek: edukitzaren edo ukaitearen babes azkarra lortu nahi duten prozesuei amaiera ematen dietenak; jabetza intelektualaren edo industrialaren gaian jardura ez-zilegiak bukarazteko eskaerei buruz erabakitzen dutenak; obra berrien edo aurri-egoeran daudenen aurrean berehalako babesa ematen dutenak; zor diren errentak edo alokairuak ez ordaintzeagatik finkak utzarazteari edo berreskuratzeari buruz ebazten dutenak, edota inskribatutako eskubide errealean eraginkortasunari buruz ebazten dutenak, eskubideon aurka egitea edo haiek eragozteak legitimatzen duen titulu inskribaturik izan gabe aurka egin edo eragotzi nahi dutenen kontra. Aitzitik, efikaziarik ezak, segurtasun juridikorik ezak eta gehiegizko gorabehera prozesalek eragindako esperientziak gomendatzen du prozesu sumario gisa ez eratzea utzarazpen-uziaren oinarri gisa prekaritate-egoera bat duten prozesuak: hobe da prozesua alegazio



eta froga guztiei ateak irekita gauzatzea, eta erabateko eraginkortasunarekin amaitzea. Eta mantenuari buruzko prozesuak, bai eta antzeko objektuak dituztenei buruzkoak ere, ez dira nahasi behar behin-behineko neurriekin, eta ez dute zertan galdu behar, amaieran, gauza epaituaren indarra. Egitate berriek erabat justifika ditzakete geroagoko erreklamazioak.

XIII

Lege honek arauketa bakar bat dauka apelazio-errekurtsoari eta bigarren auzialdiari buruz, zeren justifikatugabetzat eta nahasgarritzat jotzen baita araubide-aniztasuna. Babes judiziala ahalik eta azkarren lortzearren, prozesuaren eta epaiaren seriotasunaren barruan, xedatzen da ezen, prozesua amaitzen ez duten ebazpenen aurkako berraztertze-errekurtsoa ebatzi ondoren, ezin izango dela apelazio-errekurtsorik jarri eta egin daitekeen gauza bakarra dela balizko desadostasuna nabarmentzea epaia lehen auzialdian errekurritzean. Beraz, ia-ia desagertu egiten dira ebazpen interlokutorioen aurkako apelazioak. Eta xedapen iragankor egokiaren bidez lortu nahi da errekurtsoen araubide berri hori ahalik arinen aplikatzea.

Berretsi egiten da apelazioa apelatutako ebazpenaren erabateko berrikuspen gisa, eta, baldin eta ebazpen hori lehen auzialdian emandako epaia bada, lege zehazten da ezen bigarren auzialdia ez dela judizio berri bat, non posiblea den edonolako egitate eta argudioak alegatzea edota uzi berriak formulatzea kasuari buruz. Apelazio-epaiaren edukia koherentziaz arautzen da, arreta berezia jarrita epai horren kongruentzia berezian.

Beste xedapen batzuek xede dute aukera gehiago izatea, bete-betean asmatzeko bermeekin, egitateen gaineko judizioko balizko okerrak zuzentzeko, eta, hainbat manuren bitartez, ahalegina egiten da prozedura errazagoa izan dadin, eta, ahalik eta kasu gehienetan, bigarren auzialdian funtsari buruzko epaia ematea lor dadin.

Aipatzeko modukoa da ezen lege honek, zeinak alde batera uzten baitu apelazioari atxikitzearen kontzeptua, nahasteak sortzen dituena, nabarmentzen eta zehazten duela zer-nolako eginkizuna betetzen duen, beste alderdiaren apelazioa ikusita eta hasieran alderdi apelatua izanik, errekurtsuari aurka egiten dion eta aldi berean jada apelatutako autoa edo epaia aurkaratzen duen alderdiak autoa edo epaia erreboka dadila eta onuragarriagoa den beste batekin ordeztu dadila eskatzen duenean.

Lege honek berezita mantentzen ditu errekurtsoren berehalako prestaketa, zeinaren bidez aurkaratzeko borondatea adierazten baita, eta geroagoko aurkaratze zioduna. Ez dirudi egokia denik ez gerorako uztea hala auzibitatearen irmotasuna ezagutzeko unea nola auzibitateari eusten zaiola jakiteko unea, horrek dituen ondoreekin, ezta errekurtsua oinarritzeko lana bizkortzea ere. Baina, izapidetzea hobetzeko, berrikuntza bat sartzen da prozeduran, hots, errekurritutako ebazpena eman zuen auzitegiaren aurrean prestatuko eta jarriko du errekurtsua errekurtsogileak, eta, ondoren, goragokoari igorriko zaizkio autoak. Gauza bera ezartzen da aparteko errekurtsoei dagokienez.

XIV

Babes judiziala eraginkorra izateko egiazko ardurarekin koherentzia osoa gordetzearren, eta Justizia Administrazioak mundu osoan dituen arazoei eman beharreko arreta dela bide, lege honek aparteko errekurtsoren eta, bereziki, kasazio-errekurtsoren ideia bat gainditu nahi du, ohikoa izanagatik ez dena



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

eragin txikikoa; izan ere, errekurso horiek hirugarren auzialdi gisa ulertu ez badira ere, zuzenbidea kasu zehatz batean definitzeko beharrezko azken urrats gisa ulertu dira sarritan.

Planteamendu hori errealtatean defendaezina denez eta berekin dakarrenez erakunde prozesal garrantzitsuen nolabaiteko gainbehera edo desitxuratzeta, aipatutako errekursoek eta antolaketa jurisdikzionalaren gorengo posizioan edo posizioetan dagoen organoak edo organoek bete beharreko zentzuzko edo balizko zereginari buruzko ikerlan arretatsua eta gogoeta xehea egiten ari dira, hala gure sistema juridiko bera duten herrialdeetan, nola sistema oso desberdinak dituztenetan.

Uste osoa izanda justiziaren erreformak, puntu honetan beste batzuetan bezala, ezin dituela alboratu, eta ez dituela alboratu behar, sistema juridiko propioaren historia, idiosinkrasia partikularra eta balio positiboak, egokitzen jotzen den erreforma-joera da aldi berean murrizten eta hobetzen dituen kasu zehatzetako prozedura osoaren mailak edo auzialdiak, babes daitezten subjektu juridikoen eskubideak eta interes legitimoak, eta, aitzitik, maila goreneko auzitegien ahaleginak eta zeregina mugatzen dituen kalitate eta itzal bereziko lan juridikoa eskatzen duten behar juridiko berezietara.

Aspalditik, kasazio zibilak batere desiragarria ez den egoera bizi du Espainian, orokorrean aitortzen den bezala, baina ez da batere erraza egoera hori konpontzea haren kritikak egun duen onarpen-maila orokor berarekin. Lege honen abiapuntua da ezinezkoa dela, eta gainera, oker teoriko eta praktikoa izango litzatekeela, ulertzea kasazio perfektua dela inolako gairik eta bigarren auzialdiko inolako epairik baztertzeko ez duena.

Kasazio hori, gure gizartean erabat gauzatu ezina izateaz gain, ez da beharrezkoa ezta komenigarria ere; izan ere, ez dator bat justiziaren arrazoizko irizpideekin auzigai bakoitzak, oraindik justiziapekoaren eskubide eta interes legitimoak ebazteke izanda, jurisdikzio-prozedurako hiru maila desberdin igaro behar izatea, nahiz eta prozedura horietatik azkena kasazio-prozedura mugatu eta berezia izan. Ez dagokio gure tradizio historikoari eta ez da Konstituzioaren galdakizuna kasazioaren funtzio nomofilaktikoa edozein epaitara edo edozein arazo eta gaitara hedatzea.

Alabaina, inork ez du zalantzan jarri gure justizia zibila eraberritu behar dela bat etorri sistema juridiko eta jurisdikzional propioaren balio positibo irmoki finkatuekin, erori gabe erakunde osoak baztertzeko eta haien orde zurearekiko oso desberdinak diren erakunde berriak edo eredu juridikoen eta judizialen piezak ezartzeko zuhurtziagabekeria. Honela, bada, kasazioa mantendu egin behar da, funtsean, berezkoak dituen helburuarekin eta ondoreekin, baina haren eremu objektiboak koherentea izan behar du lehen aipatutako beharrezanekin, hau da, bereziki itzala izango duen jurisprudentzia-doktrinarekin.

Muntaren mugak ez dira berek bakarrik eremu objektibo hori modu arrazoizkoan eta ekitatiboan finkatzeko moduko faktorea. Eta, era berean, ez dirudi, segurtasun juridiko eta tratu-berdintasunaren irrikaz baitaude, justiziapekoentzat egokia nahiz asegarria denik kasazioaren eremu berria eratzea —zalantzarik gabe beharrezkoa dena koiunturaren elementuak gainditzen dituzten arrazoi eta zioengatik— kasu batzuk hautatuz “kasazio-interesa” duten auzigai batzuetatik, baldin eta elementu hori uzten bada izaera oso subjektiboa duen hautemate baten mende.

Lege honek hiru elementu erabili ditu kasazioaren eremua zehazteko. Lehenik, gai zibilik edo merkataritzakorik kasaziotik kanpo ez uzteko asmoa; bigarrenik, lege prozesalak haustea kasaziotik kanpo uzteko erabakia, batere funtsik gabea ez dena, gero adieraziko den moduan ez baita funtsik gabekoa; eta, azkenik, garrantzia ematea itzala izango duen jurisprudentzia-doktrina sortzeko eginkizunari. Izan ere, hori



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

da, nahi izanez gero, kasazioaren zeharkako eginkizun bat, baina lotuta dago erakunde horri jatorritik datxekion eta gaur egunera arte iraun duen interes publikoarekin.

Gurea bezalako sistema juridiko batean, zeinean aurrekariak ez duen indar loteslerik —legeari eta zuzenbide objektiboaren gainerako iturriei soilik esleitzen zaiena—, guztiontzat berebiziko interesa dauka eta eduki behar du aurrekariari lotutako doktrina eredugarriak efikazia txit berezia izateak, aginduzko izaera ez baina aginte juridiko berezia baitu.

Hori dela-eta, kasazio-interesa, hau da, kasazio-errekurtso baten ebazpenak prozesu-alderdien interesa baino haragokoa izan dezakeena, objektibatu egiten da lege honetan, ez soilik munta handiko parametro baten bidez, baizik eta galdatuz gaia dela-eta bideratutako auzigaiak lege substantiboa hautsiz ebatzita egon behar izatea, baina, gainera, Auzitegi Gorenaren (edo, kasua denean, justizia-auzitegi nagusien) jurisprudentzia-doktrinaren aurkakoak izatea edota probintzia-auzitegien kontraesanezko jurisprudentzia biltzen den auzigaiei edo arazoei buruzkoak. Era berean, kasazio-interesa dagoela uste da, baldin eta hautsi direla salatutako arauak indarrean egon ez badira beren aplikazioari eta interpretazioari buruz jurisprudentzia-doktrina itzalduna sortzeko behar den zentzuzko denbora baino gehiago, salbu eta badagoenean eduki bera edo antzekoa duten eta lehenagokoak diren arauak buruzko jurisprudentzia-doktrina.

Era horretara, zentzuzko objektibotasunez ezartzen da errekurtsoaren beharrezkotasuna. “Kasazio-interesa” deiturikoaren objektibazioak segurtasun juridiko handiagoa dakarkie justiziapekoiei eta haien abokatuei, eta badirudi nahiago izan dela metodo hori erabili kasazio-auzitegiaren ustez arreta merezi duten auzigaiak auzitegiak berak hautatzeko metodoa baino, zeina zenbait instantzietatik bultzatu den. Besteak beste, objektibazioak ezabatu egiten ditu auzitegiaren erabakiekiko mesfidantza- eta desadostasun-arriskuak.

Behin-behineko betearazpen-sistema berri bat ezarrita, legeak ez du ez beharrezkotzat ez egokitatzat jo gordailuaren eskakizuna orokortzea kasazio-errekurtsora iristeko (edo lege prozesala haustearen ondoriozko aparteko errekurtsora). Aurretiazko gordailuak eragin desberdina du justiziapekoengan, eta, Justiziaren garestitzea ekartzeaz gain, planteatzen dezake, besteak beste, arazo bat, oztopa dezakeena babes judiziala eraginkorra izateko oinarritzko eskubidea egikaritzea berdintasun-printzipioarekin bat. Lehen eta bigarren auzialdietako epaien behin-behineko betearazgarritasunak elementu nahikoa dirudi eragozteko ausarkeriazko errekurtsoak edo luzatzeko asmoa besterik ez dutenak.

Aparteko errekurtsoen sistema osatzen da arazo prozesalak kasu orotan utzita justizia-auzitegi nagusietako arlo zibileko salen esku. Kasazio-errekurtsoa eta arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsoa banantzeak lagundu behar dio, ezbairik gabe, errekurtso horiek alegatzeko seriotasunari. Gainera, izaera prozesaleko oinarritzko eskubideen babes judizial arrunta zabaltzen eta sendotzen du arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtso horrek; izan ere, eskubide horien balizko urraketen ondorioz sortu dira auzi gehienak duela hamarkada bat baino gehiagoz geroztik.

Ez da batere heterodoxoa, ez organikoki ezta prozesalki ere, eta are gutxiago konstituzionaliki, bi auzialdi jada agortu direnean aparteko kasazio-errekurtsoa zentzuz mugatzea eta arau-hauste prozesal larriak direla-eta bere burua kaltetuntzat duenari galdatzea ez dezala eskatu, aldi berean, berrikus daitezela zuzenbide substantiboko arau-hausteak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Uste osoa izanez gero ezen arau-hauste prozesal larri bat gertatu dela, zeinak jardunak arau-haustearen aurreko egoerara itzul daitezela eskatzen baitu, orduan ezin daiteke ikusi zentzugabeko inposizioarik arau batean, non bazter uzten baita aldi berean epai berria ematea eska dadila, jarduketak lehengo egoerara itzultzearen orde. Arau-hauste prozesalaren ondoriozko errekurtsioa baiesten bada, beste epai bat eman beharko da, eta epai horrek hausten badu zuzenbide materiala edo substantiboa, kasazioan errekurritu ahal izango da epaia, lege honen aurreko araubidean bezala.

Egia da, 1881eko Legean eta lege horren erreforma ugarietan auzigai-mota mugatuei kasaziora iristeko emandako tratamenduarekin konparatuz, lege honetako kasazio-errekurtsioan ezin izango dela eskatu deusezta dadila errekurritutako epaia, auzialdira berriro igorritik, eta aldi berean, subsidiarioki, ordeztu dadila auzialdiko epaia zuzenbide substantiboarekin bat ez etortzeagatik. Baina, lege berri honek jardunak prozesalki zuzentzeko tresna hobekak izateaz gain, uste da gizartearen beharrezanekin, gure ordenamenduko erakunde juridikoekin eta kasazio-erakundearen jatorriarekin uztartuago dagoela Auzitegi Gorenaren eskumen-zama zentzuz taxutzea haren jardura arlo substantiboan kontzentratuz.

Gainerakoan, ezin da ahaztu ezen, 1881eko Legearen arabera, kasazio-errekurtsio bat jartzen bazen aldi berean alegatzen zituen forma-urratzea eta epaiari lotutako arau-haustek, lehendabizi aztertzen eta erabakitzen zela alegatutako forma-urratzeari buruz, eta, errekurtsioa kontzeptu horrengatik baiesten bazen, autoak berriro bidaltzen zirela auzialdiko auzitegiari, epai berria eman zezan, aldi berean izan zitekeena ala ez beste kasazio-errekurtsio baten objektu "legea hausteagatik", "judizioaren funtsezko formak urratzeagatik" edo bi kontzeptu horien artean. Lege honetan ez da aurreikusten funtsez desberdina den ezer, izapideak bizkortzeko mekanismoak berriak dituen, auzilarietako bakoitzak epai beraren aurka aparteko errekurtsio desberdina aukeratu duenerako.

Lege honetan ezarritako aparteko errekurtsioen araubidea ez da, agian, aurreko kasazioa bezain "eskuzabala" auzilari garaituekin eta haien prokuradore eta abokatuarekin kasazio-errekurtsioaren eta arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsioaren artean aukeratzeko puntu bakarrean, baina ez du "eskuzabaltasun" gutxiago justiziapekoekin orokorrean, eta, adierazi berri den bezala, arlo substantibora mugatutako kasazio baten aldeko aukera egitean kontuan hartu dira gure ordenamenduan aurreikusitako babeserako erakunde juridiko guztiak.

Izan ere, ezin da alde batera utzi, Konstituzioaren 24. artikulua babesean, legearen baitakotzat jotzen dela babes-errekurtsioak jartzea —haietarik gehienak— arazo prozesal askori buruz. Arazo prozesal horiek, aldi berean, "konstituzio-bermeak" dira Konstituzioaren 123. artikulua ikuspuntutik. Eta konstituzio-testu beraren 161.1 b) letra eta 53.2 artikulua kontuan hartuta Konstituzioaren ikuspegitik bideraezina dirudenez Konstituzio Auzitegiari kentzea gure funtsezko arauaren 24. artikuluko gai guztiak, Konstituzio Auzitegiaren doktrinari lotu behar zaio. Beraz, gure funtsezko arauaren arabera, gai prozesal askotan arauak interpretatzeko auzialdi bakar eta gorena dago. Beste gai batzuetarako, ikusiko den bezala, gurtiz birmoldatzen da legearen intereseko errekurtsio deiturikoa.

Konstituzioaren 24. artikuluan oinarritutako babes-errekurtsioek asko luzatu izan dute, orain arte, epai errebokaezinen denbora-muga, zeina jurisdikzio arruntean jada gehiegi luzatzen zen 1881eko legean eta haren osteko erreformen arabera. Horiek horrela, Konstituzioaren 24. artikulua urraketatik oinarritutako babes-errekurtsio horiek ez dira bidezkoak izango aurrerantzean, baldin eta kasuan-kasuan saiatu ez bada jartzen arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsioa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Bestalde, aparteko errekurtsoen araubide horrekin, nabarmen murrizten dira Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio Auzitegiaren arteko desadostasun- edo talka-aukerak. Mugaketa hori ez da aparteko errekurtsoen sistemaren printzipio inspiratzailea, baina bai, aldiz, inola ere baztertu behar ez den irizpidea, eta badu ondore onuragarri bat. Izan ere, posiblea eta komenigarria da Auzitegi Gorenaren posizioarekin harmonizatzea Konstituzio Auzitegiaren mesedetan egin den “konstituzio-bermeei” dagokien salbuespenaren errespetuzko onarpena; izan ere, nagusitasunezko posizio orokorra da hura, Konstituzioaren 123. artikulua Auzitegi Gorenari esleitzen diona aipatutako salbuespena esleitzean besteko argitasun eta enfasiarekin.

Laburbilduz, honako bi objektu hauen inguruan planteatzen daitezkeen kasazio-errekurtsoak Auzitegi Gorenaren aurrean:

1.) probintzia-azuzitegiek oinarritzko eskubideen gaian ematen dituzten epaiak, salbu eta Konstituzioaren 24. artikulua aitortutakoak, baldin eta hausten badituzte prozesuaren objektu diren arazoak ebazteko aplikagarriak diren ordenamendu juridikoko arauak; 2.) probintzia-azuzitegiek bigarren auzialdian emandako epaiak, betiere gertatzen bada arau substantiboen antzeko haustura eta, gainera, errekurtsoren interesak justiziapeko jakin batzuen eskubide eta interes legitimoak babestea baino harago baldin bada, lehen adierazitako moduan ezarrita.

Oinarritzko eskubideei buruzko auzigai zibilak beti eraman daitezkeenez Konstituzio Auzitegiara, uler liteke sobera dagoela auzigai haiek irizpidea izatea Auzitegi Gorenaren aurreko kasaziorako. Irizpide hori arretaz kontuan hartzeko modukoa bada ere, esan bezala, legeak aurkakoa xedatzea aukeratu du.

Aukera horren arrazoiak asko eta askotarikoak dira. Batetik, aipatutako auzigaiak ez dakarte lan jurisdikzionaleko zama handiegia. Bestetik, une konstituziogiletik bertatik, komenigarri iritzi zitzaion gai horretan kasazio-errekurtsoaren aukera ezartzeari —asmo horri buruz ez da ez desadostasunik ez eragozpenik adierazi—; aukera hori koherentea da, ez soilik lege honen xedearekin, hau da, edozein gai zibil kasaziotik ez baztertzeko helburuarekin —eta, zalantzarik gabe, gai zibilak dira Konstituzioan maila gorenarekin aitortutako nortasunari atxikitako eskubideak—, baizik eta Auzitegi Gorena, gainerako jurisdikzio-organismo arruntak bezala, Konstituzioaren epaile ere badelako ideiarekin, oso modu desberdinean bada ere. Gainera, Konstituzio Auzitegiaren aurrean jarritako babes-errekurtsoaren subsidiarotasunak ardatz izan behar zuen, halabeharrez, lege-aukera hori egiteko unean. Horregatik, ez da arbuatzekoa aurreikustea behin-behineko betearazpenaren araubide berriak errekurtsu guztiengan izango duen ondorea, baita apartekoengan ere; araubide horretatik ez dira baztertzen, printzipioz, oinarritzko eskubideen gaiko kondena-epaiak, zeinetan ez diren ezohikoak diruzko kondena-pronuntziamentuak.

Bestalde, arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsua, jada aipatua, bidezkoa da probintzia-azuzitegiaren epaien aurka, justizia-azuzitegi nagusietako arlo zibil eta penaleko salen aurrean, garrantzia berezia duten arazo prozesalean eta, orokorrean, Konstituzioaren 24. artikulua aitortutako oinarritzko eskubideen uraketatzat har daitezkeen ororako.

XV

Azkenik, itxiera-pieza gisa eta Konstituzio Auzitegiari esleitu gabeko arazo prozesalei dagokienez, legearen intereseko errekurtsua mantentzen da Auzitegi Gorenako Arlo Zibileko Salaren aurrean; jurisprudentzia-batasun desiragarria lortzeko arautu da errekurtsu hori, baina egungoarekin alderatuta oso



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

modu desberdinean eratua, justizia-auzitegi nagusietako arlo zibil eta penaleko salek elkarrekin bat ez datozen epai irmoak ematen dituzten kasuetarako.

Jarduera hori sustatzeko legimitatuta daude, Fiskaltza ez ezik, Herriaren Defendatzailea eta zuzenbide publikoko pertsona juridikoak ere, baldin eta errekursoan planteatzen den arazo prozesalari edo prozesalei buruz jurisprudentzia-doktrina izateko interes legitimoa dutela egiaztatzen badute. Egia da zentzu propioan ez dela errekurso bat; izan ere, ematen den epaiak ez du errebokatuko irmoa ez den beste epai bat (ezta irmoa hutsaldu ere), baina izendapen hori mantentzearen alde egin da, aurrekariak direla-eta adierazgarriagoa eta komunikatiboagoa delako.

Legareen intereseko errekursoari esker, aparteko itzala daukan jurisprudentzia-doktrina eratzeke aukerak osatzeaz gain, Auzitegi Gorenetik datorrelako, ez dira goi-mailako auzitegiaren zereginetik alde batera uzten gai prozesalak, betiere Konstituzio Auzitegiari dagokion babes-errekursoarekin talka egiten ez duten bitartean. Aitzitik, eskumenak, ahaleginak eta legitimazioa dutenen interesak bermatzen dute ezen Auzitegi Gorenak arazo prozesal garrantzitsuez arduratzen jarraitu beharko duela, nahiz eta, jakina denez, auzigai-mota oroz arduratu behar ez den, Konstituzioaren arabera ordena guztietan organo gorena bada ere.

Auzitegi Gorenak tresna horretan oinarriturik ematen dituen epaietan eta Konstituzio Auzitegiak bere eremu propioan ematen dituen epaietan, ez da faltako gida moduko jurisprudentzia-doktrina bat, erabilgarria arau prozesalak aplikatu eta interpretatu daitezten segurtasun juridikoaren eta berdintasunaren ikuspuntuetatik, ikuspuntu horiek bateragarri eta harmonikoak izanik gure sistemak berezkoa duen epaitze-askatasunarekin eta jurisprudentziaren garapen egokiarekin.

Hona iritsita, eta aparteko errekursoei dagokienez amaitzeko, badirudi bidezkoa dela gogoraraztea ezen, gure sistema juridikoan, hain zuzen ere, jurisprudentziak edo aurrekariak badutela garrantzia praktikoa, baina duten autoritate eta ereduzko indarragatik, eta ez, aldiz, duten indar lotesleagatik. Autoritate hori, erabakiaren kalitatetik, haren justifikaziotik eta justifikazioaren adierazpen zaindutik datorrela, "case law" deritzen sistema juridikoetan ere bihurtzen ari da autoritate garrantzitsuena. Gainera, autoritate hori da, eta izango da, kasazioan emandako epaiei aplika dakiekeen bakarra kasu zehatzetik haratago.

Horregatik guztiagatik, Auzitegi Gorenaren ebazpenak gutxiestea, beste epai batzuei edo subjektu juridiko jakin batzuen eskubideei dagokienez efikazia zuzenik ez izateagatik, ez litzateke koherentea izango gure ordenamendu juridikoan jurisprudentzia-doktrinari beti esleitu zaion balioarekin, eta, halaber, ez litzateke bat etorriko Justizia Administrazioaren tontorrean edo gailurrean kokatutako jurisdikzio-organoen egitekoari buruz egin diren ikerketa iuskonparatibo zorrotzenekin eta jada aipatutako joera modernoekin.

XVI

Behin-behineko betearazpenaren arauketa da, agian, lege-testu honen berrikuntza nagusietako bat. Prozedura Zibilaren Lege berriak tinkotasunez egin du Justizia Administrazioarenganako konfiantzaren alde eta justizia lehen auzialdian banatzeko garrantziaren alde, eta, ondorioz, behin-behinean betearazgarritzat jotzen ditu, zentzuzko baldintza eta salbuespenekin, jurisdikzio-gradu horretan emandako kondena-epaiak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Behin-behineko betearazpena bideragarria izango da, fidantzarik edo kauziorik emateko beharrik gabe; hala ere, ezarrita uzten dira, batetik, betearazpen horri aurka egiteko araubide bat, eta, bestetik, behin-behinean betearazitako ebazpenen errebokazio-kasu desberdinetarako erregela argi batzuk, zeinak mugatzen ez baitira kalte-galerengatiko erantzukizuna erretorikoki deklaratzera kasuan kasuko prozesu arruntera igorritz; aitzitik, aukera ematen dute haiek premiamendu-bidea erabiliz ordainarazteko.

Behin-behineko betearazpena eskatuta, auzitegiak abiarazi egingo du, salbu eta epaia ez-betearazgarrietakoa bada edota epaiak kondena-pronuntziamenturik ez badu. Eta, behin-behineko betearazpena abiarazita, kondenatuak aurka egin diezaioke, baldin eta uste badu ez direla betetzen aipatutako legezkotza aurrebaldintzak. Baina aurreikusitako benetako aurkakotza hori, desberdina da kondena diruzkoa denean edo ez-diruzkoa denean. Azken kasu horretan, aurkakotzaren oinarria izan daiteke ezinezkoa edo oso-oso zaila izatea, jardun betearazlearen izaera kontuan hartuta, behin-behineko betearazpenaren aurreko egoera berrezartzea edota betearazpenpekoa ekonomikoki konpentsatzea sortu zaizkion kalte-galerak medeatuz, epaia errebokatzen bada.

Kondena diruzkoa bada, ez da onartzen behin-behineko betearazpenaren osotasuna aurkaratzea, baizik eta, soil-soilik, premiamendu-prozeduraren jardun betearazle zehatz batzuk, baldin eta horiek egoera bat sortzen badute non ezinezkoa baita aurreko egoera berrezartzea edota ekonomikoki konpentsatzea sortutako kalte-galerak medeatuz. Beraz, oinarri bera dute betearazpen-neurri zehatzen aurkakotza horrek eta ez-diruzko kondenen betearazpenaren aurkakotzak: behin-behineko betearazpenak sortutako egoeraren itzulezintasun probablea eta konpentsazio ekonomiko ekitatibo bat emateko ezintasuna, epaia errebokatzen bada.

Diruzko kondenagatiko behin-behineko betearazpenaren kasuan, legeak jardun betearazle zehatzei aurka egiten dionari galdatzen dio adieraz ditzala neurri alternatibo bideragarriak, bai eta eskain dezala behar besteko kauzioa betearazpenaren atzerapenari erantzuteko, baldin eta auzitegiak neurri alternatiboak ez baditu onartu eta diruzko kondenen pronuntziamentua ondoren konfirmatzen bada. Ez bada eskaintzen neurri alternatiborik edota ez bada ematen kauziorik, ez da bidezkoa izango aurkakotza.

Ukaezina da erregela gisa diruzko kondenen behin-behineko betearazpena ezartzeak berarekin dakarrela arrisku bat: haren onura lortu duena gero gai ez izatea jaso duena itzultzeko, behin-behinean betearazitako epaia errebokatzen den kasuan. 1881eko legearen sistemarekin eta haren erreformekin, eskatzaileari galdatutako kauzioak arrisku hori ezabatzen zuen, baina, ordainetan, behin-behineko betearazpenari ateak gehiegi ixten zitzaizkion, soilik baliabide ekonomiko likidoak zituztenen eskuetan utzita. Horrez gain, baziren beste zenbait arrisku ere, txikiak ez zirenak: hartzekodunak bere kreditua aseta ikusteko unea atzeratzea, eta zordun kondenatuak bigarren auzialdiko denbora-tartea eta balizko aparteko errekurso bat baliatzea bere erantzukizuna saihesteko.

Zalantzarik gabe, lege honen sistemarekin, badago arriskua behin-behineko betearazleak dirua kobratu eta gero kaudimengabe bihurtu dadin, baina, alde batetik, arrisku hori gutxienekoa izango da kasu askotan, behin-behinean betearazgarria den epaia beren alde dutenei begira. Eta, beste alde batetik, jada adierazi den bezala, legeak ez du igortzen deklarazio-prozesu batera behin-behinean betearazitakoa errebokatzen den kasuan, baizik eta premiamendu-prozedurara, behin-behineko nahitaezko betearazpena izapidetu duen edo izapidetzen ari den organo beraren aurrekora.

Baina, kontrajarritako arriskuak aztertu ondoren, lehen auzialdiko epaien eraginkortasuna da lege honen hautuaren funtsezko faktorea; izan ere, ondo aztertuz gero, epaiok ez dira ematen prozedura



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

administratiboak eskaintzen duen baino zuzenbidearekin bat etortzeko oinarritzko eta prozedurazko berme gutxiagorekin, prozedura administratiboan ematen baitira berehala betearazgarriak diren administrazio publikoen egintzak eta ebazpenak, salbu eta jurisdikzioari eskatu eta hark emandako kautela-etenduraren kasuan.

Lehen auzialdiko epaitegien aldeko apustua egin du lege honek, arlo zibileko justiziaren oinarri baitira zentzu guztietan. Lege honen arabera, behin-behineko betearazpenaren bidetik printzipioz berehala eraginkorrak diren epaiak eman beharko dituzte; ez, aldiz, printzipioz platonikoak diren epaiak, printzipioz eraginkortasunik gabeak, zeinetan ia beti eragina izango duten, ebatzitakoa neutralizatuz, apelazio batek eta bigarren auzialdi batek, horiek ziur gertatuko direla jota.

Eskura dauden estatistikek eta errealitateak berak ere ez dute justifikatzen «lehen auzialdiko justizian» konfiantza galtzea sistematikoki, erabat eta orokorrean. Errealitate hori ezaguna da profesional askoren — epaile, magistratu, abokatu, zuzenbideko irakasle eta abarrekoen — esperientziaren bitartez. Eta, beste alde batetik, lehen auzialdiko justizia hori eraginkorragoa eta arduratsuagoa egin ezean, xehetasunetan oinarritutako Prozedura Zibilaren Legearen erreforma izango litzateke, nahiz eta xehetasun horiek ugariak eta garrantzitsuak izan.

Erabateko aldaketa horren aurrean, eta arreta jarrita behin-behineko betearazpenaren aurkakotzan, komenigarria da konturatzea zailtasun bera dutela aurkakotza horri buruz jurisdikzio-organismoak hartu behar duen erabakiak eta kautela-neurrien eskabideari buruz ebazteko hartu beharrekoak. Zailtasun berekoak dira behin-behineko betearazpenaren aurkakotzaren kasuan haztatu behar diren faktore kontrajarriak eta kautela-neurriak eskatzen direnean kontuan hartu behar direnak.

Bi erakunde horiek, desberdinak izanda ere, antzeko akats-arriskuak dituzte, eta onar daitezke, eta onartu egin behar dira, babes judizialaren eraginkortasunaren izenean eta kredituaren nahitaezko babesaren izenean. Behin-behineko nahitaezko betearazpena ez da, jakina, kautela-neurri bat, eta, oro har, kautela-neurri berez dagozkien ondoreak baino indar eta intentsitate handiagoko ondoreak ditu. Baina, kasu batean, zentzuzko aurkakotzaz gain, badago epai bat, berme guztiak dituen prozesu baten ostean emandakoa, eta, bestean, “eskubide onaren kea” baino ez.

Behin-behineko betearazpenaren araubide berri horrek, ziurrenik, zuzeneko onura gehiago ekarriko ditu galerak edo bidegabeko kasuak baino, eta oso positiboak izango dira, bai ezarritako erabateko berrikuntzaren albo-ondoreak, bai eta luzamen-asmo soilarekin jarritako errekurtsoen murrizketa ere.

Berrikuntza horrekin, lege honek pentsamolde-aldaketa erdietsi nahi du, bai itunetan, bai auzietan ere. Itunetan, betetzeko asmoarekin adostu daitezkeen; auzietan, haiei aurre egin dakien haien emaitzak seriotasunez onartzeko ikuspegiarekin, egun ohikoa dena baino esparru hurbilagoan. Era horretara, Justiziari seriotasuna emateko proposamen bat adierazten da, hitzetatik haratago doana. Ez da onargarria lehen auzialdiko jurisdikzio-organismoak akats asko egozteak; izan ere, argudio hori, jada adierazi den moduan, kontraesanean dago bigarren auzialdiko epai konfirmatzaileen errealitatearekin. Gainerakoan, honelako lege bat landu behar da oinarri hartuta ganorazko zeregin judizial bat, auzialdi guztietan eta aparteko errekurtsuetan, eta oinarriak inola ere ezin du izan abiapuntu gisa onartzea zeregin horren kalitate-gabezia, balizkoa edo erreala; izan ere, ez dago akats hori zuzen dezakeen legerik.

XVII



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Nahitaezko betearazpenari berari dagokionez, lege honek, 1881ekoak ez bezala, arauketa bateratua, argia eta osoa dakar. Betearazpen-prozesu egoki bat diseinatzeko da egiazko titulu betearazletzat har daitekeen guztientzat, izan judiziala edo kontratuzkoa edota nahitaezko betearazpen arruntari edo hipoteka-bermeari buruzkoa; arreta berezia eskaintzen zaio azken horri. Baina, nahitaezko betearazpenaren funtsezko batasun horrek ez ditu berezitasunak eragotzi behar, hainbat puntutan erabat logikoak baitira. Besteak beste, betearazpenaren aurkakotzan, tituluak izaera judiziala izatearen edo ez izatearen arabera arrazoizkoak diren berezitasunak, edota beharrezkoak direnak betearazpena eskusiboki zuzentzen denean ondasun pignoratu edo hipotekatuen aurka.

Nahitaezko betearazpenaren ezein lege-araubidek ezin du ez saihestu, ez konpentsatu, kreditu-berankortasuna — prozesuaren aurrekoa, jakina — ezta ahalegindu ere hartzekodun guztiek beren kreditu guztiak aseta ikus ditzatela. Lege honen asmoa ez da ildo utopiko hori duen formula berri bat jasotzea. Baina bai jaso du arau-multzo bat, alde batetik, hartzekoduna babesten duena orain arte baino askoz sutuago, zeinaren eskubideak behar besteko agerpen juridikoa baitu, eta, beste alde batetik, arautzen dituen orain arte ia-ia aintzat hartzen ez ziren edo, sinpleki, legeak kontuan hartzen ez zituen egoerak eta arazoak.

Legeak xehetasunez arautzen ditu betearazpenean parte hartzen duten alderdiei eta subjektu esku-hartzaileei dagozkienak, bai eta eskumena, errekursoak eta ebazpen eta jardun betearazle zehatzak aurkaratzeko egintzak ere; ez dira nahasi behar nahitaezko betearazpenari aurka egitearekin eta betearazpenari aurka egiteko eta betearazpen-prozesua eteteko kauekin eta prozedura-araubidearekin.

Betearazpenari aurka egiteko intzidentea, legean aurreikusitakoa, komuna da betearazpen guztientzat; salbuespen bakarrak dira helburu eskusibotzat dutenak berme erreal bat gauzatzea, eta araubide berezia dute haiek. Betearazpen-prozesuan bertan izapidetzen da aurkakotza, eta mugatutako zioetan soilik oinarritu daiteke; zio horiek desberdinak dira titulu judizialentzat eta ez-judizialentzat.

Gai horretan, erabateko berrikuntza da araubide bat ezartzea, aukera ematen duena epaien eta titulu judizialen betearazpenari aurka egiteko. Jakina denez, 1881eko Legea erabat isilik egon zen epaien betearazpenari aurka egiteari buruz, eta isiltasun horrek ez bai-egoera desiraezin bat sortu zuen haren bidezketasunari buruz, bai eta onargarriak ziren aurkakotza-kauei eta intzidentearen izapidetzei buruz ere.

Titulu horien eraginkortasuna gutxitu gabe, zio askorengatik desiragarria baita, lege honek kontuan hartzen ditu errealitatea eta justizia, eta aukera ematen du epaien betearazpenari aurka egiteko honako kausa hauengatik: epaian agindutakoa ordaintzea edo betetzea, baldin eta dokumentu bidez egiaztatzen bada; akzio betearazlea iraungitzea, eta alderdien artean itun edo transakzio bat egotea betearazpena saihesteko, baldin eta itun edo transakzio hori dokumentu publikoan jasota badago. Beraz, ikusten den bezala, gutxi eta oinarritukoak dira kausa horiek, eta ezin dira kontuan hartu gabe utzi, eragiketa automatikoa izango balitz bezala epai irmo baten betearazpena eta arrazoizkoa izango balitz bezala alde batera uztea epaia eman eta irmo bihurtu den unearen eta betearazpena eskatzen den unearen artean gertatu den guztia.

Titulu ez-judizialetan oinarritutako betearazpenaren aurkakotza, aldiz, honako kausa hauengatik onartzen da: ordainketa, dokumentu bidez egiaztata badaiteke; konpentsazioa, baldin eta betearazlearen



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

aurka jartzen den kreditua likidua izan eta betearazte-indarra duen dokumentutik eratoritzen bada; gehiegizko eskabidea; betearazlearen eskubidea preskribatzea edo iraungitzea; kita, itxarotea edo ez eskatzeko ituna, baldin eta dokumentu bidez jasota badago, eta transakzioa, baldin eta dokumentu publikoan jasota badago.

Erraz antzeman daitekeenez, kasu horietan baimendutako aurkakotza-kausen zerrenda luzeagoa da epaien eta beste titulu judizial batzuen betearazpenean baimendutakoena baino; baina ez da betearazpenaren aurkakotza deklarazio-judizio plenario baten parekoa den eztabaida bihurtzeko bezain zabala, jurisdikzio-babes betearazlea zapuztuko bailuke. Izan ere, lege honek ez ditu ulertzen titulu betearazle estrajudizialak epaien eta frogabide gisa soilik balio duten dokumentuen arteko hirugarren mota gisa, baizik eta egiazko titulu betearazle gisa ulertzen ditu, hau da, tresna batzuk dira, ezaugarri jakin batzuk izateagatik, zuzenbideak zorra ziurtatzeko arrazoizko oinarritzat hartzen dituen benetako nahitaezko betearazpen bat abiarazteko ondoreetarako.

Betearazpenaren aurkakotza, titulu betearazle estrajudizialetan oinarritutakoa, ez da tituluaren ustezko ahuleziari emandako konpentsazioa, baizik eta justiziaren galdakizuna, epaien edo ebazpen judizialen edo arbitralen betearazpenaren aurkakotzarekin gertatzen den moduan. Aurkakotza-zioak gehiago izatearen oinarria da aurretiaz prozesu bat egotea ala ez egotea. Garrantzi handiko ondore prozesalak esleidi dakizkiekeen dokumentuek, titulu betearazletzat hartu ezin badira ere, toki egokia dute lege honetan, prozesu monitorioaren barruan.

Akats prozesalen ondoriozko aurkakotza ere aurreikusten da nola epaien betearazpenarentzat hala titulu ez-judizialen betearazpenarentzat: betearazpenpekoak ez izatea demandan eman zaion izaera edo ordezkaritza, betearazleak ez izatea gaitasunik edo ordezkaritzarik eta erabat deuseza izatea abiarazitako betearazpena.

Legeak ahalik eta gehiena sinplifikatzen du aurkakotzaren izapidetzea, titulu-mota edozein izanda, eta hitzezko judizioarentzako xedatutakora egin ohi du igorpena. Bestalde, betearazpenaren aurkakotza mugatutako kausengatik soilik ireki daitekeenez, legeak berariaz xedatzen du ezen aurkakotza ebazten duen autoak betearazpen-prozesura mugatzen dituela ondoreak. Nahitaezko betearazpenaren osteko deklarazio-prozesuei dagokienez, argi dago ezen prozesu hori epaiari lotuta abiarazi bada hari esleitu behar zaion indarra izango duela.

Betearazpenaren etendura ere izaera orokorrekin arautzen da, salbu eta hipoteka-betearazpenarena, zeinak bere berariazko araubidea baitauka. Honako etendura-kausa hauek soilik aurreikusten dira, titulu ez-judizialetan oinarritutako betearazpenari aurka egiteko intzidentetik eratorritakoaz gain: auzi-ihesean emandako epaia berrikusteko edo hutsaltzeko demanda jartzea eta onartzea; errekurso bat jartzea kalte konpongaitza sor dezakeen jardun betearazle baten aurka; betearazpenpekoaren konkurtso-egoera eta prejudizialitate penala.

Arau horiekin, sistema orekatu bat ezartzen du legeak: alde batetik, hartzekodun betearazlearen eskubidearen babes efikaza ahalbidetzen du aurkakotza- eta etendura-kausen zerrenda mugatu eta tasatu baten bidez, baina funsgabetu gabe titulu betearazlearen efikazia, eta, beste alde batetik, betearazpenpeko zorduna ez du defentsa-bideez gabetzen betearazpenaren ez-zilegitasun kasurik larrienen aurrean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Diruzko betearazpenaren gaian, Legea lehendabizi arduratzen da ondasunen enbargoaz edo ondasunak lotuta egoteaz eta lotura horren bermeaz, kontuan hartuta jurisdikzio-jarduera betearazlearen oinarritzko fase horren objektuaren izaera. Sistematikoki eta edukiz argi definitzen eta arautzen dira enbargoaren helburua eta enbargoa eratzeko egintzak, enbargo nahikoaren irizpidea —debekatu egiten da zehaztu gabeko enbargoa—, inola ere edo zati batean enbarga ezin daitekeena, oker enbargatu delako enbargotik lehenbailehen atera beharrekoa, enbargoa zabaltzea eta murriztea eta administrazio judiziala, betearazlea asetzeko zentzuzko bermerako ondasunak lotuta geratzeko tresna gisa.

Azpiratu behar da betearazpenpekoari bere ondasunak eta haien kargak azaltzeko betebeharra ezartzen diola lege honek. Auzitegiak, ofizioz, betebeharrak betetzeko errekerituko dio betearazpena abiarazten duen autoan, salbu eta betearazleak, demanda betearazlean, betearazpenpekoaren ondasun enbargagarriak zehaztu eta betearazleak berak nahikotzat jotzen baditu. Betearazpenpekoaren betebeharrak horri efikazia praktikoa emateko, aurreikuspenak, zordunari ohartarazpena egiteaz gain izan ditzakeen erantzukizunei buruz, hertsapen-isun periodikoak ezartzeko aukera harik eta errekerimenduari behar bezala erantzun arte. Aurreikuspen horrek 1881eko Legearen akats nagusienetako bat konpontzen du; izan ere, lege hori adeitsuegia zen zordunarekin, betearazlearen eta epailearen gain uzten baitzuen betearazpenpekoaren ondareko ondasunak ikertzearen zama, betearazpenpekoari elkarlanean aritzeko inolako eginbeharrik ezarri gabe.

Baina, betearazpenaren ondoretarako, betearazpenpekoaren ondasunak lokalizatzeko tresnak ez dira hasten eta amaitzen betearazpenpekoak bere ondasunak azaltzearekin. Legeak aurreikuspenak auzitegiak errekerimendua egingo diela erakunde publikoei eta pertsona juridiko eta fisikoei, eman ditzaten betearazpenpekoak bere erantzukizunari aurre egiteko erabiltzeko modukoak diren ondasunei eta eskubideei buruzko datu egokiak, baldin eta betearazleak hala eskatzen badu inolaz ere ezin izan duelako ondasunak zehaztu edo ez duelako aurkitu betearazpena behar bezala gauzatzeko behar besteko eta kalitate egokiko ondasunak. Betearazleak azaldu beharko du, labur bada ere, zein harreman duten betearazpenpekoak eta elkarlanerako errekerimenduen helburuko gisa zehazten dituen entitateek eta pertsonak; izan ere, ez litzateke zentzuzkoa izango lege-aurreikuspen horiek oker baliatzea ondareari buruzko ikerketa orokorrak edo inolako oinarririk gabeak egiteko.

Ikerketa-neurri horiek ez dira ondasun-azalpenaren neurri subsidiario gisa ezartzen legean. Aitzitik, ordaintze-errekerimendurik behar ez duen nahitaezko betearazpena bada, betearazpena abiarazten duen autoan erabaki daitezke, eta berehala gauzatu; gainera, gauzatuko dira betearazpenpekoari entzun gabe eta betearazpena abiarazten duen autoaren jakinarazpena eraginkorra izateari itxaron gabe, baldin eta zentzuzko arrazoiak badaude uste izateko betearazpenaren arrakasta zaputuz daitekeela atzerapenik egonez gero.

Jabari-hirugarrengotza jada ez da arautzen jabaria definitzen duen prozesu arrunt gisa eta hirugarrengotzaren objektua den ondasunaren enbargoa kentzearen bigarren mailako ondore gisa, baizik eta betearazpenaren intzidente gisa, zentzu hertsian, zuzenean eta eskusiboki bideratua dagoena erabakitzen ea enbargotik atera behar den edo enbargoan mantendu behar den. Aukera bat da, doktrinak gomendatua, eta betearazpen-prozesua ez atzeratzeko abantaila eskaintzen du kasuan kasuko ondasunari dagokionez. Atzerapen hori ezin da kontuan hartu gabe utzi, lege honetan prozesu arruntak sinpleagoak badira ere; izan ere, auzialdi bikoitza dago eta behin-behineko betearazpenaren araubide berria ezin izango da izan, gauzatzeko dagoen betearazpenari dagokionez, erantzun egokia aipatutako arazorako.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Lege honetan mantendu egiten da eskubide hobeko edo lehentasunezko hirugarrengotza, baina berrikuntza garrantzitsuekin; esaterako, jaso egiten da betearazleak amore emateko edo betearazpenean atzera egiteko aukera, bai eta hirugarrengotzadunak berak sustatu ez duen nahitaezko betearazpen bateko kostu ekonomikoetan parte hartzekoa ere. Bestalde, jabari-hirugarrengotzan ez bezala, eskubide hobekoan nahitaezkoa da auzitegiaren epai bat, indarra duena kreditua eta haren lehentasuna zehazteko, epai horrek beste akzio batzuk aurrez epaituko ez baditu ere.

Ondasunen izaeraren arabera, betearazpenak ukitutako ondasunen premiamendu-prozeduran edo diru bihurtzeko fasean —aurretiaz balioespena eginda— aldaketa asko ezarri ditu lege honek, batez ere ordena eta aurreikuspenaren ingurukoak. Hainbat hutsune betetzeaz gain, enkante bakar bat ezartzen da, eta xedapenak bideratuta egongo dira lortzera, merkatuko erregelekin bat etorritik posible denaren barruan, zordun betearazlearentzat gogobetegarriagoa den emaitza bat eta, gainera, kostu ekonomiko txikiagoa.

Enkantea arautzean egindako hobekuntzak gorabehera, Legeak bidea irekitzen die nahitaezko besterentzearen bide alternatiboei, zeinak ahalbidetuko duten, inguruabar zehatzetan, diru-bihurtzea arintzea eta enkantearen errendimendua hobetzea. Horrela, bada, arautzen dira, batetik, diru bihurtzeko hitzarmenak, betearazlearen eta betearazpenpekoaren artekoak, eta, bestetik, betearazlearen eskariz edo haren adostasunarekin epaileari aukera ematea erabakitzeko ondasuna besterendu dezala pertsona edo erakunde espezializatu batek enkante judizialek kanpo.

Enkanterako deialdia, batez ere enkantea ondasun higiezinari buruzkoa denean, arautzen da ondasunaren balioa ondoen adierazteko eran. Besterentzeak, ondasun higiezinaren enkantean, merezi duen arreta berezia du Legean, bereziki zainduz erregistroko alderdiak eta hirugarrenen babesa. Zama irauteari eta ezerezteari dagokionez, aukeratu da mantentzea betearazten den karga baino lehenagoko zama eta ezerezte geroagokoak; sistema hori osatzen da balioespenari kenduta irauten duten zamen zenbatekoa ondasun higiezinak enkanterako duten balioa zehazteko. Konponbide horren abantaila da bermatu egiten dituela enkantean eskaintzen diren zenbatekoak, nahiz eta txikiak izan, beti izango baitira gauzatu gabeko betearazpenaren onuran; hori ez litzateke beti lortuko zamen ohiko likidazioarekin.

Ondasun higiezinaren nahitaezko besterentzearen gaiko beste berrikuntza garrantzitsuak dira betearazpen-prozesu batean besterendutako higiezinaren okupatzaileei entzuteko araubidea eta haiek higiezina uztea. 1881eko Legeak ez zuen ezer aurreikusten gai horien inguruan, eta posturagileak behartzen zituen, edo beren kontura ikerketa neketsuak egitera, edo beren eskaintzak formulatzera erabateko ziurgabetasun-baldintzetan, hau da, jakin gabe ea okupatzailerik aurkituko zuten, ea balizko okupatzaile horiek beren egoera mantentzeko eskubiderik izango zuten, eta, nahiz eta okupatzaileek ez izan finkaren edukitza mantentzeko eskubiderik, ea beharrezkoa izango litzatekeen luzea eta neketsua izan zitekeen deklarazio-prozesu batera joatea higiezina uztea lortzeko. Horrek guztiak, zentzuzkoa denez, ez zuen laguntzen enkante judizialen merkatua erakargarri egiten, ezta ekonomikoki efizientea izaten ere.

Lege honek aurre egiten dio okupatzaileen arazoari, ahaleginduz, lehenik, betearazpen-prozesuan okupatzailerik badagoen jakiten. Helburu horretara lerratzen da aurreikuspen hau: betearazpenpekoak aurkeztu behar duen ondasun-zerrendan adierazi behar izatea, higiezinari dagokienez, okupatuta dauden eta, kasua denean, nork okupatzen dituen eta zein titulurekin. Bestalde, xedatzen da betearazpenaren berri eman behar zaiela ezagutzen diren okupatzaileei, betearazpenpekoaren ondasun-azalpenaren bidez edo beste edozein moduren bidez, eta hamar eguneko epea eman behar zaiela, betearazpenaren auzitegian aurkez ditzaten haien egoera justifikatzen duten tituluak. Gainera, agintzen da enkantearen iragarkian



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

adierazi behar dela higiezinaren edukitza-egoera, ahal diren xehetasunekin, balizko posturagileek ebaluatu ahal izan ditzaten balizko uzte batek izan ditzakeen zailtasunak.

Azkenik, intzidente labur bat arautzen da betearazpenaren barruan; intzidente horrek ahalbidetzen du higiezina berehala utz dezatela egite hutsezko edo titulu nahikorik gabeko okupatzaileek. Soilik badin eta okupatzaileak badaude justifikatu dutenak edukitzari eusteko behar besteko titulua izan daitekeena dutela, orduan jo beharko da kasuan kasuko deklarazio-prozesura okupatzaileek higiezina utz dezaten. Modu horretan, legeak zuhurtziaz eta modu orekatuan erantzuten dio okupatzaileen arazoari.

Halaber, errealismo handiagoarekin arautzen da ordaintzeko administrazioa, zeinak autonomia eskuratu baitu nahitaezko besterentzearen bidezko diru-bihurtzetik. Oro har, urte luzeetan bildutako esperientziaz baliatzen dira lege honen III. liburuaren IV. kapituluaren manuak; izan ere, askotan arau zehatzik ez zegoenez, agerian jarri ziren benetako hainbat arazo, eta konponbideak bilatu eta proposamenak formulatu ziren zentzu juridiko onarekin.

Legeak kapitulu berezi bat eskaintzen die ondasun hipotekatu edo pignoratuiei buruzko betearazpenaren berezitasunei. Arlo horretan, mantendu egiten da, funtsean, hipoteka-betearazpenaren aurreko araubidea, zeinaren ezaugarria baitzen zordunak zorrotz mugatuta izatea betearazpenari aurka egiteko eta betearazpena eteteko kausak. Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz deklaratu du ezen araubide horrek ez duela Konstituzioa urratzen, eta, han funtsezko aldaketak sartuz gero, larriki alda daitekeela hipoteka-kredituen merkaturia, eta aldaketa horrek ez dirudi batere gomendagarria.

Ondasun hipotekatu edo pignoratuiei buruzko betearazpenaren arauketa berriak aurrerapauso bat dakar aurreko egoerarekiko; izan ere, lehenik, Prozedura Zibilarren Legera ekartzen du hipotekarekin bermatutako kredituen betearazpen-prozesuen arauketa, eta horrek indartu egiten du betearazpen horien berezko izaera jurisdikzionala, sarritan eztabaidatu izan dena; bigarrenik, modu bateratuan arautzen dira berme erreala duten kredituen betearazpenak, egungo arauketa-aniztasuna ezabatuz; eta, azkenik, modu egokiagoan ordenatzen dira betearazpenaren egungo etendura-kausak, bereiziz betearazpenari aurka egiteko benetako kausak (hipoteka-bermea edo kreditua azkentzea eta hartzekodunak erreklamaturako saldoarekiko desadostasuna) jabari-hirugarrengotzaren eta prejudizialitate penalaren kasuetatik, nahiz eta kasu guztietan mantendu prozedura-etenduraren izaera murriztailea.

Aipamen berezia merezi du diruzkoa ez den betearazpenean egindako aldaketak. Zalantzarik gabe, beharrezkoa zen aldatzea ikuspegi oso desberdinetatik argiro gaitututa zegoen arauketa bat. Lege honek errekerimenduak eta hertsapen-isunak sartzen ditu, zerbait egiteko edo ez egiteko eginbeharrak betetzera zuzenduak, eta, modu horretan, nabarmen aldentzen da diruzko kalte-ordainak berehala ezartzeko joeratik, 1881eko Legean ezarritakotik. Hala ere, gehiegizko hertsatzeak saihesten dira; bilatuz, alde batetik, betearazpenaren interesaren eta justiziaren arteko oreka esangura hertsian eta, bestetik, borondatearekiko errespetua eta ez tematzea borondatezko betetzearen ezaugarri pertsonalak dituzten prestazioak derrigorrean lortzeko bidean.

XVIII

Kautela-neurriei dagokienez, lege honek manu-multzo bateratu batean arautzen ditu, eta multzo horretatik soilik baztertzen ditu, jarraian adieraziko diren arrazoiengatik, prozesu zibil berezi batzuei dagozkien neurri espezifikoiei buruzkoak. Horrela, egoera deitoragarri bat gaitutzen da, arauak, gutxi eta askiek izateaz gain, sakabanatuta baitzeuden 1881eko Legean eta beste lege askotan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Alabaina, aipatutako manu-multzoa ez da “klasikotzat” jo daitezkeen kautela-neurrien arauak batzearen emaitza, eta haien aurrebaldintzak eta prozedura ezartzearena. Lege honek argi eta garbi finkatzen ditu etorkizuneko epai baten eraginkortasuna zaputuz dadila saihesteko beharrezkoak izan daitezkeen neurrien ezaugarri orokorrak, aurrebaldintza eta betekizun orokor batzuk ezarri, halako moldez non kautela-neurrien araubidea irekia izango den eta ez kopuru mugatuko edo itxiko sistema bat. Baina orokortasuna eta zabalatasuna ez dira lausotasuna, zehaztugabetasuna edo zuhurtziagabekeria. Legearen oinarri dira oro har onartutako doktrina eta jurisprudentzia sendoa.

Fumus boni iuris edo eskubide onaren itxura, berandutze prozesalaren arriskua eta kauzio-ematea dira, zalantzarik gabe, kautela-neurriak hartzea erabakitzeke ezinbesteko funtsezko faktoreak. Arau egokien bidez, behar beste berrmatzen da kautela-neurrien tresna-izaera, babes zehatz bat eman dezakeen epaiari dagokionez, eta, horrenbestez, neurrien eransgarritasuna eta behin-behinekotasuna. Ahaleginak egiten dira, xedapen zehatzen bitartez, kautela-neurriak berez bila ez daitezen jardura prozesalaren helburu eskusibo edo lehentasunezko gisa. Baina zehaztu behar da, haiek arautu diren moduan, justiziapekoek orain arte eska zitzaketen neurriak baino indartsuagoak dituztela orain. Erdietsi nahi dena da neurriak benetan efikazak izatea, lor dadin, kondena-epaia nola edo hala betearazteaz gain, epaia bere horretan ametssezkoa ez izatea.

Beharrezkoak izan arren *periculum in mora* eragozteko, kautela-neurriek badituzte beste arrisku batzuk, jakina denez gero. Horregatik, beharrezkoa da, halaber, arretaz arautzea, eta horixe bilatu da lege honetan, kautela-neurriak aurkakotzea, neurri horien zentzuzko ordezen, berrikuspen eta aldaketa, eta balizko kontrakautelak edo neurriak, kautela-neurriak neutralizatzen edo ezerezean uzten dituztenak, haiek alferrikakoak edo ez hain astunak bihurturik.

Prozesua hasi aurretik eska daitezke kautela-neurriak, demandarekin batera edo auzia jada ebazkizun dagoenean. Erregela gisa, ez dira erabakitzen aurretiazko kontra-jartzerik gabe, baina aurreikusten da ezen, kasu justifikatu batzuetan, lortu nahi den neurriaren subjektu pasiboari entzun gabe erabaki ahal izango direla. Kasu horietan, berehalako osteko aurkakotza ezartzen da. Aurretiazko entzunaldian edo aurkakotzan, baina baita geroago ere, kontrakautela sar daiteke jokoan, lortu nahi den edo jada erabaki den kautela-neurria ordeztan duena.

Nahiz eta jarrera batzuek aldeztu duten prozesu nagusiaz arduratzeko eskumena duen jurisdikzio-organismoak bestelako bati esleitu behar zaiola kautela-neurriei arduratzeko eta haiek ebazteko eskumena, Legeak, ordea, eskumena ez bereiztearen aldeko aukera egin du; hala ere, horrek ez du esan nahi sumisioa ekarriko duenik, prozesuarekiko, alderdi pasiboaren jardunak, demanda jarri aurretik eskatutako neurriei buruzko prozeduran egindakoak.

Aukera horrek kontuan hartzen du kautela-neurriei buruzko erabakiak, demandaren aurretik edo jada prozesuan zehar, arriskua ekar dezakeela aurreiritziak edo usteak sortzeko alderdi baten jarreraren alde edo aurka, eta haiek eragina izan dezaketela epaian. Baina, gainera, arrisku hori kautela-neurrietatik kanpo ere egon daitekeenez, aurreiritziak sor baitaitezke judizio aurreko entzunaldian edo demanda eta erantzuna irakurri ostean, bi iritzitan oinarritzen da lege hau.

Batetik, legeak irizten dio epaile eta magistratu guztiak behin-behineko usteak gainditzeko moduan daudela, inpartzialtasunez arduratzen jarraitzeko alderdien aurrerantzeko uziez, eta lotzeko, azken buruan, egitate frogatuei eta aplikatu behar den zuzenbideari.



Eta, bestetik, kontuan izan behar da kautela-neurriek beti lotura izan behar dutela prozesu nagusian lortu nahi denarekin eta bai hura ebazkizun dagoen bitartean alda daitezkeen gorabehera eta inguruabarrekin ere, halako moldez non prozesu horretaz arduratzeko eskumena duen organoa baita ebazteko egoerarik egokienean dagoena, bereziki kontuan hartzen bada neurriok kentzeko eta aldatzeko aukera edo ekitatezko kontrakautela batekin ordeztzekoa. Hori guztia kontuan izan gabe prozeduran konplexutasun txikiagoa dakarrela eskumena ez bereizteak.

XIX

Legeak ezinbestekoak diren prozesu bereziak ezartzen ditu.

Lehenik, ezbairik eta eztabaidarik onartzen ez duten berezitasunekin, gaitasunari, filiazioari eta ezkontzari buruzko auzigaiei bide eman behar dieten prozesuak. Gisa horretan, egoera deitoragarri bati ematen zaio amaiera, lege prozesal erkidera ekarri egiten baita bertan egon behar duena, zeina, orain arte, arakatu egin behar zen-eta, edota, areago oraindik, ondorioztatu, xedapen barreiatu, ilun eta arazotsuetatik.

Bigarrenik, ondareen zatiketa judizialaren prozesuak; izan ere, izenburu horren barruan arautzen dira jaraunspenaren zatiketa judiziala eta ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko prozedura berria, eta aukera ematen dute izaera horretako arazoak ebazteko, liskar judizialik gabe ebatzi nahi ez zirenak edo ebatzi ezin zirenak. Eta, azkenik, nolabait ere aurrekoak baino berriagoak diren bi prozesu: judizio monitorioa eta kanbio-prozesua.

Xedapen-printzipioak eraentzen ez duen prozesuei dagokienez edo objektu prozesalari datxekion interes publiko eztabaida ezinagatik printzipio horren eragina txikiagoa den prozesuei dagokienez, legea ez da mugatzen haiek kodetzeraz, baizik eta, erregela substantiboak erabat errespetatuz, prozesua haien tresna baita, prozedura errazak diseinatzen ditu, eta arreta berezia eskaintzen die esperientziak erakutsitako benetako arazoei. Nabarmentzekoak dira aurreikusitako kautela-neurri espezifikoak, zeinak, gai horiei buruzko arauketa prozesal bateratu eta osoak dakartzan abantaila praktikoen mesedetan, prozesu berezi horietan txertatu baitira, eta ez baitira eraman, teorikoki beharbada perfektuagoak diren irizpide sistematiko batzuek eskatuko luketen bezala, neurrian arauketa orokorrera.

Jaraunspenaren zatiketa judizialerako, legeak prozedura bat diseinatzen du, 1881eko legeko testamentu-judizioa baino askoz sinpleagoa eta arinagoa. Prozedura horrekin batera, beste prozedura bat arautzen du, bereziki ezarria bide emateko ezkontzaren ondasun-eraentzaren likidazio judizialari, eta horren bidez erantzuna ematen zaio gai horretan arauketa prozesal argi baten premiazko beharrianari, zeina behin eta berriz agerian geratu baitzen aurreko legeria indarrean zegoen bitartean.

Prozesu monitorioari dagokionez, legeak uste osoa du ezen, hainbat herrialdetan efikazak diren prozedura horren bideetatik, babes azkarra eta efikaza izango duela justiziapeko askoren eta, bereziki, profesional eta enpresaburu ertainen eta txikien diruzko kreditu likidoak.

Laburbilduz, prozedura hori zordunaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegira zuzendutako eskaera bidez hasten da, eta, horretarako, inprimakiak edo formularioak erabil daitezke, prokuradoreak eta abokatuak esku hartzeko beharrik gabe. Prozesu horretako giltzarria da eskaerarekin batera aurkeztea dokumentu batzuk, zeinetatik ondorioztatzen den zorraren itxura juridiko onaren oinarri bat. Legeak kasu



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

orokorrak eta beste kasu zehatz edo tipiko batzuk ezartzen ditu. Azpimarratu behar da dokumentuek prozesu monitorioetan duten efikazia harmonikoki osatzen dela egiazko titulu betearazle estrajudizialen efikazia indartzearekin.

Baldin eta legeak berak itxura haren oinarritzat hartzen dituen dokumentuak badira edo auzitegiak halakotzat hartzen baditu, zordun gisa ageri dena berehala kokatzen da ordaintzeko edo “arrazoiak emateko” aukeraren aurrean, halako moldez non, zorduna agertzen ez bada edo aurka egiten ez badu, behar beste justifikatuta dagoen betearazpena abiaraztea, xedatu bezala. Aitzitik, “arrazoiak ematen” badira, hau da, zordunak aurka egiten badu, erreklamaturako zorraren muntaren arabera egokitzen den judizioaren bide prozesaleatik bideratuko da hartzekodunarekin duen desadostasuna. Judizio hori prozesu arruntzat eta plenariotzat ulertzen da, eta, beraz, bideratuta egongo da amaitzera, printzipioz, gauza epaituaren indarra duen epaiaren bidez.

Zorduna agertzen ez bada edo aurka egiten ez badu, betearazpena abiarazten da epai judizialentzat xedatutakoaren arabera. Nahitaezko betearazpen horren baitan, aukera dago gauzatzeko haren ordezkari aurreikusitako aurkakotza mugatua, baina berezitasun batekin: atea ixten zaio prozesu arrunt bati, zeinean erreklama daitekeen zor bera edo monitoriotik eratorritako betearazpenean lor zitekeen itzulketa. Auzitan aritzeko aukerak ixtea bat dator eta koherentea da zordunak defentsarako duen aukera bikoitzarekin, eta beharrezkoa da prozedura monitorioari efikazia emateko.

Azkenik, komeni da ohartaraztea, prozesu monitorioari dagokionez, legeak ezagutzen duela beste herrialde batzuetako arauketen errealitatea, zeinetan ez dagoen muntagatik mugatuta bide berezi hori. Baina jurisdikzio-babeseko tresna hori gure sistema prozesal zibilean sartzean, zuzurrakoa iritzi zaio muntazentzuzko zifra batera mugatzeari, zeinaren bidez ahalbidetzen den oso handiak ez diren diruzko erreklamazioak izapidetzea, nahiz eta hitzezko judiziorako ezarritako muga kuantitatiboa baino handiagokoak izan.

Bestalde, kanbio-judizioa da kanbio-letretan, txeketan eta ordaindukoetan dokumentatutako kredituek behar duten bide prozesala. Babes jurisdikzional berezi bat da, trafikoko tresna horiei buruz lege berezian xedatutakoaren instrumentala. Kanbio-kredituaren babes efikazia ziurtatuta geratzen da berehalako prebentziozko enbargoarekin, zeina automatikoki betearazle bihurtzen baita zordunak aurkakotzarik formulatzen ez badu edo hura ezetsia bada. Aurkakotza baiesten den kasuetatik kanpo, prebentziozko enbargoa kendu ahal izango da, soilik baldin eta arrazoiak emanez alegatzen bada sinadura faltsua dela edo ez dagoela inolako ordezkariarik; horrela, kanbio-kreditua jurisdikzionalki babesteko sistema eratzen da lege honetan, eta indargabetutako legerian zeukan efikazia bera du sistema horrek.

XX

Bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrien bidez lortu nahi da, batetik, posible egin daitezela etorkizunean komenigarriak izango diren muntaren eguneratze eta egokitzapenak, besteak beste, euroa erabat ezartzeak dakarrena, eta, bestetik, modu eraginkorrean eskuragarri jar daitezela ikustaldiak, entzunaldiak eta agerraldiak jasota geratzeko bitarteko material berriak.

Bigarren xedapen gehigarriari dagokionez, euroko muntarekin batera mantendu da pezetakoa kasu jakin batzuetan, hain zuzen ere, horren asmoa baita errazago zehaztu dadila zer prozedura jarraitu behar den lehen auzialdian eta errazago jo ahal izan dadila errekurso batzuetara, hartara saihestuz Europako



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

dirura bihur daitezela kuantifikazioa oinarritu behar duten dokumentu eta erregistroetan jasotako muntak, beharbada, Europako dirutik aspaldi urrunegi geratutakoak.

Xedapen iragankorrek aurreikusten dute, erraz ulertzekoak eta aplikatzekoak diren zentzuzko irizpideekin bat etorritik, zer arazo sor daitezkeen Legea indarrean sartzen den unean ebazkizun dauden prozesuei dagokienez, dagokion azken xedapenean aurreikusitako urtebeteko "vacatio" igaro eta gero. Irizpide orokorra da lege berria ahalik eta azkarren izan dadila eraginkorra, eta kasu desberdinei aplikatzen zaie irizpide hori.

Xedapen indargabetzaileak arau asko biltzen ditu, lege honen izaera beraren ondorioz baita klausula indargabetzaile orokor soila saihesteko duen gogo biziaren ondorioz ere, bat etorritik Kode Zibilaren 2. artikulua bigarren apartatuan xedatutakoarekin. Klausula orokor hutsaren irtenbide erraza ez da bakarrik gaitzesgarria teknika juridikoaren eta, zehazki, teknika legegilearen ikuspegitik; areago oraindik, arazo larriak sortzen ditu sarritan.

Bere lehenengo apartatuan, xedapen indargabetzaileak 1881eko Prozedura Zibilaren Legea bera aipatzen du lehendabizi, beharrezko denbora-salbuespenak eginez indargabetze orokorrari, hain zuzen ere, kontuan harturik hala konkurtsoaren gaia, nola borondatezko jurisdikzioa eta gai zibileko nazioarteko lankidetzak juridikoa arautuko dituzten bihar-etziko legeak.

Era berean, orain arteko zenbait manu prozesal indargabetzen dira hogeiren bat lege desberdinetan, eta halaber, besteak beste, Udal Justiziaren arau prozesalei buruzko 1952ko azaroaren 21eko Dekretua eta Enpresen Enbargoari buruzko 1969ko urriaren 20ko Lege Dekretua. Sarri askotan, arau berrien bidez ordeztu dira manu horiek lege honetan. Beste batzuetan, legean bertan txertatu dira. Eta, zenbait kasutan, segituan aipatuko diren izaera desberdineko azken xedapenen bidez aldatu dira.

Kode Zibilean duen eraginari dagokionez, nabarmendu behar da, frogabideei buruzko arauak ezabatzen diren arren, mantendu egiten direla trafiko juridikoan garrantzia —eta ez txikia, gainera— izan dezaketen dokumentuei dagozkien manuak. Indarrean jarraitzen duten manu horietako batzuek berariaz aipatzen dute frogak, baina lege honetako manuekin kontraesanekoak ez izateaz gain, baizik eta harmonikoak, ulertu behar da ziurtasun eta efikazia estrajudizialari buruzkoak direla. Arau horien sustrai sendoek gomendatu dute haiek ez indargabetzea, hartara eragotzi gabe etorkizunean haiek hobetzeko aukera.

Azken xedapenei dagokienez, horietako batzuk mugatzen dira lege bereziek Prozedura Zibilaren Legera egiten dituzten igorpenak egokitzea. Beste batzuek, ordea, manu jakin batzuen idazketa aldatzen dute, kontuan izanik lege honetan jasotako berrikuntzak. Hori da, esaterako, Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko Legearen 15. artikulua zenbait apartaturen eta lehenengo xedapen gehigarriaren kasua. Behin gure ordenamenduan prozesu monitorioa txertatuta eta legean berariaz jasota ordaindu gabeko epeengatik zorrak, lege horretan araututako kontratu-eraketaren aurka, badiardi nahitaezkoa dela betearazpena eragitean datzan birtualitatea, titulu jakin batzuei esleitua, harentzat xedatutakora egokitu behar izatea.

Lege honek jurisdikzioaren tratamendu prozesalean egin duen aldaketak Arbitrajeko Legearen 11. artikulua aldatzeko ekarri du. Baina, gainera, arbitraje-erakundearen efikazia sendotzen lagundu behar du; izan ere, aurrerantzean posible izango da prozesu judizialaren barnean arbitrajepean jartzea baliaraztea,



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

halako moldez non auzitegia hasieran abstenituko den prozesu horren arduraz, eta ez amaieran, konpromiso-alegazioa luzatze-salbuespen gisa eratzearen ondorioz gertatzen zen bezala.

Hipoteka Legean egindako erreformek, arreta bereziarekin aztertuak, bateragarri egin nahi du lege honen arauketa lege haren osotasun eta argitasun handiagoarekin. Halaber, beharrezkoak dira zenbait aldaketa lan-arloko eta arlo penaleko lege prozesalean, oso-osorik arautuz kasuan kasuko prozesuetan abstentzioa eta errekusazioa, bai eta beste puntu jakin batzuk ere. Arlo penaleko lege prozesalean, egokia da aldatzea instrukzioko jardun judizialeko eragilearen ordu baliodunei buruzko manua.

Kauzio-ematea edo gordailu-eratzeari erraz dadin lege honek hartutako joerari jarraituz, erreformatu egiten da Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilar eta Asegurari buruzko Legearen xedapen gehigarria. Justiziaripeko askoren eskubide eta interes legitimoak direla-eta, Justizia Administrazioari ardura diona ez da beste justiziaripeko batzuek eskudirua izatea gordailuetan eta kauzioetan erabiltzeko, baizik eta diru-zenbateko jakin batzuk behar diren unean berehala erabili ahal izatea legeak ezarritako helburuetarako.

ATARIKO TITULUA

Arau prozesalez eta haien aplikazioaz

1. artikulua. Prozesuaren legezkotasun-printzipioa.

Prozesu zibiletan, bai auzitegiek eta bai auzitegi-talderak bertaraturik bertan esku hartzen dutenek lege honetan xedatutakoaren arabera jardun beharko dute.

2. artikulua. Arau prozesal zibilen aplikazioa denboran.

Zuzenbide iragankorreko lege-xedapenetan besterik ezarri ezean, auzitegi zibilei dagozkien auzigaiak indarrean dauden arau prozesalen arabera, zeinak ez diren inoiz atzeraeraginezkoak izango, bideratuko dituzte beti auzitegi horiek.

3. artikulua. Arau prozesal zibilen lurralde-eremua.

Nazioarteko tratatuek eta hitzarmenek aurreikus ditzaketen salbuespen bakarrekin, lurralde nazionalen bideratutako prozesu zibilak Espainiako arau prozesalek soilik eraenduko dituzte.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. artikulua. Prozedura Zibilaren Legearen izaera osagarria.

Prozesu penalak, administrazioarekiko auzienak, lan-arlokoak eta militarrek arautzen dituzten legeetan xedapenik izan ezean, lege honen manuak aplikatuko zaizkie prozesu horiei guztiei.

I. LIBURUA

Judizio zibilei buruzko xedapen orokorrez

I. TITULUA

Judizioan agertzeaz eta jarduteaz

5. artikulua. Jurisdikzio-babes motak.

1. Auzitegiei eskatu ahal izango zaizkie prestazio zehatza egiteko kondena, eskubide eta egoera juridikoak badirela deklaratzeko, azken horiek eratzea, aldatzea edo azkentzea, betearazpena, kautela-neurriak hartzea eta legean berariaz aurreikusitako bestelako edozein babes-mota.

2. Aurreko apartatuan aipatutako uziak auzitegi eskudunaren aurrean formulatuko dira, eskatutako erabakiak uki ditzakeen subjektuen aurka.

I. KAPITULUA

Alderdi izateko gaitasunaz, gaitasun prozesalaz eta legitimazioaz

6. artikulua. Alderdi izateko gaitasuna.

1. Auzitegi zibilen aurreko prozesuetan alderdi izan ahalko dira:

1.) Pertsona fisikoak.

2.) Jaio gabeko kontzebitua, onuragarri izan dakizkiokeen ondore guztietarako.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3.) Pertsona juridikoak.

4.) Ondare-masak edo ondare bananduak, behin-behinean titularrik ez badute edo titularrari xedatze-eta administrazio-ahalmenak kendu bazaizkio.

5.) Legeak alderdi izateko gaitasuna aitortu dien nortasun juridikorik gabeko entitateak.

6.) Fiskaltza, legearen arabera alderdi gisa esku hartu behar duen prozesuetan.

7.) Egitate kaltegarri batek ukitutako kontsumitzaile- edo erabiltzaile-taldeak, taldea osatzen duten gizabanakoak zehaztuta daudenean edo erraz zehazteko moduan daudenean. Judizioan demandatzeko, beharrezkoa izango da ukituen gehiengoak osatzea taldea.

8.) Europako Erkidegoaren araudiaren arabera kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen eta interes lausoen defentsan bukarazte-akzioa egikaritzeko gaitutako entitateak.

2. Legearen arabera kudeatzaileek edo partaideek izan dezaketen erantzukizuna eragotzi gabe, demandatu ahal izango dira, kasu orotan, pertsona juridiko izateko lege-betekizunak bete gabe helburu zehatz bat lortzera bideratutako elementu pertsonal eta ondare-elementu anitzez osatuta dauden entitateak.

7. artikulua. Agerraldia judizioan eta ordezkaritza.

1. Judizioan pertsona guztiak agertu ahal izango dira.

2. Emantzipatu gabeko adingabeek legeak galdatutako ordezkaritza bidez, laguntzarekin edo baimenarekin agertu beharko dute. Beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak dituzten pertsonen kasuan, neurri horien norainokoari eta edukiari jarraituko zaie.

3. Kontzebitu eta jaio gabekoen ordezkariak, haiek jaiota egonez gero legitimoki ordezkatzeko lituzketenak agertuko dira.

4. Pertsona juridikoen ordezkariak, haiek legez ordezkatzeko dituztenak agertuko dira.

5. Aurreko artikuluen 1. apartatuaren 4.) zenbakian aipatutako ondare-masak edo ondare bananduak legearen arabera haiek administrazioan dituztenen bidez agertuko dira judizioan.

6. Aurreko artikuluen 1. apartatuaren 5.) zenbakian aipatutako nortasunik gabeko entitateak legeak kasuan-kasuan entitate horien judizio-ordezkaritzarako esleitu dituen pertsonen bidez agertuko dira judizioan.

7. Aurreko artikuluen 1. apartatuaren 7.) zenbakian eta 2. apartatuan aipatutako nortasunik gabeko entitateen ordezkariak, hirugarrenen aurrean entitate horien izenean, egitez zein entitateak egindako itun bidez, diharduten pertsonak agertuko dira judizioan.

8. Konkurtsopekoen gaitasunaren mugak eta haiek gainditzeko moduak Konkurtso Legean ezarritakoaren arabera eraenduko dira.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

7 bis artikulua. Desgaitasuna duten pertsonentzako eta adineko pertsonentzako doikuntzak.

1. Desgaitasuna duten pertsonak eta hala eskatzen duten adineko pertsonak edo, nolana ere, laurogei urte edo gehiagoko pertsonak parte hartzen duten prozesuetan, behar diren egokitzapenak eta doikuntzak egingo dira pertsona horiek berdintasun-baldintzetan parte hartzen dutela bermatzeko.

Ondore horietarako, adineko pertsonatzat joko dira hirurogeita bost urte edo gehiago dituztenak.

Desgaitasuna duten pertsonen kasuan, egokitzapen eta doikuntza horiek egingo dira, bai alderdietako edozeinen edo Fiskaltzaren eskariz, bai auzitegiak berak ofizioz eskatuta.

Laurogei urte baino gutxiago dituzten adineko pertsonen kasuan, egokitzapen eta doikuntza horiek interesdunak eskatuta egingo dira.

Laurogei urte edo gehiago dituzten pertsonen kasuan, egokitzapen eta doikuntza horiek egingo dira hala interesdunak eskatuta nola auzitegiak berak ofizioz eskatuta.

Egokitzapenak egingo dira beharrezkoa den fase eta jardun prozesal guztietan, komunikazio-egintzak barne, eta komunikazioari, ulermenari eta ingurunearekiko interakzioari buruzkoak izan daitezke.

2. Desgaitasuna duten pertsonak eta adineko pertsonak eskubidea dute egin beharreko edozein jardunetan ulertzeko eta ulertuak izateko. Xede horretarako:

a. Desgaitasuna duten pertsonari, laurogei urte edo gehiagokoei eta hala eskatu duten adineko pertsonari zuzendutako komunikazio guztiak, ahozko edo idatzizkoak, hizkuntza argi, erraz eta ulerterrazean egingo dira, betiere haien ezaugarri pertsonalak eta beharrianak kontuan harturik, eta irakurketa erraza bezalako bitartekoak erabiliz. Beharrezkoa izanez gero, desgaitasuna duen pertsonari bere gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza ematen dion pertsonari ere egingo zaio komunikazioa.

b. Desgaitasuna duen pertsonari behar besteko laguntza edo babesak emango zaizkio bere burua besteri ulertarazteko; lege aitortutako zeinu-hizkuntzetako interpretazioa zein gorrei, entzuteko desgaitasuna dutenei eta gor-itsuei ahozko komunikazioan laguntzeko bitartekoak sartuko dira horren barruan.

c. Baimena emango da profesional aditu batek parte har dezan, zeinak, bideratzaile gisa, behar diren egokitzapen- eta doikuntza-atazak egingo dituen, desgaitasuna duen pertsonak ulertzeko eta ulertua izateko aukera izan dezan.

d. Desgaitasuna duen pertsona eta adineko pertsonak beren aukerako pertsona batek lagunduta egon ahal izango dira agintari eta funtzionarioekiko lehen harremanetik bertatik.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, alderdi interesdunetako bat laurogei urte edo gehiagoko pertsona duten prozedura guztiak, hala deklarazio-fasean nola betearazpenekoan, lehentasunez izapidetuko dira.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

8. artikulua. Gaitasun prozesala osatzea.

1. Pertsona fisikoa aurreko artikulua 2. apartatuko kasuan dagoenean eta judizioan agertzeko legez ordezkatzeko edo lagunduko duen pertsonarik ez badago, Justizia Administrazioaren letraduak defendatzaile judizial bat izendatzeko dio dekretu bidez, ordezkaritza eta defentsa bere gain hartuko dituen, harik eta pertsona hura izendatu arte.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kasuan eta demandatuari defendatzaile judizial bat izendatu beharra dagoen gainerakoetan, Fiskaltzak bere gain hartuko ditu ordezkaritza eta defentsa, harik eta hura izendatu arte.

Kasu orotan, prozesua etenda geratzeko da, harik eta Fiskaltzaren esku-hartzea jasota geratu arte.

9. artikulua. Gaitasunik eza ofizioz hautematea.

Alderdi izateko gaitasunik eza eta gaitasun prozesalik eza ofizioz hauteman ahal izango ditu auzitegiak prozesuaren edozein unetan.

10. artikulua. Prozesuko alderdi legitimo izatea.

Alderdi legitimotzat hartuko dira harreman juridikoaren edo auziaren objektuaren titular gisa judizioan agertzen eta aritzen direnak.

Salbuespen dira legeak legitimazioa titular ez den pertsona bati esleitzen dion kasuak.

11. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen eta interesen defentsarako legitimazioa.

1. Kaltetunen legitimazio indibiduala eragotzi gabe, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte legez eratuak legitimatuta egongo dira judizioan defendatzeko beren bazkideen edo elkartearen eskubide eta interesak, bai eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes orokorrak ere.

2. Egitate kaltegarri baten kaltetuna kontsumitzaile- edo erabiltzaile-talde bat denean eta talde horren kideak guztiz zehaztuta edo erraz zehazteko moduan daudenean, interes kolektibo horien babesa eskatzeko legitimazioa izango dute kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek, haien defentsa edo babesa helburu duten entitate legez eratuek, bai eta ukitu-taldeek berek ere.

3. Egitate kaltegarri baten kaltetunak zehaztu gabeko edo zehazteko zaila den kontsumitzaile- edo erabiltzaile-aniztasun bat direnean, legearen arabera ordezkaritza duten kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek soilik izango dute judizioan interes lausoen defentsa demandatzeko legitimazioa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Halaber, 6.1.8.) artikuluan aipatzen diren gaitutako entitateak legitimatuta egongo dira kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen eta interes lausoen defentsan bukarazte-akzioa egikaritzeko.

Epailleek eta auzitegiek zerrenda hori onartuko dute gaitutako entitateak alderdi izateko duen gaitasunaren froga gisa; dena den, horrek ez du eragotziko aztertzea ea entitatearen helburuak eta ukitutako interesek akzioa egikaritzea legitimatzen duten.

5. Fiskaltza legitimatuta egongo da edozein akzio egikaritzeko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesen defentsan.

11 bis artikulua. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea defendatzeko legitimazioa.

1. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea defendatzeko legitimatuta egongo dira, ukituez gain eta horien baimenarekin betiere, Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako Agintaritza Independentea, bai eta, horietan afiliatuta edo elkartuta dauden pertsonen dagokienez, alderdi politikoak, sindikatuak, langile autonomoen elkarte profesionalak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erakundeak eta beren helburuen artean giza eskubideak defendatzea eta sustatzea duten elkarte eta erakunde legez eratuak ere, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako lege integralean ezarritakoaren arabera.

2. Ukituak zehaztu gabeko edo zehazteko zaila den pertsona-aniztasun bat direnean, eskubide edo interes lausoen defentsarako akzio judizialak eskatzeko legitimazioa izango dute Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako Agintaritza Independentek, alderdi politikoek, ordezkaritza handieneko sindikatuak eta langile autonomoen elkarte profesionalak, orobat estatu-mailako kontsumitzaile- eta erabiltzaile-erakundeek, beren helburuen artean giza eskubideak defendatzea eta sustatzea duten estatu-mailako edo diskriminazio-egoera gertatu den lurralde-eremuko erakundeek, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako lege integralean ezarritakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe ukituen banakako legitimazioa, zehaztuta badaude.

11 ter artikulua. Tratu-berdintasunerako eta sexu-orientazio eta -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo sexu-ezaugarriengatik ez diskriminatzeko eskubidea defendatzeko legitimazioa.

1. Sexu-orientazio eta -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo sexu-ezaugarriengatik diskriminazioa jasandako biktimen eskubide eta interesak defendatzeko legitimatuta egongo dira, ukituez gain eta horien berriazko baimenarekin betiere, alderdi politikoak, erakunde sindikalak, erakunde enpresarialak, langile autonomoen elkarte profesionalak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak eta beren helburuen artean lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen edo haien familien eskubideak defendatzea eta sustatzea duten elkarte eta erakunde legez eratuak ere, Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legean ezarritakoaren arabera.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Ukituak zehaztu gabeko edo zehazteko zaila den pertsona-aniztasun bat direnean, interes lauso horien defentsa judizioan demandatzeko legitimazioa izango dute, soil-soilik, gai horretan eskumena duten organismo publikoek, erakunde sindikalek, erakunde enpresarialek, langile autonomoen elkarte profesionalek, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek eta beren helburuen artean lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen edo haien familien eskubideak defendatzea eta sustatzea duten elkarte eta erakunde legez eratuek.

3. Jazarpena jasan duen pertsona izango da legitimatu bakarra sexu-orientazio eta -identitateagatiko, genero-adierazpenagatiko edo sexu-ezaugarriengatiko diskriminazio-jazarpenari buruzko auzietan.

11 quater artikulua. Arte eta kulturako norberaren konturako langileen edo autonomoen eskubide eta interesak defendatzeko legitimazioa.

1. Arte eta kulturaren sektoreko profesionalen elkarte legez eratuak, sektore horren defentsa eta babesa helburu dutenak, legitimatuta egongo dira judizioan defendatzeko beren bazkideen eta elkartearen eskubide eta interesak, bai eta arte eta kulturako norberaren konturako langileen edo autonomoen interes orokorrak defendatzeko ere, baldin eta haien baimena badute. Legitimazio bera izango dute, halaber, elkarte horiek eratutako federazio, konfederazio eta batasunek.

2. Arte eta kulturako norberaren konturako langile edo autonomo ukituak zehaztu gabeko edo zehazteko zaila den aniztasun bat direnean, interes lauso horien defentsa judizioan demandatzeko legitimazioa izango dute, soil-soilik, aurreko apartatuan adierazitako entitate profesionalek.

3. Fiskaltza legitimatuta egongo da edozein akzio egikaritzeko arte eta kulturako norberaren konturako langileen edo autonomoen interesen defentsan.

II. KAPITULUA

Alderdi-aniztasunaz

12. artikulua. Auzikidetza.

1. Judizioan hainbat pertsona agertu ahal izango dira, demandatzaile edo demandatu gisa, egikaritzen diren akzioak titulu beretik edo eskatzeko kausa beretik datozenean.

2. Judizioaren objektua dela-eta, eskatutako jurisdikzio-babesa batera kontuan hartutako subjektu batzuen aurka soilik gauzatu daitekeenean, haiek guztiak demandatu beharko dira, auzikide moduan, legeak beste zerbait berariaz xedatu ezean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

13. artikulua. Jatorriz demandatzaile edo demandatu ez diren subjektuen esku-hartzea.

1. Prozesu bat ebazkizun dagoen bitartean, demandatzaile edo demandatu gisa onartu ahal izango da auziaren emaitzan interes zuzena eta legitimoa duela egiaztatzen duena. Zehazki, edozein kontsumitzailek edo erabiltzailek esku hartu ahal izango du entitate legez aitortuek haien interesak defendatzeko hasitako prozesuetan.

2. Esku hartzeko eskaerak ez du prozeduraren aribidea etengo. Auzitegiak auto bidez ebatziko du, pertsonatutako alderdiei hamar eguneko epe komunean entzun ondoren.

3. Esku-hartzea onartuta, ez da atzera egingo jardunetan, baina esku-hartzailea alderditzat hartuko da prozesuan, ondore guztietarako, eta haren auzikideak edo esku-hartzaileak berak formulatutako uziak defendatu ahal izango ditu, horretarako aukera prozesala izanez gero, nahiz eta haren auzikideak uko egin, amore eman, atzera egin edo, beste edozein kausa dela medio, prozeduratik aldentu.

Esku-hartzaileari bere defentsarako beharrezkoak diren alegazioak egiten ere utziko zaio, horiek egin ez baditu bera prozesuan onartua izan baino lehenagoko une prozesalei zegozkielako. Alegazio horiek, kasu orotan, gainerako alderdiei helaraziko dizkie Justizia Administrazioaren letraduak, bost eguneko epea emanda.

Esku-hartzaileak, era berean, bidezkoak diren errekursoak erabili ahal izango ditu bere interesarentzat kaltegarri irizten dien ebazpenen aurka, nahiz eta haren auzikideak haiek onartu.

14. artikulua. Eragindako esku-hartzea.

1. Legeak ahalbidetzen duenean demandatzaileak hirugarren bati dei egitea prozesuan esku har dezan demandatu izaera izan gabe, esku hartzeko eskaera demandan egin beharko da, legeak beste zerbait berariaz xedatu ezean. Auzitegiak hirugarren hori prozesuan sartzea onartuta, hirugarren horrek legeak alderdiei jarduteko emandako ahalmen berberak izango ditu.

2. Legeak demandatuari uzten dionean hirugarren bati dei egiten prozesuan esku har dezan, erregela hauen arabera jardungo da:

1.) Demandatuak auzitegiari eskatuko dio hirugarrenari jakinaraz dakiola judizioa ebazkizun dagoela. Eskaera demandari erantzuteko emandako epean aurkeztu beharko da.

2.) Justizia Administrazioaren letraduak aginduko du demandari erantzuteko epea eten dadila, eskaera aurkeztu zen egunetik hasita, eta erabakiko du demandatzaileari hamar eguneko epean entzun dakiola, eta auzitegiak bidezkoa dena ebatziko du auto bidez.

3.) Demandari erantzuteko demandatuari emandako epeari berriro ekingo zaio demandatuari bere eskabidea ezetsi dela jakinarazten zaionean edo, baietsi bada, hirugarrenak aurkeztutako erantzun-idazkia helarazten denean eta, kasu orotan, azken horri demandari erantzuteko emandako epea amaitzen denean.

4.) Hirugarrena agertuta, demandatuak uste badu hark bere lekua hartu behar duela prozesuan, 18. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5.) Epaian hirugarrena absolbituz gero, kostuak haren esku-hartzea eskatu zuenari ezarri ahal izango zaizkio, 394. artikulua irizpide orokorren arabera.

15. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubide eta interes kolektiboak eta lausoak babesteko prozesuetako publizitatea eta esku-hartzea.

1. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak babesteko eratutako elkarteek nahiz entitateek edota ukitu-taldeek sustatutako prozesuetan, prozesua sustatu zuen produktuaren kontsumitzaile edo zerbitzuaren erabiltzaile izateagatik kalteak izatera dutenei deituko zaie prozesura, beren eskubide edo interes indibiduala egikari dezaten. Deialdi hori Justizia Administrazioaren letratuak egingo du, demanda onartu dela publikatuta eskubide edo interes horiei kalte egin zaien lurralde-eremuan zabalkundea duten komunikabideetan.

Fiskaltza alderdi izango da prozesu horietan gizarte-interesak justifikatzen duenean. Prozesu horietakoren batez arduratzen den auzitegiak prozesuaren hasiera komunikatuko dio Fiskaltzari, bera pertsonatzeko aukera balora dezan.

2. Prozesuan zehaztuta daudenean edo erraz zehazteko moduan daudenean egitate kaltegarriaren kalteak, demandatzaileak edo demandatzaileek demanda aurkezteko beren asmoa aldeztu aurretik komunikatu beharko diete interesdun guztiei. Kasu horretan, deialdia egin ondoren, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak prozesuan esku hartu ahal izango du edozein unetan, baina prekluitu gabeko egintza prozesalak soilik gauzatu ahal izango ditu.

3. Egitate kaltegarriak zehaztu gabeko edo zehazteko zaila den pertsona-aniztasun bati kalte egiten dion prozesuan, deialdiak eten egingo du prozesuaren aribidea, gehienez bi hilabeteko epean; Justizia Administrazioaren letratuak kasu-kasu zehaztuko du epea, egitatearen inguruabarrak edo konplexutasuna eta kalteak zehazteko eta lokalizatzeko zailtasuna kontuan izanda. Prozesuari berriro ekingo zaio deialdira joandako kontsumitzaile guztiek esku hartuta, eta ez da onartuko kontsumitzaileen edo erabiltzaileen pertsonatze indibiduala geroagoko une batean; hargatik, ez da eragotziko azken horiek beren eskubideak edo interesak lege honen 221. eta 519. artikuluetan xedatutakoaren arabera baliatzea.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakotik salbuetsiko dira kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboak eta interes lausoak defendatzeko bukarazte-akzio bat egikaritzearekin hasitako prozesuak.

15 bis artikulua. Lehia defendatzeko prozesuetan eta datuak babesteko prozesuetan esku hartzea.

1. Europako Batzordeak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek beren eskumenen esparruan, prozesuko alderdi izan gabe ere, lehia defendatzeko prozesuetan eta datuak babesteko prozesuetan esku hartu ahal izango dute, beren ekimenez edo organo judizial batek eskatuta, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikulua edo Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. eta 2. artikulua aplikatzearen inguruko arazoei buruz informazioa emanez edo idatzizko oharra aurkeztuz. Dagokion organo judizialak emandako baimenarekin, hitzeko oharra ere aurkeztu ahal izango dituzte. Ondore horietarako, jurisdikzio-



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

organo eskudunari eskatu ahal izango diote dena delako auzigaiaren balorazioa egiteko beharrezkoak diren dokumentu guztiak igor diezazkiela edo igorraz ditzala.

Informazio-emateak ez ditu barnean hartuko Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 65. eta 66. artikuluetan aurreikusitako isunen salbuespena edo haien zenbatekoan murrizketa aplikatzeko inguruabarren esparruan eskuratutako datu edo dokumentuak.

2. Europako Batzordeak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek aurreko apartatuan aurreikusten diren informazioa edo oharra aurkeztuko dituzte 433. artikuluan aipatzen den judizio-ekitaldia egin baino hamar egun lehenago edo jarritako errekursoari aurka egiteko edo hura aurkaratzeko epearen barruan.

3. Aurreko apartatueta prozeduraren alorrean xedatutakoa aplikatzekoa izango da halaber Europako Batzordeak, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta datuak babesteko agintaritzak autonomikoen beharrezkotzat jotzen badute, beren eskumenen esparruan, esku hartzea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua aplikatzearen inguruko arazoak ukitzen dituen prozesu batean.

15 ter artikulua. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea defendatzeko prozesuetako publikitatea eta esku-hartzea.

1. Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako Agintaritzak Independentek, alderdi politikoek, sindikatuak, langile autonomoen elkarte profesionalek, kontsumitzaile- eta erabiltzaile-erakundeak eta beren helburuen artean giza eskubideak defendatzea eta sustatzea duten elkarte eta erakunde legez eratuak sustatutako prozesuetan, prozesua sustatu zuen diskriminazio-egoera pairatu izanagatik ukitu izaera dutenei deituko zaie prozesura, beren eskubide edo interes indibiduala egikari dezaten.

2. Prozesu horietakoren batez arduratzen den organo judizialak prozesuaren hasiera komunikatuko dio Fiskaltzari, berezko dituen funtzioen arabera balora dezan bera pertsonatzeko aukera.

15 quater artikulua. Tratu-berdintasunerako eta sexu-orientazio eta -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo sexu-ezaugarriengatik ez diskriminatzeko eskubidea defendatzeko prozesuetako publikitatea eta esku-hartzea.

1. Alderdi politikoek, erakunde sindikalek, langile autonomoen elkarte profesionalek, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak eta beren helburuen artean lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen eta haien familien eskubideak defendatzea eta sustatzea duten elkarte eta erakunde legez eratuak sustatutako prozesuetan, prozesua sustatu zuen diskriminazio-egoera pairatu izanagatik ukitu izaera dutenei deituko zaie prozesura, beren eskubide edo interes indibiduala egikari dezaten. Deialdi hori Justizia Administrazioaren letraduak egingo du.

2. Fiskaltza alderdi izango da prozesu horietan gizarte-interesak justifikatzen duenean. Prozesu horietakoren batez arduratzen den auzitegiak prozesuaren hasiera komunikatuko dio Fiskaltzari, bera pertsonatzeko aukera balora dezan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Prozesuan zehaztuta daudenean edo erraz zehazteko moduan daudenean diskriminazio-egoerak ukituak, demandatzaileak edo demandatzaileek demanda aurkezteko beren asmoa aldeztu aurretik komunikatu beharko diete interesdun guztiei. Kasu horretan, deialdia egin ondoren, ukituak prozesuan esku hartu ahal izango du edozein unetan, baina prekluitu gabeko egintza prozesalak soilik gauzatu ahal izango ditu.

4. Diskriminazio-egoerak zehaztu gabeko edo zehazteko zaila den pertsona-aniztasun bati kalte egiten dion prozesuan, deialdiak eten egingo du prozesuaren aribidea, gehienez bi hilabeteko epean; Justizia Administrazioaren letraduak kasuan-kasuan zehaztuko du epea, egitatearen inguruabarrak edo konplexutasuna eta ukituak zehazteko eta lokalizatzeko zailtasuna kontuan izanda. Prozesuari berriro ekingo zaio deialdira joandako guztiek esku hartuta, eta ez da onartuko ukituen pertsonatze indibiduala geroagoko une batean; hargatik, ez da eragotziko azken horiek beren eskubideak edo interesak lege honen 221. eta 519. artikuluetan xedatutakoaren arabera baliatzea.

III. KAPITULUA

Prozesuko ondorengotzaz

16. artikulua. Prozesuko ondorengotza, heriotzagatik.

1. Judizioaren objektua mortis causa eskualdatzen denean, kausatzailearen ondorengoak edo ondorengoek haren posizio berarekin jarraitu ahal izango dute judizio horretan, ondorengotzarako.

Edozein auzilariren heriotza haren ondorengo izan behar duenak komunikatuta, Justizia Administrazioaren letraduak prozesua etetea erabakiko du, eta gainerako alderdiei helaraziko die. Heriotza eta ondorengotza-titulua egiaztatuta eta izapide egokiak beteta, Justizia Administrazioaren letraduak, kasua denean, ondorengoa pertsonatutzat hartuko du hildako auzilariaren izenean, eta auzitegiak kontuan hartuko du emango duen epaian.

2. Auzigaiaz arduratzen den auzitegiak auzilaria hil izana jasota izan eta hurrengo bost eguneko epean ondorengoa pertsonatzen ez denean, Justizia Administrazioaren letraduak, antolaketa-eginbide bitartez, gainerako alderdiei eskatzen utziko die, ondorengoak eta haien egoitza edo bizilekua identifikatuta, prozesua badela haiei jakinaraz dakiela, eta epatu egingo ditu hamar eguneko epean ager daitezen.

Jakinaraztea erabakitzen den Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpen berean, prozesua etetea erabakiko da, ondorengoak agertu arte edo agerraldirako epea bukatu arte.

3. Hildako auzilaria demandatua denean eta gainerako alderdiek ondorengoak ezagutzen ez dituztenean edo haiek lokaliza ezin daitezkeenean edo agertu nahi ez dutenean, prozesuak aurrera jarraituko du, eta Justizia Administrazioaren letraduak auzi-ihesean deklaratu du alderdi demandatua.

Hildako auzilaria demandatzailea bada eta haren ondorengoak aurreko paragrafoan aipatutako lehenengo bi inguruabarretako edozeinengatik pertsonatzen ez badira, Justizia Administrazioaren letraduak



dekretu bat emango du, demandatzailea atzera egindakotzat emanda jarduketak artxiba daitezela agintzen duena, demandatuak aurka egin ezean; kasu horretan, 20. artikulua hiru garren apartatuan xedatutakoa aplikatuko da. Ondorengoak pertsonatzen ez badira agertu nahi ez dutelako, ulertuko da alderdi demandatzaileak uko egiten diola egikarituriko akzioari.

17. artikulua. Ondorengotza, auziaren objektua eskualdatzeagatik.

1. Judizioaren objektua eskualdatu denean, judizioa ebazkizun egonik, eskuratzailerak eskatu ahal izango du, eskualdaketa egiaztatuta, alderditzat har dadila eskualdatzaileak zuen posizioan. Justizia Administrazioaren letraduak antolaketa-eginbide bat emango du, jardunen etendura erabakitzen duena eta beste alderdiari hamar eguneko epea ematen diona bere eskubideari komeni zaiona alega dezan.

Epe horretan alderdi horrek aurka egiten ez badu, Justizia Administrazioaren letraduak, dekretu bidez, etendura amaitutzat emango du, eta xedatuko du eskuratzailerak eskualdatzaileak judizioan zuen posizioa har dezala.

2. Aurreko apartatuan emandako epean beste alderdiak adierazten badu eskuratzailerak judizioan sartzearen aurka dagoela, auzitegiak bidezkoa deritzona ebatziko du auto bidez.

Uzia ez da onartuko alderdi horrek egiaztatzen duenean, judizioaren objektuari lotuta, alderdi eskualdatzailearen aurka soilik balia ditzakeen eskubide edo defentsak dituela, edo errekonbentzio-eskubidea duela, edo errekonbentzioa ebazkizun dagoela edo alderdi-aldaketak bere defentsa modu nabarian oztopa dezakeela.

Eskuratzaileraren uzia onartzen ez denean, eskualdatzaileak judizioan jarraituko du, eta salbu geratuko dira bien arteko harreman juridiko pribatuak.

3. Konkurtso-prozeduretan, auziaren ondasunak eta eskubideak besterentzearen ondorioz sortutako prozesu-ondorengotza Konkurtso Legean ezarritakoaren arabera eraenduko da. Kasu horietan, beste alderdiak eskuratzaileraren aurka eraginkortasunez jarri ahal izango ditu konkurtsopekoaren aurka legozkiokeen eskubide eta salbuespenak.

18. artikulua. Ondorengotza, eragindako esku-hartzearen kasuetan.

14. artikulua 2. apartatuaren 4.) erregelari aipatutako kasuan, demandatuak aurkeztutako eskaera gainerako alderdiei helaraziko die Justizia Administrazioaren letraduak, beren eskubideari komeni zaiona alega dezaten bost eguneko epean, eta, ondoren, auzitegiak, auto bidez, bidezkoa dena erabakiko du ondorengotzaren komenigarritasunari edo komenigarritasun-ezari buruz.

IV. KAPITULUA



Alderdien xedatze-ahalmenaz prozesuaren eta haien uzien gainean

19. artikulua. Auzilarien xedatze-eskubidea. Transakzioa eta etendura.

1. Auzilariak judizioaren objektua xedatzeko ahalmena daukate, eta uko egin, judizioan atzera egin, amore eman, bitartekaritzapean edo arbitrajepean jarri eta judizioaren objektuaren gainean transakzioa egin ahal izango dute, salbu eta legeak hori debekatzen duenean edo interes orokorrarengatik edo hirugarrenaren onurarengatik mugak ezartzen dituenean.

2. Alderdiak transakzio judizial bat nahi badute eta haiek lortzen duten akordioa edo hitzarmena aurreko apartatuan aurreikusitakoarekin bat badator, homologatu egingo du amaitu nahi den auziaz arduratzen ari den auzitegiak.

3. Aurreko apartatueta aipatutako egintzak, haien izaeraren arabera, lehen auzialdiaren edo errekurtsoen edo epai-betearazpenaren edozein unetan gauzatu ahal izango dira.

4. Halaber, alderdiak prozesua eteteko eskatu ahal izango dute, eta hala erabakiko du Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez, betiere interes orokorrari edo hirugarrenari kalterik egiten ez badio eta etete-epea hirurogei egunetik gorakoa ez bada.

20. artikulua. Uko-egitea eta atzera-egitea.

1. Auzi-jartzaileak adierazten duenean uko egiten diola egikaritutako akzioari edo bere uziaren oinarri den eskubideari, auzitegiak demandatua absolbitzen duen epaia emango du, uko-egitea legez onartezina denean izan ezik. Kasu horretan, auto bat emango da, prozesuak aurrera jarrai dezala agintzen duena.

2. Demandatzaileak alde bakarrez atzera egin ahal izango du judizioan, demandatua demandari erantzuteko epatua edo judiziorako zitatua izan baino lehen. Era berean, alde bakarrez atzera egin ahal izango du, edozein unetan, demandatua auzi-ihesean dagoenean.

3. Demandatua epatuta, atzera egiteko idazkia helaraziko zaio hamar egunerako.

Demandatuak adostasuna ematen badio atzera-egiteari edo aurka egiten ez badio aurreko paragrafoan aipatutako epean, Justizia Administrazioaren letraduak largespena erabakitzen duen dekretua emango du, eta auzi-jartzaileak objektu berari buruzko beste judizio bat sustatu ahal izango du.

Demandatuak aurka egiten badio atzera-egiteari, epaileak egokia deritzona ebatziko du.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

21. artikulua. Amore-ematea.

1. Demandatuak amore ematen dienean auzi-jartzailearen uzi guztiei, auzitegiak haren eskaerekin bat datorren kondena-epaia emango du, baina amore-ematea lege-iruzurrez egiten bada edo interes orokorraren aurkako uko-egitea edo hirugarrenarentzako galera badakar, auto bat emango da, hura errefusatzen duena, eta prozesuak aurrera jarraituko du.

2. Amore-ematea partziala denean, auzitegiak, demandatzaileak eskatuta, berehala eman ahal izango du autoa, amore ematearen objektua izan diren uziak onartzen dituen. Horretarako, beharrezkoa izango da, uzi horien izaera kontuan hartuta, amore eman ez zaien gainerako uziak aurrez epaituko ez dituen pronuntziamentu banandua posible izatea, eta uzi horiei dagokienez aurrera jarraituko du prozesuak. Auto hori betearazgarria izango da, lege honen 517. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

3. Zor diren errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatik edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatik utzarazpen-judizioetarako 437. artikuluan 3. apartatuan aurreikusitako transakzio-ondoreak dituen konpromisoaren ondorioa bada amore-ematea, transakzioa homologatzen duen ebazpenak deklaratu du transakzioan higiezina uzteko ezarritako epea bete ezean transakzioa ondorerik gabe geratuko dela eta kondenatua higiezinetik botako dela, izapide gehiagorik gabe eta kondenatuari jakinarazpenik egin gabe, zitazioan finkatutako egunean eta orduan, ostekoa bada, edo ebazpen horretan ezarritako egunean eta orduan.

22. artikulua. Prozesua amaitzea, uzia prozesutik kanpo betetzeagatik edo ostean objektua bat-batean desagertzeagatik. Utzarazpena ezerezean uztearen kasu berezia.

1. Demandaren eta errekonbentzioaren osteko bat-bateko inguruabarrengatik interes legitimorik ez dagoenean eskatutako babes judiziala lortzeko —auzi-jartzaileari eta, hala denean, demandatu errekonbentzio-egileari prozesutik kanpo bete zaizkiolako uziak edo beste edozein kausaren ondorioz—, inguruabar hori ezagutaraziko da, eta, alderdien arteko akordioa egonez gero, Justizia Administrazioaren letraduak prozesuaren amaiera dekretatuko du, kostuak ordaintzeko kondena bidezkoa izan gabe.

2. Alderdietako batek interes legitimoak dirauela baderitzo, zioak emanez ukatuz haren uziak prozesutik kanpo bete direla edo beste argudio batzuk erabilita, Justizia Administrazioaren letraduak dei egingo die alderdiei, hamar eguneko epean, auzitegiaren aurrean ager daitezen, objektu bakartzat hori bera izango duen agerraldian.

Agerraldia bukatuta, auzitegiak auto bidez erabakiko du, hurrengo hamar egunetan, judizioak aurrera jarraitzea bidezkoa den ala ez, eta jardun horien kostuak bere uzia errefusatuta ikusi duenari ezarriko zaizkio.

3. Ezin izango da errekurtsorik jarri judizioak jarrai dezala agintzen duen autoaren aurka. Apelazioko errekurtsua jarri ahal izango da amai dadila erabakitzen duenaren aurka.

4. Errentariak zor dituen errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatik hiri-finka edo landa-finka utzarazteko prozesuak amaitu egingo dira ondore horretarako Justizia Administrazioaren letraduak emandako dekretu bidez, baldin eta errentariak, 438. artikuluan 5. apartatuan aurreikusitako eran



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

errekerimendua egin zaionean, errekerimenduan ezarritako epean ordaintzen badizkio auzi-jartzaileari, edo auzitegian edo notario bidez haren esku jartzen baditu, demandan erreklamatutako zenbatekoak, baita utzarazpena ezerezean uzten duen ordainketa horren unean zor dituen gainerakoak ere. Demandatzaileak utzarazpena ezerezean uzteari aurka egiten badio aurreko betekizunak bete ez direlako, alderdiei zitazioa egingo zaie lege honen 443. artikuluan aurreikusten den ikustaldirako, eta, ikustaldiaren ondoren, epaileak epai bat emango du, akzioa ezerezean deklaritzen duena, edo, bestela, demanda baietsiko du eta utzarazpena gauzatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango errentariak utzarazpena ezereztu duenean aurreko aldi batean, salbu eta kobrantza ez egitearen arrazoiak errentatzaileari egoztekoak direnean edo errentatzaileak fede-emaila den edozein bitarteko erabiliz errentaria ordaintzeko errekeritu duenean demanda aurkeztu baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez eta ordainketa ez denean egin aurkezpen hori egiteko unean.

5. Utzarazpen-akzioa ezerezean deklaritzen duen ebazpenak errentaria kondenatuko du sortutako kostuak ordaintzera, salbu eta errentatzaileari egoztekoak direnean zor zaizkion errentak eta kopuruak ez kobratzeko arrazoiak.

V. KAPITULUA

Prozesuko ordezkartaz eta defentsa teknikoaz

23. artikulua. Prokuradorearen esku-hartzea.

1. Judizioko agerraldia prokuradore bidez egingo da, zeinak Zuzenbidean lizentziaduna edo Zuzenbidean edo pareko graduko beste unibertsitate-tituluren batean graduduna izan beharko baitu eta judizioaz arduratzen den auzitegian bere lanbidean aritzeko gaitutakoa.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, auzilariak beren kabuz agertu ahal izango dira:

1.) Hitzeko judizioetan, haren zehaztapena muntagatik egin denean eta hark 2.000 euro gainditzen ez dituenean, eta prozedura monitorioak hasteko eskabiderako, lege honek aurreikusitakoaren arabera.

2.) Judizio unibertsalean, agerraldia kreditu-tituluak edo eskubide-tituluak aurkeztera mugatzen denean, edo batzarretara bertaratzeko.

3.) Doako laguntza juridikoa gai duten ebazpenak aurkaratzeari buruzko intzidenteetan, eta judizioaren aurretik urgentziazko neurriak eskatzen direnean.

3. Prokuradore legez gaitua edozein motatako prozesutan agertu ahal izango da abokatuaren beharrik gabe, komunikazio-egintzak entzuteko eta hartzeko edo epaileak, auzitegiak edota Justizia Administrazioaren letratuak eskatutako ordezkartuen agerraldiak, izaera pertsonalik ez dutenak, egiteko



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

soilik egiten duenean. Egintza horiek gauzatzean, ezin izango du inolako eskaerarik formulatu. Bateriaezina da auzitegieta abokatu- eta prokuradore-lanbideetan aldi berean aritzea.

4. Lege honetan ezarritako moduan, prokuradoreei dagokie komunikazioko egintza prozesalak gauzatzea eta auzitegiekin laguntza- eta lankidetzaz-ereginak egitea.

5. Komunikazio-egintzak gauzatzeko, ziurtagiriak emateko gaitasuna izango dute, eta beharrezkoak diren egiaztatutunak izango dituzte.

Apartatu honetan aurreikusitako funtzioak betetzean, eta hargatik eragotzi gabe Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitakoarekin bat etorritik beste prokuradore batek ordeztzeko aukera, modu pertsonalean eta eskuordeezinean jardungo dute, eta haien jarduna Justizia Administrazioaren letratuaren aurrean aurkaratu ahal izango da, 452. eta 453. artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera. Berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da aurkaratze hori ebatzen duen dekretuaren aurka.

6. Prokuradoreei esleitutako egintza prozesalak eta gainerako funtzioak gauzatzeko, prokuradoreen elkargoek beharrezkoak diren zerbitzuak antolatuko dituzte.

24. artikulua. Prokuradoreari ahalordea ematea.

1. Alderdiak prokuradoreari ordezkaritza emateko ahalordea modu hauetako batean eman ahal izango da:

- a. Agerraldi elektronikoa eginez, egoitza judizial elektronikoko baten bidez, apud acta ahalordetze judizialen erregistro elektronikokoan.
- b. Notarioaren aurrean edo agerraldi pertsonalaren bidez, dela aurrez aurre dela bitarteko elektronikoz, edozein bulego judizialeko Justizia Administrazioaren letratuaren aurrean. Kasu horietan, Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioaren mendeko ahalorde judizialen erregistro elektronikokoan inskribatuko da.

2. Agerraldi pertsonal edo elektronikoko bidezko apud acta ahalorde-ematea lehen idazkiaren aurkezpenarekin batera egin beharko da edo, hala badagokio, lehen jarduna baino lehen, prokuradorea ahalorde-emate horretara bertaratu beharrik gabe. Sistemak hala ahalbidetzen duenean, datura bideratutako kontsulta automatizatu baten bidez egiaztatuko da prozesuko ordezkaritza, Ahalordetze Judizialen Erregistro Elektronikokoan inskribatuta dagoela berresteko. Bestela, Ahalordetze Judizialen Erregistro Elektronikokoan inskribatu izanaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

3. Estatuko Administrazio Orokorren Ahalordeen Erregistro Elektronikokoan inskribatutako ahalordeek ondoreak izango dituzte prozedura judizialean, baldin eta lege honetan aurreikusitakoarekin bat badatoz eta Justizia Administrazioan teknologiaren erabilera arautzen dituen Legean eta haren erregelamendu-garapenean edo araudi teknikoan aurreikusitako betekizun teknikoak betetzen badituzte.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

25. artikulua. Ahalorde orokorra eta ahalorde berezia.

1. Auzietarako ahalorde orokorrak ahalmena emango dio prokuradoreari auziak izapidetzean egin ohi diren egintza prozesal guztiak baliozkotasunez egiteko ahalorde-emailearen izenean.

Ahalorde-emaileak, dena den, ahalorde orokorretik kanpo utzi ahal izango ditu legeak ahalorde berezirik galdatzen ez dien auzigaiak eta jardunak. Kanpo-uztea esanbidez eta zalantza-biderik eman gabe jaso beharko da.

2. Ahalorde berezia beharrezkoa izango da:

1.) Uko egiteko, transakziorako, atzera egiteko, amore emateko, arbitrajepean jartzeko eta prozesuaren largespena ekar dezaketen adierazpenak egiteko, dela uzia prozesutik kanpo betetzeagatik, dela ostean objektua bat-batean desagertzeagatik.

2.) Ahalorde-emaileak ahalorde orokorretik kanpo utzitako ahalmenak egikaritzeko, aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera.

3.) Legeek hala galdatzen duten gainerako kasu guztietan.

3. Ezin izango dira prokuradore bidez egin auzilariak legearen arabera pertsonalki gauzatu behar dituzten egintzak.

26. artikulua. Ahalordearen onarpena. Prokuradorearen eginbeharrak.

1. Ahalordearen onarpena dakar hura prokuradoreak erabiltzeak.

2. Ahalordea onartuta, prokuradoreak betebeharra izango du:

1.) Auzigaiarekin jarraitzekoa, 30. artikuluan adierazitako kausaren batengatik ordezkaritza uzten ez duen bitartean. Jurisdikzio-organismoak laguntza emateko betebeharra dagokio, akats prozesalak konpon daitezen, bai eta prozesua bultzatzeko eta ondo bideratzeko beharrezkoak diren jardun guztiak egiteko ere.

2.) Berari igorri dizkioten edo lor ditzakeen dokumentu, aurrekari edo jarraibide guztiak bere bezeroak edo berak hautatutako abokatuari helaraztekoa, ahalordeak hori barnean hartzen duenean, bere ahalorde-emailearen interesen defentsan beharrezkoa dena eginez, legeek mandatariari ezartzen dioten erantzukizunpean.

Jarraibiderik izan ezean edo ahalorde-emaileak igorritakoak nahikoak ez direnean, auzigaiaren izaerak edo ezaugarriak eskatzen dutena egingo du.

3.) Bere esku utzitako auzigaiaren aribideari buruz ahalorde-emailea eta abokatua jakinaren gainean beti edukitzeko, bigarrenari emanez jakinarazi zaizkion ebazpen guztien kopia eta auzitegiak nahiz gainerako alderdien prokuradoreak helarazitako idazkienak eta dokumentuenak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Bere ahalorde-emailearen eta haren abokatuaren idazkiak gainerako alderdien prokuradoreei helaraztekoa, 276. artikuluan aurreikusitako moduan.

5.) Auzigai baten zuzendaritza utzi duen abokatuarengandik auzigai horri dagozkion idazkien eta dokumentuen eta gainerako aurrekarien kopiak jasotzekoa, auzigaiarekin jarraitzeaz arduratuko denari edo ahalorde-emaileari entrega dakizkion.

6.) Haren ardurapean dagoen jardunen bat betetzeko ezintasuna berehala komunikatzekoa auzitegiari.

7.) Berak eskaturik sortutako gastu guztiak ordaintzekoa, abokatuen zerbitzu-sariak eta adituei dagozkienak, jurisdikzio-ahala egikaritzeko tasak eta errekurtsioak aurkezteko beharrezkoak diren gordailuak izan ezik, salbu eta ahalorde-emaileak haiek ordaintzeko behar diren funtsak entregatu dizkionean.

8.) Bere ordezkatuak eskatzen dizkion komunikazio-egintzak eta Justizia Administrazioarekiko bestelako lankidetzak egintzak gauzatzekoa, edo haren interesekoak gauzatzekoa Justizia Administrazioaren letratuak prozedura judizialean zehar hala erabakitzen duenean, lege prozesalean aurreikusitakoarekin bat etorritik.

9.) Lanbidean aritzen den epaitegi edo auzitegiatar, jakinarazpen-aretoetara eta zerbitzu erkideetara joatekoa, jardunen epealdi baliodunean.

27. artikulua. Zuzenbide osagarria ahalorde-emaleari buruz.

Ahalorde-emailearen eta prokuradorearen arteko harremanei buruz esanbidezko xedapenik ezean, legeria zibil aplikagarrian mandatu-kontraturako ezarritako arauak eraenduko dute.

28. artikulua. Prokuradorearen ordezkaritza pasiboa.

1. Ahalordea indarrean dagoen bitartean, prokuradoreak edozein motatako epatze, zitazio, errekerimendu eta jakinarazpenak entzun eta sinatuko ditu, haren alderdiari buruzko epaiak barne, auzigaiaren aribidean zehar eta epaia betearazita geratzen den arte, eta ahalorde-emaileak haietan guztietan zuzenean esku hartu izan balu adinako indarra izango dute jardun horiek, harekin egin daitezela eskatzea zilegi izan gabe.

2. Era berean, jakinarazpenen eta epeen nahiz epemugen ondoretarako, prokuradoreak hartuko ditu, orobat, gainerako alderdien prokuradoreek entregatzen dizkieten idazkien eta dokumentuen kopiak, 276. artikuluan ezarritako moduan.

3. Auzitegi zibilen egoitza diren eraikin judizial guztietan egongo da jakinarazpenak jasotzeko zerbitzu bat, prokuradoreen elkargoak antolatua. Gainerako alderdien prokuradoreei helarazteko prokuradoreek entregatzen dituzten jakinarazpenak eta idazkien eta dokumentuen kopiak zerbitzu horrek hartu izanak ondore guztiak sortuko ditu. Entregatutako kopien kopurua eta haien hartzaile diren prokuradoreen izenak adieraziko dira hartu izana jasota geratzeko eginbidetuko den kopian.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Aurreko apartatuetan ezarritakotik salbuesten dira legeak xedatutakoaren arabera auzilariei pertsonalki egin behar zaizkien helarazpenak, epatzeak, zitazioak eta errekerimenduak.

29. artikulua. Funts-hornidura.

1. Ahalorde-emailea behartuta dago prokuradorea funtsez hornitzera, legeria zibil aplikagarriak mandatu-kontratuentzat ezarritakoaren arabera.

2. Prozesu bat hasi ondoren, ahalorde-emaileak hura jarraitzeko beharrezkoak diren funtsez hornitzen ez badu bere prokuradorea, prokuradore horrek eskatu ahal izango du funtsak hornitzeko premiamendua egin dakiola hari.

Uzi hori auzigaiaz arduratzen ari den auzitegiaren aurrean aurkeztuko da. Uzi hori aurkeztuta, Justizia Administrazioaren letraduak ahalorde-emaileari helaraziko dio hamar egunerako, eta Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez ebatziko du bidezkoa dena, eta, kasua denean, beharrezko irizitako zenbatekoa eta hura aurkezteko epea finkatuko ditu, premiamendu-ohartarazpena eginda.

30. artikulua. Prokuradoreak kargua uztea.

1. Prokuradoreak bere ordezkaritza utziko du:

1.) Ahalordea esanbidez edo isilbidez errebokatzeagatik, autoetan jaso orduko. Ulertuko da ahalordea isilbidez errebokatu dela beste prokuradore bat izendatu eta hura auzigaian pertsonatu denean.

Azken kasu horretan, judizioan diharduen prokuradoreak arazoa planteatzen badu ordeztu nahi duenari esleitzen zaion ordezkaritza benetako existentziari buruz edo baliozkotasunari buruz, bakoitzari dagokion ahalordearen emaile gisa azaltzen diren pertsona edo pertsonen entzun ondoren, arazoa dekretu bidez ebatziko da.

2.) Borondatezko uko-egiteagatik, edo lanbidea uzteagatik edo lanbidean aritzeko etenaldiarekin zehatua izategatik. Lehenengo bi kasuetan, prokuradorea behartuta egongo da egitea, aurretiaz eta modu fede-emailean, bere ahalorde-emaileari eta auzitegiari ezagutaraztera. Etenaldia izanez gero, dagokion prokuradoreen elkargoak emango dio horren berri auzitegiari.

Uko-egitea edo kargu-uztea autoetan egiaztatzen ez duen bitartean eta uko-egiletzat edo kargua utzitakotzat jotzen ez den bitartean, prokuradoreak ezin izango du utzi bere ahalorde-emailearen ordezkaritza; karguan jarraitu beharko du azken horrek beste prokuradore bat izendatu arte hamar eguneko epean.

Egun horiek igarota ez bada beste prokuradore bat izendatu, Justizia Administrazioaren letraduak ebazpen bat emango du, hura behin betiko aldentuztat joko duena zeukan ordezkaritzatik.

3.) Ahalorde-emailearen edo prokuradorearen heriotzagatik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Lehenengo kasuan, prokuradorea behartuta egongo da egitatea auzitegiari ezagutzera ematera, heriotza forma egokian egiaztatuz, eta, hildakoaren jaraunsle edo kausadunen beste ahalorde bat aurkeztu ezean, 16. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Prokuradorea hiltzen denean, Justizia Administrazioaren letraduak emango dio ahalorde-emaileari heriotzaren berri, beste prokuradore bat izenda dezan hamar eguneko epean.

4.) Ahalorde-emailea berak formulatutako uzitik edo aurkakotzatik banantzeagatik, eta, kasu orotan, ahalordea auzigai edo egintza jakin baterako eman eta hura amaitzeagatik edo gauzatzeagatik.

2. Ahalordea pertsona juridiko baten legezko ordezkariak, ondare-masa nahiz ondare banandu baten administratzaileak edo legearen arabera nortasunik gabeko entitate bat ordezkatzuz judizioan diharduen pertsonak eman duenean, pertsona juridiko, ondare-masa nahiz ondare banandu edo nortasunik gabeko entitate horien ordezkarietan edo administrazioan izandako aldaketek ez dute prokuradorearen ahalordea azkenduko, ezta beste pertsonatze bati bide emango ere.

31. artikulua. Abokatuaren esku-hartzea.

1. Auzigaiaz arduratzen den auzitegian beren lanbidean aritzeko gaitutako abokatuak zuzenduko dituzte auzilariak. Ezin izango da izapidetu abokatuaren sinadurarik ez duen eskaerarik.

2. Salbuets bitez soilik:

1.) Hitzeko judizioak, haren zehaztapena muntagatik egin denean eta hark 2.000 euro gainditzen ez dituenean, eta prozedura monitorioak hasteko eskabidea, lege honek aurreikusitakoaren arabera.

2.) Judizioan pertsonatzea, judizioa baino lehen urgentziatzeko neurriak eskatzea edo ikustaldien nahiz jardunen urgentziatzeko etendura eskatzea helburutzat duten idazkiak. Eskatu den ikustaldien edo jardunen etendura bereziki abokatuari dagozkion kausetan oinarritzen denean, hark ere sinatu beharko du idazkia, posible izanez gero.

32. artikulua. Abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartze ez-nahitaezkoa.

1. Abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea nahitaezkoa ez denean, demandatzaileak nahi badu bere kabuz agertu eta abokatuak defendatua izan, edo prokuradoreak ordezkatua izan, edota aldi berean bi profesionalak lagundua izan, hala jasoko du demandan.

2. Demandaren jakinarazpena hartuta, demandatuak ere abokatuaren eta prokuradorearen laguntzaz baliatu nahi badu, auzitegiari komunikatuko dio hurrengo hiru egunetan, eta, kasua denean, doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortu dakiola ere eska dezake. Azken kasu horretan, auzitegiak prozesua etetea erabaki ahal izango du, harik eta eskubidea aitortu ala ukatu arte edota abokatu eta prokuradorea behin-behinean izendatu arte.



3. Profesionalek lagunduta prozesura joateko ahalmena, artikuluko honen 1. apartatua aipatutakoa, demandatuari ere egokituko zaio, auzi-jartzailea abokatuak edo prokuradoreak lagundu gabe doanean. Demandatuak auzitegiari komunikatuko dio bere erabakia, demanda jakinarazi zaionetik hiru eguneko epean, eta auzi-jartzaileari inguruabar horren kontu emango zaio. Demandatzaileak, orduan, abokatuaz eta prokuradoreaz baliatu nahi badu, auzitegiari komunikatuko dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo hiru egunetan, eta doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitor dakiola eskatzen badu, etendura erabaki ahal izango da aurreko apartatua aurreikusitako moduan.

4. Alderdi bati aurkako alderdiak abokatuaz eta prokuradoreaz baliatzeko asmoa duela aditzera ematen zaion jakinarazpenean, Doako Laguntza Juridikoaren Legearen 6.3 artikulua araberago dagokion eskubidearen berri emango zaio, eskaera egokia egiteko aukera izan dezaten.

5. Abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea nahitaezkoa ez denean, profesional horietaz baliatu den alderdiaren aurkakoaren kostuak ordaintzeko kondenatik, halakorik bada, kanpo utziko dira haiek sortutako eskubide eta zerbitzu-sariak, salbu eta kostuetara kondenatutakoaren jokabidean auzitegiak ausarkeria hautematen badu edo ordezkaturako eta defendaturako alderdiaren egoitza judizioa izapidetu ez den lekuren batean badago; azken kasu horretan, lege honen 394. artikulua 3. apartatua aipatutako mugak aplikatuko dira. Halaber, kanpo utziko dira, kasu orotan, bestela bulego judizialek egin zitzaizketen jardun aukerako hutsen ondorioz prokuradoreak sortutako eskubideak.

33. artikulua. Prokuradorearen eta abokatuaren izendapena.

1. Doako Laguntza Juridikoaren Legean aurreikusitako ofiziozko izendapenen kasuetatik kanpo, alderdiei dagokie judizioan haiek ordezkaturako eta defendaturako dituzten prokuradorearen eta abokatuaren zerbitzuak kontratatzea.

2. Dena den, doako laguntza juridikoa izateko eskubiderik ez duen auzilariak eskatu ahal izango du abokatu, prokuradorea edo bi profesional horiek izenda dakizkiola, haien esku-hartzea nahitaezkoa denean edo, halakoa izan ez arren, aurkako alderdiak auzitegiari komunikatu dionean abokatuak defendatuta eta prokuradoreak ordezkaturako jardungo duela.

Eskabidea demandatuak egiten duen kasuan, epatze- edo zitazio-zedula hartu eta hurrengo hiru eguneko epean formulatu beharko du.

Eskabide horiek Doako Laguntza Juridikoaren Legean xedatutakoaren arabera egin eta erabakiko dira, laguntza hori jasotzeko eskubidea egiaztatzeko beharrik gabe, betiere eskatzaileak izendatuko zaizkion profesionalen zerbitzu-sariak eta eskubideak ordaintzeko konpromisoa hartzen badu.

3. 250. artikulua 1. apartatuaren 1.) zenbakian aipatzen diren judizioetako batean alderdietako batek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitor dakiola eskatzen duenean, auzitegiak, egitate horren berri izan bezain laster, ebazpen ziodun bat emango du, elkargo profesionali abokatu eta prokuradorea behin-behinean izenda ditzatela errekeritzen duena, izendapenak aurretiaz egin ez direnean, hargatik eragotzi gabe eskatzaileak dagozkion zerbitzu-sariak gerora ordaintzea ondoren doako laguntza juridikoa izateko eskubidea ukatzen bazaio.



Ebazpen hori abokatuen eta prokuradoreen elkargoei komunikatuko zaie biderik azkarrena erabiliz, eta, jarraian, eskaera izapidetuko da Doako Laguntza Juridikoaren Legean aurreikusitakoaren arabera.

4. Aurreko apartatuan aipatutako judizioetan, demanda jakinarazi eta hurrengo hiru eguneko epean eskatu beharko du demandatuak doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitor dakiola edo ofiziozko abokatu eta prokuradorea izenda dakizkiola. Eskaera aurrerago egiten bada, elkargo profesionalek abokatu eta prokuradorea izendatu ez izanak ez du judizioa etengo, Doako Laguntza Juridikoaren urtarilaren 10eko 1/1996 Legearen 16. artikuluaaren bigarren paragrafoan jasotako kasuetan izan ezik.

34. artikulua. Prokuradorearen kontua.

1. Prokuradore batek bere ahalorde-emaile berankorrari galdatu behar dizkionean eskubideengatik eta auzigairako ordejarritako gastuengatik hark zor dizkion zenbatekoak, kontu xehatua eta justifikatua aurkeztu ahal izango du auzigaia dagoen tokiko Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean, eta adieraziko du hortik eratorritako eta erreklamatutako zenbatekoak zor zaizkiola eta ez zaizkiola ordaindu. Prokuradoreen eskubide bera izango dute haien jaraunsleek haiek utzitako izaera horretako kredituei dagokienez. Ez da nahitaezkoa izango abokatuak edo prokuradoreak esku hartzea.

2. Kontua aurkeztuta eta Justizia Administrazioaren letraduak onartuta, hark ahalorde-emailea errekerituko du, zenbateko hori ordain dezan edo bidegabeta izateagatik kontua aurkara dezan, hamar eguneko epean, eta ohartaraziko zaio ezen, ordaintzen ez badu edo aurkaratzea formulatzen ez badu, premiamendu-bidea erabiliko dela.

Epe horretan, ahalorde-emaileak aurka egiten badu, Justizia Administrazioaren letraduak prokuradoreari helaraziko dio, hiru egunerako, aurkaratzeari buruzko iritzia adieraz dezan. Jarraian, Justizia Administrazioaren letraduak kontua eta jardun prozesalak aztertuko ditu, bai eta ekarritako dokumentazioa ere, eta hamar eguneko epean dekretu bat emango du, prokuradoreari ordaindu beharreko zenbatekoa zehazten duena, eta ohartaraziko da ezen, jakinarazpena egin eta hurrengo bost eguneko epean ordaintzen ez bada, premiamendu-bidea erabiliko dela.

Dekretu horrek eta berrikuspen-errekurtsua ebazten duen autoak ez dute aurrez epaituko, ezta partzialki ere, geroagoko deklarazio-judizioan eman daitekeen epaia.

3. Ahalorde-emaileak ez badu aurkakotzarik formulatzen ezarritako epean, betearazpena abiaraziko da kontuaren zenbatekoa estaltzeko hainbestean.

4. Erreklamazioa pertsona fisiko baten kontrakoa bada, prokuradoreak, kontuarekin batera, bezeroarekin sinatuko kontratua ekarri beharko du, eta Justizia Administrazioaren letraduak, errekerimendua egin aurretik, epaileari emango dio kontu, eskabidearen oinarria den edo zenbateko galdagarria zehaztu duen edozein klausula abusuzko izan daitekeen ala ez hautemateko.

Epaileak ofizioz aztertuko du ea eskabidearen oinarri den edo zenbateko galdagarria zehaztu duen klausuletakoren bat abusuzko gisa kalifika daitekeen.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Hautematen duenean klausuletakoren bat halakotzat kalifika daitekeela, bost egunerako entzunaldia emango die alderdiei. Haiei entzunda, bidezkoa dena ebatziko du, auto bidez, hurrengo bost egunen barruan. Izapide hori egiteko ez da nahitaezkoa izango abokatuak edo prokuradoreak esku hartzea.

Kontratu-klausularen batek abusuzko izaera duela iritziz gero, ematen den autoak kontsiderazio horren ondorioak zehaztuko ditu, eta erabakiko du edo uzia bidegabea dela edota prozedurak jarrai dezala abusuzkotzat jotakoak aplikatu gabe.

Auzitegiak abusuzko klausularik ez dagoela iritziz gero, hala deklaratu du, eta Justizia Administrazioaren letraduak zordunari errekerimendua egingo dio 2. apartatuan aurreikusitako moduan.

Ematen den autoa zuzenean apelagarria izango da kasu orotan. Pronuntziamenduak, behin irmoa izanda, gauza epaituaren indarra izango du.

35. artikulua. Abokatuen zerbitzu-sariak.

1. Auzigaian sortutako zerbitzu-sarien ordainketa erreklamatu ahal izango diote abokatuak defendatzen duten alderdiari, minuta xehatua aurkeztuta eta formalki adierazita zerbitzu-sari horiek zor zaizkiela eta ez zaizkiela ordaindu. Abokatuen eskubide bera izango dute haien jaraunsleek haiek utzitako izaera horretako kredituei dagokienez. Ez da nahitaezkoa izango abokatuak edo prokuradoreak esku hartzea.

2. Erreklamazio hori aurkeztuta, Justizia Administrazioaren letraduak zorduna errekerituko du, zenbateko hori ordain dezan edo kontua aurkara dezan, hamar eguneko epean, eta ohartaraziko zaio ezen, ordaintzen ez badu edo aurkaratzea formulatzen ez badu, premiamendu-bidea erabiliko dela.

Aipatutako epean, zerbitzu-sariak aurkaratzen badira bidegabeak izateagatik, aurreko artikuluen 2. apartatuaren bigarren eta hirugarren paragrafoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Zerbitzu-sariak aurkaratzen badira gehiegizkoak izateagatik, Justizia Administrazioaren letraduak abokatuari helaraziko dio, bost egunerako, aurkaratzeari buruzko iritzia adieraz dezan. Erreklamatzeko zerbitzu-sarien murrizketa onartzen ez bada, Justizia Administrazioaren letraduak alde aurretik erregulatu egingo ditu 241. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, salbu eta abokatuak egiaztatzen badu aurretiazko aurrekontua dagoela aurkaratzaileak onartutako idazkian, eta dekretu bat emango da, zor den zenbatekoa finkatzen duena, eta ohartaraziko zaio ezen, jakinarazpena egin eta hurrengo bost eguneko epean ordaintzen ez badu, premiamendu-bidea erabiliko dela. Dekretu horri zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango zaio.

Dekretu horrek eta berrikuspen-errekurtsoa ebazten duen autoak ez dute aurrez epaituko, ezta partzialki ere, geroagoko deklarazio-judizioan eman daitekeen epaia.

3. Zerbitzu-sarien zordunak ez badu aurkakotzarik formulatzen ezarritako epean, betearazpena abiaraziko da minutaren zenbatekoa estaltzeko hainbestean.

4. Erreklamazioa pertsona fisiko baten kontrakoa bada, abokatuak, kontuarekin batera, bezeroarekin sinatutako kontratua ekarri beharko du, eta Justizia Administrazioaren letraduak, errekerimendua egin



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

aurretik, epaileari emango dio kontu, eskabidearen oinarria den edo zenbateko galdagarria zehaztu duen edozein klausula abusuzko izan daitekeen ala ez hautemateko.

Epaileak ofizioz aztertuko du ea eskabidearen oinarri den edo zenbateko galdagarria zehaztu duen klausuletakoren bat abusuzko gisa kalifika daitekeen.

Hautematen duenean klausuletakoren bat halakotzat kalifika daitekeela, bost egunerako entzunaldia emango die alderdiei. Haiei entzunda, bidezkoa dena ebatziko du, auto bidez, hurrengo bost egunen barruan. Izapide hori egiteko ez da nahitaezkoa izango abokatuak edo prokuradoreak esku hartzea.

Kontratu-klausularen batek abusuzko izaera duela iritziz gero, ematen den autoak kontsiderazio horren ondorioak zehaztuko ditu, eta erabakiko du edo uzia bidegabea dela edota prozedurak jarrai dezala abusuzkotzat jotakoak aplikatu gabe.

Auzitegiak abusuzko klausularik ez dagoela iritziz gero, hala deklaratu du, eta Justizia Administrazioaren letratuak zordunari errekerimendua egingo dio 2. apartatuan aurreikusitako moduan.

Ematen den autoa zuzenean apelagarria izango da kasu orotan. Pronuntziamenduak, behin irmoa izanda, gauza epaituaren indarra izango du.

II. TITULUA

Jurisdikzioaz eta eskumenaz

I. KAPITULUA

Auzitegi zibilen jurisdikzioaz eta arazo prejudizialez

1. atala. Auzitegi zibilen jurisdikzioaren hedaduraz eta mugez

36. artikulua. Jurisdikzio-ordena zibilarren hedadura eta mugak. Nazioarteko eskumenik eza.

1. Espainiako auzitegi zibilen jurisdikzioaren hedadura eta mugak Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Espainia partaide den nazioarteko tratatuetan eta hitzarmenetan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira.

2. Espainiako auzitegi zibilak abstenitu egingo dira haien menpe jarritako auzigaien arduraz, haietan inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

1.) Espainiako legeriarekin eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoko arauekin bat etorritz jurisdikzio- edo betearazpen-immunitatea duten subjektuekiko edo ondasunekiko demanda formulatu edo betearazpena eskatu denean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2.) Espainia partaide den nazioarteko tratatu edo hitzarmen baten arabera auzigaia beste estatu bateko jurisdikzioari modu esklusiboan esleituta dagoenean.

3.) Behar den forman epatutako demandatua agertzen ez denean Espainiako auzitegien nazioarteko eskumenaren oinarri bakarra alderdien isilbidezko sumisia izan litekeen kasuetan.

37. artikulua. Jurisdikziorik eza. Auzitegi zibilen abstentzioa.

1. Jurisdikzio zibileko auzitegi batek irizten dionean bere menpe jarritako auzigaia jurisdikzio militarri dagokiola, edota administrazio publiko bati edo Kontu Auzitegiari bere kontabilitate-funtzioetan diharduenean, abstenitu egin beharko da auzigai horren arduraz.

2. Berdin abstenituko dira auzitegi zibilak jurisdikzio arrunteko beste jurisdikzio-ordena bateko auzitegien ardurapeko auzigaiak haien menpe jartzen direnean. Kontu Auzitegiak jurisdikzio-funtzioak betetzen dituenean ulertuko da administrazioarekiko auzien ordenaren barnean dagoela.

38. artikulua. Ofizioz hautematea nazioarteko eskumenik eza eta jurisdikziorik eza.

Aurreko bi artikuluetan aipatutako abstentzioa ofizioz erabakiko da, alderdiei eta Fiskaltzari entzunda, konturatu orduko nazioarteko eskumenik ez dagoela edo auzigaia beste jurisdikzio-ordena bati dagokiolako jurisdikziorik ez dagoela.

39. artikulua. Alderdi-eskariz hautematea nazioarteko eskumenik eza edo jurisdikziorik eza.

Demandatuak deklinatoria bidez salatu ahal izango du nazioarteko eskumenik eza edo jurisdikziorik eza, auzigaia beste jurisdikzio-ordena bati dagokiolako edo eztabaida arbitrajepean edo bitartekaritzapean jarri delako.

2. atala. Arazo prejudizialez

40. artikulua. Prejudizialitate penala.

1. Prozesu zibil batean agerian jartzen denean ofizioz pertsegitzeko moduko delituaren edo faltaren itxura duen egitate bat, auzitegi zibilak probidentzia bidez ezagutaraziko dio Fiskaltzari, akzio penala egikaritu behar den kasurako.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kasuan, inguruabar hauek gertatzen direnean baino ez da aginduko prozesu zibileko jardunak etetea:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Auzi kriminala badela egiaztatzea, zeinean delitu-itxurako egitate gisa ikertzen ari baita prozesu zibileko alderdien uzien oinarri den egitateetakoren bat edo batzuk.

2.) Auzitegi penalen erabakiak, auzi kriminala bideratzeko oinarri den egitateari buruzkoak, auzigai zibilarren ebazpenean eragin erabakigarria eduki ahal izatea.

3. Aurreko apartatua aipatutako etendura prozesua epaiaren zain dagoenean soilik erabakiko da, auto bidez.

4. Dena den, etenduraren zioa bada ekarritako dokumentuetakoren batean faltsutze-delitu bat egon litekeela, delitu horri buruzko auzi kriminala bideratzen ari dela egiaztatu bezain laster erabakiko da etendura, prozedura amaitu arte itxaron gabe, auzitegiaren iritziz dokumentua erabakigarria izan litekeenean auzigaiaren funtsari buruz ebazteko.

5. Aurreko apartatua aipatutako kasuan ez du etendurarik erabakiko auzitegiak, edo hark erabakitakoa amaitutzat emango du Justizia Administrazioaren letraduak, baldin eta dokumentuak mesede egin liezaiokeen alderdiak uko egingo balio hari. Behin uko eginda, dokumentua autoetatik banandu dadila aginduko du Justizia Administrazioaren letraduak.

6. Artikulu honetan aipatutako etendurak amaitutzat emango ditu Justizia Administrazioaren letraduak egiaztatzen denean judizio kriminala bukatu dela edo geratuta dagoela haren jarraipen arrunta eragotzi duen zioarengatik.

7. Dokumentu baten faltsutasunari buruzko auzi penala alderdietako baten salaketaren edo kereilaren ondorioa bada eta dokumentu autentikoa dela edo faltsutasuna frogatu ez dela deklaritzen duen ebazpenarekin bukatzen bada, prozesu zibilarren etenduragatik kalteak jasan dituen alderdiak kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, prozesu berean, 712. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

41. artikulua. Errekurtsoak, prejudizialitate penalagatik jardunak eteteari buruzko ebazpenaren aurka.

1. Berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da auzigai zibilarren etendura ukatzen duen ebazpenaren aurka. Etendura-eskaera, dena den, berriro egin ahal izango da bigarren auzialdian eta, kasua denean, arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsoak edo kasazio-errekurtsoak izapidetzean.

2. Etendura erabakitzen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, eta apelazioan eman eta etendura erabakitzen edo konfirmatzen duten autoen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

3. Zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da etendura amaitutzat ematea erabakitzen duen Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpenaren aurka.

42. artikulua. Arazo prejudizial ez-penalak.

1. Ondore prejudizial hutsetarako, auzitegi zibilak arduratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien eta gizarte-arloko ordenetako auzitegiei esleitutako auzigaez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren arazoei buruz auzitegi zibilek hartutako erabakiak ez du ondorerik sortuko hura hartu den prozesutik kanpo.

3. Aurreko apartatueta xedatutakoa gorabehera, legeak ezartzen duenean edota alderdiek elkarrekin adostuta eskatzen dutenean edo alderdietako batek bestearen adostasunarekin, Justizia Administrazioaren letratuak jardunen aribidea etengo du, epaia eman aurretik, harik eta administrazio publiko eskudunak, Kontu Auzitegiak edo kasuan kasuko jurisdikzio-ordenako auzitegiek, kasuan-kasuan, arazo prejudiziala ebatzi arte. Kasu horretan, aipatutako organoek arazo prejudizialari buruz hartutako erabakiarekin lotetsita geratuko da auzitegi zibila.

43. artikulua. Prejudizialitate zibila.

Auziaren objektuari buruz ebazteko beharrezkoa denean arazo bati buruz erabakitzea, eta arazo hori, aldi berean, auzitegi horretan edo beste auzitegi zibil batean ebazkizun dagoen beste prozesu baten objektu nagusia denean, autoen metaketa ezinezkoa bada, auzitegiak, bi alderdien edo alderdietako baten eskariz, aurkakoa entzun ondoren, jardunen aribidea eten dadila dekretatu ahal izango du, auto bidez, jardun horiek dauden egoeran daudelarik, harik eta arazo prejudiziala objektu duen prozesua amaitu arte.

Eskabidea ukatzen duen autoaren aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, eta, etendura erabakitzen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da.

43 bis artikulua. Europako arazo prejudiziala.

1. Auzitegi batek uste badu, bere epaitza eman ahal izateko, prozeduraren edozein fasetan, beharrezkoa dela Batasuneko Zuzenbidearen interpretazioari edo baliozkotasunari buruzko erabaki bat hartzea, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 267. artikuluan arabera, probidentzia bat emango du, zeinean, Batasuneko Zuzenbidearen interpretazio- edo baliozkotasun-zalantza behar bezala zehaztuz, entzunaldia emango baitie alderdiei, eta, lege bidezkoa den kasuetan, Fiskaltzari, hamar eguneko epe erkiderako. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean arazo prejudiziala planteatzeko autoak erabakiko du jardunak eten daitezela harik eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak arazo prejudiziala erabakitzen duen ebazpena autoetan jasota egon arte, edo arazo prejudiziala erretiratzea erabakitzen den arte. Apartatu honetan aipatutako probidentziaren eta autoaren aurka ezin da errekurtsorik jarri.

2. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean ebazteke dagoenean arazo prejudizial bat, zuzenean lotuta auzitegi baten ardurapeko auziaren objektuarekin eta Europar Batasuneko edozein estatu kideko beste organo jurisdikzional batek jada planteatuta, baldin eta auzitegiak beharrezkotzat jotzen badu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren erabakia auzia ebazteko, prozedura eten ahal izango du, arrazoiak emanez. Etendura auto bidez erabakiko da hamar eguneko epe komunean entzunaldia eman ondoren alderdiei, baita, legeak ezarritako kasuetan, Fiskaltzari ere.

Eskabidea ukatzen duen autoaren aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, eta, etendura erabakitzen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Apartatu honetan aipatutako etendura Justizia Administrazioaren letraduak kenduko du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren ebazpena egiaztatu ondoren, edo, beste kasu batzuetan, etetea erabaki zuen auzitegiaren beraren autoaren bidez.

II. KAPITULUA

Eskumena zehazteko erregelez

44. artikulua. Legeak eskumena aurretiaz zehaztea.

Auzitegi zibilek kasuan-kasuan eskumena izan dezaten errekeritzen da auziaren ardura esleituta izatea lege-mailako eta kasuan kasuko jardunak hasi baino lehenagoko arauen bidez.

1. atala. Eskumen objektiboaz

45. artikulua. Lehen auzialdiko epaitegien eskumena.

Lehen auzialdiko epaitegiei dagokie, lehen auzialdian, auzigai zibil guztien gaineko ardura, berariazko lege-xedapen bidez auzigaiak beste auzitegi batzuei esleitu ez bazaizkie. Epaitegi horiek arduratuko dira, era berean, Botere Judizialaren Lege Organikoak esleitutako auzigaiez, egintzez, arazoez eta errekurtoez.

46. artikulua. Lehen auzialdiko epaitegi batzuen espezializazioa.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 98. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik auzigai jakin batzuen ardura zehatza esleitu zaienean, lehen auzialdiko epaitegiek auzigai horiek ebazten diren prozesuetara soilik zabalduko dute beren eskumena, eta gainerako auzitegi eskudunen alde inhibitu beharko dira prozesua bestelako gaiei buruzkoa denean. Kausa hori dela-eta arazoa planteatzen bada, eskumen-arazoen moduan bideratuko da.

47. artikulua. Bake-epaitegien eskumena.

Bake-epaitegiei dagokie, lehen auzialdian, gehienez ere 90 euroko auzigai zibilen ardura, betiere gaiagatik 250. artikulua 1. apartatuan aipatutako kasuetatik batean ere sartzen ez badira.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

48. artikulua. Ofizioz hautematea eskumen objektiborik eza.

1. Eskumen objektiborik eza ofizioz hautemango du, hartaz ohartu bezain laster, auzigaiaz arduratzen ari den auzitegiak.

2. Bigarren auzialdian edo kasazio-errekurtoa izapidetzean auzigaiaz arduratzen den auzitegiak ulertzen duenean lehen auzialdia bideratu zuen auzitegiak eskumen objektiborik ez zuela, jardundako guztiaren deusezetasuna dekretatuko du, kasuan kasuko auzitegi-motaren aurrean alderdiek beren akzioak egikaritzeko eskubidea salbuetsita.

3. Aurreko apartatuek aipatutako kasuetan, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldia emango die alderdiei eta Fiskaltzari, hamar eguneko epe komunean, eta auzitegiak ebatziko du auto bidez.

4. Eskumen objektiborik eza deklaratzeko duen autoak auzigaiazen ardura zein auzitegi-motari dagokion zehaztuko du.

49. artikulua. Alderdi-eskariz hautematea eskumen objektiborik eza.

Demandatuak eskumen objektiborik eza salatu ahal izango du deklinatoria bidez.

49 bis artikulua. Eskumena galtzea, emakumeen aurkako indarkeriazko egintzak gertatzen direnean.

1. Prozedura zibil baten ardura lehen auzialdian duen epaile batek jakiten duenean Genero Indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurrien Lege Organikoak bere 1. artikuluan definitu dituen indarkeriazko egintza horietariko bat gauzatu dela -prozesu penal bat hasarazi duena edo babes-agindu bat emanarazi duena-, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87 ter artikulua 3. apartatuan aurreikusitako betekizunak gertatzen direla egiaztatu eta gero, inhibitu egin beharko da, eta autoak dauden-daudenean igorri beharko dizkio emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaile eskudunari, salbu eta ahozko judizioaren fasea hasi bada.

2. Prozedura zibil batez arduratzen ari den epaile batek genero-indarkeriazko egintza bat gauzatu ahal izan dela jakin eta egintza horrek ez duenean prozesu penal bat hasarazi ezta babes-agindu bat emanarazi ere, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87 ter artikulua 3. apartatuko betekizunak betetzen direla egiaztatu eta gero, berehala zitatu beharko ditu alderdiak Fiskaltzarekin agerraldia egitera, zeina hurrengo 24 orduetan egingo den, hark ezagut ditzan gertatutako egitatei buruz garrantzitsuak diren datu guztiak. Haren ondoren, fiskalak berehala erabaki beharko du ea hurrengo 24 orduetan emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi eskudunaren aurrean genero-indarkeriazko egintzak salatuko dituen edo babes-agindua eskatuko duen. Salaketa jartzen edo babes-agindua eskatzen den kasuan, fiskalak salaketaren edo eskaeraren kopia entregatu beharko du auzitegian, zeinak auzigaiaz arduratzen jarraituko duen harik eta, kasua denean, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaile eskudunak inhibitzeko errekeritzen duen arte.

3. Genero-indarkeriagatik auzi penal batez arduratzen ari den emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaile batek prozesu zibil bat badela jakiten duenean eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

ter artikulua 3. apartatuko betekizunak gertatzen direla egiaztatzen duenean, inhibitzeko errekerimendua egingo dio auzitegi zibilari, zeinak berehala erabaki beharko baitu bere inhibitzioa eta organo errekeritzaileari autoak igortzea.

Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, inhibitze-errekerimenduarekin batera aurkeztuko da aurretiazko eginbideak edo falta-judizioa hasi izanaren lekukotza, kereila onartzen duen autoarena edo emandako babes-agindua.

4. Artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako kasuetan, auzitegi zibilak emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiari igorriko dizkio autoak, Prozedura Zibilaren Legearen 48.3 artikuluan aurreikusitakoa ez da aplikatzekoa izango, eta alderdiek organo horren aurrean agertu beharko dute une horretatik aurrera.

Kasu horietan, ez dira aplikatuko atal honen gainerako arauak, ezta deklinatoria onartuko ere, eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiaren eskumena baliatu nahi duten alderdiek epaitegi horrek emandako ebazpenen baten lekukotza aurkeztu beharko dute, zeinak aurreko zenbakiaren azken paragrafoan aipatzen diren.

5. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiek modu eskusibo eta baztertzailean egikarrituko dituzte gai zibilean dituzten eskumenak, eta, kasu orotan, Prozedura Zibilaren Legean aurreikusitako prozedurekin eta errekurtsoekin bat etorritik.

2. atala. Lurralde-eskumenaz

50. artikulua. Pertsona fisikoen foru orokorra.

1. Legeak besterik xedatu ezean, lurralde-eskumena demandatuaren egoitzako auzitegiari egokituko zaio, eta, lurralde nazionalean ez badu, epaile eskudun izango da lurralde horretan duen bizilekukoa.

2. Espainian egoitzarik edo bizilekurik ez dutenak lurralde nazionalean dauden tokian edo lurralde nazionaleko azken bizilekuan demandatu ahal izango dira, eta, horrela ere eskumena zehazterik ez badago, auzi-jartzailearen egoitzako tokian.

3. Enpresaburuak eta profesionalak, beren enpresa- edo lanbide-jardueratik eratorritako auzietan, jarduera hori gauzatzen den tokian ere demandatu ahal izango dira, eta, beren ardurapeko establezimenduak toki ezberdinetan badituzte, haietako edozeinetan, auzi-jartzailearen aukeran.

51. artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko entitateen foru orokorra.

1. Legeak besterik xedatu ezean, pertsona juridikoak beren egoitzako tokian demandatuko dira. Auziari dagokion egoera edo harreman juridikoa sortu den edota hark ondoreak izan behar dituen tokian ere



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

demandatu ahal izango dira, betiere jendeari irekitako establezimendua edo entitatearen izenean jarduteko ordezkari baimendua badute toki horretan.

2. Nortasunik gabeko entitateak beren kudeatzaileen egoitzan edo beren jarduera gauzatzen duten edozein tokitan demandatu ahal izango dira.

52. artikulua. Lurralde-eskumena kasu berezietan.

1. Aurreko artikuluetan ezarritako foruak ez dira aplikatuko eta artikulua honetan ezarritakoarekin bat etorritik zehaztuko da eskumena honako kasu hauetan:

1.) Ondasun higiezinaren gaineko akzio errealek egikaritzen diren judizioetan, auziaren gauza dagoen tokikoa izango da auzitegi eskuduna. Akzio erreala muga-barru ezberdinetan kokatutako gauza higiezin batzuen gainean edo bakar baten gainean egikaritzen denean, haietako edozeinetakoa izango da auzitegi eskuduna, demandatzailearen aukeran.

2.) Inoren ondasunen administratzaileek eman beharreko kontuak aurkezteari eta onesteari buruzko demandetan, kontu horiek aurkeztu behar diren tokikoa izango da auzitegi eskuduna, eta, zehaztuta ez badago, mandatugilearen, ahalorde-emaearen edo ondasun-jabearen egoitzakoa edota administrazioa gauzatzen den tokikoa, auzi-jartzailearen aukeran.

3.) Berme-betebeharrei edo aurreko beste batzuen osagarri direnei buruzko demandetan, haiei dagokien betebehar nagusiaren ardura duen auzitegia edo hartaz arduratzen ari dena izango da eskuduna.

4.) Jaraunspen-arazoei buruzko judizioetan, hildakoak azken egoitza izan zuen tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta, atzerriko herrialde batean izan bazuen, Espainiako azken egoitzaren tokikoa edo haren ondasun gehienak dauden tokikoa, demandatzailearen aukeran.

5.) Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialei buruzko akzioak egikaritzen diren judizioetan desgaitasuna duen pertsona bizi den tokiko auzitegia izango da eskuduna, 756. artikularen 3. apartatuan ezarritakoaren arabera.

6.) Ohorerako, pertsonaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideen gaian eta, orokorrean, oinarritzko eskubideen babes zibilarren gaian, demandatzailearen egoitzako auzitegia izango da eskuduna, eta, Espainiako lurraldean ez duenean, kasuan kasuko oinarritzko eskubidea urratu duen egitateak gertatu den tokiko auzitegia.

7.) Higiezinaren errentamenduei buruzko judizioetan eta utzarazpenekoetan, finka kokatuta dagoen tokiko auzitegia izango da eskuduna.

8.) Jabetza horizontala gai duten judizioetan, finka dagoen tokiko auzitegia izango da eskuduna.

9.) Ibilgailu motordunen zirkulaziotik eratorritako kalte-galeren ordaina eskatzen den judizioetan, kalteak eragin ziren tokikoa izango da auzitegi eskuduna.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

10.) Sozietate-erabakiak aurkaratzearen gaian, sozietate-egoitzaren tokikoa izango da auzitegi eskuduna.

11.) Jabetza intelektualaren arauak hausteari buruzko demandak egikaritzen diren prozesuetan, arau-haustea gauzatu den edo hura gauzatu izanaren zantzuak dauden edota ale ez-zilegiak dauden tokiko auzitegia izango da eskuduna, demandatzailearen aukeran.

12.) Lehia desleiala gai duten judizioetan, demandatuak bere establezimendua duen tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta, halakorik ezean, hark egoitza edo bizilekua duen tokikoa, eta, Espainiako lurraldean ez duenean, lehia desleialeko egintza gauzatu den tokiko edo hark ondoreak sortu dituen tokiko auzitegia, demandatzailearen aukeran.

13.) Jabetza industrialaren gaian, hari buruzko legeria bereziak zehazten duen auzitegia izango da eskuduna.

13. bis) Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak jabetza industrialaren arloan eman dituen eta administrazio-bidea agortzen duten ebazpenen aurkako errekursoetan, eskudun izango dira demandatzailearen egoitzari dagokion autonomia-erkidegoko justizia-uzitegi nagusiaren egoitza-hiria dagoen muga-barrutiko probintzia-uzitegian merkataritza-gaian espezializatutako atalak, edo, halakorik ezean, Espainian demandatzailearen izenean jarduteko baimena duen ordezkariaren egoitzakoa, baldin eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak erabaki badu udalerri horretako merkataritza-arloko epaitegiei eskusiboki esleitzea jabetza industrialaren arloko auziez arduratzea. Eskudun izango dira, halaber, demandatzailearen aukeran, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoaren egoitza kokatuta dagoen muga-barruko probintzia-uzitegiko atal espezializatuak.

14.) Kontratazioaren baldintza orokorren klausulak kontratuan txerta ez daitezela edo haien deuseztasuna deklaratzeko akzioak egikaritzen diren prozesuetan, demandatzailearen egoitzako auzitegia izango da eskuduna. Eta, gai horretan bertan, deklaratzeko akzioa, bukaraztekoa edo erretraktatzekoak egikaritzen denean, demandatuak bere establezimendua duen tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta, halakorik ezean, haren egoitzakoa; eta demandatuak Espainiako lurraldean egoitzarik ez badu, atxikimendua eman den tokikoa.

15.) Premiamenduko prozedura administratibo bat dela-eta jarritako jabari-hirugarrengotzetan edo eskubide hobeko hirugarrengotzetan, enbargoa erabaki zuen organoaren egoitzako auzitegia izango da eskuduna, hargatik eragotzi gabe lurralde-eskumenaren gaian administrazio publikoentzat aurreikusitako berezitasunak.

16.) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen nahiz lausoen defentsan bukarazte-akzioak egikaritzen diren prozesuetan, demandatuak establezimendu bat duen tokiko auzitegia izango da eskuduna, eta, halakorik ezean, haren egoitzakoa; Espainiako lurraldean egoitzarik ez badu, auzi-jartzailearen egoitzaren tokikoa.

17.) Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak erregistro zibilaren gaian —bizilekuagatik nazionalitate-eskaerak salbu— emandako ebazpenen eta egintzen aurkako prozesuetan, errekurtsogilearen egoitzaren probintziako hiriburuko lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna.



2. Aurreko apartatuko arauak aplikatzekoak ez zaizkienean aseguruak, ondasun higigarri gorpuzdunen eperako salmentak eta haiek finantzatzera bideratutako kontratuak gai dituzten auziei, ezta zerbitzuak emateko nahiz ondasun higigarri buruzko kontratuak gai dituztenei ere —aldez aurretik eskaintza publikoa izan dutenak—, asegurdunaren, eroslearen edo mailegu-hartzailearen egoitzako auzitegia edo eskaintza onartu duenaren egoitzakoa izango da eskuduna, hurrenez hurren, edo 50. eta 51. artikuluetako arauekin bat egokitzen dena, demandatzailearen aukeran.

3. Aurreko apartatuetako arauak aplikatzekoak ez zaizkienean kontsumitzaileen edo erabiltzaileen akzio indibidualak egikaritzetik eratorritako auziei, kontsumitzailearen edo erabiltzailearen egoitzako auzitegia edo 50. eta 51. artikuluekin bat egokitzen dena izango da eskuduna, kontsumitzailearen edo erabiltzailearen aukeran.

53. artikulua. Lurralde-eskumena, akzio-metaketa dagoenean eta demandatu-aniztasuna dagoenean.

1. Pertsona baten edo batzuen aurka akzio batzuk batera egikaritzen direnean, gainerako akzioen oinarria denari dagokion tokikoa izango da auzitegi eskuduna; halakorik ezean, metatutako akzioetatik gehienez arduratu behar duena, eta, azken buruan, kuantitatiboki garrantzitsuena den akzioari dagokion tokikoa.

2. Demandatu batzuk daudenean eta, artikulua honetan eta aurrekoetan ezarritako erregelekin bat etorritik, lurralde-eskumena toki bat baino gehiagoko epaileei egokitu dakiekeenean, haietako edozeinen aurrean aurkeztu ahal izango da demanda, demandatzailearen aukeran.

54. artikulua. Lurralde-eskumenari buruzko arauen xedapenezko izaera.

1. Lurralde-eskumena esleitzeko lege-erregelak aplikatuko dira soilik alderdiak, esanbidez edo isilbidez, muga-barru zehatz bateko auzitegien menpe jartzen ez direnean. Salbuetsi egiten dira 52. artikuluan 1. apartatuaren 1.) zenbakian eta 4.) tik 15.) era bitartean eta 2. apartatuan ezarritako erregelak eta lege honek edo besteren batek berariaz agindu-izaera esleitu dien gainerakoak. Hitzeko judizioaren bitartez erabaki beharreko auzigaietan ere ez da baliozkoa izango esanbidezko edo isilbidezko sumisioa.

2. Ez da baliozkoa izango atxikimendu-kontratuetan, edo alderdietako batek ezarritako baldintza orokorrak dituztenetan, edota kontsumitzaileekin edo erabiltzaileekin egindakoetan jasotako esanbidezko sumisioa.

3. Alderdien sumisioa baliozkoa eta efikaza izango da soilik kasuan kasuko auzigaiak arduratzeko eskumen objektiboa duten auzitegien alde egiten denean.

55. artikulua. Esanbidezko sumisioa.

Esanbidezko sumisiotzat ulertuko da interesdunek itundutakoa, zeinean zehatz-mehatz izendatzen duten zein muga-barrutako auzitegien menpe jartzen diren.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

56. artikulua. Isilbidezko sumisioa.

Isilbidez sumisioan jarri direla ulertuko da:

1.) Demandatzailea, muga-barru jakin bateko auzitegiara joan eta demanda jartzeagatik edota demandaz arduratzeko eskumena duen auzitegian aurkeztu beharreko eskabidea edo eskaera formulatzeagatik.

2.) Demandatua, demanda jarri eta judizioan pertsonatu ostean, deklinatoria forma egokian proposatzea ez den beste edozein kudeaketa egiteagatik. Isilbidez sumisioan jarritakotzat ere hartuko da, forma egokian epatuta eta zitatuta egonik, judizioan agertzen ez den edo deklinatoria proposatzeko ahalmena prekluitutakoan agertzen den demandatua.

57. artikulua. Esanbidezko sumisioa eta banaketa.

Alderdien esanbidezko sumisioak auzigaiar arduratuko diren auzitegien muga-barrua zehaztuko du. Muga-barru horretan mota bereko auzitegi batzuk daudenean, auzigaien banaketak zehaztuko du haietatik zeini dagokion auzigaiaren gaineko ardura; alderdiak ezin dira auzitegi jakin baten menpe jarri gainerakoak baztertuz.

58. artikulua. Ofizioz hautematea lurralde-eskumena.

Lurralde-eskumena aginduzko erregelek finkatzen dutenean, Justizia Administrazioaren letraduak lurralde-eskumena aztertuko du demanda aurkeztu eta berehala, eta, Fiskaltzari eta pertsonatutako alderdiei entzun ondoren ulertzen badu auzitegiak ez duela auzigaiar arduratzeko lurralde-eskumenik, epaileari kontu emango dio, bidezkoa dena ebatz dezan auto bidez, eta, hala badagokio, jarduketak igorriko dizkio lurralde-eskumendun irizten dion auzitegiari. Hautazko foruak aplikatzekoak badira, demandatzaileak adierazitakoa kontuan hartuko da, hari ondore horietarako errekerimendua zuzendu ostean.

59. artikulua. Lurralde-eskumenik eza alegatzea.

Legeak lurralde-eskumena aginduzko erregelen bidez finkatzen duen kasuetatik kanpo, lurralde-eskumenik eza hauteman ahal izango da soilik demandatuak edo judizioan alderdi legitimo izan daitezkeenek garaiz eta forma egokian deklinatoria proposatzen dutenean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

60. artikulua. Lurralde-eskumenaren gatazka negatiboa.

1. Auzitegi batek lurralde-eskumenik ezagatiko inhibizio-erabakia hartzen badu deklinatoria bati jarraikiz edo alderdi guztiei entzunda, jarduketak igorri zaizkion auzitegiak erabakitakoa beteko du eta ezin izango du ofizioz deklaratu bere lurralde-eskumenik eza.

2. Lurralde-eskumenik ezagatiko inhibizio-erabakia alderdi guztiei entzun gabe hartzen bada, jarduketak igorri zaizkion auzitegiak ofizioz deklaratu ahal izango du bere lurralde-eskumenik eza, hura aginduzko erregelen bidez zehaztu behar denean.

3. Eskumenik eza deklaratzeko duen ebazpenak aginduko du aurrekari guztiak igortzea gorago hurbilen dagoen auzitegi erkideari, zeinak auto bidez erabakiko duen, ondorengo errekurtsorik gabe, zein auzitegi dagokion auzigaiaren arduratzeko eta aginduko duen, kasua denean, autoak igortzea eta alderdiak epatzea, hurrengo hamar egunetan, auzitegi horren aurrean.

3. atala. Eskumen funtzionalaz

61. artikulua. Eskumen funtzionala, loturagatik.

Lege-xedapenek besterik xedatu ezean, auzi batez arduratzeko eskumena duen auzitegiak eskumena izango du, orobat, haren intzidentziei buruz ebazteko, emandako probidentziak eta autoak gauzatzeko eta epaia edo onetsitako hitzarmenak eta transakzioak betearazteko.

62. artikulua. Ofizioz hautematea errekurtsuez arduratzeko eskumena.

1. Ez dira izapidetzeko onartuko errekurtsuez arduratzeko eskumen funtzionalik ez duen auzitegi bati zuzendutako errekurtsuak. Aurrekoa gorabehera, errekurtsu bat onartuta, hura zuzendu zaion auzitegiak ulertzen badu ez daukala hartaz arduratzeko eskumen funtzionalik, auzigaiaren arduraz abstenitzen duen autoa emango du, pertsonatutako alderdi guztiei aurretiaz entzunda hamar eguneko epe komunean.

2. Aurreko apartatuan aipatutako autoa jakinarazita, auzilariak bost eguneko epea izango dute errekurtsua behar bezala jartzeko edo iragartzeko, zeina izapide horietarako aurreikusitako legezko epeari gehituko zaion. Guztizko epea gainditzen badute forma egokian errekurritu gabe, irmo geratuko da kasuan kasuko ebazpena.

III. KAPITULUA



Deklinatoriaz

63. artikulua. Deklinatoriaren edukia, hura proposatzeko legitimazioa eta hartaz arduratzeko auzitegi eskuduna.

1. Deklinatoriaren bidez, demandatuak eta sustatutako judizioan alderdi legitimo izan daitezkeenek salatu ahal izango dute demanda jarri den auzitegiaren jurisdikziorik eza, haren ardura atzerriko auzitegiei, beste jurisdikzio-ordena bateko organoei, arbitroei edo bitartekariei dagokielako, salbu eta aurretiazko itun bat badago kontsumitzailearen eta enpresaburuaren artean, kontsumo-auziak ebazteko prozedura alternatibo baten menpe jartzekoa, eta demandatzailea kontsumitzailea bada.

Edozein motatako eskumenik eza salatzeke ere deklinatoria proposatuko da. Deklinatoria lurralde-eskumenik ezean oinarritzen bada, zehaztu egin beharko da jarduketak zein auzitegiri bidali beharko zaizkion lurralde-eskumena duela uste izateagatik.

2. Deklinatoria proposatuko da auziaz arduratzen ari den eta jurisdikziorik edo eskumenik ez duela uste den auzitegi berean. Dena den, deklinatoria demandatuaren egoitzako auzitegiaren aurrean ere aurkeztu ahal izango da, zeinak demanda aurkeztu zen auzitegira iritsaraziko duen deklinatoria, komunikazio-biderik ahalik eta azkarrenak erabiliz, hargatik eragotzi gabe aurkeztu eta biharamunean ofizio bidez igortzea.

64. artikulua. Deklinatoria proposatzeko une prozesala eta berehalako ondoreak.

1. Demanda erantzuteko epearen lehenengo hamar egunetan proposatu beharko da deklinatoria, eta, ebatzi arte, ondoretzat sortuko du erantzuteko epearen eta prozedura nagusiaren aribidearen etendura, zeina Justizia Administrazioaren letratuak deklaratu baitu.

2. Prozedura nagusiaren etendurak, deklinatoria aurretiaz alegatzearen ondorioz sortutakoak, ez du eragotziko auzigaia ebazkizun duen auzitegiak, alderdi legitimoaren eskariz, froga ziurtatzeko edozein jardun gauzatzea, ez eta kautela-neurriak hartzea ere, haren luzamenduak kalte konponezinak eragin diezazkiokeenean auzi-jartzaileari, salbu eta demandatuak behar besteko kauzioa ematen badu oinarririk gabeko deklinatoria izapidetzetik erator daitezkeen kalte-galerei aurre egiteko.

Kauzioa eskudirutan eman ahal izango da, edota kreditu-erakundeak edo elkarren bermerako sozietateak emandako iraupen zehaztugabeko eta lehenengo errekerimenduan ordaindu beharreko abal solidario bidez, edota auzitegiaren iritziz dena delako zenbatekoaren berehalako erabilgarritasuna, kasua denean, bermatzen duen beste edozein bitartekoz.

65. artikulua. Deklinatoria izapidetzea eta erabakitzea.

1. Deklinatoria-idazkiarekin batera aurkeztu beharko dira haren oinarri diren dokumentuak edo frogahastapenak, gainerako auzilari adinako kopia-kopuruarekin, zeinek bost eguneko epea izango duten,



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

deklinatoriaren jakinarazpenetik kontatzen hasita, auzitegiaren jurisdikzioari edo eskumenari eusteko komenigarritzat jotzen dutena alegatzeko eta aurkezteko; auzitegiak hurrengo bost egunen barruan erabakiko du arazoa.

Deklinatoria lurralde-eskumenik ezari buruzkoa bada, auzi-jartzaileak, hura aurkaratzean, alegatu ahal izango du auzigaiaren gaineko ardura deklinatu nahi zaion auzitegiaren lurralde-eskumenik eza ere.

2. Auzitegiak irizten badio jurisdikziorik ez duela auzigaiaren gaineko ardura beste estatu bateko auzitegiei dagokielako, hala deklaratu du auto bidez, auzigaiaren arduraz abstenituko da eta prozesua largetsiko du.

Modu berean jardungo du auzitegiak, auzigaia arbitrajepean edo bitartekaritzepean jarri izanean oinarritutako deklinatoria baiesten badu.

3. Auzitegiak irizten badio jurisdikziorik ez duela kasuan kasuko auzigaia beste jurisdikzio-ordena bateko auzitegiei dagokielako, auzigaiaren arduraz abstenitzen duen autoan alderdiei adieraziko die zein organoren aurrean erabili behar duten beren eskubidea. Ebazpen berbera emango da auzitegiak eskumen objektiborik ez duela ulertzen duenean.

4. Lurralde-eskumenari buruzko deklinatoria jarri bada eta hura aginduzko erregelek zehazten ez badute, auzitegiak, hura baiesteko, eskudun iritzi beharko dio deklinatoriaren sustatzaileak seinalatutako organoari.

5. Auzitegia, lurralde-eskumenari buruzko deklinatoria baiestean, eskumena dagokion organoaren alde inhibituko da, eta erabakiko du autoak hari igortzea eta alderdiak epatzea haren aurrean ager daitezen hamar eguneko epean.

IV. KAPITULUA

Jurisdikzioa eta eskumena gai duten errekurtsuez

66. artikulua. Nazioarteko eskumena, jurisdikzioa, arbitrajepean edo bitartekaritzepean jartzea eta eskumen objektiboa gai duten errekurtsuak.

1. Nazioarteko eskumenik ez duelako, auzigaia beste jurisdikzio-ordena bateko auzitegiari egokitu zaiolako, auzigaia arbitrajepean edo bitartekaritzepean jarri delako edota eskumen objektiborik ez duelako auzigaiaren arduraz abstenitzen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da.

2. Berraztertze-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da nazioarteko eskumenik, jurisdikziorik edo eskumen objektiborik eza errefusatzen duen autoaren aurka, hargatik eragotzi gabe behin betiko epaiaren aurkako apelazioan alegatzea aurrebaldintza prozesal horien gabezia.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzekoa izango da, halaber, autoak errefusatzeko duenean auzigaia arbitrajepean edo bitartekaritzapean jartzea.

67. artikulua. Lurralde-eskumena gai duten errekurtsioak.

1. Ezin izango da errekurtsioak jarri lurralde-eskumenari buruz ebazten duten autoen aurka.
2. Apelazio- eta kasazio-errekurtsioetan, aginduzko arauak aplikatzekoak diren kasuetan onartuko dira soilik lurralde-eskumenik ezaren alegazioak.

V. KAPITULUA

Auzigaien banaketaz

68. artikulua. Banaketaren nahitaezkotasuna. Tratamendu prozesala.

1. Auzigai zibil guztiak lehen auzialdiko epaitegien artean banatuko dira, barrutian bat baino gehiago daudenean. Erregela berbera aplikatuko zaie probintzia-azuzitegien ardurapean egon behar duten auzigaiari, haiek ataletan banatuta daudenean.
2. Justizia Administrazioaren letraduek ez dute utziko banaketapean dagoen auzigairik bideratzen, dagokion eginbidea edo idatzohar elektronikoa bertan jasota ez badago. Eginbide edo idatzohar elektronikoa hori jasota ez badago, auzigaia banatzea agintzen ez duen edozein jardun deuseztatutako da, alderdietako edozeinek eskatuta.
3. Banaketari buruzko erabakien aurka ez da bidezkoa izango deklinatoria, baina auzilarietatik edozeinek aurkaratu ahal izango du indarreko banaketa-arauak hautsi izana, jardunak hasteko idazkia edo eskaera aurkezteko unean.
4. Banaketa-arauen arabera auzigaiaren ardura egokitu ez zaion auzitegiak edo auzitegiek emandako ebazpenak deusez deklaratu dira, alderdi kaltegarriak hala eskatuta, betiere deuseztasuna eskatu bada alderdiak banaketa-arauak hautsi izanaren berri izan eta hurrengo prozesu-izapidean eta arau-hauste hori ez bada zuzendu aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

69. artikulua. Banaketa egin beharreko epea.

Jardunak hasteko idazkia edo eskaera aurkeztu eta hurrengo bi egunetan banatuko eta igorriko zaizkio auzigaiak dagozkion bulego judizialari.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

70. artikulua. Urgentziazko neurriak banatu gabeko auzigaietan.

Epaile dekanoez eta auzitegi-tako presidenteez, alderdiak eskatuta, urgentziazko neurriak hartu ahal izango dituzte banatu gabeko auzigaietan, haiek hartu ezean eskubideren bat urra edo kalte larriren eta konponezinen bat sor litekeenean.

III. TITULUA

Akzioen eta prozesuen metaketaz

I. KAPITULUA

Akzio-metaketa

71. artikulua. Metaketaren ondore nagusia. Akzioen metaketa objektiboa. Metaketa ebentuala.

1. Akzio-metaketa onartuak ondore izango du akzio guztiak prozedura berean eztabaidatzea eta epai bakar batean ebaztea.

2. Auzi-jartzaileak demandan metatu ahal izango ditu demandatuaren aurka dagokion adina akzio, titulu ezberdinetatik etorri arren, betiere elkarrekin bateraezinak ez badira.

3. Bateraezina izango da judizio berean bi akzio edo gehiago aldi berean egikaritzea, eta, beraz, ezin izango dira metatu elkarren baztertzailak direnean edo elkarren aurkakoak, halako moldez non bat aukeratzeak bestea edo besteak egikaritzea eragozten edo efikaziarik gabe uzten duen.

4. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, elkarrekin bateraezinak diren akzioak ebentualki metatu ahal izango ditu auzi-jartzaileak, adierazita zein den akzio nagusia eta zein d(ir)en akzio nagusi hori oinarri gabea dela iritzitako kasurako soilik egikaritzen d(it)uena(k).

72. artikulua. Akzioen metaketa subjektiboa.

Subjektu batek zenbait subjektuen aurka edo zenbaitek baten aurka dituzten akzioak metatu ahal izango dira, aldi berean egikarituz, betiere akzio horien artean loturarik badago tituluagatik edo eskatzeko kausagatik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Titulua edo eskatzeko kausa berdin-berdina edo lotua dela ulertuko da akzioak egitate berberetan oinarritzen direnean.

73. artikulua. Akzio-metaketaren onargarritasuna, zio prozesalengatik.

1. Akzio-metaketa onargarria izan dadin, beharrezkoa izango da:

1.) Akzio nagusiaz arduratu behar duen auzitegiak jurisdikzioa izatea, baita gaiagatik edo muntagatik eskumena ere, metatutakoaz edo metatutakoez arduratzeko. Hala ere, judizio arruntean bideratu beharreko akzioari metatu ahal izango zaio haren muntagatik, berez, hitzeko judizioan ebatzi beharko litzatekeen akzioa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, akzio lotu batzuk hasieran metatzen direnean eta haien ardura eskumen objektibo desberdina duten auzitegiei esleitzen zaienean, akzio horien guztien gaineko ardura izango dute merkataritza-arloko epaitegiek, baldin eta akzio nagusiaz arduratzeko eskumena badute, eta gainerako akzioak nagusiarekiko lotura edo prejudizialitatea badute. Halako loturarik edo prejudizialitaterik ez badago, 3. apartatuan ezarritakoaren arabera jardungo da.

Lehen auzialdiko epaitegiek akzio nagusiaz arduratu behar dutenean, ez da onartuko haien eskumen objektibokoak ez diren beste akzio batzuk hasieran metatzea, zenbaki honen lehenengo paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2.) Metatutako akzioak, haien gaiagatik, mota ezberdinetako judizioetan ebaztekoak ez izatea. Hala ere, ezkontzaren ondasun-eraentza likida dadila eskatzeko akzioa eta jarauntsia zatitzeko akzioa metatu ahal izango dira, baldin eta ezkontzaren ondasun-eraentza desegin bada ezkontide baten edo bien heriotzaren ondorioz, eta prozedura batean eta bestean esku hartzeko legitimazioa dutenen artean identitate subjektiboa badago. Bi akzio horiek metatzen badira, jarauntsiaren zatiketa judizialaren prozeduraren oinarri eta izapideen arabera bideratuko dira.

3.) Legeak metaketa ez debekatzea gaiagatik edo bideratu beharreko judizio-motagatik, akzio jakin batzuk egikaritzen direnean.

2. Halaber, demanda berean akzio ezberdinak metatuko dira legeek hala xedatzen dutenean kasu zehatzetarako.

3. Zenbait akzio bidegabeki metatzen badira, Justizia Administrazioaren letraduak, demanda onartzeari ekin aurretik, auzi-jartzailea errekerituko du, akatsa konpon dezan bost eguneko epean, eta mantendu egingo ditu meta daitezkeen akzioak. Epemuga akatsa konpondu gabe igarota, edo auzi-jartzaileak mantendu nahi dituen akzioak metagarriak ez direlako inguruabarra mantenduta, auzitegiari kontu emango dio, demandaren onarpenari buruz ebatz dezan hark.

II. KAPITULUA



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Prozesu-metaketa

1. atala. Prozesu-metaketa: xedapen orokorrak

74. artikulua. Prozesu-metaketa helburua.

Prozesu-metaketa bidez, prozedura bakar batean bideratuko dira prozesu horiek, eta epai bakar batez amaituko dira.

75. artikulua. Prozesu-metaketa eskatzeko legitimazioa. Ofizioz erabakitako metaketa.

Metatu nahi diren prozesuetatik edozeinetan alderdi denak eskatu ahal izango du metaketa, edo ofizioz erabakiko du auzitegiak, betiere hurrengo artikuluan aurreikusitako kasuetakoren bat gertatuz gero.

76. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa prozesu-metaketa.

1. Prozesu-metaketa erabaki beharko da, betiere:

1.) Prozesuetatik batean eman beharreko epaiak bestean ondore prejudizialak sor ditzakeenean.

2.) Metatzeko eskatzen diren prozesuen objektuen artean halako lotura dagoenean, non bananduta bideratuz gero, pronuntziamendu edo oinarri kontraesanezkoak, bateraezinak edo elkar-baztertzailerak lituzketen epaiak ematea gerta litekeen.

2. Halaber, bidezkoa izango da metaketa honako kasu hauetan:

1.) Legeek kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitortzen dizkieten eskubide eta interes kolektiboak eta lausoak babesteko hasitako prozesuak direnean, zeinak metatzeko modukoak diren artikuluko honen 1.1.) apartatuan eta 77. artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere prozesu-aniztasuna ezin izan bada saihestu akzio-metaketa bidez edo lege honen 15. artikuluan aurreikusitako esku-hartzearen bidez.

2.) Metatu beharreko prozesuen objektua denean batzar edo biltzar berean edo kide anitzeko administrazio-entzuten bilkura berean hartutako sozietate-erabakiak aurkaratzea. Kasu horretan, metatu egingo dira erabaki horien deusezetasuna edo deuseztagarritasuna deklaratzeko eskaera duten demanden bidez hasitako prozesu guztiak, betiere demandetatik lehenengoa aurkeztu zenetik berrogei egun baino luzeagoa ez den denbora-tartean aurkeztu badira haiek.

3.) Adingabe bera babestea gai duten administrazio-erabakien aurkakotza bideratzen den prozesuak direnean, 780. artikuluaekin bat etorritik izapidetuak, betiere haiek bakar batean ere ikustaldia hasi ez bada.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Nolanahi ere, merkataritza-gaian, 1.) eta 2.) zenbakien kasuetan, edo gai zibilean, 3.) zenbakiaren kasuan, eskumenak esleituta dituzten epaitegi bat baino gehiago dauden tokietan, beste demanda baten ondoren aurkeztutakoak lehenengoaz arduratzea egokitu zaion epaitegiari banatuko zaizkio.

77. artikulua. Prozesu metagarriak.

1. Lege honen 555. artikuluan betearazpen-prozesuen metaketari buruz xedatutakoa salbuetsirik, izapide berberen bidez bideratzen diren edo eskubide prozesalik galdu gabe elkarrekin izapidetu daitezkeen deklarazio-prozesuen metaketa soilik izango da bidezkoa, betiere kapitulu honetan adierazitako kausetakoren bat gertatzen bada.

Ulertuko da ez dagoela eskubide prozesalen galerarik judizio arrunt bat eta hitzezko judizio bat metatzea erabakitzen denean; hartara, judizio biek judizio arruntaren izapideen bitartez jarraituko dute, eta auzitegiak metaketa erabakitzen duen autoan aginduko du, beharrezkoa izanez gero, demandari erantzuteko unera arte atzera eraman daitezela hitzezko judizio metatuaren jardunak, judizio arrunterako aurreikusitako izapideekin jarrai dezan.

2. Prozesuak auzitegi ezberdinetan ebazkizun daudenean, ezin izango dira metatu baldin eta prozesurik antzinakoenaren auzitegiak gaiagatik edo muntagatik eskumen objektiborik ez badu metatu nahi den prozesuaz edo prozesuez arduratzeko.

Aurrekoa gorabehera, prozesu-metaketa eskatu ahal izango da merkataritza-arloko epaitegiaren aurrean, nahiz eta prozesu antzinakoenaz arduratu ez eta haietako bat lehen auzialdiko epaitegi batean izapidetu, betiere 76. eta 78. artikuluetan aipatutako gainerako betekizunak betetzen badira.

3. Metaketa ez da bidezkoa izango, ezta ere, prozesu modernoenez arduratzen den auzitegiaren lurralde-eskumenak alderdientzako izaera indargabeezina daukanean legeari.

4. Ondareen zatiketa judizialaren prozedurak metatu ahal izango dira, jarauntsiaren zatiketa judizialaren prozedurari ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko prozedura gehitu behar zaionean ezkontide bat edo biak hil direnean.

5. Prozesu-metaketa onargarria izan dadin, nahitaezkoa izango da haiek lehen auzialdian egotea eta haietako batean ere bukatuta ez egotea lege honen 433. artikuluan aipatutako judizioa.

78. artikulua. Prozesu-metaketaren bidezketasunik eza. Salbuespenak.

1. Prozesu-metaketa ez da bidezkoa izango baldin eta auzibitate-salbuespenaren bidez saihestu ahal bada pronuntziamendu edo oinarri kontraesanezkoak, bateraezinak edo elkar-baztertzailak dituzten epaiak emateko arriskua.

2. Alderdiak eskatutako prozesu-metaketa ere ez da bidezko izango justifikatzen ez denean, lehenengo demandarekin edo, kasua denean, haren zabaltzearekin edota errekonbentzioarekin, ezin izan zela sustatu



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

prozesu bat, metatu nahi diren prozesu ezberdinetan planteatutako uzi eta arazo funtsean berdinak biltzen zituena.

3. Metatu nahi diren prozesuak demandatzaile berberak edo demandatu errekonbentzio-egileak sustatu baditu, bakarrik edota auzikidetzan, ulertuko da, justifikazioa egina egon ezean, prozesu bakar bat susta zitekeela, aurreko apartatuetan zehaztutako moduan, eta metaketa ez da bidezkoa izango.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko 76. artikulua 2.1.) zenbakian aipatutako prozesuei.

79. artikulua. Zer prozesutan eskatu edo ofizioz erabaki behar den metaketa.

1. Prozesu-metaketa prozesurik antzinakoenaz arduratzen den auzitegiari eskatuko zaio beti; hari metatuko zaizkio modernoak. Betekizun hori bete ezean, Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bat emango du, eskaera onartzen ez duena.

75. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozesurik antzinakoenaz arduratzen den auzitegiari egokituko zaio metaketa ofizioz agintzea.

2. Antzintasuna demandaren aurkezpen-dataren arabera zehaztuko da, eta metaketa-eskaerarekin batera aurkeztu beharko da data hori egiaztatzen duen dokumentua.

Demandak egun berean aurkeztu badira, lehenengo banatu den prozesua hartuko da antzinagokotzat.

Auzitegi ezberdinetan ebazkizun egoteagatik edo beste edozein kausarengatik ezin bada zehaztu demandetatik zein banatu zen lehenengo, metatu nahi diren prozesuetatik edozeinetan egin ahal izango da eskaera.

80. artikulua. Prozesu-metaketa hitzezko judizioan.

Hitzezko judizioetan, hurrengo ataleko arauen bidez arautuko da auzitegi berean ebazkizun dauden prozesuen metaketa.

2. atala. Auzitegi berean ebazkizun dauden prozesuen metaketaz

81. artikulua. Prozesuak metatzeko eskaera.

Prozesuak auzitegi beraren aurrean bideratzen direnean, metaketa idazki baten bidez eskatuko da, zeinean argiro zehaztuko baitira metatzeko eskatzen diren prozesuak eta haien egoera prozesala, bai eta metaketa justifikatzen duten arrazoiak azalduko ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Prozesuak metatzeko eskaerak ez du etengo metatu nahi direnen aribidea, 88.2 artikuluan ezarritakoa salbu, baina auzitegia abstenitu egin beharko da haietako edozeinetan epaia emateaz harik eta metaketaren bidez kotasanari buruz erabakitzen duen arte.

82. artikulua. Prozesuak metatzeko eskaera hasieran ezestea.

Auzitegiak metaketa-eskaera errefusatuko du, auto bidez, aurreko artikuluan galdatutako datuak biltzen ez dituenean edo, eskaera horretan jasotakoaren arabera, metaketa bidezkoa ez denean prozesuen klaseagatik eta motagatik, haien egoera prozesalagatik eta aurreko artikuluetan ezarritako gainerako betekizun prozesalengatik.

83. artikulua. Prozesuak metatzeko intzidentea bideratzea eta erabakitzea. Errekurtsoak.

1. Prozesu-metaketa forma egokian eskatuta, Justizia Administrazioaren letraduak helarazi egingo die pertsonatutako gainerako alderdiei eta metatu nahi diren prozesuetatik edozeinetan alderdi diren guztiei, eskaera egin den hartan alderdi izan ez arren, metaketari buruzko alegazioak formula ditzaten hamar eguneko epe komunean.

2. Epe hori igarota, edo alegazioak jasota, intzidenteko alderdi guztiak metaketa-eskaerarekin ados daudenean, auzitegiak, beharrezkoak diren betekizunak betetzen direla iritziz gero, metaketa erabakiko du hurrengo bost egunetan.

3. Alderdien arteko adostasunik ezean, edo haietako inork alegaziorik formulatu ezean, auzitegiak bidezkoa deritzona ebatziko du, eta eskatutako metaketa emango edo ukatuko du.

4. Metaketa ofizioz sustatu denean, auzitegiak hamar eguneko epe komunean entzunaldia emango die metatu nahi diren prozesuetan alderdi diren guztiei, alegazioak formula ditzaten.

5. Eskatutako metaketari buruz erabakitzen duen autoaren aurka ezin izango da jarri berraztertzeako errekurtsua baizik.

84. artikulua. Metaketa ematen duen autoaren ondoreak.

1. Metaketa onartuta, prozesu modernoak antzinakoenei eransteko aginduko du auzitegiak, prozedura berean edo izapide berak erabiliz bideratzen jarrai daitezen eta epai berean erabaki.

2. Metatutako prozesuak ez badaude lehen auzialdiko fase berean, aurreratuen dagoena eten dadila erabakiko du Justizia Administrazioaren letraduak, harik eta gainerakoak egoera berean egon arte; kasua denean, 77.1 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoa bete beharko da.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

85. artikulua. Metaketa ukatzen duen autoaren ondoreak.

1. Metaketa ukatuta, bananduta bideratuko dira judizioak.
2. Metaketa ukatzen duen autoak hura sustatu zuen alderdia kondenatuko du intzidentearen kostuak ordaintzera ausarkeriaz edo fede txarrez jardun badu.

3. atala. Auzitegi ezberdinetan ebazkizun dauden prozesuen metaketaz

86. artikulua. Arau aplikagarriak.

Auzitegi ezberdinetan ebazkizun dauden prozesuen metaketa kapitulu honen aurreko ataletako arauen bidez eraenduko da, hurrengo artikuluetan adierazten diren berezitasunekin.

87. artikulua. Prozesuak metatzeko eskaera.

Metatu nahi diren gainerako prozesuak zein auzitegiren aurrean dauden ebazkizun adierazi beharko da prozesuak metatzeko eskatzen den idazkian, 81. artikuluan aurreikusitakoaz gain.

88. artikulua. Prozesuak metatzeko eskaera egitearen edo jardunak ofizioz hastearen ondore ez-etengarria.

1. Prozesuak metatzeko eskaera egiteak edo jardunak ofizioz hasteak ez du etengo ukitutako prozesuen aribidea, salbu eta haietakoren bat epaiaren zain soilik geratzen den unetik. Kasu horretan, eten egingo da hura emateko epea.
2. Aurrekoa gorabehera, judizio- edo ikustaldi-ekitaldia atzera daitezela erabaki ahal izango du auzitegiak, ekitaldi horrek eraginik izan ez dezan gainerako prozesuetan egin beharreko frogen emaitzan eta garapenean.
3. Metaketa eskatzen den orduko, Justizia Administrazioaren letraduak, biderik azkarrena erabiliz, egitate horren berri emango dio beste auzitegiari, epaia emateaz kasu orotan absteni dadin edo aurreko apartatuan aurreikusitako etendurari buruz erabaki dezan eskatutako metaketari buruzko behin betiko erabakia hartu bitartean.
4. Justizia Administrazioaren letraduak pertsonatutako gainerako alderdiei helaraziko die metaketa-eskaera, metaketaren bidez kotatutako buruz alegazioak formula ditzaten hamar eguneko epe komunean, eta, ondoren, auzitegiak ebazpena emango du, bost eguneko epean eta lege honen 83. artikuluan



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

xedatutakoaren arabera. Metaketa ukatzen denean, Justizia Administrazioaren letraduak beste auzitegiari komunikatuko dio, zeinak epaia eman ahal izango duen edo, kasua denean, judizioa edo ikustaldia egin.

89. artikulua. Prozesuak metatzea bidezkoa dela deklaratzeko duen autoaren edukia.

Auzitegiak irizten dionean bidezkoa dela metaketa, auto berean aginduko du beste auziaz arduratzen ari denari ofizio bat bidal dakiola, zeinean errekerituko duen kasuan kasuko prozesuak metatzea eta igortzea.

Ofizio horrekin batera bidaliko dira lekukotza bat, auzitegiak berak zehaztuko dituen eta eskatutako metaketaren kausa ezagutzera emateko nahikoak diren aurrekariak, eta metaketa eskatu ez duten alderdiek formulatutako alegazioak, halakorik bada.

90. artikulua. Auzitegi errekerituak metaketa-errekerimendua hartzea eta auzilariei ikustaldia ematea.

1. Auzitegi errekerituak ofizioa eta lekukotza hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak helarazi egingo dizkie auzitegiaren aurrean agertu diren auzilariei.

2. Auzitegi errekerituaren aurrean pertsonatutakoren bat ez badago pertsonatuta auzitegi errekeritzailearen aurreko prozesuan, bost eguneko epea izango du bulego judizialean ofizioaren eta lekukotzaren jakitun egiteko eta idazkia aurkezteko, metaketari buruz bere eskubideari komeni zaiona adierazte aldera.

91. artikulua. Metaketa-errekerimenduari buruzko ebazpena.

1. Aurreko artikuluan aipatutako bost eguneko epea, kasua denean, igarota, auzitegiak auto bat emango du, metaketa-errekerimendua onartzen edo ukatzen duena.

2. Auzitegi errekerituaren aurrean pertsonatutako alderdietatik batek ere ez badio metaketari aurka egiten edo ez badu auzitegi errekeritzailearen aurrean alegatutako datuez eta argudioez bestelakorik alegatzen, auzitegi errekeritua abstenitu egingo da metaketa errekeritzen duen autoaren oinarriak, 76. eta 77. artikuluetan ezarritako betekizunak betetzeari buruzkoak, aurkaratzeaz, eta errekerimenduari ezezkoa emateko oinarri bakarra erabili ahal izango du, metaketa auzitegi errekerituaren aurrean ebazkizun dauden prozesuei egin behar izatea, alegia.

92. artikulua. Auzitegi errekerituak metaketa onartzearen ondoreak.

1. Metaketa-errekerimendua onartuta, Justizia Administrazioaren letraduak berehala jakinaraziko die auzitegi errekerituaren aurrean jarraitutako prozesuan alderdi direnei, hamar eguneko epean auzitegi



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

errekeritzailearen aurrean pertsonatu daitezten, zeinari autoak igorriko dizkion, beren aribideari jarrai diezaizoten haren aurrean, kasua denean.

2. Prozesuen metaketa erabakita, aurreratuen dagoen prozesuaren aribidea eten dadila erabakiko du idazkariak, harik eta bestea egoera prozesal berera iritsi arte; une horretan gauzatuko da metaketa.

93. artikulua. Auzitegi errekerituak prozesu-metaketa ez onartzearen ondoreak.

1. 91. artikulua 2. apartatua aurreikusitakoarekin bat etorriz auzitegi errekerituak metaketa-errekerimendua onartzen ez duenean bidegabea dela irizteagatik edo metaketa bere aurrean ebazkizun daudenei egin behar zaiela uste izateagatik, auzitegi errekeritzaileari komunikatuko dio, eta desadostasuna konpontzeko auzitegi eskudunaren esku utziko dute biek erabakia.

2. Prozesu-metaketa gai duten desadostasunak konpontzeko eskudun izango da errekeritzailearen eta errekerituaren goragoko hurbileneko auzitegi erkidea.

94. artikulua. Desadostasuna bideratzea auzitegi eskudunaren aurrean.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako ondoreetarako, hala auzitegi errekeritzaileak, nola errekerituak, ahalik eta azkarren igorriko diote auzitegi eskudunari, metaketari buruzko desadostasuna ebatzi ahal izateko, bakoitzak bere auzitegian duenaren lekukotza.

2. Auzitegi errekeritzaileak eta errekerituak alderdiak epatuko dituzte, bost eguneko epe luzaezinean agertu ahal izan daitezten auzitegi eskudunaren eta idatziz alega dezaten beren eskubideari komeni zaiona.

95. artikulua. Desadostasunaren erabakia.

1. Auzitegi eskudunak auto bidez erabakiko du, hogeit hamar eguneko epean, autoetan jasotako aurrekariak eta, aurkeztu badira, alderdien alegazio idatziak ikusita. Ezin izango da errekurtsorik jarri ematen den autoaren aurka.

2. Prozesuak metatzeko erabakitzen bada, lege honen 92. artikuluan ezarritakoa aginduko da. Ukatzen bada, beren aribideari bananduta jarraitu beharko diote prozesuek eta, kasua denean, erabakitako etendura amaitutzat emango du Justizia Administrazioaren letraduak.

96. artikulua. Bi prozesu baino gehiagoren metaketa. Metaketaren errekerimendu anitz.

1. Kapitulu honetan xedatutakoa aplikagarria izango da metatzeko eskatzen diren judizioak bi baino gehiago diren kasuan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Auzitegi berari metaketa errekeritzen zaionean epaitegi edo auzitegi ezberdinetan bideratutako bi prozedura edo gehiagori dagokionez, Justizia Administrazioaren letraduak autoak igorriko dizkio haien guztien goragoko erkideari, eta errekeritzaile guztiei komunikatuko die, erabakia goragoko horren esku utz dezaten. Kasu horretan, aurreko bi artikuluetan xedatutakoa beteko da.

97. artikulua. Bigarren metaketa-intzidente baten debekua.

1. Prozesu batean prozesuak metatzeko intzidentea planteatuta, ez da onartuko geroagoko beste judizio bat metatzeko eskaera, baldin eta hura eskatu duena izan bada metatu nahi den judizioa abiarazi duena.

2. Justizia Administrazioaren letraduak horretarako emandako dekretu bidez errefusatuko du formulatutako eskaera. Aurreko debekua gorabehera, beste intzidente hori bideratzen bada, eskaeraren ondorioz jardundakoaren deuseztasuna deklaratu du auzitegiak, egitate horren berri izan bezain laster, eta aurkeztu zuenari ezarriko zaizkio kostuak.

4. atala. Prozesu singularrak prozesu unibertsalei metatzeaz

98. artikulua. Zer kasutan egokitzen den prozesu singularrak prozesu unibertsal bati metatzea.

1. Prozesu-metaketa dekretatuko da, halaber:

1.1. Ebazkizun dagoen konkurtso-prozesu bati lotutako ondasuntzaren aurka edozein demanda formulatu edo formulatzen denean. Kasu horietan, konkurtso-legerian aurreikusitakoaren arabera jardungo da.

1.2. Bideratzen ari den oinordetza-prozesu bati lotutako ondasuntzaren aurka ondasuntza horri buruzko akzio bat formulatu edo formulatzen denean.

1.3. Zenbaki honetan aipatzen den metaketatik salbuesten dira ondasun hipotekatuak edo pignoratuak soilik pertsegitzen dituzten betearazpen-prozesuak; ezein kasutan ez dira txertatuko oinordetza-prozesuan, betearazpenaren hasiera-data edozein izanda ere.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuetan, prozesu unibertsalaz arduratzen den auzitegiaren aurrean eskatu behar da metaketa, eta prozesu unibertsalari egingo zaio beti, prozesurik antzinakoenak zein diren kontuan hartu gabe.

3. Prozesu-metaketa, bidezkoa denean, kapitulu honen arauak eraenduko dute kasu horretan, konkurtso- eta oinordetza-prozesuei buruzko legeria berezian ezarritako berezitasunekin.

IV. TITULUA



Abstentzioaz eta errekusazioaz

I. KAPITULUA

Abstentzioaz eta errekusazioaz: xedapen orokorrak

99. artikulua. Legearen aplikazio-eremua eta legezkotasun-printzipioa.

1. Prozesu zibilean, titulu honetan xedatutakoak eraenduko ditu epaileen eta magistratuen abstentzioa eta errekusazioa, baita Fiskaltzako kideena, Justizia Administrazioaren letraduena, adituena eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileena ere.

2. Aurreko apartatuan aipatutakoen abstentzioa eta, kasua denean, errekusazioa bidezkoak izango dira soilik Botere Judizialaren Lege Organikoan epaileen eta magistratuen abstentziorako eta errekusaziorako zehaztutako kausetakoren bat dagoenean.

100. artikulua. Abstentzio-eginbeharra.

1. Legez ezarritako kausetakoren batean den epailea edo magistratua auzigaiaren arduraz abstenituko da, errekusatua izan dadin itxaron gabe.

2. Eginbehar bera izango dute Justizia Administrazioaren letraduak, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioek, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegokoek edo Laguntza Judizialeko Kidegokoek, Fiskaltzako kideak edo auzitegiak izendatutako adituak, legean ezarritako kausetakoren batean direnean.

101. artikulua. Errekusatzeko legitimazio aktiboa.

Auzigai zibiletan, alderdiek soilik errekusatu ahal izango dute. Fiskaltzak ere errekusatu ahal izango du, betiere, gatazkan dauden eskubideen izaera dela-eta, esku har dezakeen edo esku hartu behar duen prozesu bat denean.

II. KAPITULUA

Epaileen, magistratuen, Justizia Administrazioaren letraduen, fiskalen eta auzitegi zibilen zerbitzura dauden langileen abstentzioaz



102. artikulua. Epaileen eta magistratuen abstentzioa.

1. Magistratuaren edo epailearen abstentzioa komunikatuko zaio, hurrenez hurren, hura kide den atalari edota salari edo epaien aurkako errekurtsuez arduratzeko eskumen funtzionala dagokion auzitegiari, zeinak hamar eguneko epean ebatziko duen. Idazki arrazoitu bidez komunikatuko da abstentzioa, hari bide ematen dion kausaz ohartu orduko.

2. Epailearen edo magistratuaren abstentzioak prozesuaren aribidea etengo du, harik eta abstentzioa ebatzi arte; Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du etendura.

3. Baldin eta artikulua honen 1. apartatuan aipatzen den auzitegiak abstentzioari justifikatu ez baderitzo, epaileari edo magistratuari aginduko dio auzigaiaz arduratzen jarrai dezala, hargatik eragotzi gabe alderdiek errekusazioa baliatzeko duten eskubidea. Agindua hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak antolaketa-eginbide bat emango du, prozesuaren etendura amaitzen duena.

4. 1. apartatuaren arabera eskuduna den auzitegiak abstentzioari justifikatu baderitzo, abstenituak auto bat emango du, bera auzigaitik behin betiko aldentzen duena eta jarduketak bera ordeztu behar duenari igor dakizkiola agintzen duena. Abstenitzen dena kide anitzeko auzitegi bateko kidea denean, abstenitzen denaren salak edo atalak emango du autoa, errekurritzeko modukoa izango ez dena.

Bi kasuotan, prozesuaren etendura amaituko da, hurrenez hurren, ordezekoak jarduketak hartzen dituenen edo hark abstenituaren sala edo atala osatzen duenean.

5. Abstenitu den epailearen edo magistratuaren abstentzioa eta ordezpena alderdiei komunikatuko zaizkie, ordezekoaren izena adierazita.

103. artikulua. Justizia Administrazioaren letraduen abstentzioa.

Justizia Administrazioaren letraduen abstentzioa Botere Judizialaren Lege Organikoan ezarritako arauen bidez eraenduko da.

104. artikulua. Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko Kidegoetako funtzionarioen abstentzioa.

1. Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko Kidegoetako funtzionarioen abstentzioa idazki ziodun bidez komunikatuko zaio kasuan kasuko auzialdian auzia amaitzen duen ebazpena emateko eskuduna denari, haren bidez kotasunari buruz erabaki dezan.

2. Abstentzioa baietsiz gero, legearen arabera ordeztu behar duenak prozesuan hartuko dio lekua legezko kausa betetzen duen funtzionarioari. Ezesten denean, auzigaian jarduten jarraitu beharko du.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

105. artikulua. Adituen abstentzioa.

1. Auzigaiaz arduratzen den epaileak, atalak edo salak edo, kasua denean, Justizia Administrazioaren letratuak izendatutako aditua abstenitu egin beharko da legean aurreikusitako kausetakoren bat dagoenean. Abstentzioa ahozkoa edo idatzia izan daiteke, betiere behar bezala justifikatuta badago.

2. Izendatzeko unean abstentzio-kausa baldin badago, adituak ez du kargua onartuko, eta unean bertan ordeztuko du ordezeko adituak, betiere hura izendatuta badago. Ordezko adituak ere ezezkoa ematen badio kargua onartzeari, bera ere abstentzio-kausa berean edo besteren batean dagoelako, lege honen 342. artikulua 2. apartatua xedatutakoa aplikatuko da. Kausa aditu-kargua onartu ondoren jakiten edo gertatzen bada, izendapena egin duenak erabakiko du abstentzioa, alderdiei aurretiaz entzun ondoren. Ezin izango da errekursorik jarri ematen den ebazpenaren aurka.

106. artikulua. Fiskaltzako kideen abstentzioa.

Fiskaltzako kideen abstentzioa beren Estatutu Organikoan ezarritako arauen bidez eraenduko da.

III. KAPITULUA

Epaileen eta magistratuen errekusazioaz

107. artikulua. Errekusazioa proposatzeko denbora eta modua.

1. Oinarritzen duen kausa ezagutu orduko proposatu beharko da errekusazioa; izan ere, osterantzean, ez da izapidetzeko onartuko. Zehazki, errekusazioak ez dira onartuko:

1.) Errekusatu nahi den epailearen edo magistratuaren identitatea ezagutzen duen lehenengo ebazpena jakinarazten denetik hamar eguneko epean proposatzen ez direnean, baldin eta errekusazio-kausa dagoela hura baino lehen jakin bada.

2) Prozesu bat jada ebazkizun egonik proposatzen direnean, baldin eta errekusazio-kausa errekusazioa proposatu den une prozesala baino lehenago jakin bada.

2. Errekusazioa idazki bidez proposatuko da, haren oinarri diren legezko kausa eta zioak zehatz eta argi adierazita eta idazkiarekin batera haiei buruzko frogak jasotzen diren aurkeztuta. Abokatuak eta prokuradoreak sinatua egongo da idazki hori, baldin eta auzian esku hartzen badute; bai eta errekusatzaileak edo, hark sinatzen ez badaki eta haren eskariz, beste norbaitek sinatua ere. Kasu orotan, prokuradoreak ahalorde berezia aurkeztu beharko du kasuan kasuko errekusaziorako. Prokuradoreak eta



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

abokatuak esku hartzen ez badute, errekusazioa berretsi beharko du errekusatzaileak kasuan kasuko auzitegiko idazkariaren aurrean.

3. Errekusazioa formulatuta, prozesuko gainerako alderdiei helaraziko zaie, hiru eguneko epe komunean adieraz dezaten ea proposatutako errekusazio-kausari atxikitzen zaizkion edo aurka egiten dioten edo ea, une horretan, beste errekusazio-kausaren bat ezagutzen duten. Epe horretan errekusaziorik proposatzen ez duen alderdiak ezin izango du geroago egin, salbu eta behar bezala egiaztatzen badu une hartan ez zuela ezagutzen beste errekusazio-kausarik.

4. Aurreko apartatuan aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean, errekusatuak bere iritzia adierazi beharko du formulatutako errekusazio-kausa edo -kausak onartzeari ala ez onartzeari buruz.

108. artikulua. Errekusazio-intzidenteak instruitzeko eskumena.

1. Errekusazio-intzidenteen instruitzaile izango dira:

1.) Errekusatua Auzitegi Goreneko, Auzitegi Nazionaleko edo justizia-auzitegi nagusi bateko presidentea edo magistratu bat bada, errekusatuaren salako magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren araberako txandan izendatua.

2.) Errekusatua probintzia-auzitegi bateko presidentea bada, kasuan kasuko justizia-auzitegi nagusiko arlo zibil eta penaleko salako magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren araberako txandan izendatua.

3.) Errekusatua probintzia-auzitegi bateko magistratua bada, auzitegi horretako bertako magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren araberako txandan izendatua, betiere errekusatuaren atal berekoa ez bada.

4.) Justizia-sala bateko magistratu guztiak errekusatzen direnean, kasuan kasuko auzitegia osatzen duten magistratuetakoa bat, antzinasun-hurrenkeraren araberako txandan izendatua, errekusazioak hari eragiten ez badio.

5.) Errekusatua kide bakarreko organo baten titularra den epaile edo magistratu bat bada, probintzia-auzitegiko magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren araberako txandan izendatua.

6.) Errekusatua bake-epailea bada, dagokion barrutiko lehen auzialdiko epailea edo, lehen auzialdiko epaitegi bat baino gehiago badaude, antzinasun-hurrenkeraren araberako txandan izendatutakoa.

Antzinasuna erabakitzeko, karrera judizialeko eskalafoi-hurrenkerari jarraituko zaio.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa bete ezin den kasuetan, kasuan kasuko auzitegiko gobernu-salak izendatuko du instruktorea; ahal dela, errekusatua edo errekusatuak baino kategoria handiagokoa edo, gutxienez, antzinasun handiagokoa.



109. artikulua. Errekusazio-intzidentea bideratzea eta hark auzigai nagusian sortzen dituen ondoreak.

1. 107. artikulua 3. apartatuan aipatutako epea amaitzen den egun berean, edo hurrengo egun baliodunean, Justizia Administrazioaren letraduak ordezkorearen ardurapean jarriko du auzia, eta intzidentea instruitzea dagokion auzitegiari igorri beharko zaizkio errekusazioaren idazkia eta dokumentuak.

Errekusatuaren txosten bat ere igorri beharko da, errekusazio-kausa onartzen duen ala ez dioena.

2. Ez da izapidetzeko onartuko errekusazioaren oinarri diren zioak adierazten ez dituzten edo 107. artikulua 2. apartatuan aipatutako dokumentuekin batera aurkezten ez diren errekusazioak.

3. Errekusatuak ziurtzat onartzen badu errekusazio-kausa, izapide gehiagorik gabe ebatziko da intzidentea. Kontrako kasuan, proposatu den errekusazioa izapidetzeko onartzen badu instruktoarek, aginduko du eskatu den eta egokia den froga eta beharrezkotzat jotzen duena gauzatzea, hamar eguneko epean, eta, jarraian, jardundakoa igorriko dio intzidentea erabakitzeko eskuduna den auzitegiari.

Errekusazioa erabakitzeko eskuduna den auzitegiak jarduketak hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak Fiskaltzari helaraziko dizkio, txostena egin dezan hiru eguneko epean. Epe hori igarota, Fiskaltzaren txostenarekin edo gabe, intzidentea erabakiko da hurrengo bost egunen barruan. Ezin izango da errekurtsorik jarri ebazpen horren aurka.

4. Errekusazioak auziaren aribidea etengo du, harik eta errekusazio-intzidentea erabaki arte.

110. artikulua. Errekusazio-intzidentea erabakitzeko eskumena.

Errekusazio-intzidenteen erabakitzailerak izango dira:

1. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 61. artikuluan aurreikusitako sala, errekusatua bada Auzitegi Goreneko presidentea, Arlo Zibileko Salako presidentea edo sala horretako bi magistratu edo gehiago.

2. Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko Sala, hura osatzen duten magistratuetariko bat errekusatzen bada.

3. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 77. artikuluan aipatutako sala, errekusatu bada justizia-auzitegi nagusiko presidentea, auzitegi nagusi horretako arlo zibil eta penaleko salako presidentea, kasuan kasuko autonomia-erkidegoan egoitza duen probintzia-auzitegi presidentea, justizia-auzitegi nagusietako arlo zibil edo penaleko salako bi magistratu edo gehiago edota atal bateko edo probintzia-auzitegi bateko bi magistratu edo gehiago.

4. Justizia-auzitegi nagusietako arlo zibil eta penaleko sala, auzitegi horietako magistratu bat edo batzuk errekusatu badira.

Aurreko apartatuetan zehaztutako ondoreetarako, errekusatua ez da salako kidea izango.

5. Errekusatua probintzia-auzitegi bateko magistratua bada, probintzia-auzitegia, errekusatua bertako kide izan gabe, edo, hura bi atal edo gehiagok osatzen badute, errekusatua kide ez den atala edo zenbaki-hurrenkeraren arabera errekusatua kide den atalaren hurrengoa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

6. Errekusatua lehen auzialdiko epailea edo merkataritza-arloko epailea bada, haien ebazpenen aurkako errekurtsuez arduratzen den probintzia-azitegiko atala, eta, bat baino gehiago badira, txanda ezarriko da, lehenengo ataletik hasita.

7. Errekusatua bake-epailea bada, errekusazio-intzidentea instruitu duen epaile berak ebatziko du.

111. artikulua. Errekusazio-intzidentearen berezitasunak hitzezko judizioetan. Bestelako kasu bereziak.

1. Hitzezko judizioaren bidez bideratzen diren prozesuetan, epaile errekusatuak unean bertan ez badu ziurtzat onartzen errekusazio-kausa, intzidentea instruitzea dagokionari igorriko zaizkio jarduketak; bitartean, etenda geratuko da auzigai nagusia. Justizia Administrazioaren letraduak deialdia egingo die alderdiei, instruktorearen aurrean ager daitezzen hurrengo bost egunen barruan, eta, alderdiei entzunda eta egoki deklaraturako frogak gauzatu, instruktoreak probidentzia bidez ebatziko du, ekitaldian bertan, errekusazioa bidezkoa den ala ez.

2. Ikustaldien data finkatu ostean epaileak edo magistratuak errekusatzeko, lege honen 190. artikulutik 192. artikulura xedatutakoa beteko da.

112. artikulua. Intzidentearen erabakia, kostuak eta isuna.

1. Errekusazioa ezesten duen autoak erabakiko du auziaren ardura errekusatuari itzultzea, auzia dagoen egoeran dagoela, eta kostuak ordaintzera kondenatuko du errekusatzailea, non eta ez dagoen bestelako pronuntziamenturen bat justifikatzen duen salbuespenezko inguruabarrik. Intzidentea erabakitzen duen ebazpenak berariaz deklaritzen duenean errekusatzailea fede gaiztoz aritu dela, 180 eurotik 6.000 eurora bitarteko isuna ezarri ahal izango zaio hari.

2. Errekusazioa baiesten duen autoak behin betiko baztertuko du errekusatua auziaren arduratik. Ordeztea egokitzen zaionak jarraituko du hartaz arduratzen, harik eta hura amaitu arte.

113. artikulua. Autoaren jakinarazpena eta errekurtsioak.

Ezin izango da errekurtsorik jarri errekusazio-intzidentearen erabakiaren aurka, hargatik eragotzi gabe auzia erabakitzen duen ebazpena errekurritzean haren balizko deuseztasunaz baliatzea, alegatutako errekusazio-kausan egoteagatik errekurritutako ebazpena eman zuen epailea edo magistratua edo egokitu zen sala edo atala osatu zuena.

IV. KAPITULUA



Auzitegi zibiletako Justizia Administrazioaren letraduen errekusazioaz

114. artikulua. Arauketa aplikagarria.

(Edukirik gabe)

115. artikulua. Errekusazioa. Errekusazio-intzidenteak instruitzeko eta ebazteko eskumena.

1. Idazkarien errekusazioari aplikagarriak izango zaizkio Botere Judizialaren Lege Organikoak epaileentzat eta magistratuentzat ezarritako aginduak, honako berezitasun hauek dituztela:

- a. Justizia Administrazioaren letraduak ezin izango dira errekusatu beren ardurapeko edozein eginbide edo jardun gauzatzen ari diren bitartean.
- b. Kasuan kasuko gobernu-idazkariak ebatziko du errekusazio-pieza, kasuan kasuko idazkari koordinatzaileak edo, kasua denean, hark izendatutako Justizia Administrazioaren letraduak aldeztetik intzidentea instruituta.

116. artikulua. Errekusatuaren txostena.

Errekusazio-idazkia aurkeztuta, Justizia Administrazioaren letradu errekusatuak xehetasunez eta idatziz azalduko du ziurtzat eta legitimotzat aitortzen duen ala ez alegatutako kausa, eta dagokion idazkari koordinatzaileari helaraziko dio idazki hori, hark gobernu-idazkariari kontu eman diezaion, edo, kasua denean, zuzenean helaraziko dio errekusazioaz arduratu behar duen gobernu-idazkariari.

117. artikulua. Errekusatuak errekusazioa onartzea.

1. Errekusatuak ziurtzat aitortzen duenean errekusazioaren kausa, gobernu-idazkariak, izapide gehiagorik eta ondorengo errekurtsorik gabe, dekretu bat emango du, hura errekusatutzat ematen duena, kausa legezkoa dela irizten badio.

2. Kausa legean tipifikatuetakoa ez dela irizten badio, errekusazioa onartzen ez dela deklaratu du. Ezin izango da errekurtsorik jarri dekretu horren aurka.

118. artikulua. Errekusatuak aurka egitea, eta errekusazioa bideratzea.

Errekusatuak ziurtasuna ukatu diolarik errekusazioaren oinarri gisa alegatutako kausari, proposatutako errekusazio izapidetzeko onartuz gero instruktoreak, idazkari koordinatzaileak aginduko du egoki eta baliagarri iriztitako froga eskatua egin dadila hamar eguneko epean, eta Fiskaltzari helaraziko dio, hiru



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

egunerako. Epe hori igarota, Fiskaltzaren txostenarekin edo gabe, gobernu-idazkariari igorriko dio, zeinak intzidentea erabakiko duen hurrengo bost egunen barruan. Ezin izango da errekursorik jarri ebazpen horren aurka.

119. artikulua. Justizia Administrazioaren letradu errekusaturik ordeztzea.

Justizia Administrazioaren letradu errekusaturik ordeztzea, haren legezko ordeztzea jarriko da errekusazio-idazkia aurkeztu den unetik beretik.

V. KAPITULUA

Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko kidegoetako funtzionarioen errekusazioaz

120. artikulua. Legeria aplikagarria.

(Edukirik gabe)

121. artikulua. Errekusazioa. Errekusazio-intzidentea instruitzeko eta ebazteko eskumena.

1. Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko kidegoetako funtzionarioak errekusatu ahal izango dira soilik legean aurreikusitako kausengatik.

2. Errekusazio-intzidentea instruitzeko eskudun izango da haiek hierarkian menpe dituen idazkaria, eta kasuan kasuko auzialdian auziari amaiera ematen dion ebazpena emateko eskudunak erabakiko du. Ezin izango da errekursorik jarri intzidentea ebazten duen ebazpenaren aurka.

122. artikulua. Errekusazio-idazkia ez onartzea.

Baldin eta, errekusazio-idazkia ikusita, Justizia Administrazioaren letraduak irizten badio kausa ez dela legean tipifikatuetakoa, ez onartutzat emango du eskabidea unean bertan, ez onartzearen oinarri diren arrazoiak adierazita. Ezin izango da errekursorik jarri ebazpen horren aurka.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

123. artikulua. Intzidentea bideratzea; errekusatuak errekusazioa onartzea ala ukatzea.

1. Errekusazio-idazkia izapidetzeko onartuta, eta hura hartu eta hurrengo egunean, alegaturiko kausa baden edo ez adieraziko dio errekusatuak Justizia Administrazioaren letraduari. Errekusazio-kausa ziurtzat aitoritzen duenean, errekusatua legez ordeztu behar duenak hura ordeztu dezala erabakiko du Justizia Administrazioaren letraduak. Ezin izango da errekurtsorik jarri ebazpen horren aurka.

2. Errekusatuak ziurtasuna ukatzen badiu errekusazioaren oinarri gisa alegatutako kausari, Justizia Administrazioaren letraduak, errekusatuak alegatutakoa entzunda, bost egunen barruan eta errekusatuak proposatu eta egokiak diren egiaztapenak egin ondoren, edo Justizia Administrazioaren letraduak berak beharrezkoak irizitakoak, jardundakoa igorriko dio hura ebatzi behar duenari, intzidentea erabaki dezan.

VI. KAPITULUA

Adituen errekusazioaz

124. artikulua. Adituen errekusazioaren eremua.

1. Auzitegiak zozketa bidez izendatutako adituak soilik errekusa daitezke, kapitulu honetan aurreikusitakoaren arabera. Xedapen hau aplikatuko zaie, bai aditu titularrei, bai ordezkoei.

2. Alderdiek aurkeztutako irizpenen egile diren adituak narriatuak izan daitezke soilik lege honen 343. eta 344. artikuluetan aurreikusitako kausengatik eta moduan, baina ezin dituzte alderdiek errekusatu.

3. Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitako errekusazio-kausez gain, honako hauek dira adituak errekusatzeko kausak:

1.) Auzigai berari buruz, alderdi errekusatzailearen aurkako irizpena eman izana lehenago, bai prozesuan, bai prozesutik at.

2.) Aurkako auzilariari horrelako aditu gisa zerbitzuak eman izana, edo haren mendekoa edo bazkidea izatea.

3.) Partaidetza izatea prozesuan alderdi den sozietatean, establezimenduan edo enpresan.

125. artikulua. Adituen errekusazioa proposatzeko modua.

1. Errekusazioa idazki bidez egingo da; alderdiaren abokatuak eta prokuradoreak sinatua egongo da idazkia, haiek auzian esku hartuz gero, eta epaitegiko titularrari zuzendua edo, kide anitzeko auzitegia izanez gero, magistratu txostengileari. Idazki horretan, zehatz-mehatz adieraziko dira errekusazio-kausa eta



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

hura frogatzeko baliabideak, eta, idazkiarekin batera, kopiak aurkeztuko dira errekusatuarentzat eta prozesuko gainerako alderdientzat.

2. Errekusazio-kausa aditua izendatu baino lehenagokoa bada, izendapena jakinarazi eta hurrengo bi egunen barruan aurkeztu beharko da idazkia.

Kausa izendapenaren ostekoa bada, baina irizpena eman aurrekoa, judiziorako edo ikustaldirako finkatutako eguna baino lehenago edo haiek hastean aurkeztu ahal izango da errekusazio-idazkia.

3. Ezin izango da aditua errekusatu judizioaren edo ikustaldiaren ondoren, hargatik eragotzi gabe irizpena emateko unean bazeuden baina haren ondoren jakin ziren errekusazio-kausak epaia eman aurretik auzitegiari ezagutaraztea eta, hori ezinezkoa izanez gero, bigarren auzialdirako eskuduna den auzitegiari.

126. artikulua. Errekusazio-idazkia onartzea.

Errekusazioa garaiz eta forma egokian proposatuta, idazkiaren kopia helaraziko zaie aditu errekusatuari eta alderdiei. Errekusatuak Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean adierazi beharko du ea ziurra den ala ez errekusazioaren oinarri den kausa. Ziurtzat aitortu badu eta Justizia Administrazioaren letraduak aitortpenari oinarriturik irizten badiu, errekusatutzat hartuko du, izapide gehiagorik gabe, eta ordezkokoak ordeztuko du, kasua denean. Errekusatua ordezkoa bada eta kausaren ziurtasuna aitortzen badu, lege honen 342. artikuluan xedatutakoa beteko da.

127. artikulua. Errekusazio-intzidentea bideratzea eta erabakitzea.

1. Adituak errekusazio-kausaren ziurtasuna ukatzen duenean edo aipatutako kausa badela adierazteko adituak egindako aitortpena onartzen ez denean, Justizia Administrazioaren letraduak alderdiei aginduko die auzitegiaren aurrean ager daitezela, berak finkatutako egunean eta orduan, baliatu nahi dituzten frogekin eta beren abokatuek eta prokuradoreek lagunduta, haien esku-hartzea nahitaezkoa bada prozesuan.

2. Errekusatzailea agertzen ez bada, errekusazioan atzera egindakotzat hartuko du Justizia Administrazioaren letraduak.

3. Errekusatzailea agertzen bada eta errekusazioari eusten badiu, froga egokiak eta baliagarriak onartuko ditu auzitegiak, eta, jarraian, auto bidez ebartziko du bidezkoa deritzona.

Errekusazioa baietsiz gero, ordezkokoak ordeztuko du aditu errekusatua. Errekusatua ordezkoa izateagatik aditu gehiagorik ez badago, lege honen 342. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da.

4. Ezin izango da errekursorik jarri adituaren errekusazioari buruz ebazten duen ebazpenaren aurka, hargatik eragotzi gabe alderdiek goragoko auzialdian arazoa planteatzeko duten eskubidea.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

128. artikulua. Kostuak.

Adituen errekusazioari aplikagarri zaion kostuak ordaintzeko kondenaren araubidea epaileen eta magistratuen errekusazio-intzidenterako aurreikusitako berbera izango da.

V. TITULUA

Jardun judizialez

I. KAPITULUA

Jardun judizialen tokia eta presentzia telematikoaren bidezko prozesu-egintzak

129. artikulua. Jardun judizialen tokia.

1. Jardun judizialak bulego judizialaren egoitzan egingo dira, beren izaeragatik beste tokiren batean gauzatu behar direnak izan ezik.

2. Prozesuaz arduratzen den auzitegiaren egoitza kokatua dagoen barruti judizialetik kanpo egin behar diren jardunak, bidezkoa denean, bideokonferentzia bidez gauzatuko dira, ahal den guztietan, eta, bestela, laguntza judizial bidez.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, auzitegiak beren muga-barruko lurraldeko edozein tokitan eratu ahal izango dira jardunak gauzatzeko, justiziaren administrazio onerako beharrezkoa edo komenigarria denean.

Beren muga-barruko lurraldetik kanpora ere mugitu ahal izango dira froga-jardunak gauzatzeko, lege honetan eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 275. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

4. Jardun judizialak bideokonferentzia bidez ere egin ahal izango dira, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 229. artikuluan ezarritako baldintzetan.

129 bis artikulua. Prozesu-egintzak presentzia telematikoaren bidez egitea.

1. Epategia edo auzitegia bere egoitzan eratuta, judizio-egintzak, ikustaldiak, entzunaldiak, agerraldiak, deklarazioak, eta, oro har, prozesu-egintza guztiak presentzia telematikoaren bidez egingo dira lehentasunez, bulego judizialek horretarako behar diren baliabide teknikoak badituzte. Presentzia telematikoaren bidezko esku-hartzea sarbide-puntu seguruaren bidez egingo da beti, Justizia Administrazioan teknologiaren erabilera erregulatzen duen araudiaren arabera.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, egintzen objektua bada alderdien, lekukoen edo adituen entzunaldia, deklarazioa edo galdeketa, adingabea aztertzea, azterketa judizial pertsonala egitea edo desgaitasuna duen pertsona elkarriketatzea, beharrezkoa izango da esku hartu behar duen pertsonaren presentzia fisikoa, eta hura alderdietako bat denean, haren letradu-defentsarena. Apartatu honetan aurreikusitakotik salbuetsita daude kasu hauek:

- a. Epaile edo auzitegiak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, bestelakoa xedatzen duenean.
- b. Esku hartu behar duen pertsona bizi denean auzitegiak egoitza duen udalerrria ez den batean. Kasu horretan, hark hala eskatuta, bizi den udalerrriaren barruko leku seguru batean esku hartu ahal izango du, Justizia Administrazioan teknologiaren erabilera erregulatzen duen araudiaren arabera.
- c. Esku-hartzailea agintari edo funtzionario publiko gisa aritzen denean, esku-hartzea sarbide-puntu seguru batetik eginda.

3. Nolanahi ere, epaile edo auzitegiak, ebazpen arrazoitu bidez, aurreko 2. apartatuko b) eta c) letretan adierazitako edozein esku-hartzailearen parte-hartze fisikoa erabaki ahal izango du, baldin eta uste badu, arrazoi zehatzak eta kasu zehatza kontuan hartuta, egintzak haren presentzia fisikoa eskatzen duela.

4. Artikulu honetan xedatutakoa Justizia Administrazioaren letraduen edo Fiskaltzaren ordezkarien aurrean soilik egiten diren jardunei aplikatuko zaie, eta, kasu horietan ere, 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoa ebatzi ahal izango dute.

5. Beharrezko diren neurriak hartuko dira baliabide elektronikoak erabiltzean prozesuko alderdi guztien eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko. Bereziki, letradu-laguntza eraginkorrerako eskubidea, interpretazio eta itzulpenerakoa, eta espediente judizialei buruzko informazioa eta irispidea izatekoa.

II. KAPITULUA

Jardun judizialen denboraz

1. atala. Egun eta ordu baliodunez

130. artikulua. Egun eta ordu baliodunak.

1. Jardun judizialak egun eta ordu baliodunetan gauzatu beharko dira.

2. Ondore prozesaletarako, egun baliogabeak dira larunbatak eta igandeak, eta abenduaren 24aren eta hurrengo urteko urtarilaren 6aren arteko egunak, biak barne, jaiegun nazionalak eta dagokion autonomia-erkidegoan edo udalerrian lan-ondoreetarako jaiegunak direnak. Baliogabeak dira, halaber, abuztuko hilaren egunak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Ordu balioduntzat hartzen dira goizeko zortzietatik arratsaldeko zortziak artekoak, non eta legeak besterik xedatzen ez duen jardun zehatz baterako.

Komunikazio- eta betearazpen-egintzetarako, zortzietatik gaueko hamarrak arte doazenak ere hartuko dira ordu balioduntzat.

4. Aurreko apartatuetan aurreikusitakoa jardun elektronikoetarako ezar daitekeenari kalterik egin gabe ulertuko da.

131. artikulua. Egun eta ordu baliogabeak baliodun bihurtzea.

1. Ofizioz edo alderdi-eskariz, auzitegiek baliodun bihurtu ahal izango dituzte egun eta ordu baliogabeak, baldin eta hura galdatzen duen kausa urgentea badago. Justizia Administrazioaren letraduek bihurtuko dituzte baliodun, baldin eta horren helburua bada haien eskumen eskusiboko gaietan gauzatu beharreko jardun prozesalak egitea, edo haiek agindutako jardunak badira, edota auzitegiek emandako ebazpenak betetzera zuzendutakoak badira.

2. Auzitegiaren jardunak urgentetzat hartuko dira, haien atzerapenak kalte larria eragin badiezaieke interesdunei edo justiziaren administrazio onari, edota ebazpen judizial baten efikaziarik eza ekar badezake.

3. Aurreko apartatuan aipatutako jardun urgenteetarako, baliodunak izango dira abuztuko hilaren egunak, esanbidez baliodun bihurtzeko beharrik gabe. Halaber, ez dira baliodun bihurtu beharko ordu baliodunetan hasitako jardun urgenteak ezinbestekoa den denboraz egiten jarraitzeko ordu baliogabeak.

4. Ez da errekurtsorik onartuko egun eta ordu baliogabeak baliodun bihurtzeko ebazpenen aurka.

2. atala. Epeez eta epemugez

132. artikulua. Epeak eta epemugak.

1. Prozesu-jardunak haietako bakoitzerako zehaztutako epemugetan edo epeen barruan gauzatuko dira.

2. Eperik edo epemugarik finkatzen ez denean, luzamenik gabe gauzatu behar direla ulertuko da.

3. Auzitegiek eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek arrazoi zuzenik gabe hausten badute artikulua honetan xedatutakoa, diziplina bidez zuzenduko da hauste hori, Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe alderdi kaltegarri bidezkoak diren gainerako erantzukizunak galdatzeko duen eskubidea.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

133. artikulua. Epeen zenbaketa.

1. Epeak aurrera egiten hasiko dira legeak epearen hasiera zein komunikazio-egintzaren menpe jarri eta hura gauzatu eta biharamunetik, eta haien barruan zenbatuko da muga-eguna, hogeita lau orduetan amaituko dena.

Aurrekoa gorabehera, legeak zehazten duenean beste epe baten amaieratik aurrera egiten hasiko den epe bat, epe hori zenbatuko da, beste jakinarazpen bat egin beharrik gabe, beste haren muga-egunaren biharamunetik.

2. Egunetan zehaztutako epeen zenbaketatik kanpo utziko dira egun baliogabeak.

131. artikulua 2. apartatua aipatutako jardun urgenteetan zehaztutako epeetarako ez dira baliogabetzat hartuko abuztuko hilaren egunak, eta zenbaketatik kanpo utziko dira, soilik, larunbatak, igandeak eta jaiegunak.

3. Hiletan edo urtetan zehaztutako epeak datatik datara zenbatuko dira.

Muga-egunaren hilean ez dagoenean zenbaketaren hasierako egunaren parekorik, epea hilaren azkenekoan amaitzen dela ulertuko da.

4. Larunbatean, igandean edo beste egun baliogabe batean amaitzen diren epeak hurrengo baliodunera arte luzatzen direla ulertuko da.

134. artikulua. Epeen luzaezintasuna.

1. Lege honetan ezarritako epeak luzaezinak dira.

2. Aurrekoa gorabehera, epeak eten eta epemugak atzeratu ahal izango dira ezinbestekak haiek betetzea eragozten duenean, eta haien zenbaketa berriro hasiko da etetea edo atzeratzea eragin duen kausa desagertzen denean. Ezinbestea gertatu izana Justizia Administrazioaren letratuak hauteman beharko du, deketu bidez, ofizioz edo hura jasan duen alderdiak eskatuta, gainerako alderdiei entzunda. Dekretu horren aurka, berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da, zeinak etete-ondoreak sortuko dituen.

3. Halaber, epeak eten eta epemugak atzeratu ahal izango dira hiru egun balioduneko epean, abokatuen edo prokuradoreen elkargoek edo pertsonatutako alderdiek abokatuari edo prokuradoreari eragiten dieten ezinbesteko kausa objektiboak komunikatzen dituztenean, hala nola adingabearen jaiotza eta zaintza, gaixotasun larria eta istripua ospitaleratzearekin, bigarren gradurainoko odolkideen edo ezkontza-ahaideen heriotza edo gizarte-segurantzak edo osasun-sistema edo aurreikuspen sozialeko sistema baliokideak ziurtatutako laneko baja.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

135. artikulua. Idazkien aurkezpena, egintza prozesalen denbora-betekizunaren ondoretarako.

1. Bulego judizialak eta prozesu bateko subjektu esku-hartzaileak behartuta daudenean Justizia Administrazioan dauden sistema telematikoak edo elektronikoak erabiltzera 273. artikuluekin bat etorritik, sistema horien bidez igorriko eta hartuko dituzte idazki guztiak, abiaraztekoak izan ala ez, eta gainerako dokumentuak, legean ezarritako salbuespenak salbu, halako moldez non bermatuta egongo den komunikazioaren autentikotasuna eta modu fede-emailean jasota geratuko den osorik igorri eta hartu izana, bai eta haiek egin ziren data ere. Hori, halaber, behartuta egon gabe sistema telematikoak edo elektronikoak erabiltzea hautatzen duten esku-hartzaileei aplikatuko zaie.

Urteko egun guztietan eguneko hogeita lau orduetan aurkeztu ahal izango dira idazkiak eta dokumentuak formatu elektronikoan.

Idazkiak eta dokumentuak bitarteko telematikoak aurkeztuta, hartu-agiria automatikoki igorriko da bitarteko bera erabiliz, erregistroko sarrera-zenbakia eta aurkezpenaren data eta ordua adierazita, zeinetan aurkeztutzat hartuko diren ondore guztietarako. Legearen arabera ondore prozesaletarako baliogabea den egunean edo orduan eginez gero aurkezpena, hurrengo lehenengo egun eta ordu baliodunean egin dela ulertuko da.

Froga-ondoretarako eta jatorrizko dokumentuak edo kopia fede-emaileak izatea galdatzen duten legezko betekizunak betetzearen ondoretarako, 162. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

2. Muga-eguna finkatua duten idazkiak ezin direnean epe barruan aurkeztu aurreko apartatuan aipatutako bitarteko elektronikoaren bidez komunikazio telematikoaren edo elektronikoaren zerbitzua planifikatu gabe eteteagatik, ahal den guztietan neurriak ezarriko dira erabiltzaileak inguruabar horren berri izan dezan, bai eta etenduraren ondorena ere, berariaz adierazita, kasu denean, muga-eguna berehala duten epeen luzapena. Kasu horretan, igorleak bulego judizialean aurkeztu ahal izango ditu, hurrengo lehenengo egun baliodunean, etete hori justifikatzen duen agiriarekin batera.

Etete planifikatuaren kasuetan, behar besteko aurrerapenarekin iragarri beharko da, eta kasu horretan aurkezpena egiteko bidezkoak diren bitarteko alternatiboen berri eman beharko da.

Muga-eguna finkatua duten idazkiak ezin direnean epe barruan aurkeztu Justizia Administrazioan teknologiararen erabilera erregulatzen duen araudiaren arabera ezarritako Justizia Administrazioaren irtenbide teknologikoak erabiltzeko mugak direla eta, ordutegikoak barne, igorleak, arau gisa, hurrengo egun baliodunean aurkeztu ahal izango ditu, behar bezala justifikatuta bulego judizialean. Aurkezteko ezintasuna aurkeztu beharreko dokumentuaren izaeraren edo artxiboaren tamainaren ondoriozkoa bada, igorleak, kasu horretan, idazkia bitarteko elektronikoaren bidez aurkeztu beharko du, eta bulego judizialean aurkeztuko du, hurrengo egun baliodunean, erantsi ezin izan dituen dokumentua edo dokumentuak.

3. Komunikazio telematikoaren edo elektronikoaren zerbitzua askieza bada idazkiak edo dokumentuak aurkezteko, euskarri elektronikoan aurkeztu beharko dira bulego judizialean, egun horretan edo hurrengo egun baliodunean, zerbitzariak emandako agiriarekin batera, aurkezpen-saiakerak arrakastarik izan ez duela justifikatzen duena. Kasu horietan, hartu izanaren agiria entregatuko da.

4. Aurrekoari kalterik egin gabe, idazkiak eta dokumentuak paper-euskarrian aurkeztuko dira, bai interesdunak bitarteko telematikoak erabiltzera behartuta egon ez eta hautapen hori egin ez dutenean, bai



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

formatu elektronikora bihurtzeko modukoak ez direnean, baita legean aurreikusitako gainerako kasuetan ere. Dokumentu horiek, bai eta haiekin batera aurkezten diren tresnak edo efektuak ere, bulego judizialaren kudeaketako edo behin betiko artxiboan gordailutuko eta zainduko dira, alderdien eskura ipinita, eta hurrenkera-zenbaki bat esleitu zaien; espediente judizial elektronikoan jasota utziko da haiek badirela.

Idazkiak eta dokumentuak paper-euskarrian aurkeztuz gero, prozedura hasteko idazkietan eta aurkezteko muga-eguna finkatua duen beste edozeinetan jarriko du horretarako izendatutako funtzionarioak kasuan kasuko zigorra, zeinean jasota utziko den zein bulego judizialean eta zein egun eta ordutan aurkeztu den.

5. Idazkien eta dokumentuen aurkezpena, forma edozein izanda, epe bati lotuta badago, dela prozesal dela substantibo, epearen muga-egunaren hurrengo egun baliodunaren hamabostak arte egin ahal izango da.

Auzitegi zibilen aurreko jardunetan ez da onartuko idazkiak aurkeztea guardia-zerbitzua ematen duen epaitegian.

136. artikulua. Preklusioa.

Alderdiei egintza prozesal bat gauzatzeko finkatutako epea igarota edo epemuga pasatuta, preklusioa gertatuko da, eta kasuan kasuko egintza gauzatzeko aukera galduko da. Justizia Administrazioaren letratuak epea igaro izana jasota utziko du, eginbide bitartez, eta bidezkoa dena erabakiko du edo auzitegiari kontu emango dio, egokitzen den ebazpena eman dezan.

III. KAPITULUA

Arartekogabetasunaz, publizitateaz eta hizkuntza ofizialaz

137. artikulua. Presentzia judiziala deklarazioetan, frogetan eta ikustaldietan.

1. Auzigaiaz arduratzen ari den auzitegiko kideak diren epaileak eta magistratuak presente egongo dira alderdien eta lekukoen deklarazioetan, bekalduretan, adituek eman beharreko azalpen, esplikazio eta erantzunetan, bai eta haien irizpenaren ahozko kritikan eta beste edozein froga-egintzatan, lege honetan xedatutakoaren arabera kontraesanaz eta publikoki egin behar bada.

2. Auzigaiaz arduratzen den epailearen edo auzitegia osatzen duten magistratuen aurrean egingo dira, beti, ebazpen bat eman baino lehen alderdiei entzutea objektutzat duten ikustaldiak eta agerraldiak.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa Justizia Administrazioaren letraduei aplikatuko zaie haien aurrean soilik gauzatu beharreko jardunekiko.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa haustek kasuan kasuko jardunen erabateko deuseztasuna ekarriko du.

137 bis artikulua. Jardun judizialak bideokonferentzia-sistemaren bidez egitea.

1. Bideokonferentzia bidez egindako jardun judizialak lege honen 147. artikuluan ezarritako moduan dokumentatu beharko dira. Auzitegiak publizitate-printzipioa betetzen dela zainduko du, eta beharrezko neurriak erabakiko ditu, publikoak diren eta bitarteko horren bidez gauzatzen diren prozesu-jardunak herritarrentzat eskuragarriak izan daitezen.

2. Bideokonferentzia bidezko edozein jardunetan esku hartu behar duten profesionalek, alderdiek, adituek eta lekukoek beren bizilekuari edo lantokiari dagokion barruti judizialeko bulego judizialek esku hartuko dute. Baliabide egokiak izanez gero, esku-hartze hori haien bizilekuko edo lantokiko bake-epaitegitik ere egin ahal izango da.

3. Epaileak, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta, egokitzen jotzen duenean, esku-hartze horiek edozein lekutatik egin ahal izango dira, betiere esku-hartzailearen identitatea bermatzen duten bitartekoak baditu erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, deklaratzaileraren adingabea denean edo desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialen prozedura baten xede den pertsona denean, bideokonferentzia bidezko deklarazioa bulego judizial batetik bakarrik egin ahal izango da, 2. apartatuan adierazitako moduan.

Genero-indarkeriaren, sexu-indarkeriaren, gizakien salerosketaren biktimek eta biktima adingabeek edo desgaitasuna dutenek laguntza, arreta, aholkularitza eta babesa ofizialki jasotzen ari diren lekuetatik esku hartu ahal izango dute, edo epaileak egokitzen jotzen duen beste edozein lekutatik, baldin eta baliabide nahikoak badituzte haien identitatea eta esku-hartzearen baldintza egokiak bermatzeko, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

4. Bideokonferentzia-bitartekoak behar besteko aurrerapenarekin eskatu beharko dira, eta, nolanahi ere, dagokion jardunerako adierazitako eguna baino hamar egun lehenago.

5. Aurreko apartatuetan xedatutakoa Justizia Administrazioaren letraduen aurrean soilik egin beharreko jarduketei ere aplikatuko zaie.

6. Artikulu honetan xedatutakoa irisgarritasun unibertsala bermatuta egin beharko da.

138. artikulua. Ahozko jardunen publizitatea.

1. Froga-jardunak, ikustaldiak eta ebazpen bat eman baino lehen alderdiei entzutea objektutzat duten agerraldiak entzunaldi publikoan gauzatuko dira.

2. Dena den, aurreko apartatuan aipatutako jardunak ateak itxita egin ahal izango dira hori beharrezkoa denean gizarte demokratiko batean ordena publikoa edo segurtasun nazionala babesteko, edo hala galdatzen dutenean adingabeen interesak edo alderdien bizitza pribatuaren babesak eta beste eskubide eta



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

askatasun batzuenak, edo, azkenik, auzitegiak horri behar-beharrezkoa irizten dion heinean, inguruabar bereziak egoteagatik publizitateak kalte egin diezaiekeenean justiziaren interesei.

3. Edozein jardun atea itxita egin dadila erabaki aurretik, auzitegiak ekitaldian presente dauden alderdiei entzungo die. Ebazpenak autoaren forma hartuko du, eta haren aurka ez da errekurtsorik onartuko, hargatik eragotzi gabe protesta formulatzea eta arazoa planteatzea, onargarria balitz, behin betiko epaiaren aurka bidezkoa den errekurtsioan.

Justizia Administrazioaren letraduek, dekretu bidez, neurri bera hartu ahal izango dute beren eskumen eskusiboko alorretan gauzatu behar diren jardun prozesaletan. Berraztertze-errekurtsioa soilik jarri ahal izango da dekretu horren aurka.

4. Organo judizialaren seinalamendu-zerrenda publiko egin beharko da. Justizia Administrazioaren letraduak arduratuko dira zaintzeaz bulego judizialeko funtzionario eskudunek beren organo judizialari dagokien seinalamendu-zerrenda publiko dezatela jendeak ikusteko moduko tokian, aste bakoitzeko lehenengo egun baliodunean, bertan zehaztuta ekitaldiaren data eta ordua, jardun-mota eta prozedura-zenbakia.

139. artikulua. Kide anitzeko auzitegien deliberamenduen sekretua.

Kide anitzeko auzitegien deliberamenduak sekretuak dira. Bozketen emaitza ere hala izango da, hargatik eragotzi gabe legeak xedatutakoa boto partikularren publizitateari buruz.

140. artikulua. Jardunei buruzko informazioa.

1. Justizia Administrazioaren letraduek eta bulego judizialeko funtzionario eskudunek interes legitimoa eta zuzenakoa egiaztatzen duen edozein pertsonari emango diote jardun judizialen egoerari buruz eskatzen duen informazio guztia, hark aztertu eta ezagutu ahal izan dezan, salbu eta, legearen arabera, erreserbatuak badira edo erreserbatutzat deklaratu badira. Halaber, hark eskatu ahal izango du, bere kontura, autoetan jasota dauden idazkien eta dokumentuen kopia soila eskuratzea, betiere erreserbatutzat deklaratu ez badira.

2. Aurreko apartatuan aipatutako pertsonaren eskariz, eta haren kontura, Justizia Administrazioaren letraduak egingo ditu eskatutako lekukotzak eta ziurtagiriak, helburuko pertsona adierazita.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, auzitegiek, auto bidez, izaera erreserbatua esleitu ahal izango diete oso-osorik edo zati batean autoei, baldin eta neurri hori justifikatuta badago 138. artikuluen 2. apartatuan adierazitako inguruabarren arabera.

Izaera erreserbatuko jardunak alderdiek eta haien ordezkariak eta defendatzaileak soilik ezagutu ahal izango dituzte, hargatik eragotzi gabe arlo penalean, tributu-arloan edo beste izaera batekoan garrantzia duten egitatei eta datuei dagokienez aurreikusitakoa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

141. artikulua. Irispidea liburu, artxibo eta erregistro judizialetara.

Interes legitimoa egiaztatzen duten pertsonen irispidea izango dute izaera erreserbaturik ez duten liburu, artxibo eta erregistro judizialetara, eta adierazten dituzten puntuen lekukotza edo ziurtagiria eskuratu ahal izango dute, beren kontura.

141 bis artikulua.

Aurreko bi artikuluetan aurreikusitako kasuetan, Justizia Administrazioaren letraduek egiten dituzten kopia soiletan, lekukotzetan eta ziurtagirietan, haietarako erabiltzen den euskarria edozein izanda ere, adingabeen interes gorena babesteko eta haien intimitatea bermatzeko beharrezkoa denean, aipatu gabe utzi beharko dira datu pertsonalak, irudiak, izen-abizenak, egoitza edo, zuzenean edo zeharka, haien identifikazioa ahalbidetu dezakeen beste edozein datu edo inguruabar.

142. artikulua. Hizkuntza ofiziala.

1. Jardun judizial guztietan, epaileek, magistratuek, fiskalek, Justizia Administrazioaren letraduek eta epaitegi eta auzitegieta gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, Estatuaren hizkuntza ofiziala.

2. Epaileek, magistratuek, Justizia Administrazioaren letraduek, fiskalek eta epaitegieta gainerako funtzionarioek autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala ere erabili ahal izango dute, baldin eta alderdietatik batek ere aurka egiten ez badu hizkuntza hori ez jakiteak defentsa-gabezia sor diezaiokeela alegatuz.

3. Alderdiek, haien prokuradore eta abokatuek, bai eta lekukoek eta adituek ere, jardun judizialak gauzatzen diren autonomia-erkidegoan ofiziala den hizkuntza ere erabili ahal izango dute, nola ahozko adierazpenetan, hala idatzizkoetan.

4. Autonomia-erkidego bateko hizkuntza ofizialean egindako jardun judizialek eta aurkeztutako dokumentuek balio eta efikazia osoa izango dute, gaztelaniara itzuli beharrik gabe, baina ofizioz itzuliko dira ondoreak izan behar badituzte autonomia-erkidegoko organo judizialen jurisdikziotik kanpo, non eta ez diren berezko hizkuntza ofizial bera duten autonomia-erkidegoak. Orobat itzuliko dira legeek hala xedatzen dutenean edo alderdiek defentsa-gabezia alegatuta eskatzen dutenean.

5. Ahozko jardunetan, auzitegiak, probidentzia bidez, interprete gisa gaitu ahal izango du erabilitako hizkuntza dakien edozein pertsona, itzulpen fidela egingo duela zin edo promes egin ondoren.

143. artikulua. Interpreteten esku-hartzea.

1. Gaztelania edo, kasua denean, autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala ez dakien pertsonari galdeketa egin behar zaionean edo hark deklarazioren bat egin behar duenean, edota ebazpenen



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

bat pertsonalki ezagutarazi behar zaionean, idazkariak, dekretu bidez, interprete gisa gaitu ahal izango du kasuko hizkuntza dakien edozein pertsona, itzulpen fidelaren zina edo promesa hari galdatuz.

Aurrekoari kalterik egin gabe, mugaz gaindiko auzietan interpretazio-zerbitzuak bermatuko zaizkio, kasu orotan, gaztelania edo, kasua denean, autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala ez dakien pertsonari, Doako Laguntza Juridikoa arautzen duen 1/1996 Legean, urtarilaren 10ekoan, ezarritako moduan.

Kasu horietan gauzatzen diren jardunen akta egingo da; jatorrizko hizkuntzako testuak eta hizkuntza ofizialera egindako itzulpenak jasoko dira bertan, eta interpreteak ere sinatuko du.

2. Aurreko apartatuko kasu berberetan, pertsona gorra bada, beti izendatuko da keinu-hizkuntzako interprete egokia, apartatu horretan xedatutakoaren arabera.

Pertsona gorrak direla-eta gauzatzen diren jardunen dagokion akta egingo da.

144. artikulua. Hizkuntza ez-ofizialean idatzitako dokumentuak.

1. Gaztelania edo, hala denean, kasuko autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala ez den hizkuntzan idatzita dagoen dokumentu oro haren itzulpenarekin batera aurkeztuko da.

2. Itzulpen hori modu pribatuan egin ahal izango da, eta, halakoetan, alderdietakoren batek hura aurkaratzen badu helarazpenetik hurrengo bost egunen barruan, fideltzat eta zehatzat hartzen ez duela adierazita eta desadostasunaren arrazoiak azalduta, Justizia Administrazioaren letraduak dokumentuaren itzulpen ofiziala aginduko du desadostasuna dagoen zatiari dagokionez, hura aurkeztu duen alderdiaren kontura.

Aurrekoa gorabehera, alderdi-eskariz egindako itzulpen ofiziala pribatuaren berdina bada funtsean, hura eskatu zuenaren kontura izango dira haren ondoriozko gastuak.

IV. KAPITULUA

Fede publiko judizialaz eta jardunak dokumentatzeaz

145. artikulua. Fede publiko judiziala.

1. Justizia Administrazioaren letraduari dagokio, eskusiboki eta osoki, fede publiko judiziala egikaritzea jardun prozesalean.

Zehazki, Justizia Administrazioaren letraduak:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Idazkiak eta haiekin batera aurkeztutako dokumentuak eta hartu-agiriak hartu izanaren fede emango du, bere kabuz edo kasuan kasuko erregistroaren bidez, zeinaren jardunbideaz arduratuko den, eta gai horretan alderdiek eskatutako ziurtagiriak egingo ditu, kasua denean.

2.) Modu fede-emaillean jasota utziko du, akta eta eginbide egokien bidez, auzitegian edo auzitegiaren aurrean egintza prozesalak egin direla eta garrantzia prozesala duten egitateak gauzatu direla, erabilitako euskarria edozein izanda.

3.) Sekretu edo alderdientzat erreserbatu deklaratu ez diren jardun judizialen ziurtagiriak edo lekukotzak egingo ditu, norentzat diren eta zein helbururekin eskatu diren adierazirik.

4.) Auzietarako ahalordeak baimenduko eta dokumentatuko ditu, lege honen 24. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Funtzio horiek betetzean, ez du lekukoen esku-hartze gehigarririk beharko.

146. artikulua. Jardunak dokumentatzea.

1. Idazki edo dokumentu ez diren jardun prozesalak akten eta eginbideen bitartez dokumentatuko dira.

Grabatzeko edo erreproduzitzeko bitarteko teknikoak erabiltzen direnean, grabatutakoaren autentikotasuna, osotasuna eta aldaezintasuna ziurtatu beharko dute, Justizia Administrazioan teknologiarik erabilerak erregulatzen dituen araudiak ezartzen dituen baldintzetan. Justizia Administrazioaren letraduak beti zainduko du haiek behar bezala erabiltzen direla, eta, aurreko helburuetarako, sinadura elektronikoa edo legearekin bat datorren beste segurtasun-sistema bat erabiliko du.

2. Legeak akta egin dadila xedatzen duenean, jardundako guztia bilduko da bertan, behar besteko hedadura eta xehetasunarekin.

Jardunak badira lege honen arabera grabatzeko eta erreproduzitzeko euskarri egokian erregistratu behar diren horietakoak eta Justizia Administrazioaren letraduak sinadura elektronikoa badu edo grabatutakoaren autentikotasuna eta osotasuna legearen arabera bermatzen duen beste segurtasun-sistemaren bat, modu horretara sortutako dokumentu elektronikoak aktaren balioa izango du ondore guztietarako. Ezertan galarazi gabe parte-hartzaileak identifikatzeko beste edozein neurri, haiek, beren erantzukizunaren pean, beren izen-abizenak adierazi beharko dizkiote ekitaldiaren buru den agintaritzari, grabazioan jasota gera daitezen.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako berme-mekanismoak erabili ezin badira, Justizia Administrazioaren letraduak honako puntu hauek jaso beharko dituzte aktan: prozedura-zenbakia eta -mota, ekitaldiaren tokia eta data, iraupena, ekitaldira bertaratuak, alderdien eskabideak eta proposamenak, frogak-proposamenaren kasuan, frogen egokitasun-deklarazioa eta gauzatze-hurrenkera, epaileak edo auzitegiak hartutako ebazpenak, bai eta euskarri hartan jaso ezin diren inguruabarrak eta intzidentziak ere.

Kasu horietan, edo artikulua honetan aurreikusitako erregistro-bitartekoak edozein kausarengatik erabili ezin direnean, prozedura informatikoen bidez egingo da akta, eta ezin izango da eskuz idatzi, salbu eta jarduna egiten ari den salak bitarteko informatikorik ez duenean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Auzitegiek bitarteko teknikoak erabili ahal izango dituzte beren jarduketak eta hartzen dituzten idazkiak eta dokumentuak dokumentatzeko eta artxibatzeko, lege honen 135. artikulua 1. apartatuan aipatutako berrazterketekin. Bitarteko teknikoak erabili ahal izango dituzte, halaber, prozesuen egoeraren jarraipena eta haiei buruzko estatistika egiteko.

147. artikulua. Jardunak dokumentatzea irudia eta soinua grabatzeko eta erreproduzitzeko sistemen bidez.

Epaileen edo magistratuen edo, kasua denean, Justizia Administrazioaren letraduen aurrean egindako ikustaldietako, entzunaldietako eta agerraldietako ahozko jardunak soinua eta irudia grabatzeko eta erreproduzitzeko euskarri egokian erregistratuko dira.

Beharrezkoak diren bitarteko teknologikoak izanez gero, grabatutakoaren edo erreproduzitutakoaren autentikotasuna eta osotasuna bermatuko dute haiek. Ondore horretarako, Justizia Administrazioaren letraduak sinadura elektronikoa edo legearen arabera berme horiek eskaintzen dituen beste segurtasun-sistema bat erabiliko du. Kasu horretan, ekitaldia gauzatzeko, ez da beharrezkoa izango Justizia Administrazioaren letradua aretoan egotea, salbu eta alderdiek eskatu badute, ikustaldia egin baino bi egun lehenago gutxienez, edo Justizia Administrazioaren letraduak, salbuespenez, beharrezko irizten badio, kontuan hartuta auzigaiaren konplexutasuna, egin beharreko frogan kopurua eta izaera, esku-hartzaileen kopurua, erregistratu ezin daitezkeen intzidentziak gertatzeko aukera edo hura justifikatzen duten eta era berean salbuespenezkoak diren beste inguruabar batzuk gertatzeko aukera. Kasu horietan, Justizia Administrazioaren letraduak akta laburra egingo du, aurreko artikuluan aurreikusitako moduan.

Euskarri digitalean grabatutako eta dokumentatutako ahozko jardunak eta ikustaldiak ezin izango dira transkribatu, lege batek horrela ezartzen duen kasuetan izan ezik.

Bulego judizialak ziurtatu beharko du grabazioa behar bezala sartzen dela espediente judizial elektronikoan.

Sistemak ez badute espediente judizial elektronikorik ematen, Justizia Administrazioaren letraduak grabazioaren euskarri den dokumentu elektronikoa zaindu beharko du.

Alderdiek jatorrizko grabazioen kopia edo haietarako sarbide elektronikoa eskatu ahal izango dute, beren kontura.

148. artikulua. Autoak eratzea, zaintzea eta kontserbatzea.

Justizia Administrazioaren letraduek autoak behar bezala eratzeko erantzukizuna dute, eta jasota utziko dituzte auzitegiek emandako ebazpenak, edo legeak hala baimentzen duenean beraiek emandakoak. Haiek kontserbatzeko eta zaintzeko erantzukizuna ere izango dute, epailearen edo magistratu txostengilearen edo auzitegia osatzen duten beste magistratu batzuen esku dauden bitartean izan ezik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Organo judizialak espediente judizial elektronikoa duen kasuetan, espedientearen eraketa egokiaz erantzungo dute, eta artxibo judizial elektronikoari buruzko araudia aplikatuko dute, edo aplikatzeko agindua eman, beren eskumen-eremuaren barruan.

V. KAPITULUA

Komunikazio judizialeko egintzez

149. artikulua. Komunikazio-egintza motak.

Honako hauek izango dira komunikazio-egintza prozesalak:

1. Jakinarazpenak, ebazpen edo jardun baten berri ematea objektutzat dutenean.
2. Epatzeak, epe baten barruan pertsonatzeko eta jarduteko.
3. Zitazioak, agertzeko eta jarduteko tokia, data eta ordua zehazten dutenean.
4. Errekerimenduak, legearen arabera jokabide edo ez-jardute bat agintzeko.
5. Manamenduak, ziurtagiriak edo lekukotzak egin daitezela agintzeko, bai eta jabetza-erregistratzaileei, merkataritzakoei, itsasontzietakoei, ondasun higigarrien eperako salmentakoei, notarioei edo Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioei betearaztea dagokien edozein jardun egin dadila agintzeko.
6. Ofizioak, aurreko zenbakian aipatutakoez bestelako agintari ez-judizialekin eta funtzionarioekin komunikatzeko.

150. artikulua. Ebazpenen eta antolaketa-eginbideen jakinarazpena.

1. Ebazpen prozesalak prozesuan alderdi diren guztiei jakinaraziko zaizkie.

2. Auzitegiak hala xedatuta, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak autoen arabera uki ditzakeen pertsonen ere jakinaraziko zaie prozesua ebazkizun dagoela. Komunikazio hori egingo da, betekizun bereberekin, auzitegiak zantzuak ikusten dituen alderdiak prozesua iruzurrezko xedeekin erabiltzen ari direla.

3. Jakinarazpena hirugarrenei ere egingo zaie, legeak hala aurreikusten duen kasuetan.

4. Ebazpenaren jakinarazpenak etxebizitza bat okupatzen dutenak botatzeko data finkatzen duenean, etxebizitzaren, gizarte-laguntzaren, gizarte-premiako egoeren ebaluazioaren eta informazioaren eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arretea ematearen gaian eskumena duten administrazio publikoei helaraziko zaie, jardun beharko balute ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

151. artikulua. Komunikazio-denbora.

1. Auzitegiek edo Justizia Administrazioaren letraduek emandako ebazpen guztiak gehienez ere hiru eguneko epean jakinaraziko dira haien datatik edo publikaziotik.

2. Fiskaltzarentzako komunikazio-egintzak, bai Estatuaren Abokatutzarentzakoak, bai Gorte Nagusien eta autonomia-erkidegoetako legebiltzarren letraduentzakoak edota Gizarte Segurantzaren Administrazioa edo autonomia-erkidegoen gainerako administrazio publikoetako edo toki-erakundeetako zerbitzu juridikokoentzakoak, bai eta prokuradoreen elkargoek antolatutako jakinarazpen-zerbitzuen bidez egindakoak ere, eginbidean edo benetan hartu izana egiaztatzen duen ordezkagirian jasota dagoen harrera-dataren hurrengo egun baliodunean hartuko dira egindakotzat, baldin eta komunikazio-egintza 162. artikuluan ezarritako bitartekoen bidez eta betekizunekin egin bada. Komunikazio-egintza 15:00ak igaro ondoren igortzen denean, hurrengo egun baliodunean emango da hartutzat.

Prokuradore batek egiaztatzen badu 134. artikuluan aipatutako ezinbesteko kausa bat, prokuradoreen elkargoek jakinarazpen-zerbitzuaren birbidaltzea eten ahal izango dute gehienez hiru egun balioduneko epean.

Etendura amaitutzat emandakoan, prokuradoreen elkargoak zerbitzua berrezarriko du, eta prokuradoreari birbidaliko dizkio eguneroko jakinarazpenak, metatutakoekin batera; azken horiek, modu mailakatuan, erabilitako etendura-egunen proportzio berean.

3. Komunikazio-egintzarekin batera aurkeztu behar den dokumenturen edo idatzagiriaren baten entrega komunikazio-egintza hartu osteko datan egiten denean, hura egintzat hartuko da dokumentua entregatu dela jasotzen denean, betiere komunikaziotik eratorritako ondoreak dokumentuari lotuta badaude.

152. artikulua. Komunikazio-egintzen forma. Erantzuna.

1. Komunikazio-egintzak Justizia Administrazioaren letraduaren zuzendaritzapean gauzatuko dira, hura izango baita zerbitzuaren antolaketa egokiaren arduraduna. Egintza horiek honako hauek betearaziko dituzte:

1.) Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionarioek.

2.) Hala eskatu duen alderdiaren prokuradoreak.

Ondore horretarako, prozedura judizial bat, betearazpeneko bat edo beste auzialdi batekoa hasten duen idazki orotan adierazi beharko du eskatzaileak komunikazio-egintza guztiak bere prokuradorearen bidez gauza daitezela eskatzen duen. Horri buruz ezer adierazi ezean, Justizia Administrazioaren letraduak autoak bideratuko ditu, eta Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionarioek gauzatuko dituzte egintza horiek. Halaber, azken horiek gauzatuko dituzte, baldin eta demandatuek, betearazpenpekoek edo errekurrituek beren pertsonatze-idazkian berariaz eskatzen ez badute beren prokuradoreen bidez egin daitezela edota alderdiak doako laguntza juridikoa izateko eskubidearen onuradunak badira.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Eskatzaileek hasierako araubidea alda dadila eskatu ahal izango dute, zioak emanez eta arrazoi zuzena egonda, eta Justizia Administrazioaren letraduak, justifikatua dela irizten badio, eskabide berriaren arabera egingo ditu aurrerantzeko komunikazio-egintzak.

Komunikazio-egintza horiek baliozkotasunez egindakotzat hartuko dira, baldin eta eginbidean behar beste jasota uzten bada horretarako gaitutako pertsonarekin, egoitzan edo helbide elektronikoan gauzatu direla agerraldi elektroniko edo helburuko pertsonak aukeratutako bitarteko telematikoz edo elektroniko.

Ondore horietarako, komunikazio-egintzaren hartzailearen identitatea eta izaera egiaztatuko ditu prokuradoreak, bere erantzukizunpean, eta zaindu egingo du kopian modu fede-emailean jasota utz daitezela hartu izana, haren data eta ordua eta komunikatutakoaren edukia.

2. Komunikazio-egintzak bitarteko elektroniko gauzatuko dira:

a) Prozesu batean esku hartzen duten subjektuak behartuta daudenean Justizia Administrazioan dauden sistema elektronikoak erabiltzera, 273. artikulua arabera.

b) Aurreko kasuan sartuta egon gabe, parte-hartzaileek kontratu bidez elkar behartu dutenean Justizia Administrazioan dauden bitarteko elektronikoak erabiltzera, haiek lotzen dituen harreman juridiko zehatz horren ondoriozko auziak ebazteko, zehaztu beharrekoa izanik zer bitarteko baliatu nahi dituzten. Kontsumitzaile eta erabiltzaileek parte hartzen duten atxikitze-kontratuetan, komunikazio-egintza gauzatzeko modua esku-hartzaileak Justizia Administrazioarekiko harreman elektronikoak izatera behartuta ez dauden kasuetarako xedatutakoaren arabera izango da, eta azken forma horrexek izango du balioa epeak zenbatzeari dagokionez.

c) Haiek, behartuta egon gabe, bitarteko horiek erabiltzea aukeratzen dutenean.

Apartatu honetan aurreikusitako kasuetan, jakinarazpena egingo da Justizia Administrazioan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera erregulatzen duen araudian jasotako xedapenen arabera.

Bitarteko elektroniko bidez egin behar diren komunikazio-egintzak, euskarri elektronikora bihurtu ezin diren elementuekin batera doazenean, bitarteko horren bidez egin beharko dira, baina elementu horiek entregatzeko modua adierazita. Komunikazio-egintza horren ondorioz prozesuko epe bat irekitzen bada, epe hori zenbatzen hasiko da helburuko pertsonak egintza osatzen duten elementu guztiak jasotzen dituen unetik.

Helburuko pertsonak gailu elektroniko bat, mezulari-zerbitzu sinple bat edo posta-elektronikoko helbide bat zehaztu beharko du komunikazio-egintza bat eskura jarri zaiola informatzeko, baina ez jakinarazpenak gauzatzeko. Kasu horretan, komunikazio-egintza zein formatan gauzatu den kontuan hartu gabe, aipatutako abisua bidaliko du bulego judizialak. Abisu hori gauzatu ez izanak ez du eragotziko behar bezala egindako jakinarazpena erabat baliozkotzat hartzea.

3. Komunikazio-egintzak modu hauetakoren batean egingo dira, lege honek xedatutakoaren arabera:

1.) Prokuradore bidez, prozesuan haren ordezkaritzaekin pertsonatuta daudenei zuzendutako komunikazioak direnean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2.) Komunikatu beharrekoa igorrita postaz, telegramaz, posta elektronikoz edota hartu izana, haren data eta ordua eta komunikatutakoaren edukia modu fede-emailean autoetan jasotzea ahalbidetzen duen beste edozein bitarteko elektronikoz.

3.) Helburuko pertsonari entregatuta jakinarazi behar zaion ebazpenaren hitzez hitzeko kopia, auzitegiak edo Justizia Administrazioaren letraduak hari zuzendutako errekerimenduarena edo zitazio- edo epatze-zedularena.

4.) Kasu orotan, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek bitarteko telematikoz, baldin eta Fiskaltza, Estatuaren Abokatutza, Gorte Nagusien eta legebiltzarren letraduak, edo Gizarte Segurantzaren Administrazioa edo autonomia-erkidegoen gainerako administrazio publikoetako edo toki-erakundeetako zerbitzu juridikokoak badira, betiere prokuradorerik izendatu ez badute.

4. Zedulak argiro jasoko du idazkiaren izaera judiziala, eta adierazita utziko ditu ebazpena eman zuen auzitegia edo Justizia Administrazioaren letradua eta zein auzigairen gainean eman zen, zitazioa edo epatzea egingo zaion pertsonaren izena eta abizenak eta, kasua denean, hura bete behar duen prokuradorearenak, haien objektua eta zitatuak agertu behar duen tokia, eguna eta ordua edo epatzeak aipatutako jarduna zein epetan gauzatu behar den, legeak kasu bakoitzean ezarritako ondoreen ohartarazpenarekin batera.

5. Jakinarazpenetan, zitazioetan eta epatzeetan ez da interesdunaren erantzunik onartuko, ezta jasota utziko ere, hala agindu ez bada behintzat. Errekerimenduetan onartu egingo da errekerituak emandako erantzuna, eta labur-labur jasoko da eginbidean.

6. Komunikazio-egintza bera bi aldiz edo gehiagotan gauzatzen bada, egintza hori egiaztatu den lehenengo datak izango du efikazia prozesu-ondoreetarako, erabilitako bidea edozein izanda ere, salbu eta prozesu-legeek espresuki aurreikusten dutenean ebazpen bat behin baino gehiagotan komunikatzeko aukera; kasu horretan, lege horiek zehaztutako ondoreak izango ditu.

153. artikulua. Prokuradore bidezko komunikazioa.

Judizioan pertsonatutako alderdiekiko komunikazioa haien prokuradorearen bidez egingo da, hark haiek ordezkatzeko dituenen. Prokuradoreak sinatuko ditu auziaren aribidean bere ahalorde-emaileari egin behar zaizkion mota guztietako jakinarazpenak, epatzeak, zitazioak eta errekerimenduak, barne hartuta epaienak eta ahalorde-emaileak pertsonalki gauzatu beharreko jardunen bat helburutzat dutenenak.

154. artikulua. Prokuradoreei egintzak komunikatzeko lekua.

1. Prokuradoreekiko komunikazio-egintzak auzitegiaren egoitzan edo prokuradoreen elkargoak antolatutako harrera-zerbitzu erkidean gauzatuko dira. Zerbitzu horren barne-araubidea prokuradoreen elkargoaren eskumenekoa izango da, legearekin bat etorriz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. 162. artikuluan aipatutako bitarteko telematikoz edo elektronikoz eta hartu izana egiaztatzen duen ordezkagiriarekin igorriko eta hartuko dira prokuradoreentzako komunikazio-egintzak zerbitzu horretan, legean ezarritako salbuespenak salbu.

Egintza paper-euskarrian egin behar bada, ebazpenaren edo zedularen kopiaren bi ale igorriko dira zerbitzura; prokuradoreak haietatik ale bat hartuko du, eta bestea sinatuko du, zeina zerbitzuak berak itzuliko duen bulego judizialera.

155. artikulua. Komunikazio-egintzak oraindik pertsonatu ez diren edo prokuradoreak ordezkatzan ez dituen alderdiekin. Egoitza.

1. Prokuradoreak ordezkatzan ez duen alderdia legez edo kontratuz behartuta badago Justizia Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera, komunikazio-egintza bitarteko elektronikoen bidez egingo da, 162. artikuluaaren arabera.

Hala ere, komunikazio-egintzaren objektua bada lehenengo epatzea edo zitazioa egitea, edo alderdiek jardun prozesal jakin batzuetan pertsonalki esku hartzea edo gauzatzea, eta hiru egun igarotzen badira helburuko pertsonak haren edukia eskuratu gabe, Ediktu Judizialen Taula Bakarraren bidez argitaratuko da, 164. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gainera, kasu orotan, ebazpenaren kopia emanez ere egin ahal izango da, baldin eta behartua organo judizialaren egoitzara bertaratzen bada, hori jasota utzirik ematen den eginbidean.

2. Prokuradoreak ordezkatzan ez duen alderdia legez edo kontratuz behartuta ez dagoenean Justizia Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera:

- a. Demandatua lehen aldiz epatu edo zititzen bada, haren egoitzara igorritz egin ahal izango da, edo modu telematikoan, 162. artikuluan aurreikusitako moduan.
Bitarteko elektronikoen bidez egindako komunikazio-egintzak erabateko ondore prozesalak izango ditu, soilik helburuko pertsonak bere borondatez onartzen badu. Helburuko pertsonaren eskura egoitza judizial elektronikoa jartzen bada, eta ez badago jasota helburuko pertsonak hiru eguneko epean jaso duenik, egoitzara igorritz egingo da.
Nolanahi ere, helburuko pertsonaren helbide elektroniko bat edo harremanetarako mezularitza-zerbitzu bat jasota badago, informazio-abisua emango da, ebazpena eskura jarri zaiola bai organo judizialean, bai egoitza judizial elektronikoa.
- b. Komunikazio-egintzaren objektua ez bada lehenengo epatzea edo zitazioa egitea, baizik eta alderdiek jardun prozesal jakin batzuk egitea edo haietan pertsonalki esku hartzea, a) letran adierazitako moduan egingo da, salbu eta horretara behartuta ez dagoen esku-hartzaileak bitarteko elektronikoak erabiltzea aukeratu badu aldez aurretik; kasu horretan, c) letran kasu horietarako ezarritakoa beteko da.
- c. Komunikazio-egintzak ez badira a) eta b) letretan aurreikusitakoak, egindako komunikazioek erabateko ondoreak izango dituzte egiaztatzen denean komunikatu behar dena egoki igorri dela helbidetzat izendatutako tokietatik edozeinetara, helburuko pertsonak hartu duela jasota ez badago ere, edo helburuko pertsonak, behartuta egon gabe, bitarteko elektronikoak erabiltzea



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

aukeratu duenean eta komunikazioa 162. artikuluan aurreikusitako moduan igorri denean, hiru egun igaro ondoren helburuko pertsonak edukia eskuratu gabe.

3. Demandatzailearen egoitza izango da demandan edo prozesua hasteko eskabidean edo eskaeran jasoarazi duena. Era berean, demandatzaileak honako leku hauetako bat edo batzuk izendatuko ditu demandatuaren egoitza gisa: udal-eroldan dagoena edo beste ondore batzuetarako ofizialki jasota dagoena, bai eta erregistro ofizialean edo elkargo profesionalen argitalpenetan azaltzen dena ere, enpresak eta bestelako entitateak edo lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izan behar duten pertsonak direnean, hurrenez hurren. Aipatutako ondoreetarako, egoitza gisa izendatu ahal izango da, baita ere, noizbehinkakoa ez den jarduera profesionala edo lanekoa gauzatzen den lekua. 250. artikuluan 1. apartatuaren 1. zenbakizkoan aipatzen diren akzioetako bat egikaritzen denean demandan, ulertuko da ezen, alderdiek ez badute erabaki errentamendu-kontratuan zehaztea komunikazio-egintzak gauzatzeko egoitza bat, alokatutako etxebizitza edo lokala izango dela hura ondore guztietarako.

Demanda pertsona juridiko bati zuzentzen bazaio, egoitza gisa zehaztu ahal izango da, halaber, merkataritzako enpresaren administratzaile, kudeatzaile edo ahalordedun gisa edo erregistro ofizial batean azaltzen den edozein elkarteren batzarreko presidente, kide edo kudeatzaile gisa azaltzen den edozeinena.

Demandatzaileak zenbait toki izendatzen baditu egoitza gisa, adieraziko du zein den bere ustez komunikazioa arrakastarekin egiteko hurrenkera.

Era berean, demandatzaileak, 399. artikuluan ezarri diren betekizunez gain, demandatuari buruz dakizkien eta hura lokalizatzeko baliagarriak izan daitezkeen datu guztiak adierazi beharko ditu, hala nola identifikazio fiskaleko zenbakia edo atzeritarren zenbakia, telefono- eta fax-zenbakiak, posta elektronikoaren helbidea edo antzekoak, zeinak Justizia Administrazioan teknologiaren erabilera arautzen duen Legean xedatutakoaren arabera erabiliko diren. Behin agertuta, demandatuak, hurrengo komunikazioetarako, bestelako egoitza bat izendatu ahal izango du, edo 162. artikuluan aurreikusitako komunikabide elektronikoetarako bitartekoetatik bat.

Prozesua bideratzen ari den bitartean alderdiek egoitza aldatzen dutenean, berehala komunikatuko diote bulego judizialari.

Halaber, telefono-zenbaki, fax, helbide elektroniko edo antzekoen aldaketak komunikatu beharko dituzte, edo lege honen 162. artikuluan arabera egindako komunikazio-egintzen gauzatzea aldatzen duen beste edozein identifikazio-daturenak, betiere azken horiek bulego judizialarekin komunikatzeko tresna gisa erabiltzen ari badira.

4. Oraindik pertsonatu ez diren edo prokuradoreak ordezkatzan ez dituen alderdiekin egindako komunikazio-egintzak bi aldiz edo gehiagotan gauzatu badira, 152. artikuluan 6. apartatuan ezarritakoa beteko da.

Epatze- edo zitazio-zedulan, edo kasuan kasuko komunikazio-egintzan, berariaz jasoko da aurreikuspen hori, bai eta doako laguntza juridikoa eskatzeko eskubidea ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

156. artikulua. Auzitegiaren ikerketak egoitzari buruz.

1. Demandatzaileak adieraziz gero ezinezko zaiola demandatuaren egoitza edo bizileku bat izendatzea haren pertsonatze-ondoreetarako, Justizia Administrazioaren letraduak bitarteko egokiak erabiliko ditu inguruabar horiek ikertzeko, eta, kasua denean, 155. artikuluan 3. apartatuan aipatutako erregistro, organismo, elkargo profesional, entitate eta enpresetara jo ahal izango du.

Komunikazio horiek hartzean, erregistroek eta organismo publikoek beren jarduera arautzen duten xedapenekin bat etorri jardungo dute.

2. Komunikazio-egintzen ondoreetarako, ezein kasutan ez da ezinezkotzat joko egoitzaren izendapena egoitza hori artxibo edo erregistro publikoetan jasota egon eta haietarako irispidea badago.

3. Lehenengo apartatuan aipatutako ikerketen ondorioz egoitza edo bizileku baten berri izaten bada, 155. artikuluan arabera bidezkoa den kasuetan 152.3.2 artikuluan ezarritako moduan egingo da komunikazioa, eta, kasua denean, 158. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

4. Ikerketa horiek antzuak izan badira, komunikazioa ediktu bidez egiteko aginduko du Justizia Administrazioaren letraduak.

157. artikulua. Arlo Zibileko Auzi-iheslarien Erregistro Zentrala.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren ikerketak antzuak izan direnean, Justizia Administrazioaren letraduak aginduko du demandatuaren izena eta gainerako identitate-datuak komunika dakizkiola, demandatuaren ediktu bidezko komunikazioaren ebazpenaren data adierazita, Justizia Ministerioan egoitza duen Arlo Zibileko Auzi-iheslarien Erregistro Zentralari, inskripzioa egin dadin.

2. Demandatu baten egoitza ikertu behar duen edozein Justizia Administrazioaren letradu zuzendu ahal izango da Arlo Zibileko Auzi-iheslarien Erregistro Zentralera, egiaztatzeko ea demandatua erregistro horretan jasota dagoen eta ea bertan agertzen diren datuak eskura dituenen berdinak diren. Kasu horretan, antolaketa-eginbide bitartez, zuzenean erabaki ahal izango du demandatuari ediktu bidezko komunikazioa egitea.

3. Arlo Zibileko Auzi-iheslarien Erregistro Zentralean inskribatuta dagoen pertsona baten egoitza zein den dakien edozein organo judizialek, interesdunak eskatuta edo bere ekimenez, inskripzioa ezerez dadila eskatu beharko du, komunikazio judizialak igor dakizkioken egoitza komunikatuta. Erregistroak hark komunikazio-ondoreetarako zehaztutako egoitza igorriko du demandatu horren aurkako prozesua badela jasota dagoen bulego judizialek, eta baliozkoak izango dira une horretatik aurrera egoitza horretan gauzatutakoak.

4. Aurrekoa gorabehera, edozein auzitegik beharra badu prozedura bateko demandatuaren egungo egoitzaren berri jakiteko, demandatu horren egonlekua ezezaguna delako pertsonatze-fasearen ostean, Arlo Zibileko Auzi-iheslarien Erregistro Zentralera jo dezake, idatzohar egokia egin dadin, aipatutako erregistroak datu horren berri izanez gero, komunikazio judizialak bidal dakizkioken egoitza eman dakion.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

158. artikulua. Komunikazioa entrega bidez.

Komunikazio-egintzaren helburuko pertsona legez edo kontratuz behartuta ez dagoenean Justizia Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera, eta ezin denean egiaztatu komunikazio bat hartu duela, zeinaren helburua judizioan pertsonatzea edo jardun prozesal jakin batzuk egitea edo haietan pertsonalki esku hartzea den, 161. artikuluan ezarritako moduan entregatuko da hura.

159. artikulua. Komunikazioak lekukoekin, adituekin eta judizioan alderdi ez diren bestelako pertsonekin.

1. Lekukoei, adituei eta judizioan alderdi izan gabe bertan esku hartu behar duten beste pertsona batzuei egin behar zaizkien komunikazioak haien helburuko pertsonari igorriko zaizkie, 160. artikulua 1. apartatuan xedatutakoaren arabera. Alderdi interesdunak zehaztutako egoitzara egingo da igorpena, eta 156. artikuluan aipatutako ikerketak egin ahal izango dira, kasua denean. Komunikazio horiek proposatu dituen alderdiaren prokuradoreak eginbidetuko ditu, hark hala eskatuz gero.

2. Igortze bidezko komunikazioak huts egin duela autoetan jasota dagoenean edo kasuaren inguruabarrek gomendatzen dutenean, komunikazioaren objektua eta haren mende dauden jardunen izaera kontuan hartuta, 161. artikuluan xedatutakoaren arabera jardun dadila aginduko du Justizia Administrazioaren letraduak.

3. Artikulu honetan aipatzen diren pertsonak bulego judizialari komunikatu beharko diote prozesua bideratzen ari den bitartean izandako edozein egoitza-aldaketa. Egiten duten lehen agerraldian emango zaie jakitera betebeharrak hori.

160. artikulua. Komunikazioak igortzea postaz, telegramaz edo antzeko bitartekoen bidez.

1. Bidezko denean ebazpenaren kopia edo zedula igortzea posta ziurtatu edo telegrama hartu-agiridun bidez, edo antzeko beste edozein bitarteko erabilita, jakinarazpena hartu izana, harrera-data eta haren edukia autoetan modu fede-emailean jasotzea ahalbidetzen duena, Justizia Administrazioaren letraduak igorpenaren eta igorritakoaren edukiaren fede emango du autoetan, eta haiei erantsiko die, kasua denean, hartu-agiria edo hartu izana jasota uzten duen bitartekoa edo hala egiaztatzen duen prokuradoreak ekarritako dokumentazioa, komunikazioa hark eginez gero.

2. Alderdiak eskatuta eta eskatu duenaren kontura, agindu ahal izango da igorpena aldi berean egin dadila 155. artikulua 3. apartatuan aurreikusitako tokietako batzuetara.

3. Helburuko pertsonaren egoitza dagoenean auzitegiaren egoitza dagoen barrutian eta komunikazioaren helburua ez denean jardunetan pertsonatzea, haiek egitea edo haietan pertsonalki esku hartzea, epatze-zedula igorri ahal izango da, 1. apartatuan aipatutako bitartekoetatik edozeinen bidez, helburuko pertsona auzitegiaren egoitzan edo egoitza judizial elektronikoa ager dadin, jakinarazpena, errekerimendua edo idazkiren bat helaraz dakion.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Zedulak behar bezalako zehaztasunarekin adieraziko du zein den epatuaren agerraldia errekeritzeko xedea, zehaztuko du zein prozedurari eta auzigairi egiten dion erreferentzia, eta ohartaraziko du ezen, zehaztutako epean epatua agertzen ez bada kausa justifikaturik gabe, kasuan kasuko komunikazioa egintzat emango dela edo helarazpena gauzatutzat.

4. Komunikazio-egintzak egiteko, herritarraren aukeran, Justizia Administrazioan teknologien erabilera arautzen duen Legean aurreikusitako identifikazio-sistemak erabili ahal izango dira.

5. Komunikazio-egintza zer bitartekoren bidez egiten den alde batera utzita, Justizia Administrazioko organoek abisu bat bidaliko dute helburuko pertsonaren gailu elektronikora edo jasota duten helbide elektronikora, informatuz ezen komunikazio-egintza eskura jarri zaiola egoitza judizial elektronikoa edo gaitutako helbide elektronikoa bakarrean. Abisu hori gauzatu ez izanak ez du eragotziko komunikazio-egintza erabat baliozkotzat hartzea.

161. artikulua. Komunikazioa ebazpenaren kopiaren edo zedularen bidez.

1. Egoitza judizial elektronikoa, auzitegiaren egoitzan edo jakinarazi, errekeritu, zitu edo epatu behar den pertsonaren egoitzan entregatuko zaio ebazpenaren kopia edo zedula komunikazioaren helburuko pertsonari, betearazpenaren eremuan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Eginbide bitartez dokumentatuko da etxeko entrega, eta gauzatu duen funtzionarioak edo prokuradoreak sinatuko du, bai eta hartu duen pertsonak ere, zeinaren identifikazio-datuak jasota utziko diren.

2. Komunikazioaren helburuko pertsona egoitzan aurkitu eta ebazpenaren kopia edo zedula hartzeari uko egiten dionean edo entregatu izana egiaztatzen duen eginbidea sinatu nahi ez duenean, komunikazioa gauzatzeko ardura hartu duen funtzionarioak edo prokuradoreak aditzera emango dio bulego ofizialean uzten diola eskura ebazpenaren kopia edo zedula; horrek komunikazioaren ondoreak izango ditu, eta hori guztia jasota utziko da eginbidean.

3. Komunikazioa gauzatu nahi den egoitza bada helburuko pertsonaren udal-eroldaren arabera egoitza, edo ondore fiskaletarakoa edo erregistro ofizialen edo elkargo profesionalen argitalpenen arabera, edota demandatuari errentan emandako etxebizitza edo lokala, eta aipatutako helburuko pertsona bertan ez badago, gutun-azal itxian egin ahal izango zaio entrega toki horretan dagoen edozein enplegaturi, familiartekori edo harekin bizi den edozein pertsonari, hamalau urtetik gorakoa izanez gero, edo finkako atezainari, halakorik badu; hartzaileari ohartaraziko zaio behartuta dagoela ebazpenaren kopia edo zedula haren helburuko pertsonari entregatzera edo hari abisua ematera, non dagoen baldin badaki, eta hartzaileari kasu orotan ohartaraziko zaio helburuko pertsonaren datuen babesaz duen erantzukizuna.

Komunikazioa zuzendu bada helburuko pertsonak noizbehinkakoa ez duen lantokira eta pertsona hori bertan ez badago, hura ezagutzen duela adierazten duen pertsonari egingo zaio entrega edo, dokumentuak edo objektuak hartzeaz arduratzen den sail bat egonez gero, haren ardura duenari, aurreko paragrafoko ohartarazpen berberak eginda.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Eginbidean, jasota utziko dira komunikazioaren helburuko pertsonaren izena eta hura bere egoitzan bilatu eta aurkitu ez zen data eta ordua, bai eta ebazpenaren kopia edo zedula hartu zuen pertsonaren izena eta pertsona horrek helburuko pertsonarekin duen harremana ere; ondore guztiak izango ditu hala egindako komunikazioak.

4. Komunikazio-egintza bat gauzatzera egoitzara joan eta bertan inor ez bada, komunikazio-egintzaren helburuko pertsona bertan bizi den ikertzen saiatuko da Justizia Administrazioaren letradua, funtzionarioa edo prokuradorea.

Bertaratutako egoitzan jada bizi ez bada edo bertan lan egiten ez badu eta galdetutako pertsonetatik baten batek baldin badaki zein den egungoa, komunikazioaren eginbide negatiboan jasota utziko da hura, eta egoitza horretan egingo da komunikazio-egintza.

Bide horretatik jakin ezin bada zein den demandatuaren egoitza eta demandatzaileak beste egoitza posiblek zehaztu ez badu, 156. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da.

162. artikulua. Komunikazio-egintzak bitarteko elektronikoz, informatikoz eta antzekoez.

1. Bulego judizialak eta alderdiak edo komunikazio-egintzen helburuko pertsonak legez edo kontratuz behartuta daudenean haiek bidaltzera eta hartzera idazkiak eta dokumentuak bidaltzea edo hartzea ahalbidetzen duten bitarteko elektronikoz, infotelekomunikazioz edo antzeko besteren batez, halako moldez non bermatuta egongo den komunikazioaren eta haren edukiaren autentikotasuna eta modu fede-emailean jasota geratuko den osorik igorri eta hartu izana eta haiek egin ziren unea, edo helburuko pertsonak bitarteko horiek hautatzen dituztenean, bai eta legeak ezarritako beste edozein kasutan ere, haien bidez egingo dira komunikazio-egintzak, hartu izana egiaztatzen duen bidezko ordezkagiriarekin.

Bitarteko horiek erabiltzera behartuta dauden profesionalek eta helburuko pertsonak, bai eta bitarteko horiek hautatzen dituztenek ere, bulego judizialei komunikatu beharko diete lehen adierazitako bitartekoak badituztela eta hartarako gaitutako helbide elektronikoa zein den.

Era berean, Presidentetza, Justizia eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioan erregistro bat eratuko da, elektronikoki irisgarria, aipatutako bitartekoena eta haiek erabiltzera behartuta dauden organismo publikoei eta profesionalei dagozkien helbideena.

2. Artikulu honetan aipatutako kasuetatik edozeinetan, komunikazio-egintza zuzen igorri dela bitarteko tekniko horiekin jasota dagoelarik, prokuradoreen elkargoek antolatutako jakinarazpen-zerbitzuen bidez gauzatutakoak izan ezik, hiru egun igaroz gero helburuko pertsona haren edukira sartu gabe, komunikazioa legez egin dela ulertuko da, eta, horrenbestez, ondore guztiak sortuko ditu. Kasu horretan, jardun prozesalak garatzeko epeak hirugarren egunaren hurrengo egun baliodunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

Salbuetsi egingo dira kasu haiek, zeinetan helburuko pertsonak justifikatzen duen ezin izan zuela jakinarazpen-sistemara iritsi denbora-tarte horretan. Irispiderik eza kausa teknikoengatik bada eta Justizia Administrazioari ezagutarazteko unean haiek badiraute, ebazpenaren kopia entregatuz gauzatuko da komunikazio-egintza. Kasu horretan, hala ere, irispeidea izaten bada epe hori igaro ondoren baina



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

komunikazioa entrega bidez gauzatu baino lehen, ulertuko da elektronikoki hartu izana egiaztatzen duen ordezkagirian jasota dagoen datan egin dela baliozkotasunez komunikazioa.

Salbuespen izango dira, halaber, prokuradoreen elkargoek jakinarazpen-zerbitzuaren birbidalketa gehienez ere hiru eguneko epean eten duten ezinbesteko kasuak, 151.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Profesionalei ez zaie bide elektronikoz komunikazio-egintzarik egingo abuztuko hilabeteko egunetan, ez eta abenduaren 24tik hurrengo urteko urtarilaren 6ra bitarteko egunetan ere, salbu eta egokitzen diren jardunetarako baliodunak badira.

3. Aurreko apartatuan aipatutako bitartekoez aurkeztutako edo transmititutako ebazpenen, dokumentuen, irizpenen edo txostenen autentikotasuna haien zuzeneko azterketaren edo bestelako prozeduren bidez soilik aitortu edo egiazta daitekeenean, euskarri elektronikoa aurkeztu ahal izango dira, aitzitik, haien irudi digitalizatuen bidez, 267. eta 268. artikuluetan aurreikusitako moduan; hala ere, alderdietako batek, edo auzitegiak familia-prozesuetan, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurrien prozesuetan edo filiazio-prozesuetan, edota Fiskaltzak hala eskatuz gero, beren jatorrizko paper-euskarrian aurkeztu beharko dira haiek, hartarako finkatutako epean edo une prozesalean.

163. artikulua. Komunikazio Egintzen Zerbitzu Erkide Prozesala.

Ezarrita dagoen herrietan, Komunikazio Egintzen Zerbitzu Erkide Prozesalak gauzatuko ditu bulego judizialak egin behar dituen komunikazio-egintzak, salbu eta prokuradorearen ardurapean jarri direnak hark ordezkatzen duen alderdiak hala eskatuta.

164. artikulua. Komunikazioa ediktu bidez.

Hala denean, 156. artikuluan aipatu ikerketak burutu badira, eta komunikazioaren helburuko pertsonaren egoitza ezin bada jakin, edo hura aurkitzea edo hari komunikazioa ondore guztiekin egitea ezinezkoa bada aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera, edota horrela erabakitzen bada 157. artikulua 2. paragrafoan aipatu kasuan, orduan, Justizia Administrazioaren letraduak, inguruabar horiek jaso ondoren, komunikazioa aginduko du Ediktu Judizialen Taula Bakarrean jarri, eta, betiere, adingabeen eskubide eta interesak gordeta, bai eta publizitate horrek uki ditzakeen beste eskubide eta askatasun batzuk ere.

Kasu orotan, aurreko paragrafoan aipatutako komunikazioan edo publizitatean, adingabeen interes gorena kontuan izanda eta haien intimitatea bermatzeko, aipatu gabe utzi beharko dira datu pertsonalak, izen-abizenak, egoitza edo, zuzenean edo zeharka, haien identifikazioa ahalbidetu dezakeen beste edozein datu edo inguruabar.

Zor diren errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatik edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatik hiri- edo landa-finka utzarazteko prozesuetan eta zor diren errenta edo zenbateko horiek erreklamatzeko prozesuetan, errentaria ezin bada aurkitu edo ezin bazaio komunikazioa egin 155. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan izendatutako egoitzetan, edo kontratuaren ostean





1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

errentatzaileari modu fede-emailean komunikatu ez badio egoitza berria, zeinari errentatzaileak ez dion aurka egin, Ediktu Judizialen Taula Bakarraren bitartez egingo da komunikazioa, izapide gehiagorik gabe.

165. artikulua. Komunikazio-egintzak laguntza judizial bidez.

Komunikazio-egintzak agindu dituen auzitegiak bestelako batek gauzatu behar dituzenean, informatika-sistema judizialaren bidez igorriko da idatzagiria, salbu eta paper-euskarrian egin behar den kasuetan formatu elektronikora bihurtzeko modukoak ez diren elementuak egintzarekin batera doazelako, eta kasuan kasuko kopia edo zedula eta kasuan-kasuan bidezkoa den gainerakoa aurkeztuko da harekin batera.

Komunikazio-egintza horiek gehienez ere hogeitaz eguneko epean egingo dira, hartzen direnetik kontatuta, eta aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik itzuli beharko dira. Zehaztutako epean egiten ez direnean, Justizia Administrazioaren letratuak hura beha dezaten errekeriturik, luzamenaren kausak adierazi beharko dira, kasua denean.

Egintza horiek prokuradoreak egin ahal izango ditu, alderdi-eskariz, eta haiek betetzeaz arduratuko da aurreko paragrafoan ezarritako moduan eta epeetan.

166. artikulua. Komunikazio-egintzen deuseztasuna eta konponketa.

1. Deusezak izango dira kapitulu honetan xedatutakoaren arabera gauzatzen ez diren eta defentsa-gabezia ekar dezaketen komunikazio-egintzak.

2. Hala ere, jakinarazia, zitatua, epatua edo errekeritua izan den pertsonak bere burua auzigaiaren jakituntzat jotzen badu, eta eginbidearen deuseztasuna salatzen ez badu auzitegiaren aurreko bere lehenengo agerraldian, une horretatik aurrera ondore guztiak izango ditu hark, legearen xedapenen arabera egin izan balitz bezala.

167. artikulua. Ofizioak eta manamenduak igortzea.

1. Manamenduak eta ofizioak egin dituen Justizia Administrazioaren letratuak zuzenean igorriko dizkio haien helburuko agintaritzari edo funtzionarioari; 162. artikuluan aurreikusitako bitartekoak erabili beharko dira.

Aurrekoa gorabehera, alderdiek pertsonalki eginbidetu ahal izango dituzte manamenduak eta ofizioak, hala eskatuz gero.

2. Kasu orotan, artikulua honetan aipatutako ofizioak eta manamenduak alderdiak eskatuta egiten badira, hark ordaindu beharko ditu haiek egitearen ondoriozko gastuak.



168. artikulua. Komunikazio prozesalean esku hartzen duten funtzionarioen eta profesionalen erantzukizuna.

1. Justizia Administrazioaren letraduak edo Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidegoetako funtzionarioak, kapitulu honetan esleitzen zaizkion funtzioetan diharduela, bidegabeko atzerapenak edo luzamenak sortzen baditu maltzurkeriagatik edo zabarkeriagatik, diziplina-zuzenketa izango du bere gaineko argitarizatik, eta, gainera, erantzukizuna izango du sortutako kalte-galerengatik.

2. Komunikazio-egintzak gauzatzea bere gain hartu duen prokuradorea haiek gauzatzean doloan, zabarkerian edo berankortasunean erortzen bada edo ezarritako legezko formalitateen bat errespetatzen ez badu hirugarren bati kaltea eginez, sortutako kalte-galeren erantzulea izango da, eta zehapena ezarri ahal izango zaio legeetako nahiz estatutuetako arauetan xedatutakoaren arabera.

VI. KAPITULUA

Laguntza judizialaz

169. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa laguntza judiziala.

1. Auzitegi zibilak behartuta daude jardunetan elkar laguntzera, batek agindutakoak izanik beste baten elkarlana beharrezkoa bada haiek gauzatzeko.

2. Laguntza judiziala eskatuko da auzigaiaz arduratzen den auzitegiaren muga-barrutik kanpo egin behar diren jardunetarako, azterketa judizialeko egintzak barne, auzitegiaren iritziz posiblea edo komenigarria ez denean lege honek ematen dion ahalmena baliatzea, haiek gauzatzeko bere muga-barrutik kanpora lekualdatzekoa, eta bideokonferentzia bidez gauzatu ezin direnean.

3. Halaber, laguntza judiziala eskatu ahal izango da jardunetarako, haiek agindu dituen auzitegiak egoitza duen udalerritik kanpo gauzatu behar direnean, baina dagokion barruti judizialean edo muga-barruan.

4. Kasuan kasuko auzigaiaz arduratzen ari den epaitegiaren edo auzitegiaren egoitzan egingo dira alderdien galdeketa, lekukoen deklarazioa eta adituen berrespena, salbu eta aipatutako pertsonen egoitza hari dagokion muga-barru judizialek kanpo dagoenean; kasu horretan, 137 bis artikuluan aurreikusitako moduan egingo dira.

Epailearen iritziz ez bada komeni halakoak bideokonferentzia bidez egitea, eta distantziagatik, lekualdatzeko zailtasunagatik, alderdiaren, lekukoaren edo adituaren inguruabar pertsonalengatik edo antzeko ezaugarriak dituen beste edozein kausarengatik ezinezkoa edo oso nekeza denean zitututako pertsonak epaitegiaren edo auzitegiaren egoitzan agertzea, orduan bakarrik eskatu ahal izango da laguntza judiziala aurreko paragrafoan zehaztutako frog-egintzak gauzatzeko.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

170. artikulua. Zein organori dagokion laguntza judiziala ematea.

Laguntza judiziala ematea egokituko zaio hura gauzatu behar den tokiko muga-barruko lehen auzialdiko epaitegiaren bulegoari. Aurrekoa gorabehera, toki horretan bake-epaitegi batek egoitza badu eta laguntza judiziala komunikazio-egintza batean badatza, edo prozesu-egintza batean bideokonferentzia bidez esku hartzean lege honen 137 bis artikuluan araututako moduan, hari egokituko zaio jarduna gauzatzea.

171. artikulua. Exhortoa.

1. Laguntza judiziala behar duen auzitegiak exhorto bidez eskatuko du, laguntza eman behar duen bulego judizialari zuzenduta eta honako hauek jasota:

- 1.) Auzitegi exhortogilearen eta exhorto-hartzailearen izendapena.
- 2.) Exhortoa egitearen oinarri den auzigaiaren zehaztapena.
- 3.) Auzigaian alderdi diren pertsonen izendapena, bai eta haien ordezkariena eta defendatzaileena ere.
- 4.) Gauzatzeko eskatzen diren jardunen zehaztapena.
- 5.) Eskatutako jardunak epe baten barruan gauzatu behar direnean, epearen bukaera-data ere zehaztuko da.
- 6.) Exhortoa betetzeko, dokumentuak aurkeztu behar badira, berariaz aipatuko dira haiek guztiak.

2. Exhortoak egitea eta baimentzea Justizia Administrazioaren letraduari egokituko zaio.

3. Laguntza judizialaren objektua bada Justizia Administrazioaren beste organo batzuen espediente judizial elektronikoetan edo sistema elektronikoetan metadatutako espedienteetan dauden datuak edo dokumentuak eskatzea, betiere zerikusia duten organoen eskura dauden bitarteko elektronikoek ahalbidetzen badute, eskaera transmititu eta bete ahal izango da, exhortoaren beharrik gabe, horretarako gaitzen diren bitarteko elektronikoen bidez; betiere, organo igorlearen eta hartzailearen identifikazioa ziurtatu beharko dute, bai eta eskaeraren eta transmisioaren unea eta edukia ere.

4. Exhortoa ez da nahitaezkoa izango, ezta ere, jardun prozesalak bulego judizial batetik egin behar direnean esku-hartzaile guztien edo batzuen parte-hartze telematikoarekin.

172. artikulua. Exhortoa igortzea.

1. Exhortoak zuzenean igorriko zaizkio organo exhorto-hartzaileari, informatika-sistema judizialaren bidez edo beste edozein bitarteko telematiko edo elektroniko, salbu eta paper-euskarrian egin behar den kasuetan formatu elektronikora bihurtzeko modukoak ez diren elementuak egintzarekin batera doazelako.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Kasu orotan, erabilitako sistemak exhortoa igorri eta hartu izana jasota geratzen dela bermatu beharko du.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, exhortoa betetzeko interesa duen alderdiak hala eskatzen badu, bere erantzukizunpean entregatuko zaio hura, organo exhorto-hartzailean aurkez dezan hurrengo bost egunen barruan. Kasu horretan, exhortoaren kudeaketaz arduratuko den pertsona adieraziko du exhortoak; auzilaria bera edo izendatuko den prokuradorea soilik izan daitezke.

3. Gainerako alderdiek ere prokuradorea izendatu ahal izango dute, exhortoa betetzeko ematen diren ebazpenak jakinaraz dakizkiela nahi dutenean. Gauza bera egin ahal izango du exhortoa betetzeko interesa duen alderdiak, aurreko apartatuan aurreikusitako ondoreetarako hura hari entregatzeko eskatu ez duenean. Izendapen horiek exhortoaren dokumentazioan jasoaraziko dira.

4. Laguntza eman behar duen organoa ez den bati igorri bazaio exhortoa, hartzen duenak zuzenean bidaliko dio dagokionari, baldin eta zein den badaki, eta igorpenaren kontu emango dio exhortogileari.

173. artikulua. Exhortoa betetzea.

Exhortoa hartzen duen bulego judizialaren arduradunak xedatuko ditu haren betetzea eta bertan eskatzen diren jardunak zehaztutako epearen barruan gauzatzeko beharrezkoa dena.

Hala gertatzen ez denean, organo exhortogilearen Justizia Administrazioaren letraduak, ofizioz edo alderdi-eskariz, exhorto-hartzaileari gogoraraziko dio betetzeko urgentzia. Egoerak badirau, laguntza eskatu duen auzitegiak egitateak ezagutaraziko dizkio auzitegi exhorto-hartzaileari dagokion gobernu-salari.

174. artikulua. Alderdien esku-hartzea.

1. Alderdiek eta haien abokatu eta prokuradoreek esku hartu ahal izango dute exhortoa betetzeko gauzatzen diren jardunetan.

Aurrekoa gorabehera, exhortoa betetzeko ematen diren ebazpenak haren izapidetzean esku hartzeko prokuradorea izendatu duten alderdiei soilik jakinaraziko zaizkie.

2. Prokuradorea izendatu ez bada, alderdiei jakinaraziko zaizkie soilik exhortoaren betetzeak galdatzen dituenak, betiere alderdiak zitatzea, alderdien esku-hartzea edo alderdiak bertan egotea beharrezkoa den jardunen bat egitea aurreikusten badu hark, baita hura bete dadila errazteko haiei datuak edo berriak eman ditzaten errekeritzeko beharrezkoak direnak ere.

175. artikulua. Exhortoa itzultzea.

1. Exhortoa beteta, exhortogileari komunikatuko zaio 172. artikulua 1. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorriz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Gauzatutako laguntza judizialeko jardunak telematikoki bidali ezin badira, posta ziurtatu bidez igorriko dira edo exhortoaren kudeaketaren ardura eman zaion auzilariari edo prokuradoreari entregatuko zaizkio, zeinak organo exhortogilean aurkeztuko dituen hurrengo hamar egunen barruan.

176. artikulua. Alderdien arretarik eza laguntza judizialean.

Auzilariak arrazoi zuzenik gabe atzeratzen duenean bere kudeaketapean jarri diren idatzagiriak exhorto-hartzaileari aurkeztea edo exhortogileari itzultzea, zentzarazi egingo da 172. artikulua 2. apartatuan eta aurreko artikulua 2. apartatuan, hurrenez hurren, ezarritako epea bukatzen denetik atzerapen-egun bakoitzeko 30 euroko isunarekin.

177. artikulua. Nazioarteko lankidetzak judiziala.

1. Atzerrian jardun judizialak gauzatzeko idatzagiriak bideratuko dira aplikatzekoak diren erkidego-arauetan eta Espainia partaidea den nazioarteko tratatuetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta, halakorik ezean, aplikagarria den barne-legerian ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Arau horietan xedatutakoari jarraituko zaio, halaber, atzerriko agintari judizialek Espainiako epaitegien eta auzitegien lankidetzak eskatzen dutenean.

VII. KAPITULUA

Auzigaien bideratzeaz, ikustaldiaz eta erabakiaz

1. atala. Abiarazte arruntaz

178. artikulua. Kontu-ematea.

1. Justizia Administrazioaren letraduek aurkeztu diren idazkien eta dokumentuen kontu emango diote, egun berean edo hurrengo egun baliodunean, salari, txostengileari edo epaileari, kasuan-kasuan, betiere agiri horiek eskabideak edo uziak eduki eta haien inguruko pronuntziamendua galdatzen bada.

Gauza bera egingo dute presentzia judizialek kanpo baimendutako aktekin.

2. Halaber, prozesu-epeak igaro izanaren eta ondorioz autoek duten egoeraren kontu emango dute hurrengo egun baliodunean, baldin eta haiek mugaeguneratzean epaileak edo magistratuak ebazpen egokia eman behar badu, bai eta eman dituzten ebazpenena ere, baldin eta izapidetzekoak soilik ez badira.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioek, halaber, Justizia Administrazioaren letratuak emango diote kontu prozeduren izapidetzeari buruz, bereziki legea edo arau prozesalak interpretatzea galdatzen duenean, hargatik eragotzi gabe organo judizialaren titularrari informazioa ematea horretarako errekerimendua egiten zaienean.

179. artikulua. Bultzada prozesala eta prozesuaren etendura, alderdien akordioagatik edo beste inguruabar batzuegatik.

1. Legeak besterik xedatu ezean, Justizia Administrazioaren letratuak ofizioz emango dio prozesuari dagokion aribidea, horretarako beharrezkoak diren ebazpenak emanez.

2. Prozeduraren aribidea eten ahal izango da lege honen 19. artikuluan 4. apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz, eta berriro ekingo zaio alderdietatik edozeinek eskatuz gero. Erabakitako etendura-epea igarota, hurrengo bost egunetan inork eskatzen ez badu prozesuari berriro ekiteko, autoak behin-behinean artxiba daitezela erabakiko du Justizia Administrazioaren letratuak, eta autoek egoera horretan jarraituko dute prozesuak jarrai dezala eskatzen ez den bitartean edo auzialdia iraungitzen ez den bitartean.

3. Prozeduraren aribidea eten egingo da, halaber, abokatuak hala eskatzen badu, ezkontidearen, antzeko afektibitate-harremana duen pertsonaren edo odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko lehen mailara arteko senide baten heriotza, istripu edo gaixotasun larriagatik. Etendurak hiru egun baliodun iraungo du, gertaera eragilearen hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori bost egun baliodunera artekoa izan daiteke, baldin eta horretarako beste udalerrri batera joan behar bada.

Etendura-epe horiek bi eta lau egun baliodunera mugaturik geldituko dira, hurrenez hurren, heriotza eta aipatutako beste egoerak odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideei gertatzen zaizkienean.

Halaber, prozedura etengo da esku hartzen duen abokatuaren istripuagatik edo gaixotasunagatik. Etendura mantenduko da laneko eta gizarte-segurantzako edo gizarte-aurreikuspeneko beste edozein sistemako legeriaren arabera laneko bajaren aldiarekin bat datorren bitartean, eta, nolanahi ere, gehienez hogeita hamar egun naturaleko epean; egunok igarota, etendura amaitutzat emango da.

Adingabearen jaiotzaren eta zaintzaren kasuetarako, parte hartzen duten abokatuak, adingabearen jaiotzagatik edo zaintzagatik baja eman bazaie, prozeduraren etendura eskatu ahal izango dute, eta, beraz, aribideko egintza eta epe prozesal guztiena, lan-arloko eta gizarte-segurantzako legeriaren arabera ezarritako nahitaezko lan-atsedenaldiarekin bat datorren aldirako.

Hala eskatutako etendurak kasuan kasuko abokatuak esku hartzen duen prozedura guztiei eragingo die.

4. Aurreko apartatuan adierazitako inguruabarrak dokumentu bidez egiaztatu beharko dira, etendura eskatzen duen idazkiarekin batera. Horretarako ekartzen diren dokumentuak eskaria ebazteko baino ez dira erabiliko, hedatzeko edo hirugarrenei komunikatzeko debekuekin. Izaera konfidentziala duten datuen eta informazioaren babesa bermatzeko, auzitegiak izaera erreserbatua esleituko dio dokumentazio horri, eta ez zaie gehituko jarduketei, zeinetan Justizia Administrazioaren letratuak jasotze-eginbide egokia egingo baitu.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Etendura eskatu zaion epean ikustaldiren bat edo prozesuko beste egintzaren bat seinalatuta badago, eskari berean adieraziko dira, gainera, alderdiei, profesionalei, adituei, lekukoei eta gainerako esku-hartzaileei buruz beharrezkoak diren datu guztiak, haiek aurkitzea errazteko eta erabakitako etenduraren berri ahalik eta lasterren eman ahal izateko.

5. Justizia Administrazioaren letraduak, argudiatutako kausa egiaztatu ondoren, ahalik eta lasterren emango du dekretua, prozesuaren ondore guztietarako eta dagokion eperako etendura erabakitzen duena, zeina berehala jakinarazi beharko baita.

180. artikulua. Magistratu txostengilea.

1. Kide anitzeko auzitegietan, Justizia Administrazioaren letraduak magistratu txostengilea zehaztuko du auzigai bakoitzarentzat, eskusiboki irizpide objektiboetan oinarrituta urte judizial bakoitzaren hasieran salarentzat edo atalarentzat ezarritako txandaren arabera.

2. Justizia Administrazioaren letraduak prozesuan emango duen lehenengo ebazpenean egingo da izendapena, eta alderdiei jakinaraziko zaie magistratu txostengilearen izena eta, kasua denean, jadanik ezarritako txandaren arabera hura ordeztzen duenarena, ordeztuaren zio diren kausak adierazita.

3. Txostengilearen izendapenean, salako edo ataleko magistratu guztiak txandakatuko dira, presidenteak barne.

181. artikulua. Magistratu txostengilearen funtzioak.

Kide anitzeko auzitegietan, magistratu txostengileari egokituko zaio:

1. Txandaz egokitu zaizkion auzigaien abiarazte arrunta eta izapidetzearen zaintza, hargatik eragotzi gabe Justizia Administrazioaren letraduari dagokion bultzada.

2. Alderdiek aurkeztu dituzten frogabideen proposamena aztertzea eta haien onargarritasunari, egokitasunari eta baliagarritasunari buruz informatzea.

3. Auzitegiaren erabakien aurka jarritako errekurtsoei buruz eta Justizia Administrazioaren letraduaren erabakien aurka jarri eta auzitegiak ebatzi behar dituen errekurtsoei buruz informatzea.

4. Probidentziak ematea eta auzitegiak eman beharreko gainerako ebazpenak proposatzea.

5. Auzitegiak ematen dituen ebazpenak idaztea, hargatik eragotzi gabe 203. artikuluaaren bigarren paragrafoan xedatutakoa.

2. atala. Ikustaldiez eta agerraldiez



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

182. artikulua. Ikustaldien seinalamendua.

1. Kide anitzeko organoetako salako eta ataletako presidenteei egokituko zaie auzigaiak deliberatzeko eta bozkatzeko data eta ordua seinalatzea, baldin eta haiei buruzko epaitza ikustaldirik egin gabe eman behar bada.

Era berean, epaileari edo presidenteari dagokio seinalamendua egitea, baldin eta judizio, ikustaldi edo pareko izapide batera deitzeko, bati ekiteko edo bat berriro seinalatzeko erabakia haiek buru izan eta jada hasita dagoen edozein egintza prozesalean zehar hartzen bada, betiere ekitaldian bertan egin badezakete, eta seinalamenduen agenda programatuaren beharrak kontuan hartuta.

2. Kide bakarreko jurisdikzio-organoen titularrek eta kide anitzeko auzitegien salako edo ataleko presidentek irizpide orokorrak finkatuko dituzte, eta jarraibide konketuak eta espezfikoak emango; haien arabera egingo da ikustaldien edo pareko izapideen seinalamendua.

3. Irizpide eta jarraibide horiek barnean hartuko dituzte:

1.) Helburu horretarako aurretiaz zehaztutako egunen finkapena, zeina organo judizial bakoitzarentzat aurreikusitako areto-erabilgarritasunaren eta gainerako organo judizialekin izan beharreko koordinazioaren mende egongo den.

2.) Entzunaldi-orduak.

3.) Seinalamendu-kopurua.

4.) Ikustaldi zehatzaren gutxi gorabeherako iraupena, kasuan kasuko auzigaia edo auzia aztertu ondoren zehaztu ahal izan dutenaren arabera.

5.) Auzigaien izaera eta konplexutasuna.

6.) Egokia irizten zaion beste edozein inguruabar.

4. Justizia Administrazioaren letraduek ikustaldien edo pareko izapideen data eta ordua ezarriko dituzte, aurreko irizpideak eta jarraibideak betez eta seinalamenduen agenda programatua kudeatuz, eta inguruabar hauek hartuko dituzte kontuan:

1.) Ikustaldia edo judizioa egin beharreko egoerara zein hurrenkeratan iristen diren prozedurak, lege ezarritako salbuespenak edo jurisdikzio-organok ezarritako salbuespenez lehentasuna eduki behar duten kasuak izan ezik. Kasu horietan, seinalamendurik egin ez zaien gainerakoen aurretik jarriko dira.

2.) Organo judizial bakoitzarentzat aurreikusitako areto-erabilgarritasuna.

3.) Bulego judizialaren giza baliabideen antolaketa.

4.) Adituen eta lekukoen zitazioetarako eta agerraldietarako beharrezkoa den denbora.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5.) Fiskaltzarekiko koordinazioa, legeek haren esku-hartzea aurreikusten duten prozeduretan.

5. Seinalamenduak agenda programatuan sartu ahala eta, kasu orotan, alderdiei jakinarazi aurretik, epaileari edo presidenteari kontu emango zaio. Ezarritako irizpideak eta jarraibideak betetzen ez diren kasuan, epaileak edo presidentek erabakiko du seinalamenduari buruz.

183. artikulua. Ikustaldiaren edo beste egintza prozesal batzuen beste seinalamendu bat eskatzea.

1. Ikustaldi batera joan behar duen edozeini ezinezkoa bazaio seinalatutako egunean bertara joatea ezinbesteko kausagatik edo antzeko garrantzia duen beste zio bategatik, hala nola adingabearen jaiotza eta zaintza, gaixotasun larria eta istripua ospitaleratzearekin, bigarren gradurainoko odolkideen edo ezkontza-ahaideen heriotza edo gizarte-segurantzak edo osasun-sistema edo aurreikuspen sozialeko sistema baliokideak ziurtatutako laneko baja, berehala adieraziko dio auzitegiari kausa edo zioa behar bezala egiaztatuz eta ikustaldiaren beste seinalamendu bat edo egoera aintzat hartzeko ebazpena eskatuz.

2. Alderdietako baten abokatuak uste duenean ikustaldira edo dagokion egintza prozesalera joatea ezinezkoa dela, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldiaren beste seinalamendu bat egingo du, baldin eta alegatutako egoera aintzat hartzeko modukoa dela eta egiaztatuta dagoela irizten bada.

3. Alderdia denean lehenengo apartatuan aurreikusitako ezintasun-egoera alegatzen duena, Justizia Administrazioaren letraduak, alegatutako egoerari aintzat hartzeko modukoa dela eta egiaztatuta dagoela irizten badio, honako ebazpen hauetako bat emango du:

1.) Ikustaldia bada alderdia abokatuaren laguntzarik gabe edo prokuradorearen ordezkariarik gabe aritzen den prozesuetakoa, beste seinalamendu bat egingo du.

2.) Ikustaldia bada alderdiak pertsonalki bertan egon beharreko jardunetarakoa, nahiz eta alderdia abokatuak lagunduta edo prokuradoreak ordezkaturik egon, ikustaldiaren beste seinalamendu bat egingo du berdin-berdin.

Zehazki, alderdia ikustaldirako zitatua izan bada 301. artikuluan eta hurrengoetan araututako galdeketari erantzuteko, Justizia Administrazioaren letraduak beste seinalamendu bat egingo du, bidezkoak diren zitazioekin. Gauza bera ebatziko du joateko ezintasuna alegatu eta egiaztatu duenaren aurkako alderdi bat galdeketarako zitatua dagoenean.

3 bis. Alderdietako bat edo ikustaldian esku hartu behar duten pertsonetako bat laurogei urte edo gehiagoko pertsona bada, eskatu ahal izango du —eta Justizia Administrazioaren letraduak hala erabaki— seinalamendua egitea entzunaldiko lehenengo orduetarako edo azkenengoetarako, ukitutako pertsonaren beharren arabera.

4. Justizia Administrazioaren letraduak auzitegiari ezagutaraziko dio zer data eta ordu finkatu zaizkion seinalamendu berriari, hura erabaki den egun berean edo hurrengo egun baldiodunean.

5. Auzitegiak ikustaldirako zitatu duen lekuko edo aditu batek adierazten eta egiaztatzen duenean manu honen lehenengo apartatuan adierazitako ezintasun-egoera berean dagoela, Justizia Administrazioaren letraduak xedatuko du alderdiei hiru eguneko epe komunean entzun dakiela, ea ikustaldiaren



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

seinalamendua ondorerik gabe utzi eta beste seinalamendu bat egin behar den ala seinalatutako ikustalditik kanpo zitzate behar den lekukoa edo aditua froga-jarduna gauzatzeko. Epea igarota, auzitegiak komenigarria deritzona erabakiko du, eta lekukoaren edo adituaren desenkusari aintzat hartzekoa dela edo egiaztatuta dagoela irizten ez badio, ikustaldiaren seinalamenduari eutsiko dio, eta Justizia Administrazioaren letratuak hala jakinaraziko die haiei, eta agertzeko errekerituko die, 292. artikuluaen bigarren apartatua aurreikusten den ohartarazpenarekin.

6. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan aipatutako egoerei buruz ebazterakoan Justizia Administrazioaren letratuak ulertzen badu balitekeela abokatuak edo auzilariak justifikatu gabeko luzamenarekin edo batere oinarririk gabe jardun izana, epaileari edo auzitegiari kontu emango dio, zeinak seihun eurorainoko isuna ezarri ahal izango dien, hargatik eragotzi gabe idazkariak seinalamendu berriari buruz ebartziko duena.

Isun berdina ezarri ahal izango du auzitegiak artikuluko honen 5. apartatua aurreikusitako kasuetan, aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarrak gertatzen direla ulertzen badu.

184. artikulua. Ikustaldiak egiteko denbora.

1. Ikustaldiak egiteko, eguneko ordu baliodun guztiak eta baliodun bihurtutakoak erabili ahal izango dira, saio batean edo gehiagotan, eta, beharrezkoa izanez gero, hurrengo egunean edo egunetan jarraitu ahal izango da.

2. Legeak besterik xedatu ezean, hamar egun baliodun igaro behar dira, gutxienez, ikustaldia seinalatu denetik egin arte.

185. artikulua. Ikustaldiak egitea.

1. Auzitegia eratuta lege honetan xedatutako moduan, epaileak edo presidenteak deklaratu du ikustaldi publikoa egin dadila, ekitaldia ateak itxita egiten denean izan ezik. Behin ikustaldia hasita, laburki zerrendatuko dira kasuaren aurrekariak edo aztertu beharreko arazoak.

2. Jarraian, auzi-jartzaileak eta demandatuak edo errekurtsogileak eta errekurrituak informatuko dute, dagokien hurrenkeran, beren abokatuen bidez edo alderdiak beraiek legeak ahalbidetzen duenean.

3. Ikustaldi-ekitaldirako frogarik onartu bada, hura gauzatuko da, hura arautzen duten arauetan xedatutakoarekin bat etorriz.

4. Froga gauzatzea amaituta edo, hura gauzatu ez bada, esku-hartzeen lehenengo txanda amaituta, epaileak edo presidenteak berriro emango die hitza alderdiei, egitateak edo kontzeptuak zuzen ditzaten eta, kasua denean, beren eskubideari komeni zaizkion alegazioak laburki zehazturik formula ditzaten gauzatutako frogen emaitzari buruz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

186. artikulua. Eztabaiden zuzendaritza.

Ikustaldien garapenean zehar, epaileari edo presidenteari dagokio, edo Justizia Administrazioaren letraduari, eskusiboki bere aurrean gauzatutako ikustaldien kasuan, eztabaidak zuzentzea, eta, zehazki:

1. Ikustaldien ordena ona mantentzea eskura dituen bitarteko guztiekin, auzitegiei eta haien aurrean jarduten dutenei zor zaien errespetua eta begirunea izatea galdatuz, eta ekitaldian bertan zuzenduko ditu egiten diren faltak, Botere Judizialaren Lege Organikoan xedatutako moduan.

2. Ikustaldien garapena arintzea; horretarako, abisua emango die abokatuari edo alderdiari, baldin eta haien esku-hartzeetan modu nabarian alendu badira eztabaidagai diren arazoetatik, beharrezkoak ez diren dibagazioak saihesteko eskatuz, eta, zentzu horretan formulatzen zaien bigarren ohartarazpenari jaramonik egiten ez badiote, hitza kendu ahal izango die.

187. artikulua. Ikustaldiak dokumentatzea.

1. Ikustaldiaren garapena erregistratuko da soinua eta irudia edo, ezinezkoa bada, soinua soilik grabatzeko eta erreproduzitzeko euskarri egokian, lege honen 147. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Alderdiek, kasu orotan, ikustaldia grabatuta geratu den euskarrien kopia bat eskatu ahal izango dute, beren kontura.

2. Aurreko apartatuan aipatutako erregistro-bitartekoak ezin badira erabili edozein kausarengatik, Justizia Administrazioaren letraduak egindako akta bidez dokumentatuko da ikustaldia.

188. artikulua. Ikustaldiak edo beste egintza prozesal batzuk etetea.

1. Seinalatutako eguneko ikustaldiak edo beste egintza prozesal batzuk honako kasu hauetan soilik atzeratu ahal izango dira:

1.) Aurreko egunean egiteke geratutako beste ikustaldi baten jarraipenak hura eragozteagatik.

2.) Ebazpena emateko beharrezkoa den magistratu-kopurua ez egoteagatik, edo epailearen edo Justizia Administrazioaren letraduaren bat-bateko ondoeza gertatzeagatik ostean, baldin eta hura ezin bada ordeztu.

3.) Alderdiek ados egonik hura eskatzeagatik, Justizia Administrazioaren letraduaren iritziz arrazoi zuzena alegatuta.

4.) Judizioan edo ikustaldian galdeketa egin behar zaion alderdi zitatuetatik edozeinek erabateko ezintasuna izateagatik, betiere ezintasun hori, Justizia Administrazioaren letraduaren iritziz nahikotasunez justifikatua, gertatu bada 183. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz beste seinalamendu bat jada eskatu ezin denean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5.) Atzerapena eskatu duen alderdiaren abokatuaren heriotzagatik, gaixotasunagatik, erabateko ezintasunagatik edo adingabearen jaiotza edo zaintzarengatik bajagatik, edo 179. artikuluan 3. apartatuan aurreikusitako beste edozein inguruabarrengatik, Justizia Administrazioaren letraduaren iritziz nahikotasunez justifikatuak, betiere egitate horiek gertatu badira 183. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik bada beste seinalamendu bat eskatu ezin denean eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea bermatzen bada eta defentsa-gabezia sortzen ez bada.

Orobat, aurreko kasuen parekoak izango dira, eta betekizun berberekin, gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuetan aurreikusitako antzeko beste egoera batzuk, eta Gizarte Segurantzaren legerian aurreikusitako baja eta baimenen prestazioa ematen den denbora berbererako izango dira.

Seinalamendu baten egunean bertan edo aurreko hogeita lau orduetan gertatutako larrialdi medikoko kasuetan, egintza prozesala eteteko, nahikoa izango da edozein bitarteko aurkeztea, auzitegiari ahalbidetuko diona eten beharra sortu duen egoeraren berri izatea, hargatik eragotzi gabe gerora nahitaez egiaztatu beharra.

Halaber, 5. zenbaki honetako inguruabarretatik edozeinek alderdietako baten prokuradoreari eragiten badio, eta egitatea gertatu bada une horretan ordezkari profesional bat izendatzeko aukerarik gabe, ikustaldia eten egingo da, eta ezin izango zaio beste seinalamendurik egin hiru egunak igaro arte, prokuradoreen elkargoak, hala badagokio, haren ordezkapena behar bezala antolatu ahal izan dezan.

6.) Abokatu defendatzaileak egun berean, auzitegi ezberdinetan, bi ikustaldi-seinalamendu izateagatik, eta ezinezkoa izatea, finkatutako ordutegiagatik edo bi organo judizialen artean dagoen distantziagatik, bietara joatea, betiere nahikotasunez egiaztatzen badu 183. artikuluan babesean saiatu zela, emaitzarik lortu gabe, bat-etortzea saihestuko lukeen beste seinalamendu bat lortzen. Kasu horretan, presodun edo adingabe barneratutak, indarkeriaren biktima den haur edo nerabedun auzi kriminalari dagokion ikustaldiak izango du lehentasuna, eta, horrelako jardunik izan ezean, seinalamendu antzinakoena duenak, eta bi seinalamenduak data berekoak badira, prozedura modernoenera dagokion ikustaldia atzeratuko da.

Ez da erabakiko ikustaldia atzera dadila, baldin eta hura erabakitzeke eskaeraren komunikazioa egiten bada bigarrenik hartzen den seinalamenduaren jakinarazpenetik hiru egun baino gehiagoko atzerapenarekin. Ondore horietarako, eskaerarekin batera aurkeztu beharko da aipatutako seinalamendu-jakinarazpenaren kopia.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko presodun edo adingabe barneratutak auzi kriminalari dagozkien ikustaldiei, hargatik eragotzi gabe sor daitekeen erantzukizuna.

7.) Jardunen aribidea etetea erabakitzeagatik edo etendura hori bidezkoa izateagatik lege honetan xedatutakoarekin bat etorritik.

8.) Ezintasun teknikoagatik, ikustaldia edo parte-hartzaileraren bat bertaratzea bideokonferentziaz egitea erabaki bada, eta ezin bada egin ikustaldia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren baldintzetan.

2. Justizia Administrazioaren letraduak erabakitako atzerapen oro egun berean edo hurrengo egun baliodunean ezagutaraziko zaio auzitegiari, eta idazkariak komunikatuko die pertsonatutako alderdiei eta lekuko edo aditu gisa edo bestelako izaera batekin judizialki zitazioa egin zaienei.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Ikustaldiak eteteko araubide hau aplikatuko zaie, bidezkoa den heinean, seinalatuta dauden gainerako egintza prozesalei.

189. artikulua. Atzeratutako ikustaldien seinalamendu berria.

1. Ikustaldia atzeratzen bada, atzerapena erabakitzen denean egingo du Justizia Administrazioaren letraduak seinalamendu berria, eta, ezinezkoa bada, atzerapena eragin duen zioa desagertu bezain laster.

2. Seinalamendu berria ahalik eta egunik gertuenerako egingo da, jadanik eginda daudenen hurrenkera aldatu gabe.

3. 179.3 artikuluko kasuetarako, eta artikuluko horretan ezarritako mugekin, seinalamendu berriaren datan errespetatu egingo da abokatuak gaixotasunagatik, adingabearen jaiotzagatik edo zaintzagatik ezarrita duen nahitaezko baja-aldia.

189 bis artikulua. Agerraldiez.

Esklusiboki Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean egin behar diren agerraldietan, 188. eta 189. artikuluen edukari jarraituko zaio, aplikatzekoak diren neurrian.

190. artikulua. Epaitzaile-aldaketak ikustaldiak seinalatu ondoren, eta errekusazio posiblea.

1. Epalea edo auzitegia osatzen duen magistraturen bat aldatzen denean seinalamendua egin ondoren eta ikustaldia egin baino lehen, hori gertatu bezain laster eta, kasu orotan, ikustaldiari hasiera eman baino lehen, alderdiei ezagutaraziko zaizkie aldaketa horiek, eta hargatik ez da eragotziko ekitaldia egitea, non eta ekitaldian ez den errekusatzen, hitzez bada ere, epalea edo aldaketaren ondorioz auzitegiko kide izatera pasa den magistratuetakoren bat.

2. Aurreko apartatuan aipatutako errekusazioa formulatzen bada, ikustaldia atzeratuko da, eta intzidentea izapidetuko da lege honetan xedatutakoaren arabera, eta, behin errekusazioa ebatzita, seinalamendu berria egingo da.

Hitzez formulatutako errekusazioan laburki adierazi beharko dira kausa edo kausak, eta idatziz formalizatu beharko da hiru eguneko epean. Epe horretan hala egiten ez bada, ez da onartuko, eta ehun eta berrogeita hamar eta seiehun euro arteko isuna ezarriko zaio errekusatzaileari; gainera, atzerapenak sortutako kostuak ordaintzera kondenatuko da. Aurreko ebazpena emandako egun berean, Justizia Administrazioaren letraduak seinalamendu berria egingo du ikustaldirako, ahalik eta azkarren.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

191. artikulua. Ikustaldiaren osteko errekusazioa.

1. Epailea edo magistratua edo magistratuak aldatzen diren kasuan, aurreko artikulua 1. apartatua aipatutakoan, ikustaldia egin denean errekusaziorik izan ez delako, auzitegia kide bakarrekoa bada, epaileak hiru egun igarotzen utziko ditu ebazpena eman aurretik, eta, kide anitzeko auzitegia bada, hiru egun atzeratuko da haren eztabaida eta bozketa.

2. Aurreko apartatua aipatutako epearen barruan, errekusatuak izan daitezke seinalamenduaren ondoren auzitegi kide izatera pasa diren epailea edo magistratuak, eta, alderdiek eskubide hori baliatzen ez badute, ebazpena emateko epea aurrera egiten hasiko da.

3. Artikulu honetan aipatutako kasuan, soilik onartuko dira ikustaldia hasi baino lehen jakin ezin ziren kausetan oinarritutako errekusazioak.

192. artikulua. Ikustaldiaren ondoren formulatutako errekusazioaren erabakiaren ondoreak.

Aurreko artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik formulatutako errekusazioa bidezkoa dela deklaritzen bada auto bidez, ondorerik gabe geratuko da ikustaldia, eta berriro gauzatuko da seinala daitekeen egunik gertuenean, errekusatuaren ordezkari diren epailearen aurrean edo magistratu gaituekin.

Errekusazioa onartzen ez dela deklaritzen denean, ikustaldian izan diren epaileak edo magistratuak emango dute ebazpena, eta hura emateko epea aurrera egiten hasiko da errekusazioari buruz erabaki zen dataren hurrengo egunetik.

192 bis artikulua. Justizia Administrazioaren letradua aldatzea seinalamenduaren ondoren. Errekusazio posiblea.

Aurreko hiru artikuluetan xedatutakoa Justizia Administrazioaren letraduei aplikatuko zaie haien aurrean soilik gauzatu beharreko jardunekiko.

193. artikulua. Ikustaldiak etetea.

1. Behin ikustaldi bat egiten hasita, eten ahal izango da soilik:

1.) Auzitegiak ekitaldian bertan erabaki ezin duen arazo intzidentalen bat ebatzi behar duenean.

2.) Auzitegiaren egoitzatik kanpo froga-eginbideren bat gauzatu behar denean, saio baten eta bestearen artean gauzatu ezin bada.

3.) Judizialki zitatutako lekukoak edo adituak agertzen ez direnean auzitegiak ezinbestekoa irizten badio haien deklarazioari edo txostenari.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Behin ikustaldia hasita, hura etetea eragingo lukeen inguruabarretako bat gertatzen denean, eta epaileak edo presidenteak hala erabakitzen duenean.

2. Ikustaldiari berriro ekingo zaio, hura etetea eragin zuen kausa behin desagertuta.

3. Ikustaldiari berriro ekin dakiokeenean hura eten eta hurrengo hogeit hamar egunen barruan, bai eta seinalamendu berria etendura erabakitzeko une berean egin daitekeen kasu guztietan ere, epaileak edo presidenteak ekingo dio, zeinak kontuan hartuko dituen seinalamenduen agenda programatuaren beharrak eta 182.4 artikuluko gainerako inguruabarrak.

Ezin zaionean ikustaldiari berriro ekin hura eten eta hurrengo hogeit hamar egunen barruan, edo ekitaldian bertan beste datarik seinalatu ezin denean, Justizia Administrazioaren letraduak finkatuko du data, 182. artikuluko aurreikuspenekin bat etorritik, ahalik eta datarik gertuenerako.

3. atala. Auzigaien bozketez eta epaitzez

194. artikulua. Zein epaileri eta magistraturi dagokion epaitza ematea.

1. Ikustaldi edo judizio bat egin ondoren epaitza eman beharreko auzigaietan, ebazpena idatzi eta sinatuko du, kide bakarreko auzitegietan, edo deliberamendua eta bozketa egingo dute, kide anitzeko auzitegietan, hurrenez hurren, ikustaldira edo judiziora bertaratu diren epaileak edo magistratuak, nahiz eta, haren ostean, auzigaiak arduratzen ari den auzitegian beren funtzioak betetzeari utzi.

2. Aurreko apartatuan xedatutakotik salbuesten dira epaile eta magistratuak, ikustaldia edo judizioa egin ondoren:

1.) Epaile- edo magistratu-izaera galdu badute.

Hala ere, artikuluko honen 1. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie epaileei eta magistratuei, adinagatik erretiroa hartu badute, eta ordezkotako epaileei eta magistratuei, kargua utzi badute uko egiteagatik, haien izendapen-epea igarotzeagatik edo hirurogeita hamabi urte betetzeagatik.

2.) Beren funtzioen betetzea eten bazaie.

3.) Jurisdikzio-funtzioak betetzearekin bateraezina den kargu publikoa edo lanbidea lortu badute, edo borondatezko eszedentzia-egoerara igaro badira herri-hautapeneko karguetara hautagai gisa aurkezteko.

194 bis artikulua. Justizia Administrazioaren zein letraduri dagokion ebaztea.

Aurreko artikuluan xedatutakoa Justizia Administrazioaren letraduei aplikatuko zaie, baldin eta lege honetan aurreikusitako ekitaldiak eta agerraldiak egin ondoren ebazpena eman behar badute.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

195. artikulua. Autoen edukiari buruz magistratuak informatzea kide anitzeko auzitegietan.

1. Txostengileak eskura izango ditu autoak, epaia emateko edo intzidenteak edo errekursoak erabakitzeke ebazpena emateko, eta auzitegiko gainerako kideek edozein unetan aztertu ahal izango dituzte haiek.

2. Ikustaldia amaituta hura erabakiaren aurretik doan auzigaietan edo, osterantzean, presidenteak deliberamendurako, bozketarako eta epaitza emateko seinalamendua egiten duen egunetik, magistratuetatik edozeinek eskatu ahal izango ditu autoak, haien azterketarako.

Batek baino gehiagok eskatzen dituztenean, buru denak finkatuko du zenbat denboraz eduki ahal izango dituen haietako bakoitzak, halako moldez non epaiak eman ahalko diren horretarako seinalatutako epearen barruan.

196. artikulua. Ebazpenen deliberamendua eta bozketa kide anitzeko auzitegietan.

Kide anitzeko auzitegietan, ikustaldia egin eta berehala eztabaidatuko eta bozkatuko dira ebazpenak, baldin eta hura egiten bada, eta, bestela, haiek eztabaidatzeko eta bozkatzeko eguna seinalatuko du presidenteak, legeak zehaztutako epearen barruan. Bi kasuetan, eztabaida eta bozketa bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izango dira, halakorik izanez gero, Justizia Administrazioan teknologiaren erabilerak erregulatzen dituen araudiak ezartzen duenarekin bat etorritik.

197. artikulua. Ebazpenak eztabaidatzeko eta bozkatzeko modua kide anitzeko auzitegietan.

1. Kide anitzeko auzitegietan, presidenteak zuzenduko du ebazpenen eztabaida eta bozketa, eta ateak itxita egingo da beti.

2. Magistratu txostengileak salaren edo atalaren deliberamendupean jarriko ditu egiteko puntuak eta zuzenbideko arazoak eta oinarriak, bai eta, bere iritziz, eman beharko litzatekeen erabakia ere, eta, behar den eztabaidaren ondoren, bozkatu egingo da.

198. artikulua. Ebazpenen bozketa.

1. Presidenteak erabaki ahal izango du bozketa bananduta egitea hartu beharreko egiteko edo zuzenbideko pronuntziamendu desberdinei buruz edo eman beharreko erabakiaren zati bati buruz.

2. Lehenik, txostengileak bozkatuko du, eta, gero, gainerako magistratuek, beren antzintasunaren alderantzizko hurrenkeran. Presidenteak bozkatuko du azken.

3. Bozketa hasita, ezin izango da eten, eragozpen gaindiezin bategatik baizik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

199. artikulua. Ikustaldiaren ondoren ezindutako magistratuen botoa.

1. Ikustaldiaren ondoren magistraturen bat ezindu bada, halako moldez non ezin den eztabaidara eta bozketara joan, idatziz emango du botoa, oinarrituta eta sinatuta, eta zuzenean igorriko dio auzitegiko presidenteari. Ezin badu ez idatzi ez sinatu, auzitegiko idazkariak baliatuko da.

Horrela emandako botoa gainerakoekin batera zenbatuko da, eta epai-liburuarekin gordeko da, buru denak sinatuta.

2. Magistratu ezinduak ezin duenean modu horretan ere botoa eman, ikustaldira bertaratutako gainerako magistratuek erabakiko dute auzigaia, gehiengo osatzeko nahikoak izanez gero. Nahikoak ez badira, beste ikustaldi bat egingo da, aurrekoan izan zirenekin eta ezinduak ordeztu behar dituenarekin edo dituztenekin; kasu horretan, lege honen 190. artikulutik 192.era xedatutakoa aplikatuko da.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, ikustaldian parte hartu zuen magistratuetakoren batek ezin duenean deliberamenduan eta bozketan esku hartu 194. artikuluan 2. apartatuan aurreikusitako kasuetakoren batean egoteagatik.

200. artikulua. Ikustaldira edo agerraldira bertaratutako epailearen edo Justizia Administrazioaren letraduaren ezintasuna.

1. Kide bakarreko auzitegietan, ikustaldira bertaratu den epailea ezindu bada haren ondoren eta ezin badu ebazpena eman, ezta Justizia Administrazioaren letraduaren laguntzarekin ere, beste ikustaldi bat egingo da, ezindua ordeztzen duen epailea buru izanik.

Gauza bera egingo da ikustaldian parte hartu duen epaileak ebazpena eman ezin duenean 194. artikuluan 2. apartatuan aurreikusitako kasuetakoren batean egoteagatik.

2. Aurrekoa Justizia Administrazioaren letraduei aplikatuko zaie, baldin eta, haien aurrean agerraldia egin ondoren, ebazpena eman ezin badute dela ezindu direlako dela 194 bis artikuluko kasuetan erori direlako.

201. artikulua. Botoen gehiengo.

Kide anitzeko auzitegietan, botoen gehiengo osoz emango dira autoak eta epaiak, non eta legeak ez duen berariaz zehazten proportzio handiago bat.

Ezein kasutan ezin galdatuko da gehiengoaren araua betetzen ez duen aldeko boto-kopururik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

202. artikulua. Diskordiak.

1. Ebazpen baten bozketan botoen gehiengorik ez dagoenean eman beharreko egitezko edo zuzenbideko edozein pronuntziamenduri buruz, berriro eztabaidatu eta bozkatuko dira boto-emaileak bat etorri ez diren puntuak.

2. Adostasunik lortu ezean, beste ikustaldi bat eginez ebatziko da diskordia; lehenengora joan ziren magistratuak bertaratuko dira, gehi beste bi, diskordanteen kopurua bakoitia izanez gero, edo gehi beste hiru, diskordanteen kopurua bikoitia izanez gero. Horretarako, lehenik, salako edo ataleko presidentea bertaratuko da, jada joan ez bada; bigarrenik, auzia ikusi ez eta sala berekoak diren magistratuak; hirugarrenik, auzitegiko presidentea; eta, azkenik, gainerako saletako edo ataletako magistratuak, jurisdikzio-ordena berekoek lehentasuna dutela, gobernu-salak erabakitako hurrenkeraren arabera.

3. Aurreko apartatuaren arabera osatutako salaren buru izan behar duenak seinalatuko ditu, probidentzia bidez, diskordia-ikustaldiak eta kasuan kasuko izendapenak.

4. Artikulu honen bigarren apartatuan aurreikusitako salak ebazpen baten bozketan gehiengorik ere lortzen ez badu diskordia-puntuei buruz, beste bozketa bat egingo da, eta bozketapean jarriko dira soilik aurreko bozketan boto gehien lortu dituzten bi iritziak.

203. artikulua. Ebazpenen idazketa kide anitzeko auzitegietan.

Kide anitzeko auzitegietan, txostengileari dagokio idaztea salan edo atalean eztabaidatu diren ebazpenak, baldin eta erabakitakoarekin ados badago.

Txostengilea ez badago ados gehiengoaren botoarekin, uko egingo dio ebazpena idazteari, eta zioak emanez formulatu beharko du bere boto partikularra. Kasu horretan, presidenteak beste magistratu bati emango dio idazketaren ardura, eta beharrezkoa den zuzenketa egingo du txostenen txandan, bertan berdintasuna berrezartzeko.

204. artikulua. Ebazpenen sinadura.

1. Ezinduta ez dauden epaile edo magistratu guztiek sinatuko dituzte ebazpen judizialak, haiek emateko ezarritako epearen barruan.

2. Kide anitzeko auzitegi batek auzigaia erabaki ondoren ezindu bada botoa eman duen magistratuetakoren bat eta ezin badu ebazpena sinatu, buru izandakoak sinatuko du haren ordeaz, zein magistraturen izenean sinatzen duen adieraziz eta magistratu ezinduak botoa eman zuela baina ezin izan zuela sinatu jasota utziz.

Ezindua presidentea bada, magistraturik antzinakoenak sinatuko du haren ordeaz.

3. Justizia Administrazioaren letraduaren sinadura bidez baimendu edo publikatu behar dira ebazpen judizialak, deuseztasun-zigorren menpe.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

205. artikulua. Boto partikularrak.

1. Behin betiko epai edo auto baten bozketan parte hartzen duen orok sinatuko du erabakitakoa, gehiengoarekin bat ez etorri arren. Kasu horretan, bozketa- edo sinadura-unean hala iragarrita, boto partikularra formulatu ahal izango du, epai-forman; bertan, adostasuna adierazi ahal izango die, igorpen bidez, auzitegiak emandakotik onartzen dituen egitezko puntuei eta zuzenbideko oinarriei.

2. Boto partikularra, egilearen sinadurarekin, epai-liburuan txertatuko da, eta alderdiei jakinaraziko zaie, gehiengoak onartutako epaiarekin batera. Legearen arabera nahitaezkoa denean epaia publikatzea, harekin batera publikatu beharko da boto partikularra, halakorik bada.

3. Boto partikularra formulatu ahal izango da, orobat, aurreko apartatuetan xedatutakoari lotuta, aplikagarria den heinean, laburki arrazoitutako auto eta probidentziekiko.

VIII. KAPITULUA

Ebazpen prozesalez

1. atala. Ebazpenen motez, formaz eta edukiaz eta haiek emateko, publikatzeko eta artxibatzeke moduz

206. artikulua. Ebazpen-motak.

1. Ebazpen judizialak dira epaileek eta auzitegiek emandako probidentziak, autoak eta epaiak.

Deklarazio-prozesuetan, legeak adierazten ez duenean zein motatako ebazpen judiziala erabili behar den, honako erregela hauek beteko dira:

1.) Probidentzia emango da, ebazpena ari denean, legeak hala ezartzen duelako, erabaki judiziala behar duten arazo prozesalez, betiere autoaren forma berariaz galdatzen ez badute kasu horiek.

2.) Autoak emango dira, baldin eta erabakitzen badira probidentzien edo dekretuen aurkako errekursoak, edota ebazten bada demanda onartzeari edo ez onartzeari buruz edo errekonbentzioari, akzio-metaketari, froga onartzeari edo ez onartzeari, transakzioen onespén judizialari, bitartekaritza-akordioei eta hitzarmenei, kautela-neurriei eta jardunen deuseztasunari edo baliozkotasunari buruz.

Halaber, autoaren forma izango dute aurrebaldintza prozesalei buruzko ebazpenek, erregistroko idatzoharrei eta inskripzioei buruzkoek eta arazo intzidentalei buruzkoek, lege honetan izapidetze berezia zehaztuta izan ala ez, betiere legeak auzitegiaren erabakia galdatzen badu kasu horietan, bai eta izapidetze arrunta bukatu aurretik auzialdi edo errekurso baten jardunei amaiera ematen dieten ebazpenek ere, salbu



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

eta, azken horiei dagokienez, legeak dekretu bidez amaitu behar dutela xedatu badu. Kasazio-errekurtsoa auto bidez erabaki ahal izango da 487.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

3.) Epaia emango da prozesuari amaiera emateko, lehen edo bigarren auzialdian, behin legean aurreikusi zaion izapidetze arrunta amaituta. Epaia bidez ebatziko dira, halaber, kasazio-errekurtsok eta epai irmoak berrikusteko prozedurak, 487.1 artikuluan xedatutakoa izan ezik.

2. Justizia Administrazioaren letraduen ebazpenak eginbide eta dekretu deituko dira.

Legeak adierazten ez duenean zein ebazpen-mota erabili behar den, honako erregela hauek beteko dira:

1.) Antolaketa-eginbidea emango da, ebazpenaren xedea denean autoei legeak ezarritako aribidea ematea.

2.) Dekretua emango da, demanda izapidetzeko onartzen denean, edo amaiera ematen zaionean idazkariaren eskumen eskusiboko prozedurari, edota, edozein motatako prozeduratan, beharrezkoa edo komenigarria denean ebatzitzakoa arrazoitzea.

3.) Jasotze-, komunikazio- edo betearazpen-eginbideak emango dira garrantzia prozesala duten egitateak edo egintzak autoetan jasotzearen ondoretarako.

3. Betearazpen-prozesuetan, aurreko apartatuetan ezarritako erregelari jarraituko zaie, aplikatzekoak diren neurrian.

207. artikulua. Behin betiko ebazpenak. Ebazpen irmoak. Gauza epaitu formala.

1. Behin betiko ebazpenak dira lehen auzialdiari amaiera ematen diotenak eta haien aurka jarritako errekurtsok erabakitzen dituztenak.

2. Ebazpen irmoak dira aurkako errekurtsorik jartzerik onartzerik ez duten haiek, dela legeak halakorik aurreikusten ez duelako, dela, aurreikusi arren, legez finkatutako epea igaro delako alderdietatik batek ere hura aurkeztu gabe.

3. Ebazpen irmoek gauza epaituaren izaera izango dute, eta eman diren prozesuko auzitegiak, kasu orotan, haietan xedatutakoari jarraitu beharko dio.

4. Ebazpen bat errekurritzeko aurreikusitako epeak igaro eta aurkaratu ez bada, irmo geratuko da, eta gauza epaituaren izaera hartuko du; bertan xedatutakoari jarraitu beharko dio ebazpena eman den prozesuko auzitegiak, kasu orotan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

208. artikulua. Ebazpenen forma.

1. Antolaketa-eginbideak eta probidentziak haien bidez agindutakoa adieraztera mugatuko dira, eta zioak ere adieraziko dituzte laburki, legeak hala xedatzen duenean edo haiek eman behar dituenak komenigarria irizten dionean.

2. Dekretuak eta autoak ziodunak izango dira beti, eta paragrafo banandu eta zenbakituetan jasoko dituzte egitezko aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak, ondoren datorren xedapen-atalaren edo epaitzaren oinarri izango direnak.

3. Epaiak eta autoak badira, eman dituen auzitegia zehaztu beharko da, hura osatzen duen epailea edo magistratuak eta haien sinadura adierazita, eta, auzitegia kide anitzekoa denean, txostengilearen izena zehaztuta. Justizia-salek emandako probidentziak badira, nahikoa izango da txostengilearen sinadura.

Justizia Administrazioaren letraduek emandako ebazpenetan, beti zehaztuko da eman duenaren izena, eta bere sinadura jarriko du bertan.

4. Ebazpen orok jasoko ditu hura ematen den lekuaren eta dataren aipamena eta hura irmoa den edo haren aurka jartzeko moduko errekurtsorik dagoen; azken kasu horretan, aipatu egingo dira bidezko errekurtsua, zer organoren aurrean jarri behar den eta zer epetan errekurritu behar den.

209. artikulua. Epaien formari eta edukiari buruzko erregela bereziak.

Epaiak aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera formulatuko dira, eta, gainera, erregela hauen menpe:

1. Goiburuan, alderdien izenak adierazi beharko dira eta, beharrezkoa denean, zer legitimazioen eta ordezkaritzaren arabera jarduten duten, bai eta abokatuen eta prokuradoreen izenak eta judizioaren objektua ere.

2. Egitezko aurrekarietan, jasota utziko dira, ahalik eta argien eta zehatzen eta paragrafo banandu eta zenbakituetan, alderdien edo interesdunen uziak, haien oinarri diren egitateak, baldin eta behar bezala alegatu badira eta ebatzi beharreko arazoekin lotura badute, proposatutako eta gauzatutako frogak eta frogatutako egitateak, kasua denean.

3. Zuzenbideko oinarrietan, alderdiek finkatutako egitezko eta zuzenbideko puntuak eta arazo eztabaidagarriek eskaintzen dituztenak adieraziko dira, paragrafo banandu eta zenbakituetan, eman beharreko epaitzaren arrazoiak eta legezko oinarriak azalduz eta kasuari aplikatu beharreko arau juridikoak zehazki adieraziz.

4. Epaitzak, 216. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakora egokituko baita, alderdien uziei dagozkien pronuntziamenduak jasoko ditu, zenbakituta, nahiz eta uzi horien guztien edo horietako batzuen baiestea edo ezestea oinarri juridikoetatik ondorioztatu ahal izan, bai eta kostuei buruzko pronuntziamendua ere. Halaber, kasua denean, kondenaren objektua den zenbatekoa ere zehaztuko du, haren zehaztapena ezin izango baita utzi epaiaren betearazpenerako, hargatik eragotzi gabe lege honen 219. artikuluan xedatutakoa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

210. artikulua. Ahozko ebazpenak.

1. Legeak pronuntziamendua geroratzea ahalbidetu ezean, auzitegiaren edo Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean egindako ikustaldi, entzunaldi edo agerraldi batean eman behar diren ebazpenak ekitaldian bertan pronuntziatuko dira, ahoz, eta epaitza eta ebazpen horien zioak labur-labur adierazita dokumentutako da ekitaldia.

2. Ebazpen bat ahoz pronuntziatuta, prozesuan alderdi diren pertsona guztiak ekitaldian bertan badaude, beren kabuz edo behar bezala ordezkaturik, eta ez errekurritzea erabaki dutela adierazten badute, ebazpenaren irmotasuna deklaratu da ekitaldian bertan.

Kasu horretatik kanpo, errekurtsioa jartzeko epea zenbatzen hasiko da behar bezala idatzitako ebazpenaren jakinarazpenetik.

3. Ezein kasutan, ez da epairik ahoz emango prozesu zibiletan.

211. artikulua. Ebazpen judizialak emateko epea.

1. Legeak ezarritako epearen barruan emango dira auzitegien eta Justizia Administrazioaren letraduen ebazpenak.

2. Epea ez betetzeak diziplina-zuzenketa ekarriko du, arrazoi zuzena eman ezean, eta ebazpenean jasoaraziko da.

212. artikulua. Epaiak publikatzea eta artxibatzea.

1. Epaiak eta gainerako behin betiko ebazpenak, behin eginda eta eman zituztenek sinatuta, publikatu egingo dira, eta bulego judizialean gordailutu; Justizia Administrazioaren letraduak aginduko du haiek jakinaraz eta artxiba daitezela, eta Konstituzioan eta legeetan ahalbidetutako edo agindutako moduan publikatuko dira.

2. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 236 quinquies artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, edozein interesdunek izango du irispidea epaien testuetara edo haien zati jakin batzuetara. Irispide hori soilik erabili ahal izango da aurretiaz disoziatuta haietan dauden izaera pertsonaleko datuak eta erabat errespetatuta intimitaterako eskubidea, babes-behar berezia duten pertsonen eskubideak eta kalte dunen anonimotasunaren bermea, bidezkoa denean; orobat, epaiak legeen aurkakoak diren helburuekin erabil daitezzen saihestuko da.

3. Justizia Administrazioaren letraduak Lehiaren Batzorde Nazionalari komunikatuko dizkio Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. eta 82. artikulua edo Lehia Defendatzeko Legearen 1. eta 2. artikulua aplikatzeari buruzko prozeduretan emandako epaiak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Auzitegiak espediente judizial elektronikorik ez duen kasuetan, Justizia Administrazioaren letraduek autoetan ipiniko dute epaien eta gainerako behin betiko ebazpenen hitzez hitzeko ziurtagiria.

Auzitegiak espediente judizial elektronikoa duen kasuetan, zaindu egingo da bertan sartu eta jasota gera dadin epaia, elektronikoki sinatua, Justizia Administrazioan teknologiaren erabilera erregulatzen duen araudiak aurreikusitako baldintzetan.

213. artikulua. Epai-liburua.

Auzitegi bakoitzean epai-liburu bat eramango da, Justizia Administrazioaren letraduaren zaintzapean, eta bertan jasoko dira, sinaturik, behin betiko epai guztiak, izaera bereko autoak, bai eta formulatutako boto partikularrak ere, dataren arabera modu korrelatiboan ordenatuak. Sistema informatikoek liburu elektronikoak sortzeko aukera ematen dutenean, sistemak behar bezala erabiltzen direla zainduko du Justizia Administrazioaren letraduak.

213 bis artikulua. Dekretu-liburua.

Auzitegi bakoitzean dekretu-liburu bat eramango da, Justizia Administrazioaren letraduaren ardurapean eta zaintzapean, eta bertan jasoko dira, sinaturik, behin betiko dekretu guztiak, modu kronologikoan ordenatuak. Sistema informatikoek liburu elektronikoak sortzeko aukera ematen dutenean, sistemak behar bezala erabiltzen direla zainduko du Justizia Administrazioaren letraduak.

214. artikulua. Ebazpenen aldaezintasuna. Argitzea eta zuzentzea.

1. Auzitegiek ezin izango dituzte pronuntziatu dituzten ebazpenak aldatu sinatu ondoren, bai, ordea kontzeptu ilunen bat argitu eta haietan jasotako edozein oker material zuzendu.

2. Aurreko apartatuan aipatutako argibideak ofizioz egin ahal izango ditu auzitegiak edo Justizia Administrazioaren letraduak, kasuan kasu, ebazpena publikatu eta hurrengo bi egun baliodunen barruan, edo alderdiaren edo Fiskaltzaren eskariz, epe beraren barruan; halakoetan, kasuan kasuko ebazpena eman duenak ebatziko du, hura argi dadila eskatzeko idazkia aurkeztu eta hurrengo hiru egunen barruan.

3. Auzitegien eta Justizia Administrazioaren letraduen ebazpenetako ageriko oker materialak eta aritmetikoak edozein unetan zuzendu ahal izango dira.

4. Ezin izango da errekursorik jarri argitzeari edo zuzentzeari buruz erabakitzen duen ebazpenaren aurka, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren errekursoak jartzea, kasua denean, eskaeraren edo ofiziozko jardunaren oinarri den ebazpenaren aurka.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

215. artikulua. Epai eta auto akastunak edo osatugabeak konpontzea etaosatzea.

1. Epaietan eta autoetan gerta litezkeen omisioak edo akatsak, ebazpen horiek ondore guztiak izan ditzaten konpondu beharrekoak, aurreko artikuluan ezarritako epe beretan eta prozedura berarekin konpondu ahal izango dira, auto bidez.

2. Epaietan edo autoetan argi eta garbi omititu badira prozesuan egokiro aurkeztu eta bideratu diren uziei dagozkien pronuntziamenduak, auzitegiak, alderdiak ebazpena jakinarazi zaionetik bost eguneko epean idatziz eskatu ondoren eta bost eguneko epean alegazio idatziak egin ditzaten Justizia Administrazioaren letraduak eskaera hori gainerako alderdiei helarazi ondoren, autoa emango du, omititutako pronuntziamenduarekin ebazpena osa dadila ebazten duena edo osatzea onartzen ez dela ebazten duena.

3. Auzitegia ohartzen bada eman dituen epai edo autoetan aurreko apartatuan aipatutako omisioak daudela, ofizioz osatu ahal izango du bere ebazpena, auto bidez, ebazpena ematen den datatik kontatzen hasita bost eguneko epean, baina erabakitakoa aldatu edo zuzendu gabe.

4. Aurreko apartatueta ezarritako modu berean jardungo du Justizia Administrazioaren letraduak berak emandako dekretuak konpondu edo osatu behar direnean.

5. Ezin izango da errekurtsorik jarri artikulua honen aurreko apartatueta aipatutako ebazpenak osatzen dituzten edo osatzea ukatzen duten autoen edo dekretuen aurka, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren errekurtsioak jartzea, kasua denean, eskaeran edo auzitegiaren edo Justizia Administrazioaren letraduaren ofiziozko jardunean aipatutako epaiaren, autoaren edo dekretuaren aurka. Errekurtsioak bidezkoak badira, haietarako epeak eten egingo dira hura argitzea, zuzentzea, konpontzea edo osatzea eskatzen denetik, eta zenbatzeari ekingo zaie pronuntziamenduaren omisioa aitortu edo ukatu eta hura konpontzea erabakitzen edo ukatzen duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik.

2. atala. Epaiaren barne-betekizunez eta ondoreez

216. artikulua. Erregututako justiziaren printzipioa.

Auzitegi zibilek auzigaiak erabakiko dituzte alderdiek ekarritako egitateen, frogen eta uzien arabera, salbu eta legeak kasu berezietan beste zerbait xedatzen duenean.

217. artikulua. Froga-zama.

1. Epai edo antzeko ebazpena emateko unean, auzitegiaren iritziz dudazkoak badira erabakia emateko garrantzitsuak diren egitate batzuk, ezetsi egingo ditu auzi-jartzailearen edo errekonbentzio-egilearen uziak, edo demandatuarenak edo errekonbentzio-hartzailearenak, zalantzaizkoak izaten jarraitu eta uziaren oinarri diren egitateak frogatzearen zama batzuei edo besteei egokitu eta horren arabera.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Auzi-jartzaileari eta demandatu errekonbentzio-egileari dagokie egitateen ziurtasuna frogatzearen zama, baldin eta egitate horietatik, aplikagarri zaizkien arau juridikoen arabera, eskuarki ondorioztatzen bada demandaren eta errekonbentzioaren uziei dagokien ondore juridikoa.

3. Demandatuari eta auzi-jartzaile errekonbentzio-hartzaileari dagokie egitateak frogatzearen zama, baldin eta egitate horiek, aplikagarri zaizkien arauen arabera, eragotzi, azkendu edo ezerezten badute aurreko apartatuan aipatutako egitateen efikazia juridikoa.

4. Lehia desleialari eta publizitate ez-zilegiari buruzko prozesuetan, demandatuari dagokio froga-zama, hurrenez hurren, egin diren azalpen eta adierazpenei dagokienez eta publizitateak plazaratzen dituen datu materialen zehaztasunari eta egiazkotasunari dagokionez.

5. Auzi-jartzailearen alegazioen oinarria sexuagatiko, sexu-orientazio eta -identitateagatiko, genero-adierazpenagatiko edo sexu-ezaugarriengatiko jardun diskriminatzaileak diren prozeduretan, eta haien existentziaren zantzu oinarritunak aurkezten dituenean, alderdi demandatuari egokituko zaio hartutako neurrien eta horien proportzionaltasunaren justifikazio objektibo eta arrazoizkoa aurkeztea, behar bezala frogatua.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondoreetarako, organo judizialak, ofizioz edo alderdi-eskariz, txostena edo irizpena eskatu ahal izango die organismo publiko eskudunei.

6. Aurreko apartatuetako arauak aplikatuko dira berariazko lege-xedapen batek egitate garrantzitsuak frogatzearen zama irizpide bereziekin banatzen ez duen guztietan.

7. Artikulu honen aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatzeko, auzitegiak kontuan hartu beharko du auziko alderdi bakoitzaren froga-eskuragarritasuna eta -erraztasuna.

218. artikulua. Epaien exhaustibotasuna eta kongruentzia. Zioak.

1. Epaiek argiak eta zehatzak izan behar dute, eta kongruenteak alderdiek auzian behar bezala aurkeztutako demandekin eta gainerako uziekin. Haiek galdatutako deklarazioak egingo dituzte, demandatua absolbituz edo kondenatuz eta auzian eztabaidagai izan diren puntu guztiak erabakiz.

Auzitegiak, eskatzeko kausatik aldendu gabe alderdiek baliatu nahi izan dituzten egitezko edo zuzenbideko oinarrietatik bestelakoak bilduta, kasuari aplikagarri zaizkion arauen arabera ebatziko du, auzilariek haiek zuzenki aipatu edo alegatu ez arren.

2. Epaietan zioak emango dira, arrazoibide faktiko eta juridikoak adierazita, dela frogak hautematera eta baloratzera dela zuzenbidea aplikatzera eta interpretatzera zuzenduak. Zioek auziaren elementu faktiko eta juridiko desberdinak azpimarratu beharko dituzte, banaka eta batera aintzat hartuta, beti bat etorrita logikaren eta arrazoiaren erregelekin.

3. Auziaren objektu zenbait puntu izan badira, auzitegiak haietako bakoitzari dagokion pronuntziamentua emango du, behar bezala bananduta.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

219. artikulua. Epaiak likidazioaren erreserbarekin.

1. Judizioan erreklamatzen denean diru-kopuru zehatz baten ordainketa edota edozein motatako fruitu, errenta, onura edo produkturena, demanda ezin izango da mugatu haiek eskuratzeko eskubidea soilik deklaratzeko duen epaia lortzera, baizik eta haiek ordaintzeko kondena ere eskatu beharko da, haren zenbatekoa zehatz-mehatz kuantifikatuta, epaiaren betearazpenean haren zehaztapena ezin eska daitekeela, edo likidazioa zein oinarriaren arabera gauzatu behar den argiro finkatuta, halako moldez non hura eragiketa aritmetiko hutsa izango baita.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kasuetan, kasuan kasuko kopuruen zenbateko zehatza ezarriko du kondena-epaiak, edo argiro eta zehatz-mehatz finkatuko ditu haren likidaziorako oinarriak, halako moldez non betearazpenean egingo den eragiketa aritmetiko sinple bat izango baita.

3. Aurreko kasuetatik kanpo, demandatzaileak ezin izango du eskatu, eta auzitegiak ere ezin izango du epaian ezarri, kondena ematea likidazioa betearazpenean egiteko erreserbarekin. Aurrekoa gorabehera, demandatzaileari utziko zaio eskatzen eta auzitegiari epaian ezartzen, diru-kopurua, fruituak, errentak, onurak edo produktuak ordaintzeko kondena, baldin eta hura bada planteatutako uzi bakarra eta osteko auzi baterako uzten badira kopuruen likidazio zehatzaren arazoak.

220. artikulua. Etorkizunerako kondenak.

1. Korritu edo prestazio periodikoen ordainketa erreklamatzen denean, epaiak barnean hartu ahal izango du epaia emandako unearen ostean sortutako korrituak edo prestazioak ordaintzeko kondena.

2. Errenta periodikoak erreklamatzen diren kasuetan, ez ordaintzeagatiko edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatiko utzarazpen-akzioari erreklamazio-akzioa metatzen zaionean eta demandatzaileak bere demanda-idazkian berariaz eskatu duenean, epaiak, autoak edo dekretuak barnean hartuko du demanda aurkeztu ostean sortu eta finkaren benetako edukitza entregatu arte zor diren errentak ere ordaintzeko kondena; etorkizuneko errenten likidazioaren oinarri gisa hartuko da demanda aurkeztean erreklamaturako azken hilekoaren zenbatekoa.

221. artikulua. Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen elkarteek sustatutako prozesuetan emandako epaiak.

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe, lege honen 11. artikuluan aipatutako legitimazioarekin kontsumitzaileen edo erabiltzaileen elkarteek jarritako demanden ondorioz emandako epaiak honako erregela hauek beteko dituzte:

1.) Diruzko, zerbait egiteko, ez egiteko edo gauza espezifiko edo generikoa emateko kondena eskatu bada, epai baiesleak banan-banan zehaztuko ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileak, haiek babesteari buruzko legeekin bat etorritik kondenaren onuradun gisa ulertu behar direnak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Banakako zehaztapena ezinezkoa denean, epaiak beharrezkoak diren datuak, ezaugarriak eta betekizunak ezarriko ditu ordainketa galdatu ahal izateko, eta, kasua denean, betearazpena eskatu ahal izateko edo, hura elkarte demandatzaileak eskatuz gero, bertan esku hartu ahal izateko.

2.) Kondenaren aurrebaldintza gisa edo pronuntziamendu nagusi edo bakar gisa deklaratzeko bada jardura edo jokabide zehatzen bat zilegia ez dela edo legearen arabera ez dela, epaiak zehaztuko du, kontsumitzaile edo erabiltzaileak babesteko legearen arabera, deklarazioak sortutako ondore prozesalari kasuan kasuko prozesuan alderdi izan direnei mugatuko zaizkien ala ez.

3. Kontsumitzaile edo erabiltzaile zehaztuak pertsonatu badira, haien uziei buruz berariaz pronuntziatu beharko da epaia.

2. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen eta interes lausoen defentsan bukarazte-akzio bat baiesten den epaietan, auzitegiak, bidezkoa irizten badio, eta demandatuaren kontura, epaia osorik edo zati batean publikatzea erabaki ahal izango du, edo, arau-haustearen ondorek denboran zehar iraun badezakete, deklarazio zuzentzaile bat.

222. artikulua. Gauza epaitu materiala.

1. Epai irmoen, nola baiesleen hala ezesleen, gauza epaituak eragotzi egingo du, legearen arabera, hura sortu zen prozesuaren objektu bera daukan osteko beste prozesu bat egitea.

2. Gauza epaituak demandaren eta errekonbentzioaren uziak hartuko ditu barnean, bai eta lege honen 408. artikuluan 1. eta 2. apartatuetan aipatutako puntuak ere.

Egitate berritzaile eta desberdintzaile hartuko dira, aipatutako uzien oinarriari dagokionez, uzi horiek formulatu ziren prozesuan alegazio-egintzak erabat prekluitu ostekoak.

3. Gauza epaituak ukituko ditu hura eman den prozesuko alderdiak eta haien jaraunsleak eta kausadunak, bai eta beste subjektu ez-auzilarik batzuk ere, alderdien legitimazioa lege honen 11. eta 11 bis artikuluetan aurreikusitakoaren arabera oinarritzen duten eskubideen titularrak badira.

Egoera zibilar, ezkontzari, filiazioari, aitaltasunari, amatasunari eta gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak buruzko epaietan, gauza epaituak ondoreak izango ditu hirugarrenei begira, erregistro zibilean inskripzioa edo idatzoharra egiten denetik.

Sozietate-erabakiak aurkaratzeak buruz ematen diren epaiek bazkide guztiak ukituko dituzte, auzitan aritu ez diren arren.

4. Prozesu bati amaiera eman dion epai irmoan gauza epaituaren indarrarekin ebatzitaik lotetsi egingo du osteko prozesu bateko auzitegia, baldin eta azken prozesu horretan azaltzen bada prozesuaren objektu denaren aurrekari logiko gisa, betiere bi prozesuetako auzilariak berberak badira edo gauza epaitua haietara hedatzen bada lege-xedapen bidez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. atala. Antolaketa-eginbideez

223. artikulua. Antolaketa-eginbideak.

(Edukirik gabe)

224. artikulua. Antolaketa-eginbideak berrikustea.

(Edukirik gabe)

IX. KAPITULUA

Jardunen deuseztasunaz

225. artikulua. Erabateko deuseztasuna.

Egintza prozesalak erabat deusez izango dira honako kasu hauetan:

1. Jurisdikziorik edo eskumen objektibo edo funtzionalik ez duen auzitegi baten bidez edo aurrean egiten direnean.
2. Indarkeriapean edo larderiapean egiten direnean.
- 3.) Prozeduraren funtsezko arauak alde batera uzten direnean, betiere, arrazoi hori dela-eta, defentsa-gabezia sor badaiteke.
4. Abokatuaren esku-hartzerik gabe egiten direnean, legeak nahitaezkoa dela ezartzen duen kasuetan.
5. Ikustaldiak Justizia Administrazioaren letraduaren nahitaezko esku-hartzerik gabe egiten direnean.
6. Legearen arabera probidentzia, auto edo epai bidez ebatzi behar diren arazoak antolaketa-eginbide edo dekretu bidez ebatzen direnean.
7. Lege honek hala ezartzen duen gainerako kasuetan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

226. artikulua. Jarduteko modua, larderia edo indarkeria dagoenean.

1. Larderiapean edo indarkeriapean jardun duten auzitegiek, hartatik libratu bezain laster, deusez deklaratuko dute egindako guztia, eta errudunen aurkako auzia eratu dadila sustatuko dute, egitateak Fiskaltzari ezagutarazita.

2. Orobat deusez deklaratuko dira alderdien edo prozesuan esku hartzen duten pertsonen egintzak, baldin eta larderiapean edo indarkeriapean egin zirela egiaztatzen bada. Egintza horien deuseztasunak gainerako guztiena ekarriko du, baldin eta haiekin lotura badute edo egintza deusezak funtsean baldintzatu edo eragin baditzake.

227. artikulua. Jardun prozesalen deuseztasun-deklarazioa eta deuseztatze-uziak.

1. Erabateko deuseztasuna, kasu orotan, eta, egintza prozesalen forma-akatsak, beren helburua lortzeko ezinbestekoak diren betekizunak ez betetzea dakartenak edo benetako defentsa-gabezia sortzen dutenak, kasuan kasuko ebazpenaren aurka legean ezarritako errekurtsoen bidez baliaraziko dira.

2. Hari kalterik egin gabe, auzitegiak, ofizioz edo alderdi-eskariz, prozesua amaitzen duen ebazpena eman baino lehen eta betiere konponketa bidezkoa ez bada, jardun guztien edo zehatz baten deuseztasuna deklaratu ahal izango du, alderdiei entzun ondoren.

Ezein kasutan auzitegiak ezin izango du ofizioz dekretatu, errekurtsorik bat dela-eta, errekurtsorik horretan eskatu ez den jardunen deuseztasun bat, salbu eta jurisdikziorik edo eskumen objektibo edo funtzionalik eza hautematen badu edota auzitegi horri ukitzen dion indarkeria edo larderiarik gertatu bada.

228. artikulua. Jardunak deuseztatzeko salbuespenezko intzidentea.

1. Oro har, ez da onartuko jardunak deuseztatzeko intzidenterik. Hala eta guztiz ere, salbuespenez, alderdi legitimo direnek edo izan beharko zuketenean jardunen deuseztasuna deklaratu dadila eskatu ahal izango dute, idatziz, Konstituzioaren 53.2 artikuluan aipatutako oinarritzko eskubideetako baten edozein urraketatan oinarrituta; betiere salatu ezin izan bada prozesua amaitzen duen ebazpena eman baino lehen, eta, betiere, ebazpen horren aurka ezin bada ez errekurtsorik ez apartekorik jarri.

Intzidente horretaz arduratzeko eskudun izango da irmo bihurtutako ebazpena eman zuen auzitegi bera. Deuseztasuna eskatzeko epea hogeita egunekoa izango da, ebazpenaren jakinarazpenetik edo, kasu orotan, defentsa-gabezia sortu zuen akatsa ezagutu zenetik; azken kasu horretan, ezin izango da jardunen deuseztasuna eskatu ebazpenaren jakinarazpenetik bost urte igaro badira.

Auzitegiak, laburki arrazoitutako probidentzia bidez, ez du izapidetzeko onartuko beste arazo batzuk planteatu nahi dituen ezein intzidente. Ezin izango da errekurtsorik jarri intzidentea izapidetzeko onartzen ez duen ebazpenaren aurka.

2. Artikulu honen aurreko apartatuan aipatutako akatsetan oinarritutako deuseztasuna eskatzeko idazkia izapidetzeko onartuta, ez da etenda geratuko epai edo ebazpen errekurriei zuzenaren betearazpena eta



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

efikazia, non eta etendura ez den esanbidez erabakitzen intzidenteak bere helburua galtzea saihesteko; Justizia Administrazioaren letraduak gainerako alderdiei helaraziko die idazki hori, baita, kasua denean, eskabidearen oinarri den akatsa egiaztatzeko harekin batera aurkeztu diren dokumentuen kopia ere, eta alderdi horiek bost eguneko epe komunean formulatu ahal izango dituzte, idatziz, beren alegazioak, egoki irizitako dokumentuekin batera.

Deuseztasuna baiesten bada, hura sortu zuen akatsaren aurre-aurreko egoerara itzuliko dira jardunak, eta legez ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Deuseztasun-eskaera ezesten bada, eskatzailea kondenatuko da, auto bidez, intzidentearen kostu guztiak ordaintzera, eta, auzitegiak ulertzen badu ausarkeriaz sustatu zela, laurogeita hamar eurotik sei ehun euro bitarteko isuna ezarriko dio gainera.

Ezin izango da errekurtsorik jarri intzidentea ebazten duen ebazpenaren aurka.

229. artikulua. Ezarritako denboraz kanpo egindako jardun judizialak.

Ezarritako denboraz kanpo egindako jardun judizialak deuseztatu ahal izango dira, soilik, epemugaren edo epearen izaerak ezartzen badu.

230. artikulua. Egintzak kontserbatzea.

Egintza baten deuseztasunak ez du berekin ekarriko hartatik independenteak diren ostekoena, ezta ere deuseztasunari bidea eman zion arau-haustea gertatu ez balitz ere beren edukia aldaketarik gabe mantenduko zutenena.

231. artikulua. Konpontzea.

Auzitegiak eta Justizia Administrazioaren letraduak begiratuko dute alderdien egintza prozesaletako akatsak konpontzeko modua izan dadila.

X. KAPITULUA

Autoak berreraikitzeaz

232. artikulua. Fiskaltzaren eskumena eta esku-hartzea.

1. Mota orotako jardun judizialen berreraikitze osoa edo partziala izapidetzeko eskudun izango da desagerpena edo erauzketa gertatu den bulego judizialeko idazkaria.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Jardunak berreraikitzeke prozeduretan, alderdi izango da, beti, Fiskaltza.

233. artikulua. Jardunak berreraikitzeke espedientea hastea.

Auzitegiak, edo Justizia Administrazioaren letraduak bere eskumen eskusiboko jardunetan, ofizioz, edo alderdiek edo haien jaraunsleek, kasua denean, autoak berreraiki daitezela eskatu ahal izango dute. Alderdi-eskariz hasi bada prozedura, honako puntu hauek dituen idazki bidez hasi beharko da:

1. Noiz gertatu zen desagerpena edo mutilazioa, ahalik eta zehatzen.
2. Auzigaiaren egoera prozesala.
3. Jakineko datuak eta ikerketa-bideak, berreraikitzea ahalbidetu dezaketenak.

Idazki horrekin batera aurkeztuko dira, ahal den neurrian, dokumentuetatik kontserbatzen diren kopia autentikoak eta pribatuak, eta, bestela, dokumentuen matrizeak dauden edo idazpen edo inskripzioen bat egin duten protokoloak edo erregistroak zehaztuko dira. Halaber, aurkeztutako idazkien kopiak eta judizioan emandako mota orotako ebazpenak erantsiko dira, bai eta berreraikitzerako baliagarria izan daitekeen beste edozein dokumentu ere.

234. artikulua. Alderdiak agerraldirako zitatzeta. Haiek ez joatearen ondoreak.

1. Jardunak berreraikitzeke prozedura hastea auzitegiak, probidentzia bidez, edo, kasua denean, Justizia Administrazioaren letraduak, eginbide bitartez, erabakita, Justizia Administrazioaren letraduak aginduko du zitazioa egin dakiela alderdiei, gehienez ere hamar eguneko epean egingo den agerraldian bere aurrean ager daitezen. Ekitaldi horretara, alderdiek eta haien abokatuek joan beharko dute, betiere abokatuon esku-hartzea nahitaezkoa bada jardunak berreraiki nahi diren prozesuan.

2. Alderdietakoren bat ez joateak ez du eragotziko agerraldiak aurrera jarraitzea bertan daudenekin. Bakar bat ere agertzen ez denean, Fiskaltzarekin bideratuko da izapidea.

235. artikulua. Agerraldiaren hasiera. Eztabaidarik eza. Froga eta erabakia.

1. Agerraldia hasiko da alderdiei errekerituz adieraz dezatela ados dauden ala ez prozedura eskatu duen alderdiak aurkeztutako idazkien eta dokumentuen zehaztasunarekin, bai eta ekitaldi berean gainerako alderdiek aurkeztu ahal izan dituztenekin.

2. Justizia Administrazioaren letraduak, alderdiei entzunda eta aurkeztutako idazkiak eta dokumentuak aztertuta, fiskalak txostena egin ondoren, zehaztuko du auzilariak zein puntutan dauden ados eta zeinetan ez, funtsezkoak ez diren desberdintasunak alde batera utzita.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Berreraikitzeak ukitzen dituen puntuei buruz inolako eztabaidarik ez dagoenean, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, jardunak berreraiki direla deklaratzeko duena eta kasuan kasuko judizioaren osteko aribiderako abiapuntu gisa hartu beharreko prozesu-egoera zein den finkatzen duena.

4. Alderdien artean desadostasun osoa edo partziala dagoenean, Justizia Administrazioaren letraduak dei egingo die alderdiei eta Fiskaltzari, hurrengo hamar egunetan auzitegiaren aurrean egingo den ikustaldirako, eta beharrezkoa den froga proposatuko da bertan, zeina ekitaldian bertan edo, hori ezin bada, hamabost eguneko epean gauzatuko den. Auzitegiak auto bidez ebatziko du nola geratu behar diren berreraikita jardunak, edo haiek berreraikitzeko ezintasuna. Apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da auto horren aurka.

VI. TITULUA

Jardun judizialak bukatzeaz eta auzialdia iraungitzeaz

236. artikulua. Alderdiek prozedura bultzatzea, eta iraungitzea.

Alderdiek edo interesdunek prozedura bultzatu ez izanak ez du ekarriko auzialdia edo errekurtsua iraungitzea.

237. artikulua. Auzialdia iraungitzea.

1. Auzi-mota orotan, auzialdiak eta errekurtsuak bertan behera utzitakotzat hartuko dira, baldin eta, jardunak ofizioz bultzatu arren, jarduera prozesalik gauzatzen ez bada bi urteko epean, auzia lehen auzialdian dagoenean; eta, urtebetekoan, bigarren auzialdian badago edo kasazio-errekurtsoaren zain badago.

Alderdiei egindako azken jakinarazpenetik zenbatuko dira epe horiek.

2. Berrikuspen-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da iraungitzea deklaratzeko duen dekretuaren aurka.

238. artikulua. Iraungitzea baztertzea, ezinbesteagatik edo alderdien aurkako borondateagatik.

Ez da auzialdiaren edo errekurtsuaren iraungitzea gertatuko prozedura gelditu bada ezinbesteagatik edo alderdien edo interesdunen borondatearen aurkakoa den edo haiei egotzi ezin zaien beste edozein kausarengatik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

239. artikulua. Auzialdiaren iraungitzea baztertzea betearazpenean.

Aurreko artikuluetako xedapenak ez dira aplikagarriak izango nahitaezko betearazpenerako jardunetan.

Epaitutakoa betetzea lortu arte jarraitu ahal izango da jardun horiekin, titulu honetan zehaztutako epeetan aribiderik gabe geratu arren.

240. artikulua. Auzialdia iraungitzearen ondoreak.

1. Iraungitzea bigarren auzialdian edo kasazio-errekurtsoan gertatzen bada, atzera egindakotzat emango dira apelazioa edo kasazio-errekurtsoa eta irmotzat errekurritutako ebazpena, eta jatorriko auzitegiari itzuliko zaizkio jardunak.

2. Iraungitzea lehen auzialdian gertatzen bada, atzera-egitea auzialdi horretan gertatu dela ulertuko da, eta beste demanda bat jarri ahal izango da, akzioaren iraungipena gorabehera.

3. Iraungitze-deklarazioak ez du ekarriko kostuak ezartzea; alderdi bakoitzak berak eskaturik sortutakoak ordaindu beharko ditu, eta erkideak erdi bana.

VII. TITULUA

Kostu-tasazioaz

241. artikulua. Prozesuko kostuen eta gastuen ordainketa.

1. Doako Laguntza Juridikoaren Legean xedatutakoa salbuetsirik, alderdi bakoitzak ordainduko ditu berak eskaturik sortutako prozesu-gastuak eta -kostuak, haiek sortu ahala.

Prozesuko gastutzat hartuko dira prozesu horren existentzian zuzeneko eta berehalako jatorria duten ordainketak, eta kostutzat haietako batzuk, honako kontzeptu hauek ordaintzeari buruzkoak:

- 1.) Defentsa eta ordezkaritza teknikoaren zerbitzu-sariak, haien esku-hartzea nahitaezkoa denean.
- 2.) Prozesuaren aribidean nahitaez publikatu behar diren iragarkiak edo ediktuak txertatzea.
- 3.) Errekurtsoak aurkezteko beharrezkoak diren gordailuak.

4.) Adituen eskubideak eta prozesuan esku hartu duten pertsonen egin beharreko gainerako ordainketak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5.) Legearen arabera eskatu behar diren kopiak, ziurtagiriak, oharak, lekukotzak eta antzeko dokumentuak, auzitegiak erregistro eta protokolo publikoei erreklamaturakoak izan ezik, zeinak doakoak izango baitira.

6.) Arantzel-eskubideak, prozesuaren garapenerako beharrezkoak diren jardunen ondorioz ordaindu behar direnak.

7.) Jurisdikzio-ahala egikaritzeagatiko tasa, nahitaezkoa denean. Ez da prozesuko kostuetan sartuko ohiko etxebizitza eskuratzeko eraturako hipotekak betearazteko prozesuetan ordaindutako tasaren zenbatekoa. Halaber, ez da sartuko aipaturako hipoteka-maileguetatik edo -kredituetatik eratorritako gainerako betearazpen-prozesuetakoa, betearazpenpekoaren beraren edo abal-emaileen aurka zuzentzen direnean.

2. Jardun prozesaletatik eratorritako kredituen titularrek haiek ordaindu behar dituen alderdiari edo alderdiei erreklamatu ahal izango dizkiote, prozesua amaitu arte itxaron gabe eta bertan kostuei buruz eman litekeen pronuntziamendua kontuan hartu gabe.

242. artikulua. Kostuak tasatzeko eskaera.

1. Kostuak ordaintzeko kondena dagoenean, hura irmoa izan bezain laster, haiek ordainaraziko dira premiamendu-prozeduraren bitartez, aldezturik tasazioa eginda, baldin eta alderdi kondenatuak ordaindu ez baditu aurkako alderdiak tasazio hori eskatu baino lehen.

2. Kostu-tasazioa eskatzen duen alderdiak erreklamatzeko dituen zenbatekoak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak aurkeztuko ditu eskaerarekin batera.

3. Behin kondena ezarri den ebazpena irmoa izanda, prokuradoreek, abokatuak, adituek eta judizioan esku hartu duten gainerako pertsonak, baldin eta alderdien aurka kredituren bat badute, kostu-tasazioan sartu beharrekoa, bulego judizialaren aurrean aurkeztu ahal izango dituzte beren eskubideen edo zerbitzu-sarien minuta xehatua eta ordejarritako gastuen kontu xehatua eta justifikatua.

4. Arantzelen arabera arautuko dira haien mendean dauden funtzionarioei, prokuradoreei eta profesionalei dagozkien eskubideak.

5. Abokatuak, adituek eta arantzelpean ez dauden gainerako profesional eta funtzionarioek beren zerbitzu-sariak finkatuko dituzte beren lanbide-estatutua arautzen duten arauen arabera, kasua denean.

243. artikulua. Kostu-tasazioa egitea.

1. Mota guztietako prozesu eta auzialdietan, hurrenez hurren, prozesuaz edo errekursoaz arduratu den auzitegiko idazkariak egingo du kostu-tasazioa, edo, kasua denean, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letratuak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Tasazioan ez dira sartuko alferreko, ez-beharrezko edo legeak baimendu gabeko idazkiei eta jardunei dagozkien eskubideak, ezta ere xehatuta adierazten ez diren edo auzian sortu ez diren zerbitzu-sariei buruzko minuten partidak.

Halaber, ez dira kostu-tasazioan sartuko Justizia Administrazioarekin komunikatzeko, harekin lankidetzat gauzatzeko eta hari laguntzeko egintza prozesalak egiteagatik sortutako prokuradoreen eskubideak, ezta gainerako jardun aukerako hutsak ere, bestela bulego judizialek egin zitzaketenak.

Abokatuen eta tarifapean edo arantzelpen ez dauden gainerako profesionalen zerbitzu-sarien zenbatekoa murriztuko du Justizia Administrazioaren letraduak, baldin eta erreklamaturakoek 394. artikulua 3. apartatua aipatutako muga gainditzen badute eta kostuak ordaintzera kondenatua izan den auzilariaren ausarkeria deklaratu ez bada.

Kostu-tasazioetan, abokatuaren zerbitzu-sariei eta prokuradorearen eskubideek barnean hartuko dute balio erantsiaren gaineko zerga, hura arautzen duen legean xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga horren zenbatekoa ez da zenbatuko 394. artikulua 3. apartatuaren ondoretarako.

3. Halaber, ez dira sartuko jardunen edo intzidenteen kostuak, haietan berariaz kondenatua izan bada auzigai nagusiko kostuei buruzko pronuntziamenduak mesedetutako alderdia.

244. artikulua. Alderdiei helaraztea. Onespena.

1. Justizia Administrazioaren letraduak kostu-tasazioa eginda, alderdiei helaraziko zaie hura, hamar eguneko epe komunerako.

2. Behin aurreko apartatua aipatutako helarazpena erabakita, ez da onartuko partidarik sartzea edo gehitzea, eta interesdunarentzat gordeko da dagokionari eta dagokion moduan hura erreklamatzeko eskubidea.

3. Lehenengo apartatua ezarritako epea igarota, egindako kostu-tasazioa aurkaratu ez bada, Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez onetsiko du. Zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpen horren aurka, eta ezin izango da errekurtsorik jarri berrikuspen-errekurtsoa ebazten duen autoaren aurka.

245. artikulua. Kostuen tasazioa aurkaratzea.

1. Kostu-tasazioa aurkaratu ahal izango da aurreko artikulua 1. apartatua aipatutako epearen barruan.

2. Aurkaratzearen oinarritzat hartu ahal izango da bidegabeko partidak, eskubideak edo gastuak sartu izana tasazioan. Baina, abokatuen, adituen edo arantzelpen ez dauden profesionalen zerbitzu-sariei dagokienez, tasazioa aurkaratu ahal izango da, halaber, zerbitzu-sari horien zenbatekoa gehiegizkoa dela alegatuz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Kostuak ordaintzeko kondenak mesedetutako alderdiak tasazioa aurkaratu ahal izango du, behar bezala justifikatutako eta erreklamatutako gastuak bertan ez sartzeagatik.

Halaber, bere erreklamazioaren oinarria izan ahalko da oso-osorik sartu ez izana bere abokatuaren zerbitzu-sarien minuta, edo berak eskaturik prozesuan jardun duen adituarena, profesionalarena zein funtzionarioarena, arantzelpen ez dagoena, edota behar bezala sartu ez izana bere prokuradorearen eskubideak.

4. Desadostasunaren oinarri diren kontuak edo minutak eta partida zehatzak eta haren arrazoiak aipatu beharko dira aurkaratze-idazkian. Aipamen hori egin ezean, Justizia Administrazioaren letraduak, dekretu bidez, ez du aurkaratzea izapidetzeko onartuko. Berraztertze-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da dekretu horren aurka.

246. artikulua. Aurkarapena izapidetzea eta erabakitzea.

1. Tasazioa aurkaratzen bada abokatuen zerbitzu-sariak gehiegizkoak direla uste izateagatik, bost eguneko epean entzungo zaio kasuan kasuko abokatuari, eta, erreklamatzen zaion zerbitzu-sarien murrizketa onartzen ez badu, autoen lekukotza, edo haietatik beharrezkoak direnen zatiena, pasatuko zaio abokatuen elkargoari, txostena egin dezan.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa berdin-berdin aplikatuko da adituen zerbitzu-sarien aurkaratzeari dagokionez; haiek kide diren elkargo, elkarte edo korporazio profesionalari eskatuko zaio irizpena kasu horretan.

3. Justizia Administrazioaren letraduak, jardundakoa eta emandako irizpenak ikusita, dekretua emango du, egindako tasazioa mantentzen duena, edo, kasua denean, egoki irizten dien aldaketak sartuko ditu.

Aurkaratzea erabat ezesten bada, aurkaratzaileari ezarriko zaizkio intzidentearen kostuak. Erabat edo partzialki baiesten bada, zerbitzu-sariak gehiegizkotzat jo zaizkion abokatuari edo adituari ezarriko zaizkio.

Dekretu horren aurka, berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da.

Ezin izango da errekurtsorik jarri berrikuspen-errekurtsoa ebazten duen autoaren aurka.

4. Tasazioa aurkaratzen denean bidegabeak diren eskubideen edo zerbitzu-sarien partidak bertan sartzeagatik, edo behar bezala justifikatutako eta erreklamatutako gastuak bertan ez sartzeagatik, Justizia Administrazioaren letraduak hiru egunerako helaraziko dio beste alderdiari, erreklamatutako partidak sartzeari edo ez sartzeari buruzko iritzia adieraz dezan.

Justizia Administrazioaren letraduak hurrengo hiru egunetan ebatziko du, dekretu bidez. Zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpen horren aurka, eta ezin izango da errekurtsorik jarri berrikuspen-errekurtsoa ebazten duen autoaren aurka.

5. Alegatzen denean bidegabea dela kostu-tasazioan sartu den abokatuen edo adituen zerbitzu-sarien partidaren bat, eta, hala izan ezean, gehiegizkoa izango litzatekeela, aldi berean izapidetuko dira bi aurkaratzeak, aurreko apartatuetan haietako bakoitzarentzat aurreikusitakoaren arabera, baina zerbitzu-



sariak gehiegizkoak diren ala ez erabakitzeke ebazpena etenda geratuko da aurkaratutako partida zor den ala ez erabaki arte.

6. Alderdietakoren bat doako laguntza juridikoa izateko eskubidearen titularra denean, kostu-tasazioen intzidentean ez da eztabaidatuko, ezta erabakiko ere, Administrazioak berari erreklamatzeko zaizkion zenbatekoak bere gain hartzeko duen betebeharrari buruzko arazorik, Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatuta.

VIII. TITULUA

Fede on prozesalaz

247. artikulua. Fede on prozesalaren erregelak errespetatzea. Haiek ez betetzeagatik isunak.

1. Mota orotako prozesuetako esku-hartzaileek fede onaren erregelak bete beharko dituzte beren jardunetan.

2. Auzitegiek arrazoiak emanez errefusatuko dituzte eskabideak eta intzidentiak, baldin eta ageriko eskubide-abusuarekin formulatzen badira edo lege- edo prozesu-iruzurra badakarte.

3. Auzitegiek irizten badiote alderdietakoren batek fede on prozesalaren erregelak hautsiz jardun duela, isuna ezarri ahal izango diote, pieza bananduan, akordio ziodun bidez eta proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz, ehun eta laurogei eta sei mila euro artekoa, baina inola ere gainditu gabe auziaren muntaren herena.

Isunaren munta zehazteko, auzitegiak kasuan kasuko egitatearen inguruabarrak hartu beharko ditu kontuan, bai eta prozedurari edo beste alderdiari sor dakizkiokeen kalteak ere.

Kasu orotan, Justizia Administrazioaren letraduak jasoarazi egingo ditu zuzentze-jarduna arrazoitzen duen egitatea, inplikatuaren alegazioak eta epaileak edo salak hartutako erabakia.

4. Auzitegiek irizten badiote fede onaren erregelen aurkako jarduna egotz dakiokeela prozesuan esku hartu duen profesionalek bati, kasuan kasuko elkargo profesionali helaraziko diete inguruabar hori, aurreko apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe, diziiplina-zehapenen bat ezartzea bidezkoa izan daitekeen kasurako.

5. Artikulu honen babesean ezarritako zehapenak Botere Judizialaren Lege Organikoaren VII. liburuaren V. tituluaren aurreikusitako errekurso-araubidearen mende egongo dira.

II. LIBURUA



Deklarazio-prozesuez

I. TITULUA

Deklarazio-prozesuen xedapen komunez

I. KAPITULUA

Kasuan kasuko prozesua zehazteko erregelez

248. artikulua. Deklarazio-prozesu motak.

1. Legean bestelako izapidetzerik zehaztuta ez duen alderdien arteko liskar judizial oro dagokion deklarazio-prozesuan ebatziko eta erabakiko da.

2. Deklarazio-prozesu motakoak dira:

1.) Judizio arrunta.

2.) Hitzezko judizioa.

3. Judizio-mota muntaren arabera zehazteko arauak aplikatuko dira, soilik, gaiagatik araurik ez dagoenean.

249. artikulua. Judizio arruntaren eremua.

1. Judizio arruntean erabakiko dira, munta edozein dutela ere:

1.) Pertsonaren ohorezko eskubideei buruzko demandak.

2.) Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babesa lortzea helburu dutenak, eta beste edozein oinarritzko eskubideren babes judizial zibila eskatzen dutenak, zuzentze-eskubideari buruzkoak izan ezik. Prozesu horietan, Fiskaltza beti izango da alderdi, eta lehentasunezko izaera izango du haien izapidetzeak.

3.) Sozietate-erabakiak aurkaratzeari buruzko demandak, bazkideen nahiz obligaziodunen batzar edo biltzar orokorrek edo bereziek hartutako erabakiak badira, edota merkataritza-entitateetako kide anitzeko administrazio-organismoek hartuak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Lehia desleiala, lehiaren defentsa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikulua edo Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. eta 2. artikulua aplikatzearen ondorioz, jabetza industrial, jabetza intelektual eta publizitatea gaitzat duten demandak, betiere zenbatekoa erreklamatzeari buruzkoak soilik ez badira —kasu horietan, erreklamatzeko muntaren arabera dagokien prozeduraren bidez izapidetuko dira—, eta Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak jabetza industrialaren arloan eman dituen eta administrazio-bidea agortzen duten ebazpenen aurkako errekursoak, hitzeko epaiketaren izapideen bidez izapidetuko baitira, lege honen 250.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dena den, lege honen 250. artikuluen 1. apartatuaren 12. zenbakizkoan xedatutakoari jarraituko zaio, bukarazte-akzioa egikaritzen denean kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen eta interes lausoen defentsan, publizitatearen gaian.

5.) Kontratazioaren baldintza orokorreari buruzko akzio kolektiboak egikaritzen diren demandak, gai horri buruzko legerian aurreikusitako kasuetan.

6.) Ondasun higiezin hiri- edo landa-errentamenduei buruzko edozein auzigairi buruzkoak, salbu eta errentariak zor dituen errenten edo zenbatekoen erreklamazioak direnean edo ez ordaintzeagatik edo errentamendu-harremanaren epea bukatzeagatik utzarazpena denean, edo salbu eta prozeduraren objektuaren muntaren balorazioa egin daitekeenean; kasu horretan, prozesua lege honen erregela orokorren arabera dagokiona izango da.

7.) Edozein motatako atzera-eskuratze akzioa egikaritzen dutenak.

8.) Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak jabeen batzarrei eta jabeek aitortzen dizkien akzioak egikaritzen direnean, betiere zenbatekoa erreklamatzeari buruzkoak soilik ez badira; kasu horietan hitzeko judizioaren erregelen bidez edo dagokien prozedura bereziaren bidez izapidetuko dira.

2. Halaber, judizio arruntan erabakiko dira hamabost mila eurotik gorako munta duten demandak eta interes ekonomikoa kalkulatu ezin zaienak, ezta gutxi gorabehera ere.

250. artikulua. Hitzeko judizioaren eremua.

1. Hitzeko judizioan erabakiko dira, munta edozein dutela ere, honako demanda hauek:

1.) Zor diren errentak eta zenbatekoak ez ordaintzeagatik erreklamatzeko diren zenbatekoei buruzkoak, eta, era berean, errentariak zor duen errenta edo zenbatekoak ez ordaintzea edo kontratuzko edo legeko epea amaitzea oinarri izanda, helburu dutenak finka baten edukitza berreskura dezala jabeak, gozamendunak edo errentamendu arruntan, finantzarioan edo apartzerian emandako landa- edo hiri-finka edukitzeko eskubidea duen beste edozein pertsonak.

2.) Helburu dutenak prekarioan lagatutako landa- edo hiri-finkaren erabateko edukitza berreskura dezala jabeak, gozamendunak edo finka edukitzeko eskubidea duen beste edozein pertsonak.

3.) Helburu dutenak auzitegiak jaraunspen bidezko eskuratzailaren edukitzan jar ditzala ondasunak, baldin eta inork edukitzan ez baditu jabe edo gozamendun moduan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Helburu dutenak nori kendu gauza edo eskubidea edota eragotzi haren luperketa eta hark haren ukaitearen edo edukitzaren babes sumarioa lortzea.

Etxebizitza baten edo haren zati baten erabateko edukitza berehala berreskuratzeko eskatu ahal izango dute bai jabea edo beste titulu baten bidez edukitzaile legitimoa den pertsona fisikoak, bai hura edukitzeko eskubidea duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, bai eta etxebizitza sozialen jabe edo edukitzaile legitimo diren erakunde publikoek ere, betiere hartaz gabetu badira beren adostasunik gabe.

5.) Helburu dutenak auzitegiak ebatz dezala, izaera sumarioarekin, obra berri baten etendura.

6.) Helburu dutenak auzitegiak ebatz dezala, izaera sumarioarekin, eraits edo bota dadila aurri-egoeran dagoen eta demandatzaileari kalteak eragiteko arriskua duen obra, eraikin, zuhaitz, zutabe edo antzeko beste edozein objektu.

7.) Jabetza-erregistroan inskribatutako eskubide errealeen titularrek sustaturik, eskubide horien eraginkortasuna eskatzen dutenak, eskubideon aurka egitea edo haiek eragozteak legitimatzen duen titulu inskribaturik izan gabe aurka egin edo eragotzi nahi dutenen kontrakoak.

8.) Lege-xedapen bidez edo beste titulu baten bidez zor den mantenua eskatzen dutenak.

9.) Egitate zehaztugabeak edo kaltegarriak zuzentzeko akzioaren egikaritzea dakartenak.

10.) Helburu dutenak auzitegiak ebatz dezala, izaera sumarioarekin, Ondasun Higigarrien Epekako Salmenta Erregistroan inskribatutako eta horretarako ezarritako eredu ofizialean formalizatutako kontratuetatik eratorritako betebeharrak erosleak bete ez izanari buruz, kondena-epai bat lortze aldera, betearazpena epeka eskuratutako edo finantzatutako ondasunera edo ondasunetara soilik zuzentzea ahalbidetzen duena.

11.) Helburu dutenak auzitegiak ebatz dezala, izaera sumarioarekin, finantza-errentamenduko, ondasun higigarrien errentamenduko edo jabari-erreserbapeko epekako salmentako kontratu bat bete ez izanari buruz, betiere Ondasun Higigarrien Epekako Salmenta Erregistroan inskribatuta eta horretarako ezarritako eredu ofizialean formalizatuta dagoenean, baldin eta akzio bat egikaritu bada eksklusiboki bideratua finantza-errentatzaileari, errentatzaileari edo saltzaileari edo finantzatzaileari ondasuna berehala entregatzera kontratuan zehaztutako tokian, hura suntsitzeko deklarazioaren ondoren, kasua denean.

12.) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen eta lausoen defentsan bukarazte-akzioaren egikaritzea dakartenak.

13.) Helburu dutenak Kode Zibilarren 160. artikuluan aitortutako eskubideen eraginkortasuna. Kasu horietan, lege honen IV. liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren xedatutako berezitasunekin bideratuko da hitzezko judizioa.

14.) Kontratazioaren baldintza orokorreari buruzko akzio indibidualak egikaritzen diren demandak, gai horri buruzko legerian aurreikusitako kasuetan.

15.) Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak jabeen batzarrei eta jabeei aitortzen dizkien akzioak egikaritzen dituztenak, betiere zenbatekoa erreklamatzeari buruzkoak soilik badira, zenbatekoa edozein dela ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

16.) Gauza erkidea zatitzeko akzioa egikaritzen dituztenak.

2. Halaber, hitzezko judizioan erabakiko dira hambost mila eurotik gorako munta ez duten demandak eta aurreko artikulua 1. apartatuan aurreikusitako ezein gairi buruzkoak ez direnak.

3. Hitzezko judizioan erabakiko dira, lege honen 447 bis artikuluan ezarritako berezitasunekin, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak jabetza industrialaren arloan eman dituen eta administrazio-bidea agortzen duten ebazpenen aurkako errekursoak.

251. artikulua. Munta zehazteko erregelak.

Demandaren interes ekonomikoaren arabera finkatuko da munta, honako erregela hauen arabera kalkulatu dena:

1.) Diru-zenbateko zehatz bat erreklamatzeko bada, zenbateko horri dagokiona izango da demandaren munta, eta, zehaztapenik ez badago, ezta gutxi gorabeherakoa ere, munta zehaztugabekotzat joko da demanda.

2.) Prozesuaren objektua ondasun higigarriak edo higiezinak emateko kondena denean, erreklamazioa eskubide errealean edo pertsonaletan oinarritzen den kontuan hartu gabe, demanda jartzeko unean zuten balioari jarraituko zaio, mota horretako ondasunek merkatuan edo kontratazioan dituzten prezio korronteen arabera.

Kalkulu horretarako, auziaren ondasunen balorazio ofizialetatik edozeinetaz baliatu ahal izango da auzi-jartzailea, baldin eta beste bitarteko batzuen bidez ezin bada zehaztu balioa, baina ezin izango zaie higieziari esleitu katastroan jasota dagoen balioa baino txikiagoko bat.

3.) Halaber, aurreko kalkulu-erregela aplikatuko zaie:

1.- Jabaritik eratorritzen diren ahalmenen luperketa bermatzera zuzendutako demandei.

2.- Jabari-tituluaren baliozkotasuna, deusezetasuna edo efikazia ukitzen duten demandei, bai eta jabariaren beraren existentzia edo hedadura ukitzen dutenei ere.

3.- Aurreko bi kasuetan ezarritakoez bestelako eskabideei, baldin eta uziaren betetzea demandatzaileak jabe-izaera egiaztatzearen mende badago.

4.- Ondasun baten edo ondasun-multzo baten jabetza eskuratzeko eskubidean oinarritutako demandei, dela hura aitortzen duen kreditu-eskubide bat edukitzeagatik, dela jabetza eskuratzeko bideetatik edozeinengatik, dela atzera eskuratzeko, eroslehentasuneko edo erosteko aukerako eskubideagatik; ondasuna salerosketa baten objektu gisa erreklamatzeko denean, kontratuan itundutako prezioak du lehentasuna balorazio-irizpide gisa, betiere haren katastro-balioa baino txikiagoa ez bada ondasun higiezinaren kasuan.

5.- Prozesua edukitzari buruzkoa denean, eta artikulua honetako beste erregelaren bat aplikagarria ez denean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

6.- Mugatzeko, mugarriztatzeko eta gauza komuna zatitzeko akzioei.

4.) Erreklamazioa gozamenari edo jabetza soilari, erabilerari, biztantzeari, txandakako aprobeitxamenduari edo erregela berezien mende ez dagoen beste eskubide erreal jabari-mugatzaile bati buruzkoa denean, demandaren balioa finkatuko da eskubide horiek eratzeko edo eskualdatzeko zergaren tributu-oinarria kontuan hartuta.

5.) Zortasun bati buruzko demandaren balioa izango da hura eratzeko ordaindutako prezioa, jasota badago eta aurreko bost urteetakoa badu data gehienez ere. Osterantzean, auziaren unean eratze-prezioa finkatzeko ezarritako legezko erregelen bidez zenbatetsiko da, eskuratzeko modua edozein izanda ere, eta, halakorik ezean, muntatzat hartuko da lur nagusien eta zorpekoen balioen hogeirena, kontuan hartuta artikulua honen bigarren erregelaren ondatsun higigarriari eta higiezinei buruz xedatutakoa.

6.) Berme-eskubide erreal baten existentziari, inexistenziari, baliozkotasunari edo efikaziari buruzko demandetan, balioa izango da kontzeptu guztiengatik bermatutako kopuruaren zenbatekoa.

7.) Aldi baterako edo biziarteko prestazio periodikoak galdatzeko eskubideari buruzko judizioetan, balioa kalkulatu da urteko baten zenbatekoa bider hamar eginez, salbu eta prestazioaren epea urtebetetik beherakoa bada; kasu horretan, haren guztizko zenbatekoa hartuko da kontuan.

8.) Betebehar-izaerako titulu baten existentziari, baliozkotasunari edo efikaziari buruzko judizioetan, haren balioa kalkulatu da zor den guztiagatik, epeka ordaintzekoa izan arren. Balorazio-irizpide hori aplikatu da prozesuek objektutzat dutenean betebehar-izaerako titulu bat edo izaera pertsonaleko eskubide bat eratzeko, aldatzeko edo azkentzeko, betiere ez bada aplikagarria artikulua honetako beste erregelaren bat.

9.) Ondatsunen errentamenduei buruzko judizioetan, zor diren errentak edo zenbatekoak erreklamatzeko objektu dutenetan izan ezik, demandaren munta izango da urtebeteko errentaren zenbatekoa, kontratuan finkatu zaion periodikotasuna edozein izanda ere.

10.) Demanda burtsan negoziatutako baloreei buruzkoa den kasuetan, munta zehaztu du haien batez besteko kanbio haztatuaren batezbestekoak, zeina demanda jarritako dataren aurreko urte naturalean zehar aplikagarria zen legeriaren arabera zehaztu den, edo baloreak burtsan negoziatu ziren denboran haiek izan zuten batez besteko kanbio haztatuaren batezbestekoak, denbora hori urtebetetik beherakoa denean.

Bigarren mailako beste merkatu batean negoziatutako baloreak badira, munta zehaztu du demanda jarri aurreko urte naturalean zehar haien batez besteko negoziazio-tasak, haiek negoziatzen diren bigarren mailako merkatua kontuan hartuta, edo bigarren mailako merkatuan negoziatutako denboran zehar haien batez besteko negoziazio-tasak, baloreak merkatu horretan negoziatu badira urtebetetik beherako denboran.

Batez besteko negoziazio-tasa edo, kasua denean, batez besteko kanbio haztatuaren batezbestekoa egiaztatuko da kasuan kasuko bigarren mailako merkatuaren artezkaritza-organismoak emandako ziurtagiri bidez.

Baloreak negoziatzen ez badira, munta kalkulatu da demanda jartzeko unean kontabilitate-balorazioari buruz indarrean dauden arauekin bat etorriz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

11.) Demandaren objektua egiteko prestazio bat denean, haren munta izango da egiteko eskatzen denaren kostua edo ez-betetzetik eratorritako kalte-galeren zenbatekoa; kasu horretan, ezin izango dira bi zenbatekoak metatu, salbu eta betetzea eskatzeaz gain kalte-ordaina ere lortu nahi bada. Kalte-galeren zenbatekoa edo kalkulua kontuan hartu beharko da prestazioa guztiz pertsonala bada edo ez-egite batean badatza, are izaera nagusiarekin eskatzen dena betetzea denean ere.

12.) Jaraunspen bati edo ondare-masen edo ondare bananduen multzo bati buruzko auzietan, aurreko erregelak aplikatuko dira auziaren objektu den jaraunspeneko edo ondareko ondasunekiko, eskubideekiko edo kredituekiko.

252. artikulua. Erregela bereziak objektu- edo alderdi-aniztasuna duten prozesuetan.

Prozesuan objektu- edo alderdi-aniztasuna dagoenean, honako erregela hauekin bat etorritz kalkulatu da demandaren munta:

1. Titulu beretik ez datozen zenbait akzio nagusi metatzen direnean demandan, demandaren munta zehaztuko du balio handiena duen akzioaren muntak. Irizpide berari jarraituko zaio akzioak modu ebentualean metatuta dauden kasuan.

2. Akzio metatuak titulu beretik badatoz edo akzio nagusiarekin batera modu osagarrian eskatzen badira korrituak, fruituak, errentak edo kalte-galerak, munta zehaztuko du metatutako akzio guztien balioaren baturak. Baina akzioetatik edozeinek zenbateko ziur likidorik ez badu, halako zenbatekoa baduten akzioen balioa hartuko da soilik kontuan.

Balioa finkatzeko, ez dira kontuan hartuko sortzeke dauden fruituak, korrituak edo errentak, baizik eta mugaeguneratuak soilik. Halaber, ez da kontuan hartuko kostuak ordaintzeko kondena-eskabidea.

Aurrekoari kalterik egin gabe, akzio metatuak badira ez ordaintzeagatiko edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatiko utzarazpenekoa eta zor diren errentak edo zenbatekoak erreklamatzekoa, balio handiena duen akzioak zehaztuko du demandaren munta.

3. Demanda berean ondasun higigarri edo higiezin berari buruzko zenbait akzio erreal metatzen direnean, munta ezin izango da inoiz izan auziaren gauzaren balioa baino handiagoa.

4. Betebehar beraren zenbait epe mugaeguneratu erreklamitzen direnean, munta moduan hartuko da erreklamitutako zenbatekoen batura, salbu eta demandan betebeharraren baliozkotasunari edo efikaziari buruzko esanbidezko deklarazioa eskatzen bada; orduan, balio osoa hartuko da kontuan. Epeetakoren baten zenbatekoa ziurra ez bada, muntaren zenbaketatik kanpo utziko da hura.

5. Demandaren muntari edo muntagatik bideratu beharreko judizio-motari ez dio eragingo ez errekonbentzioak ezta autoen metaketak ere.

6. Demanda berean demandatzaile batzuk edo demandatu batzuk egoteak ez du batere ukituko muntaren zehaztapena, eskabidea bera bada haientzat guztientzat. Gauza bera gertatuko da solidaritate-loturek dakartenean demandatzaile edo demandatu izatea.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

7. Alderdien aniztasunak akzio baieztatuen aniztasuna ere badakarrenean, artikulua honetan munta zehazteko jasotako erregelen arabera zehaztuko da munta.

8. Demandaren zabaltze kasuan, aurreko erregeletan agindutakoari jarraituko zaio halaber.

253. artikulua. Demandan munta adieraztea.

1. Auzi-jartzaileak bere hasierako idazkian justifikatuta adieraziko du demandaren munta. Munta hori aurreko artikuluetako erregelen arabera kalkulatu da kasu orotan.

Auziaren objektu diren ondasunen balio-aldaketa demanda jarri ostean bat-batean gertatzen bada ere, ez da munta aldatuko, ezta judizio-mota ere.

2. Demandaren munta argiro eta zehatz-mehatz adierazi beharko da. Hala ere, gutxi gorabehera adierazi ahal izango da, baldin eta auzi-jartzaileak behar bezala justifikatzen badu auziaren interes ekonomikoa judizio arruntari dagokion gutxieneko muntaren berdina dela gutxienez, edo ez duela gainditzen hitzezko judizioaren gehienekoa. Ezein kasutan, auzi-jartzailea ezin izango da mugatu bideratu beharreko judizio-mota adieraztera, ezta munta zehazteko zama demandatuaren gain ezarri ere.

3. Auzi-jartzaileak ezin duenean munta zehaztu, ezta gutxi gorabehera ere, dela objektuak interes ekonomikorik ez duelako, dela interes hori ezin delako kalkulatu munta zehazteko legezko ezein erregelaren bidez, dela aplikatu daitekeen kalkulu-erregela egonik ere ezin delako hura zehaztu demanda jartzeko unean, judizio arruntaren bideetatik bideratuko da hura.

254. artikulua. Muntagatiko judizio-mota ofizioz kontrolatzea.

1. Hasieran, auzi-jartzaileak bere demandan adierazitako izapidetzea emango zaio judizioari.

Aurrekoa gorabehera, demandaren alegazioak ikusita, Justizia Administrazioaren letradua ohartzen bada auzi-jartzaileak hautatutako judizioa ez dagokiola zehaztutako balioari edo demandan aipatutako gaiari, antolaketa-eginbide bitartez erabakiko du dagokion izapidetzea ematea auzigaiari. Eginbide horren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da auzitegiaren aurrean, etete-ondorerik sortuko ez duena.

Demandan eskatutako judizio-mota ez da loteslea izango auzitegiarentzat.

2. Baldin eta, auzi-jartzaileak zehaztutakoaren aurka, Justizia Administrazioaren letraduak demandari irizten badio munta ezin zaiola ez zenbatetsi ez zehaztu, ezta gutxi gorabehera ere, eta, beraz, ez dela bidezkoa hitzezko judizioaren bideei jarraitzea, ofizioz eman beharko dio, eginbide bitartez, judizio arruntaren izapidetzea auzigaiari, betiere prokuradorearen izendapena eta abokatuaren sinadura jasota badaude.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Ofizioz zuzendu ahal izango dira auzi-jartzaileak munta zehaztean egindako oker aritmetikoak. Baita munta kalkulatzeko legezko erregela oker hautatzean dautzanak ere, baldin eta eragiketa matematiko errazen bidez hura behar bezala zehazteko elementu faktiko nahikoak badaude demandan.

Behin munta behar bezala kalkulatuta, dagokion aribidea emango zaio prozesuari.

4. Ezein kasutan ezin izango du auzitegiak demanda ez onartu prozedura muntagatik desegokia dela uste duelako. Baina demanda mugatzen bada egokitzen den judizio-mota besterik gabe adieraztera, edo elementu nahikorik ez badu munta behar bezala kalkulatzeko, idazkariak ofizioz hauteman ondoren finkatutako munta ez dela zuzena, autoak ez dira bideratuko, harik eta auzi-jartzaileak kasuan kasuko akatsa konpondu arte.

Konpontzeko epea hamar egunekoa izango da; hura igarotakoan, bidezkoa dena ebatziko du auzitegiak.

255. artikulua. Munta eta muntagatiko judizio-mota aurkaratzea.

1. Demandatuak demandaren munta aurkaratu ahal izango du ulertzen duenean ezen, hura behar bezala zehaztuz gero, bestelako prozedura bati jarraitu beharko litzaiokeela edo apelazio-errekurtsoa bidezkoa izango litzatekeela.

2. Judizio arruntean, demanda-erantzunean aurkaratuko da muntagatiko prozeduraren egokitasuna, eta judizio aurreko entzunaldian ebatziko da arazoa.

3. Hitzezko judizioan, demandatuak demanda-erantzunean aurkaratuko du munta edo muntagatiko judizio-mota, eta auzitegiak ikustaldian ebatziko du arazoa, auzigaiaren funtsean sartu baino lehen eta auzi-jartzaileari entzuteko izapidearen ondoren.

II. KAPITULUA

Atariko eginbideez

256. artikulua. Atariko eginbide motak eta haien eskaera.

1. Judizio oro prestatu ahal izango da:

1.) Eskabidea eginda demanda zuzenduko zitzaiokeen pertsonak deklaratu dezan, egia esateko zinpean edo promespean, bere gaitasunari, ordezkariari edo legitimazioari lotutako egitate bati buruz, baldin eta haren ezagutza auzirako beharrezkoa bada, edota erakutsi ditzan gaitasun, ordezkari edo legitimazio hori jasotzen duten dokumentuak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2.) Eskaera eginda, demandatu nahi den pertsonak erakutsi dezan zer gauza duen bere esku, judizioa horri buruzkoa denean.

3.) Bere burua jaraunsgaitzat, jaraunsgaitzetan edo legatu-hartzailetzat duenak eskabidea eginda, jaraunsgaitzen edo legatuaren kausatzailearen azken nahiaren egintza bere esku duenak hura erakutsi dezan.

4.) Bazkide edo erkide batek dokumentuak eta kontuak bere esku dituen partzuergo edo jabekideari eskabidea eginda, sozietatearen edo erkidegoaren dokumentuak eta kontuak erakutsi diezazkieten.

5.) Erantzukizun zibileko aseguruak estalita egon litekeen egitate bategatik bere burua kalte duntzat duenak eskabidea eginda, aseguru-kontratua bere esku duenak hura erakutsi dezan.

5.) bis. Historia klinikoa eskatuta hura zaintzapean duen osasun-zentroari edo zentro profesionalari, legeak ezarritako betekizunekin eta edukiarekin.

6.) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboen defentsarako prozesu bat hasi nahi duenak eskabidea eginda, ukitu-taldeko kideak zehazteko helburuarekin, haien zehaztu gabe egonik erraz zehazteko moduan daudenean. Ondore horretarako, taldeko kideak zein diren ikertzeko neurri egokiak hartuko ditu auzitegiak, kasuaren inguruabarrekin bat etorritik eta eskatzaileak emandako datuen arabera, barne hartuta demandatuari errekerimendua egitea zehaztutako horretan lagun dezan.

7.) Jabetza industrialeko eskubide bat edo jabetza intelektualeko eskubide bat urratzeagatik akzio bat egikaritu nahi duenak datuak lortzeko eginbideetarako eskaera eginda, urraketa ekarri duten egintzak ezin daitezkeenean jo kontsumitzaile soilek, fede onekoak eta onura ekonomikorik edo komertzialik lortzeko asmorik gabekoak, egindakotzat; ustezko urratzaileari buruzko datuak eta jabetza intelektualeko edo jabetza industrialeko eskubide bat urratzen duten obren, salgaien edo zerbitzuen jatorriari eta banaketa-sareari buruzkoak eskatu ahal izango dira, eta, zehazki, honako hauek:

a) Salgaien eta zerbitzuen ekoizleen, fabrikatzaileen, banatzaileen, hornitzaileen eta enpleatuen izenak eta helbideak, bai eta merkataritza-xedeekin salgaien edukitza izan dutenak ere.

b) Salgaiak edo zerbitzuak banatu zaizkien handizkarien eta txikizkarien izenak eta helbideak.

c) Ekoiztetako, fabrikatutako, entregatutako, hartutako edo enkargatutako zenbatekoak, kasuan kasuko salgaien edo zerbitzuen prezio gisa ordaindutako zenbatekoak, eta salgaien modeloak eta ezaugarri teknikoak.

8.) Merkataritza-ekalan garatutako egintzen bidez jabetza industrialeko eskubide bat edo jabetza intelektualeko eskubide bat urratu delako akzio bat egikaritu nahi duenak eskabidea eginda erakutsi daitezkeen banku-, finantza-, merkataritza- edo aduana-dokumentuak erakutsi daitezela, denbora jakin batean sortutakoak eta erantzule gisa demandatua izango litzatekeenaren esku daudela uste direnak. Eskaerarekin batera, urratzearen egiazkotasunaren frogatzen behar du, zeina izan daitezkeen urratze hori gauzatzen den aleen, salgaien edo produktuen lagin baten aurkezpena. Eskatzaileak idazkariari eskatu ahal izango dio dokumentu erakutsien lekukotza egin dezala, baldin eta errekeritua dokumentua uzteko prest ez badago gauzatutako eginbidean sar dadin. Eskaera bera formulatu ahal izango du aurreko zenbakiaren azkeneko paragrafoan ezarritakoari dagokionez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Apartatu honen 7.) eta 8.) zenbakien ondoreetarako, merkataritza-eskalan garatutako egintzat hartzen dira zuzeneko edo zeharkako onura ekonomikoa edo komertziala lortzeko egindakoak.

9.) Eskubide zehatz batzuk babesteko, kasuan kasuko lege bereziek aurreikusten dituzten eginbideak eta ikerketak eskatuta.

10.) Jabetza industrialeko eskubide bat edo jabetza intelektualeko eskubide bat urratu delako akzio bat egikaritu nahi duenak eskabidea eginda, informazio-gizarteko zerbitzu baten prestazio-emailea identifika dadin, baldin eta arrazoizko zantzuak badaude uste izateko eskubide horren objektu diren edukiak, obrak edo prestazioak eskura jartzen ari dela edo zuzenean edo zeharka hedatzen jabetza industrialaren edo jabetza intelektualaren legeriak ezarritako betekizunak bete gabe, aintzat hartuta Espainian prestazio-emaile horrek harrera handia duela edo eskura jarritako edo hedatutako baimenik gabeko obra eta prestazio babestuen bolumena, halaber, handia dela.

Identifikazioa egiteko beharrezkoak diren datuak lortzeari buruzkoa izango da eskaera, eta informazio-gizarteko zerbitzuen, ordainketa elektronikoen eta publizitatekoen prestazio-emaileei zuzendu ahal izango zaie, baldin eta azkeneko hamabi hilabeteetan zerbitzu baten prestazioa emateko harremanak mantentzen badituzte edo mantendu badituzte identifikatu nahi den informazio-gizarteko zerbitzuen prestazio-emailearekin. Aipatutako prestazio-emaileek eskatu den informazioa emango dute, betiere identifikazioaren objektu den zerbitzuen prestazio-emailearekin mantentzen duten edo mantendu duten zerbitzu-harremanaren ondorioz xedatzen edo gordetzen dituzten datuetatik erauzi ahal bada hura, salbu eta eskusiboki Interneteko zerbitzu-hornitzaile baten tratamenduaren objektu diren datuak, urriaren 18ko 25/2007 Legean, komunikazio elektronikoetako eta komunikazio-sare publikoetako datuak kontserbatzekoan, xedaturikoa betez.

11.) Jabetza intelektualeko eskubide bat urratu zaiolako, akzio bat egikaritu nahi duen jabetza intelektualeko eskubide baten titular batek eskaera eginda, informazio-gizarteko zerbitzuen prestazio-emaile bati bere zerbitzuen erabiltzaile bat identifikatzeko beharrezkoak diren datuak emateko egindakoa, betiere azkeneko hamabi hilabeteetan zerbitzu baten prestazioa emateko harremanak mantentzen baditu edo mantendu baditu identifikatu harekin, baldin eta arrazoizko zantzuak badaude uste izateko eskubide horren objektu diren edukiak, obrak edo prestazioak eskura jartzen ari dela edo zuzenean edo zeharka hedatzen jabetza industrialaren edo jabetza intelektualaren legeriak ezarritako betekizunak bete gabe, eta urratzea egin bada fede oneko eta onura ekonomikorik edo komertzialik lortzeko asmorik ez duen azken kontsumitzaile soil batek egindakotzat hartu ezin daitezkeen egintzen bidez, eskura jarritako edo hedatutako baimenik gabeko obra eta prestazio babestuen bolumen handia kontuan hartuta.

2. Atariko eginbideen eskaeran, haien oinarriak azalduko dira, prestatu nahi den judizioaren auzigaiari buruzko inguruabarrak aipatuz.

3. Eginbideetan esku hartu behar duten pertsonen sortutako gastuak atariko eginbideen eskatzailearen kontura izango dira. Eginbideok eskatzean, eskatzaile horrek kauzioa eskainiko du, nola gastu horiez, hala sor dakizkiekeen kalte-galerez, erantzuteko. Kauzioa galdu egingo da, pertsona horien alde, baldin eginbideak bukatu zirenetik hilabete bat igaro eta demandarik jarri ez bada, auzitegiaren iritziz behar bezala justifikatu gabe.

Kauzioa eman ahal izango da lege honen 64. artikulua 2. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduan.



257. artikulua. Eskumena.

1. Aurreko artikuluan aipatutako eskabideei eta eskaerei buruz ebazteko eskudun izango da judizioa prestatzeko erabakitako jardunetan deklaratu, zerbait erakutsi edo beste era batean esku hartu behar duen pertsonaren egoitzako lehen auzialdiko epailea edo merkataritzakoa, kasua denean.

Aurreko artikulua 1. apartatuaren 6., 7., 8. eta 9. puntuetako kasuetan, eskudun izango da demanda zehatza aurkeztu behar den auzitegia. Kasu horietan, ordura arte gauzatutako eginbideen emaitza dela-eta beste batzuk eskatzen badira, auzitegi berari eskatu ahal izango zaizkio edota aurreko eginbidean ikertutako egitateak direla-eta uzi beraz edo ebentualki meta daitezkeen beste uziez arduratzeko eskumena duenari.

2. Ez da onartuko deklinatoriarik atariko eginbideetan; baina haiek eskatzen zaizkion epaileak ofizioz berrikusiko du bere eskumena, eta, iritziz gero berari ez dagokiola eskaeraz arduratzeko, abstenitu egingo da arduraz, eta eskatzaileari adieraziko dio lehen auzialdiko zein epaitegitara joan behar duen. Hura bere eskumenean inhibitzen bada, goragoko hurbileneko auzitegi erkideak ebatziko du gatazka negatiboa, lege honen 60. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

258. artikulua. Atariko eginbideei buruzko erabakia eta errekurtsua.

1. Auzitegiak hautematen badu eginbidea egokia dela eskatzaileak lortu nahi duen helbururako eta eskaeran arrazoi zuzena eta interes legitimoa badirela, uzia onartuko du, eta eman beharreko kauzioa finkatuko du. Auzitegiak egin den eginbide-eskaera errefusatuko du, eginbideak justifikatuta daudela ez baderitzo. Eskaera aurkeztu eta hurrengo bost eguneko epean ebatzi beharko da.

2. Ezin izango da errekurtsorik jarri eginbideak erabakitzen dituen autoaren aurka. Ukatzen duenaren aurka, apelazio-errekurtsua jarri ahal izango da.

3. Auzitegiak agindutako kauzioa hiru egunean ematen ez bada, eginbideak onartzen dituen autoa ematen denetik kontatzen hasita, Justizia Administrazioaren letraduak behin betiko artxibatuko ditu jarduketak, ondore horretarako emandako dekretu bidez.

259. artikulua. Atariko eginbideak gauzatzeko zitazioa.

1. Eskaera onartzen duen autoan, interesdunak zitatuko eta errekerituko dira, eskatutako eta erabakitako eginbidea gauzatu dadin bulego judizialaren egoitzan edo egokitze jotako tokian eta moduan eta hurrengo hamar egunen barruan.

2. 256. artikulua 1. apartatuan zehaztutako eginbideetan aipatutako dokumentuak eta tituluak epaitegian aurkeztu ahal izango dira, bitarteko telematikoen edo elektronikoen bidez erakutsi daitezkeen; kasu horretan, bulego judizialaren egoitzan egingo da haien azterketa, eta alderdi eskatzaileak haien kopia elektronikoa eskuratu ahal izango du, berak ekarritako bitartekoekin.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Kasu orotan, gaian aditua den pertsona batek aholkatuta bertaratu ahal izango da eskatzailea, eta hark eskatzailearen kontura jardungo du beti.

3. 256.1.7. artikulua eginbideen kasuan, errekeritutako informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko, galdeketa ateak itxita egin dadila agindu ahal izango du auzitegiak. Erabaki hori hartuko da 138.3 artikuluan ezarritako moduan eta interes legitimoa duela egiaztatzen duen edonork eskatuta.

4. 256. artikulua 1. apartatuaren 7.) 8., 10. eta 11. zenbakietako eginbideen bitartez lortutako informazioa eskusiboki erabiliko da neurriak eskatu dituenaren jabetza industrialeko edo jabetza intelektualeko eskubideen jurisdikzio-babeserako, hedatzeko edo hirugarrenei komunikatzeko debekuarekin. Edozein interesdunek eskatuta, auzitegiak izaera erreserbatua esleitu ahal izango die jarduketei, izaera konfidentziala daukaten datuen eta informazioaren babesa bermatzeko.

260. artikulua. Atariko eginbideak gauzatzeari aurka egitea. Erabakiaren ondoreak.

1. Zitazioa hartu eta hurrengo bost egunen barruan, atariko eginbideak gauzatzeko errekeritua izan den pertsonak aurka egin ahal izango die haiei. Kasu horretan, aurkakotza helaraziko zaio errekeritzaileari, zeinak idatziz aurkaratu ahal izango duen bost eguneko epean. Alderdiek, aurkakotzako eta hura aurkartzeko idazkietan, hurrenez hurren, ikustaldia egin dadila eskatu ahal izango dute, eta hitzezko judizioetarako aurreikusitako izapideei jarraituko zaie.

2. Ikustaldia eginda, auzitegiak ebatziko du, auto bidez, ea aurkakotza justifikatuta dagoen edo, aitzitik, justifikaziorik ez duen.

3. Auzitegiaren iritziz aurkakotza ez badago justifikatuta, errekeritua kondenatuko du intzidentetarako sortutako kostuak ordaintzera. Erabaki hori auto bidez hartuko da, eta ezin izango da errekurtsorik jarri haren aurka.

4. Auzitegiaren iritziz justifikatuta badago aurkakotza, horrela deklaratu du auto bidez, zeina apelazioan errekurritu ahal izango den.

261. artikulua. Eginbideak gauzatzeari ezezkia ematea.

Zitatutako eta errekeritutako pertsonak errekerimendua betetzen ez badu, eta aurkakotza ere formulatzen ez badu, auzitegiak, proportzionala denean, honako neurri hauek erabakiko ditu, auto bidez, galdatzen dituzten arrazoiak bertan adierazita:

1. Zituaren gaitasunari, ordezkaritza edo legitimazioari lotutako egitateei buruzko deklarazioa eskatu bada, ulertu ahal izango da eskatzaileak formulatu nahi zizkion galderek baieztatu erantzuna izan dutela, eta haiei dagozkien egitateak onartutzat hartuko dira osteko judizioaren ondoretarako.

2. Tituluak eta dokumentuak erakusteko eskatu bada eta auzitegiak hautematen badu zantzu nahikoak badaudelako toki zehatz batean daudela uste izateko, toki horretan sartzeko eta miatzeko aginduko du, eta, aurkituz gero, dokumentuak okupatu, eta eskatzailearen eskura jarriko dira auzitegiaren egoitzan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Gauza bat erakutsi behar bada eta hura dagoen tokia ezaguna bada edo oinarriak badaude non dagoen uste izateko, aurreko zenbakian xedatutakoaren antzeko moduan jardungo da, eta gauza erakutsiko zaio eskatzaileari, zeinak haren gordailua edo hura kontserbatzeko berme-neurririk egokiena eskatu ahal izango duen.

4. Kontabilitate-dokumentuak erakusteko eskatu bada, ziurtzat jo ahal izango dira, osteko judizioaren ondoretarako, eskatzaileak aurkeztutako kontuak eta datuak.

5. 256.1.6. artikuluan aurreikusitako eginbideen kasuan, errekerituak edo taldeko kideen zehaztapenean lagundu dezakeen beste edozein pertsonak ezezkoa ematen badu, auzitegiak aginduko du beharrezko dokumentuak edo datuak aurkitzeko beharrezkoak diren neurri esku-hartzaileak erabaki daitezela, sarrera eta miaketa barne, hargatik eragotzi gabe agintaritza judizialarekiko desobedientzian erortzeagatik izan daitekeen erantzukizun penala. Neurri berberak aginduko ditu auzitegiak 256. artikulua 1. apartatuaren 5 bis, 7. eta 8. zenbakien kasuetan, dokumentuak erakusteari errekerituak ezezkoa ematen dionean.

262. artikulua. Kauzioa aplikatzeari buruzko erabakia.

1. Erabakitako eginbideak gauzatu direnean edo auzitegiak ukatu dituenean, bere iritziz aurkakotza justifikatuta dagoelako, hark bost eguneko epean ebatziko du, auto bidez, kauzioaren aplikazioari buruz, aurkeztu zaizkion kalte-ordainaren eskabidea eta gastuen justifikazioa kontuan hartuta eta eskatzaileari entzun ondoren.

Kauzioa aplikatzeari buruzko erabakia apelagarria izango da, etete-ondorerik gabe.

2. Aurreko apartatuaren arabera kauzioa aplikatuta gerakina geratuz gero, ez zaio eginbideen eskatzaileari itzuliko harik eta 256. artikulua 3. apartatua aurreikusitako hilabete bateko epea igaro arte.

263. artikulua. Lege berezietan aurreikusitako atariko eginbideak.

256.1.9. artikuluan aipatutako eginbideak direnean, kapitulu honetako manuak aplikatuko dira kasuan kasuko gaiari buruzko legeria berezian xedatutakoari aurka egiten ez dion heinean.

III. KAPITULUA

Dokumentuen, irizpenen, txostenen eta bestelako bitarteko eta tresnen aurkezpenaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

264. artikulua. Dokumentu prozesalak.

Demandarekin edo erantzunarekin aurkeztu beharko dira:

1. Ahalordetze judizialen erregistro elektronikoaren ziurtagiria edo erregistro horrek esleitutako zenbakiaren erreferentzia.
2. Auzilariak bere buruari esleitzen dion ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak.
3. Auziaren gauzaren balioa egiaztatzen duten dokumentuak edo irizpenak, eskumenaren eta prozeduraren ondoreetarako.

265. artikulua. Auzigaiaren funtsari buruzko dokumentuak eta bestelako idazki eta objektuak.

1. Demanda edo erantzun ororekin batera aurkeztu beharko dira:

- 1.) Alderdiek lortu nahi duten babes judizialerako eskubidearen oinarri diren dokumentuak.
 - 2.) 299. artikulua 2. apartatua aipatzen diren bitartekoak eta tresnak, baldin eta alderdiek formulatutako babes-uzien oinarri badira haiek.
 - 3.) Ziurtagiriak eta oharra, edozein erregistro-idazpeni buruzkoak edo edozein motatako erregistro-liburu, jardun edo espedienteren edukiari buruzkoak.
 - 4.) Alderdiek beren uziak oinarritzeko erabiltzen dituzten aditu-irizpenak, lege honen 337. eta 339. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe. Alderdietakoren bat doako laguntza juridikoa izateko eskubidearen titularra bada, ez du irizpena ekarri beharko demandarekin edo erantzunarekin, iragarri soilik egin beharko du, 339. artikulua 1. apartatua aurreikusten denarekin bat etorritik.
 - 5.) Ikerketa pribatuko profesional legez gaituek egindako txostenak, alderdien uzien oinarri diren egitate garrantzitsuei buruzkoak. Lekuko-froga gauzatuko da egitate horiei buruz, baldin eta ziurra direla aitortu ez bada.
2. Demanda edo erantzuna aurkeztean, alderdiek ezin badituzte izan aurreko apartatuaren lehenengo hiru zenbakietan aipatzen diren dokumentuak, bitartekoak eta tresnak, orduan bakarrik izendatu ahal izango dute zein artxibotan, protokolotan edo tokitan dauden, edota zein erregistrotatik, erregistro-liburutatik, jarduketatik edo espedientetatik lortu nahi den ziurtagiri bat.

Prozesura ekarri nahi dena artxiboan, protokoloan, espedientean edo erregistroan egon eta kopia fedee-mailak eska edo lor badaitezke, ulertuko da auzi-jartzaileak hura eskura duela, eta demandarekin batera aurkeztu beharko du; ezin izango da mugatu aurreko paragrafoan aipatzen den izendapena egitera.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, judizio aurreko entzunaldian edo hitzezko judizio ikustaldian aurkeztu ahal izango ditu auzi-jartzaileak auzigaiaren funtsari buruzko dokumentuak, bitartekoak, tresnak, irizpenak eta txostenak, betiere demandatuak demanda-erantzunean egindako alegazioen ondorioz soilik jarri bada agerian haien interesa edo garrantzia.



266. artikulua. Kasu berezietan galdatutako dokumentuak.

Demandarekin batera aurkeztu beharko dira:

1. Mantenua eskatzearen oinarri den titulua behar bezala justifikatzen duten dokumentuak, demandaren objektua hura denean.

2. Atzera-eskuratzeke demandaren oinarri den tituluaren froga-hastapen diren dokumentuak eta, prezioaren kontsignazioa legez edo kontratuz galdatzen denean, dokumentu bat, egiaztatzen duena atzera-eskuratzearen objektua den gauzaren prezioa kontsignatu izana, ezaguna izanez gero, edota kauzioa eratu izana, prezioa jakin orduko haren kontsignazioa bermatze aldera.

3. Demandatzailearen aldeko mortis causa oinordetza modu fede-emailean jasotzen duen dokumentua, bai eta zerrenda bat ere, jabe edo gozamedun moduko edukizailerik ez egoteari buruz deklaratu dezaketen lekukoak biltzen dituen, baldin eta eskatzen bada auzitegiak demandatzailearen edukitzan jar ditzala oinordetza horren bidez eskuratu direla baieztatutako ondasun batzuk.

4. Demanda onartzeko, lege honek edo beste batek berariaz galdatzen dituen bestelako dokumentuak.

267. artikulua. Dokumentu publikoak aurkezteko modua.

265. artikuluan xedatutakoaren arabera ekarri beharreko dokumentuak publikoak direnean, kopia soil bidez aurkeztu ahal izango dira, dela paper-euskarrian, dela, kasua denean, euskarri elektronikoan, irudi digitalizatuaren bidez, Administrazio Judizial Elektronikoaren Estatuko Batzorde Teknikoak irudi elektronikoari buruz emandako araudi teknikoaren arabera, eta, haren autentikotasuna aurkaratuz gero, dokumentuaren jatorrizkoa, kopia edo ziurtagiria eraman ahal izango da autoetara, haren froga-ondoreak sortzeko nahitaezkoak diren betekizunekin.

268. artikulua. Dokumentu pribatuak aurkezteko modua.

1. Ekarri beharreko dokumentu pribatuak jatorrizko bidez edo fede-emaile publiko eskudunak autentifikatutako kopia bidez aurkeztuko dira, eta autoei batuko zaizkie edo haien lekukotza egingo da; interesdunek hala eskatuz gero, itzuli egingo dira aurkeztutako jatorrizkoak edo kopia fede-emaileak. Dokumentu horiek irudi digitalizatuen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, Administrazio Judizial Elektronikoaren Estatuko Batzorde Teknikoa irudi elektronikoari buruz emandako araudi teknikoaren arabera, eta, autentikotasuna aurkaratuz gero, dokumentuaren jatorrizkoa, kopia edo ziurtagiria eraman ahal izango da autoetara, haren froga-ondoreak sortzeko nahitaezkoak diren betekizunekin.

2. Alderdiak dokumentu pribatuaren kopia soila bakarrik badauka, hura aurkeztu ahal izango du, dela paper-euskarrian, dela irudi digitalizatu bidez aurreko apartatuan azaldutako moduan, eta jatorrizkoaren ondore berak izango ditu, betiere alderdietako edozeinek zalantzan jartzen ez badu biak bat datozela.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Dokumentu pribatuaren jatorrizkoa espediente, protokolo, artxibo edo erregistro publiko batean egonez gero, kopia autentikoa aurkeztuko da edo artxiboa, protokoloa edo erregistroa izendatuko da, 265. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren arabera.

268 bis artikulua. Dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.

Dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, Justizia Administrazioan teknologien erabilera arautzen duen Legeak ezarritakoa bete beharko da.

269. artikulua. Hasierako aurkezpenik ezaren ondorioak. Kasu bereziak.

1. Demandarekin edo erantzunarekin batera, edo, kasua denean, judizio aurreko entzunaldian, ez bada aurkeztzen dokumentu, bitarteko, tresna, irizpen eta txostenetakoren bat, lege honetako manuen arabera une horietan ekarri beharrekoa, edota, dokumentua eskura izan gabe, ez bada izendatzen zein tokitan dagoen, alderdiak ezin izango du jada dokumentua geroago aurkeztu, ezta autoetara ekar dadila eskatu ere, hurrengo artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

2. Ez dira demandak onartuko, baldin eta haiekin batera ez badira aurkeztzen 266. artikuluan aipatutako dokumentuak.

270. artikulua. Hasierakoa ez den une prozesalean dokumentuak aurkeztea.

1. Demandaren eta erantzunaren ondoren, edo, bidezkoa denean, judizio aurreko entzunaldiaren ondoren, auzitegiak auzigaiaren funtsari buruzko dokumentuak, bitartekoak eta tresnak soilik onartuko dizkio auzi-jartzaileari edo demandatuari hauetako kasuetakoren batean audientzian:

1.) Demandaren edo erantzunaren, edo, kasua denean, judizio aurreko entzunaldiaren osteko datakoak izatea, betiere une prozesal horiek baino lehenago ezin izan badira egin edo lortu.

2.) Demanda edo erantzuna, edo, kasua denean, judizio aurreko entzunaldia baino lehenagoko dokumentuak, bitartekoak edo tresnak izatea, baldin eta aurkeztzen dituen alderdiak justifikatzen badu ez duela lehenago jakin haiek bazirela.

3.) Dokumentuak, bitartekoak edo tresnak lehenago lortu ezin izana alderdiari ezin egotzi dakizkiokeen kausengatik, betiere alderdiak behar bezala egin badu lege honen 265. artikulua 2. apartatua aipatutako izendapena, edo, kasua denean, 265. artikulua 2. apartatua 4.) zenbakian aipatutako iragarpena.

2. Auzigaiaren funtsari lotutako egitatei buruzko dokumentu, bitarteko edo tresna bat aurkeztzen bada aurreko apartatua aipatutako egintzak prekluitu ondoren, gainerako alderdiek judizioan edo ikustaldian alegatu ahal izango dute ez dela bidezkoa hura aintzat hartzea, aurreko paragrafoan aipatutako kasuetakoren batean ere ez dagoelako. Auzitegiak ekitaldian bertan ebatziko du, eta, prozesua luzatzeko



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

asmoa edo fede gaiztoa hautematen badu dokumentuaren aurkezpenean, 180 eurotik 1.200 eurora bitarteko isuna ezarri ahal izango dio, gainera, erantzuleari.

3. Bideokonferentzia bidez egindako egintza judizial edo prozesalean dokumentuak aurkezteko, aurkezpen hori posible denean lege honen arabera, Justizia Administrazioan teknologien erabilera arautzen duen Legean ezarritakoa bete beharko da.

271. artikulua. Aurkezpenaren behin betiko preklusioa eta erregelaren salbuespenak.

1. Alderdiei ez zaie onartuko ikustaldiaren edo judizioaren ostean aurkeztutako inongo dokumenturik, tresnarik, bitartekorik, txostenik edo irizpenik, hargatik eragotzi gabe judizio arruntan azken eginbideei buruz 435. artikulua hiruugarren erregelari aurreikusitakoa.

2. Aurreko apartatuan xedatutakotik salbuesten dira epaiak edo ebazpen judizialak nahiz administrazioko agintaritzarenak, baldin eta konklusioak formulatzeko unea baino lehenagokoa ez den datan eman edo jakinarazi badira, betiere baldintzatzaile edo erabakigarri izan badaitezke lehen auzialdian nahiz edozein errekurtsotan ebazteko.

Ebazpen horiek epaia emateko aurreikusitako epearen barruan ere aurkeztu ahal izango dira; antolaketa-eginbide bitartez helaraziko zaizkie gainerako alderdiei, bost eguneko epe komunean komenigarritzat jotzen dutena alega eta eska dezaten, eta eten egingo da epaia emateko epea.

Auzitegiak epaian bertan ebatziko du dokumentuaren onartzeari eta norainokoari buruz.

272. artikulua. Hasierakoa ez den une prozesalean justifikatu gabe aurkeztutako dokumentua ez onartzea.

Lege honetan ezarritako une prozesalak igaro ostean dokumentu bat aurkezten denean, kasu eta inguruabar ezberdinen arabera, auzitegiak, probidentzia bidez, ez du onartuko, dela ofizioz dela alderdi-eskariz, eta aginduko du aurkeztu duenari itzul dakiola.

Ezin izango da errekurtsorik jarri ez-onartzea erabakitzen duen ebazpenaren aurka, bigarren auzialdian baliatzeari kalterik egin gabe.

IV. KAPITULUA

Idazkien eta dokumentuen kopiez eta haien helarazpenaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

273. artikulua. Idazkiak eta dokumentuak aurkezteko modua.

1. Justiziako profesional guztiak behartuta daude Justizia Administrazioan dauden sistema telematikoak edo elektronikoak erabiltzera idazkiak, abiaraztekoak izan ala ez, eta gainerako dokumentuak aurkezteko, halako moldez non bermatuta egongo den aurkezpenaren autentikotasuna eta modu fede-emailean jasota geratuko den osorik igorri eta hartu izana, bai eta haiek egin ziren data ere.

2. Prokuradore bidez ordezkaturik ez dauden pertsonak une oro hautatu ahal izango dute bitarteko elektronikoaren bidez jardungo duten ala ez Justizia Administrazioaren aurrean, salbu eta behartuta daudenean harekiko harremanak bitarteko elektronikoaren bidez izatera. Hautatutako bitartekoa noiznahi aldatu ahal izango da.

3. Kasu orotan, Justizia Administrazioarekin bitarteko elektronikoaren bidez esku hartzera behartuta egongo dira, gutxienez, honako subjektu hauek:

- a. Pertsona juridikoak.
- b. Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
- c. Diharduten lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera hori dela-eta Justizia Administrazioarekin egiten dituzten izapideetarako eta jarduketetarako.
- d. Notarioak eta erregistratzaileak.
- e. Justizia Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnak.
- f. Administrazio publikoetako funtzionarioak, beren kargua dela-eta egiten dituzten izapideetarako eta jardunetarako.

4. Bide telematikoak edo elektronikoak aurkeztutako idazkiek eta dokumentuek adieraziko dute zein espediente-motari eta -zenbakiri eta zein urteri egiten dieten erreferentzia, eta behar bezala erreferentziatutako dira, haiek behar bezala aurkitzea eta kontsultatzea ahalbidetzen duen aurkibide elektroniko baten bidez. Idazki nagusiak sinadura elektronikoa eraman beharko du, eta Justizia Administrazioan teknologien erabilera arautzen duen Legean ezarritakora egokituko da.

Interesgarritzat jotzen bada, idazki nagusiak dokumentu gehigarriak aipatu ahal izango ditu, betiere gako bat badago, aipamen hori dokumentu bakoitzarekin modu unibokoan erlazionatzen duena, eta, aldi berean, haren osotasuna modu eraginkorrean bermatzen duena.

5. Artikulu honetan aurreikusten den teknologiak erabiltzeko eginbeharra edo ezartzen diren zehaztapen teknikoak ez betetzeak berekin ekarriko du Justizia Administrazioaren letraduak bost eguneko gehieneko epea ematea hura konpontzeko. Epe horretan konpontzen ez bada, idazkiak eta dokumentuak ez aurkeztutzat hartuko dira ondore guztietarako.

6. Artikulu honetan ezarritakoari kalterik egin gabe, idazkiak eta dokumentuak paper-euskarrian aurkeztuko dira legeak berariaz hala adierazten duenean.

Gainerako alderdiak adina hitzez hitzeko kopia ekarriko edo aurkeztuko da paper-euskarrian eta ikustaldietara ekarritako edo aurkeztutako idazki eta dokumentu bakoitzeko.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

274. artikulua. Bulego judizialak beste alderdi interesdunei kopiak helaraztea, prokuradoreek esku hartzen ez dutenean.

Alderdiek prokuradoreak ordezkatura jarduten ez dutenean, aurkezten dituzten idazkien eta dokumentuen kopiak sinatuko dituzte, haien zehaztasunaz erantzungo dute, eta Justizia Administrazioaren letraduak entregatuko dizkie kopia horiek aurkako alderdiari edo alderdiei.

Aurkezpena bitarteko telematikoz egiten bada horretara behartuta egoteagatik edo hala hautatzeagatik, betiere galdatutako aurrebaldintzak eta betekizunak betez gero, bulego judizialak helaraziko dizkie kopiak gainerako alderdiei, bidezkoa den bitartekoaren bidez.

275. artikulua. Kopiak ez aurkeztearen ondoreak.

Aurreko artikuluan aipatutako kasuetan, idazkien eta dokumentuen kopiak aurkeztu ez izana ez da izango batzuk eta besteak ez onartzeko zioa.

Justizia Administrazioaren letraduak ez-aurkezte hori nabarmenduko dio alderdiari, eta bost eguneko epean konpondu beharko du. Ez-aurkeztea epe horren barruan erremediatzen ez denean, Justizia Administrazioaren letraduak idazkien eta dokumentuen kopiak egingo ditu haiek aurkeztu behar zituen alderdiaren kontura, salbu eta demanda- edo erantzun-idazkiak direnean, edo haiekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak; kasu horietan, ez aurkeztutzat joko dira lehenak edo ez ekarritzat bigarrenak, ondore guztietarako.

276. artikulua. Idazkien eta dokumentuen kopiak helaraztea, prokuradoreak esku hartzen duenean.

1. Alderdiak prokuradoreak ordezkatura daudenean, prokuradore horietako bakoitzak helarazi beharko dizkie gainerako alderdien prokuradoreei auzitegiari aurkezten dizkion idazkien eta dokumentuen kopiak.

2. Telematikoki aurkeztutako idazkien eta dokumentuen kopien helarazpena bitarteko telematikoz egingo da, aurkezpenaren aldi berean, eta aurkeztu izana egiaztatzen duen ordezkagirian jasotako datan eta orduan hartuko da egindakotzat. Legearen arabera ondore prozesaletarako baliogabea den egunean eta orduan eginez gero helarazpena, ulertuko da hurrengo lehenengo egun eta ordu baliodunean egin dela.

3. Aurkezpena, 135. artikulua 4. apartatuarekin bat etorritik, paper-euskarrian egiten den kasuetan, prokuradoreak telematikoki eta aldez aurretik helarazi beharko dizkie gainerako alderdien prokuradoreei auzitegiari aurkeztuko dizkion idazkien eta dokumentuen kopiak.

277. artikulua. Prokuradore bidezko helarazpena ez egitearen ondoreak.

Aurreko artikulua lehenengo bi apartatuak aplikatzekoak direnean, Justizia Administrazioaren letraduak ez du onartuko idazkien eta dokumentuen aurkezpena, baldin eta jasota ez badago pertsonatutako gainerako alderdiei kopiak helarazi zaizkiela.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

278. artikulua. Helarazpenaren ondoreak, epeen aribideari eta zenbaketari dagokienez.

276. artikuluan ezarritako moduan helarazi den egintzak, legearen arabera, jardun prozesal bat egiteko epe baten irekiera dakarrenean, epeak bere aribidea hasiko du, auzitegiaren esku-hartzerik gabe, eta epea zenbatu beharko da entregatutako kopietan jasota utzi den dataren hurrengo egunetik edo, 135. artikuluan aipatzen diren bitarteko teknikoak erabiltzen direnean, helarazpena egin dela ulertzen den dataren hurrengo egunetik.

279. artikulua. Kopien funtzioa.

1. Alderdien uziak ondorioztatuko dira idazkien, dokumentuen eta auzitegiaren edo Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpenen kopiak ikusita, zeinak auzilari bakoitzak bere esku gorde beharko dituen.

2. Alderdiei ez zaizkie jatorrizko autoak paper-formatuan emango, hargatik eragotzi gabe espediente judizial elektronikoa eskura jartzea, bidezkoa den kasuetan, eta, Justizia Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez esku hartzera behartuta ez daudenean, idazki edo dokumenturen baten kopia eskatu eta lortu ahal izatea.

280. artikulua. Kopia baten zehaztugabetasuna salatzea eta ondoreak.

Auzilari bati entregatutako kopia jatorrizkoarekin bat ez datorrela salatzen bada, auzitegiak, gainerako alderdiak entzun ondoren, kopia entregatu denetik jardundakoaren deuseztasuna deklaratu du, baldin eta haren zehaztugabetasunak alderdiaren defentsari eragin ahal izan badio, hargatik eragotzi gabe kopia zehaztugabea aurkeztu duenak izan dezakeen erantzukizuna.

Auzitegiak, deuseztasuna deklaratzear, xedatuko du jatorrizkoarekin bat datorren kopia entrega dadila, kasuan-kasuan bidezkoak diren ondoreetarako.

V. KAPITULUA

Frogaz: xedapen orokorrak

1. atala. Frogaren objektuaz, beharraz eta ekimenaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

281. artikulua. Frogaren objektua eta beharra.

1. Frogaren objektu izango dira prozesuan lortu nahi den babes judizialarekin lotura duten egitateak.
2. Frogaren objektu izango dira, halaber, ohitura eta atzerriko zuzenbidea. Ohituraren froga ez da beharrezkoa izango, baldin eta alderdiak haren existentziarekin eta edukiarekin ados badaude eta haren arauak ordena publikoa ukitzen ez badute. Atzerriko zuzenbidea frogatu egin beharko da edukiari eta indarraldiari dagokionez, eta hura aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen ikerketa-bideez baliatu ahal izango da auzitegia.
3. Frogatzetik salbuetsita daude alderdien erabateko adostasuna duten egitateak, salbu eta prozesuaren objektu den gaia auzilarien xedatze-ahalmenetik kanpo dagoen kasuetan.
4. Ez da beharrezkoa izango nabaritasun erabatekoa eta orokorra duten egitateak frogatzea.

282. artikulua. Froga-jardueraren ekimena.

Alderdi-eskariz gauzatuko dira frogak. Nolanahi ere, auzitegiak erabaki ahal izango du, ofizioz, froga jakin batzuk gauza daitezela edota dokumentuak, irizpenak edo bestelako frogabideak eta froga-tresnak ekar daitezela, legeak hala ezartzen duenean.

283. artikulua. Froga-jarduera desegokia edo alferrekoa.

1. Ez da onartu beharko inolako frogarik, baldin eta desegokitza jo behar bada prozesuaren objektuarekin loturarik ez izateagatik.
2. Halaber, alferrekoak izateagatik, ez dira onartu behar frogak, baldin eta ezein kasutan lagundu ezin badezakete arrazoizkoak eta seguruak diren erregelen eta irizpideen arabera egitate eztabaidagarriak argitzen.
3. Inoiz ez da froga gisa onartuko legeak debekatutako ezein jarduera.

1. bis atala. Froga-iturrietarako irispideaz, lehiaren zuzenbidea hausteagatik kalteak erreklamatzeko prozeduretan



283 bis a) artikulua. Frogak erakustea, lehiaren zuzenbidea hausteagatik eratorritako kalteengatiko akzioak egikaritzeko prozesuetan.

1. Auzitegiak agindu ahal izango du alderdi demandatuak edo hirugarren batek bere esku dituen frogak egokiak erakuts ditzala, betiere atal honetan ezarritako baldintzak beteta, aldezturik eskaera hori egiten badu alderdi demandatzaile batek, zeinak aurkeztu baitu zio arrazoiduna, lehiaren zuzenbidea hausteagatik eratorritako kalteengatiko akzioak egikaritzearen bideragarritasuna justifikatzeko behar bestekoak diren egitate eta frogak biltzen dituen, eta zentzuzko irispidea baitu haietara. Auzitegiak, halaber, alderdi demandatzaileari edo hirugarren bati agindu ahal izango dio frogak egokiak erakuts ditzala, demandatuaren eskariz.

Eskaera horrek, besteak beste, honako datu hauek aipatu ahal izango ditu:

- a. Ustezko arau-hausleen identitatea eta helbideak.
 - b. Ustezko arau-hauste diren jokabideak eta praktikak.
 - c. Produktu eta zerbitzu ukituen identifikazioa eta bolumena.
 - d. Produktu eta zerbitzu ukituen zuzeneko eta zeharkako erosleen identitatea eta helbideak.
 - e. Produktu eta zerbitzu ukituei hurrenez hurren aplikatutako prezioak, lehenengo eskualdaketatik hasi eta amaierako kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eskura jarri arte.
 - f. Ukitu-taldearen identitatea.
- Apartatu hau ulertzen da kalterik egin gabe Espainiako auzitegiek dituzten eskubideei eta betebeharrak, zeinak eratorri baitira Kontseiluaren 2001eko maiatzaren 28ko 1206/2001 (EE) Erregelamendutik, gai zibiletan edo merkataritzakoetan frogak lortzeko eremuan estatu kideetako jurisdikzio-organoen arteko lankidetzari buruzkotik.

2. Auzitegiak agindu ahal izango du erakuts daitezela frogak-pieza espezifikoak edo frogak-kategoria egokiak, ahalik eta mugatuenak eta zedarrituenak zio arrazoidunean zentzuz xedatzen diren egitateak kontuan hartuta.

3. Auzitegiak frogak erakusketa mugatuko du proportzionala dena. Alderdi batek eskatutako erakusketa proportzionala ote den zehazteko orduan, auzitegiak aintzat hartuko ditu alderdi guztien eta hirugarren interesdun guztien interes legítimoak. Zehazki, kontuan hartuko du:

- a. zein neurritaraino dagoen babestuta erreklamazioa edo defentsa frogak erakusteko eskaera justifikatzen duten egitate eta frogak eskuragarrien bidez;
- b. zein den frogak erakustearen norainokoa eta kostua, ukitutako edozein hirugarrenentzat bereziki, bai eta prozeduran alderdientzat seguruenik garrantzitsua izango ez den informazioaren bilaketa indiskriminatuak saihesteko ere;
- c. ea informazio konfidentziala duten erakusteko eskatzen diren frogak, bereziki hirugarrenei dagokienez, eta informazio konfidentzial hori babesteko dauden xedapenak.

283 bis b) artikulua. Konfidentziasunari buruzko erregelak.

1. Auzitegiak agindu ahal izango du erakuts daitezela informazio konfidentziala duten frogak, baldin eta egokitzen jotzen badu kalteengatiko akzioetan. Auzitegiak informazio hori erakusteko agintzen duenean eta



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

hura egokitzen jotzen duenean, konfidentziasuna babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, artikulua honetan aurreikusitako moduan.

2. Lehiaren zuzenbidearen arau-hauste batetik eratorritako kalteengatik akzioak eragozteko enpresek duten interesa ez da izango babesa justifikatzen duen interes bat.

3. Auzitegiak frogak erakusteko agintzen duenean, erabateko ondoreak emango dizkie abokatuaren eta bezeroaren arteko komunikazioen konfidentziasunaren erregela aplikagarri, bai eta sekretua gordetzeko eginbeharrari buruzko erregelei ere.

4. Auzitegiak kontuan hartuko du ea eskuratu nahi den froga-iturriak informazio konfidentzialik duen, bereziki hirugarrenei dagokionez, eta zein xedapen dauden informazio konfidentzial hori babesteko.

5. Kasu zehatzaren inguruabarrak kontuan hartuta beharrezko irizten dionean, auzitegiak agindu ahal izango du eskatzaileak irispidea izan dezala informazio konfidentziala duten froga-iturrietara, informazio hori babesteko neurri efikazak hartuta kasu orotan.

Ondore horietarako, auzitegiak, besteak beste, honako neurri hauek hartu ahal izango ditu:

1.) Dokumentuetan nahiz beste euskarri batzuetan dauden pasarte sentikorrek bereiztea.

2.) Entzunaldiak ateak itxita egitea edo haietarako sarbidea murriztea.

3.) Frogak aztertzeak baimena nori ematen zaion mugatzea.

4.) Adituei informazioaren laburpenak egiteko enkargatzea, konfidentziala ez den modu agregatu batean edo konfidentziala ez den beste edozein modutan.

5.) Ebazpen judizial baten bertsio ez-konfidentzial bat idaztea, non ezabatu egin baitira datu konfidentzialak dituzten pasarteak.

6.) Froga-iturri jakin batzuetara irispidea mugatzea alderdien legezko ordezkariari eta defendatzaileei eta konfidentziasun-betebeharraren menpe dauden adituei.

283 bis c) artikulua. Gastuak eta kauzioa.

1. Eskatzailearen kontura izango dira froga-iturrietara iristeko neurriak gauzatzeak sortzen dituen gastuak. Halaber, eskatzaileak erantzungo du haiek bidegabe erabiltzearen ondorioz sor ditzakeen kalte-galerengatik.

2. Inori neurriren bat eskatuz gero froga-iturrietara iristeko, pertsona horrek auzitegiari eskatu ahal izango dio eskatzaileak behar besteko kauzioa eman dezala gastuengatik erantzuteko, bai eta sor dakizkiokeen kalte-galerengatik ere. Auzitegiak eskabide hori onartuko du edo ez, eta, kasua denean, kauzioaren zenbatekoa zehaztuko du. Lege honen 529. artikuluan 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan eman ahal izango da kauzioa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Ezin izango da kauziorik galdatu, baldin eta haren desegokitasunagatik atal honetan aurreikusitako ahalmenak egikaritzea eragozten badu.

283 bis d) artikulua. Eskumena.

1. Froga-iturrietara iristeko neurriei buruzko eskaerez arduratzeko auzitegi eskuduna izango da lehen auzialdian auzigaiaz arduratzen ari dena edo, prozesua ez bada hasi, demanda nagusiaz arduratzeko eskuduna dena.

2. Ez da onartuko deklinatoriarik froga-iturrietara iristeko neurrietan, baina neurri horiek eskatzen zaizkion auzitegiak ofizioz berrikusiko du bere eskumena, eta, iritziz gero berari ez dagokiola eskaeraz arduratzea, abstenitu egingo da arduraz, eta eskatzaileari adieraziko dio zein auzitegitara joan behar duen. Hura bere eskumenean inhibitzen bada, goragoko hurbileneko auzitegi erkideak ebatziko du gatazka negatiboa, lege honen 60. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

283 bis e) artikulua. Zein unetan eskatu froga-iturrietara iristeko neurriak.

1. Prozesua hasi aurretik, demandan, edo prozesua ebazkizun dagoen bitartean eskatu ahal izango dira froga-iturrietara iristeko neurriak.

2. Prozesua hasi aurretik erabaki direnean neurriak, eskatzaileak demanda aurkeztu beharko du hura gauzatzea amaitu eta hurrengo hogeiei egunetan. Hala egiten ez badu:

- a. Auzitegiak, ofizioz, kostuak ordaintzera kondenatuko du eskatzailea, eta deklaratu du neurriak ezarri zaizkion subjektuari sortu dizkion kalte-galeren erantzulea dela; kalte-galera horiek diru bihurtu ahal izango dira lege honen 712. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz;
- b. auzitegiak, alderdi kaltetunaren eskariz, beharrezkoak diren neurriak erabaki ahal izango ditu eginda dauden betetze-egintzak errebokatzeko, bereziki barnean hartuta mota orotako dokumentuak, aktak, lekukotzak eta objektuak itzultzea; halaber, alderdi kaltetunaren eskariz ere, deklaratu ahal izango du eskatzaileak ezin izango dituela beste ezein prozesutan erabili lortu dituen datuak eta informazioa, haren aldetik gehiegikeria hautematen denean. Hurrengo artikuluan aurreikusitako prozeduraren bideetatik bideratuko dira eskabide horiek.

283 bis f) artikulua. Prozedura.

1. Behin eskaera hartuta, neurria zein pertsonaren aurka eskatu eta hari helaraziko zaio, eta, kasua denean, halaber, uzia edo defentsa zein pertsonaren aurka egikaritu edo egikaritu nahi den eta hari; alderdi guztiak zitutuko dira ahozko ikustaldi batera, hurrengo hamar egunen barruan egin beharko dena ebazkizun dauden auzigaiei hurrenkerari jarraitu beharrik gabe eskatutako neurriaren eraginkortasunak hala galdatzen duenean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Froga-iturrietara iristeko neurrien eskaerak froga ziurtatzeko neurrien eskaera ere har dezake barnean, lege honen 297. eta 298. artikuluen arabera bidezkoak badira. Kasu horretan, artikulua honetan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

3. Ikustaldian, subjektu interesdunek azaldu ahal izango dute beren eskubideari komeni zaiona, eskura dituzten froga guztiez baliatuz, zeinak onartu eta gauzatu egingo diren baliagarriak eta egokiak izanez gero.

4. Behin ikustaldia amaituta, auzitegiak bost eguneko epean erabakiko du auto bidez. Ebazpen horren aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, etete-ondoreekin, eta, ezesten bada, alderdi kalte-dunak bigarren auzialdian baliatu ahal izango ditu, kasua denean, bere eskubideak; baina, demanda jarri aurretik formulatutako eskaera izanez gero, zuzenean jarri ahal izango da apelazio-errekurtsoa. Aurkaratutako ebazpenaren efikazia eteteko eskatu ahal izango du alderdi apelatzaileak. Eskatutako etendurari buruz pronuntziatuko da apelazio-auzitegia, laburki arrazoitutako probidentzia bidez, zeina autoak hartu ondoren eman beharko baitu; bien bitartean, etenda geratuko da aurkaratutako ebazpena.

5. Lege honetan ezarritako irizpide orokorren arabera ezarriko dira kostuak.

283 bis g) artikulua. Froga-iturrietara iristeko neurriaren betearazpena.

1. Auzitegiak kauzioa eman behar dela erabakitzen badu, beti emango da erabakitako neurria betetzeko edozein egintzaren aurretik.

2. Auzitegiak beharrezkoak diren bitartekoak erabiliko ditu erabakitako neurria betearazteko, eta bidezkoa dena xedatuko du hura betetzeko lekuari eta moduari dagokionez. Zehazki, erabakitako neurria dokumentuak eta tituluak aztertzean datzanean, gaian aditua den pertsona batek aholkatuta bertaratu ahal izango da eskatzailea, eta hark eskatzailearen kontura jardungo du beti.

3. Beharrezkoa izanez gero, erabaki ahal izango du, auto bidez, toki itxietan eta egoitzetan sartzea eta haiek miatzea eta haietan dauden dokumentuak eta objektuak okupatzea.

4. Alderdietako edozeinen eskariz, auzitegiak probidentzia emango du, neurriaren gauzatzea amaitutzat ematen duena.

283 bis h) artikulua. Froga-iturrietara iristeko neurriak gauzatzeari oztopoak jartzearen ondorioak.

1. Baldin eta neurriaren helburukoak froga-iturriak suntsitzen edo ezkututzen baditu edota beste edozein modutan galarazten badu haietara benetan iristea, hargatik eragotzi gabe aurreko artikuluen 3. apartatuan xedatutakoa eta kasua denean agintaritza judizialarekiko desobedientzian erortzeagatik izan daitekeen erantzukizun penala, eskatzaileak auzitegiari eskatu ahal izango dio ezar dezala honako neurri hauetako bat edo batzuk:

- a. Onartutzat deklaratu ditzala froga-iturriek ustez aipatzen zituzten egitateak. Ondore horietarako, eskatzaileak zehatz-mehatz finkatuko du bere ustez zein egitatek hedatu behar den deklarazio hori.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

- b. Isilbidez amore emandakotzat har dezala demandatua edo etorkizuneko demandatua, formulatutako edo formulatuko diren uziei dagokienez. Ondore horietarako, eskatzaileak zehatz-mehatz finkatuko du zein uziri dagokionez deklaratu behar den isilbidezko amore-emate bat.
- c. Erabat edo partzialki ezets ditzala neurriak ukitutako subjektuak prozesu nagusian egikaritu ditzakeen salbuespenak edo errekonbentzioak. Ondore horietarako, eskatzaileak zehatz-mehatz finkatuko du bere ustez zein salbuespenetara edo errekonbentzioetara hedatu behar den ezestea.
- d. Neurrien helburukoari hertsapen-isuna ezar dakiola, neurriaren betetzea atzeratzen den egun bakoitzeko 600 eta 60.000 euro artekoa.

2. Aurreko neurrietako edozeini eskaera bat gehitu ahal izango zaio, neurriaren helburukoa kondentzen duena frogatutara iristeko intzidentearen kostuak eta prozesu nagusiaren kostuak ordaintzera, prozesu horren emaitza edozein dela ere.

3. Auzitegiak gainerako alderdiei helaraziko die eskabide hori, hamar eguneko epean alegazio idatziak formula ditzaten; ondoren, auto bidez ebaztuko du, apelazioan errekurragarria izango dena.

283 bis i) artikulua. Lehiaren agintaritza baten espediente batean dauden frogak erakustea.

1. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera eta, modu osagarrian aplikagarriak diren neurrian, atal honen xedapen orokorren arabera eraenduko da lehiaren agintaritza baten espediente batean dauden frogen erakusketa.

2. Artikulu honetan xedatutakoa ulertuko da kalterik egin gabe dokumentuetarako irispide publikoa gai duten arauetara eta praktikei, bat etorritik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko maiatzaren 30eko 1049/2001 (EE) Erregelamenduan, jendeak Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen dokumentuetara irispidea izateari buruzkoan, ezarritakoarekin.

3. Artikulu honetan xedatutakoa ulertuko da, halaber, kalterik egin gabe lehiaren agintaritzen barne-dokumentuen eta lehiaren agintaritzen arteko posta-trukearen babesari buruzko arauetara eta praktikei, Europar Batasuneko zuzenbidean eta Espainiako zuzenbidean daudenei.

4. Informazioa erakusteko agindu baten proportzionaltasuna ebaluatzerakoan, auzitegiak, 283 bis a) artikuluan galdatutakoaz gain, honako hau aztertuko du:

- a. ea eskaera berariaz formulatu den lehiaren agintaritza bati aurkeztutako edo agintaritza horren artxiboetan kontserbatutako dokumentuen izaeraren, objektuaren edo edukiaren arabera, lehiaren agintaritza bati emandako dokumentuei buruzko eskaera ez-berariazko baten bidez egin ordez;
- b. ea erakustea eskatzen duen alderdiak jurisdikzio-organo nazional baten aurreko kalteengatik akzio bati lotuta egiten duen, eta,
- c. artikulu honen 5. eta 10. apartatuei dagokionez, edo artikulu honen 11. apartatuaren arabera lehiaren agintaritza baten eskariz, lehiaren zuzenbidearen aplikazio publikoaren efikazia babesteko beharra.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5. Honako froga-kategoria hauek erakusteko agindu ahal izango du auzitegiak, baina, soilik, lehiaren agintaritza batek prozedura amaitutzat eman duenean ebazpen baten bidez edo beste moduren batean:

- a. Pertsona fisiko edo juridiko batek lehiaren agintaritza baten prozedura baterako berariaz prestatutako informazioa;
- b. lehiaren agintaritzek landu duten informazioa, prozeduraren aribidean alderdiei bidali zaiena, eta
- c. erretiratu diren transakzio-eskaerak.

6. Auzitegiak inoiz ezin izango dio agindu alderdi bati edo hirugarren bati erakuts dezala honako froga-kategoria hauetakoren bat:

- a. klementzia-programa baten baitan egindako deklarazioak, eta
- b. transakzio-eskaerak.

7. Demandatzaile batek eskaera ziodun bat aurkeztu ahal izango du auzitegi batek onar ditzan 6. apartatuaren a) edo b) letretan aipatzen diren frogak, helburu bakarra izanik haien edukiak egoki daitezela Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren hirugarren apartatuko klementzia-programa baten baitan egindako deklarazioaren eta transakzio-eskaeraren definizioetara. Ebaluazio horretan, auzitegiek lehiaren agintaritza eskudunei soilik eskatu ahal izango diete laguntza. Kasuan kasuko frogen egileei ere eskainiko zaie entzunak izateko aukera. Jurisdikzio-organo nazionalak ez die inoiz froga horietara iristeko aukerarik emango beste alderdi batzuei edo hirugarrenei.

8. Baldin eta eskatutako frogaren zati batzuk soilik estaltzen baditu 6. apartatuak, gainerako zatiak erakutsiko dira artikuluko honen xedapen egokiekin bat etorritik, kontuan hartuta zein kategoriatan dauden.

9. Kalteengatiko akzioetan, une oro agindu ahal izango da erakuts daitezela frogak, lehiaren agintaritza baten espedienteetan jasota egonik artikuluko honetan zerrendatutako kategorietako batean ere sartzen ez direnak.

10. Auzitegiak lehiaren agintaritzei ez die errekerituko beren espedienteetan jasotako frogak erakusteko, salbu eta alderdi edo hirugarren bat ere gai ez denean froga horiek ekartzeko arrazoizko modu batean.

11. Lehiaren agintaritza batek bere ikuspuntua adierazi nahi duenean erakuste-errekerimenduen proportzionaltasunari buruz, oharrak aurkeztu ahal izango ditu, bere ekimenez, erakuste horren onargarritasunari buruz erabaki behar duen auzitegiaren aurrean.

283 bis j) artikulua. Lehiaren agintaritza baten espedienterako irispidearen bidez eskusiboki lortu diren frogen erabilerari ezarritako mugak.

1. Aurreko artikuluko 6. apartatuan definitutako kategorietan sartzen diren frogak, pertsona fisiko edo juridiko batek lortu dituenak lehiaren agintaritza baten espedienterako irispidearen bidez eskusiboki, ez dira onargarriak izango lehiaren zuzenbidea hausteagatik eratorritako kalteengatiko akzioetan.

2. Harik eta lehiaren agintaritza batek erabaki bat hartuz edo beste edozein modutan prozedura amaitutzat eman arte, aurreko artikuluko 5. apartatuan definitutako kategorietan sartzen diren frogak,



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

pertsona fisiko edo juridiko batek lortu dituenak lehiaren agintaritzaren baten espedienterako irispidearen bidez eskusiboki, ez dira onargarritzat joko lehiaren zuzenbidea hausteagatik eratorritako kalteengatik akzioetan, edota babestuta geratuko dira beste modu batera aplikagarriak diren arauekin bat etorritik.

3. Pertsona fisiko edo juridiko batek lehiaren agintaritzaren baten espedienterako irispidearen bidez eskusiboki lortu dituen frogak, artikuluko honen 1. edo 2. apartatuetan aurreikusita ez daudenak, lehiaren zuzenbidea hausteagatik eratorritako kalteengatik akzio batean erabili ahal izango ditu, soilik, pertsona horrek edo haren eskubideen oinardekoa den pertsona fisikoak edo juridikoak, barnean hartuta haren erreklamazioa eskuratu duen pertsona.

283 bis k) artikulua. Konfidentzialtasunaren eta frogaiturrien erabileraren betebeharrak ez betetzearen ondorioak.

1. Kalterik egin gabe agintaritzaren judizialarekiko desobedientzia-delituaren erortzeagatik kasua denean izan daitekeen erantzukizun penalari, konfidentzialtasun-eginbeharren bat betetzen ez bada frogaiturriak erabiltzean edo mugak betetzen ez badira frogaiturri horiek erabiltzean, alderdi kalteak auzitegiari eskatu ahal izango dio ezar dezala neurri hauetako bat edo batzuk:

- a. Erabat edo partzialki ezestea prozesu nagusian egikaritutako edo aurka egindako akzioa edo salbuespenak, baldin eta prozesu hori ebatzizun badago eskaera formulatzeko unean. Ondore horietarako, alderdi kalteak zehatz-mehatz finkatuko du zein akzio edo salbuespen ezetsi behar den.
- b. Arau-hauslea deklaratu dezala sortutako kalte-galeren erantzule zibil, eta kondena dezala haiek ordaintzera. Kalteen munta lege honen 712. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera zehaztu ahal izango da.
- c. Arau-hauslea kondena dadila frogaiturrietara iristeko intzidentetaren kostuak eta prozesu nagusiaren kostuak ordaintzera, prozesu horren emaitza edozein izanda ere.

2. Baldin eta auzitegiak hautematen badu ez-betetzea ez dela larria, aukera izango du, alderdi kalteak eskatutakoa onartu ordez, 6.000 eta 1.000.000 euro arteko isuna ezartzeko arau-hausleari. Ondore horietarako, arau-hausletzat jo ahal izango dira bai alderdia baita haren legezko ordezkariak eta defendatzaileak ere, eta isun bereziak ezarri ahal izango zaizkio haietako bakoitzari.

3. Auzitegiak gainerako alderdiei helaraziko die 1. apartatuan aipatutako eskaera, alegazio idatziak formula ditzaten hamar eguneko epean; ondoren, auto bidez ebatziko du, apelazioan errekurragarria izango dena.

2. atala. Proposamenaz eta onarpenaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

284. artikulua. Froga proposatzeko modua.

Bananduta adierazita egingo da frogabide ezberdinen proposamena. Halaber, jasota utziko da frogabide bakoitza gauzatzeko zitzatu behar diren pertsonen egoitza edo bizilekua, kasua denean.

Judizio arruntean, alderdiek, froga proposatzerakoan, pertsona horiei buruzko zenbait datu ez badituzte, hurrengo bost egunen barruan ekarri ahal izango dizkiote auzitegiari.

285. artikulua. Proposatutako frogen onargarritasunari buruzko ebazpena.

1. Proposatutako froga bakoitzaren onarpenari buruz ebatziko du auzitegiak.

2. Frogetako bakoitza onartzen duen edo onartzen ez duen ebazpenaren aurka, berraztertze-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da, zeina unean bertan bideratuko eta ebatziko den, eta, ezetsiz gero, alderdiak protesta formulatu ahal izango du bere eskubideak bigarren auzialdian baliatu ahal izateko.

286. artikulua. Egitate berriak edo jakin berriak. Froga.

1. Baldin eta, lege honetan aurreikusitako alegazio-egintzak prekluitu ondoren eta epaia emateko epea igarotzen hasi baino lehen, auzia erabakitzeko garrantzitsua den egitatearen bat gertatzen edo ezagutzen bada, alderdiek baliatu egin ahal izango dute egitate hori, egitateak zabaltzeko idazkia deituko denaren bidez berehala hura alegatuz, alegazioa judizio- edo ikustaldi-ekitaldian egin daitekeenean izan ezik. Kasu horretan, ekitaldi horietan gauzatuko da jarraian datozen apartatueta aurreikusitako guztia.

2. Justizia Administrazioaren letraduak aurkako alderdiari helaraziko dio egitateak zabaltzeko idazkia, bost egunen barruan adieraz dezan ea alegatutako egitatea ziurtzat aitortzen ala ukatzen duen. Kasu horretan, zabaltze-idazkian baieztatutako egitatea argitzen edo funsgabetzen duen edozer alegatu ahal izango du.

3. Egitate berria edo jakin berria ziurtzat aitortzen ez bada, froga egokia eta baliagarria proposatuko eta gauzatuko da, prozedura-motaren arabera lege honetan aurreikusitako moduan, jardunen egoera dela-eta posible denean. Osterantzean, judizio arruntean, azken eginbideei buruz xedatutakoari jarraituko zaio.

4. Alegazio-egintzen ostean gertatutako egitatearen alegazioa errefusatuko du auzitegiak, probidentzia bidez, baldin eta inguruabar hori ez bada behar bezala egiaztatzen alegazioa formulatzeko unean. Eta egitate bat alegatzen denean egintza haiek prekluitu ostean, geroago ezagutu dela adieraziz, auzitegiak erabaki ahal izango du, probidentzia bidez, bidegabekia dela hura aintzat hartzea, baldin eta, inguruabarrak eta gainerako alderdien alegazioak ikusita, justifikatu ez bada egitatea ezin izan zela alegatu eskuarki aurreikusitako une prozesalean.

Azken kasu horretan, auzitegiak prozesua luzatzeko asmorik edo fede gaizto prozesalik hautematen badu alegazioan, 120 eurotik 600 eurora arteko isuna ezarri ahal izango dio erantzuleari.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

287. artikulua. Frogaren zilegitasunik eza.

1. Alderdietako batek ulertzen duenean oinarritzko eskubideak urratu direla froga onarturen bat lortzerakoan edo haren jatorrian, berehala alegatu beharko du, eta, kasua denean, gainerako alderdiei helarazi.

Arazo hori, zeina auzitegiak ere ofizioz planteatzea dezakeen, judizio-ekitaldian ebatziko da, edo, hitzezko judizioak badira, ikustaldiaren hasieran, frogak gauzatzen hasi aurretik. Ondore horretarako, alderdiei entzungo zaie, eta, kasua denean, aipatutako zilegitasun-ezaren puntu zehatzari buruz ekitaldian proposatzen diren frogak egokiak eta baliagarriak gauzatuko dira.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ebazpenaren aurka, berraztertze-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da, zeina judizioaren edo ikustaldiaren ekitaldian bertan jarriko, bideratuko eta ebatziko den, eta salbu geratuko da alderdien eskubidea, behin betiko epaiaren aurkako apelazioan frogak ez-zilegia berriro aurkaratzekoa.

288. artikulua. Zehapenak, aurreikusitako epean frogak ez gauzatzeagatik.

1. Auzilaria zehatuko du auzitegiak, harengatik ez bada garaiz gauzatu frogak onarturen bat, gutxienez 60 euroko isunarekin eta gehienez 600 eurokoarekin, salbu eta errurik eza egiaztatzen duenean edota, frogak berak proposatu badu, atzera egiten dioenean hura gauzatzeari.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako isuna judizioaren edo ikustaldiaren ekitaldian ezarriko da, alderdiei aurretiaz entzun ondoren.

3. atala. Frogak gauzatzeari buruzko beste xedapen orokor batzuez

289. artikulua. Frogak gauzatzeko modua.

1. Frogak kontraesanek gauzatu behar dira ikustaldi publikoan, edo antzeko publikizitatearekin eta dokumentazioarekin, baldin eta auzitegiaren egoitzan gauzatzen ez badira.

2. Presentzia judiziala desenkusaezina izango da alderdien eta lekukoen galdeketa, tokien, objektuen edo pertsonen azterketan, eta hitzen, soinuaren, irudien eta, kasua denean, zifren eta datuen erreproduktzioan, bai eta aditu-irizpenen azalpenetan, aurkaratzeetan, zuzenketetan edo zabalitzeetan ere.

3. Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean aurkeztutako jatorritzko dokumentuak edo kopia autentikoak, ekarriko dira bestelako frogabideak edo frogak-tresnak, aitortuko da dokumentu pribatu baten autentikotasuna, eratu behar diren letrak eratzeko idazketa-multzoak eta egingo da aditu-irizpenaren egilearen berrespen hutsa, betiere ikustaldi publikotik kanpo egiten badira edo Justizia Administrazioaren letradua



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

ekitaldian presente badago. Baina auzitegiak bere kabuz aztertu beharko ditu dokumentu bidezko frogak, txosten eta irizpen idatziak eta ekarritako beste edozein bitarteko edo tresna.

290. artikulua. Bananduta gauzatzen diren froga-egintzetarako seinalamendua.

Froga guztiak egintza-batasunean gauzatuko dira. Salbuespenez, auzitegiak erabaki ahal izango du, probidentzia bidez, froga jakin batzuk judizio- edo ikustaldi-ekitalditik kanpo gauza daitezela; kasu horietan, Justizia Administrazioaren letraduak seinalatuko du, bost eguneko aurrerapenarekin gutxienez, zein den judizioan edo ikustaldian gauzatu ezin diren froga-egintzen eguna eta ordua. Salbuespenez, froga ez bada auzitegiaren egoitzan gauzatzen, kasuan kasuko tokia zehaztuko eta jakinaraziko da.

Judizioaren edo ikustaldiaren aurretik gauzatuko dira froga horiek kasu orotan.

291. artikulua. Alderdien zitazioa eta esku-hartze posiblea judiziotik kanpo frogak gauzatzean.

Frogaren subjektu edo objektu izan ez arren, alderdiak behar besteko aurrerapenarekin zitatuko dira, gutxienez berrogeita zortzi ordukoarekin, judiziotik edo ikustalditik kanpo gauzatu behar diren froga guztiak gauzatzeko.

Alderdiek eta haien abokatuak legeak baimentzen duen esku-hartzea izango dute froga-jardunetan, dagokion frogabidearen arabera.

292. artikulua. Entzunaldira agertzearen nahitaezkotasuna. Isunak.

1. Azkenik seinalatutako judizioan edo ikustaldian agertzeko eginbeharra izango dute lekuko eta aditu zitatuak. Eginbehar hori haustea ehun eta laurogei eurotik seiehun euro arteko isunarekin zehatuko du auzitegiak, aurretiaz bost egunerako entzunaldia emanda.

2. Aurreko apartatuan aipatutako isuna ezartzeko unean, auzitegiak errekerimendua egingo dio, probidentzia bidez, isuna ezarri zaionari, Justizia Administrazioaren letraduak berriro zitazioa egiten dionean ager dadin, eta ohartaraziko dio bere aurka jardun ahal izango dela agintaritzari desobeditzeagatik.

3. Aurretiazko desenkusarik gabe, lekuko edo aditu bat agertzen ez denean judizioan edo ikustaldian, auzitegiak, agertutako alderdiei entzunda, probidentzia bidez erabakiko du ea entzunaldia eten behar den edo aurrera jarraitu behar duen.

4. Halaber, aurretiazko desenkusarik gabe, galdeketari erantzuteko zitatutako auzilaria agertzen ez denean, 304. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta artikulua honen 1. apartatuan aurreikusitako isuna ezarriko zaio hari.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. atala. Froga aurreratzeaz eta ziurtatzeaz

293. artikulua. Froga aurreratzeko kasuak eta kausak. Eskumena.

1. Edozein prozesu hasi aurretik, hura hasi nahi duenak, edo haren aribidean zehar alderdietatik edozeinek, auzitegiari eskatu ahal izango dio froga-egintzaren bat aurretiaz gauza dadila, baldin eta pertsonengatik edo gauzen egoeragatik beldur oinarritutako badago egintza horiek ezin izango direla gauzatu oro har aurreikusitako une prozesalean.

2. Aurretiazko froga-jardunen eskabidea prozesua hasi aurretik formulatzen bada, auzigai nagusiaz arduratzeko eskuduntzat hartzen den auzitegiari zuzenduko zaio. Auzitegi horrek ofizioz zainduko du bere jurisdikzioa eta eskumen objektiboa, baita aginduzko arauetan oinarritutako lurralde-eskumena ere, eta ez da onargarria izango deklinatoria.

Prozesua hasita, auzigai arduratzen ari den auzitegiari zuzenduko zaio aurretiazko frogaren eskabidea.

294. artikulua. Aurretiazko frogaren proposamena, onarpena, denbora eta errekurtsioak.

1. Aurretiazko frogaren proposamena egingo da haietako bakoitzarentzat lege honetan xedatutakoaren arabera, eskabidearen oinarri diren arrazoiak azalduta.

2. Auzitegiak oinarritun irizten badio eskabideari, onartu egingo du, eta probidentzia bidez xedatuko du beharrezkotzat iriztitako unean egin daitezela jardunak, judizioa edo ikustaldia egin baino lehen beti, eta Justizia Administrazioaren letraduak egingo du seinalamendu egokia.

295. artikulua. Aurretiazko froga kontraesanez gauzatzea.

1. Prozesua hasi baino lehen aurretiazko froga eskatzen eta gauzatzea erabakitzen bada, hura eskatu duenak bere garaian demandatu nahi dituen pertsona edo pertsonak izendatuko ditu, eta zitatu egingo dira, gutxienez bost eguneko aurrerapenarekin, kasuan kasuko frogabidearen arabera lege honek baimentzen duen esku-hartzea izan dezaten froga-jarduna gauzatzean.

2. Prozesua jadanik ebazkizun badago aurretiazko froga gauzatzeko unean, alderdiek bertan esku hartu ahal izango dute, lege honek frogabide bakoitzarentzat xedatutakoaren arabera.

3. Froga artikulua honen 1. apartatuaren babesean gauzatzen den kasuetan, jardundakoari ez zaio froga-baliorik emango, baldin eta demanda bi hilabeteko epean jartzen ez bada aurretiazko froga gauzatu zenetik, non eta ez den egiaztatzen prozesua ezin izan zela epe horren barruan hasi ezinbestegatik edo antzeko garrantzia duen beste edozein kausagatik.



4. Aurretiaz gauzatutako froga berriro egin ahal izango da, baldin eta froga proposatzeko unean hura egin ahal bada eta alderdietatik batek hala eskatzen badu. Kasu horretan, auzitegiak onartuko du kasuan kasuko froga gauza dadila, eta kritika zintzoaren erregelen arabera baloratuko ditu, dela aurretiaz egindakoa, dela ondoren egindakoa.

296. artikulua. Aurretiazko frogaren jardunetako materialen zaintza.

1. Aurretiazko frogei dagozkien dokumentuak eta gainerako konbikzio-piezak edo haiek gauzatzearen ondorioz lortzen direnak, bai eta gauzatutako froga-jardunak eta haien emaitzak fidelki islatu ditzaketen materialak ere, froga erabaki zuen auzitegiko idazkariaren zaindapean geratuko dira, harik eta demanda jarri arte, zeinari erantsiko baitzaizkio, edota harik eta haiek ezagutzeko eta baloratzeko une prozesala iritsi arte.

2. Azken batean, demandaz arduratu behar duen auzitegia ez bada aurretiazko froga erabaki edo gauzatu zuena, azken horri erreklamatu dio, alderdi-eskariz, bide ofizialetik igor dakizkiola aktak, dokumentuak eta jardunen gainerako materialak.

297. artikulua. Froga ziurtatzeko neurriak.

1. Edozein prozesu hasi aurretik, hura hasi nahi duenak, edo haren aribidean zehar auzilarietatik edozeinek, auzitegiari eskatu ahal izango dio har ditzala, probidentzia bidez, ziurtatze-neurri baliagarriak, saihests dadin giza jokabideen edo natura-gertaeren ondorioz, objektu materialak edo gauzen egoerak suntsi edo alda baititzakete, froga garrantzitsu bat bere garaian gauzatzea ezinezkoa izatea, are hura proposatzeak zentzurik ez izatea ere.

2. Neurriak izango dira xedapen batzuk, zeinak auzitegiaren iritziz aukera ematen duten gauzak edo egoerak kontserbatzeko edo haien errealtatea eta ezaugarriak modu fede-emailean jasota uzteko. Froga ziurtatzearen xedeetarako, egiteko edo ez-egiteko mandatuak ere zuzendu ahal izango dira, ohartarazita, haiek hautsiz gero, agintaritzari desobeditzeagatik jardungo dela.

Jabetza industrialeko eta jabetza intelektualeko eskubideak urratzen diren kasuetan, behin neurrien eskatzaileak zentzuz eskuragarri dituen urraketa frogak aurkeztuta, neurri horiek izan ahalko dira, bereziki, auziaren salgaien eta objektuen deskribapen xehatua, lagina hartuta edo gabe, edo inkautatzea bera, bai eta salgai horien ekoizpenean edo banaketan erabilitako materialena edo tresnena eta haiekin lotutako dokumentuena ere.

3. Froga ziurtatzeko jurisdikzioari eta eskumenari dagokionez, aurretiazko frogari buruz xedatutakoari jarraituko zaio.

4. Froga ziurtatzeko neurriak prozesua hasi aurretik erabaki direnean, ondorerik gabe geratuko dira, baldin eta eskatzaileak ez badu demanda aurkeztu erabakitako ziurtatze-neurriak benetan hartu diren datatik hurrengo hogeitaz eguneko epean. Auzitegiak, ofizioz, auto bidez erabakiko du egindako betetze-egintzak desegitea edo errebokatzeko; eskatzailea kondenatuko du kostuak ordaintzera, eta deklaratu du neurriak ezarri zaizkion subjektuari sortu dizkion kalte-galeren erantzulea dela.



298. artikulua. Betekizunak. Froga ziurtatzeko neurriak hartzeko prozedura. Kontrakautelak.

1. Auzitegiak erabakiko du, probidentzia bidez, kasuan-kasuan zer neurri egoki hartu, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badira:

1.) Ziurtatu nahi den froga egingarria, egokia eta baliagarria izatea hura ziurta dadila proposatzen den unean.

2.) Arrazoiak edo zioak egotea susmatzeko ezen, ziurtatze-neurriak hartu ezean, ezinezkoa gerta daitekeela froga hori etorkizunean gauzatzea.

3.) Proposatzen den ziurtatze-neurria, edo xede bera izanik auzitegiak hobesten duen beste bat, bideragarritzat jo ahal izatea, eta epe labur baten barruan gauzatu ahal izatea, inplikaturako pertsonen edo hirugarrenei kalte larriak eta neurrigabeak sortu gabe.

2. Froga bat ziurtatzeko neurriak hartzeari buruz erabakitzeko, auzitegiak kontuan hartu beharko du eta onartu ahal izango du, halakorik bada, neurriaren eskatzailearen eskaintza, neurriak sor ditzakeen kalte-galeren bermea ematekoa.

3. Halaber, auzitegiak erabaki ahal izango du, probidentzia bidez, ziurtatze-neurriaren ordeztu onar dadila neurria jasan beharko lukeen pertsonak egindako eskaintza, ziurtatu nahi den froga gauzatuko dela bermatzeko behar besteko kauzioa ematekoa 64. artikuluen 2. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduan.

4. Froga ziurtatzeko neurriak hartuko dira hura jasan behar duen pertsonari aurretiaz entzunda. Behin prozesua hasita eskatzen badira, demandatuari ere entzungo zaio. Demandatu izango denak edo jadanik izan denak soilik alegatu ahal izango du, neurriak hartzeari aurka egitean, froga egingaitza, desegokia edo alferrekoa dela.

5. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, gertagarria denean aurretiazko entzunalditik eratorritako atzerapenak kalte konponezinak sortzea neurria eskatu duenaren eskubideari, edo arrisku frogagarria dagoenean frogak suntsitzeko edo haiek gauza daitezela beste modu batera eragozteko, gauzatzea eskatzen bada, auzitegiak neurria erabaki ahal izango du, izapide gehiagorik gabe, probidentzia bidez. Probidentziak zehaztu egingo ditu, bananduta, hura galdatu duten betekizunak eta hura hartzea eraman duten arrazoiak, demandatuari edo demandatu izango denari entzun gabe. Probidentzia hori errekuriezina izango da, eta luzamenik gabe jakinaraziko zaie alderdiei eta jasan behar duenari, eta, lehenago ezin bada, neurriak betearazi eta berehala.

6. Ziurtatze-neurria aurretiazko entzunaldirik gabe hartu bada, aurkakotza formulatu ahal izango du demandatu izango denak edo jadanik izan denak edo hura jasan behar duenak, hura erabaki zuen probidentziaren jakinarazpenetik hogeit hamar eguneko epean.

7. Neurriari aurka egiteko oinarria izan ahalko da arriskurik ez egotea froga etorkizunean gauzatzeko eskubideari kalte konponezinak sortzeko, bai eta beste neurri batzuk erabakitzeko aukera egotea ere, ez hain astunak eta berdin bideragarriak. 3. apartatuan aurreikusitako kauzioarekin ere ordeztu ahal izango da.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Demandatu izango denak edo jadanik izan denak soilik alegatu ahal izango du froga egingaitza, desegokia edo alferrekoa dela.

8. Eskatzaileari helaraziko zaio aurkakotza-idazkia, eta, kasua denean, jadanik demandatu denari edo neurria jasan behar duenari. Horiei guztiei ikustaldi baterako zitazioa egingo zaie, bost eguneko epean, eta, hura egin ondoren, aurkakotzari buruz erabakiko da, hiru eguneko epean, errekurriezina den auto baten bidez.

VI. KAPITULUA

Frogabideez eta presuntzioez

299. artikulua. Frogabideak.

1. Honako hauek dira judizioan erabili ahal izango diren frogabideak:

- 1.) Alderdien galdeketa.
- 2.) Dokumentu publikoak.
- 3.) Dokumentu pribatuak.
- 4.) Adituen irizpena.
- 5.) Azterketa judiziala.
- 6.) Lekukoen galdeketa.

2. Halaber, onartu egingo dira, lege honetan xedatutakoaren arabera, hitza, soinua eta irudia erreproduitzeko bitartekoak, bai eta hitzak, datuak, zifrak eta kontabilitate-helburuaz nahiz bestelakoaz egindako eragiketa matematikoak artxibatzea eta ezagutzea edo erreproduitzzea ahalbidetzen duten tresnak ere, prozesurako garrantzitsuak badira.

3. Artikulu honen aurreko apartatuetan berariaz aurreikusita ez dagoen beste edozein bitartekoren bidez egitate garrantzitsuei buruz ziurtasuna lor daitekeenean, auzitegiak, alderdi-eskariz, froga gisa onartuko du, eta kasuan-kasuan beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

300. artikulua. Frogabideak gauzatzeko hurrenkera.

1. Auzitegiak, ofizioz edo alderdi-eskariz, beste hurrenkerarik erabaki ezean, hurrenkera honetan gauzatuko dira frogak judizioan edo ikustaldian:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Alderdien galdeketa.

2.) Lekukoen galdeketa.

3.) Adituek beren irizpenei buruz egindako deklarazioak edo irizpenon aurkezpena, salbuespenez une horretan onartu behar direnean.

4.) Azterketa judiziala, auzitegiaren egoitzatik kanpo gauzatu behar ez denean.

5.) Auzitegiaren aurrean erreproduzitzea filmatzeko, grabatzeko eta antzeko tresnen bidez hartutako hitzak, irudiak eta soinuak.

2. Froga onarturen bat ezin bada gauzatu entzunaldian, aurrera egingo du entzunaldiak gainerakoak gauzatzeko, bidezkoa den hurrenkeran.

1. atala. Alderdien galdeketaz

301. artikulua. Alderdien galdeketaren kontzeptua eta subjektuak.

1. Alderdi bakoitzak auzitegiari eskatu ahal izango dio gainerakoen galdeketa, ezagutzen dituzten eta judizioaren objektuarekin lotura duten egitateei eta inguruabarrei buruzkoa. Koauzilari batek beste koauzilari baten galdeketa eskatu ahal izango du, baldin eta bien artean aurkakotza edo interes-gatazka badago prozesuan.

2. Judizioan diharduen alderdi legitimatua ez denean harreman juridiko eztabaidatuaren subjektua edo lortu nahi den eskubidearen titularra, subjektu edo titular horren galdeketa eskatu ahal izango da.

302. artikulua. Galdeketaren edukia eta galderen onarpena.

1. Galdeketaren galderak ahoz formulatuko dira, baiezko eran, eta behar bezain argi eta zehatz. Haietan ez da sartu beharko ez baloraziorik ezta kalifikaziorik ere, eta, halakorik sartuz gero, egingabetzat hartuko dira.

2. Auzitegiak egiaztatuko du ea galderak galdeketarako onartutako egitateei dagozkien, eta galdeketaren ekitaldian bertan erabakiko du galderen onargarritasunari buruz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

303. artikulua. Formulatzaren diren galderak aurkaratzea.

Galdeketari erantzun behar dion alderdiak, bai eta, kasua denean, haren abokatuak ere, ekitaldian aurkaratu ahal izango dute galderen onargarritasuna, eta nabarmendu ahal izango dituzte beren ustez bidegabeak diren eta egingabetzat hartu behar diren galderetako balorazioak eta kalifikazioak.

304. artikulua. Ez agertzea eta egitateak isilbidez onartzea.

Galdeketaarako zitaturako alderdia judizioan agertzen ez bada, auzitegiak aitortutaz hartu ahal izango ditu alderdi horrek pertsonalki esku hartutako egitateak, ziurtzat finkatuz gero erabat kaltegarri litzaizkiokenak, eta, gainera, lege honen 292. artikulua laugarren apartatua aipatutako isuna ezarri ahal izango dio.

Zitazioan, interesdunari ohartaraziko zaio ezen, justifikaziorik eman gabe agertzen ez bada, aurreko paragrafoan zehaztutako ondorea sortuko dela.

305. artikulua. Galdeketari erantzuteko modua.

1. Alderdi galdekatuak bere kabuz erantzungo du, ezein erantzun-zirriborroz baliatu gabe; baina aukera emango zaio dokumentuak eta oharak edo apunteak ekitaldian kontsultatzeko, auzitegiaren iritziz oroimenari lagungarri zaizkionean.

2. Erantzunek baieztak edo ezeztak izan beharko dute, eta, galderen izaera kontuan hartuta hori posible ez bada, zehatzak eta konkretuak izango dira. Deklaratzaileak beti gehitu ahal izango ditu komenigarritzat jotzen dituen azalpenak, planteatutako galderekin lotura dutenak.

306. artikulua. Auzitegiaren ahalmenak eta abokatuaren esku-hartzea. Galdeketa gurutzatua.

1. Froga eskatu zuenaren abokatuak formulatutako galderak behin erantzunda, gainerako alderdien abokatuak eta deklaratu duenarenak deklaratzailerari formulatu ahal izango dizkiote, hurrenkera horretan, beste galdera batzuk, egitateak zehazteko egokitutaz jotzen dituztenak. Auzitegiak baztertu egin beharko ditu desagokiak edo alferrekoak diren galderak.

Argibideak eta gehigarriak lortzeko helburuarekin, auzitegiak ere galdekatu ahal izango du deklaratzera deitutako alderdia.

2. Abokatuaren esku-hartzea nahitaezkoa ez denean, alderdiek, auzitegiaren baimenarekin, elkarri egin ahal izango dizkiote prozesuaren egitate garrantzitsuak zehazteko egokiak diren galderak eta oharak, eta auzitegiak zainduko du hitza gurutza ez dezatela eta elkarri moztu ez diezaiotela. Auzitegiak baztertu egin beharko ditu desagokiak edo alferrekoak diren esku-hartzeak, eta deklaratzera deitutako alderdia galdekatu ahal izango du.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Deklaratzaileak eta haren abokatuak ekitaldian aurkaratu ahal izango dituzte manu honen aurreko apartatuetan aipatutako galderak. Halaber, 303. artikuluan aurreikusitako oharrak formulatu ahal izango dituzte. Auzitegiak bidezkoa dena ebatziko du, erantzuteko hitza eman aurretik.

307. artikulua. Deklaratzeari ezezkoa ematea, erantzun iheskorak edo ondoriorik ateratzen uzten ez dutenak, eta egitate pertsonalak onartzea.

1. Deklaratzera deitutako alderdiak ezezkoa ematen badio deklaratzeari, auzitegiak ekitaldian ohartaraziko dio ezen, sekretua gordetzeko legezko betebeharrak izan ezean, ziurtzat aitor ditzakeela galderetan aipatzen diren egitateak, betiere galdekatuak haietan pertsonalki esku hartu badu eta haiek ziurtzat finkatzea erabat edo zati batean kaltegarri bazaio.

2. Deklaratzaileak emandako erantzunak iheskorak edo ondoriorik ateratzen uzten ez dutenak direnean, auzitegiak aurreko apartatuan aurreikusitako ohartarazpena egingo dio, ofizioz edo alderdi-eskariz.

308. artikulua. Galdekatuaren egitate ez-pertsonalei buruzko deklarazioa.

Galderaren bat deklaratzaillearen egitate ez-pertsonalei buruzkoa denean, bere ezagutzen arabera erantzun beharko du hark, haien jatorriaren arrazoa emanda, baina proposatu ahal izango du galderari erantzun diezaiola hirugarren batek ere, egitateak pertsonalki ezagutzen baditu auzigaiarekin duen lotura dela-eta, eta deklarazioaren ondorioak onartuko ditu.

Ordezte hori ontzat emateko, froga proposatu zuen alderdiak onartu beharko du. Onartu ezean, deklaratzailleak eskatu ahal izango du aipatutako pertsonari lekuko gisa egin dakiola galdeketa, eta auzitegiak bidezkoa dena erabakiko du.

309. artikulua. Pertsona juridikoari edo nortasun juridikorik gabeko entitateari galdeketa egitea.

1. Alderdi deklaratzaillea pertsona juridiko bat edo nortasunik gabeko entitate bat izanik haren judizio-ordezkariek ez duenean esku hartu prozesuaren egitate eztabaidagarrietan, inguruabar hori alegatu beharko du judizio aurreko entzunaldian, eta galdekatutako pertsona juridikoaren edo entitatearen izenean esku hartu zuen pertsonaren identitatea ezagutarazi beharko du, judiziorako zitazioa egin dakion.

Ordezkariek eskatu ahal izango du identifikatutako pertsonari lekuko gisa egin dakiola zitazioa, dagoeneko ez bada pertsona juridikoaren edo nortasunik gabeko entitatearen kide.

2. Galderaren bat pertsona juridikoaren edo nortasunik gabeko erakundearen ordezkariak esku hartu ez duen egitatei buruzkoa izan arren, bere ezagutzen arabera erantzun beharko du, haien jatorriaren arrazoa emanda, eta alderdiaren izenean egitate haietan esku hartu zuen pertsona identifikatu beharko du. Auzitegiak pertsona horri egingo dio zitazioa, judiziotik kanpo galdekatua izateko, azken eginbide gisa, 435. artikuluen 1. apartatuaren bigarren erregelaren xedatutakoarekin bat etorritik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Aurreko zenbakietan aurreikusitako kasuetan, pertsona juridikoaren edo nortasunik gabeko entitatearen ordezkariak adierazten badu ez dakiela zein pertsonak hartu zuen esku egitateetan, auzitegiak ulertuko du adierazpen hori erantzun iheskorra dela edo deklaratzeari jarki zaiola, 307. artikulua 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako ondoreekin.

310. artikulua. Deklaratzaileen inkomunikazioa.

Egitate eztabaidagarri berberei buruz deklaratu behar dutenean bi alderdik edo gehiagok edo 301. artikulua 1. artikulua bigarren apartatuaren arabera haiei parekatutako pertsonak, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, saihesteko alde aurretik komunika daitezela eta galde-erantzunen edukia ezagut dezatela.

Prebentzio berdina hartuko da zenbait auzikide galdekatu behar direnean.

311. artikulua. Egoitzako galdeketa.

1. Galderak erantzun behar dituen pertsona ezin bada auzitegiaren egoitzan agertu hori eragozten dion gaixotasunagatik edo beste inguruabar berezi batzuegatik, edo organo judizialak egokitzen jotzen ez badu agertze hori, alderdi-eskariz edo ofizioz, organo judizialak erabaki ahal izango du, alderdiak entzunda, deklarazioa bideokonferentzia bidez egitea, baldin eta gertatzen diren inguruabarrek adierazpenaren baliozkotasuna bermatzen badute, edo deklarazioa deklaratzaileraren egoitzan edo bizilekuan ere egin ahal izango da, epailearen edo dagokion auzitegiaren kidearen aurrean, Justizia Administrazioaren letradua bertan izanik.

2. Inguruabarrek ezinezkoa edo erabat desegokia egiten ez badute, gainerako alderdiak eta haien abokatuak egon ahal izango dira egoitzako galdeketa. Baina, auzitegiaren iritziz, pertsonaren eta tokiaren inguruabarrak kontuan hartuta bidezkoa ez bada batzuk eta besteak bertan egotea, auzitegia eta Justizia Administrazioaren letradua bertan izanik egingo da galdeketa; alderdi proposatzaileak galdera-sorta bat aurkeztu ahal izango du, eta, egokitzen joz gero, auzitegiak formulatuko ditu haiek.

312. artikulua. Egoitzako galdeketa aktan jasotzea.

Aurreko artikuluko kasuetan, Justizia Administrazioaren letraduak galde-erantzunen akta egingo du, beharrezkoak diren inguruabarrak jasota, eta deklaratu duen pertsonak bere kabuz irakurri ahal izango du. Irakurtzen ez badaki edo irakurri nahi ez badu, Justizia Administrazioaren letraduak irakurriko dio, eta auzitegiak galdekatuari galdetuko dio ea ezer gehitu edo aldatu nahi duen; jarraian, hark adierazitakoa jasoko da. Ondoren, deklaratzailerak eta gainerako bertaratuek sinatuko dute, Justizia Administrazioaren letraduaren fedepean.

Behar diren baliabide teknologikoak edukiz gero, eta epaile edo auzitegiak ikusten badu posible dela galdeketa grabatzea pertsonaren intimitatearen edo duintasunaren babesari eragin gabe, hala aginduko du, eta audio-grabazio hutsa egin ahal izango da. Kasu horietan, ez da aplikatuko aurreko paragrafoan ezarritakoa; aitzitik, Justizia Administrazioaren letraduak bermatuko du grabatutakoaren edo



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

erreproduzitutakoaren autentikotasuna eta osotasuna, sinadura elektronikoaren bidez edo legearen arabera berme horiek eskaintzen dituen beste segurtasun-sistema baten bidez.

313. artikulua. Egoitzako galdeketa laguntza judizial bidez.

Galdeketa erantzun behar dion alderdia auzitegiaren mugape judizialek kanpo bizi denean, bideokonferentzia bidez aztertuko da 137 bis artikuluan ezarritakoaren arabera; bestela, laguntza judizialaren bidez aztertu ahal izango da, 169. artikuluan 5. apartatuan aipatutako inguruabarretatik bat gertatzen bada.

Kasu horietan, galdeketa proposatu duen alderdiak formulatutako galdera-zerrenda aurkeztuko da idatzagiriarekin batera, baldin eta hark hala eskatu badu galdeketa-ekitaldira joan ezin izateagatik. Galderak egokiak direla deklaratu beharko du auzigaiaz arduratzen den auzitegiak.

314. artikulua. Alderdien galdeketa berriro egiteko debekua.

Ez da bidezkoa izango alderdiei edo 301. artikuluan 2. apartatuan aipatutako pertsonen galdeketa egitea, baldin eta alderdi edo pertsona horiek deklarazioa egin badute jada egitate berberei buruz.

315. artikulua. Galdeketa kasu berezietan.

1. Estatua, autonomia-erkidego bat, toki-erakunde bat eta beste organismo publiko bat prozesu batean alderdi izanik auzitegiak haien deklarazioa onartzen duenean, zerrenda bat igorriko zaie, judizioari edo ikustaldiari itxaron gabe, alderdi proposatzaileak frogatutako unean aurkeztu eta auzitegiak egokitzat deklaraturako galderekin, idatziz erantzuteko eta erantzuna auzitegiari entregatzeko ekitaldi haietarako seinalaturako data baino lehen.

2. Erantzun idatziak judizio-ekitaldian edo ikustaldian irakurrita, haiek igorri zituen alderdiaren ordezkariak prozesuari egingo zaizkio galdera osagarriak, auzitegiak egokiak eta baliagarriak irizitakoak, eta ordezkariak horiek behar bezala justifikatzen badu ezin dituela eskaini eskatutako erantzunak, beste galdeketa bat igorriko da, idatziz, azken eginbide gisa.

3. 307. artikuluan xedaturikoa aplikatuko zaio artikuluan honetan aurreikusitako deklarazioari.

316. artikulua. Alderdien galdeketa balorazioa.

1. Gainerako frogen emaitzekin kontraesanen ez badago, epaian ziurtzat hartuko dira alderdi batek halakotzat aitortu dituen egitateak, baldin eta haietan pertsonalki esku hartu bazuen eta haiek ziurtzat finkatzea erabat kaltegarria bazaio.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Gainerakoan, kritika zintzoaren erregelen arabera baloratuko dituzte auzitegiek alderdien deklarazioak eta 301. artikulua 2. apartatua aipatutako pertsonenak, hargatik eragotzi gabe 304. eta 307. artikuluetan xedatutakoa.

2. atala. Dokumentu publikoez

317. artikulua. Dokumentu publiko motak.

Prozesuko froga-ondoreetarako, dokumentu publikotzat hartzen dira:

1. Mota orotako ebazpenak eta jardun judizialen eginbideak, eta Justizia Administrazioaren letraduek haiei buruz egiten dituzten lekukotzak.

2. Notarioak zuzenbidearen arabera eskuetsitakoak.

3. Merkataritzako artekari elkargokideek esku-hartutakoak, eta haiek esku hartutako eragiketen ziurtagiriak, haiek egindakoak zuzenbidearen arabera eraman behar duten erregistro-liburuaren erreferentzia dutela.

4. Jabetza- eta merkataritza-erregistratzaileek egindako ziurtagiriak, erregistro-idazpenei buruzkoak.

5. Legez fede emateko ahalmena duten funtzionario publikoek beren funtzioak betetzean egindakoak.

6. Estatuaren, administrazio publikoen edo zuzenbide publikoko bestelako entitateen organoen artxiboei eta erregistroei buruzkoak, baldin eta organo, administrazio edo entitate horien xedapenei eta jardunei buruz fede emateko ahalmena duten funtzionarioek eginak badira.

318. artikulua. Dokumentu publikoen bidez froga eratzeko modua.

Dokumentu publikoek 319. artikuluan ezartzen den froga-indarra izango dute, baldin eta prozesura ekarritakoa jatorrizkoa bada, edo kopia edo ziurtagiri fede-emailea, dela paper-euskarrian dela dokumentu elektronikoaren bidez, edota, kopia soila bada, dela paper-euskarrian dela irudi digitalizatua, 267. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, betiere ez bada haren autentikotasuna aurkaratu.

319. artikulua. Dokumentu publikoen froga-indarra.

1. Hurrengo artikuluetako betekizunekin eta kasuetan, 317. artikulua 1.) zenbakitik 6.) ra zehaztutako dokumentu publikoek erabateko froga egingo dute, hala dokumentatzen duten egitatearena, egintzarena edo gauzen egoerarena edota dokumentatze hori egindako datarena, nola fede-emailearen identitatearena eta, kasua denean, bertan esku hartzen duten gainerako pertsonena.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Legeek izaera publikoa eman eta 317. artikularen 5.) eta 6.) zenbakietan ez dauden dokumentu administratiboen froga-indarra izango da izaera hori aitortzen dieten legeek ezartzen dutena. Lege horietan berariazko xedapenik egon ezean, ziurtzat hartuko dira, ematen den epaiaren ondoreetarako, aipatutako dokumentuetan jasotako egitateak, egintzak edo gauzen egoerak, salbu eta beste frogabide batzuek funsgabetzen baldin badute dokumentatutakoaren ziurtasuna.

3. Lukurreriaren gaian, auzitegiek beren konbikzioa askatasunez eratuz ebatziko dute kasuan-kasuan, artikulua honen lehenengo apartatua ezarritakoari lotu gabe.

320. artikulua. Dokumentu publikoaren froga-balioa aurkaratzea. Erkatzea edo egiaztatzea.

1. Dokumentu publiko baten autentikotasuna aurkaratzen bada, honela jardungo da erabateko froga egin ahal izan dezan:

1.) Kopia, ziurtagiriak edo lekukotza fede-emaileak jatorrizkoekin erkatuko edo egiaztatuko dira, dauden tokian daudela, dela paperezko euskarriak aurkeztuak izan, dela euskarri elektronikoan, informatikoan edo digitalean.

2.) Merkataritzako artekari elkargokideak esku hartutako polizak haren erregistro-liburuko idazpenekin egiaztatuko dira.

3.) Dokumentu elektronikoen kasuan, sinadura elektronikoaren baliozkotasuna egiaztatuko da.

2. Justizia Administrazioaren letraduak erkatuko edo egiaztatuko ditu dokumentu publikoak haien jatorrizkoekin, eta, horretarako, jatorrizkoa edo matrizea dagoen artxiboan edo lokalean eratuko da, alderdiak eta haien defendatzaileak, agertuz gero, aurrean izanik, horretarako zitatuko baitira.

Dokumentu publikoak euskarri elektronikoan erantsi bazaizkio espedienteari, Justizia Administrazioaren letraduak bulego judizialean erkatuko ditu jatorrizkoekin, alderdiak eta haien defendatzaileak, agertuz gero, aurrean izanik, horretarako zitatuko baitira.

Dokumentu publiko elektronikoen kasuan, Justizia Administrazioaren letraduak sinadura elektronikoaren baliozkotasuna egiaztatuko du, hala badagokio, egiaztapen-kode seguruaren bidez. Nolanahi ere, txostena emango duen aditu baten laguntzaz baliatu ahal izango da, hasieratik aurkaratzailearen kontura, hargatik eragotzi gabe kostuak ezartzeari buruz erabaki dezatena.

3. Erkatze edo egiaztatze batetik ondorioztatzen denean autentikoa edo zehatza dela aurkaratutako kopia edo lekukotza, aurkaratzea formulatu duenaren kontura izango dira, eskusiboki, erkatzeak edo egiaztatzeak sortutako kostuak, gastuak eta eskubideak. Baldin eta, auzitegiaren iritziz, aurkaratzea ausartegia izan bada, horretaz gain, 120 eurotik 600 eurora arteko isuna ezarri ahal izango dio.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

321. artikulua. Lekukotza edo ziurtagiri osatugabeak.

Dokumentu baten zati bakar baten lekukotza edo ziurtagiri fede-emaileak ez du erabateko froga egingo, harik eta kalte egin diezaiokeen auzilariak eskatutako gehigarriekin haiek osatu arte.

322. artikulua. Erkatzeko edo egiaztatzeko modukoak ez diren dokumentu publikoak.

1. Judizioan, erabateko froga egingo dute, egiaztatzeko edo erkatzeko beharrik gabe, aurkako frogarik ezean eta posible denean letrak erka daitezela eskatzeko ahalmena baztertu gabe:

1.) Protokolorik ez duten antzinako eskritura publikoek eta protokoloa edo matrizea desagertuta duten guztiek.

2.) Beste edozein dokumentu publikok, bere izaeragatik, erkatzeko edo egiaztatzeko jatorrizkorik edo erregistrorik ez badu.

2. Protokoloa, matrizea edo jatorrizko espedienteak desagertuta dauden kasuetan, Kode Zibilaren 1221. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

323. artikulua. Atzerriko dokumentu publikoak.

1. Ondore prozesaletarako, dokumentu publikotzat hartuko dira atzerriko dokumentuak, baldin eta, nazioarteko tratatu edo hitzarmenen edo lege berezien arabera, lege honen 319. artikuluan aurreikusitako frogaindarrak esleitu behar bazaie.

2. Ezein nazioarteko tratatu edo hitzarmenik edo lege berezirik ez denean aplikagarri, dokumentu publikotzat hartuko dira honako betekizun hauek betetzen dituztenak:

1.) Dokumentua egilestean edo egitean, bete daitezela hura egiletsi den herrialdean judizioan dokumentuak erabateko frogak egiteko galdatzen diren betekizunak.

2.) Dokumentuak eduki ditzala Espainian autentikotzat jotzeko legeztapena edo apostilla eta beharrezkoak diren gainerako betekizunak.

3. Artikulu honetako aurreko apartatuetan aipatutako atzerriko dokumentuek borondade-deklarazioak biltzen dituztenean, frogatutzat emango da haien existentzia, baina haien efikazia izango da negozio juridikoetako gaitasun-, objektu- eta forma-gaietan aplikagarriak diren Espainiako eta atzerriko arauak zehazten dutena.

3. atala. Dokumentu pribatuez



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

324. artikulua. Dokumentu pribatu motak.

Prozesuko froga-ondoreetarako, dokumentu pribatutzat hartzen dira 317. artikuluaaren ezein kasutan ez daudenak.

325. artikulua. Froga eratzeko modua.

Lege honen 268. artikuluan ezarritako moduan aurkeztuko dira dokumentu pribatuak.

326. artikulua. Dokumentu pribatuen froga-indarra.

1. Dokumentu pribatuek erabateko froga egingo dute prozesuan, 319. artikuluan ezarritako moduan, betiere dokumentuek kalte egindako alderdiak haien autentikotasuna aurkaratzen ez badu.

2. Dokumentu pribatu baten autentikotasuna aurkaratzen denean, hura aurkeztu duenak eskatu ahal izango du letren aditu-erkaketa egitea edo proposatu ahal izango du horretarako baliagarria eta egokia den beste edozein frogabide egitea.

Erkatzetik edo beste frogabide batetik dokumentuaren autentikotasuna ondorioztatzen bada, 320. artikuluaaren hirugarren apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorritik jardungo da. Haren autentikotasuna ondorioztatu ezin denean edo frogarik proposatu ez denean, auzitegiak kritika zintzoaren erregelekin bat etorritik baloratuko du.

3. Artikulu honen 2. apartatuan eta 910/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera jardungo da, baldin eta dokumentu elektronikoaren efikazia interesatzen zaion alderdiak hala eskatzen badu edo dokumentu elektronikoaren autentikotasuna, osotasuna, dataren eta orduaren zehaztasuna edo beste ezaugarri batzuk aurkaratzen badira, eta dokumentu hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 (EB) Erregelamenduan adierazitako konfiantzazko zerbitzu elektroniko ez-kalifikatu batek egiaztatu ahal badu —barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoari eta konfiantzazko zerbitzuei buruzko erregelamendua da—.

4. Aurreko apartatuan aipatutako erregelamenduan adierazitako konfiantzazko zerbitzu kalifikaturen bat erabili bada, pentsatuko da dokumentuak bete egiten duela zalantzan jarritako ezaugarria, eta konfiantzazko zerbitzua behar bezala eman dela, baldin eta, desadostasunaren ondorioetarako une garrantzitsuan, emaila eta zerbitzu kalifikatuen konfiantzazko zerrendan egon bada.

Hala ere, dokumentu elektronikoa aurkaratzen bada, aurkaratzaileari dagokio egiaztatzeko karga. Egiaztatze horien emaitza negatiboa bada, egiaztatzeak eragindako kostuak, gastuak eta eskubideak aurkaratzailearen kontura izango dira soilik. Baldin eta, auzitegiaren iritziz aurkaratzea ausartegia izan bada, horretaz gain, 300 eurotik 1200 eurora arteko isuna ezarri ahal izango dio.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

327. artikulua. Merkatarien liburuak.

Frogabide gisa merkatarien liburuak erabili behar direnean, merkataritza-legeetan xedatutakoari jarraituko zaio. Zioak emanez, eta salbuespen gisa, auzitegiak erreklamatu ahal izango du liburuak edo haien euskarri informatikoa aurkez daitezela bere aurrean, betiere aztertu behar diren idazpenak zehazten badira.

4. atala. Aurreko bi atalenzako xedapen komunez

328. artikulua. Alderdiek elkarri dokumentuak erakusteko eginbeharra.

1. Alderdi bakoitzak gainerakoei eskatu ahal izango die erakusteko eskura ez dituen eta prozesuaren objektuari edo frogabideen efikaziari buruzkoak diren dokumentuak.

2. Erakusteko eskaerarekin batera, dokumentuaren kopia soila aurkeztu beharko da, eta, halakorik ez bada edo eskura ez badago, ahalik eta modu zehatzenean adieraziko da haren edukia.

3. Merkataritza-eskalan jabetza industrialeko eskubide bat edo jabetza intelektualeko eskubide bat urratzeagatik bideratutako prozesuetan, erakusteko eskaera zabaldu ahal izango da, zehazki, banku-, finantza-, merkataritza- edo aduana-dokumentuetara; denbora-tarte jakin batean sortutakoak izan behar dute haiek, eta ustez demandatuaren eskuetan daudenak. Eskaerarekin batera, froga-hastapen bat aurkeztu beharko da, zeina izan ahal izango den urraketa gauzatu den aleen, salgaien edo produktuen lagin bat erakustea. Edozein interesdunek eskatuta, auzitegiak izaera erreserbatua esleitu ahal izango die jarduketei, izaera konfidentziala daukaten datuen eta informazioaren babesa bermatzeko.

329. artikulua. Erakusteari ezezkoa ematearen ondoreak.

1. Aurreko artikuluko erakusteari justifikaziorik gabe ezezkoa emanez gero, auzitegiak, gainerako frogak kontuan hartuta, froga-balioa esleitu ahal izango dio erakusteko eskaera egin duenak aurkeztutako kopia soilari edo dokumentuaren edukiaz hark eman duen bertsioari.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ezezko justifikatugabearen kasuan, auzitegiak, apartatu horretan xedatutakoaren ordeztu, erakusteko eskatu ziren dokumentuak prozesura ekartzeko errekerimendua egin ahal izango du, probidentzia bidez, baldin eta hala aholkatzen badute dokumentu horien ezaugarriek, ekarritako gainerako frogak, alderdi eskatzaileak formulatutako uzien edukiak eta haiek oinarritzeko alegatutakoak.



330. artikulua. Hirugarrenek dokumentuak erakustea.

1. Lege honetan atariko eginbideen gaian xedaturikoa salbuetsirik, auzilari ez diren hirugarrenei beren jabetzako dokumentuak erakusteko eskatuko zaie, soilik, alderdietako batek eskatuta, auzitegiak ulertzen duenean haiek ezagutzea oso garrantzitsua dela epaia emateko xederako.

Halako kasuetan, haiek bere eskuetan dituenaren agerraldi pertsonala aginduko du auzitegiak, probidentzia bidez, eta, hari entzun ostean, bidezkoa dena ebatziko du. Ebazpen hori ez da errekurritzeko modukoa izango, baina interesa duen alderdiak berriro egin ahal izango du bere eskabidea bigarren auzialdian.

Beren borondatez haiek erakusteko prest daudenean, ez dira behartuko bulego judizialean aurkeztera; aitzitik, hala galdatzen badute, Justizia Administrazioaren letradua joango da haien egoitzara lekukotza jasotzera.

2. Aurreko apartatuaren ondoreetarako, ez dira hirugarrentzat hartuko harreman juridiko eztabaidatuaren edo haren kausa direnen titularrak, nahiz eta judizioan alderdi izan ez.

331. artikulua. Erakutsitako dokumentuen lekukotza.

Aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera erakusteko eskaera egin zaion pertsona ez badago prest dokumentua autoei eranstearren hura gabe geratzeko, Justizia Administrazioaren letraduak haren lekukotza egingo du auzitegiaren egoitzan, erakusleak hala eskatuz gero, edo funtzionario eskudunak digitalizatuko du, Justizia Administrazioaren letraduaren fedepean.

332. artikulua. Entitate ofizialen erakuste-eginbeharra.

1. Estatuaren, autonomia-erkidegoen, probintzien, toki-entitateen eta zuzenbide publikoko gainerako entitateen bulegoek ezin izango diote ezezkoa eman auzitegiek eskatutako ziurtagiriak eta lekukotzak egiteari, ezta aurka egin ere beren bulegoetan eta artxiboetan dauden dokumentuak erakusteari, salbu eta legez izaera erreserbatu edo sekretutzat deklaraturako edo sailkatutako dokumentazioa denean. Kasu horretan, izaera horri buruzko azalpen arrazoitua bidaliko zaio auzitegiari.

2. Sekretuaren edo erreserbaren legezko eginbehar berezirik izan ezean, zerbitzu publikoak ematen dituzten entitateek eta enpresek edo Estatuaren, autonomia-erkidegoen, probintzien, udalerrien eta gainerako toki-entitateen jardueraz arduratzen direnek erakusteko betebeharra izango dute, bai eta ziurtagiriak eta lekukotzak egitekoa ere, aurreko apartatuan ezarritako moduan.

333. artikulua. Testu idatziak ez diren dokumentuen kopiak ateratzea.

Marrazkiak, argazkiak, krokisak, planoak, mapak eta nagusiki testu idatziak ez dituzten bestelako dokumentuak direnean, jatorrizkoa bakarrik existitzen bada, alderdiak eskatu ahal izango du kopia egitea



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

erakustaldian, Justizia Administrazioaren letradua aurrean dela, eta horrek fede emango du jatorrizkoaren erreproduzio fidela eta zehatza dela.

Dokumentu horiek elektronikoki ekartzen badira, kopia autentikotzat hartuko dira bulego judizialak bitarteko elektronikoz egindako kopiak.

334. artikulua. Kopia erreprografikoen froga-balioa eta erkaketa.

1. Kopia erreprografiko bidez aurkeztutako dokumentuak kalte egiten dion alderdiak erreproduzioaren zehaztasuna aurkaratzen badu, jatorrizkoarekin erkatuko da, posible izanez gero, eta, ezinezko bada, kritika zintzoaren erregelen arabera zehaztuko da haren froga-balioa, gainerako frogen emaitza kontuan hartuta.

2. Artikulu honen aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatzekoa izango zaie, halaber, marrazkiei, argazkiei, margolanei, krokisei, planoei, mapei eta antzeko dokumentuei.

3. Artikulu honetan aipatutako erkaketa Justizia Administrazioaren letraduak egingo du, hargatik eragotzi gabe alderdiek aditu-froga proposatzeko duten eskubidea.

5. atala. Adituen irizpenaz

335. artikulua. Adituen irizpenaren objektua eta helburua. Objektibotasunez jarduteko zina edo promesa.

1. Ezagutza zientifikoak, artistikoak, teknikoak edo praktikoak beharrezkoak direnean auzigaian garrantzitsuak diren egitateak edo inguruabarrak baloratzeko edo haiei buruzko ziurtasuna lortzeko, alderdiek prozesura ekarri ahal izango dute behar diren ezagutzak dituen adituen irizpena, edo eskatu, lege honetan aurreikusitako kasuetan, auzitegiak izendatutako adituak eman dezala irizpena.

2. Irizpena ematean, aditu orok adierazi beharko du, egia esango duelako zinpean edo promespean, ahalik eta objektibotasun handienarekin jardun duela eta, kasua denean, jardungo duela, kontuan hartuta bai alderdietatik edozeini mesede egin diezaiokeena eta bai kalte egin diezaiokeena, eta badakiela zein zehapen penal izan ditzakeen aditu gisa duen eginbeharra bete ezean.

3. Alderdiek kontrakoa adostu ezean, ezin izango zaio irizpenik eskatu aditu bati, baldin eta auzigai berarekin lotutako bitartekaritza edo arbitraje batean esku hartu badu.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

336. artikulua. Demandarekin eta erantzunarekin ekartzea alderdiek izendatutako adituek egindako irizpenak.

1. Auzilariak dituzten irizpenak, haiek izendatutako adituek eginik beren eskubideak defendatzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituztenak, demandarekin edo erantzunarekin ekarri beharko dituzte, hargatik eragotzi gabe 337. artikuluan xedatutakoa.

2. Irizpenak idatziz formulatuko dira, eta, kasua denean, irizpenarekin batera ekarri ahal izango dira gainerako dokumentuak, tresnak edo materialak, aditu-txostenaren objektu izan denari buruz adituak bere ustea azaltzeko egokiak. Material edo tresna horiek ekartzea posiblea edo komenigarria ez bada, haiei buruzko zehaztapen nahikoak jasoko ditu irizpen-idazkiak. Halaber, irizpenarekin batera ekarri ahal izango dira hura hobeto baloratzeko egokitzat hartzen diren dokumentuak.

3. Ulertuko da demandatzaileak demandarekin batera ekar ditzakeela berak izendatutako adituak egindako irizpen idatzia, salbu eta behar bezala justifikatzen badu bere eskubidearen defentsak ez duela ahalbidetu hura jartzea atzeratzea irizpena lortu arte.

4. Demanda-erantzunarekin batera irizpen idatzia ekarri ezin dituen demandatuak justifikatu egin beharko du ezin izan dituela eskatu eta lortu haiek erantzuteko epearen barruan.

5. Alderdi-eskariz, epaitegiak edo auzitegiak erabaki ahal izango du demandatuari aukera ematea abokatu edo aditu bidez azter ditzan gauzak eta lekuak, haien egoera eta inguruabarrak garrantzitsuak direnean haren defentsarako edo hark aurkeztu nahi dituen aditu-txostenak prestatzeko. Halaber, kalte pertsonalengatiko erreklamazioen kasuan, auzi-jartzaileari eskatu ahal izango dio aditu batek azter dezan utz dezala, aditu-txosten bat prestatzeko helburuarekin.

337. artikulua. Irizpenak iragartzea, demandarekin edo erantzunarekin batera ekarri ezin direnean. Geroago ekartzea.

1. Alderdiek demandarekin edo erantzunarekin batera ezin badituzte ekarri berek izendatutako adituek egindako irizpenak, batean edo bestean zehaztuko dute zein diren, kasua denean, baliatu nahi dituzten irizpenak, eta haiek eskuratu bezain laster ekarri beharko dituzte, aurkako alderdiari helarazteko, kasu orotan judizio arruntaren aurreko entzunaldia hasi baino bost egun lehenago, edo hogeita hamar egunean hitzezko judizioa demandaren edo erantzunaren aurkezpenetik. Auzitegiak epe hori luza dezake, peritufrogaren izaerak hala eskatzen duenean eta justifikatutako arrazoiren bat dagoenean.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik irizpenak ekarrita, alderdiek adierazi beharko dute ea nahi duten irizpenak egin dituzten adituak ager daitezela lege honen 431. artikuluan eta hurrengoetan araututako judizioan edo, kasua denean, hitzezko judizioaren ikustaldian, eta aditzera eman beharko dute ea irizpena azaldu edo esplikatzea behar duten edo galderei, objektzioei edo zuzentze-proposamenei erantzun behar dieten, edota, auziaren objektuari lotuta, beste edozein modu baliagarritan esku hartu behar duten irizpena ulertzeko eta baloratzeko.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

338. artikulua. Irizpenak demandaren osteko jardun prozesalen arabera ekartzea. Judizioan edo ikustaldian adituek esku hartzeko eskaera.

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa ez zaie aplikatuko irizpenei, baldin eta haien beharra edo baliagarritasuna agerian jarri bada demanda-erantzunean demandatuak egindako alegazioen ondorioz edo, lege honen 426. artikulua arabera, entzunaldian onartutako alegazioen edo uzi osagarrien ondorioz.

2. Demandaren erantzunagatik edo judizio aurreko entzunaldian alegatutakoagatik eta eskatutakoagatik beharrezkoak edo baliagarriak diren irizpenak alderdiek ekarriko dituzte, aurkakoei helarazteko, judizioa edo ikustaldia egin baino bost egun lehenago gutxienez, eta alderdiek auzitegiari adieraziko diote beren ustez beharrezkoa den irizpenak egin dituzten adituak judizio edo ikustaldi horretara bertaratzea, 337. artikulua 2. apartatuan zehaztutakoa adierazita.

Kasu horretan ere erabaki ahal izango du auzitegiak adituak judizioan edo ikustaldian egon daitezela, aurreko artikulua 2. apartatua ezarritako moduan.

339. artikulua. Auzitegiak adituak izendatzeko eskaera, eta eskaera horri buruzko ebazpen judiziala. Auzitegiak adituak izendatzea, alderdiak eskatu gabe.

1. Alderdietatik edozein doako laguntza juridikoa izateko eskubidearen titularra bada, ez du aditu-irizpena ekarri beharko demandarekin edo erantzunarekin, iragarri soilik egin beharko du, adituaren izendapen judiziala egitearen ondoreetarako, Doako Laguntza Juridikoaren Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Halaber, demandatzaileak edo demandatuak, aurreko apartatuko kasuan egon ez arren, hasierako idazkietan, hurrenez hurren, eskatu ahal izango dute, adituaren izendapen judiziala egin dadila, baldin eta uste badute beren interesentzat egokia edo beharrezkoa dela aditu-txostena egitea. Kasu horretan, auzitegiak izendapena egingo du. Eskatu duenaren kontura izango da irizpen hori, hargatik eragotzi gabe kostuen gaian har daitekeen erabakia.

Demandan ez dauden alegazioei edo uziei buruzkoa izan ezean, judizialki izendatutako adituak egindako txostena ezin izango da eskatu demandaren edo erantzunaren ostean.

Adituaren izendapen judiziala bost eguneko epean egin beharko da demandaren erantzunaren aurkezpenetik, izendapen hori nork eskatu duen kontuan hartu gabe. Bi alderdiek hasieran eskatu dutenean hura, auzitegiak, haiek ados egonez gero, aditu bakar bat izendatu ahal izango du eskatutako txostena egiteko. Kasu horretan, adituaren zerbitzu-sarien ordainketa zati berdinetan egin beharko dute bi auzilariak, hargatik eragotzi gabe kostuen gaian har daitekeen erabakia.

3. Judizio arruntean, entzunaldian baimendutako alegazio edo uzi osagarrien ondorioz alderdiek eskatzen badute, 427. artikulua 4. apartatua aurreikusitakoaren arabera, auzitegiak izenda dezala irizpena egingo duen aditu bat, hala erabakiko du hark, betiere irizpenari egoki eta baliagarri baderitzo.

Gauza bera egin ahal izango du auzitegiak hitzezko judizioa izan eta alderdiek ikustaldian eskatzen dutenean aditu-izendapena; kasu horretan, ikustaldia eten egingo da, harik eta irizpena egin arte.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Aurreko bi apartatueta zehaztutako kasuetan, auzitegiari aditu bat izendatzeko eskatu dioten alderdiak ados badaude, gainera, irizpena pertsona edo erakunde jakin batek egitearekin, hala erabakiko du auzitegiak. Alderdiak ados ez badaude, 341. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez izendatuko da aditua.

5. Auzitegiak ofizioz izendatu ahal izango du aditua, baldin eta aditu-txostena beharrezkoa bada filiazioaren, aitatasunaren eta amatasunaren deklarazioari edo aurkaratzeari buruzko prozesuetan, pertsonen gaitasunari buruzkoetan edo ezkontza-prozesuetan.

6. Auzitegiak ez du aditu titular bat baino gehiago izendatuko aditu-txostenaren objektu izan behar duen arazo edo arazo-multzo bakoitzeko, haren gai-askotarikotasunagatik aditu ezberdinen iritzia behar ez denean.

340. artikulua. Adituen baldintzak.

1. Adituek titulu ofiziala izan beharko dute, irizpenaren objektu den gaiari eta haren izaerari dagokiena. Titulu profesional ofizialek barnean hartzen ez dituzten gaiak badira, gai horietan jakitun diren pertsonen artean izendatu beharko dira.

2. Halaber, eskatu ahal izango da irizpena eman dezatela aditu-txostenaren objektuari dagokion gaia aztertzeako ardura duten akademiek eta instituzio kultural zein zientifikoek. Era berean eman ahal izango dute irizpena, arazo espezifikoek buruz, horretarako legez gaitutako pertsona juridikoek.

3. Aurreko apartatuko kasuetan, irizpenaren enkargua hartzen duen instituzioak ahalik eta azkarren adieraziko du nork edo nortzuek hartuko duten hura zuzenean prestatzeko ardura, eta horiei 335. artikuluaaren bigarren apartatuan aurreikusitako zina edo promesa galdutako zaie.

341. artikulua. Adituaren izendapen judizialerako prozedura.

1. Urte bakoitzeko urtarilean, aditu gisa jarduteko prest dauden elkargokideen edo bazkideen zerrenda bat bidal dezatela eskatuko zaie elkargo profesionalei edo, halakorik ezean, antzeko entitateei, bai eta aurreko artikuluaaren bigarren apartatuan aipatutako akademiei eta instituzio kulturei eta zientifikoei ere. Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean egindako zozketa bidez egingo da zerrenda bakoitzeko lehenengo izendapena, eta hartatik aurrera egingo dira hurrengo izendapenak, hurrenkera korrelatiboan.

2. Titulu ofizialik ez duen pertsonaren bat izendatu behar bada aditu, gaian aritua edo jakitun delako, orduan, alderdien zitazioa egin ondoren, izendapena egingo da, aurreko apartatuan ezarritako prozeduraren bidez; horretarako, pertsona-zerrenda bat erabiliko da, sindikatuak, elkarteak eta entitate egokiei urtero eskatuko zaienta eta gutxienez haietako bost pertsonak osatu behar dutena. Irizpenaren gaiaren berezitasunagatik pertsona jakitun edo aritu bakar baten izena soilik edukiz gero, alderdiei adostasuna eskatuko zaie, eta guztiek emanez gero soilik izendatuko da aditu pertsona hori.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

342. artikulua. Aditu izendatuari deitzea; onartzea eta izendatzea. Funts-hornidura.

1. Izendapenaren egun berean edo hurrengo egun baliodunean, Justizia Administrazioaren letraduak hura komunikatuko dio aditu titularrari, eta errekerituko dio bi eguneko epean adieraz dezala ea kargua onartzen duen. Baiezkoan, izendapena egingo da, eta adituak xedatzen den moduan egingo du 335. artikulua 2. apartatuan agintzen den zinpeko edo promespeko adierazpena.

2. Aditu izendatuak onarpena eragozten dion arrazoi zuzena alegatu badu eta Justizia Administrazioaren letraduak nahikotzat hartzen badu, zerrendako hurrengoak ordeztuko du, eta horrela hurrenez hurren izendapena egin ahal izan arte.

3. Aditu izendatuak beharrezkotzat jotzen duen funts-hornidura eskatu ahal izango du, bere izendapenetik hurrengo hiru egunetan eta etorkizuneko faktura izango litzatekeenaren aurrekontua aurkeztuta, azken likidazioaren kontura. Justizia Administrazioaren letraduak eskatu den hornidurari buruz erabakiko du, dekretu bidez, eta doako laguntza juridikorako eskubiderik izan gabe aditu-froga proposatu duen alderdiari edo alderdiei aginduko die auzitegiaren gordailuen eta kontsignazioen kontuan ordain dezatela finkatutako kopurua, bost eguneko epean.

Epe hori igarota, ezarritako kopurua ez bada gordailutu, aditua salbuetsita geratuko da irizpena ematetik, eta ezin izango da beste izendapenik egin.

Aditua adostasunez izendatu denean auzilarietatik batek ez badu kontsignatu berari dagokion zatia, beste auzilariari aukera eskainiko dio, dela falta den kopurua osatzeko, kasu horretan adieraziz irizpena zein punturi buruz pronuntziatu behar den, dela gordailututako kopurua berreskuratzeke, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da kasu horretan.

Aditu bidezko frogaren gauzatzea amaituta, adituak bere faktura edo zerbitzu-sarien minuta aurkeztuko du, eta aurreikusitako izapidetzea emango zaio, bidezkoa bada, gehiegizko zerbitzu-sarien kostu-tasazioen aurkaratzei dagokienez, eta emandako ebazpena irmoa denean, ordaindu egingo da.

343. artikulua. Adituen narrioak. Narrioen denbora eta forma.

1. Judizialki izendatutako adituak soilik izan daitezke errekusazioaren objektu.

Aldiz, errekusagarriak ez diren adituak narrioren objektu izan daitezke honako inguruabar hauetakoren bat betetzen dutenean:

1.) Alderdietako baten edo haien abokatuen edo prokuradoreen ezkontidea edo odol bidezko edo ezkontza bidezko ahaidea izatea laugarren gradu zibilarren barruan.

2.) Auzigaian edo antzeko beste batean interes zuzena edo zeharkakoa izatea.

3.) Mendekotasun-egoeran edo interesen erkidegokoan edo kontrajartzekoan egotea edo egon izana alderdietako batekiko edo haien abokatuekiko edo prokuradoreekiko.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Adiskidetasun estua edo areriotasuna izatea alderdietako edozeinekin edo haien prokuradoreekin edo abokatuekin.

5.) Behar bezala egiaztatutako beste edozein inguruabar, profesionalki balioa kentzen diena.

2. Narrioak ezin izango dira formulatu judizioaren ondoren edo ikustaldiaren ondoren, hitzezko judizioetan. Judizio arrunten kasuan, judizio aurreko entzunaldian proposatuko dira demandarekin edo erantzunarekin batera aurkeztutako irizpenak egin dituzten adituen narrioak.

Adituen narrioak formulatzerakoan, haiek justifikatzeko froga proposatu ahal izango da, lekuko-froga salbu.

344. artikulua. Narrioaren kontra jartzea eta hura baloratzea. Zehapena, narrio ausartegia edo desleiala dagoenean.

1. Edozein alderdi interesdun zuzendu ahal izango zaio auzitegiari narrioa ukatzeko edo kontra jartzeko, horretarako egokitzen hartzen dituen dokumentuak ekarriz. Narrioak adituaren ospe profesionalari edo pertsonalari kalte egiten badiu, hark auzitegiari eskatu ahal izango dio ezen prozeduraren amaieran probidentzia bidez deklaratu dezala narrioak funtsik ez duela.

2. Izapide gehiagorik gabe, auzitegiak kontuan izango ditu narrioak eta, halakorik bada, ukatzea edo kontra-jartzea frogatu behar duenez, eta, kasua denean, aurreko apartatuan aurreikusitako narrioaren funsgabetasunaren deklarazioa formulatu du, probidentzia bidez. Zioak edo formulatutako unea ikusita, narrioan ausarkeria edo desleialtasun prozesala egon dela hautemanen gero, 60 eta 600 euro arteko isuna ezarri ahal izango dio alderdi erantzuleari, aurretiaz entzun ondoren.

345. artikulua. Aditu-eragiketak eta haietan alderdiek esku hartu ahal izatea.

1. Irizpena egiteko beharrezkoa denean tokien, objektuen edo pertsonen azterketaren bat edo eragiketa analogoak egitea, batean zein besteetan egon ahal izango dira presente alderdiak eta haien defendatzaileak, baldin eta horrekin adituaren lana eragozten edo oztopatzen ez bada eta irizpenaren zuzentasuna eta inpartzialtasuna berma badaiteke.

2. Alderdietatik batek aurreko apartatutako aditu-eragiketetan presente egotea eskatzen badu, auzitegiak bidezkoa dena ebaziko du, eta, presentzia hori onartuz gero, adituari aginduko dio alderdiei zuzenean abisatzeko, gutxienez berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin, zein egunetan, ordutan eta tokitan gauzatuko diren eragiketa horiek.

346. artikulua. Auzitegiak izendatutako adituak irizpena egitea eta berrestea.

Auzitegiak izendatutako adituak idatziz egingo du bere irizpena, eta auzitegiari bitarteko elektronikoz iritsaraziko dio zehaztu zaion epean. Justizia Administrazioaren letratuak alderdiei irizpen hori helaraziko



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

die, egokiak diren argibideak edo esplikazioak ematearen ondoretarako aditua judizioan edo ikustaldian esku hartzea beharrezkoa dela uste duten kasurako. Kasu orotan, auzitegiak probidentzia bidez erabaki ahal izango du beharrezko deritzola adituak judizioan edo ikustaldian esku hartzeari, egindako irizpena hobeto ulertzeko eta baloratzeko.

Judizioan edo ikustaldian esku hartu behar duen aditua auzitegiaren mugape judizialek kanpo bizi denean, deklarazioa bideokonferentzia bidez egingo da lehentasunez.

347. artikulua. Adituen jardun posiblea judizioan edo ikustaldian.

1. Alderdiek eskatutako esku-hartzea izango dute adituek judizioan edo ikustaldian, baldin eta auzitegiak onartzen badu.

Auzitegiak esku-hartzeko eskaerak ukatuko ditu, soilik baldin eta haien helburuagatik eta edukiagatik desegokitzat edo alferrekotzat jo behar badira edo alderdien arteko aurretiazko bitartekaritza-prozedura batean adituak esku-hartzearen ondorioz konfidentzialtasun-eginbeharra badago.

Bereziki, alderdiek eta haien defendatzaileek eskatu ahal izango dute:

1.) Irizpenaren azalpen osoa, baldin eta azalpen horrek eskatzen badu ekarritako idazkiaren osagarriak diren beste eragiketa batzuk egitea 336. artikulua 2. apartatuan aipatutako dokumentuak, materialak eta bestelako elementuak erabiliz.

2.) Irizpenaren edo haren puntuetakoren baten edo batzuen esplikazioa, baldin eta haien esanahia ez bada aski adierazgarritzat jotzen frogaren ondoretarako.

3.) Irizpenaren metodoari, premisei, konklusioei eta beste alderdi batzuei buruzko galderen eta objektioen erantzunak.

4.) Lotura duten beste puntu batzuetara irizpena zabaltzeko eskaeren erantzunak, ekitaldi berean egin daitekeen kasurako, betiere ezagutzeko adituak zer iritzi duen zabaltzearen aukerari eta baliagarritasunari buruz eta hura gauzatzeko behar den epeari buruz.

5.) Aurkako alderdiaren adituaren kritika, kasuan kasuko irizpenari buruzkoa.

6.) Aditua uki dezaketen narrioen formulazioa.

2. Halaber, auzitegiak galderak formulatu ahal izango dizkie adituei, eta esplikazioak eskatu ekarritako irizpenaren objektua denari buruz; baina ezin izango du erabaki, ofizioz, hura zabal dadila, salbu eta 339. artikulua 5. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik ofizioz izendatutako adituak direnean.

348. artikulua. Aditu-irizpenaren balorazioa.

Auzitegiak kritika zintzoaren erregelen arabera baloratuko ditu aditu-irizpenak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

349. artikulua. Letrak erkatzea.

1. Adituak erkatuko ditu letrak, dokumentu pribatu batek kalte egin dion alderdiak haren autentikotasuna ukatzen duenean edo zalantzan jartzen duenean.

2. Halaber, letrak erkatu ahal izango dira, baldin eta matrizerik eta kopia fede-emailerik ez duen edozein dokumentu publikoren autentikotasuna ukatzen edo eztabaidatzen bada, Kode Zibilarren 1221. artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere dokumentu hori ezin badu aitortu hura eman zuen funtzionarioak edo esku-hartzaile fede-emaile gisa agertzen denak.

3. Letrak erkatuko ditu lege honen 341. eta 342. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz auzitegiak izendatutako adituak.

350. artikulua. Erkaketarako dokumentu zalantzagabeak edo idazketa-multzoa.

1. Letrak erkatzea eskatzen duen alderdiak adieraziko du zein dokumentu zalantzagaberekin egin behar den.

2. Letrak erkatzearen ondoreetarako, dokumentu zalantzagabetzat hartuko dira:

1.) Aditu-frogak uki ditzakeen alderdi guztiek halakotzat aitortzen dituzten dokumentuak.

2.) Eskritura publikoak eta Nortasun Agiri Nazionalari buruzko artxibo publikoetan jasotako dokumentuak.

3.) Dokumentu pribatuak, zeinen letra edo sinadura judizioan beretzat aitortu baitu zalantzazkoa egozten zaionak.

4.) Aurkaratutako idazkia, hark kalte egiten dionak letra berea dela aitortzen duen zatian.

3. Aurreko apartatuan zerrendatutako dokumenturik ezean, aurkaratutako dokumentua edo hura baimentzen duen sinadura egozten zaion alderdia errekeritu ahal izango da, aurkakoak eskatuta, auzitegiak edo Justizia Administrazioaren letratuak diktatuko dion idazketa-multzoa egiteko.

Errekerituak uko egiten badio, aitortutzat hartuko da aurkaratutako dokumentua.

4. Ez badago dokumentu zalantzagaberik eta ezinezkoa bada idazketa-multzo batekin erkatzea hura egin behar duena hilda edo absente dagoelako, auzitegiak kritika zintzoaren erregelekin bat etorritz balioetsiko du aurkaratutako dokumentua.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

351. artikulua. Letrak erkatzeari buruzko irizpena egitea eta baloratzea.

1. Letrak erkatzen dituen adituak idatziz jasoko ditu egiaztatze-eragiketak eta haien emaitzak.
2. Lege honen 346., 347. eta 348. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaio letrak erkatzeko aditu-irizpenari.

352. artikulua. Bestelako frogen beste aditu-irizpen instrumental batzuk.

Froga baten edukia edo zentzua ezagutzeko edo haren balorazio egokiagoa egiteko beharrezkoa edo komenigarria denean, alderdiek aditu-irizpenak ekarri edo proposatu ahal izango dituzte 299. artikulua eta 3. apartatuetan aurreikusitakoaren babesean auzitegiak onartutako beste frogabide batzuei buruz.

6. atala. Azterketa judizialaz

353. artikulua. Azterketa judizialaren objektua eta helburua eta azterketa hori erabakitzeke ekimena.

1. Azterketa judiziala erabakiko da baldin eta egitateak argitzeko eta hautemateko beharrezkoa edo komenigarria bada auzitegiak bere kabuz aztertzea tokiren, objekturen edo pertsonaren bat.
2. Auzitegiaren iritziz azterketa judizialak izan behar duen zabaltasunari kalterik egin gabe, azterketa hori eskatzen duen alderdiak adierazi beharko du zein puntu nagusi nahi duen hark aipatzea, eta zehaztuko du ea gaian teknikari edo aritu den pertsonaren batekin bertaratzeko asmorik duen ekitaldira.

Azterketa judiziala gauzatu aurretik, beste alderdiak proposatu ahal izango ditu interesatzen zaizkion beste puntu batzuk, eta, era berean, adierazi beharko du ea aurreko paragrafoan zehaztutako pertsonaren batekin joango den ekitaldira.

3. Auzitegiak azterketa judiziala gauzatzea erabakita, idazkariak hura gauzatu behar den eguna eta ordua seinalatuko ditu, gutxienez bost eguneko aurrerapenarekin.

354. artikulua. Azterketa judiziala gauzatzea eta alderdiek eta adituek esku hartzea.

1. Auzitegiak erabaki ahal izango du azterketaren eraginkortasuna lortzeko beharrezkoa den edozein neurri, barnean hartuta azterketa egin behar den tokian sartzeko agindua edo aztertu beharreko objektua edo pertsona dagoen tokian sartzekoa.
2. Alderdiak, haien prokuradoreak eta abokatuak azterketa judizialera bertaratu ahal izango dira, eta egoki deritzeten oharrak egin ahal izango dizkiote auzitegiari, ahoz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Auzitegiak, ofizioz edo alderdi-eskariz, komenigarritzat jotzen badu aurreko artikulua 2. apartatuan adierazitako pertsonen oharrak edo deklarazioak entzutea, egia esateko zina edo promesa hartuko die alde aurretik.

355. artikulua. Pertsonen azterketa.

1. Pertsona baten azterketa judiziala gauzatuko da auzitegiak egindako galdeketa baten bidez, zeina kasu zehatz bakoitzaren beharretara egokituko den. Galdeketa horretan, alderdiek esku hartu ahal izango dute, betiere auzitegiaren iritziz eginbidearen amaiera ona nahasten ez bada; inguruabarrek aholkatuz gero, ateak itxita edo auzitegiaren egoitzatik kanpo egin ahal izango da galdeketa.

2. Kasu orotan, azterketa judiziala gauzatzean, bermatu egingo da pertsonaren duintasuna eta intimitatea errespetatuko direla.

356. artikulua. Azterketa judiziala eta adituarena elkarrekin gauzatzea.

1. Auzitegiak komenigarria irizten dionean, probidentzia bidez xedatu ahal izango du toki, objektu edo pertsona berari buruzko azterketa judiziala eta adituarena ekitaldi bakar batean egin daitezela, atal honetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

2. Bi azterketak batera egin daitezela ere eskatu ahal izango dute alderdiek, eta auzitegiak, bidezkoa irizten badio, hori aginduko du.

357. artikulua. Azterketa judiziala eta lekuko bidezko froga elkarrekin gauzatzea.

1. Alderdiak eskatuta eta haren kontura, auzitegiak erabaki ahal izango du, probidentzia bidez, azterketa judizialaren jarraian azter daitezela lekukoak, baldin eta tokia edo gauzak edo pertsonak ikusteak haien lekukotza argitzen lagun badezake.

2. Halaber, alderdi-eskariz, aurkakoaren galdeketa gauzatu ahal izango da, aurreko apartatuan aipatutako inguruabar berberak gertatzen direnean.

358. artikulua. Azterketa judizialaren akta.

1. Justizia Administrazioaren letraduak egingo du gauzatutako azterketa judizialaren akta xehatua, eta bertan argiro jasoko dira auzitegiaren pertzepzioak eta hautemateak, bai eta alderdiek eta 354. artikuluan aipatutako pertsonen egindako oharrak ere.

Beharrezkoak diren bitarteko teknologikoak izanez gero, ez da aplikatuko aurreko paragrafoan ezarritakoa; aitzitik, Justizia Administrazioaren letraduak bermatuko du grabatutakoaren edo



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

erreproduzitutakoaren autentikotasuna eta osotasuna, sinadura elektronikoaren bidez edo legearen arabera berme horiek eskaintzen dituen beste segurtasun-sistema baten bidez.

2. Halaber, aktan jasoko da azterketa judizialaren ekitaldi berean gauzatu diren gainerako frogajardunen emaitza, 356. eta 357. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

359. artikulua. Bitarteko teknikoak erabiltzea azterketa judiziala jasota uzteko.

Azterketa judizialaren objektua eta azterketa horretan esku hartu dutenen adierazpenak jasota uzteko, irudia eta soinua grabatzeko bitartekoak edo antzeko beste tresna batzuk erabiliko dira.

Ahal den guztietan, grabatutakoaren edo erreproduzitutakoaren autentikotasuna eta osotasuna bermatuko da, sinadura elektronikoa edo beste segurtasun-sistema bat erabiliz.

Grabatutakoaren edo erreproduzitutakoaren autentikotasuna eta osotasuna ezin bada bermatu sinadura elektronikoa edo beste segurtasun-sistema bat erabiliz, akta idatzia egingo da, eta bertan jasoko da egindako grabazioak, erreprodukzioak edo azterketak identifikatzeko behar den guztia; haiek espediente judizial elektronikoan sartu beharko dira, edo, halakorik ezean, Justizia Administrazioaren letraduak gorde beharko ditu, aldaketarik izan ez dezaten.

Aipatutako bitartekoen edo tresnen bidez grabatutakoaren edo erreproduzitutakoaren kopia egin daitekeenean autentikotasun-bermeekin, interesa duen alderdiak, bere kontura, auzitegiari eskatu ahal izango dio, eta harengandik eskuratu.

7. atala. Lekukoen galdeketaz

360. artikulua. Frogaren edukia.

Alderdiek eskatu ahal izango dute lekuko gisa deklaratu dezatela judizioaren objektuari lotutako egitate eztabaidagarriak ezagutzen dituzten pertsonak.

361. artikulua. Lekuko izateko egokitasuna.

Pertsona guztiak izan ahalko dira lekuko, salbu eta era iraunkorrean arrazoimenaz edo zentzumenen erabileraz gabetu direnak, zentzumen horien bitartez bakar-bakarrik jakin daitezkeen egitatei dagokienez.

Hamalau urtetik beherakoek lekuko gisa deklaratu ahal izango dute, baldin eta, auzitegiaren iritziz, ezagutzeko eta egiazki deklaratzeko behar den bereizmena badute.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

362. artikulua. Lekukoak izendatzea.

Lekukoen froga proposatzean, haien identitatea adieraziko da, ahal den neurrian zehaztuz bakoitzaren izen-abizenak, lanbidea eta egoitza edo bizilekua.

Lekukoa izendatu ahal izango da, halaber, adierazita hark duen kargua edo beste edozein identifikazio-inguruabar, bai eta hura zitatu daitekeen tokia ere.

363. artikulua. Lekuko-kopurua mugatzea.

Alderdiek komenigarritzat jotzen duten adina lekuko proposatu ahal izango dute, baina egitate eztabaidatu bakoitzeko hirutik gorakoen gastuak aurkeztu dituen alderdiaren kontura izango dira kasu orotan.

Auzitegiak gutxienez hiru lekukoren lekukotza entzun duenean egitate eztabaidatu bati buruz, albo batera utzi ahal izango ditu egitate horri berari buruz egiteke dauden lekuko-deklarazioak, baldin eta irizten badio nahikoa argitu dela jada egindakoekin.

364. artikulua. Egoitzako lekuko-deklarazioa.

1. Lekukoa auzitegiaren mugape judizialek kanpo bizi denean, deklarazioa bideokonferentzia bidez egingo da lehentasunez.

2. Ezin denean bideokonferentziaz egin eta gaixotasunagatik edo 169. artikulua 4. apartatuan aipatutako beste zioen batengatik auzitegiak irizten badio lekukoren bat ezin dela agertu auzitegiaren egoitzan, lekukoaren egoitzan hartu ahal izango dio deklarazioa, dela zuzenean dela laguntza judizial bidez, kontuan hartuta egoitza hori auzitegiaren mugapean dagoen ala ez.

Deklaraziora, alderdiak eta haien abokatuak joan ahal izango dira, eta, agertu ezin badira, baimena emango zaie aurretiazko galdeketa idatzia aurkezteko, lekuko galdekatuari formulatu nahi dizkioten galderak jasota dituen.

3. Inguruabarrak kontuan hartuta, auzitegiaren iritziz zuhurtziazkoa denean egoitzako deklaraziora bertaraten ez uztea alderdiei eta haien abokatuak, emandako erantzunak erakutsiko zaizkie alderdiei, hiru egunen barruan eskatu ahal izan dezaten lekukoari beste galdera osagarri batzuk formula dakizkiola edo argibide egokiak eska dakizkiola, 372. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

365. artikulua. Lekukoen zina edo promesa.

1. Deklaratu aurretik, lekuko bakoitzak egia esango duelako zina edo promesa egingo du, eta ohartaraziko zaio zein diren auzi zibilean lekukotza faltsuaren deliturako ezarritako zigorrak, zeinak, ezagutzen ez dituela adieraziz gero, auzitegiak azalduko baitizkio.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Lekukoak adingabe penalak direnean, ez zaie galdutuko egia esateko zina edo promesa.

366. artikulua. Lekukoek deklaratzeko modua.

1. Lekukoek bananduta eta elkarren segidan deklaratu dute, proposamenetan jasotako hurrenkeran, auzitegiak hura aldatzeko zioa aurkitu ezean.

2. Lekukoak ez dira beren artean komunikatuko, eta batzuek ezin izango dute besteen deklarazioetara joan.

Helburu horretarako, behar diren neurriak hartuko dira.

367. artikulua. Lekukoarentzako galdera orokorrak.

1. Auzitegiak lekuko bakoitzari hasieran galdetuko dio, kasu orotan:

1.) Izena, abizenak, adina, egoera, lanbidea eta egoitza.

2.) Ea auzilarietakoren baten edo haren abokatuaren nahiz prokuradorearen ezkontidea edo odol nahiz ezkontza bidezko ahaidea den edo izan den, eta zein gradutan, edo haiekin adopzioko, tutoretzako edo antzeko loturarik duen.

3.) Ea bera proposatu duen alderdiaren edo haren prokuradorearen edo abokatuaren mendekoa den edo izan den edo haien zerbitzura dagoen edo egon den edo interes erkideak edo kontrajarriak sor ditzakeen harremanen bat izan duen edo duen haiekin.

4.) Ea auzigaian edo antzeko beste batean interes zuzena edo zeharkakoa duen.

5.) Ea auzilarietakoren baten edo haren prokuradorearen edo abokatuaren lagun mina edo etsaia den.

6.) Ea noizbait kondenatua izan den lekukotza faltsuagatik.

2. Lekukoak aurreko apartatuko galderei emandako erantzunak ikusita, alderdiek auzitegiari adierazi ahal izango diote badaudela haren inpartzialtasunari lotutako inguruabarrak.

Auzitegiak inguruabar horiei buruz galdekatu ahal izango du lekukoa, eta galde-erantzunak aktan jasoaraziko ditu, epaia ematean behar bezala balora daitezen deklarazioak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

368. artikulua. Formulaturako galderen edukia eta onargarritasuna.

1. Lekukoari planteatutako galderak ahoz formulatu beharko dira, eta behar bezain argi eta zehatz. Haietan ez da sartu beharko ez baloraziorik ezta kalifikaziorik ere, eta, halakorik sartuz gero, egingabetzat hartuko dira.

2. Auzitegiak galdeketa-ekitaldian bertan erabakiko du planteatutako galderei buruz, eta onartuko ditu egitate eta inguruabar eztabaidagarriak ikertzeko erabilgarri izan daitezkeenak, judizioaren objektuarekin lotura badute.

Ez dira onartuko 360. artikuluekin bat etorritik lekuko baten berezko ezagutzei buruzkoak ez diren galderak.

3. Onartua izan ez den galdera bati erantzuten bazaio, erantzuna ez da aktan jasoko.

369. artikulua. Galderen onarpena aurkaratzea eta ez-onartzearen aurka protestatzea.

1. Galdeketaren ekitaldi berean, galdera formulatu duen alderdiaz bestelakoek aurkaratu ahal izango dute hura onartzea, eta nabarmendu ahal izango dituzte beren ustez bidegabeak diren balorazioak eta kalifikazioak, beren iritziz egin gabekotzat hartu beharrekoak.

2. Galderak ez onartzearekin ados ez dagoen alderdiak hala adierazi ahal izango du, eta bere protesta aktan jaso dadila eskatu.

370. artikulua. Onartutako galderei buruz lekukoa aztertzea. Lekuko aditua.

1. Behin galdera orokorrak erantzunda, lekukoa proposatu duen alderdiak aztertuko du hura, eta, bi alderdiek proposatu badute, demandatzaileak formulaturako galderetatik hasiko da azterketa.

2. Lekukoak bere kabuz erantzungo du, ahoz, ezin erantzun-zirriborroz baliatu gabe. Galdera kontuei, liburuei edo dokumentuei buruzkoa denean, haiek kontsultatzeko aukera emango zaio erantzun aurretik.

3. Erantzunetako bakoitzean, lekukoak adieraziko du zein den esaten duenaren jakinbidea.

4. Lekukoak ezagutza zientifikoak, teknikoak, artistikoak edo praktikoak dituenen galdeketako egitateen gaiari buruz, auzitegiak onartuko ditu ezagutza horiek direla-eta lekukoak egitatei buruz erantzunei erantzen dizkion adierazpenak.

Adierazpen horiei dagokienez, alderdiek auzitegiari nabarmendu ahal izango diote lege honen 343. artikuluan zerrendatutako narrio-inguruabarretatik edozein bete izana.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

371. artikulua. Sekretua gordetzeko eginbeharra duten lekukoak.

1. Lekukoak, bere egoeragatik edo lanbideagatik, galdetu zaizkion egitatei buruz sekretua gordetzeko eginbeharra duenean, arrazoituz adieraziko du, eta auzitegiak, deklaratzeari ezezkoa emateko oinarria kontuan hartuta, zuzenbidean bidezkoa dena ebatziko du, probidentzia bidez. Lekukoa erantzuna ematetik aske geratuz gero, hala jasoaraziko da aktan.

2. Lekukoak alegatzen badu galdetzen zaizkion egitateak legez izaera erreserbatu edo sekretu gisa deklaraturako edo sailkatutako gaiei dagozkiela, auzitegiak, justizia-administrazioaren interesak asetzeko beharrezkoa dela irizten dion kasuetan, ofizioz eskatuko dio organo eskudunari, probidentzia bidez, izaera hori egiaztatzen duen dokumentu ofiziala.

Auzitegiak, izaera erreserbatuaren edo sekretuaren alegazioaren oinarria egiaztatuta, aginduko du dokumentua autoei erants dakiela, eta jasota utziko ditu zein diren sekretu ofizialak ukitutako galderak.

372. artikulua. Galdeketa alderdiek esku hartzea eta hura zabaltzea.

1. Behin erantzunda lekuko-froga proposatu zuen alderdiaren abokatuak formulaturako galderak, gainerako alderdietatik edozeinen abokatuak lekukoari planteatu ahal izango dizkiote egitateak zehazteko egokitutako jotzen dituzten beste galdera batzuk. Auzitegiak baztertu egin beharko ditu desegokiak edo alferrekoak diren galderak.

Galdera horiek onartu ezean, ez onartzearen desadostasunari buruz 369. artikulua 2. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

2. Argibideak eta gehigarriak lortzeko helburuarekin, auzitegiak ere galdekatu ahal izango du lekukoa.

373. artikulua. Bekaldura lekukoen artean eta haien eta alderdien artean.

1. Lekukoak kontraesan larrietan erortzen direnean, auzitegiak, ofizioz edo alderdi-eskariz, erabaki ahal izango du bekaldura egin dadila haien artean.

2. Halaber, erabaki ahal izango da ezen, kasuan kasuko deklarazioak kontuan izanik, bekaldura egin dadila alderdien eta lekukoren baten edo batzuen artean.

3. Galdeketaaren amaieran eskatu beharko dira artikulua honetan aipaturako jardunak, eta, kasu horretan, lekukoari ohartaraziko zaio ez dezala alde egin, jardun horiek jarraian gauza daitezen.

374. artikulua. Lekuko-deklarazioak jasotzeko modua.

146. artikulua 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz dokumentatuko dira ikustaldian edo judizioan egindako lekuko-deklarazioak.



364. artikuluko egoitzako lekuko-deklarazioaren kasua, behar diren baliabide teknologikoak edukiz gero, eta epaile edo auzitegiak ikusten badu posible dela galdeketa grabatzea pertsonaren intimitatearen edo duintasunaren babesari eragin gabe, hala aginduko du, eta audio-grabazio hutsa egin ahal izango da. Kasu horietan, Justizia Administrazioaren letraduak bermatuko du grabatutakoaren edo erreproduzitutakoaren autentikotasuna eta osotasuna, sinadura elektronikoaren bidez edo legearen arabera berme horiek eskaintzen dituen beste segurtasun-sistema baten bidez.

375. artikulua. Lekukoentzako kalte-ordainak.

1. Egindako zitazioari kasu eginez auzitegiaren aurrean agertzen diren lekukoek eskubidea izango dute proposatu zituen alderdiarengandik kalte-ordaina jasotzeko agerraldiak sortu dizkien gastuengatik eta kalteengatik, hargatik eragotzi gabe kostuen gaian erabaki daitekeena. Zenbait alderdik lekuko bera proposatzen badute, haien artean hainbanatuko da kalte-ordainaren zenbatekoa.

2. Kalte-ordainaren zenbatekoa Justizia Administrazioaren letraduak finkatuko du, dekretu bidez, ekarritako datuak eta inguruabarrak kontuan hartuta. Dekretu hori judizioa edo ikustaldia amaitu ondoren emango da.

Kalte-ordaina eman behar duen alderdiak edo alderdiek halakorik ematen ez badute aurreko paragrafoan aipatutako ebazpena irmo bihurtu denetik hamar eguneko epean, lekukoak zuzenean jo ahal izango du premiamendu-prozedurara.

376. artikulua. Lekukoen deklarazioak baloratzea.

Auzitegiek kritika zintzoaren erregelen arabera baloratuko dute lekukoen deklarazioen frogaindarrak, kontuan hartuta zein diren lekukoek adierazi zuten jakinbidea, haien inguruabarrak eta, kasua denean, formulatutako narrioak eta horiei buruz gauzatu diren frogaren emaitzak.

377. artikulua. Lekukoen narrioak.

1. 367. artikuluan 2. apartatuan xedatutakoa gorabehera, alderdi bakoitzak narriatu ahal izango ditu aurkako alderdiak proposatutako lekukoak, honako kausa hauetakoren bat betetzen dutenean:

1.) Aurkeztu duen alderdiaren edo haren abokatuaren edo prokuradorearen ezkontidea edo odol bidezko nahiz ezkontza bidezko ahaidea izatea edo izana izatea laugarren gradu zibilaren barruan, edo haiekin adopzioa, tutoretzako edo antzeko lotura izatea.

2.) Deklarazioa egiterakoan, lekukoa hura proposatu duenaren edo haren prokuradorearen edo abokatuaren mendekoa izatea, edo haren zerbitzura egotea, edo haietakoren batekin edozein sozietate- edo interes-lotura izatea.

3.) Interes zuzena edo zeharkakoa izatea kasuan kasuko auzigaian.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Alderdietako baten edo haren abokatuaren edo prokuradorearen lagun mina edo etsaia izatea.

5.) Lekukoa lekukotza faltsuagatik kondenatua izatea.

2. Lekukoa proposatu duen alderdiak ere narriatu ahal izango du hura, baldin eta proposatu ondoren jakiten badu aurreko apartatua ezarritako narrio-kausaren bat dagoela.

378. artikulua. Narrioen denbora.

Narrioak formulatu beharko dira lekuko-froga onartzen den unetik judizioa edo ikustaldia hasi arte, hargatik eragotzi gabe lege honen 367. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik galdekatuak izatean lekukoek edozein narrio-kausa aitortzeko duten betebeharra; kasu horretan, artikulua horren 2. apartatua zehaztutakoarekin bat etorritik jardun ahal izango da.

379. artikulua. Narrioei buruzko froga eta aurkakotza.

1. Narrioak alegatzean, haiek justifikatzeko froga proposatu ahal izango da, lekuko bidezkoa izan ezik.

2. Lekuko baten narrioa formulatuta, gainerako alderdiek aurka egiten ez badiote hura formulatu eta hurrengo hiru egunen barruan, ulertuko da aitortu egiten dutela narrioaren oinarria. Aurka egiten badute, komenigarritzat jotzen dutena alegatuko dute, eta dokumentuak aurkeztu ahal izango dituzte.

3. Narrioak hautemateko eta lekuko-deklarazioa baloratzeko, 344. artikulua 2. apartatua eta 376. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

380. artikulua. Txosten idatzietan jasota dauden egitatei buruzko galdeketa.

1. Autoetara egitatei buruzko txostenak ekarri badira, 265. artikulua 1. apartatua 4.) zenbakiarekin bat etorritik edo, manu beraren hirugarren apartatua babesean, geroagoko une batean, eta haiek kalte egin diezaieketen alderdi guztiek ez badituzte ziurtatzen aitortu, orduan lekuko gisa egingo zaie galdeketa txostenen egileei, lege honetan aurreikusitako moduan, honako erregela berezi hauekin:

1.) Auzigaian interesa izateagatik lekuko-narrioa ez da bidezkoa izango, txostena alderdietatik batek enkargatuta egin denean.

2.) Txostenaren egileak, bere lanbide-gaikuntza egiaztatu ondoren, txostena aitortu beharko du, eta haren edukia berretsi, hari galdera egokiak formulatu baino lehen.

3.) Txostenetan jasotako egitateetara mugatuko da galdeketa.

2. Txostenek egileen ezagutza zientifikoetan, artistikoetan, teknikoetan edo praktikoetan oinarritutako balorazioak ere badituzte, lekuko adituari buruz 370. artikulua 4. apartatua xedatutakoari jarraituko zaio.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

381. artikulua. Pertsona juridikoen eta erakunde publikoen ardura peko erantzun idatziak.

1. Egokia bada pertsona juridikoen eta erakunde publikoen txostena egitea prozesurako garrantzitsuak diren egitatei buruz, egitate horiek beren jarduerari buruzkoak izateagatik, prozesurako interesgarria dena ezagutzeko ezin delarik edo beharrezkoa ez delarik pertsona fisiko zehatzetan indibidualizatzea, frogatzen da hori komeni zaion alderdiak proposatu ahal izango du ezen, auzitegiak errekerituta, pertsona juridikoen edo erakundeak egitatei buruz idatziz erantzun dezala, judizioaren edo ikustaldiaren aurreko hamar egunetan.

2. Aurreko apartatuan aipatutako frogatzen proposamenean zehatz-mehatz adieraziko da zein punturi buruzkoa izango den deklarazio edo txosten idatzia. Gainerako alderdiek alegatu ahal izango dute komenigarritzat jotzen dutena, eta, zehazki, ea deklarazio idatziaren eskabideari beste punturik gehitu nahi dioten edo frogatzen proposatu duenak adierazitakoa zuzendu edo osatu nahi duten.

Auzitegiak, alderdiak entzunda, kasua denean, proposamenaren egokitasunari eta erabilgarritasunari buruz ebatziko du; kasua denean, zehatz-mehatz zehaztuko ditu pertsona juridikoen edo erakundearen deklarazioaren objektu izan behar duten arazoaren edo arazoaren puntuak, eta errekerimendua egingo dio hari, hura egin dezan eta auzitegiari igor diezaion ezarritako denboran 150 eurotik 600 euro bitarteko isuna ezarri ahal izango dela eta omisioaren ardura pertsonala duenaren aurka jardun ahal izango dela agintaritzari desobeditzeagatik. Frogatzen da hori gauzatzeak ez du prozeduraren aribidea etengo, salbu eta epaileak beharrezkoa irizten badiu alderdi baten edo bien defentsa-gabezia ekiditeko.

Erantzun idatziak jasota, Justizia Administrazioaren letratuak alderdiei helaraziko dizkie, hurrengo apartatuan aurreikusitako ondoretarako.

3. Ikusita erantzun idatziak, edo haiei ezezkia eman zaiela edo haiek omititu direla, auzitegiak xedatu ahal izango du, probidentzia bidez, ofizioz edo alderdietatik edozeinek eskatuta, judiziorako edo ikustaldirako zitazioa egin dakiola pertsona fisikoari edo fisikoei, zeinaren lekukotza egokia eta baliagarria izan daitekeen pertsona juridikoen edo erakundearen deklarazioa argitzeko edo osatzeko, hura iluna edo osatugabea izanez gero. Alderdi-eskariz, deklarazio haren kontra jartzeko edozein frogatzen egoki eta baliagarri ere onartu ahal izango du.

4. Aurreko apartatueta xedatutakoa ez zaie erakunde publikoei aplikatuko, baldin eta, 1. apartatuan ezarritako ezaugarriak dituzten egitateak ezagutzeko, dokumentu bidezko frogatzen gisa ekartzeko modukoak diren ziurtagiriak edo lekukotzak lor daitezkeenean haiengandik.

5. Aurreko apartatueta araututako deklarazioei atal honetako gainerako arauak aplikatuko zaizkie, ahal den neurrian.

8. atala. Hitzaren, soinuaren eta irudiaren erreproduktzioaz eta prozesurako garrantzitsuak diren datuak artxibatzea eta ezagutzea ahalbidetzen duten tresnez



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

382. artikulua. Filmatzeko, grabatzeko eta antzeko tresnak. Froga-balioa.

1. Alderdiek frogabide gisa proposatu ahal izango dute auzitegiaren aurrean erreproduzi daitezela filmatzeko, grabatzeko eta antzeko tresnen bidez hartutako hitzak, irudiak eta soinuak. Froga hori proposatzean, kasuan kasuko euskarrian dauden eta kasurako garrantzitsuak diren hitzen transkripzio idatzia ere ekarri beharko du alderdiak, kasua denean.

2. Frogabide hori proposatzen duen alderdiak ekarri ahal izango ditu komenigarritzat jotzen dituen irizpenak eta frogabide instrumentalak. Beste alderdiek ere irizpenak eta frogabideak ekarri ahal izango dituzte, erreproduzitutakoaren autentikotasuna eta zehaztasuna zalantzan jartzen dutenean.

3. Auzitegiak kritika zintzoaren erregelen arabera baloratuko ditu artikuluko honen 1. apartatuan aipatutako erreprodukzioak.

383. artikulua. Erreprodukzioaren akta eta kasuan kasuko materialen zaintza.

1. Aurreko artikulua aplikatuz gauzatzen diren egintzen akta egokia egingo da, eta bertan jasoko da egindako filmazioak, grabazioak eta erreprodukzioak identifikatzeko beharrezkoa den guztia, bai eta, kasua denean, ekarritako justifikazioak eta irizpenak edo gauzatutako frogak ere.

2. Justizia Administrazioaren letraduak kontserbatu beharko du erreproduzitutako hitza, irudia edo soinua jasotzen duen materiala, judizioaren autoei aipamena eginez, edo, hala badagokio, espediente judizial elektronikoan sartu, aldaketarik ez izateko moduan.

384. artikulua. Prozesurako garrantzitsuak diren datuak artxibatzea, ezagutzea edo erreproduzitzea ahalbidetzen duten tresnez.

1. Hitzak, datuak, zifrak eta kontabilitate-helburuaz nahiz bestelakoaz egindako eragiketa matematikoak artxibatzea, ezagutzea edo erreproduzitzea ahalbidetzen duten tresnak, prozesurako garrantzitsuak izateagatik froga gisa onartuak, auzitegiak aztertuko ditu, proposatu dituen alderdiak ekarritako bitartekoak edo auzitegiak xedatutakoak erabilia, halako moldez non prozesuko gainerako alderdiek, auzitegiaren ezagutza berarekin, beren eskubideari komeni zaiona alegatu eta proposatu ahalko duten.

2. 382. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie aurreko apartatuan aurreikusitako tresnei. Tresnaren izaerarentzat egokiena den moduan dokumentatuko da autoetan, Justizia Administrazioaren letraduaren fedepean; kasua denean, beharrezkoak diren zaintza-neurriak ere hartuko ditu.

3. Auzitegiak baloratuko ditu artikuluko honen lehenengo apartatuan aipatutako tresnak, haien izaeraren arabera aplikagarri zaizkien kritika zintzoaren erregelekin bat etorriz.



9. atala. Presuntzioez

385. artikulua. Legezko presuntzioak.

1. Legeak ezartzen dituen presuntzioek ustezko egitatearen frogatik lekatzen dute egitate horrek mesede egiten dion alderdia.

Presuntzio horiek onargarriak izango dira, soilik, presuntzioaren jatorrian dagoen egitate-zantzuaren ziurtasuna ezarrita geratu denean onarpen edo froga bidez.

2. Legeak ezartzen badu aurkako froga onartzen duen presuntzio bat, froga hori zuzendu ahal izango da, hala frogatzera ez dagoela ustezko egitaterik, nola erakustera ez dagoela egon beharreko loturarik, kasuan-kasuan ustezko egitatearen eta presuntzioaren oinarri den egitate frogatuaren edo onartuaren artean.

3. Legeak ezarritako presuntzioek aurkako froga onartuko dute, hark esanbidez debekatzen duen kasuetan izan ezik.

386. artikulua. Presuntzio judizialak.

1. Onartutako edo frogatutako egitate batetik abiatuta, auzitegiak beste egitate bati ziur iritzi ahal izango dio prozesuaren ondoreetarako, baldin eta onartutakoaren edo frogatutakoaren eta ustezkoaren artean lotura zehatza eta zuzena badago, giza irizpidearen erregelen arabera.

Aurreko paragrafoa aplikatzen zaion epaiak bildu beharko ditu auzitegiak presuntzioa ezartzeko erabili dituen arrazoiak.

2. Presuntzio judizial baten formulazio posible baten aurrean, auzilari kalteak beti gauzatu ahal izango du aurreko artikulua 2. apartatuan aipatutako aurkako froga.

VII. KAPITULUA

Arazo intzidentalez

387. artikulua. Arazo intzidentalen kontzeptua.

Arazo intzidentalak dira auziaren objektu nagusitik desberdinak izanik harekin lotura zuzena dutenak, bai eta prozesuan eragina duten aurrebaldintzei eta betekizun prozesalei buruz planteatutakoak ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

388. artikulua. Prozedurari buruzko arau orokorra.

Lege honetan beste izapidetzerik zehaztuta ez duten arazo intzidentalak kapitulu honetan ezarritako moduan ebatziko dira.

389. artikulua. Pronuntziamendu bereziko arazo intzidentalak.

Arazo intzidentalak pronuntziamendu berezikoak izango dira, baldin eta galdatzen badute auzitegiak, auziaren objektu nagusiari buruz ebazti aurretik, epaian bananduta hartzea haiei buruzko erabakia.

Arazo horiek ez dute prozesuaren aribide arrunta etengo.

390. artikulua. Aurretiaz pronuntziatu beharreko arazo intzidentalak. Demandaren aribidea etetea.

Arazoak, beren izaeragatik, oztopo badira judizioak bere izapide arrunten bidetik aurrera jarrai dezan, jardunen aribidea etengo da, harik eta haiek ebazti arte.

391. artikulua. Aurretiaz pronuntziatu beharreko arazoak. Kasuak.

Legeari berariaz zehaztutakoez gain, ulertuko da aurreko kasuan daudela honako arazo intzidental hauek:

1. Auzilarietatik edozeinen gaitasunari eta ordezkaritzari buruzkoak, 414. artikuluan eta hurrengoetan araututako entzunaldiaren ondoren gertatutako egitateengatik.

2. Beste aurrebaldintza prozesalen baten akatsari buruzkoak edo izaera bereko oztoporen baten agerpenari buruzkoak, betiere aurreko zenbakian aipatutako artikuluetan aurreikusitako entzunaldiaren ostean bat-batean gertatu badira.

3. Judizioan zehar gertatzen den beste edozein intzidentziari buruzkoak, baldin eta hura ebaztea erabat beharrezkoa bada, egitez edo zuzenbidez, judizioak bere izapide arrunten bidetik jarraitzeari edo amaitzeari buruz erabakitzeko.

392. artikulua. Arazo intzidentalaren planteamendua. Halakoak ez direnak ez onartzea.

1. Arazo intzidentalak idatziz planteatuko dira, dokumentu egokiekin batera, eta, idazkian, beharrezkoa den froga proposatuko da, eta zehaztuko da ea, arazoa proposatzen duenaren ustez, jardunen aribide arrunta eten behar den ala ez hura ebazti arte.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Auzitegiak baztertu egingo du, auto bidez, aurreko kasuetatik batean ere aurkitzen ez den arazo ororen planteamendua.

393. artikulua. Arazo intzidentalak onartzea, bideratzea eta erabakitzea.

1. Prozedura arruntean, behin judizioa hasita, ez da onartuko inolako arazo intzidentalik planteatzea, eta, hitzezkoan, behin frogatuta proposatua onartuta.

2. Arazoaren planteamendua onartzen duen probidentzia laburki arrazoituan ebatziko da ea aurretiaz pronuntziatu beharrekotzat hartu behar den edo pronuntziamendu berezikotzat; lehenengo kasuan, jardunen aribide arrunta etengo da.

3. Justizia Administrazioaren letratuak arazoa planteatzen den idazkia helaraziko die gainerako alderdiei, eta haiek egoki deritzotena erantzun ahal izango dute bost eguneko epean; epe hori igarotakoan, idazkariak, eguna eta ordua zehaztuta, alderdiak zitutako dituzte auzitegiaren aurreko agerraldi batera, zeina hitzezko judizioen ikustaldietarako xedatutakoarekin bat etorritik egingo baita.

4. Alegazioak formulatuta eta, kasua denean, ikustaldian bertan onartutako frogak gauzatuak, arazoa aurretiaz pronuntziatu beharrekotza bada, hamar eguneko epean emango da autoa, arazoa ebazten duena eta prozesuak jarraitzeari buruz bidezkoa dena xedatzen duena.

Arazoa pronuntziamendu berezikoa izanez gero, behin betiko epaian ebatziko da, behar bezala banatuta.

5. Arazoa auto bidez ebazten denean, hark erabakitzen badu prozesuari amaiera ematea, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, eta, erabakitzen badu aurrera jarraitzea, ezin izango da errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe alderdi kaltegarriak ebazpena aurkaratu ahal izatea behin betiko epaia apelatzerakoan.

VIII. KAPITULUA

Kostuak ordaintzeko kondenaz

394. artikulua. Lehen auzialdiko kostuak ordaintzeko kondena.

1. Deklarazio-prozesuetan, lehen auzialdiko kostuak ezarriko zaizkio bere uzi guztiak errefusatu zaizkion alderdiari, salbu eta auzitegiak hautematen badu, eta hala arrazoitzen, kasuak egiteko edo zuzenbideko zalantza handiak zituela.

Kostuak ordaintzeko kondenaren ondoretarako, kasua juridikoki zalantzazkoa zela hautemateko, kontuan hartuko da antzeko kasuetan emandako jurisprudentzia.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Uziak partzialki baiesten edo ezesten direnean, alderdi bakoitzak ordainduko ditu berak eskatuta sortutako kostuak, eta erkideak erdi bana, betiere auzian ausarkeriaz jarduteagatik haietako bati ezartzeko arrazoirik ez badago.

3. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa aplikatuz kostuak auzilari garaituari ezartzen zaizkionean, hura behartuta egongo da soilik ordaintzera abokatuei eta tarifapean edo arantzelpetan ez dauden gainerako profesionalei dagokien zatitik prozesuaren muntaren herena gainditzeko; ondore horietarako soilik, 18.000 euroan baloratuko dira zenbatetsi ezin diren uziak, salbu eta, auzigaiaren konplexutasuna dela-eta, auzitegiak besterik xedatzen duenean.

Ez da aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko auzitegiak kostuak ordaintzera kondenatu den auzilariaren ausarkeria deklaritzen duenean.

Kostuak ordaintzera kondenatutakoa doako laguntza juridikoa izateko eskubidearen titularra denean, hura Doako Laguntza Juridikoaren Legean berariaz zehazten diren kasuetan soilik egongo da behartuta aurkako alderdiaren defentsan sortutako kostuak ordaintzera.

4. Fiskaltzari inoiz ez zaizkio kostuak ezarriko alderdi gisa esku hartzen duen prozesuetan.

395. artikulua. Kostuak ordaintzeko kondena, amore ematen denean.

1. Demandatuak demandari erantzun aurretik amore ematen badio, ez da bidezkoa izango kostuak ezartzea, salbu eta auzitegiak, behar bezala arrazoituz, demandatuari fede gaiztoa hautematen dioenean.

Kasu orotan, ulertuko da fede gaiztoa dagoela baldin eta demanda aurkeztu aurretik demandatuari ordaintze-errekerimendu fede-emaila eta justifikatua egin bazaio, edo bitartekaritza-prozedura hasi bada, edota haren aurka adiskidetze-eskaera zuzendu bada.

2. Demandari erantzun ondoren gertatzen bada amore ematea, aurreko artikulua 1. apartatua aplikatuko da.

396. artikulua. Kostuak ordaintzeko kondena, atzera egiteagatik amaitzen denean prozesua.

1. Prozesua amaitzen bada auzi-jartzaileak atzera egin duelako eta demandatuak adostasunik eman ez badio atzera-egiteari, kostu guztiak ordaintzera kondenatuko da hura.

2. Demandatuak edo demandatuek onarpena ematen badiote prozesua amaitzen duen atzera-egiteari, ez da auzilarietatik bat ere kondenatuko kostuak ordaintzera.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

397. artikulua. Apelazioa kostuen gaian.

394. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da lehen auzialdiko kostuak ordaintzeko kondena edo kondenarik eza aurkaratzen duen apelazio-errekurtsoa bigarren auzialdian ebazteko.

398. artikulua. Kostuak apelazioan eta kasazio-errekurtsoan.

1. Apelazio-errekurtsoaren kasuetan, errekurtsoaren kostuei dagokienez, 394. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

2. Kasazio-errekurtsoa erabat ezetsiz gero, kostuak alderdi errekurtsogileari ezarriko zaizkio, salbu eta salak beste pronuntziamendu bat justifikatzen duten inguruabar bereziak ikusten baditu.

3. Kasazio-errekurtsoa erabat edo partzialki baiesten bada, kostuak ez zaizkio ezarriko alderdietatik bati ere.

II. TITULUA

Judizio arruntaz

I. KAPITULUA

Hasierako alegazioez

1. atala. Demandaz eta haren objektuaz

399. artikulua. Demanda eta haren edukia.

1. Judizioa demanda bidez hasiko da, eta, auzi-jartzailea eta demandatua identifikatzeko datuak eta inguruabarrak eta haiek epatzeko egoitza edo bizilekua 155. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz jasota, zenbakituta eta bananduta azalduko dira egitateak eta zuzenbideko oinarriak bertan, eta argiro eta zehatz-mehatz finkatuko da eskatzen dena.

Era berean, legez beharrezkoa denean demandatzaileari zuzenean egitea jakinarazpen, errekerimendu edo epatze pertsonalak, edo hark prokuradorerik gabe jarduten duenean, eta betiere Justizia Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartuta dauden pertsonak direnean, edo, behartuta egon gabe ere, bide elektronikoa aukeratzen dutenean, 162. artikulua 1. apartatuan aurreikusitako bitartekoetatik edozein kontsignatuko da, edo, hala badagokio, telefono-zenbaki bat eta helbide elektroniko bat, eta jasota utziko da demandatzaileak konpromisoa hartzen duela bulego judizialak zuzentzen dion



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

edozein komunikazio haien bidez jasotzeko. Konpromiso hori judizioa amaitzen duen ebazpenaren ondoriozko betearazpen-prozesura hedatuko da.

2. Auzi-jartzailearen izendapenarekin batera, prokuradorearen eta abokatuaren izen-abizenak aipatuko dira, esku hartzen dutenean.

3. Egitateak era ordenatuan eta argian kontatuko dira, demandatuak, erantzutean, haiek errazago onar edo uka ditzan. Ordena eta argitasun berarekin adieraziko dira uzien oinarri diren egitateei lotuta ekartzen diren dokumentuak, bitartekoak eta tresnak, eta, azkenik, haiei buruzko balorazioak edo arrazoibideak formulatuko dira, baldin eta auzilariaren eskubidearentzat komenigarriak badirudite.

4. Zuzenbideko oinarriek, planteatutako funtsezko auzigaiari lotutako alegazioez gain, barnean hartuko dituzte, egokiro bananduta, alderdien gaitasunari, haien edo prokuradorearen ordezkaritzari, jurisdikzioari, eskumenari eta demanda bideratu behar den judizio-motari buruz bidezkoak direnak, bai eta beste edozein egitateri buruzkoak ere, judizioaren baliozkotasuna eta funtsari buruzko epai baten bidezkoasuna egitate horien menpe egonez gero.

5. Zenbait pronuntziamentu judizial lortu nahi direnean, behar bezala bananduta azalduko dira eskabidean. Subsidiarioki formulatutako eskabideak, nagusiak ezetsiak diren kasurako, ordenaren arabera eta bananduta jasoaraziko dira.

400. artikulua. Egitateak eta oinarri juridikoak alegatzearen preklusioa.

1. Demandan eskatzen dena egitate edo oinarri nahiz titulu juridiko ezberdinetan oinarritu badaiteke, demandan alegatu beharko dira demanda jartzeko unean ezagutzen direnak edo inboka daitezkeenak, eta ez da onargarria izango osteko prozesu baterako uztea haien alegazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako alegazioaren zamak ez die kalterik egingo alegazio osagarriei edo egitate berriei edo jakin berriei, baldin eta lege honetan baimenduta badaude demandaren eta erantzunaren osteko uneetan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, auzibitatearen eta gauza epaituaren ondoretarako, auzi batean alegatutako egitateak eta oinarri juridikoak aurreko beste judizio batean alegatutako berak direla ulertuko da, baldin eta han alegatu ahal izan baziren.

401. artikulua. Akzio-metaketaren preklusio-unea. Demandaren zabaltze objektiboa eta subjektiboa.

1. Demandari erantzun ondoren, ez da akzio-metaketa onartuko.

2. Erantzunaren aurretik, demanda zabaldu ahal izango da, jada egikaritutako akzioei beste batzuk metatzeko edota haiek beste demandatu batzuen aurka zuzentzeko. Kasu horretan, demandari erantzuteko epea berriro hasiko da zenbatzen demandaren zabaltzea helarazi denetik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

402. artikulua. Akzio-metaketari aurka egitea.

Eskatutako metaketari aurka egin ahal izango dio demandatuak demanda-erantzunean, baldin eta ez badu betetzen lege honen 71. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa. Aurkakotza horri buruz, judizio aurreko entzunaldian ebatziko da.

403. artikulua. Demanda onartzea, eta hura ez onartzeko salbuespenezko kasuak.

1. Demandak ez dira onartuko soilik lege honetan berariaz aurreikusitako kasuetan eta kausengatik.

2. Demandak ez dira onartuko haiekin batera aurkezten ez direnean haiek onartzeko legeak berariaz galdatutako dokumentuak, edo adiskidetze-saiakerarik egin ez denean, edota kasu berezietan galdatzen diren errekerimenduak, erreklamazioak edo kontsignazioak egin ez direnean.

404. artikulua. Demanda onartzea, demandatua epatzea eta erantzuteko epea.

1. Justizia Administrazioaren letraduak, demanda aztertuta, dekretua emango du, hura onartzen duena, eta demandatuari helaraziko dio, hoge eguneko epean erantzun diezaion.

2. Aurrekoa gorabehera, Justizia Administrazioaren letraduak auzitegiari kontu emango dio, onarpenari buruz ebatz dezan honako kasu hauetan:

1) irizten dionean auzitegiak jurisdikziorik edo eskumenik ez duela, edo,

2) demandak forma-akatsak izanda, auzi-jartzaileak konpondu ez dituenean Justizia Administrazioaren letraduak horretarako emandako epean.

3. Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. eta 82. artikulua edo Lehia Defendatzeko Legearen 1. eta 2. artikulua aplikatzekoak diren prozesuetan, Justizia Administrazioaren letraduak Lehiaren Batzorde Nazionalari helaraziko dio demanda onartzen duen ebazpena, lehenengo paragrafoan aurreikusitako epean.

2. atala. Demanda-erantzunaz eta errekonbentzioaz

405. artikulua. Demandari erantzuna eta erantzunaren forma.

1. Demanda-erantzunean, zeina 399. artikuluan aurreikusitako moduan idatziko baita, demandatuak demandatzailearen konpromiso bera hartu beharko du organo judizialek zuzenean datozen jakinarazpen, errekerimendu edo epatze pertsonalak jasotzearen ondoretarako, lege aurreikusitako kasuetan edo prokuradorerik gabe jarduten duenean, betiere Justizia Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartuta dauden pertsonak direnean, eta auzi-jartzailearen uziei aurka egiteko oinarriak azalduko



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

ditu, komenigarritzat jotzen dituen salbuespen materialak alegatuz. Akzio-metaketa onartezina dela uste badu, horrela adieraziko du, onartezintasunaren arrazoiak adieraziz. Halaber, erantzunean adierazi ahal izango du amore ematen diola auzi-jartzailearen uzietatik bati edo batzuei, edota alegatutako uzi bakarraren zati bati.

2. Demanda-erantzunean, ukatu edo onartu egin beharko dira auzi-jartzaileak alegatutako egitateak. Demandatua isilik geratzen bada edo erantzun iheskorrak ematen baditu, auzitegiak isilbidez onartutzat hartu ahal izango ditu harentzat kaltegarriak diren egitateak.

3. Halaber, demanda-erantzunean, demandatuak alegatu beharko ditu salbuespen prozesalak eta gainerako alegazioak, baldin eta argi uzten badute oztopa dezaketela prozesuak modu egokian aurrera egitea eta funtsari buruzko epai bidez amaitzea.

4. Demandari erantzuteko idazkiaren akats posibleen konponketari dagokionez, aurreko artikulua 2. apartatuaren 2.) azpiapartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

406. artikulua. Errekonbentzioaren edukia eta forma. Demandarekin loturarik ez duen errekonbentzioaren eta errekonbentzio inplizituaren onartezintasuna.

1. Demandari erantzutean, demandatuak formulatu ahal izango ditu bere ustez demandatuarekiko dituen uzia edo uziak, errekonbentzio bidez. Errekonbentzioa onartuko da, soilik, haren uzien eta demanda nagusiaren objektu direnen artean lotura badago.

2. Ez da errekonbentzioa onartuko, epaitegiak gaiagatik edo muntagatik eskumen objektiborik ez duenean edota egikaritzen den akzioa beste mota edo izaera bateko judizioan ebatzi behar denean.

Hala ere, errekonbentzio bidez egikaritu ahal izango da akzio lotua, muntagatik hitzezko judizioan ebatzi behar bada.

Era berean, lehen auzialdiko epaitegi baten aurrean prozesu bat izapidetzen ari bada eta errekonbentzio bidez planteatzen bada akzio nagusiari lotutako akzio bat, merkataritza-arloko epaitegien eskumenekoa, auzi-jartzaileari eta pertsonatutako gainerako alderdiei bost eguneko eperako entzunaldia eman ondoren, lehen auzialdiko epaitegia auziaz arduratzeaz inhibititu beharko da, eta autoak dauden egoeran igorri beharko dizkio merkataritza-arloko epaile eskudunari.

Era berean jardungo da demandatuak 408. artikulua 2. apartatuan aipatzen den deuseztasuna alegatzen duenean eta deuseztasun hori merkataritza-arloko epaitegien eskumeneko gai batean oinarritzen denean.

Errekonbentzio-akzioaz arduratzeko eskumen objektiborik ez izateagatik errekonbentzioa onartzen ez duen autoaren aurka apelazioan errekurritu ahal izango da, eta prozedura nagusiaren izapidetzea eten egingo da errekurtsio hori ebatzi arte.

3. Erantzunaren ostean proposatuko da errekonbentzioa, eta demandarentzat 399. artikuluan ezarritakoa beteko du. Errekonbentzioak argi azaldu beharko du zein babes judizial zehatz lortu nahi duen auzi-jartzaileari dagokionez, eta, kasua denean, beste subjektu batzuei dagokienez. Demandatuaren



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

idazkian inoiz ez da formulatutzat hartuko errekonbentzioa, baldin eta haren absoluzioa eskatuz amaitzen bada demanda nagusiaren uziarekiko edo uziekiko.

4. Demandarentzat 400. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio errekonbentzioari.

407. artikulua. Errekonbentzio-demandaren helburuko pertsonak. Errekonbentzioari erantzutea.

1. Demandatzaileak ez diren subjektuen aurka ere zuzendu ahal izango da errekonbentzioa, betiere auzi-jartzaile errekonbentzio-hartzailearen borondatezko edo nahitaezko auzikidetzat har badaitezke errekonbentzio-demandaren objektuarekin duten loturarengatik.

2. Auzi-jartzaile errekonbentzio-hartzaileak eta aurreko apartatuan aipatutako subjektuek hogei eguneko epean erantzun ahal izango diote errekonbentzioari, errekonbentzio-demandaren jakinarazpenetik. Erantzun horrek 405. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

408. artikulua. Konpentsatzeko eta demandaren oinarri den negozio juridikoa deuseztatzeko alegazioaren tratamendu prozesala. Gauza epaitua.

1. Auzi-jartzailearen uzia diru-kopurua ordaintzeko kondena izanik demandatuak kreditu konpentsagarria dagoela alegatuz gero, errekonbentzioari erantzuteko aurreikusitako moduan eztabaidatu ahal izango du auzi-jartzaileak alegazio hori, nahiz eta demandatuak bere absoluzioa soilik nahi izan, eta ez bere alde izan dezakeen saldoaren kondena.

2. Negozioaren baliozkotasuna demandan jakinekotzat hartuta, demandatuak bere defentsan alegatzen baditu auzi-jartzailearen uziaren edo uzien oinarri den negozioaren erabateko deuseztasuna eragiten duten egitateak, auzi-jartzaileak Justizia Administrazioaren letraduari eskatu ahal izango dio aipatutako deuseztasun-alegazioari erantzun diezaiola errekonbentzioari erantzuteko ezarritako epe berean, eta Justizia Administrazioaren letraduak hala xedatuko du, dekretu bidez.

3. Azkenean emango den epaiak ebatzi beharko du artikulua honen aurreko apartatuetan aipatzen diren puntuei buruz, eta gauza epaituaren indarra izango dute epaiko puntu horiei buruzko pronuntziamentuek.

409. artikulua. Erantzunaren eta errekonbentzioaren uziak bideratzea eta erabakitzea.

Demanda nagusiaren objektu direnen une eta forma berean bideratuko eta ebatziko dira demandatuak erantzunean eta, kasua denean, errekonbentzioan aurkeztutako uziak.

3. atala. Prozesua ebazkizun egotearen ondoreez



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

410. artikulua. Auzibitatearen hasiera.

Auzibitatea, bere ondore prozesal guztiekin, demanda jartzen denetik gertatzen da, baldin eta ostean onartzen bada.

411. artikulua. Jurisdikzioaren betikotasuna.

Alderdien egoitzari, auziaren gauzaren egoerari eta judizioaren objektuari buruz prozesua hasi ondoren egiten diren aldaketek ez dute jurisdikzioa eta eskumena aldatuko, eta auzibitatearen hasierako unean egiaztatutakoaren arabera zehaztuko dira.

412. artikulua. Demanda aldatzeko debekua eta aldaketa onargarriak.

1. Behin prozesuaren objektua ezarrita demandan, erantzunean eta, kasua denean, errekonbentzioan, alderdiek ezin izango dute geroago aldatu.

2. Alegazio osagarriak formulatzeko ahalmenari kalterik egin gabe ulertu behar da aurreko apartatuan xedatutakoa, lege honetan aurreikusitako moduan.

413. artikulua. Inguruabarren aldaketaren eragina funtsari buruzko epaian. Prozesutik kanpo asebetetzea. Interes legitimoa galtzea.

1. Epaian ez dira kontuan hartuko berrikuntzak, baldin eta judizioa hasi ondoren alderdiek edo hirugarrenek sartu badituzte haiek, demanda eta, kasua denean, errekonbentzioa eragin zuten gauzen edo pertsonen egoeran, salbu eta berrikuntzak interes legitimorik gabe behin betiko uzten dituen demandan edo errekonbentzioan ondorioztatutako uziak, haiek prozesutik kanpo betetzeagatik edo beste kausaren batengatik.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera uziak interes legitimorik gabe geratu direnean, 22. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

II. KAPITULUA

Judizio aurreko entzunaldiaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

414. artikulua. Entzunaldiaren helburua, une prozesala eta subjektu esku-hartzaileak.

1. Behin demandari eta, kasua denean, errekonbentzioari erantzunda, edo kasuan kasuko epeak igarota, Justizia Administrazioaren letraduak alderdiak deituko ditu hiru egunen barruan entzunaldi batera, zeina deialditik hogeit hamar eguneko epean egin beharko baita.

Deialdi horretan, lehenago egin ez bada, alderdiei ezagutaraziko zaie gatazka konpontzen saiatzeko negoziazio batera jo dezaketela, bitartekaritzara jotzeko aukera barne; kasu horretan, entzunaldian adieraziko dituzte horren inguruko erabakia eta erabakiaren arrazoiak.

Entzunaldia egingo da, hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, dela prozesua amaituko duen alderdien arteko akordioa edo transakzioa lortzen saiatzeko, dela prozesuak aurrera egitea edo haren objektuari buruzko epai bidez amaitzea oztopa dezaketen arazo prozesalak aztertzeko, dela aipatutako objektua eta alderdien artean eztabaidagai diren egitezko edo zuzenbideko puntuak zehatz-mehatz finkatzeko, dela, kasua denean, froga proposatzeko eta onartzeko.

Prozesuaren objektua kontuan hartuta, auzitegiak alderdiak gonbidatu ahal izango ditu prozesua amaitzen duen akordio bat lortzen saia daitezen, kasua denean bitartekaritza-prozedura baten bidez, informazio-saio batera bertara daitezela eskatuz.

2. Alderdiek abokatuak lagunduta agertu beharko dute entzunaldian.

Alderdiak eta haien ordezkari prozesalak bideokonferentziaz edo soinua eta, hala denean, irudia erreproduzitzeko bitarteko elektronikoak erabiliz agertu beharko dira, 137 bis artikuluan ezarritako betekizunekin, auzitegiak hori ofizioz edo alderdietatik batek eskatuta erabakitzen duenean.

Konponketa- edo transakzio-ahaleginaren ondorerako, alderdiek, pertsonalki barik beren prokuradorearen bidez agertzen direnean, ahalordea eman beharko diote uko egiteko, amore emateko edo transakzioa egiteko. Pertsonalki agertu ez eta ahalorde hori ematen ez badute, entzunaldira agertugabetzat hartuko dira.

3. Alderdietatik bat ere agertzen ez bada entzunaldian, akta egingo da, hori jasoaraziz, eta, auzitegiak izapide gehiagorik gabe emango du prozesua largesten duen autoa, eta jarduketak artxiba daitezela aginduko du.

Halaber, prozesua largetsiko da baldin eta, entzunaldian demandatua soilik agertuz gero, interes legitimorik alegatzen ez badu prozedurak aurrera jarrai dezan funtsari buruzko epaia emateko. Demandatua bada agertzen ez dena, auzi-jartzailearekin egingo da entzunaldia, bidezkoa den horretan.

4. Demandatzailearen abokatua ez badoa entzunaldira, prozesua largetsiko da, salbu eta demandatuak interes legitimoa alegatzen badu prozedurak aurrera jarrai dezan funtsari buruzko epaia emateko. Demandatuaren abokatua ez badoa, demandatzailearekin egingo da entzunaldia, bidezkoa denari dagokionez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

415. artikulua. Adiskidetze- edo transakzio-ahalegina. Largespena, aldebiko atzera-egiteagatik. Akordioaren homologazioa eta efikazia.

1. Alderdiak agertuta, auzitegiak irekitzat deklaratu du ekitaldia, eta egiaztatuko du haien arteko auziak badira.

Akordio bat lortu dutela edo berehala lortzeko prest daudela adierazten badute, aukera izango dute prozesuan atzera egiteko edo lortutako akordioa homologa dezala auzitegiari eskatzeko.

Alderdiek, elkarrekin adostuta, prozesua etetea ere eskatu ahal izango dute, 19. artikulua 4. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorritik, bitartekaritzapean jartzeko.

Kasu horretan, auzitegiak aurretiaz aztertuko du ea ekitaldira bertaratutako alderdiek edo haien ordezkari behar bezala egiaztatuek gaitasun juridikoaren eta xedatze-ahalmenaren betekizunak betetzen dituzten.

2. Judizialki homologatutako akordioak legeak transakzio judizialari esleitutako ondoreak sortuko ditu, eta epaiak eta judizialki onetsitako hitzarmenak betearazteko aurreikusitako izapideen bitartez gauzatu ahal izango da. Transakzio judizialerako aurreikusitako kausengatik eta moduan aurkaratu ahal izango da akordio hori.

3. Alderdiek akordio bat lortu ez badute edo berehala lortzeko prest ez badaude, entzunaldiak aurrera egingo du hurrengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Prozesua bitartekaritzara jotzeko eten bada, bitartekaritza bukatuta, alderdietatik edozeinek eskatu ahal izango du etendura amaitutzat jo dadila eta entzunaldiarekin jarraitzeko data seinala dadila.

416. artikulua. Arazo prozesalak aztertzea eta ebatzea, jurisdikzioari eta eskumenari buruzkoak bazter utzita.

1. Alderdiek akordioa lortu ez badute, auzitegiak ebatzi egingo du, hurrengo artikuluetan aurreikusitako moduan, prozesuak modu egokian aurrera egitea eta funtsari buruzko epai bidez amaitzea oztopa dezakeen edozein inguruabarri buruz, eta, bereziki, honako hauei buruz:

1.) Auzilarien gaitasunik eza edo ordezkaritza eza, edozein motatakoa;

2.) Gauza epaitua edo auzibartea;

3.) Behar bezalako auzikidetzarik eza;

4.) Prozeduraren desegokitasuna;

5.) Legezko akatsa demanda edo, kasua denean, errekonbentzioa proposatzeko moduan, argitasunik edo zehaztasunik ez izateagatik alderdiak edo bideratutako eskabidea zehazterakoan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Entzunaldian, demandatuak ezin izango du aurkaratu auzitegiaren jurisdikziorik edo eskumenik eza, hura deklinatoria-forman proposatu behar baitzuen lege honen 63. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ulertzen da kalterik egin gabe auzitegiak jurisdikziorik edo eskumenik eza ofizioz hautemateari buruz legean aurreikusitakoari.

417. artikulua. Arazo prozesalak aztertzeako hurrenkera eta haiei buruzko ebazpena.

1. Entzunaldia aurreko artikuluan aipatutako inguruabar batzuei buruzkoa denean, hurrengo artikuluetan azaltzen den hurrenkeraren arabera aztertuko eta ebatziko dira.

2. Entzunaldiaren objektua aurreko artikuluko arazo eta inguruabar bat baino gehiago direnean, auzitegia auto bakar batean pronuntziatuko da, entzunalditik hurrengo bost egunen barruan, entzunaldian bertan ahoz ebatzi ez diren arazo eta inguruabar planteatu guztiei buruz, hurrengo artikuluekin bat etorritz.

418. artikulua. Gaitasun- edo ordezkaritza-akatsak. Haiek ez konpontzearen edo zuzentzearen ondoreak. Auzi-ihesaren deklarazioa.

1. Konpongarriak edo zuzentzeko modukoak diren gaitasun- edo ordezkaritza-akatsak alegatu baditu demandatuak erantzunean edo ekarri baditu auzi-jartzaileak entzunaldira, ekitaldian konpondu edo zuzendu ahal izango dira, eta, une horretan ezinezkoa bada, gehienez ere hamar eguneko epea emango da horretarako, eta, bien bitartean etenda geratuko da entzunaldia.

2. Akatsa edo gabezia konpondu edo zuzendu ezin denean edota emandako epean konpontzen edo zuzentzen ez denean, amaitutzat emango da entzunaldia, eta prozesua amaitzen duen autoa emango da, manu honen hurrengo apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

3. Konpondu ez den akatsak demandatua forma egokian pertsonatzeari eragiten badio, auzi-ihesean deklaratu da, eta egindako jardunak ez dira autoetan jasota utziko.

419. artikulua. Akzio-metaketa onartzea.

Behin gaitasun- eta ordezkaritza-arazoak planteatuta eta, kasua denean, ebatzita, demandan hainbat akzio metatu badira eta demandatuak, bere erantzunean, metaketa horri aurka egin badio zioak emanez, auzitegiak ahoz ebatziko du metaketaren bidezketasunari eta onargarritasunari buruz, entzunaldi berean auzi-jartzaileari entzun eta gero. Entzunaldiak eta prozesuak beren aribideari jarraituko diote, ebazpen judizialaren arabera prozesuaren objektu izan daitekeen akzioari edo akzioei dagokienez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

420. artikulua. Auzia borondatez osatu ahal izatea. Ebazpena, beharrezkoa den auzikidetzaren kasu eztabaidagarrietan.

1. Demandatuak erantzunean alegatu duenean beharrezkoa den auzikidetzarik eza, auzi-jartzaileak, entzunaldian, idazkia aurkeztu ahal izango du, egoki diren kopiekin batera, demandatuaren ustez bere auzikide izan behar diren subjektuei zuzendua, eta, auzitegiak, auzikidetzari bidezko baderitzo, hala deklaratu du, eta aginduko du ezen, entzunaldia etenda, demandatu berriak epea daitezela demandari erantzun diezaioten.

Demandatzaileak, auzikideei demanda zuzentzean, hasierako demandaren alegazioei erantsi ahal izango dizkie, soilik, demandatu berrien aurkako uziak justifikatzeko ezinbestekoak direnak, eskatzeko kausa funtsean aldatu gabe.

2. Auzi-jartzaileak aurka egiten badio demandatuak alegatutako auzikidetzarik ezari, auzitegiak alderdiei entzungo die puntu horri buruz, eta, auzigaiaren zailtasunak edo konplexutasunak aholkatzen duenean, auto bidez ebatzi ahal izango du, zeina entzunalditik hurrengo bost eguneko epean eman beharko duen. Kasu orotan, entzunaldiak aurrera jarraitu beharko du gainerako helburuetarako.

3. Auzitegiak uste badu auzikidetzaren bidezkoa dela, hura eratzeko egoki deritzon epea emango dio auzi-jartzaileari, gutxienez hamar egunekoa. Demandatu berriek 404. artikuluan ezarrita dagoen epearen barruan erantzun ahal izango diote demandari; bien bitartean etenda geratuko da jardunen aribidea hasierako demandatzailearentzat eta demandatuarentzat.

4. Auzi-jartzaileari auzikidetzaren eratzeko emandako epea igaro bada demandatu berriei zuzendutako demandaren eta dokumentu erantsien kopiak aurkeztu gabe, prozesuari amaiera emango zaio auto bidez, eta behin betiko artxibatuko dira jarduketak.

421. artikulua. Ebazpena, auzibitartea edo gauza epaitua dagoenean.

1. Auzitegiak hautematen badu objektu berari buruz beste judizio bat ebazkizun dagoela edo ebazpen irmo bat dagoela, 222. artikulua 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera, entzunaldia amaitutzat emango du, eta largespen-autoa emango du, hurrengo bost eguneko epean.

Hala ere, prozesua ez da largetsiko, baldin eta, 222. artikulua 4. apartatuarekin bat etorritik, aurreko epai irmo baten ondoreak loteslea izan behar badu osteko prozesuaz arduratzen ari den auzitegiarentzat.

2. Auzitegiaren iritziz ez badago auzibitarterik edo gauza epaiturik, hala deklaratu du, zioak emanez, ekitaldian, eta erabakiko du entzunaldiak aurrera jarrai dezala gainerako helburuetarako.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, auzibitarterik edo gauza epaituari buruz planteatutako arazoen zailtasunak edo konplexutasunak aholkatzen duenean, auto bidez ere ebatzi ahal izango du arazo horiei buruz, entzunaldiaren hurrengo bost egunen barruan; kasu orotan, entzunaldiak aurrera jarraituko du gainerako helburuetarako. Egitezko arazoren bati buruz ebatzi behar izanez gero, aipatutako epearen barruan gauzatuko dira auzitegiak aginduko dituen kasuan kasuko jardunak.



422. artikulua. Ebazpena, muntagatik prozedura desegokia denean.

1. Demanda-erantzunean formulatutako prozedura desegokia dela alegatu bada eta alegazio horren oinarria bada ados ez egotea auziaren gauzaren balioarekin edo demandaren interes ekonomikoa legeko erregelen arabera kalkulatzeko moduarekin, auzitegiak alderdiei entzungo die entzunaldian, eta ekitaldian ebatziko du bidezkoa dena; kasua denean, alderdiek auziaren gauzaren balioari dagokionez lor dezaketen akordioari lotuko zaio.

2. Auziaren gauzaren balioari buruz akordiorik lortu ezean, auzitegiak ahoz erabakiko du, entzunaldian bertan, zioak emanez, bidezkoa dena, kontuan hartuz balioa kalkulatzeko baliagarriak diren dokumentuak, txostenak eta beste edozein elementu, alderdiek ekarritakoak.

Hitzezko judizioaren izapideei jarraitzea egokituz gero, epaileak amaiera emango dio entzunaldiari, eta data seinalatuko da judizio horren ikustaldirako, salbu eta demanda jarri bada legeak gaiagatik legeak ezarritako iraungitze-epetik kanpo. Kasu horretan, prozesuaren largespena deklaratu du epaileak.

Seinalamendua ekitaldian bertan egin daitekeen guztietan, epaileak egingo du, kontuan hartuta seinalamenduen agenda programatuaren beharrak eta 182.4 artikuluko gainerako inguruabarrak.

Gainerako kasuetan, Justizia Administrazioaren letraduak finkatuko du data, 182. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

423. artikulua. Ebazpena, gaiagatik prozedura desegokia denean.

1. Prozedura desegokiaren alegazioaren oinarria denean bideratzen ari dena ez dagokiola prozesuaren objektu den gaiari, auzitegiak, entzunaldian alderdiei entzunda, ekitaldian erabaki ahal izango du bidezkoa dena, zioak emanez, eta, alegazioari oinarririk gabea irizten badio, entzunaldiak aurrera jarraituko du gainerako helburuetarako.

2. Auzitegiak, halaber, auzigaiaren konplexutasunak aholkatzen duenean, bidezkoa dena erabaki ahal izango du bideratu beharreko prozedurari buruz, entzunaldiaren hurrengo bost egunen barruan; kasu orotan, entzunaldiak aurrera jarraituko du gainerako helburuetarako.

3. Prozedura egokia hitzezko judizioarena bada, hala deklaratzeari xedatuko da Justizia Administrazioaren letraduak alderdiak zita ditzala ikustaldirako, salbu eta demanda jarri bada legeak gaiagatik ezarritako iraungitze-epetik kanpo. Kasu horretan, prozesuaren largespena deklaratu da.

Halaber, auzitegiak largespena xedatuko du, baldin eta, ikustaldia hastean, beteta ez badaude legeek, gaiagatik, demanda onartzeko galdatzen dituzten betekizun bereziak.

424. artikulua. Jarduera eta ebazpena, demanda akastuna denean.

1. Demandatuak demanda-erantzunean ekartzen badu demandak argitasunik edo zehaztasunik ez duela alderdiak zehaztean edo bideratutako uzietan, edota auzi-jartzaileak entzunaldian alegatzen badu

1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea



akats horiek berak daudela erantzunean edo errekonbentzioan, edota auzitegiak ofizioz batzuk edo besteak hautematen baditu, entzunaldiaren ekitaldian onartuko ditu egokiak diren argibideak edo zehaztapenak.

2. Argibideak eta zehaztasunak formulatzen ez badira, auzitegiak auziaren largespena dekretatuko du soilik erabat ezinezkoa denean zehaztea zertan dautzan auzi-jartzailearen uziak edo, kasua denean, errekonbentzioan demandatuarenak, edo zein subjektu juridikoren aurka formulatzen diren uziak.

425. artikulua. Erabaki judiziala, berariaz aurreikusitakoan antzekoak diren inguruabar prozesalak daudenean.

Manu hauetan antzeko inguruabarrentzat ezarritako erregeletara egokituko da alegatu diren edo ofizioz agerian jarri direnen ebazpena, betiere 416. artikuluan jasota ez badaude.

426. artikulua. Alegazio osagarriak eta argigarriak. Uzi osagarriak. Demandaren eta erantzunaren ostean gertatutako edo ezagututako egitateak. Puntu horiei buruzko dokumentuen aurkezpena.

1. Entzunaldian, auzilariak alegazio osagarriak formulatu ahal izango dituzte aurkakoak adierazitakoari lotuta, funtsean aldatu gabe ez beren uziak ezta haien idazkietan azaldu dituzten uzi horien oinarriak ere.

2. Halaber, alderdiek argitu ahal izango dituzte formulatu dituzten alegazioak, eta zuzendu beren uzietan bigarren mailako puntuak, betiere aldatu gabe ez uziak ezta haien oinarriak ere.

3. Alderdietako batek eskabide erantsiren edo osagarriren bat gehitu nahi badie bere idazkietan formulatutakoei, gehikuntza hori onartuko da, baldin eta aurkako alderdia ados badago. Hark aurka eginez gero, auzitegiak erabakiko du gehikuntzaren onargarritasunari buruz, eta hura onartuko du soilik irizten dionean entzunaldian hura planteatzeak ez diola aurkako alderdiari eragozten defentsa-eskubidea berdintasun-baldintzetan egikaritzea.

4. Demandaren edo erantzunaren ondoren, alderdien uziak auzian oinarritzeko egitate garrantzitsuren bat gertatzen bada, edo alderdiek ezaugarri horiek dituzten lehenagoko baten berri izan badute, entzunaldian alegatu ahal izango dute.

286. artikuluen 4. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaio egitate berriaren edo jakin berriaren alegazioari.

5. Entzunaldiaren ekitaldian, alderdiek dokumentuak eta irizpenak ekarri ahal izango dituzte, baldin eta lotuta badaude artikuluen honen aurreko apartatueta aipatutako alegazio osagarriekin, zuzenketekin, eskabideekin, gehikuntzekin eta egitate berrieekin.

Lege honen 267. eta 268. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaio dokumentu horien aurkezpenari, dokumentu-moten arabera.

6. Halaber, auzitegiak alderdiei errekeritu ahal izango die beren demanda- edo erantzun-idazkietako egitatei eta argudioei lotuta beharrezkoak diren argibideak edo zehaztapenak egin ditzatela. Argibide edo



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

zehaztapen horiek egin ezean, auzitegiak ohartaraziko die jo dezakeela ados daudela aurkakoak alegatutako egitateekin eta argudioekin.

427. artikulua. Alderdien jarrera aurkeztutako dokumentuen eta irizpenen aurrean.

1. Entzunaldian, alderdi bakoitzak adieraziko du zer iritzi duen aurkakoak une horretara arte ekarritako dokumentuei buruz, eta adieraziko du ea dokumentuok onartzen edo aurkaratzen edo aitortzen dituen edota, kasua denean, haien autentikotasunari buruz froga proposatzen duen.

2. Alderdiek, kasua izanez gero, beren eskubideari komeni zaiona adieraziko dute une horretara arte aurkeztu diren aditu-irizpenei buruz, haiek onartuz, haiei aurka eginez edo zehazten dituzten puntuetan haiek zabal daitezela proposatuz. Halaber, iritzia adieraziko dute 265. artikulua 1. apartatuaren 5.) zenbakiaren babesean ekarritako txostenei buruz.

3. 426. artikulua 1. lehenengo hiru apartatuetan aipatutako alegazioek edo uziek aditu-irizpenen bat prozesura ekartzeko beharra planteatzen badute alderdi guztiengan edo haietako batengan, 338. artikulua 1. bigarren apartatuan ezarritako epearen barruan ekarri ahal izango dute.

4. Aurreko apartatuaren kasu berean, entzunaldira bertaraten diren alderdiek, askatasunez izendatzen duten adituaren irizpena ekarri ordez, entzunaldian bertan eskatu ahal izango dute auzitegiak izenda dezala irizpena emango duen aditua. Lege honen II. liburuaren I. tituluaren VI. kapituluaren 5. atalean ezarritakoarekin bat etorritik ebatziko da eskaera hori.

428. artikulua. Egitate eztabaidagarriak finkatzea eta berehalako epai posiblea.

1. Kasua denean, entzunaldiak aurrera jarraituko du, alderdiek edo haien defendatzaileek, auzitegiarekin batera, finka dezaten auzilariak zein egitateekin dauden ados eta zeinekin ez.

2. Eztabaidaren objektua ikusita, auzitegiak alderdiei edo haien ordezkariari eta haien abokatuei aholkatu ahal izango die auzia amaituko duen akordio batera irits daitezela. Kasua denean, lege honen 415. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio akordioari.

3. Alderdiek auziari amaiera ematen ez badiote akordio bidez, aurreko apartatuarekin bat etorritik, baina egitate guztiekin ados egon eta desadostasuna arazo juridikora edo juridikoetara murriztuta geratzen bada, auzitegiak epaia emango du, entzunaldia amaitu eta hurrengo egunetik hogeitaz egunen barruan.

429. artikulua. Froga proposatzea eta onartzea. Judizioaren seinalamendua.

1. Auzia amaitzeko akordiorik ez badago alderdien artean, ezta egitateei buruzko adostasunik ere, entzunaldiak aurrera jarraituko du froga proposatzeko eta onartzeko.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Froga hitzez proposatuko da, hargatik eragotzi gabe alderdiek ekitaldira haren idazki xehatua ekartzeko duten betebeharra, zeina entzunaldian osatu ahal izango den. Idazki hori aurkeztu ez izanak ez du froga ez onartzea ekarriko, baldin eta hurrengo bi eguneko epean aurkezten bada.

Auzitegiak baderitzo alderdiek proposatutako frogak askiezak izan daitezkeela egitate eztabaidagarriak argitzeko, alderdiei adieraziko die, eta agerian utziko du bere iritziz zer egitateri eragin diezaiokeen frogen askieztasunak. Adierazpen hori egitean, auzitegiak, autoetatik ondorioztatutako froga-elementuetara mugatuta, gauzatzea komenigarri deritzen froga edo frogak ere adierazi ahal izango ditu.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, alderdiek beren froga-proposamenak osatu edo aldatu ahal izango dituzte, auzitegiak adierazitakoa ikusita.

2. Behin froga egokiak eta baliagarriak onartuta, judizioaren data seinalatuko da; entzunaldiaren amaieratik hilabeteko epean egin beharko da hura.

Seinalamendua ekitaldian bertan egin daitekeen guztietan, epaileak egingo du, kontuan hartuta seinalamenduen agenda programatuaren beharrak eta 182.4 artikuluko gainerako inguruabarrak.

Gainerako kasuetan, Justizia Administrazioaren letraduak finkatuko du data, 182. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

3. Alderdi-eskariz, froga osoa edo haren zati handiena gauzatu behar denean auziaz arduratzen ari den auzitegiak egoitza duen tokitik kanpo, auzitegiak erabaki ahal izango du Justizia Administrazioaren letraduak judizioa seinala dezala, bi hilabeteko epearen barruan egin dadin.

4. Judizio-ekitaldian gauzatu behar ez diren frogak hura baino lehenago gauzatuko dira.

5. Alderdiek adierazi beharko dute judiziorako zein lekuko eta aditu aurkezteko konpromisoa hartzen duten eta, zein diren, aitzitik, auzitegiak zitatu beharrekoak. Zitazioa entzunaldian erabakiko da, eta behar besteko aurrerapenarekin gauzatuko da.

Halaber, alderdiek zehaztu beharko dute beren ustez zein deklarazio eta galdeketa gauzatu behar diren laguntza judizialaren bidez. Auzitegiak bidezkoa dena erabakiko du horri buruz, eta, laguntza judiziala eskatzea beharrezkoa dela baderitzo, ekitaldian erabakiko du exhorto egokiak igor daitezela, eta alderdiei hiru eguneko epea emango die, beharrezkoa denean galdera-zerrenda bat aurkez dezaten. Edozein kasutan, exhorto horiek bete ez izanak ez du atzeratuko judizio-ekitaldia.

6. Ez da beharrezkoa izango alderdiei judiziorako zitazioa egitea, baldin eta aurretiazko entzunaldian agertu badira beren kabuz edo beren prokuradorearen bidez.

7. Salbuespenez eta zioak emanez, eta onartutako frogak direla-eta, aurreikus daitekeenean judizioa ezin izango dela amaitu seinalatutako egunaren barruko saio bakar batean, horrela adieraziko du zitazioak, eta zehaztuko du ea hurrengo saioa edo saioak segidako hurrengo egunetan edo beste batzuetan egingo diren; egun horiek Justizia Administrazioaren letraduak seinalatuko ditu, judizioaren saioen hasierako ordua adierazita kasu orotan.

8. Onartutako froga bakarra dokumentuena denean, haiek jada prozesura ekarrita aurkaratu ez badira, edota aditu-txostenak aurkeztu direnean, ez alderdiek ezta auzitegiak ere ez badute eskatzen adituak



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

judizioan presente egon daitezela txostena berresteko, auzitegiak epaia emango du, judizioa aurretiaz egin gabe, entzunaldia amaitu eta hurrengo hogeit egunen barruan.

430. artikulua. Judizioaren beste seinalamendu bat eskatzea.

Judizio-ekitaldira joan behar duen edozein ezin bada bertaratu ezinbesteko kausagatik edo antzeko garrantzia duen beste zio bategatik, judizioaren beste seinalamendu bat eskatu ahal izango du. Eskaera hori 183. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorri bideratuko eta ebatziko da.

III. KAPITULUA

Judizioaz

431. artikulua. Judizioaren helburua.

Judizioaren objektua izango da gauza daitezela alderdien deklarazioen frogak, lekukoena, adituen ahozko eta kontraesanezko txostenak, kasua denean azterketa judiziala, eta hitzen, irudien nahiz soinuaren erreproduktzioa. Halaber, behin frogak gauzatuta, haiei buruzko konklusioak formulatuko dira judizioan.

432. artikulua. Alderdiak agertzea eta ez agertzea.

1. Onartutako galdeketa pertsonalki esku hartzeari kalterik egin gabe, prokuradoreak ordezkaturak eta abokatuak lagunduta agertuko dira alderdiak judizioan.

Alderdiak eta haien ordezkari prozesalak bideokonferentziaz edo soinua eta, hala badagokio, irudia erreproduktzeko bitarteko elektronikoak erabiliz agertu beharko dira, auzitegiak ofizioz edo haietako baten eskariz hala erabakitzen duenean, eta 137 bis artikuluan ezarritako betekizunak betetzen direnean.

2. Alderdietatik bat ere judizioan agertzen ez bada, akta egingo da, hori jasoaraziz, eta auzitegiak izapide gehiagorik gabe deklaraturako du auzia epaia emateko prest dagoela. Alderdietakoren bat soilik agertzen bada, judizioa egin egingo da.

433. artikulua. Judizio-ekitaldiaren garapena.

1. Judizioa hasiko da onartutako frogak gauzatuz, 299. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, baina, frogaren bat lortzerakoan edo haren jatorrian oinarritutako eskubideak urratu izana planteatu edo planteatzen bada, arazo horri buruz ebatziko da lehenengo.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Halaber, frogak gauzatu aurretik, aurretiazko entzunaldiaren ostean gertatutako edo ezagututako egitateak alegatu edo alegatzen badira, alderdiei entzungo zaie, eta 286. artikuluan aurreikusitako frogak proposatuko eta onartuko dira.

2. Frogak gauzatuta, alderdiek ahoz formulatuko dituzte egitate eztabaidagarri buruzko konklusioak, eta era antolatu, argi eta laburki zehaztuan azalduko dute, ea, beren ustez, egitate garrantzitsuak onartutzat jo diren edo jo behar diren eta, kasua denean, frogatutzat edo zalantzazkotzat.

Horretarako, egitate horiei buruz gauzatutako froga bakoitzaren laburpen txiki bat egingo dute, kasua denean judizioaren autoetara igorpen xehea eginez. Ulertzen badute egitateren bat ziurtzat hartu behar dela presuntzioaren arabera, hala adieraziko dute, beren irizpidea oinarrituz. Halaber, froga-zamatik ondorioztatzen dena alegatu ahal izango dute dudazkotzat jotzen dituzten egitateei buruz.

Froga emaitzari dagokionez, baita presuntzioei eta froga-kargari buruzko arauen aplikazioari ere, bere uziak aldezteko alegatutako egitateak aipatuz hasiko da alderdi bakoitza, eta aurkako alderdiak alegatutako egitateei buruzkoarekin jarraituko du.

3. Egitate eztabaidagarri buruzko beren konklusioak azalduta, alderdi bakoitzak informatu ahal izango du bere uziaren oinarri diren argudio juridikoez, eta uziok ezin izango dira aldatu une horretan.

4. Auzitegiak irizten badio ez duela behar besteko argitzerik jaso aurreko apartatueta aurreikusitako konklusioak eta txostenak ikusita, alderdiei hitza eman ahal izango die, beharrezkotzat jotzen duen guztietan, adierazten dizkien arazoei buruzko informazioa eman dezaten.

IV. KAPITULUA

Epaiaz

434. artikulua. Epaia.

1. Judizioa amaitu eta hurrengo hogeit hamar egunen barruan emango da epaia.

2. Baldin eta, epaia emateko epearen barruan eta hurrengo artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, azken eginbideak erabakitzen badira, etenda geratuko da hura emateko epea.

3. Epaia emateko epea eten ahal izango da Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. eta 82. artikuluek edo Lehia Defendatzeko Legearen 1. eta 2. artikuluek aplikatzeari buruzko prozeduretan, baldin eta auzitegiak jakiten badu administrazio-espeditante bat dagoela Europako Batzordean, Lehiaren Batzorde Nazionalan edo autonomia-erkidegoetako organo eskudunetan eta beharrezko bada jakitea administrazio-organoren pronuntziamendua. Zioak emanez erabakiko da etendura hori, alderdiei aurretiaz entzun eta gero, eta administrazio-organari jakinaraziko zaio. Azken horrek, halaber, bere ebazpena helarazi beharko dio auzitegiari.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Berraztertze-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da prozesua eteten duen autoaren aurka.

435. artikulua. Azken eginbideak. Bidezkontasuna.

1. Alderdi-eskariz soilik erabaki ahal izango du auzitegiak, auto bidez, azken eginbide gisa, froga-jardunak gauzatzea, erregela hauen arabera:

- 1.1. Ez dira azken eginbide gisa gauzatuko alderdiek garaiz eta forma egokian proposa zitzaketen frogak, barnean hartuta 429. artikulua 1. apartatua aipatutako auzitegi-adierazpenaren ostean proposa zitzaketenak.
- 1.2. Froga proposatu duen alderdiari egotzi ezin zaizkion kausengatik gauzatu ez denean onartutako frogetakoren bat.
- 1.3. Halaber, onartu eta gauzatu egingo dira 286. artikuluan aurreikusitako egitate berriei edo jakin berriei buruzko froga egokiak eta baliagarriak.

2. Salbuespenez, auzitegiak erabaki ahal izango du, ofizioz edo alderdi-eskariz, berriro gauza daitezela egitate garrantzitsuei buruz behar bezala alegatutako frogak, baldin eta aurreko froga-egintzak ez badira bideragarriak izan jadanik desagertu diren eta alderdien borondatearekiko eta arretarekiko independenteak diren inguruabarrengatik, betiere zio oinarritunak badaude uste izateko jardun berriei ahalbidetu egingo dutela egitate horiei buruzko ziurtasuna eskuratzea.

Kasu horretan, eginbideak gauza daitezela erabakitzen den autoan xehatuta adierazi beharko dira inguruabar eta zio horiek.

436. artikulua. Azken eginbideak gauzatzeko epea. Osteko epaia.

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera erabakitzen diren eginbideak mota horretako frogetarako lege honetan ezarritako moduan gauzatuko dira, hogei eguneko epearen barruan eta, beharrezkoa izanez gero, Justizia Administrazioaren letratuak ondore horretarako seinalatuko duen datan. Behin haiek gauzatuta, alderdiek emaitza laburtzen eta baloratzen duten idazkia aurkeztu ahal izango dute, bost egunen barruan.

2. Epaia emateko epea berriro zenbatzen hasiko da igarotzen denean aurreko apartatua aipatu den idazkia aurkezteko alderdiei emandako epea.

III. TITULUA

Hitzezko judizioaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

437. artikulua. Demandaren forma. Akzio-metaketa objektiboa eta subjektiboa.

1. Hitzezko judizioa demanda bidez hasiko da, judizio arruntarenak berarenak diren edukiarekin eta formarekin, eta aplikatzekoa izango da, halaber, alegazioen preklusioaren eta auzibitatearen gaian judizio horretarako xedatutakoa.

2. Aurrekoa gorabehera, abokatuarekin eta prokuradorearekin jarduten ez den hitzezko judizioetan, demanda labur bat formulatu ahal izango du demandatzaileak, zeinean auzi-jartzailearen eta demandatuaren identifikazio-datuak eta -inguruabarrak jasoko diren, bai eta zein egoitzatan zitatu daitezkeen ere, eta argiro eta zehatz-mehatz ezarriko da zer eskatzen den, eskabidearen oinarri diren funtsezko egitateak zehaztuta.

Horretarako, inprimaki normalizatu batzuk bete ahal izango dira, kasuan kasuko organo judizialean edo egoitza judizial elektronikoan haren eskura egongo direnak.

3. Demandan eskatzen bada errentatzaileari zor zaizkion errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatik edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatik hiri-finka utzarazteko, demandatzaileak bertan iragarri ahal izango du bere gain hartzen duela errentariari zor guztia edo haren zati bat eta kostuak barkatzeko konpromisoa, zenbateko zehatza adierazita eta baldintza moduan ezarrita errentatzaileak zehaztutako epean finka borondatez uztea; gutxienez hamabost egunekoa izan beharko du demanda jakinarazten denetik kontatuta. Era berean, demandan eskatu ahal izango da eskatutzat har dadila botatze-betearazpena epaitegiak finkatutako datan eta orduan 549. artikuluan 3. apartatuan zehaztutako ondoreetarako.

3 bis. Demandan eskatzen denean berreskura dadila 250. artikuluan 1. apartatuaren 4.) zenbakiaren bigarren paragrafoan aipatutako etxebizitza baten edo haren zati baten edukitza, orokorki zuzendu ahal izango da demanda haren okupatzaile ezezagunen aurka, hargatik eragotzi gabe jakinarazpena egitea jakinarazpena gauzatzeko unean bertan higiezinan aurkitzen denari. Demandarekin batera, auzi-jartzailearen edukitze-eskubidearen oinarri den titulua aurkeztu beharko da.

4. Hitzezko judizioetan ez da onartuko akzio-metaketa objektiboa, salbuespen hauek izan ezik:

1.) Egitate berberetan oinarritutako akzio-metaketa, betiere, kasu orotan, hitzezko judizioa bidezkoa bada.

2.) Kalte-galerak medeatzeko akzioa metatzea haren prejudiziala den beste akzio bati.

3.) Mugaeguneratutako eta ordaindu gabeko errentak edo antzeko zenbatekoak erreklamatzeko akzio-metaketa, ez ordaintzeagatik edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatik finka utzarazteko judizioak direnean, erreklamatzeko den zenbatekoa kontuan hartu gabe. Halaber, fidatzaile edo abal-emaile solidarioaren aurka egikaritutako akzioak ere metatu ahal izango dira, aldez aurretik ordaintze-errekerimendua egin eta ordaindu ez bada.

4.) Banantze-, dibortzio- edo deuseztasun-prozeduretan eta elizak emandako ebazpenen edo erabakien efikazia zibila lortzea helburu dutenetan, ezkontideetako edozeinek aldi berean egikaritu ahal izango du gauza erkidea zatitzeko akzioa erkidego arrunt indibisoan dituzten ondasunekiko. Zenbait ondasun erkidego arrunt indibisoaren araubidean badago eta ezkontideetako batek eskatzen badu, auzitegiak batera har ditzake aintzat, loteak sortzearen edo adjudikatzearen ondoreetarako.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5. Subjektu batek zenbait subjekturen aurka edo zenbaitek baten aurka dituzten akzioak metatu ahal izango dira, betiere 72. artikuluan eta 73. artikuluen 1. apartatuan ezarritako betekizunak betetzen badira.

438. artikulua. Demandaren onarpena eta erantzuna. Errekonbentzioa.

1. Justizia Administrazioaren letraduak, demanda aztertuta, dekretu bidez onartuko du, edo, 404. artikuluen kasuetan, haren berri emango dio auzitegiari, bidezkoa dena ebatz dezan. Demanda onartuta, demandatuari helaraziko dio, hamar eguneko epean idatziz erantzun diezaion judizio arrunterako xedatutakoarekin bat etorritz. Emandako epean demandatua agertzen ez bada, auzi-ihesean deklaratu da 496. artikuluekin bat etorritz.

Abokaturik eta prokuradorerik gabe jardun daitekeen kasuetan, hala adieraziko da onarpen-dekretuan, eta demandatuari komunikatu zaio dagokion organo judizialean edo egoitza judizial elektronikoa eskura dituela demandari erantzuteko erabil ditzakeen inprimaki normalizatu batzuk.

2. Ezein kasutan ez da errekonbentziorik onartuko legearen arabera gauza epaituaren ondorek gabeko epai bidez amaitu behar duten hitzezko judizioetan.

Gainerako hitzezko judizioetan errekonbentzioa onartuko da, betiere hitzezko judizioaren bidezkoatasunik eza ez badakar eta errekonbentzioaren uzien eta demanda nagusiaren objektu diren artean lotura badago. Errekonbentzioa onartuta, judizio arruntean aurreikusitako arauen bidez eraenduko da, hari erantzuteko epea izan ezik, zeina hamar egunekoa izango den.

3. Demandatuak konpentsa daitekeen kreditu bat jarri ahal izango du aurka demanda-erantzunean, eta 408. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Kreditu horren munta hitzezko judiziorako zehaztutakoa baino handiagoa bada, auzitegiak alegazio hori egin gabekotzat hartuko du ikustaldian, eta hala ohartaraziko dio demandatuari, bere eskubidea balia dezan egokitzen diren auzitegiaren aurrean eta izapideen bitartez.

4. 250. artikuluen 1. apartatuaren 7. zenbakizkoaren kasuetan, demandari erantzuteko epatzean demandatuari ohartaraziko zaio ezen, erantzun ezean, epaia emango dela, inskribatutako eskubidearen eraginkortasunerako auzi-jartzaileak eskatu zituen jardunak erabakitzen dituen.

Halaber, kasua denean, demandatuari ohartaraziko zaio epai bera emango dela, baldin eta erantzuten badu baina kauzioa ematen ez badu, 64. artikuluen 2. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan, auzitegiak, berari entzun ostean eta auzi-jartzaileak eskatutakoaren barruan, zehaztutako muntakoa.

5. Zor diren errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatik higiezina uzteko uzia egikaritzen den demanden kasuan, haiek ordaintzera kondenatzeko uzia metatuta izan ala ez, Justizia Administrazioaren letraduak, onarpenaren ostean eta seinalatuko den ikustaldiaren aurretik, demandatuari errekerimendua egingo dio ezen hamar eguneko epean utz dezan higiezina, ordain diezaion auzi-jartzaileari edo, ezerezean utzi nahi izanez gero, ordain dezan zor duen guztia edo haren esku jar ditzan auzitegian edo notario bidez demandan erreklamaturako zenbatekoak eta utzarazpena ezerezean uzten duen ordainketa horren unean zor dituenak, edo, osterantzean, haren aurrean ager dadin eta laburki alega ditzan, aurkakotza formulatuz,



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

erreklamatutako zenbatekoa osorik zein zati batean zor ez duela uste izateko arrazoiak edo ezerezean uztearen bidez kotasunari buruzko inguruabarrak.

Demandatzaileak bere demandan adierazi badu bere gain hartzen duela 437. artikulua 3. apartatuan aipatutako konpromisoa, agerian jarriko zaio errekerimenduan, eta 21. artikuluko ondoreak dituen amore-emate baten parekoa izango da konpromiso horren onarpena.

Gainera, errekerimenduan, demandatuak aurka eginez gero egin litekeen ikustaldia egiteko eguna eta ordua zehaztuko dira, hartarako zitazio-balioa izanik, bai eta aurka egin ezean botatzea gauzatzeko egun eta ordu zehatzak ere. Era berean, adieraziko da ezen, demandatuak doako laguntza juridikoa eskatu nahi izanez gero, errekerimendua gauzatu eta hurrengo hiru egunen barruan egin beharko duela eta errekerimenduari aurka ez egiteak errentatzailearekin lotzen duen errentamendu-kontratua suntsitzeari adostasuna ematea ekarriko duela.

161. artikuluan aurreikusitako moduan gauzatu da errekerimendua, kontuan hartuta 155. artikulua 3. apartatuko eta 164. artikulua azken paragrafoko aurreikuspenak, eta demandatuari ohartaraziko zaio ezen, aipatutako jardunetatik bat ere egin ezean, berehala botako dela, osteko jakinarazpenaren beharrik gabe; halaber, artikulua honen beraren hurrengo apartatuko gainerako puntuak ere ohartaraziko zaizkio.

Demandatuak ordaintze-errekerimendua betetzen ez badu edo agertzen ez bada aurka egiteko edo amore emateko, Justizia Administrazioaren letratuak dekretua emango du, utzarazpen-judizioa amaitutzat ematen duena, eta finkatutako datan eta orduan gauzatu da botatzea.

Demandatuak errekerimendua betetzen badu higiezin uzteari dagokionez, aurkakotza formulatu gabe edo erreklamatutako zenbatekoa ordaindu gabe, Justizia Administrazioaren letratuak jasota utzi eta dekretua emango du, prozedura amaitutzat ematen duena eta botatze-eginbidea ondorek gabe uzten duena, salbu eta alderdi demandatzaileak hura mantentzea eskatzen badu finkaren egoerari buruzko akta egin dadin, eta alderdi demandatzaileari helaraziko dio, betearazpena abiaraz dadila eska dezan erreklamatutako zenbatekoari dagokionez; horretarako, nahikoa izango da eskaera soilak.

Aurreko bi kasuetan, utzarazpen-judizioa amaitutzat ematen duen dekretuak demandatuari ezarriko dizkio kostuak, eta barnean hartuko ditu demanda aurkeztu ostean eta finkaren edukitza bera entregatu arte sortu eta zor diren errenta guztiak; etorkizuneko errenten likidazioaren oinarri gisa hartuko da demanda aurkeztean erreklamatutako azken hilekoaren zenbatekoa. Demandatuak aurkakotza formulatuz gero, seinalatutako datan egingo da ikustaldia.

6. Utzarazpen kasu guztietan, demandatuari egiten zaion errekerimenduan halaber ohartaraziko zaio ezen, ikustaldian agertu ezean, utzarazpena deklaratu dela, izapide gehiagorik gabe, eta zitatuta geratzen dela ikustaldirako seinalatutako egunaren hurrengo seigarren egunean emango den epaiaren jakinarazpena hartzeko, aurrez aurre edo egoitza elektronikoaren bidez. Era berean, demandatua aurka egindakotzat hartzen den ebazpenean, eguna eta ordu zehatza finkatuko dira, kasua denean, botatzea gauzatzeko, ikustaldirako seinalatutako data baino hogeita hamar egun lehenago gauzatu beharko dena, eta demandatuari ohartaraziko zaio ezen, epaia kondenatzailea bada eta errekurritzen ez bada, finkatutako datan eta orduan gauzatu dela botatzea, gerora beste jakinarazpenik egiteko beharrik gabe.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Utzarazpen-kasu guztietan eta botatzea seinalatzea objektu duten dekretu edo ebazpen judizial guztietan, botatzeko ahalegina lehenago egin izana gorabehera, botatzea egingo den eguna eta ordu zehatza sartu beharko da.

7. 250. artikulua (1. apartatuaren 4.) zenbakiaren bigarren paragrafoan aipatutako etxebizitza baten edukitza berreskuratzeko kasuan, berehala emango da epaia, baldin eta legez aurreikusitako epean alderdi demandatuak edo demandatuek demandari erantzuten ez badiote. Uzia baiesten duen epaiak ahalbidetuko du hura betearaztea, demandatzaileak aldeztu aurretik eskatuta, 548. artikuluan aurreikusitako hogei eguneko epea igarotzeko beharrik gabe.

8. Demandatuak, bere erantzun-idazkian, nahitaez adierazi beharko du bere iritzia ikustaldia egitearen egokitasunari buruz. Demandatzaileak ere adierazi beharko du hari buruzko iritzia, erantzun-idazkia helarazten denetik hiru eguneko epean. Alderdietatik batek ere ez badu eskatu eta auzitegiak hura egiteari bidezko irizten ez badio, izapide gehiagorik gabe emango du epaia.

Kasu orotan, alderdietako batek eskatzea nahikoa izango da Justizia Administrazioaren letraduak hura hurrengo bost egunen barruan egiteko eguna eta ordua seinala ditzan. Nolanahi ere, geroagoko edozein unetan, ikustaldia egin aurretik, alderdietako edozein alden du ahal izango da bere eskaeratik, desadostasunak soil-soilik juridikoa den arazoari edo arazoei eragiten diela uste izateagatik. Kasu horretan, beste alderdiari helaraziko zaio, hiru eguneko eperako, eta, haiek igaro ondoren alegaziorik formulatu ez bada edo aurka egin ez bada, autoak epaia emateko prest geratuko dira auzitegiak hala irizten badio.

438 bis artikulua. Lekuko-prozedura.

1. 250.1.14 artikuluan aipatutako demanden kasuan, hargatik eragotzi gabe 438.1 artikulua lehenengo paragrafoan xedatutakoa, Justizia Administrazioaren letraduak kontu emango dio auzitegiari, demandaren onarpenaren aurretik, uste duenean demanda horrek barnean hartzen dituela beste auzilari batzuek lehenago planteatutako prozeduren objektu diren uziak, ez dela beharrezkoa klausularen gardentasuna kontrolatzea, ezta ere kontratatzailearen adostasunean akatsik dagoen baloratzea, eta zalantzan jarritako kontratazio-baldintza orokorrekin funtsezko berdintasuna dutela.

Alderdi auzi-jartzaileak eta alderdi demandatuak demanda- eta erantzun-idazkian eskatu ahal izango dute prozedura artikulua honetan araututakoaren mende jartzeko, betiere aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badira.

2. Kontu emanda eta auzigaia aztertuta, auzitegiak autoa emango du, eta jardunen aribidea eten dadila erabaki, harik eta lekukotzat identifikatutako prozeduran epai irmoa eman arte, edo, kasua denean, probidentzia emango du, eta prozedura izapidetzen jarraitzea erabaki. Etetea erabakitzeko autoa eman bada, haren jakinarazpenarekin batera igorriko da lekuko-prozeduran jasota dauden jardunen kopia, baldin eta, auzitegiaren iritziz, lehenengo apartatuan ezarritako inguruabarrak aintzat hartzeko aukera ematen badute, eta haien lekukotza gehituko zaio prozedurari. Kopia eta lekukotza Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 236. artikuluan aurreikusitakoarekin bat egingo dira.

Lekuko-prozedura lehentasunez izapidetuko da.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Etetea erabakitzen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, eta lehentasunez eta presaz izapidetuko da.

3. Behin lekuko-prozeduran emandako epaia irmo bihurtuta, auzitegiak probidentzia eman, eta bertan adieraziko du bere ustez bidezkoa den ala ez hasitako eta etendako prozedurak jarrai dezala, bertan planteatutako arazo guztiak lekuko-prozeduraren epaian ebatzi direlako edo ez direlako, erabaki gabekotzat jotzen dituenak zerrendatuko ditu, eta etendako prozeduraren demandatzaileari helaraziko dio, bost eguneko epean eska dezan:

- a. Bere uzietan atzera egitea.
- b. Etendako prozedurak jarrai dezala, bere ustez ebatzi behar diren arrazoiak edo uziak adierazita.
- c. Lekuko-prozeduran emandako epaiaren ondoreak hedatzea.

4. Atzera egiterik bada, Justizia Administrazioaren letraduak hura erabakitzen duen dekretua emango du, kostu-kondenarik gabe.

5. Jarraitzea eskatuz gero, Justizia Administrazioaren letraduak etendura amaitutzat emango du eta prozesuari jarraipena ematea erabakiko du, alderdi demandatzaileak 3.b) apartatuaren arabera mantentzen duenaren arabera. Kasu horietan, auzitegiak 3. apartatuan aipatutako probidentzian adierazi bazuen ez zela beharrezkoa prozedurari jarraipena ematea, eta epaia eman bada, lekuko-prozeduran ebatzi zenarekin funtsean bat datorren demanda-zatia osorik baietsiz, auzitegiak, hori arrazoiak emanda, xedatu ahal izango du alderdi bakoitzak bere kostuak ordaintzea, eta erkideak, erdi bana.

6. Demandatzaileak eskatzen badu lekuko-prozeduraren epaiaren ondoreak hedatzea, 519. artikuluan xedatutakoa beteko da.

439. artikulua. Demanda ez onartzea kasu berezietan.

1. Ez dira onartuko edukitza atxikitzea edo berreskuratzea helburu duten demandak, baldin eta urtebeteko epea igarota jartzen badira, eragozpenaren edo kentzearen egintzatik zenbatzen hasita.

2. 250. artikulua 1. apartatuaren 7.) zenbakiaren kasuetan, demandak ez dira onartuko honako kasu hauetan:

1.) Haietan adierazten ez denean zer neurri jotzen den beharrezkotzat emango den epaiaren efikazia ziurtatzeko.

2.) Demandatzaileak demandan jasoaraziko duen uko-egitea salbuetsirik, han zehazten ez denean demandatuak, agertu eta erantzunez gero, zer kauzio eman behar duen 64. artikulua 2. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik, bidegabeki hartu dituen fruituei, sortu dituen kalte-galerei eta judizioaren kostuei aurre egiteko.

3.) Demandarekin batera aurkeztzen ez denean jabetza-erregistroaren hitzez hitzeko ziurtagiria, berariaz egiaztatzen duena, inolako kontraesanik gabe, demandatzailea legitimatzen duen idazpenaren indarraldia.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Ez dira onartuko hiri-finka utzarazteko demandak, errentariak zor dituen errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatik jarritakoak, baldin eta errentatzaileak ez badu adierazten zein inguruabarrek ahalbidetu dezaketen edo ez, kasua horretan, ezerezean utz dadila utzarazpena.

4. 250. artikulua 1. apartatuaren 10.) eta 11.) zenbakien kasuan, egikaritutako akzioaren oinarria bada ez dela bete ondasun higigarrien epekako salmentaren kontratu bat, demandak ez dira onartuko, baldin eta haiekin batera aurkezten ez badira zordunari egindako ordaintze-errekerimenduaren egiaztagiria, ordaindu ez izana eta ondasuna entregatu ez izana jasotzen dituen eginbidearekin batera, Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko Legearen 16. artikulua 1. apartatua aurreikusitako moduan, eta Ondasun Higigarrien Epekako Salmenta Erregistroan ondasunak inskribatu izanaren ziurtagiria, bertan inskribatzeko moduko ondasunak izanez gero. Egikaritzen diren akzioen oinarria bada ez dela bete finantza-errentamenduko edo ondasun higigarrien errentamenduko kontratu bat, demandak ez dira onartuko, baldin eta haiekin batera aurkezten ez bada zordunari egindako ordaintze-errekerimenduaren egiaztagiria, ordaindu ez izana eta ondasuna entregatu ez izana jasotzen dituen eginbidearekin batera, Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren hirugarren apartatua aurreikusitako moduan.

5. Halaber, ez dira onartuko hitzezko judizioaren demandak, baldin eta kasu berezietarako legeek ezar ditzaketen onargarritasun-betekizunak betetzen ez badira.

6. 250. artikulua 1. apartatuaren 1.), 2.), 4.) eta 7.) zenbakien kasuetan, ez dira onartuko finka baten edukitza berreskuratzeko demandak, bertan zehazten ez bada:

- a. Haien objektu den higiezina okupatzailearen ohiko etxebizitza den.
- b. Alderdi demandatzailea etxebizitza-edukitzaile handia den, 12/2023 Legeak, maiatzaren 24koak, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldekoak, 3.k) artikuluan ezarritakoaren arabera. Edukitzaile handia ez dela adieraziz gero, egoera hori berresteko, demandari erantsi beharko zaio jabetza-erregistroaren ziurtagiri bat, alderdi auzi-jartzailearen izenean dauden jabetzen zerrenda jasotzen duena.
- c. Alderdi demandatzailea edukitzaile handia bada, alderdi demandatua zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dagoen ala ez.

Zaurgarritasun ekonomikoa dagoen ala ez egiaztatzeko, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, indarraldia hiru hilabetetik gorakoa izango ez duena, etxebizitza okupatzen duen pertsonaren alde aurreko baimenarekin emango dutena etxebizitzaren, gizarte-laguntzaren, gizarte-premiako egoeren ebaluazioaren eta informazioaren eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta ematearen gaian eskumena duten autonomia- eta toki-administrazioetako zerbitzuek, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoaren arabera berariaz izendatuek.

c. letra honetan eskatutako baldintza honako hauen bidez ere bete ahal izango da:

1.) Auzi-jartzaileak emandako erantzukizunpeko adierazpena, agertzen duena lehen aipatutako zerbitzuetara jo duela demanda aurkeztu baino bost hilabete lehenago gehienez ere, eta eskaera aurkeztu zuenetik bi hilabeteko epean ez zaiola jaramonik egin edo dagozkion izapideak hasi ez direla, eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiarekin batera.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2.) Zerbitzu eskudunen egiaztagiria, adierazten duena okupatzaileak ez duela berariaz onartzen bere egoera ekonomikoaren azterketa, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoan aurreikusitakoaren arabera. Dokumentu horrek ezin izango du hiru hilabetetik gorako indarraldia izan.

7. 250. artikulua 1. apartatuaren 1.), 2.), 4.) eta 7.) zenbakien kasuetan, auzi-jartzailea edukitzaile handia bada aurreko apartatuan aurreikusitako baldintzetan, demandaren objektu den higiezin okupatzailearen ohiko etxebizitza bada eta okupatzailea zaurgarritasun ekonomikoko egoeran badago aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera, ez dira onartuko demandak, baldin eta ez bada egiaztatzen auzi-jartzailea administrazio publiko eskudunek horretarako ezartzen duten adiskidetze- edo bitartekotza-prozeduraren mende jarri dela, oinarritzat hartuta bi alderdien inguruabarren eta etxebizitzaren arloan egon daitezkeen laguntza eta dirulaguntzen azterketa, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoan xedatutakoaren arabera.

Aurreko baldintza hori modu hauetako batean egiaztatu ahal izango da:

1.) Auzi-jartzaileak emandako erantzukizunpeko adierazpena, agertzen duena lehen aipatutako zerbitzuetara jo duela demanda aurkeztu baino bost hilabete lehenago gehienez ere, eta eskaera aurkeztu zuenetik bi hilabeteko epean ez zaiola jaramonik egin edo dagozkion izapideak hasi ez direla, eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiriarekin batera.

2.) Zerbitzu eskudunen egiaztagiria, adiskidetze- edo bitartekaritza-prozeduraren emaitza adierazten duena, non jasoko baitira alderdien nortasuna, eztabaidaren objektua eta alderdietako batek prozeduran parte hartzeari uko egin dion, hala badagokio. Dokumentu horrek ezin izango du hiru hilabetetik gorako indarraldia izan.

Enpresa errentatzailea etxebizitza-erakunde publikoa bada, aurreko baldintza horren ordez, hala badagokio, erakundearen beraren bitartekaritza-zerbitzu espezifikoen ekintza gauzatu ahal izango da aldez aurretik, eta hori aurreko apartatuan adierazitako moduan egiaztatuko da.

440. artikulua. Ikustaldirako zitazioa.

Demanda eta, kasua denean, errekonbentzioa edo konpentsa daitekeen kreditua erantzunda edo kasuan kasuko epeak igarota, Justizia Administrazioaren letraduak, 438. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik ikustaldia egin behar denean, helburu horretarako zitazioa egingo die alderdiei, hurrengo bost egunen barruan.

Gehienez hilabeteko epean egin beharko da ikustaldia. Zitazioan, ikustaldia egiteko eguna eta ordua finkatuko dira, eta alderdiei ezagutaraziko zaie gatazka konpontzen saiatzeko negoziazio batera jo dezaketela, bitartekaritzara jotzeko aukera barne; kasu horretan, ikustaldian edo ikustaldia baino lehen adieraziko dituzte horren inguruko erabakia eta erabakiaren arrazoiak.

Zitazioan, jasota utziko da ikustaldia ez dela atzeratuko demandatua ez joateagatik, eta auzilariei ohartaraziko zaie ezen, joaten ez badira eta haien galdeketa onartzen bada, galdeketo egitateak onartutzat jo ahal izango direla 304. artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, 442. artikuluan



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

xedatutakoa ohartaraziko zaie alderdi demandatzaileari eta demandatuari, ikustaldian agertzen ez diren kasurako.

Zitazioan, halaber, alderdiei adieraziko zaie zitazioa hartu eta hurrengo bost eguneko epea dutela adierazteko zein diren haiek aurkeztu ezin dituzten pertsonak, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldirako zitatu ditzan, alderdi, lekuko nahiz aditu gisa deklaratu dezaten. Horretarako, zitazioa egiteko beharrezkoak diren datu eta inguruabar guztiak emango dituzte. Bost eguneko epe berean, alderdiek erantzun idatziak eskatu ahal izango dizkiete pertsona juridikoei edo erakunde publikoei, 381. artikuluan ezarritako izapideen bitartez. Baldin eta alderdietako batek iragarri badu aditu-froga bat aurkeztuko dela 337.1 artikuluen arabera, bost eguneko epe hori hasiko da kontatzen aipatutako irizpena aurkeztutzat jotzen denetik edo hura aurkezteko epea igaro denetik.

441. artikulua. Kasu bereziak hitzezko judizioaren hasierako izapideetan.

1. 250. artikuluen 1. apartatuaren 3. zenbakizkoaren kasuan demanda jarrita, Justizia Administrazioaren letraduak demandatzaileak proposatutako lekukoei deituko die, eta, haien deklarazioen arabera, eskatutako edukitza ukatzen edo ematen duen autoa emango du auzitegiak, eskubide hobeari kalterik egin gabe, eta ondore hori lortzeko jardunak gauzatuko ditu. Autoa Ediktu Judizialen Taula Bakarrean argitaratuko da, eta interesdunei eskatuko zaie, demandatzaileak baino eskubide hobea dutela uste badute, agertzeko eta demanda-erantzun bidez erreklamazioa egiteko berrogei eguneko epean.

Inor agertzen ez bada, edukitza konfirmatuko zaio demandatzaileari; baina erreklamazioak aurkeztzen badira, haien idazkiak demandatzaileari helarazi ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldirako zitazioa egingo dio, agertutako guztiekin batera, eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera bideratuko dira jardunak aurrerantzean.

1 bis. Etxebizitza baten edo haren zati baten edukitza berreskuratzeko denean demanda, 250.1.4.) artikuluan aurreikusitakoaren arabera izapidetua, han bizitzen aurkitzen denari egingo zaio jakinarazpena. Etxebizitzaren okupatzaile ezezagunei ere egin ahal izango zaie. Hartzailea eta gainerako okupatzaileak identifikatzearen ondoretarako, agintaritza-agenteei lagunduta joan ahal izango da komunikazio-egintza egiten duena.

Demandatzaileak eskatu badu etxebizitzaren edukitza berehala entregatzeko, demanda izapidetzeko onartzen duen dekretuan errekerimendua egingo zaie okupatzaileei, hura jakinarazi eta bost eguneko epean aurkeztu dezaten beren edukitza-egoera justifikatzen duen titulua.

Behar bezalako justifikaziorik aurkeztzen ez bada, auzitegiak auto bidez aginduko du okupatzaileek etxebizitza utz dezatela eta berehala entrega dakiola etxebizitzaren edukitza demandatzaileari, betiere demandarekin batera aurkeztutako titulua nahikoa bada edukitze-eskubidea egiaztatzeko, eta hargatik eragotzi gabe artikuluko beraren 5., 6. eta 7. zenbakietan ezarritakoa, jakinarazpenaren hartzailea edo etxebizitzaren gainerako okupatzaileak identifikatu ahal izan badira.

Ezin izango da errekurtsorik jarri intzidenteari buruz erabakitzen duen autoaren aurka, eta une horretan etxebizitzan aurkitzen den edozein okupatzailearen aurka gauzatuko da.

1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea



2. Demandarekin lortu nahi bada judizialki ebaztea, izaera sumarioarekin, obra berri baten etendura, auzitegiak, demandari erantzuteko helarazpena egin baino lehenago ere, berehalako etete-agindua zuzenduko dio jabeari edo obraren arduradunari, zeinak kausioa eskaini ahal izango duen hark aurrera jarraitzeko, bai eta jada eraikitakoa mantentzeko ezinbestekoak diren obrak egiteko ere. Ikustaldia baino lehen azterketa judiziala, adituena edo biak baterakoa egin dadila xedatu ahal izango du auzitegiak.

64. artikulua 2. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduan eman ahal izango da kausioa.

3. 250. artikulua 1. apartatuaren 7. zenbakiko kasuetan, demanda onartu bezain laster, eskatutako neurriak hartuko ditu auzitegiak, inguruabarren arabera beharrezkoak badira emango den epaia beteko dela kasu orotan ziurtatzeko.

4. 250. artikulua 1. apartatuaren 10. zenbakiko kasuan, demanda onartuta, auzitegiak ondasunen edukitzearekin aginduko dio haiek erakutsi ditzala, agintaritzaren judizialarekiko desobedientzia erortzeko ohartarazpenarekin, eta, orobat, aginduko du haien prebentziozko enbargoa berehala egin dadila, gordailu bidez ziurtatuko dena, lege honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik. 250. artikulua 1. apartatuaren 11. zenbakian xedatutakoaren babesean akzioak egikaritzen direnean finantza-errentamenduko, ondasun higigarrien errentamenduko edo jabari-erreserbapeko epeko salmentako kontratu baten ez-betetzean oinarrituta, demanda onartu ondoren, entregatzeko erreklamatzeko den ondasuna gordailutu dadila aginduko du auzitegiak. Demandatzaileari ez zaio kausiorik galdutako kautela-neurri horiek hartzeko, eta ez da onartuko demandatuak haiei aurka egiterik. Halaber, ez da onartuko neurriak kausioarekin aldatzeko edo ordeztzeko eskaerarik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaz gain, Justizia Administrazioaren letratuak demandatua epatuko du, bost eguneko epean pertsona dadin jardunetan, prokuradore bidez, demandari erantzutera 444. artikulua 3. apartatua aurreikusitako kausetaren batengatik. Demandatuak epea igarotzen uzten badu demandari erantzunik eman gabe, edo hura oinarritzen badu 444. artikulua 3. apartatuko ez den kausaren batean, auzi-jartzailearen uziak baiesten dituen epaia emango da, izapide gehiagorik gabe.

Demandatuak demandari erantzuten dionean aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Justizia Administrazioaren letratuak ikustaldirako zitatuko ditu alderdiak, eta demandatua bertara joaten ez bada arrazoi zuzenik eman gabe, edota joaten bada baina bere aurkakotzari eutsi gabe edo haren oinarri gisa 444. artikulua 3. apartatuko ez den kausa erabilita, auzi-jartzailearen uziak baiesten dituen epaia emango da, izapide gehiagorik gabe. Kasu horietan, gainera, isun-zehapena ezarriko zaio demandatuari, erreklamazioaren balioaren bostena artekoa, gutxienez ehun eta lau rogei eurokoa.

Ezin izango da errekurtsorik jarri aurreko bi paragrafoetan aipatutako aurkakotza gabeko kasuetan ematen den epaiaren aurka.

5. 250. artikulua 1. apartatuaren 1.), 2.), 4.) eta 7.) zenbakien kasuetan, betiere auziaren objektu den higiezin alderdi demandatuaren ohiko etxebizitza bada, alderdi horri informatuko zaio, demanda izapidetzeko onartzeko dekretuan, aukera dagoela etxebizitzaren, gizarte-laguntzaren, gizarte-premiako egoeren ebaluazioaren eta informazioaren eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta ematearen arloan eskumena duten autonomia- eta tokiko administrazio publikoetara jotzeko. Informazioak administrazio horien identifikazio-datu zehatzak eta haiekin harremanetan jartzeko



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

modua jaso beharko ditu, alderdi demandatuaren zaurgarritasun-egoera egon daitekeen ala ez hauteman dezaten.

Ezertan eragotzi gabe aurreko paragrafoan xedatutakoa, epaitegiak berehala eta ofizioz komunikatuko die prozeduraren existentzia etxebizitzaren, gizarte-laguntzaren, gizarte-premiako egoeren ebaluazioaren eta informazioaren eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta ematearen arloan eskumena duten autonomia- eta toki-administrazioei, zaurgarritasun-egoera egiaztatu ahal izan dezaten, eta, egoera hori egonez gero, epaitegiari aurkez diezaizoten horretarako administrazio eskudunak eman beharreko alokairu sozialeko etxebizitza duinaren ordezkoko proposamena eta administrazio eskudunak era berean hartu beharreko berehalako arretarako neurrien proposamena, bai eta alderdi demandatuak jaso ditzakeen laguntza ekonomikoen eta dirulaguntzen gainekoa ere.

Administrazio publiko horiek baieztatzen badute eragindako familia zaurgarritasun ekonomiko eta, hala badagokio, sozialeko egoeran dagoela, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio organo judizialari, gehienez ere hamar eguneko epean.

439. artikulua 6. eta 7. apartatuetan aurreikusitako kasuetan, auzi-jartzailea etxebizitza-edukitzaile handia bada eta demandarekin batera alderdi demandatuaren zaurgarritasunaren egiaztagiria aurkeztu badu, inguruabar hori jasoko da administrazio publiko eskudunei egindako ofizioan, epe berean zuzenean egin dezaten berehalako arretarako neurrien proposamena, bai eta alderdi demandatuak jaso ditzakeen laguntza ekonomiko eta dirulaguntzen proposamena eta, hala badagokio, haiek aurretik aplikatzea eragotzi duten arrazoiak ere.

Komunikazio hori jasota edo epea igarota, Justizia Administrazioaren letratuak alderdiei helaraziko die, bost eguneko epean beren eskubideari komeni zaiona eska dezaten, eta ikustaldia egiteko edo botatzerako aurreikusitako data etengo da, baldin eta etete hori beharrezkoa bada, datak hurbil daudelako.

6. Alderdien idazkiak aurkeztuta edo horretarako emandako epea igarota, auzitegiak auto bidez ebartziko du, administrazio publiko eskudunetatik jasotako informazioa eta alderdien alegazioak kontuan hartuta, ea prozesua eteten duen administrazio publikoek proposatutako neurriak har daitezen, gehienez ere bi hilabeteko etendura-epean demandatzailea pertsona fisikoa bada, edo lau hilabetekoan, pertsona juridikoa bada.

Administrazio publiko eskudunek neurriak hartu ondoren edo aurreko paragrafoan aurreikusitako gehieneko etendura-epea igaro ondoren, automatikoki kenduko da eta prozedurak aurrera jarraituko du bere izapide guztien bidetik.

7. Auzitegiak kasu zehatzaren balorazio haztatua eta proportzionala egin ondoren hartuko du erabakia, alderdi auzi-jartzaileak ere izan ditzakeen zaurgarritasun-egoerak eta autoetan egiaztatutako beste edozein inguruabar aintzat hartuta.

Ondore horietarako, bereziki, auzitegiak, zaurgarritasun ekonomikoko egoera egon daitekeen ala ez hautemateko, aintzat hartu ahal izango du errentaren zenbatekoa, baldin eta ordaindu ez izanagatikotik utzarazpen-judizioa bada, gehi elektrizitate-, gas-, ur- eta telekomunikazio-hornidurena, familia-unitatearen diru-sarreraren ehuneko 30 baino gehiago izatea, eta diru-sarrera horiek, guztira, ez heltzea kopuru honetara:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

- a. Oro har, hileko ondorio askotarako errenta adierazle publikoa (aurrerantzean, IPREM) halako 3 bider gehiago.
- b. Muga hori IPREM halako 0,3 handituko da, familia-unitatearen kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko. Ardurapeko seme edo alabarengatik gehikuntza aplikagarria IPREM halako 0,35 izango da seme edo alaba bakoitzeko, familia-unitatea guraso bakarrekoa bada edo semeak edo alabak ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa badu.
- c. Muga hori IPREM halako 0,2 handituko da, familia-unitatean dagoen 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko edo ardurapeko mendekotasun-egoeran dauden pertsonengatik.
- d. Familia-unitateko kideren batek gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna onartuta badauka edo mendekotasun-egoeran edo gaixo badago, eta horren ondorioz lan egiteko ezintasun iraunkorra egiaztatuta badauka, a. letran jasotako muga IPREM halako 5 izango da, hargatik eragotzi gabe seme edo alaba bakoitzarengatik pilatutako gehikuntzak.

Ondore horietarako, auzitegiak, gizarte-zaugarritasuna balioesteko, kontuan hartu ahal izango du etxebizitza okupatzen dutenen artean egotea mendekotasuna duten pertsonak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 2. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren arabera, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak edo adingabeak.

442. artikulua. Alderdiak ikustaldira ez joatea.

1. Demandatzailea ikustaldira joan ez bada eta demandatuak interes legitimorik alegatzen ez badu prozesuak aurrera jarrai dezan funtsari buruzko epaia eman dadin, demandan atzera egindakotzat hartuko da hura unean bertan, sortutako kostuak ezarriko zaizkio, eta agertutako demandatuari kalte-ordaina ematera kondenatuko da, hark eskatuz gero eta jasandako kalte-galerak egiaztatuz gero.

2. Demandatua agertzen ez bada ere, judizioa egin egingo da.

443. artikulua. Ikustaldiaren garapena.

1. Alderdiak agertuta, auzitegiak irekitzat deklaratu du ekitaldia, eta egiaztatuko du haien arteko auziak badira.

Akordio bat lortu dutela edo berehala lortzeko prest daudela adierazten badute, aukera izango dute prozesuan atzera egiteko edo lortutako akordioa homologa dezala auzitegiari eskatzeko. Judizialki homologatutako akordioak legeak transakzio judizialari esleitutako ondoreak sortuko ditu, eta epaiak eta judizialki onetsitako hitzarmenak betearazteko aurreikusitako izapideen bitartez gauzatu ahal izango da. Transakzio judizialerako aurreikusitako kausengatik eta moduan aurkaratu ahal izango da akordio hori.

Alderdiek, elkarrekin adostuta, prozesua etetea ere eskatu ahal izango dute, 19. artikulua 4. apartatua aurreikusitakoarekin bat etorritik, bitartekaritzapean jartzeko. Kasu horretan, auzitegiak aurretiaz aztertuko du ea ekitaldira bertaratuak alderdiek edo haien ordezkari behar bezala egiaztatuek gaitasun juridikoaren eta xedatze-ahaltenaren betekizunak betetzen dituzten.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Prozesua eten denean bitartekaritzara jotzeko, hura akordiorik gabe amaituz gero, alderdietatik edozeinek eskatu ahal izango du etendura amaitutzat jo dadila eta ikustaldiarekin jarraitzeko data seinala dadila. Bitartekaritzan alderdien arteko akordioa lortuz gero, auzitegiari komunikatu beharko diote haiek, prozeduraren artxiboa dekreta dezan, hargatik eragotzi gabe alde zurretik eskatzea haren homologazio judiziala.

2. Alderdiek akordio bat lortu ez badute edo berehala lortzeko prest ez badaude, auzitegiak ebatzi egingo du prozesuak modu egokian aurrera egitea eta funtsari buruzko epai bidez amaitzea oztopa dezaketen inguruabarrei buruz, 416. artikuluekin eta hurrengoekin bat etorritik.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako arazo prozesalak planteatu ez badira edo, formulatuz gero, ekitaldiak jarrai dezala ebatzi badu auzitegiak, hitza emango zaie alderdiei, argibideak eman ditzaten eta kontraesanak dituzten egitateak finka daitezten. Haiei guztiei buruz adostasunik ez badago, frogak proposatuko dira, eta onartutakoak gauzatuko dira jarraian.

Alderdien froga-proposamena 429. artikuluen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera osatu ahal izango da.

444. artikulua. Aurka egiteko kausa tasatuak.

1. Hitezeko judizioan, errentan emandako landa- edo hiri-finka berreskuratu nahi denean errenta edo pareko zenbatekoa ez ordaintzeagatik, ordainketa edo ezerezean uztearen bidez kotasunari buruzko inguruabarrak baino ez zaizkio utziko alegatzen eta frogatzen demanduari.

1. bis. 250. artikuluen 1. apartatuaren 4. zenbakizkoaren bigarren paragrafoan aipatutako etxebizitza baten edukitza berreskuratzeko kasuan, berehala emango da epaia, baldin eta lege zuzeneko epean demandatuak edo demandatuek demandari erantzuten ez badiote. Demandatuaren aurkakotza eskusiboki oinarritu ahal izango da, edo auzi-jartzailearen aurka titulu nahikoa izatean etxebizitza edukitzeko, edo auzi-jartzaileak titulurik ez izatean. Uzia baiesten duen epaiak ahalbideatuko du hura betearaztea, demandatzaileak alde zurretik eskatuta, 548. artikuluan aurreikusitako hogeitaz eguneko epea igarotzeko beharrik gabe.

2. 250. artikuluen 7. zenbakiaren edo 1. apartatuaren kasuetan, honako kausa hauetakoren batean baino ezin izango da oinarritu demandatuaren aurkakotza:

1.) Erregistroko ziurtagiria faltsua izatea edo ziurtagirian omititzea eskubide edo baldintza inskribatuak, baldin eta kausa horiek akzio egikarituak funsgabetzen badute.

2.) Demandatuak finka edukitzea edo eskubide eztabaidatuaz gozatzea, kontratu bidez edo azken titularrarekin edo aurreko titularrarekin izandako zuzeneko beste edozein harreman juridikoren bidez edo preskripzio bidez, betiere inskribatutako titularrari kalte egin behar badiu preskripzio horrek.

3.) Demandatuaren alde inskribatuta egotea finka edo eskubidea, eta hark hala justifikatzea, jabetza-erregistroko inskripzioa indarrean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztuz.

4.) Inskribatutako finka ez izatea demandatuak benetan edukitzan duena.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. 250. artikulua 1. apartatuaren 10.) eta 11.) zenbakietako kasuetan, honako kausa hauetakoren batean baino ezin izango da oinarritu demandatuaren aurkakotza:

- 1.) Auzitegiaren jurisdikziorik edo eskumenik eza.
- 2.) Dokumentu bidez egiaztatutako ordainketa.
- 3.) Haren adostasunik eza edo adostasun horren baliozkotasunik eza, sinaduraren faltsutzea barne.
- 4.) Kontratua formalizatuta dagoen dokumentuaren faltsutasuna.

445. artikulua. Froga, azken eginbideak eta presuntzioak hitzezko judizioetan.

Froga- eta presuntzio-gaian, liburu honen I. tituluaren V. eta VI. kapituluetan ezarritakoa aplikatuko zaie hitzezko judizioei, bai eta lege-testu honen 435. eta 436. artikuluetan ezarritakoa ere.

446. artikulua. Frogari buruzko ebazpenak, eta errekursoak.

Berraztertze-errekurtoa soilik jarri ahal izango da ikustaldiaren ekitaldian frogak onartzeari edo ez onartzeari buruz auzitegiak emandako ebazpenen aurka; unean bertan bideratuko eta ebatziko da, eta, ezesten bada, alderdiak protesta formulatu ahal izango du bere eskubideak baliatu ahal izateko, kasua denean, bigarren auzialdian.

447. artikulua. Epaia. Gauza epaiturik eza kasu berezietan.

1. Frogak gauzatuta, hitz-txanda bat eman ahal izango die auzitegiak alderdiei, konklusioak ahoz formula ditzaten. Jarraian, amaitutzat emango da ikustaldia, eta auzitegiak epaia emango du, hurrengo hamar egunen barruan. Salbuetsi egiten dira hiri-finkaren utzarazpena eskatzen den hitzezko judizioak; haietan, hurrengo bost eguneko epean emango da epaia, eta, prokuradorearen ordezkartzarik ez badute edo jakinarazpena bitarteko telematikoz egin behar ez bada, ikustaldi-ekitaldian dei egingo zaie alderdiei, auzitegiaren egoitzara ager daitezen epaia eman osteko hurrengo bost egunetatik posible den hurbilenean egin behar zaien jakinarazpena jasotzera.

Aurrekoari kalterik egin gabe, 437. eta 440. artikuluen 3. apartatuetan aipatzen diren amore-erateagatiko kondena-epaietan, aurreikusita seinalatutako epean errentariak higiezin borondatez utziko ez duela, kasua denean, demandatua zuzenean botatzeko eguna eta ordua finkatuko dira, izaera subsidiarioarekin; borondatezko epe horren amaieratik gehienez ere 15 eguneko epean gauzatuko da botatzea, osteko izapiderik egin beharrik gabe. Era berean, demandatua ez agertzeagatiko kondena-epaietan, finkatutako datan gauzatuko da botatzea, izapide gehiagorik gabe.

2. Epaiek ez dute gauza epaituaren ondorerik sortuko, baldin eta edukitzaren babes sumarioari buruzko hitzezko judizioei amaiera ematen badiete, edota errentan emandako landa- edo hiri-finka utzarazteko edo



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

berreskuratzeko uziari buruz erabakitzen badute errenta edo alokairua ez ordaintzeagatik edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatik, edota lege honek sumario gisa kalifikatzen dituen beste babes-uziei buruzkoak badira.

3. Hitzeko judizioetan emandako epaiek ere ez dute gauza epaituaren ondorerik izango, baldin eta eskubide erreal inskribatuen eraginkortasuna eskatzen bada titulu inskribaturik izan gabe haiei aurka egiten dietenen edo haiek egikaritzea eragozten dutenen aurka.

4. Ebazpen judizialek ere ez dute gauza epaituaren ondorerik izango, baldin eta, kasu zehatzetan, legeek ondore horiek ukatzen badizkiete.

447 bis artikulua. Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak jabetza industrialaren arloan eman dituen eta administrazio-bidea agortzen duten ebazpenen aurkako errekurtsioak izapidetzeko berezitasunak.

Patente eta Marken Espainiako Bulegoak jabetza industrialaren arloan eman dituen eta administrazio-bidea agortzen duten ebazpenak aurkaratzea hitzeko judizioaren izapideen bitartez bideratuko da, berezitasun hauekin:

1. Errekurtsioa jartzeko legitimazioa dute ebazpena errekurritzen zaion aurreko administrazio-prozeduran parte hartu duten alderdiek.

2. Errekurtsioa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, berariazko ebazpena jakinarazi edo Jabetza Industrialaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Berariazkoa ez bada, epea sei hilabetekoa izango da, eta araudi espezifikoaren arabera presuntziozko egintza gertatu den egunaren biharamunetik hasita kontatuko da.

3. Errekurtsioa onartuta, Justizia Administrazioaren letraduak errekerimendua egingo dio Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoari, administrazio-espedientea igor dezan.

4. Espedientea bidaltzeko epea, luzaezina, hogeit egun izango da, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoaren erregistro orokorrean komunikazio judizialari sarrera ematen zaionetik hasita.

5. Bidaltzeko epea igarotakoan espedientea osorik jaso ez bada, berriz egingo da erreklamazioa.

6. Espedientea jasotakoan, Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du interesdunak epatzea, bederatzi eguneko epean demandatu gisa pertsonatu ahal izan daitezen.

7. Espedientea erreklamatzearekin emango da epatutzat Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa. Espedientea igortzearekin emango da pertsonatutzat Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa.

8. Emandako epearen barruan pertsonatu ahal izango dira autoetan legez epaturiko interesdunak. Geroago pertsonatuz gero, alderditzat edukiko dira prekluitu gabeko izapideetarako. Dagokienean pertsonatzen ez badira, bere bidetik jarraituko du prozedurak, eta ez zaie inolako jakinarazpenik egingo, ez auzi-gelan, ez bestela.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

9. Justizia Administrazioaren letraduak espedientea errekurtsogileari entregatzea erabakiko du, demanda hogeiei eguneko epean aurkez dadin.

10. Errekurritutako ebazpena Zuzenbidearen kontrako deklaratu dadila eta hala badagokio deuseztatu dadila eskatu ahal izango du demandatzaileak.

Orobat eskatu ahal izango du egoera juridiko indibidualizatu bat aitortu eta leheneratu dadila eta hura guztiz leheneratzeko neurriak har daitezela.

11. Demanda epearen barruan aurkezten ez bada, auzitegiak, ofizioz, jarduketak artxiba daitezela deklaratu du auto bidez.

12. Administrazio-espedientea igortzeko epemuga igaro eta artean espedientea igorri ez bada, demanda jartzeko epea eman dakiola eska dezake alderdi errekurritzaileak, bere kabuz edo Justizia Administrazioaren letraduaren ekimenez.

Alderdi demandatzaileak aurreko paragrafoan ezarri den eskubidea baliatutakoan espedientea jasotzen bada, Justizia Administrazioaren letraduak ikusgai jarriko die alderdiei, hamar eguneko epe erkidean, egoki deritzen alegazio osagarriak egin ditzaten.

13. Demanda aurkeztutakoan, Justizia Administrazioaren letraduak helaraziko die, administrazio-espedientea edo kopia emanez, agertu diren interesdunei, hogeiei eguneko epean erantzun diezaioten. Administrazio-espedientea jaso gabe formalizatu bada demanda, Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa epatuko da, erantzun dezan, eta ohartaraziko zaio erantzuna ez dela onartuko espedientearekin batera ez badator.

IV. TITULUA

Errekurtsoez

I. KAPITULUA

Errekurtsoez: xedapen orokorrak

448. artikulua. Errekurtsoa jartzeko eskubideaz.

1. Modu kaltegarrian eragiten dieten auzitegien eta Justizia Administrazioaren letraduen ebazpenen aurka, alderdiek legean aurreikusten diren errekurtsok jarri ahal izango dituzte.

2. Errekurritzen den ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuko dira errekurtsok jartzeko epeak, edo, kasua denean, haren argitzea edo argitze horren ukapena jakinarazi eta hurrengo egunetik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

449. artikulua. Errekurritzeko eskubidea kasu berezietan.

1. Botatzea dakarten prozesuetan, demanduari ez zaio onartuko apelazio-errekurtsioa edo kasaziokoa, baldin eta errekurtsioa jartzerakoan adierazten ez badu, idatziz egiaztatuta, ordainduta dituela mugaeguneratutako errentak eta kontratuaren arabera aurretik ordaindu behar dituenak.

2. Dagoen egoeran dagoela ere, huts deklaratu da aurreko apartatuan aipatutako apelazioko errekurtsioa edo kasaziokoa, baldin eta bideratzen den bitartean demandatu errekurtsogileak ez baditu ordaintzen mugaeguneratzen diren epeak edo aurretik ordaindu beharrekoak. Errentariak aurreratu edo kontsignatu ahal izango du mugaeguneratu gabeko zenbait eperen ordainketa; likidazioaren menpe jarriko dira epe horiek epaia irmoa denean. Kasu orotan, zenbateko horien ordainketa ez da kontratuaren berrizetzat hartuko.

3. Ibilgailu motordunen zirkulaziotik eratorritako kalte-galerak ordaintzeko kondena eskatzen den prozesuetan, kalte-ordaina ordaintzera kondenatua izan denari ez zaio onartuko apelazio-errekurtsioa edo kasaziokoa, baldin eta errekurtsioa jartzerakoan ez badu egiaztatzen eratu duela gordailua, kondenaren gehi korrituen eta galdagarriak diren errekarguen zenbatekoarena, horretarako zehaztutako establezimenduan. Gordailu horrek ez du eragotziko, kasua denean, emandako ebazpena behin-behinean betearaztea.

4. Auzotarren erkidegoari jabe batek zor dizkion zenbatekoak ordaintzeko kondena eskatzen den prozesuetan, kondenatuari ez zaio onartuko apelazio-errekurtsioa edo kasaziokoa, baldin eta errekurtsioa jartzerakoan ez badu egiaztatzen ordainduta edo kontsignatuta duela kondena-epaian ezarritako zenbateko likidoa. Zenbatekoa kontsignatzeak ez du eragotziko, kasua denean, emandako ebazpena behin-behinean betearaztea.

5. Aurreko apartatueta galdatutako gordailua edo kontsignazioa egin ahal izango da, halaber, kreditu-erakundeak edo elkarren bermerako sozietateak emandako iraupen zehaztugabeko eta lehenengo errekerimenduan ordaindu beharreko abal solidario bidez, edota auzitegiaren iritziz zenbateko kontsignatuaren edo gordailutuaren berehalako erabilgarritasuna, kasua denean, bermatzen duen beste edozein bitartekoz.

6. Aurreko apartatueta kasuetan, errekurtsioak errefusatu edo huts deklaratu baino lehen, lege honen 231. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio galdatutako betekizunak betetzen direla dokumentu bidez egiaztatzeari dagokionez, alderdien egintza prozesalean egindako akatsak zuzendu ahal izateko.

450. artikulua. Errekurtsioetan atzera egiteaz.

1. Errekurtsogile orok atzera egin ahal izango du errekurtsioan, hari buruzko ebazpena eman baino lehen, salbu eta kasazio-errekurtsioan, behin seinalatuta haren deliberamendu, bozketa eta epaitzarako eguna.

2. Baldin eta, zenbait errekurtsogile izanda haietako batek edo batzuek soilik egiten badute atzera, errekurritutako ebazpena ez da irmoa izango atzera egitea dela-eta, baina bertan behera utzitakotzat hartuko dira atzera egin dutenenak baino ez diren aurkaratze-uziak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

II. KAPITULUA

Berraztertze- eta berrikuspen-errekurtsoez

451. artikulua. Berraztertzean errekurragarriak diren ebazpenak. Etete-ondorerik eza.

1. Antolaketa-egintzen eta behin betikoak ez diren dekretuen aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, errekurritutako ebazpena eman zuen Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean, salbu eta legeak zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa aurreikusten duen kasuetan.

2. Probidentzia eta behin betikoa ez den auto ororen aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, errekurritutako ebazpena eman zuen auzitegi beraren aurrean.

3. Berraztertze-errekurtsoa jartzeak ez du etete-ondorerik izango errekurritutako ebazpenari dagokionez.

452. artikulua. Berraztertze-errekurtsoaren epea, forma eta ez-onartzea.

1. Berraztertze-errekurtsoa bost eguneko epean jarri behar da, errekurtsogilearen ustez ebazpenean zein arau-hauste gauzatu den adierazita.

2. Aurreko apartatuan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, ez da onartuko, errekurritzeko modukoa ez den probidentzia bidez, probidentzien eta behin betikoak ez diren autoen aurka jarritako berraztertzea, eta, berrikuspenean zuzenean errekurragarria den dekretu bidez, antolaketa-egintzen eta behin betikoak ez diren dekretuen aurka formulatutakoa.

453. artikulua. Alderdi errekurrituen entzunaldiaz eta ebazpenaz.

1. Justizia Administrazioaren letraduak berraztertze-errekurtsoa izapidetzeko onartuta, bost eguneko epe komuna emango zaie pertsonatutako gainerako alderdiei, aurkara dezaten, komenigarria dela uste badute.

2. Aurkaratze-epea igarota, idazkiak aurkeztu ala ez, bost eguneko epean ebatziko du auzitegiak izapide gehiagorik gabe, baldin eta berraztertzea probidentzien edo autoen aurka jarri bada, edo Justizia Administrazioaren letraduak, baldin eta antolaketa-egintzen edo dekretuen aurka formulatu bada, autoa edo dekretua emanez, hurrenez hurren.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

454. artikulua. Ebazpen judizialen aurkako berraztertze-errekurtsoa ebazten duen autoaren errekurriezintasuna.

Kexa-errekurtsoa bidezkoa den kasuetan izan ezik, ezin izango da errekurtsorik jarri berraztertze-errekurtsoa ebazten duen autoaren aurka, hargatik eragotzi gabe berriro planteatzea berraztertzearen objektu den arazoa, bidezkoa izanez gero, behin betiko ebazpena errekurritzean.

454 bis artikulua. Berrikuspen-errekurtsoa.

1. Berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da auzitegiaren aurrean berraztertzea ebazten duen dekretuaren aurka eta zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa prozedura amaitzen duten edo hark aurrera jarraitzea eragozten duten dekretuen aurka. Errekurtso horiek ez dute etete-ondorerik izango, eta inoiz ere ezin izango da jardun ebatzitakoaren aurka.

Era berean, dekretuen aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da berariaz aurreikusten den kasuetan.

2. Berrikuspen-errekurtsoa bost eguneko epean jarri beharko da, idazki baten bidez, bertan aipatuz zein arau-hauste egin den ebazpenean. Aurreko betekizunak beteta, Justizia Administrazioaren letraduak antolaketa-eginbide bitartez onartuko du errekurtsoa, eta bost eguneko epe komuna emango die pertsonatutako gainerako alderdiei aurkara dezaten, komenigarria dela uste badute.

Errekurtsoa onartzeko betekizunak bete ezean, auzitegiak ez du onartuko, probidentzia bidez.

Aurkaratze-epea igarota, idazkiak aurkeztu ala ez, bost eguneko epean ebatziko du auzitegiak izapide gehiagorik gabe, autoa emanez.

Ezin izango da errekurtsorik jarri onartzeari edo ez onartzeari buruzko ebazpenen aurka.

3. Berrikuspen-errekurtsoa ebazten duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, soilik, prozedura amaitzen duenean edo hura jarraitzea eragozten duenean.

III. KAPITULUA

Apelazio-errekurtsoaz eta bigarren auzialdiaz

1. atala. Apelazio-errekurtsoaz eta bigarren auzialdiaz: xedapen orokorrak



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

455. artikulua. Apelazioan errekurragarriak diren ebazpenak. Eskumena eta lehentasunezko izapidetzea.

1. Apelagarriak izango dira mota orotako judizioetan emandako epaiak, behin betiko autoak eta legeak berariaz zehaztutako gainerakoak, salbuetsirik 3.000 euroko munta gainditzen ez duten muntagatiko hitzezko judizioetan emandako epaiak.

2. Apelazio-errekurtsoez arduratuko dira:

1.) Lehen auzialdiko epaitegiak, haien barrutiko bake-epaitegiek eman dituztenean ebazpen apelagarriak.

2.) Probintzia-auzitegiak, haien muga-barruko lehen auzialdiko epaitegiek eman dituztenean ebazpen apelagarriak.

3. Lehentasunez izapidetuko dira legez aurreikusitako apelazio-errekurtsoak, legeak kasu berezietarako galdatzen dituen betekizunak ez izateagatik demandak onartzen ez dituzten autoen aurkakoak.

4. Halaber, lehentasunez izapidetuko dira legez aurreikusitako apelazio-errekurtsoak, lekuko-prozedurak izapidetzean emandako behin betiko ebazpenen aurkakoak, bai eta jardunen aribidea etetea erabakitzen duten autoen aurkakoak ere, harik eta lekukotzat identifikatutako prozeduran epai irmoa eman arte.

456. artikulua. Apelazio-errekurtsoaren eremua eta ondoreak.

1. Lehen auzialdiko auzitegiaren aurrean formulatutako uzien egitezko edo zuzenbidezko oinarriekin bat etorritz, apelazio-errekurtsoaren bidez eskatu ahal izango da erreboka dadila auto edo epai bat eta eman dadila haren ordeztu beste bat errekurtsogilearen alde, auzitegi haren aurrean egindako jardunak berriro aztertuz eta, lege honetan aurreikusitako kasuetan, apelazio-auzitegiaren aurrean gauzatuko den frogarekin bat etorritz.

2. Demanda ezesten duten epaien aurkako eta prozesua amaitzen duten autoen aurkako apelazioak ez du etete-ondorerik izango, eta inoiz ere ezin izango da jardun ebatzitakoaren aurka.

3. Apelazio-errekurtsoa jarri zaien epai demanda-baiesleek, beren pronuntziamenduen izaeraren eta edukiaren arabera, lege honen III. liburuaren II. tituluan ezarritako efikazia izango dute.

2. atala. Apelazioa bideratzeaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

457. artikulua. Apelazioa prestatzea.

(Edukirik gabe)

458. artikulua. Errekurtsoa jartzea.

1. Apelazio-errekurtsoa jarriko da, 276. artikuluan xedatutakoa betez, hala badagokio, hartaz arduratzeko eskumena duen auzitegiaren aurrean, aurkaratutako ebazpena jakinarazi eta hogeit eguneko epean, eta ebazpen horren kopia aurkeztu beharko da.

2. Errekurtsoa jartzean, aurkaratzearen oinarri diren alegazioak azaldu beharko ditu apelatzaileak, apelatutako ebazpena eta aurkaratzen dituen pronuntziamentuak aipatzeaz gain.

3. Behin errekurtsoa jarrita, eta hura izapidetzeko onartzea edo ez onartzea erabaki aurretik, Justizia Administrazioaren letraduak antolaketa-eginbidea emango du hiru eguneko epean, eta errekurtsoaren objektu den ebazpena eman duen organoari eskatuko dio jardunak helarazteko, eta alderdi apelatzailea edo apelatzaileak adieraziko dizkio. Aurrekoa gorabehera, apelazio-errekurtsoa jartzeko idazkia jasotzen den egunean bertan, horren berri emango zaio errekurtsoaren objektu den ebazpena eman duen organoari.

Aurreko errekerimendua jasota, errekurtsoaren objektu den ebazpena eman duen organoaren Justizia Administrazioaren letraduak autoak igortzea erabakiko du, eta errekurtso-jartzaile ez diren alderdiak epatuko ditu, errekurtsoaz arduratzeko eskumena duen auzitegiaren aurrean ager daitezen hamar eguneko epean.

4. Autoak jasota, aurkaratutako ebazpena apelagarria bada eta errekurtsoa epearen barruan formulatu bada, Justizia Administrazioaren letraduak errekurtsoa jarritzat joko du hiru eguneko epean. Kontrako kasuan, auzitegiari ezagutaraziko dio, errekurtsoa onartzeari buruz pronuntzia dadin.

Auzitegiak irizten badio betetzen direla onartze-betekizunak, probidentzia emango du, errekurtsoa jarritzat hartzen duena; kontrako kasuan, autoa emango du, ez-onartzea erabakitzen duena, bai eta jardunak errekurtsoaren objektu den ebazpena eman zuen organoari igortzea ere.

Ezin izango da errekurtsoari jarri apelazio-errekurtsoa jarritzat jotzen duen ebazpenaren aurka, baina alderdi errekurrituak apelazioaren onargarritasunik eza alegatu ahal izango du errekurtsoari aurka egiteko izapidean, zeina lege honen 461. artikuluan aipatzen den.

459. artikulua. Apelazioa, arau edo berme prozesalak hausteagatik.

Apelazio-errekurtsoan, alegatu ahal izango da lehen auzialdian arau edo berme prozesalak hautsi izana. Hala denean, errekurtsoa jartzeko idazkiak aipatu egin beharko ditu ustez hautsi diren arauak, eta, kasua denean, jasandako defentsa-gabezia alegatu. Halaber, apelatzaileak egiaztatu beharko du behar bezala salatu zuela haustura, baldin eta horretarako aukera prozesala izan badu.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

460. artikulua. Errekurtsoa jartzeko idazkiarekin batera aurkez daitezkeen dokumentuak. Frogak eskatzea.

1. Errekurtsoa jartzeko idazkiarekin batera aurkeztu ahal izango dira, soilik, 270. artikuluan aurreikusitako kasuetakoren batean dauden dokumentuak, baldin eta lehen auzialdian aurkeztu ezin izan badira.

2. Errekurtsoa jartzeko idazkian, eskatu ahal izango da, gainera, bigarren auzialdian honako frogak hauek gauza daitezela:

1.) Lehen auzialdian bidegabeki ukatu zirenak, betiere ebazpen ukatzailea berraztertzeko ahalegina egin bada edo ikustaldian protesta egokia formulatu bada.

2) Lehen auzialdian proposatutakoak eta onartutakoak, baldin eta eskatzaileari egotzi ezin zaion edozein kausarengatik gauzatu ezin izan badira, ezta azken eginbide gisa ere.

3.) Auzia erabakitzeko garrantzitsuak diren egitatei buruzkoak, baldin eta haiek gertatu badira lehen auzialdian epaia emateko epea hasi ondoren edo epemuga horren aurretik, betiere, azken kasu horretan, alderdiak justifikatzen duenean haien berri geroago izan duela.

3. Auzi-ihesean deklaraturako demandatuak, berari egotzi ezin zaion edozein kausarengatik lehen auzialdian frogak proposatzeko ezarritako unearen ondoren pertsonatzen bada autoetan, bigarreanean eskatu ahal izango du bere eskubideari komeni zaion frogak oro gauza dadila.

461. artikulua. Errekurtsoa jartzeko idazkia alderdi apelatuari helaraztea. Errekurtsoari aurka egitea eta epaia aurkaratzea.

1. Justizia Administrazioaren letraduak gainerako alderdiei helaraziko die apelazio-errekurtsoa jartzeko idazkia, eta epatu egingo ditu, hamar egunean aurkez dezaten errekurtsoari aurka egiteko idazkia edo, kasua denean, apelaturako ebazpena mesedegarri ez zaien zatian aurkaratzekoa.

2. Errekurtsoa jartzeko idazkiarentzat ezarritakoarekin bat etorritik formulaturako dira errekurtsoari aurka egiteko idazkiak eta, kasua denean, hasieran errekurtsoa aurkeztu ez duenak epaia aurkaratzekoak.

3. Apelatutako alderdiak edo alderdiek beharrezkotzat jotzen dituzten dokumentuak ere aurkeztu ahal izango dituzte eta frogak proposatu, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, bai eta apelatzaileak ekarritako dokumentuen eta proposatutako frogen onargarritasunari buruz egokitzen jotzen dituzten alegazioak formulatu ere.

4. Justizia Administrazioaren letraduak apelatzaile nagusiari helaraziko dizkio artikuluko honen 1. eta 2. apartatuetan aipaturako aurkaratze-idazkiak, hamar eguneko epean komenigarritzat jotzen duena adieraz dezan aurkaratzearen onargarritasunari buruz eta, kasua denean, apelaturako aurkeztutako dokumentuei eta proposatutako frogari buruz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5. Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. eta 82. artikulua edo Lehia Defendatzeko Legearen 1. eta 2. artikulua aplikatzekoak diren prozesuetan, Justizia Administrazioaren letraduak Lehiaren Batzorde Nazionalari helaraziko dio apelazio-errekurtsoa jartzeko idazkia.

462. artikulua. Lehen auzialdiko auzitegiaren eskumena apelazioan zehar.

Apelazio-errekurtsoa bideratzen ari den bitartean, apelatutako ebazpenaren behin-behineko betearazpenari buruzko jardunetara mugatuko da errekurritutako ebazpena eman zuen auzitegiaren jurisdikzioa.

463. artikulua. Errekurritutako ebazpenaren behin-behineko betearazpena.

Behin-behineko betearazpena eskatu bada, lehen auzialdiko auzitegian geratuko da betearazpen horretarako beharrezkoa denaren lekukotza.

Apelazioa ebazteko eskuduna den auzitegira autoak igorri ondoren eskatzen denean, eskatzaileak harengandik eskuratu beharko du, aldez aurretik, betearazpenerako beharrezkoa denaren lekukotza.

464. artikulua. Frogak onartzea eta ikustaldia seinalatzea.

1. Apelazioari buruz ebatzi behar duen auzitegiak, dokumentu berriak ekarri badira edo froga proposatu bada, haiek onartzeari buruz bidezkoa dena erabakiko du, hamar eguneko epean. Froga gauzatu behar izanez gero, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldirako eguna seinalatuko du; hitzezko judiziorako aurreikusitakoaren arabera egingo da ikustaldia, hurrengo hilabetearen barruan.

2. Frogarik proposatu ez bada edo proposatu den guztia onartu ez bada, ikustaldia egitea ere erabaki ahal izango da, probidentzia bidez, betiere alderdietatik batek hala eskatu badu edo auzitegiak beharrezkoa irizten badio. Hura egitea erabakiz gero, ekitaldi horretarako eguna eta ordua seinalatuko ditu Justizia Administrazioaren letraduak.

465. artikulua. Apelazioa ebaztea.

1. Auzitegiak apelazio-errekurtsoari buruz auto bidez ebatziko du hura auto baten aurka jarri denean, eta epai bidez aurkako kasuan.

2. Ikustaldia amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan eman beharko da ebazpena. Ikustaldia egin ez bada, hilabeteko epean eman beharko da autoa edo epaia, 461. artikuluko izapideak egin diren egunaren biharamunetik kontatuta.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Lehen auzialdian epaia ematerakoan egin bada alegatutako arau-hauste prozesala, apelazio-
auzitegiak prozesuaren objektu den arazoari edo arazoei buruz ebatziko du apelatutako epaia errebokatuz
ondoren.

4. Artikulu honen aurreko apartatua xedatutakoa aplikatzekoa ez denean, jardunen erabateko
deuseztasuna edo haietako batzuen sortzen dutenetakoa bada arau-hauste prozesala, auzitegiak hala
deklaratu du probidentzia bidez, eta arau-haustea egin zenean zeukaten egoerara itzuliko ditu jardunak.

Ez da deklaratu jardunen deuseztasuna, baldin eta akats prozesala bigarren auzialdian konpon
badaiteke; horretarako, auzitegiak gehienez ere hamar eguneko epea emango du, salbu eta akatsa
ikustaldian agerian jarri eta bertan konpon daitekeenean.

Konpontzea gauzatuta eta, kasua denean, alderdiei entzunda eta froga onargarria gauzatuta, apelazio-
auzitegiak ebazpena emango du auziaren objektu den arazoari edo arazoei buruz.

5. Errekurtsoan eta, kasua denean, 461. artikuluan aipatutako aurkakotzako edo aurkaratzeko
idazkietan planteatutako puntuei eta arazoei buruz pronuntziatu beharko da eskusiboki apelazioan
emandako autoa edo epaia. Ebazpenak ezin izango dio apelatzaileari kalterik egin, salbu eta hasierako
apelatuak formulatu duen kasuan kasuko ebazpenaren aurkaratzea baiestetik badator kaltea.

6. Epaia emateko epea eten ahal izango da Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. eta 82. artikulua
edo Lehia Defendatzeko Legearen 1. eta 2. artikulua aplikatzeari buruzko prozeduretan, baldin eta
auzitegiak jakiten badu administrazio-espeditente bat dagoela Europako Batzordean, Lehiaren Batzorde
Nazionalan edo autonomia-erkidegoetako organo eskudunetan eta beharrezko bada jakitea administrazio-
organoaren pronuntziamendua. Zioak emanez erabakiko da etendura hori, alderdiei aurretiaz entzun eta
gero, eta administrazio-organoari jakinaraziko zaio. Azken horrek, halaber, bere ebazpena helarazi beharko
dio auzitegiari.

Berraztertze-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da prozesua eteten duen autoaren aurka.

7. Apelazio-errekurtsoa ebazteko ebazpena irmoa denean, Justizia Administrazioaren letraduak
erabakiko du errekurtsoaren objektu den ebazpena eman duen organoari igortzea jardunak.

466. artikulua. Bigarren auzialdiko epaiaren aurkako errekurtsoak.

Edozein motatako prozesu zibilen bigarren auzialdian probintzia-auzitegiek emandako epaien aurka,
alderdi legitimoek kasazio-errekurtsoa jarri ahal izango dute.

467. artikulua. Kasazio-errekurtsoa, arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsoa baietsi ostean probintzia-auzitegiek emandako epaien aurkakoa.

(Edukirik gabe)



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

IV. KAPITULUA

Arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsioaz

468. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpen errekurrituak.

(Edukirik gabe)

469. artikulua. Zioak. Aurretiazko salaketa auzialdian.

(Edukirik gabe)

470. artikulua. Errekurtsoa jartzea.

(Edukirik gabe)

471. artikulua. Errekurtsoa jartzeko idazkiaren edukia.

(Edukirik gabe)

472. artikulua. Autoak igortzea.

(Edukirik gabe)

473. artikulua. Onarpena.

(Edukirik gabe)

474. artikulua. Alderdi errekurrituen aurkakotza.

(Edukirik gabe)



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

475. artikulua. Ikustaldia eta froga.

(Edukirik gabe)

476. artikulua. Epaia. Ondoreak.

(Edukirik gabe)

V. KAPITULUA

Kasazio-errekurtsoaz

477. artikulua. Kasazio-errekurtsoaren zioa eta kasazioan errekurragarriak diren ebazpenak.

1. Kasazioan errekurragarriak izango dira bigarren auzialdiari amaiera ematen dioten epaiak, probintzia-
auzitegiek emanak, legearen arabera kide anitzeko organo gisa jardun behar dutenean; orobat, apelazioan
emandako autoak eta epaiak, arlo zibileko eta merkataritza-arloko atzerriko epaiak aitortzeko eta
betearazteko prozesuetan, nazioarteko tratatu eta hitzarmenen babesean, bai eta Europar Batasuneko
erregelamenduetan edo nazioarteko beste arau batzuetan ere, errekurritzeko ahalmena kasuan kasuko
tresnan aitortzen denean.

Halaber, kasazioan errekurragarriak izango dira probintzia-auzitegiek Patenteen eta Marken Espainiako
Bulegoak jabetza industrialaren arloan eman dituen eta administrazio-bidea agortzen duten ebazpenen
aurkako errekurtsoetan emandako epaiak.

2. Kasazio-errekurtsoaren oinarria izan beharko da arau prozesala edo substantiboa haustea, betiere
kasazio-interesa dagoenean. Nolanahi ere, kasazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, edozein kasutan,
babes-errekurtsoa jaso dezaketen oinarritzko eskubideen babes judizial zibilerako emandako epaien aurka,
kasazio-interesik ez badago ere.

3. Errekurtso batek kasazio-interesa duela ulertuko da errekurritutako ebazpena Auzitegi Gorenaren
jurisprudenzia-doktrinaren aurkakoa denean edo hark ebazten dituen puntuak eta arazoak probintzia-
auzitegiek kontraesanean duten jurisprudenziari buruzkoak direnean edo Auzitegi Gorenaren
jurisprudenzia-doktrinarik ez duten arauak aplikatzen dituenen.

Justizia-auzitegi nagusi baten ardura peko kasazio-errekurtsoak direnean, ulertuko da kasazio-interesa
dagoela errekurritutako epaia auzitegi nagusiaren jurisprudenzia-doktrinaren aurkakoa denean edo doktrina
hori existitzen ez denean kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren zuzenbide bereziaren arauetara buruz, edo
hark ebazten dituen puntuak eta arazoak probintzia-auzitegiek kontraesanean duten jurisprudenziari
buruzkoak direnean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Lehen salak edo, hala badagokio, justizia-auzitegi nagusietako arlo zibileko eta penaleko salek, kasazio-interes nabarmena dagoela erabaki ahal izango dute, aurkaratutako ebazpena eman bada auzigaia estatuko edo autonomia-erkidegoko legearen interpretazio uniformerako interes orokorrekoa den prozesu batean. Interes orokorra dagoela ulertuko da auzigaiak egoera askori eragin diezaiekeenean edo benetan eragiten dienean, dela berez, dela prozesuaren objektua den kasua gainditzen duelako.

5. Frogaren balorazioa eta egitateak finkatzea ezin izango dira kasazio-errekurtsoaren objektu izan, salbu eta egitezko errakuntza, agerikoa eta jarduketetatik bertatik berehala egiaztatu daitekeena.

6. Errekurtsoa arau prozesalak haustean oinarritzen denean, ezinbestekoa izango da egiaztatzea ezen, ahal izan bada, kasazio-errekurtsoa baino lehen, arau-haustea auzialdian salatu dela, eta, lehenengo auzialdian gertatuz gero, salaketa berriro egin dela bigarren auzialdian. Arau-hauste prozesalak gabezia edo akats konpongarria sortu badu, auzialdi egokian edo egokietan eskatu beharko da konponketa.

478. artikulua. Eskumena. Errekurtsoen aldiberekotasuna.

1. Auzitegi Goreneko lehen salari dagokio kasazio-errekurtsoaren ardura.

Dena den, justizia-auzitegi nagusietako arlo zibil eta penaleko salei egokituko zaie autonomia-erkidegoan egoitza duten auzitegi zibilen ebazpenen aurka bidezkoak diren kasazio-errekurtsoez arduratzea, betiere errekurtsoaren oinarria bada, eskusiboki edo beste zio batzuekin batera, erkidegoaren zuzenbide zibil, foral edo berezi propioaren arauen haustura, eta kasuan kasuko autonomia-estatutuak aurreikusi badu eskudantzia hori.

2. Alderdi berberak epai beraren aurka jartzen dituenean kasazio-errekurtsoak Auzitegi Gorenaren aurrean eta justizia-auzitegi nagusiaren aurrean, haietako lehenengoa ez aurkeztutzat joko da, probidentzia bidez, inguruabar hori egiaztatu bezain laster.

479. artikulua. Errekurtsoa jartzea. Aurretiazko salaketa auzialdian. Lehentasunezko izapidetzea.

1. Aurkaratzen den ebazpena eman zuen auzitegiaren aurrean jarriko da kasazio-errekurtsoa, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hogeitaz eguneko epearen barruan.

2. Aurkaratutako ebazpena errekurritzeko modukoa izanez gero, errekurtsoa epearen barruan formulatu bada, eta, arau prozesalen urraketan oinarritutako errekurtsoa izanik, egiaztatu bada aldez aurretik arau-haustea salatu dela, posible izan bada, eta, kasua denean, aurreko auzialdian edo auzialdietan zuzentzeko ahalegina egin dela, hiru eguneko epean jarritzat hartuko du Justizia Administrazioaren letraduak. Kontrako kasuan, auzitegiari ezagutaraziko dio, errekurtsoa onartzeari buruz pronuntzia dadin.

Auzitegiak irizten badio betetzen direla onartze-betekizunak, probidentzia emango du, hamar eguneko epean, errekurtsoa jarritzat hartzen duena; kontrako kasuan, epe berean, autoa emango du, ez-onartzea deklaritzen duena. Kexa-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da auto horren aurka.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Ezin izango da errekurtsorik jarri errekurtsua jarritzat hartzen duen probidentziaren aurka, baina alderdi errekurrituak aurka egin ahal izango dio onarpenari kasazio-auzitegian agertzean.

3. Lehentasunez izapidetuko dira legez aurreikusitako kasazio-errekurtsuak, lekuko-prozedurak izapidetzean emandako behin betiko epaien aurkakoak.

480. artikulua. Errekurtsua prestatzeari buruzko ebazpena.

(Edukirik gabe)

481. artikulua. Errekurtsua jartzeko idazkiaren edukia.

1. Errekurtsua jartzeko idazkian, kasaziora iristeko bidea identifikatuko da, eta, hura kasazio-interesa bada, eskatzen den modalitatea ere identifikatuko da, bai eta argudiatutako kasazio-interesa egotearen justifikazioa ere, behar besteko argitasunez. Horrez gain, hautsitako arau prozesala edo substantiboa adieraziko da, eta, eskarietan zehaztuko da zer jurisprudentzia-doktrina eskatzen zaion salari, hala badagokio, baita auziaren objektuari dagozkion pronuntziamentuak ere. Ikustaldia egitea ere eskatu ahal izango da, baina auzitegiak beharrezkotzat jotzen badu bakarrik egingo da.

2. Kasazio-errekurtsua arrazoieta artikulatuko da. Ezin izango dira arrazoi berean pilatu arau-hauste desberdinak.

3. Epaitzarako garrantzitsuak diren arau-hausteak bakarrik salatu ahal izango dira, baldin eta prozesuan behar bezala alegatuak izan badira edo probintzia-auzitegiak aintzat hartuak.

4. Arrazoi bakoitza goiburu batekin hasiko da, eta hautsitako arauaren aipamen zehatza eta egindako arau-haustearen laburpena jasoko ditu.

5. Arrazoi bakoitzaren garapenean, horren oinarriak azalduko dira, goiburuko funtsezko edukitik aldendu gabe eta planteatutako arazo juridikoa identifikatu ahal izateko behar den argitasunarekin.

6. Errekurtsua jartzeko idazkiarekin batera aurkeztuko dira aurkaratutako epaia, identifikatzeko sinadura elektronikoa edo egiaztapen-kodea eramango balu, edo ziurtagiria bestela, eta, bidezkoa denean, kasazio-interesaren oinarri gisa alegatzen diren epai-testuak.

7. Hala denean, errekurtsua jartzeko idazkian, kasazio-errekurtsua oinarritzeaz gain, arrazoituta adierazi beharko da hautsi dela uste den arauari lotuta jurisprudentzia-doktrinarik ez izateari buruzko guztia.

8. Auzitegi Gorenaren Gobernu Salak kasazio-errekurtsoen aurkezpen-idazkien eta aurkakotza-idazkien gehieneko luzera eta beste kanpo-baldintza batzuk, aurkeztu behar diren formatuari buruzkoak barne, zehaztu ahal izango ditu, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den erabaki baten bidez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

482. artikulua. Autoak igortzea. Alderdiak epatzea. Ziurtagiriak egiteari ezezkoa ematea.

1. Errekurtsoa jarritzat hartzen duen ebazpenaren hurrengo bost egunen barruan igorriko dizkio Justizia Administrazioaren letraduak jatorrizko auto guztiak kasazio-errekurtsoaz arduratzeko eskuduna den auzitegiari, eta alderdiak hogeita hamar egunerako epatuko ditu.

Errekurtsogilea ez bada agertzen seinalatutako epearen barruan, Justizia Administrazioaren letraduak huts deklaratu du errekurtsoa, eta irmo geratu da errekurritutako ebazpena.

2. Errekurtsogileak 481. artikuluan aipatzen den epai-ziurtagiria lortzerik izan ez badu ere, aurreko apartatuan xedatutako autoak igorriko dira. Ziurtagiria egiteari ezezkoa ematea edo jarkitzea diziplina bidez zuzenduko da, eta, beharrezkoa balitz, kasazio-salak erreklamatu duen dizkio egin behar dituen Justizia Administrazioaren letraduari.

483. artikulua. Errekurtsoa onartzeari buruzko erabakia.

1. Epatzearen epemuga igaro ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak egiaztatuko du kasazio-errekurtsoa garaiz eta behar bezala jarri dela, barnean hartuta, arau-hauste prozesalen kasuan, auzialdian alde aurretik jarritako salaketa, ahal izan bada, bai eta errekurritzeko gordailuak behar bezala eratu direla eta, hala badagokio, 449. artikuluko betekizunak bete direla ere; hala ez bada, dekretu bidez egingo da ez-onartzea.

2. Aurreko betekizunak betez gero, Justizia Administrazioaren letraduak Auzitegi Goreneko lehen salako onarpen-atalari edo Auzitegi Nagusiko arlo zibil eta penaleko salari helaraziko dizkio jarduketak, errekurtsoren onarpenari buruzko iritzia eman dezan.

3. Kasazio-errekurtsoa ez da onartuko laburki arrazoitutako probidentziaren bidez, zeinak, hala badagokio, errekurritutako ebazpenaren irmotasuna deklaratu baitu, eta auto bidez onartuko da, Auzitegi Goreneko lehen salak edo Justizia Auzitegi Nagusiko arlo zibil eta penaleko salak errekurtsok planteatu diren auziari edo auziei buruz erabakitzeko arrazoiak adierazita.

Ez onartzeko kausak eragina duenean alegatutako arau-hausteetako batean soilik, auto bidez ebartzeko da errekurtsoren onarpena errekurtsok salatzen dituen gainerakoei dagokienez.

4. Ezin izango da errekurtsorik jarri kasazio-errekurtsok onartzeari buruz ebazten duen probidentziaren edo autoaren aurka.

484. artikulua. Eskumenari buruzko erabakia onartze-izapidean.

1. Aurreko artikuluan aipatzen den onartze-izapidean, Auzitegi Goreneko lehen salako onarpen-atalak edo Auzitegi Nagusiko arlo zibil eta penaleko salak aztertuko du eskumenik duen kasazio-errekurtsok arduratzeko, haren onargarritasunari buruz pronuntziatu aurretik. Eskuduna ez dela irizten badio, hamar eguneko epean alderdiei eta Fiskaltzari entzun eta gero erabakiko du jarduketak igortzea eta alderdiak epatzea, eskuduntzat jotzen den salaren aurrean ager daitezen hamar eguneko epean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Aurreko apartatuan aipatutako kasuan, jarduketak jasota eta eskuduntzat jotako salaren aurrean alderdiak pertsonatuta, errekurtsuak bideratzen jarraituko du onartze-izapidetik aurrera.

3. Justizia-auzitegi nagusietako salek ezin izango diote uko egin Auzitegi Goreneko lehen salak igorritako kasazio-errekurtsuez arduratzeko duten eskumenari.

485. artikulua. Onartzea eta gainerako alderdiei helaraztea.

Kasazio-errekurtsua onartuta, Justizia Administrazioaren letraduak alderdi errekurritu eta pertsonatuari edo errekurritu eta pertsonatuei helaraziko die errekurtsua jartzeko idazkia, erantsitako dokumentuekin batera, idatziz formaliza dezaten aurkakotza hogei eguneko epean eta adieraz dezaten ea beharrezkotzat jotzen duten ikustaldia egitea.

486. artikulua. Deliberamendua, bozketa eta epaitza. Balizko ikustaldia.

1. Aurreko artikuluan aipatutako epea igarota, aurkakotza-idazkiak aurkeztu ala ez, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldia egiteko eguna eta ordua seinalatuko ditu, auzitegiak ekitaldi hori egitea ebatzi duenean, probidentzia bidez, justizia hobeto banatzeko komenigarria irizten diolako. Kontrako kasuan, kasazio-errekurtsuaren deliberamendu, bozketa eta epaitzarako eguna eta ordua seinalatuko ditu salak.

2. Ikustaldia egiten bada, alderdi errekurtsogilearen txostenarekin hasiko da, eta, ondoren, alderdi errekurrituarekin jarraituko da. Alderdi errekurtsogileak bat baino gehiago badira, errekurtsuak jarri diren hurrenkerari jarraituko zaio, eta, alderdi errekurrituak bat baino gehiago badira, agerraldien hurrenkerari. Salak alderdien abokatuei eta, hala badagokio, Fiskaltzari adierazi ahal izango die zenbat denbora duten beren txostenetarako eta zer gai jotzen dituen interes berezikotzat.

487. artikulua. Epaia. Ondoreak.

1. Kasazio-errekurtsua epai bidez erabakiko da, salbu eta, planteatutako auziari edo auziei buruzko doktrina jurisprudentziala egonda, aurkaratutako ebazpena doktrina horren aurkakoa denean; kasu horretan, errekurtsua auto bidez erabaki ahal izango da, eta, errekurritutako ebazpena kasatuta, auzigaia jatorrizkoko auzitegiari itzuliko dio, beste ebazpen bat eman dezan jurisprudentzia-doktrinarekin bat etorritz.

2. Epaia, edo, hala badagokio, autoa, deliberamendua amaitu eta hurrengo hogei egunen barruan emango da.

3. Errekurtsua jartzeko idazkian arau-hauste prozesalak eta substantiboak salatzen direnean, salak, lehenik eta behin, jardunak aurreko egoerara itzultzea dakarren arrazoia edo arrazoiak ebartziko ditu.

4. Ezin izango da errekurtsorik jarri kasazio-errekurtsua ebazten duen epaiaren edo autoaren aurka.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5. Kasazioan ematen den epaiaren pronuntziamentuek inoiz ez diete eragingo inbokatutako epaiek sortutako egoera juridikoei, aurkaratutakoaren ezberdinak direnei.

488. artikulua. Kasazioko eta arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsok bideratzea eta erabakitzea, auzi bereko auzilariek aparteko errekurtsok ezberdina aukeratzen dutenean.

1. Prozesu bereko auzilari desberdinetako bakoitzak aparteko errekurtsok ezberdina aukeratzen duenean, arau-hauste prozesalean oinarritzen dena kasaziokoaren aurretik bideratuko du auzitegi eskudunak; nolana ere, kasaziokoaren izapidetza hasi egingo da, aurrera jarraituko du onarpena erabaki arte, eta, ondoren, eten egingo da.

2. Arau-hauste prozesalaren ondoriozko errekurtsok erabat ezesten duen epaia ematen bada, berehala komunikatuko zaio kasaziorako eskuduna den auzitegiari, berehala emango da amaitutzat haren etendura, eta errekurtsok izapidetuko da kapitulu honetan xedatutakoaren arabera.

3. Arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsok baiesten bada, ondorerik gabe geratuko da aurkeztutako kasazio-errekurtsok, hargatik eragotzi gabe lege honen 467. artikuluan aurreikusitakoa.

489. artikulua. Foru-kasazioko eta arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsok bideratzea eta erabakitzea, auzi bereko auzilariek aparteko errekurtsok ezberdina aukeratzen dutenean.

Prozesu bereko auzilari desberdinetako bakoitzak aparteko errekurtsok ezberdina aukeratzen dutenean, batek arau prozesalak hausteagatikoa eta besteak autonomia-erkidego bateko foru-zuzenbide zibila edo berezia hausteagatikoa, pieza bakar batean metatuta bideratuko eta erabakiko dira bi errekurtsok, eta salak epai bakar batean ebaztuko ditu, kontuan hartuta kasazio-errekurtsokari buruz pronuntziatu ahal izango dela soilik arau-hauste prozesalaren ondoriozko apartekoa baiesten ez den kasuan.

VI. KAPITULUA

Legearen intereseko errekurtsok

(Kendu da)

490. artikulua. Legearen interesean errekurragarriak diren ebazpenak.

(Edukirik gabe)



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

491. artikulua. Legearen interesean errekurritzeko legitimazioa.

(Edukirik gabe)

492. artikulua. Jartzea eta bideratzea.

(Edukirik gabe)

493. artikulua. Epaia.

(Edukirik gabe)

VII. KAPITULUA

Kexa-errekurtsoaz

494. artikulua. Kexan errekurritarriak diren ebazpenak.

Ebazpena eman duen auzitegiak kasazioko errekurtso bat izapidetzea ukatzen duen autoen aurka, kexa-errekurtsoa jarri ahal izango da, izapidetu gabeko errekurtsoa ebaztea dagokion organoaren aurrean. Lehentasunezko izaerarekin izapidetuko eta ebatziko dira kexa-errekurtsoak.

Kexa-errekurtsoa ez da bidezkoa izango hiri- eta landa-finken utzarazpen-prozesuetan, baldin eta kasua denean eman beharko litzatekeen epaia gauza epaitutzat hartu ezin bada.

495. artikulua. Bideratzea eta erabakitzea.

1. Izapidetu gabeko errekurtsoa ebaztea dagokion organoaren aurrean jarriko da kexa-errekurtsoa, kasazioko errekurtsoa izapidetzea ukatzen duen ebazpena jakinarazten denetik hamar eguneko epean. Errekurritutako ebazpenaren kopia aurkeztu beharko da errekurtsoarekin batera.

2. Errekurtsoa aipatutako kopiarekin batera garaiz aurkeztuta, auzitegiak hari buruz ebatziko du, bost eguneko epean. Errekurtsoaren izapidetzea ongi ukatu dela baderitzo, aginduko du dagokion auzitegiari ezagutera eman dakiola, autoetan jasota gera dadin. Gaizki ukatu dela baderitzo, auzitegi horri aginduko dio izapidetzen jarrai dezala.

3. Ezin izango da errekurtsorik jarri kexa-errekurtsoa ebazten duen autoaren aurka.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

V. TITULUA

Auzi-ihesaz eta epai irmoak hutsaltzeaz eta demandatu auzi-iheslaria berriro entzuteaz

496. artikulua. Auzi-ihesaren deklarazioa eta ondoreak.

1. Justizia Administrazioaren letraduak auzi-ihesean deklaratu du demandatua, baldin eta zitazioan edo epatzean seinalatutako datan edo epean forma egokian agertzen ez bada, salbu eta lege honetan aurreikusten denean auzi-ihesaren deklarazioa auzitegiari dagokiola.

2. Auzi-ihesaren deklarazioa ez da hartuko amore-ematetzat, ez eta demandako egitateen onarpentzat ere, legeak berariaz aurkakoa xedatzen duen kasuetan izan ezik.

497. artikulua. Jakinarazpenen araubidea.

1. Auzi-ihesa deklaratzeko duen ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaio demanduari, legez edo kontratuz behartuta badago Justizia Administrazioarekiko harremanak bitarteko horien bidez izatera. Gainerako kasuetan, postaz, haren egoitza ezaguna bada, eta, ez bada, ediktu bidez. Jakinarazpen hori eginda, ez da beste jakinarazpenik egingo, prozesuari amaiera ematen dion ebazpenari buruzkoa izan ezik.

2. Prozesua amaitzen duen epaia edo ebazpena demanduari pertsonalki jakinaraziko zaio, lege honen 161. artikuluan aurreikusitako moduan. Baina demandatua non dagoen jakiterik ez badago, jakinarazpena egingo da haren laburpena argitaratuta Ediktu Judizialen Taula Bakarrean.

Gauza bera aplikatuko zaie apelazioan edo kasazioan emandako epaiei.

498. artikulua. Ediktu bidez zitatutako edo epatutako demandatu auzi-iheslariari prozesua badela komunikatzea.

Demandatu auzi-iheslariari pertsonatzeko zitazioa edo epatzea ediktu bidez egin zaionean egoitza ezagunik ez izateagatik edo egonleku ezezaguna izateagatik prozesua ebazkizun dagoela komunikatuko zaio, ofizioz edo pertsonatutako alderdietako edozeinen eskariz, komunikazioa zein tokitan egin daitekeen jakin bezain laster.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

499. artikulua. Demandatuaren geroagoko agerraldia.

Demandatu auzi-iheslaria agertzen den prozesuaren egoera edozein izanda ere, harekin egingo da bideraketa, zeinak ezin izango duen inoiz atzeraka egin.

500. artikulua. Demandatu auzi-iheslariak errekurso arruntak egikaritzea.

Demandatu auzi-iheslariari pertsonalki jakinarazi bazaio epaia, haren aurka erabili ahal izango ditu, soilik, apelazio-errekursoa, eta kasaziokoa, baldin eta legezko epearen barruan jartzen baditu.

Demandatu auzi-iheslariari pertsonalki jakinarazi ez bazaio epaia, errekurso berak erabili ahal izango ditu, baina, kasu horretan, haiek jartzeko epea kontatuko da epaia jakinarazteko ediktua Ediktu Judizialen Taula Bakarrean argitaratu eta hurrengo egunetik, edo, kasua denean, 497. artikulua 2. apartatua aitapatutako bitarteko elektronikoen bidez.

501. artikulua. Epai irmoa hutsaltzea auzi-iheslariaren eskariz. Zer kasutan den bidezkoa.

Aldi oro auzi-ihesean egon diren demandatuek epai irmoa hutsal dezala eskatu ahal izango diote hura eman duen auzitegiari honako kasu hauetan:

1. Auzi-iheslariari une oro agertzea eragotzi dion etengabeko ezinbestea dagoenean, nahiz eta hark auziaren berri izan, forma egokian zitatua edo epatua izan delako.
2. Demandaren eta auziaren berri izan ez denean, zitazioa edo epatzea 161. artikuluaekin bat zedula bidez egin bada baina hura ez bada demandatu auzi-iheslariaren eskura iritsi hari egotzi ezin zaion kausagatik.
3. Demandaren eta auziaren berri izan ez denean, demandatu auzi-iheslaria ediktu bidez zitatu edo epatu bada eta absente egon bada prozesua bideratu den tokitik eta Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko beste edozein tokitatik, ediktuak haietako aldizkari ofizialetan argitaratu badira.

502. artikulua. Hutsaltze-akzioaren iraungitze-epeak.

1. Demandatu auzi-iheslariak eskatutako hutsalketa, epai irmoarena, bidezkoa izango da, soilik, honako epe hauen barruan eskatzen denean:

- 1.) Epai irmoa jakinarazi denetik hogeitaz egun, baldin eta jakinarazpen hori pertsonalki gauzatu bada.
- 2.) Epai irmoa jakinarazteko ediktua publikatu denetik lau hilabete, baldin eta epaia pertsonalki jakinarazi ez bada.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Aurreko apartatuan aipatutako epeak luzatu ahal izango dira, 134. artikularen bigarren apartatuarekin bat etorriz, baldin eta badirau auzi-iheslariari agertzea eragotzi zion ezinbestek, baina hutsaltze-akzioa ezin izango da inolaz ere egikaritu epaiaren jakinarazpenetik hamasei hilabete igaro badira.

503. artikulua. Gauza epaituaren ondorerik gabeko epaien hutsalketa baztertzea.

Ez da bidezkoa izango epai irmoen hutsalketa, baldin eta, lege-xedapen bidez, gauza epaituaren ondorerik ez badute.

504. artikulua. Betearazpenaren balizko etendura. Hutsalketaren prozedura.

1. Auzi-ihesean emandako epai irmoak hutsaltzeko demandek ez dute etengo epai horien betearazpena, salbu eta lege honen 566. artikuluan xedatutakoa.

2. Judizio arrunterako ezarritako izapideen bitartez bideratuko da demandatu auzi-iheslariak epai irmo bat hutsaltzeko izan dezakeen uzia, eta prozesuan alderdi izan direnek hasi ahal izango dute.

505. artikulua. Hutsaltze-epaia.

1. Behin judizioa eginda, non gauzatuko baita hutsalketa justifikatzen duten kausei buruzko froga egokia, auzitegiak hutsalketa horri buruz ebatziko du epai bidez, zeina ez den errekurritzeko modukoa izango.

2. Alderdi-eskariz, betearazpen-auzitegiak erabaki beharko du hutsaldutako epaiaren betearazpena eten, jada ez badu dekretatu etendura 566. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

506. artikulua. Kostuak.

1. Deklaratzen denean ez dela onartzen auzi-ihesean kondenatutako auzilariak eskatutako hutsalketa, auzilari horri ezarriko zaizkio prozeduraren kostu guztiak.

2. Hutsalketa bidezkoa dela baiesten duen epaia ematen bada, kostuak ez zaizkio ezarriko auzilarietatik bati ere, salbu eta auzitegiak ausarkeria hautematen badu haietakoren batean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

507. artikulua. Prozedura bideratzea epai baieslearen ondoren.

1. Demandatu auzi-iheslariaren uzia baietsita, hutsalketa bidezkoa dela baiesten duen epaiaren ziurtagiria igorriko zaio lehen auzialdian auzigaiaz arduratu zen auzitegiari, eta, haren aurrean, honako erregela hauen arabera jardungo da:

1.) Hamar egunerako entregatuko zaizkio autoak demandatuari, bere eskubideari komeni zaiona azal eta eska dezan demanda-erantzunarentzat aurreikusitako moduan.

2.) Azaldutakoa eta eskatutakoa beste hamar egunerako helaraziko zaio aurkako alderdiari, eta idazkien eta dokumentuen kopiak entregatuko zaizkio.

3.) Hortik aurrera, kasuan kasuko deklarazio-judizioaren izapideei jarraituko zaie, bidezkoa den epaia eman arte, eta, haren aurka, lege honetan aurreikusitako errekursoak jarri ahal izango dira.

2. Ez da beharrezkoa izango lehen auzialdiko auzitegiari igortzea aurreko apartatuan aipatutako ziurtagiria, baldin eta auzitegi horrek hutsalketa bidezkoa zela baietsi bazuen.

508. artikulua. Demandatuaren jarduerarik eza eta beste epai bat.

Demandatuak ez badu formulatzen alegaziorik eta eskaerarik aurreko artikulua lehenengo erregelari aipatutako izapidean, ulertuko da uko egiten diola entzuna izateari, eta beste epai bat emango da, hutsaldutakoaren modu berean.

Epai horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

VI. TITULUA

Epai irmoen berrikuspenaz

509. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpen errekurragarriak.

Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko Salari edo justizia-auzitegi nagusietako arlo zibil eta penaleko salei eskatuko zaie epai irmoak berrikusteko, Botere Judizialaren Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz.

510. artikulua. Zioak.

1. Epai irmo bat berrikusi ahal izango da:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Pronuntziatu ondoren, dokumentu erabakigarriak berreskuratzen edo lortzen badira, eskueran eduki ezin izan zirenak ezinbestegatik edo epaia aldeko izan duen alderdiaren eraginez.

2.) Dokumentu batzuetan oinarrituta eman bada, epaia emateko unean alderdietako batek jakin gabe prozesu penal batean faltsu deklaratu zirela edo haien faltsutasuna geroago deklaratu bada arlo penalean.

3.) Lekuko bidezko edo aditu bidezko frogan oinarrituta eman bada eta lekukoak edo adituak kondenatuak izan badira epaiaren oinarri gisa balio izan zuten deklarazioetan lekukotza faltsua emateagatik.

4.) Bidegabeki irabazi bada funtzionario-eroskerian, indarkerian edo iruzurrezko azpikerian oinarrituta.

2. Halaber, ebazpen judizial irmo baten aurka, berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da Giza Eskubideen Europako Auzitegiak deklaritzen duenean ebazpen hori eman izanak Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean eta haren protokoloetan aitortutako eskubideetakoren bat urratzen duela, betiere urraketa horrek, bere izaeragatik eta larritasunagatik, ondore iraunkorrak badakartza eta haiek geldiarazteko modu bakarra berrikuspena bada, zeinak ezin izango dien kalterik egin hirugarrenek fede onez eskuratu dituzten eskubideei.

511. artikulua. Legitimazio aktiboa.

Aurkaratutako epai irmoak kaltetu duen alderdiak eskatu ahal izango du berrikuspena.

Aurreko artikulua 2. apartatuko kasuan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean demandatzaile izandakoak soilik eskatu ahal izango du berrikuspena.

512. artikulua. Jartzeko epea.

1. Inola ere ezin izango da berrikuspena eskatu bost urte igaro badira aurkaratu nahi den epaiaren publikazio-datatik. Errefusatu egingo da epe hori igarota aurkezten den berrikuspen-eskaera oro.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikagarria izango berrikuspenaren zioa Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai bat denean. Kasu horretan, aipatutako auzitegiaren epaia irmo bihurtzen denetik urtebeteko epean formulatu beharko da eskaera.

2. Aurreko apartatuan seinalatutako epearen barruan, berrikuspena eskatu ahal izango da, betiere hiru hilabete igaro ez badira dokumentu erabakigarriak, funtzionario-eroskeria, indarkeria edo iruzurra deskubritu ziren egunetik edo faltsutzea aitortu edo deklaratu zenetik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

513. artikulua. Gordailua.

1. Berrikuspen-demanda jarri ahal izateko, ezinbestekoa izango da harekin batera aurkeztea 300 euroko zenbatekoa ondore horretarako zehaztutako establezimenduan gordailutu izana justifikatzen duen dokumentua. Zenbateko hori itzuli egingo da, auzitegiak berrikuspen-demanda baietsiz gero.

2. Besterik gabe auzitegiak demanda baztertzea ekarriko du aipatutako gordailua ez jartzeak edo hura nahikoa ez izateak, baldin eta hura konpontzen ez bada Justizia Administrazioaren letraduak ondore horretarako seinalatutako epearen barruan, zeina bost egunekoa izango baita gehienez ere.

514. artikulua. Bideratzea.

1. Berrikuspen-demanda aurkeztuta eta onartuta, aurkaratzen den epaiaren auziko jarduketa guztiak auzitegiari igor dakizkiola eskatuko du Justizia Administrazioaren letraduak, eta han auzitan aritu diren guztiak epatuko ditu, edo haien kausadunak, hogeit eguneko epean demandari erantzun diezaioten, beren eskubideari komeni zaionari eutsiz.

2. Berrikuspen-demanda erantzunda edo hura egin gabe aurreko epea igarota, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldi baterako dei egingo die alderdiei; 440. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera bideratuko da hura.

3. Kasu orotan, Fiskaltzak berrikuspenari buruzko txostena egin beharko du demanda baiestea bidezkoa den ala ez erabakitzen duen epaia eman aurretik.

4. Berrikuspena izapidetzean arazo prejudizial penalik planteatzen bada, lege honen 40. artikuluan ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira, baina ez da jada aplikatuko iraungitzearen epe absolutua, 512. artikulua 1. apartatua aipatutakoa.

5. Alderdietako bat estatuko abokatuak ordezkatuta eta defendatuta dagoen prozeduretan izan ezik, Justizia Administrazioaren letraduak Estatuko Abokatutza Orokorrari helaraziko dio berrikuspen-demandaren aurkezpena, bai eta hura onartzeari buruzko erabakia ere, 510. artikulua 2. apartatuko kasuetan. Kasu horietan, Estatuko Abokatutzak, alderdi izan gabe, bere ekimenez edo organo judizialak eskatuta esku hartu ahal izango du, informazioa ekarriz edo ohar idatziak aurkeztuz Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia betearazteari buruzko gaien gainean.

515. artikulua. Betearazpenaren balizko etendura.

Berrikuspen-demandek ez dute etengo beren oinarri diren epai irmoen betearazpena, salbu eta lege honen 566. artikuluan xedatutakoa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

516. artikulua. Erabakia.

1. Auzitegiak bidezkoa irizten badio eskatutako berrikuspenari, hala deklaratu du, eta aurkaratutako epaia hutsalduko du. Ondoren, aginduko du epaitzaren ziurtagiria egin dadila, eta jatorrizko auzitegiara itzuliko ditu autoak, alderdiek beren eskubidea erabil dezaten, komeni zaienaren arabera, kasuan kasuko judizioan.

Judizio horretan, berrikuspen-epaian egindako deklarazioak hartu beharko dira oinarri gisa, eta ezin izango dira eztabaidatu.

2. Auzitegiak ezetsi egiten badu eskatutako berrikuspena, kostuak ordaintzera kondenatuko da demandatzailea, eta galdu egingo du gauzatutako gordailua.

3. Ezin izango da errekursorik jarri berrikuspen-auzitegiak emandako epaiaren aurka.

4. 510. artikulua 2. apartatuaren kasuan, Justizia Administrazioaren letraduak Estatuko Abokatutza Nagusiari ere jakinaraziko dio erabakia. Autoak jatorrizko auzitegiari itzulita artikuluko honen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, auzitegi horretako Justizia Administrazioaren letraduak Estatuko Abokatutzari emango dio berrikuspenaren ondorioz egindako jardun nagusien berri.

III. LIBURUA

Nahitaezko betearazpenaz eta kautela-neurriez

I. TITULUA

Titulu betearazleez

I. KAPITULUA

Epaiez eta gainerako titulu betearazleez



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

517. artikulua. Akzio betearazlea. Titulu betearazleak.

1. Akzio betearazlea oinarritu beharko da betearazpena dakarren titulu batean.

2. Honako titulu hauek soilik dakarte betearazpena:

1.) Kondena-epai irmoak.

2.) Laudo edo ebazpen arbitraletan eta bitartekaritza-akordioek; azken horiek eskritura publikoan jasota egon beharko dira, auzi zibil eta merkataritza-koetako bitartekaritza buruzko legearen arabera.

3.) Prozesuan lortutako transakzio judizialak eta akordioak onesten edo homologatzen dituzten ebazpen judizialek, kasu kasuko jardunen lekukotzekin batera aurkeztuak ebazpen horien eduki zehatza jasotzeko beharrezkoak izanez gero.

4.) Eskritura publikoek, lehenengo kopia badira, edo, bigarrena izanez gero, manamendu judizial bidez eman badira eta kalte egin behar dion pertsonaren zitzakioa badute, edo haren kausatzailearena, edo alderdi guztien adostasunarekin egin badira.

5.) Merkataritza-kontratuen polizek, alderdiek eta haietan esku hartu duten merkataritzako artekari elkargokideek sinatutakoak, betiere artekariaren ziurtagiri bat aurkeztuak bada, poliza haren erregistro-liburuko idazpenekin eta idazpen horien datarekin bat datorrela egiaztatzen duena.

6.) Eramailereentzako tituluek edo izendunek, legitimoki egindakoak, baldin eta ordezkatzun badiutze mugaeguneratutako betebeharrak eta titulu horien kupoiak, mugaeguneratuak baita ere, betiere kupoiak erkatuta badaude tituluekin, eta azken horiek, kasu orotan, taloitegi-liburuekin.

Erkatze-ekitaldian formulatutako titulu-faltsutasunaren protestak ez du eragotziko, hura onartzen bada, betearazpena abiaraztea, hargatik eragotzi gabe zordunak, geroago, betearazpenari aurka egin ahal izatea tituluaren faltsutasuna alegatuz.

7.) Ziurtagiri iraungigabeek, kontabilitate-erregistroen ardura duten entitateek egindakoak aipatutako kontuko idatzoharren bidez ordezkatzutako baloreei dagokienez, edo inskripzioa eta erregistroa administratzeko ardura duten erakundeek egindakoak erregistro banatuen teknologian oinarritutako sistemen bidez ordezkatzutako baloreei dagokienez, Balore Merkatuari buruzko Legeak aipatzen baititu, betiere ziurtagiri horiekin aurkeztuak bada baloreak ordezkatzeko eskritura publikoaren kopia edo, kasu denean, jaulkipenarena, eskritura hori beharrezkoa denean indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik.

Betearazpena eskatuta eta abiarazita, ez dira iraungiko aurreko paragrafoan aipatutako ziurtagiriak.

8.) Kalte-ordain gisa erreklama daitekeen gehieneko zenbatekoa ezartzen duen autoak, legeak aurreikusitako kasuetan emandakoak ibilgailu motordunen erabileratik edo zirkulaziotik eratorritako Erantzukizun Zibileko Nahitaezko Aseguruak estalitako egitateengatik hasitako prozesu penaletan.

9.) Gainerako ebazpen prozesalek eta dokumentuek, betearazpena badakarte lege honek edo beste batek xedatutakoaren arabera.



518. artikulua. Epai judizialean edo ebazpen arbitralean edo bitartekaritza-akordioan oinarritutako akzio betearazlea iraungitzea.

Iraungi egingo da akzio betearazlea, dela epaian oinarritua, dela transakzio judizial bat edo prozesuan lortutako akordio bat onesten duen auzitegiaren edo Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpenean, dela ebazpen arbitralean, dela bitartekaritza-akordioan, baldin eta kasuan kasuko demanda betearazlea jartzen ez bada epaia edo ebazpena irmo bihurtu denetik hurrengo bost urteko epean.

519. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen akzio betearazlea, onuradunen banakako zehaztapenik ez duen kondena-epaian oinarritua. Kontratazioaren baldintza orokorreki buruzko akzio indibidualak egikaritu diren prozeduretan emandako epaien ondoreak hedatzea.

1. 221. artikulua lehenengo erregelari aipatutako kondenen epaiek ez dituztenean zehazten haren onura jasoko duten banakako kontsumitzaileak edo erabiltzaileak, betearazteko eskumena duen auzitegiak, interesdun baten edo batzuen eskariz eta kondenuari entzunda, autoa emango du, ebazten duena ea, epaian ezarritako datuen, ezaugarrien eta betekizunen arabera, kondenen onuradun gisa aitortzen dituen eskatzaileak. Auto horren lekukotzarekin, subjektu aitortuek betearazpena eskatu ahal izango dute. Fiskaltzak eskatu ahal izango du epaia betearaz dadila ukitutako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen onurarako.

2. Hargatik eragotzi gabe deklarazio-prozedura batera jotzeko aukera, 250.1.14. artikuluan aipatutako demaden kasuan, egoera juridiko indibidualizatua aitortzen duen eta, lehen auzialdian eman izan balitz, Probintzia Auzitegiaren errekurtoa jarri ondoren irmo bihurtuko litzatekeen epai baten ondoreak beste batzuetara hedatu ahal izango dira, inguruabar hauek gertatzen direnean:

- a. Interesdunak eta epaitzak mesedetutakoak egoera juridiko berean egotea.
- b. Demandatu bera izatea, edo haren posizioan ondorengo zaiona.
- c. Klausularen gardentasun-kontrolak egin behar ez izatea, eta kontratatzailearen adostasunean akatsik dagoen baloratu behar ez izatea.
- d. Kontratazio-baldintza orokorreki bat etorri behar dute, funtsean, ondoreak hedatu nahi zaizkion epaian ezagutzen direnekin.
- e. Ondoreak hedatu nahi zaizkion epaia eman duen edo epai hori betearazteko eskumena duen jurisdikzio-arganoa lurraldearen arabera ere eskuduna izatea uziaz arduratzeko.

Kasu horietan, eskaera idazki bidez planteatuko da, eta bertan adieraziko dira ondoreak hedatu nahi zaizkion epaia eman den prozeduraren zenbakia, uzi zehatza —deuseztatzekoa, zenbatekoari buruzkoa edo biak—, egoera juridikoaren berdintasuna eta banku-kontuaren zenbaki bat, non diru-sarrerak egin ahal izango diren, behar izanez gero, eskaeraren oinarri den dokumentazioarekin batera, hala badagokio. Eskabide hori gehienez ere urtebeteko epean egin beharko da, ondoreak hedatu nahi zaizkion epaia irmo bihurtzen denetik.

3. Eskaera eta haren dokumentuak hamar egunerako helaraziko zaizkio ondoreak hedatu nahi zaizkion epaia eman den aurretiazko prozeduran kondenuatutako alderdiari, zeinak amore eman edo aurka egin ahal izango duen. Idazki horrekin batera, aurkakotzaren oinarri den dokumentazioa aurkeztu beharko du, edo, autoetan egonez gero, identifikatu. Epe barruan erantzuten ez badu, eskaerarekin ados dagoela ulertuko da.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Izapide gehiagorik gabe, hurrengo bost egunean autoa emango da, ondoreak hedatzeko eskaera osorik edo zati batean onartuz, eta, hala badagokio, zor den zenbatekoa finkatuko da, edo baztertu, eta ezin izango da aitortu kasuan kasuko epai irmoan definitutakoaz bestelako egoera juridikorik. Autoak onarpen osoa edo partziala ematen badu eta aurkakotza egon bada, 394. artikuluan prozesuko kostuak ezartzeari buruz ezarritako arauketa beteko da. Ondoreak hedatzeko eskaerari uko egiten bazaio, ez da kostuen gaineko kondena-pronuntziamendurik egingo, hargatik eragotzi gabe dagokion deklarazio-judiziora jo ahal izatea.

5. Ondoreak osorik edo zati batean hedatzea ebazten duen autoaren aurka, edo hedatzea ukatzen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, eta lehentasunezko izapidetzea izango du.

6. 548. artikuluan aurreikusitako epemugan borondatez betetzen ez bada, diru-sarrera eskatzaileak izendatutako kontuan eginez, ondoreak hedatzea erabakitzen duen autoa betearazteko eskatu ahal izango du alderdi interesdunak; horretarako titulu betearazletzat balioko du ondoreak hedatzea erabakitzen duen autoaren lekukotza.

520. artikulua. Judizialak edo arbitralak ez diren tituluetan oinarritutako akzio betearazlea.

1. 517. artikulua (2. apartatuaren 4.), 5.), 6.) eta 7.) zenbakietan aurreikusitako titulu betearazleak direnean, 300 eurotik gorako kopuru zehatzagatik soilik abiarazi ahal izango da betearazpena:

1.) Eskudirutan.

2.) Atzerri-diru bihurtzean, betiere diru horretan ordaintzeko betebeharra baimenduta dagoenean edo legeak ahalbidetzen duenean.

3.) Dirutan zenbatu daitekeen gauzan edo espeziean.

2. Apartatu horretan aurreikusitako hainbat titulu betearazle gehituz lortu ahal izango da aurreko apartatuan zehaztutako zenbatekoaren muga.

521. artikulua. Epai deklaratio hutsak eta epai eratzailak.

1. Ez da abiaraziko epai deklaratio hutsen betearazpenik, ezta epai eratzailena ere.

2. Epai eratzaila irmoek inskripzioak eta aldaketak ahalbidetu ahal izango dituzte erregistro publikoetan, betearazpena abiarazteko beharrik gabe, ziurtagiri bidez eta, kasua denean, manamendu judizial egoki bidez.

3. Epai eratzaila batek kondena-pronuntziamenduak ere badituenean, lege honetan haien zat aurreikusitako moduan betearaziko dira pronuntziamendu horiek.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Organo judizialak ofizioz bidaliko ditu Kontratazioaren Baldintza Orokorren Erregistrora abusuzko baldintza orokorren erabilera deuseztatzeko, bukarazteko edo zuzentzeko akzio kolektibo zein indibidualetan ematen diren epai irmoak, bertan inskribatzeko.

522. artikulua. Epai eratzaleei men egitea eta haiek betetzea. Beharrezkoak diren jardun judizialak eskatzea.

1. Pertsona eta agintari guztiek, bereziki erregistro publikoen arduradunek, men egin behar diote epai eratzaleetan xedatutakoari, bete behar dute haietan xedatutakoa, eta aintzat hartu behar dituzte haietatik sortzen diren egoera juridikoak, salbu eta erregistroko legeria espezifikoarekin bat etorritz erregistrotik bertatik eratorritako oztopoak daudenean.

2. Prozesuan alderdi izan direnek edo interes zuzena eta legitimoa egiaztatzen dutenek beharrezkoak diren jardunak eskatu ahal izango dizkiote auzitegiari, epai eratzaleak efikazak izan daitezen eta haietan xedatutakoari jar lekizkiokeen trabak gaindi daitezen.

II. KAPITULUA

Atzerriko titulu betearazleez

523. artikulua. Betearazte-indarra Espainian. Prozedurari aplikagarri zaion legea.

1. Atzerriko epai irmoek eta gainerako titulu betearazleek Espainian betearazpena ekartzeko, nazioarteko tratatuetan eta nazioarteko lankidetzak juridikoari buruzko lege-xedapenetan xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Espainian, lege honen xedapenen arabera betearaziko dira, kasu orotan, atzerriko epaiak eta titulu betearazleak, salbu eta beste zerbait xedatuz gero Espainian indarrean dauden nazioarteko tratatuek.

II. TITULUA

Ebazpen judizialen behin-behineko betearazpenaz

I. KAPITULUA

Behin-behineko betearazpenaz: xedapen orokorrak



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

524. artikulua. Behin-behineko betearazpena: demanda eta edukia.

1. Demanda edo eskaera soil bidez eskatuko da behin-behineko betearazpena, lege honen 549. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Lehen auzialdirako eskuduna den auzitegiak abiarazi eta gauzatuko du irmoak ez diren kondena-epaien behin-behineko betearazpena, betearazpen arrunta bezala.

3. Kondena-epaien behin-behineko betearazpenean, arruntean dituzten eskubide eta ahalmen prozesal berak izango dituzte alderdiek.

4. Irmoak ez diren bitartean edo, halakoak izanda, auzi-ihesean emandako epaia hutsaltzeko akzioa egikaritzeko lege honetan zehaztutako epeak igaro ez diren bitartean, bidezkoa izango da, soilik, erregistro publikoetan idazpenak inskribatzea edo ezereztea xedatzen edo ahalbidetzen duten epaien prebentziozko idatzoharra.

5. Lehentasunezko izaera izango du oinarritzko eskubideak babesten dituzten epaien behin-behineko betearazpenak.

525. artikulua. Behin-behinean betearazgarriak ez diren epaiak.

1. Ezein kasutan ez dira behin-behinean betearazteko modukoak izango:

1.) Aitatasunari, amatasunari, filiazioari, ezkontzaren deuseztasunari, banantzeari eta dibortzioari, gaitasunari eta egoera zibilarri eta adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenen aurkakotzari buruzko prozesuetan emandako epaiak, ezta nazioarteko oste kasuetan adingabeak itzultzeko edo bueltatzeko neurriei buruzkoetan eta ohorezko eskubideei buruzkoetan emandakoak ere, salbu eta prozesuaren objektu nagusiarekin lotutako ondarezko betebeharrak eta harremanak arautzen dituzten pronuntziamenduak.

2.) Borondate-deklarazio bat egitera kondenatzen duten epaiak.

3.) Jabetza industrialeko tituluen deuseztasuna edo iraungitzea deklaritzen duten epaiak.

2. Halaber, ez dira behin-behinean betearaziko atzerriko epai ez-irmoak, salbu eta aurkakoa esanbidez xedatzen bada Espainian indarrean dauden nazioarteko tratatuetan.

3. Ez dira behin-behinean betearaziko kalte-ordain izaerako pronuntziamenduak, ohorerako, pertsonaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak urratu izana deklaritzen duten epaietakoak.



II. KAPITULUA

Lehen auzialdian emandako kondena-epaien behin-behineko betearazpenaz

1. atala. Behin-behineko betearazpenaz eta hari aurka egiteaz

526. artikulua. Lehen auzialdiko kondena-epaien behin-behineko betearazpena. Legitimazioa.

Aurreko artikuluan aipatutako kasuetan izan ezik, lehen auzialdian emandako kondena-epaian aldeko pronuntziamendua lortu duenak aukera izango du, aldi berean kauzioa eman gabe, behin-behineko betearazpena eskatu eta lortzeko hurrengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

527. artikulua. Behin-behineko betearazpena eskatzea, hura abiaraztea eta errekursoak.

1. Behin-behineko betearazpena edozein unetan eskatu ahal izango da, apelazio-errekurtoa jarritzat hartzen duen ebazpena jakinarazten denetik edo, kasua denean, errekursoari atxikitzeko alderdi apelatuaren idazkia apelatzaileari helarazten zaionetik, baina, beti, errekursoan epaia eman baino lehen.

2. Behin-behineko betearazpena eskatzen denean autoak apelazioa ebazteko auzitegi eskudunari igorri ondoren, eskatzaileak aurretiaz eskatu beharko dio betearazpenerako beharrezkoa denaren lekukotza, eta eskaerarekin batera aurkeztu beharko du lekukotza hori.

Aurreko paragrafoan aipatutako auto-igorpenaren aurretik eskatu bada behin-behineko betearazpena, igorpena gauzatu aurretik egingo du lekukotza Justizia Administrazioaren letraduak.

3. Behin-behineko betearazpena eskatuta, auzitegiak abiarazi egingo du, salbu eta 525. artikuluko epaia bada edo eskatzailearen aldeko kondena-pronuntziamendurik ez badauka.

4. Apelazio-errekurtoa jarri ahal izango da behin-behineko betearazpena ukatzen duen autoaren aurka, eta lehentasunezko izaerarekin izapidetuko eta ebatziko da. Ezin izango da errekurtsorik jarri behin-behineko betearazpena abiarazten duen autoaren aurka, hargatik eragotzi gabe hurrengo artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik betearazpenpekoak formula dezakeen aurkakotza.

5. Ez dira betearazpenpekoaren kargura izango behin-behineko betearazpen-prozesuaren kostuak, baldin eta betearazpena abiarazi zuen autoan xedatutakoa bete badu hogeit eguneko epean, jakinarazi zaionetik zenbatuta.

528. artikulua. Behin-behineko betearazpenaren eta jardun betearazle zehatzen aurkakotza.

1. Behin-behineko betearazpenari abiarazita dagoenean soilik egin ahal izango dio aurka betearazpenpekoak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Honako kausa hauetan soilik oinarritu ahal izango da behin-behineko betearazpenaren aurkakotza, artikulua honen 4. apartatua ezarritakoari kalterik egin gabe:

1.) Kasu orotan, aurreko artikulua hautsiz abiarazi denean behin-behineko betearazpena.

2.) Epaia ez-diruzko kondenarena izanda, jardun betearazlearen izaera kontuan hartuta ezinezkoa edo oso zaila denean behin-behineko betearazpenaren aurreko egoera berrezartzea edo betearazpenpekoari konpentsazio ekonomikoa ematea eragindako kalte-galerak medeatuz, baldin eta epai hura errebokatu bada.

3. Epaia diruzko kondenarena bada, betearazpenpekoak ezin izango dio aurka egin behin-behineko betearazpenari, baizik eta premiamendu-prozeduraren jardun betearazle zehatzei soilik, uste duenean jardun horiek egoera bat sortuko dutela zeinean erabat ezinezkoa izango den berrezartzea edo kalte-galeren medeapen bidezko konpentsazio ekonomikoa ematea.

Neurri betearazle zehatzen aurkakotza hori formulatzean, betearazpenpekoak zehaztu egin beharko ditu beste neurri edo jardun betearazle batzuk, gauzagarriak direnak eta, bere ustez, aurka egiten dion jardunak edo neurriak sortuko lituzkeen egoeren antzekoak eragiten ez dituztenak; halaber, behar besteko kauzioa eskaini beharko du betearazpenaren atzerapenari erantzuteko, baldin eta auzitegiak neurri alternatiboak ez baditu onartzen eta diruzko kondenaren pronuntziamentua ondoren konfirmatzen bada.

Betearazpenpekoak neurri alternatiboak zehatzen ez baditu eta kauzioa ematea ere eskaintzen ez badu, ezein kasutan ez da bidezkoa izango betearazpenaren aurkakotza, eta Justizia Administrazioaren letratuak hala dekretatuko du, berehala. Dekretu horren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsua jarri ahal izango da, etete-ondorerik sortuko ez duena.

4. Aurreko apartatuetan aipatutako kausez gain, aurkakotzaren oinarria izan ahalko da epaian agindutakoa ordaintzea edo betetzea, dokumentu bidez justifikatu beharko dena, bai eta prozesuan hitzartu eta dokumentatu diren itunak edo transakzioak egotea behin-behineko betearazpena saihesteko. Betearazpen arrunterako edo behin betikorako xedatutakoaren arabera izapidetuko dira aurkakotza-kausa horiek.

529. artikulua. Behin-behineko betearazpenaren edo jardun betearazle zehatzen aurkakotza bideratzea.

1. Behin-behineko betearazpenari aurka egiteko idazkia betearazpen-auzitegiari aurkeztu beharko zaio, betearazpenaren abiaraztea edo aurkaratzen dituen jardun zehatzak erabakitzen dituen ebazpena jakinarazi eta hurrengo bost egunen barruan.

2. Betearazleari eta behin-behineko betearazpenean pertsonatuta daudenei helaraziko zaizkie betearazpenari aurka egiteko idazkia eta harekin batera aurkeztutako dokumentuak, komenigarritzat jotzen dutena adieraz eta egiazta dezaten bost eguneko epean.

3. Ez-diruzko kondena-epaiaren behin-behineko betearazpena bada eta 528. artikularen 2. apartatuaren bigarren kausa, behin-behineko betearazpenari aurka egitekoa, alegatu bada, eskatzaileak, aurkakoak alegatutako guztia aurkaratzeaz gain, behar besteko kauzioa eskaini ahal izango du, epaia



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

errebokatuz gero berma dadin aurreko egoera berrezarriko dela edo, hori ezinezkoa bada, sortutako kalte-galerak medeatuko direla.

Kauzioa eskudirutan eratu ahal izango da, edota kreditu-erakundeak edo elkarren bermerako sozietateak emandako iraupen zehaztugabeko eta lehenengo errekerimenduan ordaindu beharreko abal solidario bidez, edota auzitegiaren iritziz, dena delako zenbatekoaren berehalako erabilgarritasuna, kasua denean, bermatzen duen beste edozein bitartekoz.

530. artikulua. Behin-behineko betearazpenaren eta neurri betearazle zehatzen aurkakotzari buruzko erabakia. Errekurriezintasuna.

1. 528. artikulua 2. apartatuaren lehenengo kausan oinarritutako aurkakotza baiesten denean, auto bidez ebatziko da behin-behineko betearazpenaren aurkakotza, non deklaratu baita ez dela onartzen behin-behineko betearazpen horrek aurrera jarraitzea, eta kendu egingo dira hartu ahal izan ziren enbargoak eta trabak eta berme-neurriak.

2. Aurkakotza formulatu bada ez-diruzko kondena behin-behinean betearaztean, auzitegiak irizten dionean kondena geroago errebokatuz gero ezinezkoa edo oso zaila izango litzatekeela behin-behineko betearazpenaren aurreko egoera berrezartzea edo eskatzailea emateko prest dagoen kauzioaren bidez medeapena bermatzea, autoa emango du, betearazpena eteten duena, baina indarrean jarraituko dute enbargoak eta hartutako berme-neurriak, eta hartu egingo dira bidezkoak diren berme-neurriak, 700. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Kondena diruzkoa izanda aurkakotza jardun betearazle zehatzei dagokienez formulatu denean, baietsi egingo da aurkakotza hori, baldin eta auzitegiak irizten badio gauzagarriak eta antzeko efikaziakoak direla behin-behineko betearazpenpekoak zehaztutako jardun edo neurri alternatiboak, edota, hark eskainita betearazpenaren atzerapenari erantzuteko ustez behar bestekoa den kauzioa, auzitegiak hautematen badu ezen, kondena errebokatuz gero, erabat ezinezkoa dela betearazpenaren aurreko egoera berrezartzea edo behin-behineko betearazpenpekoari konpentsazio ekonomikoa ematea kalte-galerak geroago medeatuz.

Aurkakotza hori baiesteak haren objektu den jardura betearazle zehatza gauzatzearen ukapena ekarriko du soilik, eta premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

4. Ezin izango da errekurtsorik jarri behin-behineko betearazpenaren edo neurri betearazle zehatzen aurkakotzari buruz erabakitzen duen autoaren aurka.

531. artikulua. Behin-behineko betearazpenaren etendura, diruzko kondenak direnean.

Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez etengo du diru-zenbateko likidoak ordaintzeko kondena-pronuntziamenduen behin-behineko betearazpena, baldin eta betearazpenpekoak epaitegiaren eskura jartzen baditu, betearazleari entrega dakizkion, hurrengo atalean xedatutakoari kalterik egin gabe, kondenan ezarri zaion zenbatekoa, gehi kasuan kasuko korrituak eta betearazpena abiarazi zeneko kostuak. Korrituak likidatuta eta kostuak tasatuta, behin-behineko betearazpenaren ardura duen Justizia



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Administrazioaren letraduak erabakiko du betearazpenak aurrera jarraitzeari edo artxibatzeari buruz. Ondore horretarako emandako dekretuari zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jar dakioke betearazpena baimendu zuen auzitegiaren aurrean.

2. atala. Behin-behinean betearazitako epaia errebokatzeaz edo konfirmatzeaz

532. artikulua. Behin-behinean betearazitako ebazpena konfirmatzea.

Behin-behinean betearazitako pronuntziamenduak konfirmatzen dituen epaia emanaz gero, betearazpenak aurrera jarraituko du oraindik bukatu ez bada, salbu eta betearazleak esanbidez atzera egiten duenean.

Epaia konfirmatzailea errekurritzeko modukoa ez bada edo errekurritzen ez bada, betearazpenak, atzera egin ezean, aurrera jarraituko du behin betiko gisa.

533. artikulua. Diru-zenbatekoa ordaintzeko kondenak errebokatzea.

1. Behin-behinean betearazitako pronuntziamendua dirua ordaintzeko kondena izan eta erabat errebokatzen bada, Justizia Administrazioaren letraduak largetsi egingo du behin-behineko betearazpena, eta betearazleak beharko du itzuli jasotako zenbatekoa, halakorik jaso badu, betearazpenpekoari itzuli hark ordaindu zituen behin-behineko betearazpenaren kostuak, eta hari medeatu betearazpen horrek sortutako kalte-galerak.

2. Epaia errebokazioa partziala bada, soilik itzuliko da betearazleak jasotako zenbatekoaren eta konfirmazio partzialetik ondorioztatzen denaren arteko aldea, gehi igoera bat, ondorioztatzen dena alde horri diruaren legeko korritu-tasa aplikatuta zenbatekoa jasotzen denetik urtero.

3. Errebokatze-epaia irmoa ez bada, behin-behineko betearazpena bideratu zuen auzitegiaren aurrean eskatu ahal izango dira, premiamendu-bidea erabiliz, artikulua honen aurreko apartatueta aurreikusitako zenbatekoak eta gehikuntzak. Kalte-galeren likidazioa lege honen 712. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera egingo da.

Itzultzeko, ordaintzeko eta kalte-ordaina emateko betebeharra duenak aurka egin ahal izango die premiamendu-jardun zehatzei, 528. artikulua 3. apartatua ezarritako moduan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

534. artikulua. Errebokazioa, kondenak diruzkoak ez direnean.

1. Behin-behinean betearazitako ebazpen errebokatuak ondasun jakin bat entregatzera kondenatu badu, betearazpenpekoari itzuliko zaio hura, eduki zuen kontzeptu berean, gehi errentak, fruituak edo produktuak edo ondasunaren erabileraren diruzko balioa.

Itzulketa egitez edo zuzenbidez ezinezkoa bada, betearazpenpekoak eskatu ahal izango du kalte-galerak ordaintzeko, eta 712. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedurarekin bat etorritik likidatuko dira.

2. Egiteko kondena duen ebazpen bat errebokatzen bada eta hura egina badago, eskatu ahal izango da egindakoa desegiteko eta sortutako kalte-galerak ordaintzeko.

3. Gauza itzultzeko, gaizki egindakoa suntsitzeko edo kalte-galerak ordainarazteko —aurreko apartatueta aurreikusitako kasuak—, betearazpen-bidea bidezkoa izango da behin-behinekorako eskuduna den auzitegiaren aurrean, baldin eta errebokatze-epaia irmoa ez bada.

4. Aurreko apartatueta aurreikusitako kasuetan, itzultzeko, desegiteko edo kalte-ordaina emateko betebeharra duenak aurka egin ahal izango du, betearazpen-bidearen barruan, lege honen 528. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

III. KAPITULUA

Bigarren auzialdian emandako kondena-epaien behin-behineko betearazpenaz

535. artikulua. Bigarren auzialdian emandako epaiak behin-behinean betearaztea.

1. Lege honen aurreko kapituluaren xedatutakoarekin bat etorritik eraenduko da irmoak izan ez eta bigarren auzialdian eman diren epaien behin-behineko betearazpena, bai eta betearazpen horren aurkakotza ere.

2. Aurreko apartatueta aipatutako kasuetan, edozein unetan eskatu ahal izango da behin-behineko betearazpena, kasazio-errekurtsoa jarritzat hartzen duen ebazpena jakinarazten denetik, baina, beti, errekurtsoa horretan epaia eman baino lehen.

Lehen auzialdian prozesuaren ardura izan duen auzitegiaren aurrean aurkeztuko da eskaera, behin-behinean betearaz dadila lortu nahi den epaiaren ziurtagiriarekin batera eta beharrezkotzat jotzen diren partikularren lekukotzarekin batera; ziurtagiri eta lekukotza horiek lortu beharko dira apelazio-epaia eman duen auzitegiarengandik edo, kasua denean, haren aurka jarri den errekurtsoaz arduratzeko eskumena duen organoarengandik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Lege honen 528. artikulutik 531.era xedatutakoarekin bat etorriz eraenduko da, bigarren auzialdian, behin-behineko betearazpenaren eta neurri betearazle zehatzen aurkakotza.

536. artikulua. Bigarren auzialdian konfirmatzea behin-behinean betearazitako ebazpena.

Behin-behinean betearazitako bigarren auzialdiko epaiaren pronuntziamendu guztiak konfirmatuz gero, 532. artikuluaaren bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraituko zaio.

537. artikulua. Bigarren auzialdian behin-behinean betearazitako ebazpena errebokatzea.

Bigarren auzialdian emandako eta behin-behinean betearazitako epaia errebokatzen denean, 533. eta 534. artikuluaak aplikatuko dira.

III. TITULUA

Betearazpenaz: xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Betearazpenaren alderdiez

538. artikulua. Nahitaezko betearazpenaren alderdiak eta subjektuak.

1. Betearazpen-prozesuan alderdi dira betearazpena abiarazteko eskatzen eta lortzen duen edo duten pertsonak, bai eta abiarazitako betearazpena jasan behar duen pertsona edo pertsonak ere.

2. 540. artikulutik 544.era xedatutakoari kalterik egin gabe, titulu betearazlean hartzekodun gisa agertzen denaren eskariz, honako subjektu hauen aurka baino ezin izango da abiarazi betearazpena:

1.) Titulu berean zordun gisa azaltzen denaren aurka.

2.) Titulu betearazlean zordun gisa azaldu gabe, zorrari pertsonalki erantzuten dionaren aurka, dela lege-xedapenagatik, dela dokumentu publiko bidez egiaztatutako fidantzamenduaren arabera.

3.) Titulu betearazlean zordun gisa azaldu gabe, jardunaren oinarri den zorra ordaintzeari bereziki lotutako ondasunen jabe denaren aurka, betiere lotura hori legetik eratortzen bada edo dokumentu fede-



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

emaila bidez egiaztatzen bada. Pertsona horiei dagokienez, bereziki lotutako ondasunetara mugatuko da betearazpena.

3. Legeak betearazpenpekoari ematen dizkion defentsa-bideak ere erabili ahal izango dituzte beren aurka betearazpena abiarazita ez duten pertsonak, auzitegiak xedatuz gero hura haien ondasunetara heda dadila, irizten diolako, ondasun horiek betearazpenpekoarenak izan ez arren, lotuta daudela jardunaren oinarri den betebeharraren betetzeari.

4. Betearazleak auzitegia eramaten badu betearazpena hedatzera tituluak edo legeak baimendu gabeko pertsonen edo ondasunen aurka, kalte-galeren erantzulea izango da.

539. artikulua. Ordezkaritza eta defentsa. Betearazpenaren kostuak eta gastuak.

1. Letraduak zuzendu beharko ditu betearazlea eta betearazpenpekoa, eta prokuradoreak ordezkatu, salbu eta profesional horien esku-hartzea nahitaezkoa ez den prozesuetan eman direnean betearazi beharreko ebazpenak.

Aurkakotzarik izan ez duten prozesu monitorioetatik eratorritako betearazpenerako, beharrezkoa izango da abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea, betiere 2.000 eurotik gorakoa bada abiarazten den betearazpenaren zenbatekoa.

Bitartekaritza-akordio batetik edo laudo arbitral batetik eratorritako betearazpenerako, beharrezkoa izango da abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea, betiere 2.000 eurotik gorakoa bada abiarazten den betearazpenaren zenbatekoa.

2. Lege honek kostuei buruzko pronuntziamendua berariaz aurreikusten duen betearazpen-prozesuaren jardunetan, alderdiek ordaindu beharko dituzte lege honen 241. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik dagozkien gastuak eta kostuak, hargatik eragotzi gabe auzitegiak edo kasua denean Justizia Administrazioaren letraduak kostuei buruz erabaki ostean bidezkoak diren itzulketak.

Berariaz ezarri beharrik gabe, betearazpenpekoaren kontura izango dira aurreko paragrafoan aipatzen ez diren betearazpen-prozesuaren kostuak, baina, haiek likidatu arte, betearazleak ordaindu beharko ditu sortzen doazen gastuak eta kostuak, salbu eta betearazpenpekoaren edo beste subjektu batzuen eskariz egindako jardunei dagozkienak, kasuan kasuko jardunaren eskatzaileak ordaindu beharko baititu.

540. artikulua. Betearazlea eta betearazpenpekoa, ondorengotza dagoenean.

1. Betearazpenari abiarazpena edo jarraipena eman ahal izango zaio titulu betearazlean betearazle gisa ageri denaren ondorengoa dela egiaztatzen duenaren alde eta titulu horretan betearazpenpeko gisa ageri denaren ondorengoa dela egiaztatzen duenaren aurka.

2. Aurreko apartatuaren ondoretarako ondorengotza egiaztatzeko, hura jasotzen duten dokumentu fede-emailak aurkeztu beharko zaizkio auzitegiari. Baliozkoak izateko galdatutako betekizunak



betetzeagatik ondore horietarako nahikoak direla irizten badio auzitegiak, betearazpena abiaraziko du, izapide gehiagorik gabe, aurkeztutako dokumentuen arabera ondorengo denaren alde edo aurka.

Betearazpena abiarazita badago jada, ondorengotza jakinaraziko zaio dagokionari, hots, betearazpenpekoari edo betearazleari, eta betearazpenak aurrera jarraituko du ondorengo denaren alde edo aurka.

3. Ondorengotza dokumentu fede-emaileetan jasota ez badago edo auzitegiak nahikotzat jotzen ez baditu, aginduko du Justizia Administrazioaren letraduak helaraz diezaiela tituluan betearazpenpeko edo betearazle gisa jasota dagoenari eta haren ondorengo izan nahi duenari ondorengotua izan den betearazleak edo betearazpenpekoak egindako eskabidea, eta entzunaldia emango die 15 eguneko eperako. Alegazioak aurkeztuta edo haiek egin gabe epea igarota, auzitegiak ondorengotzari buruz bidezkoa dena erabakiko du, betearazpena abiaraztearen edo harekin jarraitzearen ondoretarako soilik.

541. artikulua. Betearazpena irabazpidezko ondasunetan.

1. Ez da betearazpenik abiaraziko irabazpidezko erkidegoaren aurka.

2. Ezkontideetako batek hartutako zorren ondorioz bideratzen denean betearazpena baina irabazpidezko sozietateak erantzun behar badu haiengatik, ezkontide zordunaren aurka soilik zuzendu ahal izango da demanda betearazlea; baina beste ezkontideari jakinarazi beharko zaio irabazpidezko ondasunak enbargatu direla, eta helarazi egin beharko zaizkio demanda betearazlea eta betearazpena abiarazten duen autoa, epe arruntaren barruan egin ahal izan diezaion aurka betearazpenari. Betearazpenaren aurkakotza oinarritu ahal izango da betearazpenpekoari dagozkion kausa berberetan, bai eta betearazpena abiarazi duen zorrari irabazpidezko ondasunekin erantzun behar ez izatean ere. Aurkakotza azken kausa horretan oinarritzen denean, hartzekodunari egokituko zaio irabazpidezko ondasunen erantzukizuna frogatzea. Erantzukizun hori egiaztatu ezean, betearazpenpekoaren ezkontideak eskatu ahal izango du ezkontza-sozietatea desegiteko hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera.

3. Baldin eta ezkontideetako baten zor propioen ondorioz bideratu bada betearazpena eta ondasun erkideak pertsegitzen badira ondasun pribatiborik ez dagoelako edo nahikoak ez direlako, ezkontide ez-zordunari jakinarazi beharko zaio haien enbargoa. Kasu horretan, ezkontza-sozietatea desegitea aukeratzek badu ezkontide horrek, auzitegiak, ezkontideei entzunda, bidezkoa dena ebatziko du ondarearen zatiketari buruz, eta, kasua denean, erabakiko du gauza dadila lege honetan xedatutakoaren arabera, eta, bien bitartean, eten egingo da betearazpena ondasun erkideei dagokienez.

4. Aurreko apartatueta aurreikusitako kasuetan, enbargoa jakinarazi zaion ezkontideak aukera izango du irabazpidezko erkidegoaren interesak defendatzeko betearazpenpekoak eskura dituen errekursoak jartzeko eta haren aurkaratze-bideak erabiltzeko.

542. artikulua. Betearazpena zordun solidarioaren aurka.

1. Zordun solidario baten edo batzuen aurka soilik lortutako epaiek, laudoek eta beste titulu betearazle judizialek ez dute titulu betearazle baliorik izango prozesuan alderdi izan ez diren zordun solidarioen aurka.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Titulu betearazleak estrajudizialak badira, zordun solidarioaren aurka betearazpena abiarazi ahal izango da, soilik, hura azaltzen bada haietan edo zorraren solidaritatea egiaztatu eta legean xedatutakoaren arabera betearazpena dakarren beste dokumentu batean.

3. Titulu betearazlean hainbat zordun solidario azaltzen direnean, eskatu ahal izango da betearazpena abiaraz dadila zordun haietakoren baten edo batzuen aurka edo haien guztien aurka, zorraren guztizko zenbatekoagatik gehi korritu eta kostuengatik.

543. artikulua. Aldi baterako elkarteak edo entitateak.

1. Zordun gisa enpresa edo entitate desberdinen elkarteak edo taldeak azaltzen direnean titulu betearazlean, haietako bazkideen, kideen edo partaideen aurka zuzenean abiarazi ahal izango da betearazpena, soilik, haien arteko akordioz edo lege-xedapenez solidarioki erantzuten dutenean elkartearen edo taldearen egintzengatik.

2. Legeak berariaz ezartzen badio izaera subsidiarioa aurreko apartatuan aipatutako elkarteetako edo taldeetako kideen edo partaideen erantzukizunari, nahitaezkoa izango da haien kaudimengabezia egiaztatzea betearazpena abiaraz dadin haien aurka.

544. artikulua. Nortasun juridikorik gabeko entitateak.

Subjektu bereizi gisa trafikoan diharduten nortasun juridikorik gabeko entitateen aurkako titulu betearazleak direnean, entitatearen izenean trafiko juridikoan jardun duten bazkideen, kideen edo kudeatzaileen aurka abiarazi ahal izango da betearazpena, betiere, auzitegiaren iritziz, behar bezala egiaztatzen bada bazkide-, kide- edo kudeatzaile-izaera eta entitatearen izenean hirugarrenen aurrean jardun izana.

Jabetza horizontaleko araubidean dauden higiezinaren jabeen erkidegoei ez zaie aplikatuko aurreko paragrafoan xedatutakoa.

II. KAPITULUA

Auzitegi eskudunaz

545. artikulua. Auzitegi eskuduna. Ebazpenen forma nahitaezko betearazpenean.

1. Titulu betearazleak badira ebazpen judizialak, edota Justizia Administrazioaren letraduak emandako ebazpenak, zeinei lege honek titulu betearazlearen izaera aitortzen dien, edota judizialki homologatutako edo onetsitako transakzioak eta akordioak, betearazpen-agindu orokorra eta haren abiaraztea dauzkan



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

autoa emateko eskudun izango da lehen auzialdian edo transakzioa edo akordioa homologatu edo onetsi zenean auzigaiaz arduratu zen auzitegi bera.

2. Titulua laudo arbitrala edo bitartekaritza-akordioa denean, betearazpena ukatzeko edo baimentzeko nahiz kasuan-kasuan hura abiarazteko eskudun izango da lehen auzialdiko epaitegia, laudoa eman zen edo bitartekaritza-akordioa sinatu zen tokikoa.

3. Betearazpena oinarritzen denean aurreko apartatuetan aipatutako tituluetatik bestelakoetan, eskudun izango da lehen auzialdiko epaitegia, lege honen 50. eta 51. artikuluetan xedatutakoaren arabera egokitzen den tokikoa. Halaber, betearazpena eskatu ahal izango da, betearazlearen aukeran, betebeharra bete behar den tokiko lehen auzialdiko epaitegiaren aurrean, tituluaren arabera, edota betearazpenpekoaren ondasun enbargarriak dauden tokiko edozein epaitegiaren aurrean; inoiz ez dira aplikagarriak izango I. liburuaren II. tituluaren II. kapituluaren 2. ataleko esanbidezko edo isilbidezko sumisioari buruzko erregelak.

Hainbat betearazpenpeko daudenean, eskudun izango da, aurreko paragrafoarekin bat etorritik, edozein betearazpenpekoari dagokionez eskudun den auzitegia, betearazlearen aukeran.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, bereziki hipotekatutako edo pignoraturako ondasunen gainekoa soilik denean betearazpena, lege honen 684. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da eskumena.

4. Aurreko apartatuetan aipatutako kasu guztietan, Justizia Administrazioaren letraduari egokituko zaio betearazpenaren abiaraztea betearazpenpekoaren zein ondasunetara hedatu behar den zehaztea, abiaraztearen eraginkortasunerako beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea, lege honen 589. eta 590. artikuluetan ezarritakoaren arabera beharrezkoak diren ondare-ikerketarako bitartekoak, eta, halaber, bidezkoak diren neurri betearazle zehatzak hartzea aginduz.

5. Betearazpen-prozesuetan, autoaren forma hartuko dute auzitegiaren ebazpenek, hain zuzen ere:

1.) Betearazpena baimentzen eta abiarazten duen betearazpen-agindu orokorra dutenek.

2.) Zio prozesalean edo funtsari buruzkoetan oinarritutako behin betiko betearazpenaren aurkakotzari buruz erabakitzen dutenek.

3.) Jabari-hirugarrengotzak ebazten dituztenek.

4.) Lege honetan zehazten diren gainerakoek.

6. Dekretu-forma hartuko dute Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpenek, baldin eta zehazten badute betearazpenpekoaren zein ondasunetara hedatu behar den betearazpenaren abiaraztea, eta lege honetan zehazten diren gainerakoek.

7. Auzitegiak probidentzia bidez erabakiko du berariaz horrela zehazten den kasuetan, eta, gainerakoetan, Justizia Administrazioaren letraduak antolaketa-eginbide bitartez emango ditu bidezkoak diren ebazpenak, salbu eta dekretu bidez ebatzi behar denean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

546. artikulua. Lurralde-eskumena ofizioz aztertzea.

1. Betearazpena abiarazi aurretik, auzitegiak ofizioz aztertuko du ea lurralde-eskumenik duen, eta, titulu betearazlea eta demandarekin batera aurkeztutako gainerako dokumentuak aintzat hartuta irizten badio ez duela lurralde-eskumenik, autoa emango du, betearazpena abiarazteaz abstenitzen duena eta demandatzaileari zehazten diona zein auzitegiaren aurrean aurkeztu behar duen demanda. Ebazpen hori errekurragarria izango da 552. artikuluan 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

2. Behin betearazpena abiarazita, auzitegiak ezin izango du ofizioz berrikusi bere lurralde-eskumena.

547. artikulua. Deklinatoria nahitaezko betearazpenean.

Betearazpenpekoak auzitegiaren eskumena aurkaratu ahal izango du, betearazpen-prozesuaren lehenengo jakinarazpena hartzen duenetik hurrengo bost egunen barruan deklinatoria proposatuz.

Lege honen 65. artikuluan aurreikusitakoaren arabera bideratuko eta erabakiko da deklinatoria.

III. KAPITULUA

Betearazpena abiarazteaz

548. artikulua. Ebazpen prozesalak edo arbitralak edo bitartekaritza-akordioak betearazteko itxaronaldia.

Ez da abiaraziko ebazpen prozesalen edo arbitralen edo bitartekaritza-akordioen betearazpena, kondena-ebazpena irimokatu edo hitzarmena onesteko edo akordioa sinatzeko ebazpena betearazpenpekoari jakinarazi eta hurrengo hogeit hamar egunen barruan.

549. artikulua. Demanda betearazlea. Edukia.

1. Alderdi-eskariz soilik abiaraziko da betearazpena demanda-forman, eta bertan adieraziko da:

1.) Zer titulutan oinarritzen den betearazlea.

2.) Zer babes betearazle lortu nahi den alegatzen den titulu betearazleari dagokionez; kasua denean, zer zenbateko erreklamatzeko den zehaztuko da lege honen 575. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.) Betearazpenpekoaren ondasunetatik, ezagutzen dituenetatik, zein diren enbargatzeko modukoak eta, kasua denean, ea uste duen nahikoa direla betearazpenaren helbururako.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Kasua denean, zer lokalizazio- eta ikerketa-neurri eskatzen dituen lege honen 590. artikulua babesean.

5.) Betearazpena zein pertsonaren edo pertsonen aurka abiarazi nahi den, haien identifikazio-inguruabarrak adierazita, tituluan zordun gisa azaltzen direlako edo lege honen 538. artikulutik 544.era artekoetan xedatutakoaren arabera betearazpenpean daudelako.

2. Titulu betearazlea Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpen bat denean edo betearazpenaz arduratzeko auzitegi eskudunak emandako epai bat edo ebazpen bat, demanda betearazlea mugatu ahal izango da betearazpena abiarazteko eskaerara, eta identifikatu egin beharko da betearazi nahi den epaia edo ebazpena.

3. Utzarazpen mota guztietako kondena-epaian edota errekerimenduari aurka egin ezean aipatutako utzarazpena amaitzean duten dekretuetan, utzarazpen-demandan utzarazpena betearazteko egindako eskaera nahikoa izango da ebazpen horiek zuzenean betearazteko, epaian bertan seinalatutako egun eta ordu zehatzean edo demandatuari errekerimendua egiteko agintzean finkatutako egun eta ordu zehatzean botatzeari ekiteko beste izapiderik egin beharrik gabe.

4. Aurreko artikuluan aipatutako legezko itxaronaldia ez da aplikatuko zor diren errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatik edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatik ematen diren utzarazte-kondenen ebazpenak betearaztean; kasu horietarako aurreikusitakoaren arabera eraenduko da hura.

Hala ere, ohiko etxebizitza denean, botatzea gauzatu aurretik, lege honek 441 artikuluko 5., 6. eta 7. apartatuetan xedatutakoarekin bat jardun beharko da.

550. artikulua. Demanda betearazlearekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak.

1. Demanda betearazlearekin batera, honako hauek aurkeztuko dira:

1.) Titulu betearazlea, salbu eta betearazpena oinarritzen denean autoetan jasota dagoen epaian, dekretuan, akordioan edo transakzioan.

Titulua laudo bat denean, aurkeztu egin beharko dira, orobat, hitzarmen arbitrala eta hura alderdiei jakinarazi zaiela egiaztatzen duten dokumentuak.

Titulua eskritura publiko bihurtutako bitartekaritza-akordio bat denean, aurkeztu beharko da, orobat, eratze-saioaren eta prozeduraren bukaeraren akten kopia.

2.) Ahalordetze judizialen erregistro elektronikoaren ziurtagiria edo erregistro horrek emandako zenbakiaren erreferentzia, betiere jardunetan jada jasota ez badago, epaien, transakzioen edo judizialki onetsitako akordioen betearazpena eskatzen denean.

3.) Ez-diruzko zorak dirutan zenbatzeko aplikatutako prezioak edo kotizazioak egiaztatzen dituzten dokumentuak, baldin eta datu ofizialak edo publikoki ezagunak ez badira.

4.) Legeak betearazpena abiarazteko galdatzen dituen gainerako dokumentuak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Halaber, demanda betearazlearekin batera aurkeztu ahal izango dira dokumentu guztiak, betearazleak betearazpena hobeto garatzeko baliagarritzat eta komenigarritzat jotzen dituenak eta hura abiarazteko datu interesgarriak dituztenak.

551. artikulua. Betearazpen-agindu orokorra eta betearazpenaren abiaraztea.

1. Demanda betearazlea aurkeztuta, auzitegiak auto bat emango du, betearazpen-agindu orokorra daukana eta betearazpena abiarazten duena, betiere aurrebaldintza eta betekizun prozesalak betetzen badira, titulu betearazleak inolako forma-irregularitasunik ez badu, ez baditu abusuzkotzat jotzen betearazpenaren oinarri diren edo zenbateko galdagarria zehazten duten titulu estrajudizialetan jasotako klausulak, eta eskatzen diren betearazpen-egintzak tituluaren izaerarekin eta edukiarekin bat badatoz.

Aldez aurretik, Justizia Administrazioaren letratuak dagokion kontsulta egingo dio Konkurtso Erregistro Publikoari, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren 600. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ondoretarako.

2. Aipatutako autoak adieraziko du:

1.) Zein pertsonaren edo pertsonen alde abiarazten den betearazpena, eta zein pertsonaren edo pertsonen aurka abiarazten den hura.

2.) Ea modu mankomunatuan edo solidarioan abiarazten den betearazpena.

3.) Kasua denean, kontzeptu guztiengatik zein zenbatekogatik abiarazten den betearazpena.

4.) Ea alderdiei edo betearazpenaren edukiari lotuta egin behar diren zehaztapenak, titulu betearazlean xedatutakoaren arabera, eta, era berean, zorraren erantzule pertsonalei lotuta edo hura ordaintzeari bereziki lotutako ondasunen jabeek edo betearazpena hedatu behar zaienei lotuta egin beharrekoak, lege honen 538. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.) Betearazpenaren oinarria enpresaburu edo profesional baten eta kontsumitzaile edo erabiltzaile baten artean egindako kontratu bat denean, betearazpenaren oinarri diren eta zenbateko galdagarria zehazten duten klausulak, titulu betearazle estrajudizialen barrukoak, ez direla abusuzkoak.

3. Epaileak edo magistratuak autoa emanda, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letratuak, betearazpena abiarazten duen autoaren egunean bertan edo hurrengo egun baliodunean, dekretu bat emango du, honako hauek izango dituenak:

1.) Bidezkoak diren betearazpen-neurri zehatzak, posible izanez gero ondasunen enbargoa barnean hartuta.

2.) Betearazpenpekoaren ondasunak lokalizatzeko eta ikertzeko bidezkoak diren neurriak, 589. eta 590. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3.) Zordunari egin behar zaion ordaintze-errekerimenduaren edukia, legeak errekerimendu hori ezartzen duen kasuetan, betiere laguntza judizialeko kidegoko funtzionarioen bidez edo alderdi betearazlearen prokuradorearen bidez, hark hala eskatuz gero, egiten bada.

Justizia Administrazioaren letraduak Konkurtso Erregistro Publikoari ezagutaraziko dio badela betearazpena abiarazten duen autoa, eta berariaz zehaztuko du zer identifikazio fiskaleko zenbakia duen betearazpena abiarazi zaion zordunak, pertsona fisikoa zein juridikoa izan. Konkurtso Erregistro Publikoak betearazpenaz arduratzen ari den epaitegiari jakinaraziko dio konkurtso-legerian aurreikusitako ondoretarako jakinarazi den identifikazio fiskaleko zenbakiari lotuta egiten den edozein idazpen. Justizia Administrazioaren letraduak Konkurtso Erregistro Publikoari ezagutaraziko dio betearazpen-prozeduraren amaiera, hura gertatzen denean.

4. Ezin izango da errekurtsorik jarri betearazpena baimentzen eta abiarazten duen autoaren aurka, hargatik eragotzi gabe betearazpenpekoak formula dezakeen aurkakotza. Autoaren barruan 2. apartatuaren 5. zenbakizkoan aurreikusitako abusuzkotasun-azterketa sartzen denean, zordunari berariaz adieraziko zaio balorazio horren aurka egin dezakeela, eta ohartaraziko zaio ezen, garaiz eta behar bezala egiten ez badu, ezin izango duela aurkaratu geroagoko une batean.

5. Justizia Administrazioaren letraduak emandako dekretuaren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsua jarri ahal izango da, etete-ondorerik gabe, betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiaren aurrean.

552. artikulua. Betearazpena abiaraztea ukatzea. Ofiziozko kontrola. Errekurtsoak.

1. Auzitegiak irizten badio ez direla betetzen betearazpena abiarazteko legez galdatutako aurrebaldintzak eta betekizunak, autoa emango du, betearazpena abiaraztea ukatzen duena.

Auzitegiak ofizioz aztertuko du ea 557.1 artikuluan aipatutako titulu betearazleetakoren bateko klausularen bat abusuzko gisa kalifika daitekeen. Hautematen duenean klausuleetakoren bat hala kalifika daitekeela, entzunaldia emango die alderdiei, hamabost egunerako. Haiei entzunda, bidezkoa dena erabakiko du, bost egun balioduneko epean, 561.1.3.) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

2. Betearazpena abiaraztea ukatzen duen autoa zuzenean apelagarria izango da, eta hartzekodunarekin soilik bideratuko da apelazioa. Era berean, hartzekodunak, hala aukeratuz gero, berraztertze-errekurtsoaren saiakera egin ahal izango du apelaziokoa jarri aurretik.

3. Behin betearazpena abiaraztea ukatzen duen autoa irmoa izanda, kasuan kasuko prozesu arruntean soilik baliatu ahal izango ditu hartzekodunak bere eskubideak, betiere hura eragotzi ez badu betearazpen-demandaren oinarri zen epai edo ebazpen irmoaren gauza epaituak.

4. Betearazpenaren oinarria enpresaburu edo profesional baten eta kontsumitzaile edo erabiltzaile baten artean egindako kontratu bat denean, eta auzitegiak, ofizioz aztertuta, ikusten badu betearazpenaren oinarri diren edo eska daitekeen zenbatekoa zehaztu duten klausuletak bat, 557.1 artikuluan aipatutako titulu betearazletako batean jaso, abusuzkotzat jo ahal dela, entzunaldia emango die alderdiei, hamabost egunerako. Haiei entzunda, bidezkoa dena erabakiko du, bost egun balioduneko epean, 561.1.3.) artikuluan



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

aurreikusitakoarekin bat etorritz. Behin eztabaida ebazten duen autoa irmoa izanda, abusuzkotasunari buruzko pronuntziamenduak gauza epaituaren efikazia izango du.

553. artikulua. Jakinarazpena.

Betearazpenpekoari edo, kasua denean, hura ordezkatzeko duen prokuradoreari aldi berean jakinaraziko zaio, demanda betearazlearen kopiarekin batera, betearazpena baimentzen eta abiarazten duen autoa, bai eta kasua denean Justizia Administrazioaren letraduak emandako dekretua ere, zitaziorik edo epatzerik gabe, edozein unetan pertsonatu dadin betearazpeneari; kasu horretan, harekin gauzatuko dira geroagoko jardunak.

554. artikulua. Berehalako neurriak betearazpena abiarazteko autoaren ostean.

1. Ordaintze-errekerimendua ezartzen ez den kasuetan, berehala gauzatuko dira 551. artikuluan 3. apartatuaren 2.) zenbakian aipatutako neurriak, aldez aurretik betearazpenpekoari entzun gabe eta ondore horretarako emandako dekretuaren jakinarazpenaren zain egon gabe.

2. Ordaintze-errekerimendua egin behar izan arren, aurreko apartatuan aurreikusitako moduan jardungo da betearazleak hala eskatzen duenean ere, betiere justifikatuz gero, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduaren iritziz, ondasunak lokalizatzeko eta ikertzeko edozein atzerapenek zapuztu dezakeela betearazpenaren amaiera ona.

555. artikulua. Betearazpenak metatzea.

1. Alderdietako edozeinen eskariz edo ofizioz, Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du meta daitezela hartzekodun betearazle beraren eta betearazpenpeko zordun beraren artean ebazkizun dauden betearazpen-prozesuak.

2. Betearazpenpeko beraren aurka bideratzen diren betearazpen-prozesuak metatu ahal izango dira betearazleetatik edozeinen eskariz, baldin eta prozesurik antzinakoenean eskuduna den Justizia Administrazioaren letraduak irizten badio komenigarriagoa dela hartzekodun betearazle guztiak asetzeko.

3. 74. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako moduan bideratuko da metaketa-eskabidea.

4. Betearazpena eskusiboki zuzentzen denean bereziki hipotekatutako ondasunetara, beste betearazpen-prozesu batzuei metatzea erabaki ahal izango da, soilik, azken horiek bideratzen badira ondasun berberen gaineko beste hipoteka-berme batzuk benetan gauzatzeko.

IV. KAPITULUA



Betearazpenari aurka egiteaz eta legearen edo titulu betearazlearen aurkako
betearazpen-egintzak aurkaratzeaz

556. artikulua. Ebazpen prozesalak edo arbitralak edo bitartekaritza-akordioak betearazteari aurka egitea.

1. Titulu betearazlea kondena-ebazpen prozesala edo arbitrala bada edo bitartekaritza-akordioa, betearazpenpekoak idatziz aurka egin ahal izango dio betearazpena abiarazten duen autoa jakinarazi eta hurrengo hamar egunen barruan, alegatuz ordaindu edo bete duela epaian, laudoan edo akordioan agindutakoa, eta hori dokumentu bidez justifikatu beharko du.

Halaber, aurkaratzea oinarri daiteke akzio betearazlearen iraungitzean eta betearazpena saihesteko hitzartutako itun eta transakzioetan, betiere dokumentu publikoan jasota badaude itun eta transakzio horiek.

2. Aurreko apartatuko kasuetan formulatutako aurkakotzak ez du etengo betearazpenaren aribidea.

3. Aurreko apartatueta xedatutakoa gorabehera, 517. artikulua 2. apartatuaren 8.) zenbakian aipatutako autoa oinarri hartuta abiarazi denean betearazpena, behin Justizia Administrazioaren letraduak betearazpenaren aurkakotza formulatutzat emanda, betearazpena eteteko aginduko du ebazpen berean. Aurkakotza hori oinarritu ahal izango da hurrengo artikuluan aurreikusitako kausetatik edozeinetan eta jarraian zehazten direnetan:

- 1.) Biktimaren erru eskusiboa.
- 2.) Ezinbesteko kasua, ibilgailua gidatzearekin edo haren funtzionamenduarekin zerikusirik ez duena.
- 3.) Erru-pilaketa.

557. artikulua. Titulu ez-judizialetan edo ez-arbitraletan oinarritutako betearazpenari aurka egitea.

1. 4.), 5.), 6.) eta 7.) zenbakietan aurreikusitako tituluengatik edota 517. artikulua 2. apartatuaren 9.) zenbakian aipatutako beste dokumentu betearazte-indardun batzuegatik abiarazten denean betearazpena, betearazpenpekoak aurka egin ahal izango dio aurreko artikuluan aurreikusitako unean eta forman, honako kausetakoren batean oinarritzen bada soilik:

- 1.) Ordainketa, dokumentu bidez egiazta badezake.
- 2.) Kreditu likidoaren konpentsazioa, betearazte-indarra duen dokumentutik ondorioztatzen bada.
- 3.) Gehiegizko eskabidea edo gehiegikeria gauzazko zorrak diruz zenbatzean.
- 4.) Preskribatzea eta iraungitzea.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5.) Kita, itxarotea edo ez eskatzeko ituna edo promesa, dokumentu bidez jasota dagoena.

6.) Transakzioa, betiere dokumentu publikoan jasota badago.

7.) Tituluak abusuzko klausulak izatea.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako aurkakotza formulatzen bada, Justizia Administrazioaren letraduak betearazpenaren aribidea etengo du antolaketa-eginbide bitartez.

558. artikulua. Aurkakotza, gehiegizko eskabideagatik. Berezitasunak.

1. Gehiegizko eskabidean edo gehiegikerian eskusiboki oinarritutako aurkakotzak ez du etengo betearazpenaren aribidea, non eta betearazpenpekoak ez duen auzitegiaren eskura jartzen bere ustez zor duen zenbatekoa, betearazleari berehala entrega diezaion Justizia Administrazioaren letraduak. Kasu horretatik kanpo, betearazpenak bere aribideari jarraituko dio, baina ondasun enbargatuen salmentarekin lortutakoa, betearazpenpekoari zor gisa aitortutako zenbatekoa gainditzen duen neurrian, aurkakotza ebatzi artean ez zaio entregatuko betearazleari.

2. 572. eta 574. artikuluetan aipatutako kasuetan, kontuetako saldoei eta korritu aldakorrei buruzkoetan, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak, betearazpenpekoaren eskariz, antolaketa-eginbide bitartez aditua izendatu ahal izango du, zorraren zenbatekoari buruzko irizpena emango duena funts-hornidura egin eta gero. Irizpen hori bi alderdiei helaraziko zaie, emandako irizpenari buruzko beren alegazioak aurkez ditzaten bost eguneko epe komunean. Bi alderdiak irizpenarekin ados badaude edo alegaziorik aurkeztu ez badute horretarako emandako epean, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, irizpen harekin bat datorrena. Dekretu horren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da, etete-ondorerik gabe, auzitegiaren aurrean.

Eztabaida kasuan edo alderdietako batek soilik aurkeztu dituen alegazioak, Justizia Administrazioaren letraduak eguna eta ordua seinalatuko ditu ikustaldia egin dadin betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiaren aurrean.

559. artikulua. Akats prozesalengatiko aurkakotza bideratzea eta ebaztea.

1. Betearazpenpekoak ere aurka egin ahal izango dio betearazpenari, honako akats hauek alegatuz:

1.) Betearazpenpekoak ez izatea demandan eman zaion izaera edo ordezkaritza.

2.) Betearazleak ez izatea gaitasunik edo ordezkaritzarik edo ez egiaztatzea zein izaerarekin edo ordezkaritzarekin demandatzen duen.

3.) Abiarazitako betearazpena erabat deuseza izatea, edo epaiak edo laudo arbitralak kondena-pronuntziamenturik ez edukitzeagatik, edo aurkeztutako dokumentuak, laudoak edo bitartekaritza-akordioak betearazpena eragiteko galdatutako legeko betekizunak ez betetzeagatik, edo, betearazpena abiaraztean, 520. artikuluan xedatutakoa hausteagatik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Titulu betearazlea bada notarioak protokoloan jaso gabeko laudo arbitral bat, hura autentiko ez izatea.

2. Betearazpenpekoaren aurkakotza akats prozesalean oinarritzen bada eskusiboki edo beste zio edo kausa batzuekin batera, haiei buruzko alegazioak formulatu ahal izango ditu betearazleak, bost eguneko epean. Auzitegiaren iritziz akatsa konpongarria bada, hamar eguneko epea emango dio betearazleari probidentzia bidez, hura konpon dezan.

Akatsa edo falta konpongarria ez denean edo epe horren barruan konpontzen ez denean, autoa emango da, abiarazitako betearazpena ondorerik gabe uzten duena eta kostuak betearazleari ezartzen dizkiona. Auzitegiak ez badu hautematen badaudela aurkakotzan zehaztutako akats prozesalak, autoa emango du, hura ezesten duena eta betearazpenak aurrera jarrai dezala agintzen duena, eta betearazpenpekoari ezarriko dizkio aurkakotzaren kostuak.

560. artikulua. Funtsari buruzko zioengatiko aurkakotza bideratzea.

Betearazpenari zio prozesalengatik aurka egiteari buruz ebatzi denean edo zio horiek alegatu ez direnean, betearazleak bost eguneko epean aurkaratu ahal izango du funtsari buruzko zioetan oinarritutako aurkakotza, zio horiei buruzko ebazpena jakinarazten zaionetik edo aurkakotza-idazkia helarazten zaionetik kontatzen hasita.

Alderdiek, aurkakotzako eta hura aurkaratzeko idazkietan, hurrenez hurren, ikustaldia egiteko eskatu ahal izango dute; auzitegiak probidentzia bidez erabakiko du hori, baldin eta aurkakotzari buruzko eztabaida ezin bada ebatzi ekarritako dokumentuekin, eta Justizia Administrazioaren letratuak eguna eta ordua seinalatuko ditu, aurkaratze-izapidea amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan egin dadin hura.

Ikustaldia eskatzen ez bada edo auzitegiak bidezkoa irizten ez badio hura egiteari, izapide gehiagorik gabe ebatziko da aurkakotza, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ikustaldia egitea erabakitzen denean, betearazpenpekoa agertzen ez bada bertan, aurkakotzan atzera egindakotzat hartuko du auzitegiak, eta 442. artikuluan aurreikusitako ebazpenak emango ditu. Betearazlea agertzen ez bada, auzitegiak ebazpena emango du betearazpenaren aurkakotzari buruz hari entzun gabe. Bi alderdiak agertzen badira, hitzezko judiziorako aurreikusitakoaren arabera egingo da ikustaldia, eta bidezkoa den ebazpena emango da jarraian, hurrengo artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

561. artikulua. Funtsari buruzko zioengatiko aurkakotza ebazten duen autoa.

1. Alderdiak entzunda akats prozesalean oinarritzen ez den aurkakotzari buruz, eta kasua denean ikustaldia eginda, auzitegiak honako ebazpen hauetakoren bat emango du auto bidez, betearazpenaren ondoreetarako soilik:

1.) Deklaratzea bidezkoa dela betearazpenak aurrera jarrai dezala abiarazitako zenbatekoan, aurkakotza erabat ezesten denean. Aurkakotza gehiegizko eskabidean oinarritu bada eta hura partzialki ezesten bada, betearazpena bidezkotzat deklaratu da, soilik, kasuan kasuko zenbatekoan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Aurkakotza erabat ezesten duen autoak haren kostuak ordaintzeko kondena ezarriko dio betearazpenpekoari, 394. artikuluan lehen auzialdiko kostuak ordaintzeko kondenarako xedatutakoarekin bat etorritik.

2.) Deklaratzea betearazpena ez dela bidezkoa, 556. eta 557. artikuluetan zerrendatutako aurkakotza-zioetakoren bat baiesten denean edo erabat oinarriduna irizten zaionean 558. artikuluekin bat etorritik onartutako gehiegizko eskabideari.

2. Klausula batek edo batzuk abusuzko izaera dutela hautematen denean, ematen den autoak zehaztuko du zein diren izaera horren ondorioak, eta dekretutako du betearazpena ez dela bidezkoa, edo hura abiaraziko du abusuzkotzat jotakoak aplikatu gabe. Behin autoa irmoa izanda, abusuzkotasunari buruzko erabakiak gauza epaituaren efikazia izango du.

3. Betearazpenaren aurkakotza baiesten bada, ondorerik gabe utziko da betearazpena, eta aginduko da ken daitezela enbargoak eta loturagatik hartutako berme-neurriak, eta betearazpena abiarazi aurreko egoera berrezarriko zaio betearazpenpekoari, 533. eta 534. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik. Halaber, betearazlea kondenatuko da aurkakotzaren kostuak ordaintzera.

4. Apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da aurkakotza ebazten duen autoaren aurka, baina ez du betearazpenaren aribidea etengo errekurritutako ebazpenak aurkakotza ezetsiz gero.

Errekurritutako ebazpenak aurkakotza baiesten duenean, betearazleak eskatu ahal izango du manten daitezela enbargoak eta hartutako berme-neurriak eta har daitezela 700. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik bidezkoak direnak, eta hala erabakiko du auzitegiak probidentzia bidez, betiere betearazleak behar besteko kausioa ematen badu, ebazpenean bertan finkatuko dena, aurkakotzaren baiestea konfirmatuz gero betearazpenpekoak har dezakeen kalte-ordaina ziurtatzeko.

562. artikulua. Lege-haustek betearazpenaren aribidean aurkaratzea.

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera betearazpenpekoak betearazpenari egindako aurkakotza gorabehera, 538. artikuluan aipatutako pertsona guztiek salatu ahal izango dute hautsi direla betearazpen-prozesuaren egintza zehatzak arautzen dituzten arauak:

1.) Lege honetan ezarritako berraztertze-errekurtsoaren bidez, baldin eta betearazpen-azuzitegiaren edo Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpenean jasotzen edo gauzatzen bada arau-haustea.

2.) Apelazio-errekurtsoaren bidez, lege honetan berariaz aurreikusitako kasuetan.

3.) Auzitegiari zuzendutako idazki bidez, baldin eta errekurritzeko moduko esanbidezko ebazpenik ez badago. Idazkian, argiro adieraziko da zein den alegatutako arau-haustea erremediatzeko lortu nahi den ebazpena edo jarduna.

2. Arau-haustek jarduketan deuseztasuna dakarrela alegatuz gero edo auzitegiak hala baietsiz gero, 225. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio. Deuseztasun hori Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean alegatu bada edo hark iritziz gero badagoela hori deklaratzeko kausaren bat, kontu emango dio betearazpena baimendu zuen auzitegiari, horri buruz ebatz dezan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

563. artikulua. Titulu betearazle judizialarekin kontraesanean dauden betearazpen-egintzak.

1. Epaien edo ebazpen judizialen arabera betearazpena abiarazita, betearazpenerako eskuduna den auzitegiak titulu betearazlearekin kontraesanean ebazten duenean, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango du alderdi kalte-dunak, eta, ezetsiz gero, apelaziokoa.

Titulu betearazlearen aurkako ebazpena Justizia Administrazioaren letraduak emana bada, berraztertzea aurretiaz jarrita, berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da haren aurka auzitegiaren aurrean, eta, hura ezetsiz gero, apelazio-errekurtsoa.

2. Aurreko apartatuko kasuetan, errekurtsogileak eskatu ahal izango du eten dadila aurkaratutako jarduera betearazle zehatza, eta hori egitea onartuko da, baldin eta, auzitegiaren iritziz, behar besteko kaudioa ematen badu atzerapenak beste alderdiari sor diezazkiokeen kalteei aurre egiteko.

529. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan eratu ahal izango da kaudioa.

564. artikulua. Betearazpenpekoaren defentsa juridikoa, betearazpenari aurka egiteko kausetan ez dauden egitateetan eta egintzetan oinarritua.

Baldin eta judizioan alegatzeko aukerak prekluitu ondoren edo titulu betearazle estrajudizial bat sortu ostean egitateak edo egintzak gertatzen badira lege honek betearazpenari aurka egiteko kausa gisa onartutakoez bestelakoak baina juridikoki garrantzitsuak direnak alderdi betearazleak betearazpenpekoari begira dituen eskubideei dagokionez edo betearazpenpekoak betearazleari begira dituen eginbeharrei dagokienez, kasuan kasuko prozesuan baliatu ahal izango da egitate edo egintza horien efikazia juridikoa.

V. KAPITULUA

Betearazpena eteteaz eta amaitzeaz

565. artikulua. Betearazpenaren etenduraren norainokoa eta arau orokorra.

1. Betearazpena etengo da, soilik, legeak berariaz agintzen duen kasuetan edo betearazpenean pertsonatutako alderdi guztiek hala erabakitzen dutenean.

2. Halere, etendura dekretatuta, berme-neurriak hartu edo mantendu ahal izango dira erabakitako enbargoetarako, eta jada erabakita daudenak gauzatuko dira kasu orotan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

566. artikulua. Epai irmoa hutsaltzen edota berrikusten denean, betearazpena etetea, largestea eta hari berriro ekitea.

1. Baldin eta, betearazpena abiarazita, auzi-ihesean emandako epai irmoa berrikusteko edo hutsaltzeko demanda jarri eta onartzen bada, betearazpenerako eskuduna den auzitegiak agindu ahal izango du, alderdi-eskariz eta kasuaren inguruabarrek gomendatzen badute, eten daitezela epaia betearazteko jardunak. Etetea erabakitzeke, auzitegiak kauzioa galdatu beharko dio eskatzaileari, auzitan aritutakoaren eta epaia ez betearazteagatik sor daitezkeen kalte-galeren baliokoa. Berrikuspenaren objektua den epaiaren betearazpena eteteari buruz erabaki aurretik, Fiskaltzaren iritzia entzungo du auzitegiak.

529. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan eman ahal izango da aurreko paragrafoan aipatutako kauzioa.

2. Betearazpenaren etendura amaitutzat emango da eta jarrai dezala aginduko da betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak dakienean auzi-ihesean emandako epaiaren berrikuspena edo hutsaltze-demanda ezetsi dela.

3. Justizia Administrazioaren letraduak betearazpena largetsiko du berrikuspena baiesten denean edo, auzi-ihesean emandako epaia hutsaldu ondoren, demandatua absolbitzen duen epaia ematen denean.

4. Auzi-ihesean emandako epaia hutsalduta, epaia ematen denean hutsaldutakoaren eduki berekoa edo eduki desberdina izan arren kondena-pronuntziamenduak dituen, betearazi egingo da, eta baliozkotzat eta efikaztat hartuko dira aurreko betearazpen-egintzak, aipatutako epaiaren pronuntziamenduen eraginkortasuna lortzeko bideragarriak diren heinean.

567. artikulua. Errekurtso arruntak jartzea eta etetea.

Errekurtso arruntak jartzeak ez du etengo, berez, jardun betearazleen aribidea. Hala ere, betearazpenpekoak egiaztatzen badu kalte konpongaitza sortzen diola errekurritzen duen ebazpenak, errekurritutako jarduna eteteko eskatu ahal izango dio betearazpena abiarazi zuen auzitegiari; behar besteko kauzioa eman beharko du, lege honetan ahalbidetutako moduan, atzerapenak sor ditzakeen kalteei aurre egiteko.

568. artikulua. Etetea, konkurtso- edo aurrekonkurtso-egoerak daudenean.

1. Ez da emango betearazpena baimentzen eta abiarazten duen autorik, auzitegiak badaki demandatua konkurtso-egoeran dagoela edo Konkurtso Legearen 5 bis artikuluan aipatzen den komunikazioa egin dela artikulua horretan zehazten diren ondasunei dagokienez. Azken kasu horretan, betearazpenak berme erreal bati eragiten dionean, betearazpena abiarazitzat joko da Konkurtso Legearen 57.3 artikulua onoretarako, betearazpena abiarazi ez arren, ostean bat-batean gertatzen bada ere azkenik konkurtsoa.

2. Justizia Administrazioaren letraduak betearazpena eten dadila dekretatuko du, betearazpena dagoen egoeran dagoela, konkurtso-deklarazioa prozeduran jaso bezain laster. Konkurtso Legean ezarritakoaren



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

menpe egongo dira betearazpenaren hasiera eta ondasun hipotekatuen edo pignoratuaren aurka soilik zuzendutako prozedura jada hasiaren jarraipena.

3. Demandatuak hainbat direnean eta haietakoren bat edo batzuk soilik daudenean aurreko bi apartatueta aipatutako kasuan, betearazpena ez da etengo gainerakoentzat.

569. artikulua. Etetea, prejudizialitate penalagatik.

1. Titulu betearazlearekin edo nahitaezko betearazpena abiaraztearekin lotutako delitu-itxurako egitateak azaltzen diren salaketa aurkezteak edo kereila jartzeak ez du berez ekarriko haren etendura dekretatzea.

Halere, delitu-itxurako egitateak ikertzen ari den auzi kriminala ebazkizun badago eta egitate horiek, ziurrak izanez gero, ekar badezakete tituluaren faltsutasuna nahiz deuseztasuna edo betearazpena abiaraztearen baliogabetasuna nahiz ez-zilegitasuna, betearazpena baimendu zuen auzitegiak erabakiko du hura eten dadila, alderdiak eta Fiskaltza entzun ondoren.

2. Egitatearen existentziarik eza edo hura delituzkoa ez dela deklaratzeko duen ebazpen bidez amaitzen bada aurreko apartatuan aipatutako auzi penala, betearazleak kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, 40. artikulua zazpigarren apartatuan ezarritako moduan.

3. Artikulu honen lehenengo apartatuan xedatutakoa gorabehera, betearazpenak aurrera jarraitu ahal izango du, baldin eta, abiarazi zuen auzitegiaren iritziz, betearazleak behar besteko kauzioa ematen badu, 529. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan, jasotzen duenari eta betearazpenak betearazpenpekoari sortzen dizkion kalte-galerei aurre egiteko.

570. artikulua. Betearazpenaren amaiera.

Nahitaezko betearazpena amaituko da, soilik, hartzekodun betearazlea erabat asebetetzen denean; Justizia Administrazioaren letraduaren dekretu bidez erabakiko da hori, eta zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da dekretu horren aurka.

IV. TITULUA

Diruzko betearazpenaz

I. KAPITULUA

Diruzko betearazpenaz: xedapen orokorrak



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

571. artikulua. Titulu honen eremua.

Titulu honen xedapenak aplikatuko dira nahitaezko betearazpena datorrenean diru-zenbateko likido bat entregatzeko egin beharra zuzenean edo zeharka dakarren titulu betearazle baten ondorioz.

572. artikulua. Zenbateko likidoa. Betearazpena, eragiketen saldoagatik.

1. Betearazpena abiarazteko, likidotzat joko da tituluan letraz, zifraz edo zenbaki ulergarri adierazitako diru-zenbateko zehatz oro. Zenbatekoen adierazpen ezberdinak bat ez datozenean, letraz jasotakoa hobetsiko da. Halere, betearazpena abiarazteko, ez da beharrezkoa izango likidoa izatea betearazpenean sortutako korrituengatik eta betearazpenak sortuko dituen kostuengatik betearazleak eskatzen duen zenbatekoa.

2. Eskritura publikoan edo merkataritzako artekari elkargokideak esku hartutako polizan formalizatutako kontratuetatik eratorritako eragiketetatik ateratako saldoaren zenbatekoagatik ere abiarazi ahal izango da betearazpena, betiere tituluan itundu bada betearazpen-kasuan galdagarria den zenbatekoa izango dela hartzekodunak egindako likidaziotik ateratzen dena, alderdiek titulu betearazlean bertan hitzartutako moduan egindakotik.

Kasu horretan, betearazpena abiaraziko da, soilik, hartzekodunak egiaztatzen badu aurretiaz jakinarazi diela betearazpenpekoari eta fidatzaileari, halakorik bada, likidaziotik ateratako zenbateko galdagarria.

573. artikulua. Kontu-saldoa dela-eta, demanda betearazlearekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak.

1. Aurreko artikuluaaren bigarren apartatuan aipatutako kasuetan, demanda betearazlearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira 550. artikuluan aipatutako titulu betearazleaz eta dokumentuez gain:

1.) Hartzekodunak egindako likidaziotik ateratako saldoa adierazten duen dokumentua edo dokumentuak, bai eta karguen eta abonuen partiden laburpena eta betearazpena abiarazteko eskatutako saldo zehatza zehazten duten korrituak aplikatzeari dagozkion partidak ere.

2.) Likidazioa alderdiek titulu betearazlean itundutakoaren arabera gauzatu izana egiaztatzen duen dokumentu fede-emailea.

3.) Zordunari eta fidatzaileari, halakorik bada, zenbateko galdagarria jakinarazi zaiela egiaztatzen duen dokumentua.

2. Kargu- eta abonu-partida ezberdinak justifikatzeko agiriak ere aurkeztu ahal izango dira demandarekin batera, betearazleak komenigarritzat jotzen duenean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Hartzekodunak zalantzarik badu partidaren baten errealitateari edo galdagarritasunari buruz edo haren benetako muntari buruz, eskatu ahal izango du betearazpena abiaraz dadila zalantzagabekoa den zenbatekoari dagokionez, eta kasuan kasuko deklarazio-prozesurako erreserbatu ahal izango du gainerakoaren erreklamazioa, betearazpenaren aldiberekoa izan daitekeena.

574. artikulua. Betearazpena, korrituak aldakorrak direnean.

1. Demanda betearazlean, betearazleak honako kasu hauetan adieraziko ditu kalkulu-eragiketak, saldo gisa ekartzen dutenak betearazpena abiarazteko eskatutako zenbateko zehatza:

1.) Erreklamatzen duen zenbatekoaren jatorria korritu aldakorrekarekin itundutako mailegua edo kreditua denean.

2.) Erreklamatutako zenbatekoaren jatorria mailegu edo kreditu bat denean, nahitaezkoa duena dibisa desberdinen eta haien korritu-tasen parekotasuna.

2. Aurreko artikulua lehenengo apartatuaren bigarren eta hirugarren zenbakietan eta artikuluko horren bigarren eta hirugarren apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da aurreko kasu guztietan.

575. artikulua. Zenbatekoa zehaztea eta betearazpena abiaraztea.

1. Betearazpena abiarazteko zenbatekoa izango da demanda betearazlean erreklamatzen dena printzipalagatik eta mugaeguneratutako korritu arruntengatik eta berandutze-korrituengatik, hari gehituta betearazpenean zehar sor daitezkeen korrituei eta betearazpenaren kostuei aurre egiteko aurreikus daitekeena. Bi kontzeptu horietarako aurreikusitako zenbatekoak, behin-behinean finkatuko denak, ezin izango du gainditu demanda betearazlean erreklamatzen denaren ehuneko 30, kalterik egin gabe geroagoko likidazioari.

Salbuespenez, betearazleak justifikatzen badu ezen, betearazpenaren iraupen aurreikusgarria eta korritu-tasa aplikagarria kontuan hartuta, betearazpenean sor daitezkeen korrituek gehi haren kostuek aurreko paragrafoan finkatutako muga gaindituko dutela, adierazitako muga hori gainditu ahal izango du kontzeptu horietarako behin-behinean finkatuko den zenbatekoak.

1 bis. Kasu orotan, ohiko etxebizitzaren betearazpenaren kasuan, betearazpenpeko zordunari galda dakizkion kostuek ezin izango dute gainditu demanda betearazlean erreklamatutako zenbatekoaren ehuneko 5.

2. Betearazpenpekoak alega dezakeen gehiegizko eskabideari kalterik egin gabe, auzitegiak ezin izango du betearazpena abiaraz dadila ukatu irizten diolako betearazleak demanda betearazlean finkatutakoaz bestelakoa dela zor den zenbatekoa.

3. Hala ere, ez da betearazpenik abiaraziko, baldin eta, kasua denean, demanda betearazleak ez baditu adierazten aurreko artikuluetan aipatutako kalkuluak edo harekin batera ez badira aurkezten manuotan galdatzen diren dokumentuak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

576. artikulua. Berandutze prozesalaren korrituak.

1. Lehen auzialdian ematen denetik, diru-zenbateko likido bat ordaintzera kondenatzen duen epai edo ebazpen orok urteko korritua sortuko du hartzekodunaren alde, zeina izango baita diruaren legezko korrituari bi puntu gehitutakoa edo alderdiek itundutakoa edo legearen xedapen bereziak ezarritakoa.

2. Errebokazio partzialaren kasuetan, auzitegiak bere sen onaren arabera ebatziko du berandutze-korritu prozesalei buruz, horretarako arrazoiak emanez.

3. Aurreko apartatuetan ezarritakoa aplikatuko zaie edozein jurisdikzio-ordenatuko mota guztietako ebazpen judizialei, laudo arbitralei eta bitartekaritza-akordioei, zenbateko likidazioa ordaintzera behartzen badute, salbuetsirik legeak ogasun publikoentzat ezarritako berezitasunak.

577. artikulua. Zorra atzerri-dirutan.

1. Tituluak atzerri-dirutan finkatzen badu diru-zenbatekoa, betearazpena abiaraziko da hura lortzeko eta entregatzeko. Diru nazionalean ordainduko dira, hala kostuak eta gastuak, nola berandutze-korritu prozesalak.

2. Enbargatu behar diren ondasunak kalkulatzeko, betearazpena abiarazi den eguneko kanbio ofizialaren arabera zenbatuko da atzerri-diruaren zenbatekoa.

Kotizazio ofizialik gabeko atzerri-dirua bada, zenbaketa egingo da, betearazleak demandara ekarri dituen alegazioak eta dokumentuak ikusita, auzitegiak egoki irizten dion kanbioa aplikatuta, osteko kondena-likidazioari kalterik egin gabe, zeina lege honen 714. artikulutik 716.era koetan xedatutakoarekin bat etorritik egingo den.

578. artikulua. Epe berriak edo zor guztia mugaeguneratzea.

1. Baldin eta, betearazpena zenbateko likido baten zorreratik abiarazita, mugaeguneratzen bada jardunaren oinarri den betebeharraren eperen bat edo betebeharra oso-osorik, ulertuko da printzipalaren eta korrituen mugaeguneratze berriei dagokien zenbatekora zabaltzen dela betearazpena, auzi-jartzaileak hala eskatuz gero eta prozeduran atzera egiteko beharrik gabe.

2. Demanda betearazlean eskatu ahal izango da betearazpena zabaltzeko. Kasu horretan, betearazpena abiarazten duen autoa jakinaraztean, betearazpenpekoari ohartaraziko zaio automatikoki joko dela zabaldutzat betearazpena, baldin eta mugaeguneratze-datetan epaitegiaren eskura kontsignatu ez badira kasuan kasuko zenbatekoak.

Betearazleak eskatzen duenean betearazpena automatikoki zabal dadila, zorraren azken likidazio bat aurkeztu beharko du, betearazpenean zehar sortutako printzipalaren eta korrituen mugaeguneratzeak barne. Likidazio hori titulu betearazlearekin bat badator eta ez bada kontsignatu likidazio horretan sartutako



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

mugaeguneratzeen zenbatekoa, aurkeztutako likidaziotik ondorioztatzen denaren arabera ordainduko zaio betearazleari.

3. Betearazpena zabaltzea arrazoi nahikoa izango da enbargoa hobetzeko, eta haren prebentziozko idatzoharrean jasoarazi ahal izango da, lege honen 613. artikulua 4. apartatua xedatutakoaren arabera.

Aurreko apartatuaren kasuan, betearazpena zabaltzeak ez du automatikoki ekarriko neurri horiek hartzea, soilik erabakiko baitira, bidezkoak izanez gero, betearazleak eskatzen dituenean aintzat hartu gabeko mugaeguneratze bakoitzaren ostean.

579. artikulua. Diruzko betearazpena, bereziki hipotekatutako edo pignoratutako ondasunak daudenean.

1. Betearazpena eskusiboki zuzentzen denean diruzko zor bat bermatzeko hipotekatu edo pignoratu diren ondasunen aurka, titulu honen V. kapituluaren xedatutakoari jarraituko zaio. Baldin eta, ondasun hipotekatuak edo pignoratuak enkantean jarrita, haien emaitza nahikoa ez bada kreditua estaltzeko, betearazleak eskatu ahal izango du betearazpena abiaraz dadila falta den zenbatekoagatik eta dagokien aurka, eta betearazpenak aurrera egingo du, betearazpen orori aplikagarri zaizkion arau arrunten arabera.

2. Aurreko apartatua aurreikusitakoari kalterik egin gabe, ohiko etxebizitza hipotekatuaren adjudikazio kasuan, onetsitako errematea nahikoa ez bada betearazlearen eskubidea guztiz asetzeko, falta den zenbatekoari dagokion betearazpena ez da etengo, eta honako berezitasun hauek bete beharko ditu:

a) Betearazpenpekoa aske geratuko da, haren erantzukizuna estalita geratzen bada errematea edo adjudikazioa onesten duen dekretuaren datatik bost urteko epean, artean estaltzeke geratu zen guztizko kopuruaren ehuneko 65ean, eskusiboki gehituta ordainketa-unera arteko diruaren legezko korritua. Modu berean aske geratuko da, baldin eta bost urteko epearen barruan ehuneko 65 ordaindu ezin izan arren ehuneko 80 ordaintzen badu hamar urteren barruan. Aurreko inguruabarrak gertatu ezean, hartzekodunak erreklamatu ahal izango du zor zaion guztia, kontratu-hizpaketen eta aplikatzekoak diren arauen arabera.

b) Errematea edo adjudikazioa betearazlearen edo hark eskubidea laga dionaren alde onesten bada eta haiek, edo haien taldeko edozein sozietatek, hura onetsi zenetik 10 urteko epearen barruan, etxebizitza besterentzen badute, ordaintzeko dagoen zorra, besterentzearen unean betearazpenpekoari ordaintzea dagokiona, salmenta hartan lortutako gainbalioaren ehuneko 50ean murriztuko da; kalkulu horretarako, kendu egingo dira betearazleak behar bezala egiaztatutako kostu guztiak.

Lehen aipatutako epeetan diruzko betearazpen bat egiten bada, aurreko erregelen arabera zorduna aske geratzeko zenbatekoa gainditzen duena, haren esku utziko da gerakina. Betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letratuak inguruabar horiek jasoaraziko ditu adjudikazio-dekretuan, eta aginduko du jabetza-erregistroan kasuan kasuko inskripzio-idazpena egin dadila aurreko b) letran aurreikusitakoarekin bat etorritik.

II. KAPITULUA



Ordaintze-errekerimenduaz

580. artikulua. Zer kasutan ez den bidezkoa ordaintze-errekerimendua.

Titulu betearazlea bada Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpena, ebazpen judiziala edo arbitrala edo prozesuan lortutako transakzioa edo hitzarmena onesten duena, edo bitartekaritza-akordioa, diru-zenbateko zehatzak entregatzera behartzen duena, ez da beharrezkoa izango betearazpenpekoari bere ondasunak enbargatzeko ordaintze-errekerimendua egitea.

581. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa ordaintze-errekerimendua.

1. Diru-zenbateko zehatzak entregatzeko betearazpena ez bada oinarritzen ebazpen prozesalean edo arbitralean, betearazpena abiarazita, errekerimendua egingo zaio betearazpenpekoari, ordain ditzan printzipala eta, kasua denean, demandaren datara arte sortutako korrituak direla-eta erreklamatutako zenbatekoa, eta, berehala ordaintzen ez badu, Justizia Administrazioaren letraduak haren ondasunak enbargatuko ditu, betearazpena abiarazitako zenbatekoa eta haren kostuak osatzeko hainbestean.

2. Aurreko apartatuan ezarritako errekerimendua ez da gauzatuko baldin eta demanda betearazlearekin batera notario-akta aurkeztzen bada, egiaztatzen duena betearazpenpekoari ordaintze-errekerimendua egin zaiola hamar eguneko aurrerapenarekin gutxienez.

582. artikulua. Ordaintze-errekerimenduaren tokia.

Titulu betearazlean ageri den egoitzan egingo da ordaintze-errekerimendua. Egoitza judizial elektronikoen bidez ere egin ahal izango da, baldin eta betearazpenpekoa behartuta badago bitarteko elektronikoen bidez esku hartzeri Justizia Administrazioarekin. Baina, han ez ezik, betearazlearen eskariz, betearazpenpekoa aurki daitekeen edozein tokitan ere egin ahal izango da errekerimendua, bertan ustekabea aurki badaiteke ere.

Betearazpenpekoa ez badago titulu betearazlean jasotako egoitzan, betearazleak hala eskatzen badu gauzatu ahal izango da enbargoa, hargatik eragotzi gabe berriro saiatzea errekerimendua egiten ebazpena edo zedula entregatuz gauzatzen diren komunikazio-egintzetarako eta, kasua denean, ediktu bidezko komunikaziorako lege honetan xedatutakoaren arabera.

583. artikulua. Betearazpenpekoak ordaintzea. Kostuak.

1. Betearazpenpekoak errekerimenduaren ekitaldian edo betearazpena abiarazi aurretik ordaintzen badu, Justizia Administrazioaren letraduak kasuan kasuko diru-zenbatekoa jarriko du betearazlearen eskura, eta egindako ordainketa justifikatzen duen agiria entregatuko dio betearazpenpekoari.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Zordunak errekerimenduaren ekitaldian ordaindu arren, haren kontura izango dira sortutako kostu guztiak, salbu eta justifikatuz gero ezen, berari egozgarria ez zaion kausagatik, ezin izan zuela ordaindu hartzekodunak betearazpena sustatu aurretik.

3. Korrituak eta kostuak ordainduta, halakorik sortuz gero, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, betearazpena amaitutzat ematen duena.

III. KAPITULUA

Ondasunen enbargoaz

1. atala. Ondasunen trabaz

584. artikulua. Enbargoaren norainoko objektiboa eta nahikotasuna.

Enbargoaren norainoko objektiboa eta nahikotasuna. Ondasunak ez dira enbargatuko, baldin eta aurreikus daitekeen haien balioak betearazpena abiarazi duen zenbatekoa gainditzen badu, salbu eta betearazpenpekoaren ondarean kontzeptu horiek baino balio handiagoko ondasunak bakarrik egon eta haiek lotzea beharrezko denean betearazpenaren xedearentzat.

585. artikulua. Enbargoa saihestea kontsignazio bidez.

Betearazpena abiarazita, lege honetan xedatutakoaren arabera ekingo zaio ondasunak enbargatzeari, non eta betearazpenpekoak ez duen kontsignatzen hura abiarazi zuen zenbatekoa; kasu horretan, eten egingo da enbargoa.

Enbargoaren aurretik kontsignazioa egin ez duen betearazpenpekoak geroagoko edozein unetan egin ahal izango du, betearazpenaren aurkakotza ebatzi baino lehen. Kasu horretan, behin kontsignazioa eginda, kendu egingo dira trabatutako enbargoak.

586. artikulua. Kontsignatutako zenbatekoaren destinoa.

Betearazpenpekoak aurkakotza formulatzen badu, horretarako zehaztutako establezimenduan gordailutuko da aurreko artikuluaaren arabera kontsignatutako zenbatekoa, eta etenda jarraituko du enbargoak.

Betearazpenpekoak aurkakotzarik formulatzen ez badu, betearazleari entregatuko zaio enbargoa saihesteko kontsignatutako zenbatekoa, hargatik eragotzi gabe korrituak eta kostuak geroago likidatzea.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

587. artikulua. Enbargatzeko unea.

1. Enbargoa egindakotzat joko da Justizia Administrazioaren letraduak dekretatzen duenetik edo enbargo-eginbidearen aktan ondasun bat deskribatzen denetik, nahiz eta oraindik hartu ez traba bermatzeko edo publikatzeko neurririk. Justizia Administrazioaren letraduak berehala hartuko ditu berme- eta publizitate-neurri horiek, eta ofizioz egingo ditu beharrezkoak diren idatzagiriak, hala eskatu duen betearazlearen prokuradoreari entregatuko zaizkionak kasua denean.

2. Fede oneko hirugarrena babesteko aplikatu beharreko arauetara kalterik egin gabe ulertuko da aurreko apartatuan xedatutakoa.

588. artikulua. Zehaztu gabeko enbargoaren deuseztasuna. Kreditu-erakundeetan irekitako kontuak enbargatzea.

1. Deuseza izango da ondasunen eta eskubideen enbargoa, baldin eta jasota ez badago haiek benetan existitzen direla.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, enbargatu ahal izango dira banku-gordailuak eta kreditu-erakundeetan irekitako kontuen saldo positiboak; betiere, titulu betearazlea dela-eta, Justizia Administrazioaren letraduak zenbateko bat zehazten badu gehieneko muga gisa.

Muga horretatik gorakoa askatasunez xedatu ahal izango du betearazpenpekoak.

3. Funtzak titular batzuen izenean dauden kontuetan gordailututa badaude, zordunari dagokion zatia enbargatuko da soilik. Ondore horietarako soilik, gordailuzainaren aurrean solidaritate aktiboa izanik titulartasun bereizigabea duten kontuen edo titulartasun bateratu mankomunatuak duten kontuen kasuan, enbargoa iritsi ahal izango da zordunari dagokion saldoaren zatira; ulertuko da zati berdina dagokiela kontuaren titularrei, salbu eta jasota dagoenean funtsek beste titulartasun material bat dutela.

4. Enbargoak ukitutako kontuan gauzatu ohi bada soldataren, pentsioaren, ordainsariaren edo parekoaren ordainketa, errespetatu beharko dira lege honetan ezarritako mugak, haiek aplikatuz zordunaren soldatatzat, pentsiotzat edo ordainsaritzat edo haien parekotzat hartu behar den zenbatekoaren gainean. Ondore horietarako, soldatatzat, pentsiotzat, ordainsaritzat edo parekotzat hartuko da enbargoa gauzatzen den hilean edo, halakorik ezean, aurreko hilean kontzeptu hori dela-eta kontu horretan sartutako zenbatekoa.

589. artikulua. Betearazpenpekoaren ondasunak azaltzea.

1. Betearazleak ez baditu zehazten betearazpenaren xederako nahikotzat jotzen dituen ondasunak, Justizia Administrazioaren letraduak ofizioz egingo dio errekerimendua betearazpenpekoari antolaketa-eginbide bitartez, zerrenda bidez azal ditzan betearazpenaren munta estaltzeko adinako ondasunak eta



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

eskubideak, adierazita, kasua denean, zamak eta kargak, eta, higiezin kasuan, okupatuta badaude, zein pertsonak okupatzen dituzten eta zer titulurekin.

2. Betearazpenpekoari ondasunak azaltzeko egiten zaion errekerimenduan, ohartaraziko zaio zein zehapen ezar dakizkion, desobeditze larriagatik behinik behin, baldin eta bere ondasunen zerrenda aurkezten ez badu, bertan bereak ez diren ondasunak sartzen baditu, enbargatzeko modukoak diren ondasun propioak kanpoan uzten baditu edo haien gaineko zamak eta kargak adierazten ez baditu.

3. Betearazpenpekoak ez badu zehazten enbargatzeko moduko ondasunik, edo zehaztutakoen balioa ez bada nahikoa betearazpenaren xederako, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, betearazpenpekoari ohartaraziz ezen, kaudimengabezia-probabilitatea, hur-hurreko kaudimengabezia edo egungo kaudimengabezia gertatuz gero, epaitegi eskudunari komunikatu ahaliko diola hartzekodunekiko negoziazioak hasten direla edo hasteko borondatea dagoela, berregituratze-plan bat lortzeko, betearazpenak geldiaraziz negoziazioek dirauten bitartean, legean ezarritakoaren arabera; eta, egungo kaudimengabezia-egoeran izanik ez badu halakorik egiten, hartzekodunen konkurtsoaren deklarazioa eskatu beharko duela kaudimengabezia-egoera hori ezagutu duen edo ezagutu beharko zuen dataren hurrengo bi hilabeteen barruan.

4. Justizia Administrazioaren letraduak hertsapen-isun periodikoak ere ezarri ahal izango dizkio betearazpenpekoari dekretu bidez, baldin eta aurreko apartatuan aipatutako errekerimenduari behar bezala erantzuten ez badio.

Isunen munta finkatzeko, kontuan hartuko dira betearazpena zein zenbatekotan abiarazi den, zer erresistentzia jarri zaion ondasunen zerrenda aurkezteari eta zein gaitasun ekonomiko duen errekerituak, eta premiamendu ekonomikoa aldatu edo ondorerik gabe utzi ahal izango da, kontuan hartuta errekerituak zer jokabide izan duen gero eta zer alegazio egiten duen bere burua justifikatzeko.

Idazkariaren ebazpen horien aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da, etete-ondorerik gabe, betearazpenaz arduratzen den auzitegiaren aurrean.

590. artikulua. Betearazpenpekoaren ondarearen ikerketa judiziala.

Betearazpenaren xederako nahikoak diren betearazpenpekoaren ondasunak izendatu ezin dituen betearazlearen eskariz, Justizia Administrazioaren letraduak antolaketa-eginbide bitartez erabakiko du betearazleak zehaztutako finantza-erakundeetara, organismo eta erregistro publikoetara eta pertsona fisiko eta juridikoengana zuzentzea, zerrenda eman dezaten jasota dituzten betearazpenpekoaren ondasunen edo eskubideena. Zehaztapen horiek formulatzean, betearazleak laburki adierazi beharko du zein arrazoi duen uste izateko kasuan kasuko erakundeak, organismoak, erregistroak edo pertsonak informazioa duela betearazpenpekoaren ondareari buruz. Betearazleak eskatuta eta haren kontura, haren prokuradoreak esku hartu ahal izango du ondore horretarako emandako ofizioak eginbidetzen, eta hartu haiek bete izana, hurrengo artikulua 1. apartatuan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Justizia Administrazioaren letraduak ez ditu erreklamatu organismoen eta erregistroen datuak, baldin eta betearazleak lor baditzake bere kabuz edo ahalorde-emeleak ondore horretarako behar bezala gaitu duen prokuradorearen bitartez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

591. artikulua. Elkarlanerako eginbeharra.

1. Pertsona eta erakunde publiko eta pribatu guztiak behartuta daude betearazpen-jardunetan elkarlanean aritzera eta eskura dituzten dokumentu eta datu guztiak entregatzera betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduari edo betearazlearen prokuradoreari, ordezkatuak hala eskatzen duenean eta haren kontura, betiere Justizia Administrazioaren letraduak erabaki badu haiek entrega daitezela, muga bakarrak izanik oinarritzko eskubideen errespetuak ezarritakoak edo, kasu zehatzetarako, legeek berariaz ezarritakoak. Pertsona edo erakunde horiek legezko arrazoiak edo oinarritzko eskubideen errespetuari dagozkionak alegatzen dituztenean haiek ez entregatzeko, eskatu zaien elkarlana erantzun gabe utzirik, Justizia Administrazioaren letraduak kontu emango dio auzitegiari, bidezkoa dena erabaki dezan.

2. Interesdunei aurretiaz entzun ondoren, auzitegiak pieza bananduan erabaki ahal izango du hertsapen-isun periodikoak ezartzea aurreko apartatuaren arabera auzitegiak errekeritutako elkarlanari erantzun ez dioten pertsonen eta erakundeen. Premiamendu horiek aplikatzean, auzitegiak kontuan hartuko ditu 589. artikuluan 3. apartatuan aurreikusitako irizpideak.

3. Artikulu honen babesean ezarritako zehapenak Botere Judizialaren Lege Organikoaren VII. liburuaren V. tituluaren aurreikusitako errekurso-araubidearen mende egongo dira.

592. artikulua. Hurrenkera enbargoetan. Enpresak enbargatzea.

1. Hartzekodunak eta zordunak besterik itundu ezean betearazpenaren barruan edo kanpoan, betearazpenpekoaren ondasunak enbargatuko ditu betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak, eta ahaleginduko da kontuan hartzen zer den errazena haiek besterentzeko eta zerk dakarkion kalterik gutxien betearazpenpekoari.

2. Betearazpenaren inguruabarrengatik ezinezkoa edo oso zaila bada aurreko apartatuan ezarritako irizpideak aplikatzea, honako hurrenkera honetan enbargatuko dira ondasunak:

1.) Dirua edo edozein motatako kontu korronteak.

2.) Berehala edo epe laburrean diru bihur daitezkeen kredituak eta eskubideak, eta bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako tituluak, baloreak edo beste finantza-tresna batzuk.

3.) Bitxiak eta artelanak.

4.) Diru-errentak, haien jatorria eta sortzeko arrazoia edozein izanik ere.

5.) Mota guztietako korrituak, errentak eta fruituak.

6.) Ondasun higigarriak edo abelburuak, kotizazio ofizialean onartzen ez diren akzio, titulu edo baloreak eta sozietate-partaidetzak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

7.) Ondasun higiezinak.

8.) Soldatak, pentsioak eta jarduera profesional eta merkataritza-jarduera autonomoetatik eratorritako diru-sarrerak.

9.) Epe ertainean eta luzean diru bihur daitezkeen kredituak, eskubideak eta baloreak.

3. Enpresak enbarga daitezela ere dekretatu ahal izango da, baldin eta, inguruabar guztiak kontuan hartuta, hori hobesten bada haren ondare-elementu desberdinak enbargatzearen orde.

2. atala. Hirugarrenen ondasunen enbargoaz eta jabari-hirugarrengotzaz

593. artikulua. Betearazpenpekoarena izatea. Enbargoa ofizioz kentzeko debekua.

1. Enbargatu nahi diren ondasunak betearazpenpekoarenak diren ala ez erabakitzeko, zentzuz hura ondoriozta dezaketen zantzueta eta ageriko ezaugarrietan oinarrituko da Justizia Administrazioaren letradua, ikerketarik zein bestelako jardunik egin beharrik gabe.

2. Zuzeneko hautemateagatik edo betearazpenpekoaren edo beste pertsona batzuen adierazpenengatik, Justizia Administrazioaren letraduak zentzuzko zioak baditu uste izateko hirugarren batenak direla trabatu nahi dituen ondasunak, antolaketa-eginbide bitartez aginduko du hari eman dakiola trabaren berehalakotasunaren berri. Baldin eta, bost eguneko epean, hirugarrena agertzen ez bada edo arrazoirik ematen ez badu, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, ondasunak traba daitezela agintzen duena, non eta hirugarrenari emandako epe berean alderdiek ez duten adierazten ados daudela enbargoa ez egitearekin. Hirugarrenak enbargoari aurka egiten badio arrazoiak emanda eta kasua denean bere eskubidea justifikatzen duten dokumentuak aurkeztuta, Justizia Administrazioaren letraduak, alderdiei bost eguneko epe komunerako helarazi eta gero, autoak igorriko dizkio auzitegiari, bidezkoa dena ebatz dezan.

3. Erregistroan inskribatzeko moduko jabaria duten ondasunak direnean, beti aginduko da haiek enbargatzeko, non eta hirugarrenak ez duen egiaztatzen erregistro-titularra dela erregistratzaileak egindako ziurtagiri egokiaren bidez, eta salbu geratuko da inskribatu gabeko balizko titularren eskubidea, dagokionaren aurka eta dagokion moduan egikaritu ahal izango dena.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, enbargatu beharreko ondasuna hirugarrenaren familia-etxebizitza denean eta hark auzitegiari aurkeztu dionean hura eskuratu izana justifikatzen duen dokumentu pribatua, Justizia Administrazioaren letraduak alderdiei helaraziko die, eta, haiek bost eguneko epean adierazten badute ados daudela enbargoa ez egitearekin, idazkaria abstenituko da hori erabakitzeaz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

594. artikulua. Geroago eskualdatzea betearazpenpekoarenak ez diren ondasun enbargatuak.

1. Efikaza izango da, hala ere, betearazpenpekoarenak ez diren ondasunen gainean trabatutako enbargoa. Benetako titularrak bere eskubideak baliatzen ez baditu jabari-hirugarrenengotzaren bidez, ezin izango du aurkaratu ondasun enbargatuen besterentzea, baldin eta errematatzaileak edo adjudikaziodunak modu erreibindikaezinean eskuratu baditu, legeria substantiboan ezarritakoaren arabera.

2. Medeatzeko akzioei edo bidegabe aberastekoei edo besterentzea deuseztatzekoei kalterik egin gabe ulertuko da aurreko apartatuan xedatutakoa.

595. artikulua. Jabari-hirugarrenengotza. Legitimazioa.

1. Jabari-hirugarrenengotza jarri ahal izango du, demanda-forman, nork eta betearazpenean alderdi izan gabe baieztatzen duenak betearazpenpekoaren ondasun gisa enbargatu den baten jabea dela eta harengandik ez duela eskuratu enbargoa trabatu ondoren.

2. Halaber, enbargoa kentzeko hirugarrenengotzak jarri ahal izango dituzte enbargoari aurka egiteko edo betearazpenpekoarenak direlakoan enbargatu diren ondasun baten edo batzuen nahitaezko diru-bihurtzeari aurka egiteko eskubidearen titular direnek berariazko lege-xedapen bidez.

3. Jabari-hirugarrenengotzaren demandarekin batera, froga-hastapen idatzizko bat aurkeztu beharko da hirugarrenengotzadunaren uziaren oinarriarena.

596. artikulua. Jabari-hirugarrenengotza jartzeko unea eta besterik gabe errefusatu ahal izatea.

1. Jabari-hirugarrenengotza jarri ahal izango da haren oinarri den ondasuna edo ondasunak enbargatu direnetik, nahiz eta enbargoa prebentziozkoa izan.

2. Auzitegiak, auto bidez, besterik gabe eta bideratu gabe errefusatu du jabari-hirugarrenengotzaren demanda, baldin eta ez bada aurkeztzen aurreko artikuluen 3. apartatuan galdatutako froga-hastapenarekin batera edo, legeria zibilean xedatutakoarekin bat etorritik, hartzekodunari edo enkante publikoan eskuratu duen hirugarrenari ondasuna eskualdatu ostean jartzen bada.

597. artikulua. Bigarren hirugarrenengotzaren eta geroagokoen debekua.

Inola ere ez da ahalbidetuko ondasun berberen gaineko bigarren hirugarrenengotzarik edo geroagokorik, baldin eta jartzen duena oinarritzen bada lehenengoa formulatzeko unean zituen titulu edo eskubideetan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

598. artikulua. Hirugarrengotza onartzearen ondoreak.

1. Hirugarrengotza-demanda onartzeak betearazpena etengo du haren oinarri den ondasunari dagokionez soilik, eta Justizia Administrazioaren letraduak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu erabakitako etendura bete dadin.

2. Justizia Administrazioaren letraduak demanda onartuta, auzitegiak, aurretiaz alderdiei entzunda beharrezkoa irizten badio, hirugarrengotza-demandan aipatzen den ondasunari dagokion betearazpena eteteko baldintzat ezarri ahal izango du ezen hirugarrengotzadunak kauzioa ematea hartzekodun betearazleari sor diezazkiokeen kalte-galerengatik. 529. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan eman ahal izango da kauzio hori.

3. Jabari-hirugarrengotza bat onartzea arrazoi nahikoa izango da Justizia Administrazioaren letraduak, alderdi-eskariz, enbargoa hobe dadila agintzeko dekretu bidez.

599. artikulua. Eskumena eta bideratzea.

Jabari-hirugarrengotza, zeina betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean jarri behar baita, ebatziko du haren agindu orokorra eta abiaraztea agindu zuen auzitegiak, eta bideratuko da hitzeko judizioarentzat aurreikusitako izapideten bitartez.

600. artikulua. Legitimazio pasiboa. Borondatezko auzikidetzak. Demandatua ez den betearazpenpekoaren esku-hartzea.

Hirugarrengotza-demanda hartzekodun betearazlearen aurka jarriko da, bai eta betearazpenpekoaren aurka ere demandaren oinarri den ondasuna berak izendatu duenean.

Hirugarrengotza-demanda betearazpenpekoaren aurka zuzendu ez bada ere, hirugarrengotzako alderdien eskubide prozesal berberekin esku hartu ahal izango du prozeduran; xede horretarako, beti jakinaraziko zaio izapidetzeko onartu dela demanda, bere eskubideari komeni zaion esku-hartzea izan dezan.

601. artikulua. Jabari-hirugarrengotzaren objektua.

1. Jabari-hirugarrengotzan, enbargoa kentzera zuzendutako uzia baino ez zaio onartuko hirugarrengotzadunari.

2. Jabari-hirugarrengotzan, enbargoa mantentzea edo hirugarrengotzaren objektua betearazpenari lotzea baino ezin izango dute eskatu betearazleak eta kasua denean betearazpenpekoak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

602. artikulua. Ez erantzutearen ondoreak.

Demandatuek ez badiote erantzuten jabari-hirugarrengotzaren demandari, ulertuko da onartu egiten dituztela demandan alegatutako egitateak.

603. artikulua. Hirugarrengotzari buruzko ebazpena.

Jabari-hirugarrengotza auto bidez ebatziko da, zeina pronuntziatuko baita ondasuna norena izateaz eta haren enbargoaren bidezkontasunaz hasita dagoen betearazpenaren ondoreetarako soilik, ez baitu gauza epaituaren ondorerik sortuko ondasunaren titulartasunari dagokionez.

Hirugarrengotza erabakitzen duen autoa kostuei buruz pronuntziatuko da, lege honen 394. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Erantzuten ez duten demandatuei ez zaizkie kostuak ezarriko, salbu eta auzitegiak, behar bezala arrazoituta, fede gaiztoa hautematen badu haien jardun prozesalean, kasua denean kontuan hartuta 593. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aipatutako jardunetan izan duten esku-hartzea.

604. artikulua. Ebazpen baieslea eta enbargoa kentzea.

Jabari-hirugarrengotza baiesten duen autoak aginduko du traba ken dadila eta gordailua desegin dadila, bai eta ezereztu daitezela prebentziozko idatzoharra eta hirugarrengotzaren oinarri den ondasunaren enbargoaren beste edozein berme-neurri ere.

3. atala. Ondasun enbargaezinez

605. artikulua. Ondasun guztiz enbargaezinak.

Inola ere ez dira enbargarriak izango:

- 1.) Lagun egiteko animaliak, haiek sor ditzaketen errenten enbargarritasunari kalterik egin gabe.
- 1 bis.) Besterenduezin deklaratu diren ondasunak.
- 2.) Eskubide erantsiak, nagusitik aparte besterendu ezin direnak.
- 3.) Berez, ondare-edukirik ez duten ondasunak.
- 4.) Lege-xedapenen batek berariaz enbargaezin deklaraturako ondasunak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

606. artikulua. Betearazpenpekoaren ondasun enbargaezinak.

Halaber, enbargaezinak dira:

1.) Etxeko altzariak eta tresneria, bai eta betearazpenpekoaren eta haren familiaren arropak ere, haiek beharrezkotzat hartzen diren heinean. Oro har, janarien eta erregaiei gisako ondasunak eta, auzitegiaren iritziz, betearazpenpekoak eta haren mende dauden pertsonen duintasunez bizitzeko ezinbestekoak dituzten beste batzuk.

2.) Betearazpenpekoak lanean, artean edo ogibidean aritzeko beharrezkoak dituen liburuak eta tresnak, haien balioak proportziorik ez duenean erreklamaturako zorraren muntarekin.

3.) Legez erregistraturako erlijioetako ondasun sakratuak eta gurtzan erabiltzen direnak.

4.) Legeak berariaz enbargaezin deklaraturako zenbatekoak.

5.) Espainiak berretsitako tratatuek enbargaezin deklaraturako ondasunak eta zenbatekoak.

607. artikulua. Soldatak eta pentsioak enbargatzea.

1. Enbargaezina da soldata, pentsioa, ordainsaria edo haien parekoa, ez badu gainditzen lanbide arteko gutxieneko soldatarentzat zehaztutako munta.

2. Lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen duten soldatak, egunsariak, ordainsariak edo pentsioak eskala honen arabera enbargaturako dira:

1.) Lehenengo munta gehigarriko, lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitzaren baliokidea den zenbatekora arte, ehuneko 30.

2.) Munta gehigarriko, lanbide arteko gutxieneko soldataren hirukoitzaren baliokidea den zenbatekora arte, ehuneko 50.

3.) Munta gehigarriko, lanbide arteko gutxieneko soldataren lauukoitzaren baliokidea den zenbatekora arte, ehuneko 60.

4.) Munta gehigarriko, lanbide arteko gutxieneko soldataren boskoitzaren baliokidea den zenbatekora arte, ehuneko 75.

5.) Aurreko munta gainditzen duen edozein zenbatekorako, ehuneko 90.

3. Betearazpenpekoa hartukizun bat baino gehiagoren onuradun bada, haiek guztiak metaturako dira, behin bakarrik kentzeko zati enbargaezina. Ezkontideen soldatak, pentsioak, ordainsariak edo parekoak ere metatu ahal izango dira, haien ondasun-eraentza ez bada mota guztietako ondasunak eta errentak banantzekoa; Justizia Administrazioaren letraduari egiaztatu beharko diote inguruabar hori.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Betearazpenpekoaren familia-zamak aintzat hartuz, Justizia Administrazioaren letraduak ehuneko 10etik 15era arteko beherapena aplikatu ahal izango du artikuluko honen 2. apartatuaren 1.), 2.), 3.) eta 4.) zenbakietan ezarritako ehunekoetan.

5. Soldatak, pentsioak edo ordainsariak izaera publikoko deskontu iraunkor edo behin-behinekoren batekin kargatuta egonez gero legeria fiskala, tributarioa edo Gizarte Segurantzari buruzkoa dela-eta, deskontu horiek kenduta betearazpenpekoak jasotzen duen zenbateko likidoak balioko du enbargoa arautzeko tasa gisa.

6. Artikulu honen aurreko apartatuak aplikatuko zaizkie jarduera profesional eta merkataritzako jarduera autonomoetatik eratorritako sarrerei.

7. Alderdi betearazleari zuzenean entregatu ahal izango zaizkio manu honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik enbargatutako zenbatekoak, berak aldez aurretik izendatutako kontuan, baldin eta hala erabakitzen badu betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak.

Kasu horretan, bai atxikitzea eta osteko entrega gauzatu dituen pertsonak edo entitateak, bai betearazleak, hiru hilean behin txostena eman beharko diote Justizia Administrazioaren letraduari, igorritako eta hartutako zenbatekoei buruz, hurrenez hurren; kasu orotan, salbu geratuko dira betearazpenpekoak formula ditzakeen alegazioak, dela zorra osorik ordainduta dagoela uste duelako eta, ondorioz, traba ondorerik gabe utzi behar delako, dela atxikitzeak edo entregak ez direlako egiten ari Justizia Administrazioaren letraduak erabakitakoarekin bat etorritik.

Zuzeneko entrega hori erabakitzen duen Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpenaren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da auzitegiaren aurrean.

608. artikulua. Mantenua emateko kondenagatiko betearazpena.

Aurreko artikuluan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango mantenua ordaintzera kondenatzen duen epaia betearazten denean, hura ordaintzeko betebeharra zuzenean legetik sortzen den kasu guztietan, barnean hartuta ezkontideari edo seme-alabei zor zaien mantenuari buruzko pronuntziamenduak, deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-prozesuetan emandako epaienak edo mantenua ezartzen duen hitzarmen arauemailea formalizatzen duten dekretuenak edo eskritura publikoenak. Kasu horietan, bai eta haiei dagozkien kautela-neurrien kasuetan ere, auzitegiak finkatuko du enbarga daitekeen zenbatekoa.

609. artikulua. Ondasun enbargaezinen gaineko trabaren ondoreak.

Erabat deuseza izango da ondasun enbargaezinen gainean trabatutako enbargoa.

Betearazpenpekoak auzitegiaren aurrean salatu ahal izango du deuseztasun hori, errekurtsu arrunten bidez edo Justizia Administrazioaren letraduaren aurreko agerraldi soil bidez, baldin eta betearazpenean pertsonatu ez bada eta pertsonatu nahi ez badu; auzitegiak ebatziko du salatutako deuseztasunari buruz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

610. artikulua. Berrenbargoa. Ondoreak.

1. Ondasun edo eskubide enbargatuak berrenbargatu ahal izango dira, eta berrenbargoak berrenbargatzaileari eskubidea emango dio diru bihurtutako ondasunetatik lortzen den emaitza jasotzeko, behin aseztu gero aurreko enbargoak dekretu zitezela eskatu zuten betearazlearen eskubideak edo, aurretiazko asetze horren beharrik gabe, hurrengo apartatuaren bigarren paragrafoaren kasuan.

2. Baldin eta, edozein kausagatik, lehenengo enbargoa kentzen bada, lehenengo betearazlearen posizioan geratuko da lehenengo berrenbargoa trabatu den prozesuko betearazlea, eta eskatu ahal izango du nahitaez diru bihurtzea ondasun berrenbargatuak.

Nolanahi ere, berrenbargatzaileak eskatu ahal izango du nahitaez diru bihurtzea ondasun berrenbargatuak, aurreko enbargoa edo enbargoak kentzeko beharrik gabe, diru-bihurtzeak aurreko enbargatzailearen eskubideak ukitzen ez dituenean.

3. Berrenbargoa dekretatzen den prozesuetako betearazleek Justizia Administrazioaren letratuak eskatu ahal izango diote har ditzala traba hori bermatzeko neurriak, betiere aurreko betearazpen bat oztopatzen ez badute eta bateraezinak ez badira enbargoa lehenengo lortu zuenaren alde hartutakoekin.

611. artikulua. Soberakina enbargatzea.

588. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, eskatu ahal izango da enbarga dadila jada abiarazitako beste betearazpen batean ondasunak nahitaez diru bihurtutakoan soberan geratu dena.

Gordailuen eta kontsignazioen kontuan sartuko da hala lortutako zenbatekoa, eskura egon dadin soberakinaren enbargoa agindu zen prozesuan.

Diru bihurtutako ondasunak higiezinak direnean, betearazleari ordaindu ondoren sartuko da soberan geratutako zenbatekoa, bai eta hartzekodunei ordaindu ondoren ere, baldin eta betearazlearen eskubidearen ondoren inskribatu edo idatzohartu badute beren eskubidea, eta lehentasuna badute enbargoaren soberakina zein hartzekodunen alde erabaki eta harekiko.

612. artikulua. Enbargoa hobetzea, murriztea eta aldatzea.

1. 598. eta 604. artikuluetan, hurrenez hurren, jabari-hirugarrengotza bat onartzeko eta baiesteko kasuetarako xedatutakoaz gain, betearazleak eskatu ahal izango du hobe edo alda daitezela enbargoa edo hartutako berme-neurriak, baldin eta inguruabarren aldaketa batek zalantza jar badezake ondasun enbargatuak nahikoak izatea betearazpenpekoaren erantzukizuna ordainarazteari lotuta. Betearazpenpekoak ere eskatu ahal izango du enbargoa eta haren bermeak murriztu edo alda daitezela, baldin eta enbargoa edo bermeak alda badaitezke betearazpenaren helburuari arriskurik sortu gabe, 584. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

2. Justizia Administrazioaren letratuak dekretu bidez ebatziko du eskabide horiei buruz. Dekretu horren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da, etete-ondorerik sortuko ez duena.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Hurrengo artikulua enbargoaren apartatua aurreikusitako kasuetan ere erabaki ahal izango da enbargoa hobetzea.

4. atala. Enbargatzailearen lehentasunaz eta eskubide hobeko hirugarrengotzaz

613. artikulua. Enbargoaren ondoreak. Prebentziozko idatzoharrak eta hirugarren edukitzaileak.

1. Enbargoak hartzekodun betearazleari eskubidea ematen dio ondasun enbargatuak diru bihurtzean lortutakoaren emaitza eskuratzeko, tituluan jasotako zorraren zenbatekoa, bidezkoak diren korrituak eta betearazpenaren kostuak kobratzeko.

2. Betearazleari ez bazaizkio erabat itzuli bere kredituaren kapitala eta korrituak eta betearazpenaren kostu guztiak, diru bihurtutako zenbatekoak ezin izango dira erabili beste helburu baterako, salbu eta eskubide hobeko hirugarrengotzan emandako epaiak lehentasunezko zatik deklaratu badu helburu hori.

3. Aurreko apartatueta xedatutakoari kalterik egin gabe, ondasunak beren enbargoaren prebentziozko idatzoharra ahalbidetzen duten motetakoak direnean, beste betearazpen batean ondasun horiek eskuratu dituzten hirugarren edukitzaileen erantzukizunaren muga izango dira zenbateko batzuk, hirugarren edukitzaileek eskuratu zituztela inskribatu zuten datan idatzoharrean kontsignatuta azaltzen zirenak printzipala, korrituak eta kostuak kobratzeko.

4. Betearazleak eskatu ahal izango du agin dadila enbargoaren prebentziozko idatzoharrean jasoarazteko zenbat handitu den betearazpeneari zehar sortutako korrituen eta betearazpenaren kostuen kontzepturako aurreikusitako zenbatekoa, eta egiaztatu beharko du batzuek eta besteek gainditu egin dutela aurreko idatzoharrean kontzeptu horiek direla-eta jasotako zenbatekoa.

614. artikulua. Eskubide hobeko hirugarrengotza. Helburua. Bigarren hirugarrengotza debekatzea.

1. Eskubide hobeko hirugarrengotzaren demanda jarri ahal izango du baieztatzen duenak eskubide bat dagokiola hartzekodun betearazlearen kreditua baino lehen berea ordaintzekoa; demandarekin batera aurkeztu beharko da lehentasunezkoa dela baieztatzen den kredituaren froga-hastapen bat.

2. Ez da onartuko eskubide hobeko hirugarrengotzaren demanda harekin batera aurkeztu ez bada aurreko apartatua aipatutako froga-hastapena. Eta inola ere ez da ahalbidetuko eskubide hobeko bigarren hirugarrengotzarik, baldin eta hura jartzen duena oinarritzen bada lehenengoa formulatzeko unean zituen titulu edo eskubideetan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

615. artikulua. Eskubide hobeko hirugarrengotzaren denbora.

1. Eskubide hobeko hirugarrengotza bidezkoa izango da lehentasunak ukitutako ondasuna enbargatzen denetik, lehentasuna berezia bada, edo betearazpena abiarazten denetik, orokorra bada.

2. Eskubide hobeko hirugarrengotzaren demanda ez da onartuko betearazleari nahitaezko betearazpenaren bidez lortutako zenbatekoa entregatu eta gero edo, ondasun enbargatuak betearazleari adjudikatuz gero, hark ondasun horien titulartasuna legeria zibilean xedatutakoaren arabera eskuratu eta gero.

616. artikulua. Eskubide hobeko hirugarrengotzaren ondoreak.

1. Eskubide hobeko hirugarrengotza jarrita, nahitaezko betearazpenak aurrera jarraituko du ondasun enbargatuak diru bihurtu arte, eta gordailuen eta kontsignazioen kontuan gordailutuko da bildutakoa, betearazleari betearazpenaren kostuak itzultzeko eta hirugarrengotza ebazterakoan zehaztutako lehentasun-hurrenkeran hartzekodunei ordaintzeko.

2. Eskubide hobeko hirugarrengotzadunak eskura badu bere kreditua jasotzen duen titulu betearazlea, hirugarrengotza-demanda onartzen denetik esku hartu ahal izango du betearazpenean. Titulu betearazlerik ez badauka, hirugarrengotzadunak ezin izango du esku hartu harik eta, kasua denean, demanda baietsi arte.

617. artikulua. Prozedura, legitimazio pasiboa eta auzikidetza.

1. Eskubide hobeko hirugarrengotza hartzekodun betearazlearen aurka zuzenduko da beti, eta hitzezko judizioaren bideetatik bideratuko da.

2. Betearazpenpekoak eskubide prozesal guztiekin esku hartu ahal izango du hirugarrengotza-prozeduran, eta demanda jarri beharko zaio titulu betearazle batean jasota ez dagoenean hirugarrengotzadunak lehentasunezko gisa alegatutako kreditua.

3. Demandarik jarri ez bazaio ere, betearazpenpekoari kasu orotan jakinaraziko zaio izapidetzeko onartu dela demanda, haren eskubideari komeni zaion esku-hartzea egin dezan.

618. artikulua. Ez erantzutearen ondoreak.

Demandatuek ez badiote erantzuten eskubide hobeko hirugarrengotzaren demandari, ulertuko da onartu egiten dituztela demandan alegatutako egitateak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

619. artikulua. Betearazleak amore ematea eta atzera egitea. Lehentasunezko hirugarrengotzadunak parte hartzea betearazpenaren kostuetan.

1. Titulu betearazlean jasotzen denean hirugarrengotzadunaren kreditua, betearazleak amore ematen badio eskubide hobeko hirugarrengotzari, izapide gehiagorik gabe emango da autoa, agintzen duena betearazpenak aurrera jarrai dezala lehenik hirugarrengotzadunari ordaintzeko; baina, Justizia Administrazioaren letraduak ez dio zenbatekorik entregatuko, betearazleari aldezturik ordaindu ez bazaizkio haren eskariz gauzatutako jardunek hirugarrengotza-demanda jakinarazi arte sortutako kostuen eta gastuen hiru bostenak.

Hirugarrengotzadunaren kreditua ez badago jasota titulu betearazlean, hirugarrengotzan pertsonatuta dagoen betearazpenpekoak adierazi beharko du, amore emateko idazkia helarazi zitzaionetik bost eguneko epearen barruan, ados dagoen ala ez betearazlearen amore ematearekin. Betearazpenpekoa amore ematearekin ados badago edo epea igarotzen uzten badu adierazi gabe ados ez dagoela, aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik jardungo da. Betearazpenpekoak aurka egiten dionean amore emateari, autoa emango da, betearazlea amore emandakotzat hartzen duena eta hirugarrengotzak betearazpenpekoarekin jarrai dezala agintzen duena.

2. Baldin eta hirugarrengotza-demanda jakinarazi eta betearazleak atzera egiten badu betearazpenean, betiere titulu betearazlean jasota badago hirugarrengotzadunaren kreditua, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, agintzen duena betearazpenak aurrera jarrai dezala lehenik hirugarrengotzadunari ordaintzeko. Hala ez bada, betearazpen-prozesuan atzera egiteko dekretua emango du, eta amaitutzat emango du betearazpena, salbu eta betearazpenpekoak adierazten badu ados dagoela aurrera jarraitzearekin hirugarrengotzadunaren kreditua ordaintzeko.

620. artikulua. Epaiaren ondoreak. Hirugarrengotzaren kostuak eta hirugarrengotzadunak parte hartzea betearazpenaren kostuetan.

1. Eskubide hobeko hirugarrengotzan ematen den epaiak ebatziko du ea pribilegiarik dagoen eta zer hurrenkeratan ordaindu behar diren kredituak betearazpenean, baina aurrez epaitu gabe bakoitzak izan ditzakeen beste akzio batzuk, aberastekoak bereziki.

Halaber, epaiak hirugarrengotza ezesten badu, hirugarrengotzaduna kondenatuko du hirugarrengotzaren kostu guztiak ordaintzera. Baiesten duenean, demandari erantzun zion betearazleari ezarriko dizkio, eta, betearazpenpekoak esku hartu badu, hirugarrengotzari aurka eginez ere, hari ezarriko dizkio betearazlearekin erdi bana, salbu eta, betearazleak amore ematen duelako, hirugarrengotza betearazpenpekoarekin soilik bideratu denean; kasu horretan, betearazpenpekoari ezarriko zaizkio kostu guztiak.

2. Epaiak eskubide hobeko hirugarrengotza baiesten duen guztietan, hirugarrengotzadunari ez zaio entregatuko betearazpenetik eratorritako zenbatekorik, baldin eta betearazleari ordaindu ez bazaizkio epai hori eman arte betearazpenean sortutako kostuen hiru bostenak.



5. atala. Ondasun higigarrien eta eskubideen trabaren bermeaz

621. artikulua. Diruaren, kontu korronteen eta soldaten enbargoaren bermeak.

1. Dirua edo dibisa bihurgarriak enbargatzen badira, gordailuen eta kontsignazioen kontuan sartuko dira.

2. Kreditu-, aurrezki- edo finantzaketa-erakunde batean irekitako kontuetatik edozeinen saldo positiboak enbargatzen direnean, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak agindua bidaliko dio entitateari, atxiki ditzan enbargatutako zenbateko zehatzak edo 588. artikuluaen bigarren apartatuan aipatutako gehieneko muga artekoak. Alderdi betearazlearen prokuradoreak eginbidetu ahal izango du agindu hori. Aurkezten den une berean bete beharko du entitate errekerituak, eta agindua hartu izana egiaztatzen duen agiria egin beharko du, jasota utziko duena zer zenbateko dituen betearazpenpekoak une horretan entitate horretan. Agiri hori ekitaldi horretan entregatuko zaio haren eginbidetzea bere gain hartu duen alderdi betearazlearen prokuradoreari; bestela, zuzenean igorriko zaio betearazpen-organismoari, ahalik eta biderik azkarrena erabiliz.

3. Soldatak, pentsioak edo beste prestazio periodiko batzuk enbargatzen badira, 607. artikuluaen 7. zenbakian aurreikusitakoari jarraituko zaio, kasua denean. Kontrako kasuan, pertsona, entitate edo bulego ordaintzaileari aginduko zaio auzitegiaren eskura atxiki eta gordailuen eta kontsignazioen kontura transferi ditzala.

622. artikulua. Korrituen, errenten eta fruituen enbargoaren bermea.

1. Mota orotako korrituak, errentak edo fruituak enbargatzen direnean, atxikitze-agindua bidaliko zaio ordaindu behar dituenari edo zuzenean jasotzen dituenari, hura betearazpenpekoa bera bada ere, enbargatutako korrituak badira, gordailuen eta kontsignazioen kontuan sar ditzan sortzen direnean edo, bestelakoak badira, auzitegiaren eskura atxiki ditzan.

2. Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez erabakiko du fruituen eta errenten enbargoa bermatzeko administrazio judiziala, soilik, zentzuz hala gomendatzen dutenean ondasun eta eskubide emankorrek, korrituen garrantziak, enbargatutako errentek edo fruituek edota betearazpenpekoaren inguruabarrek.

3. Halaber, Justizia Administrazioaren letraduak administrazio judiziala erabaki ahal izango du egiaztatzen denean entitate ordaintzaileak edo hartzaileak edo, kasua denean, betearazpenpekoak berak ez duela betetzen artikulua honen lehenengo apartatuan aipatutako agindua, fruituak eta errentak atxikitzekoa edo sartzekoa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

623. artikulua. Baloreen eta finantza-tresnen enbargoaren bermea.

1. Baloreak edo bestelako finantza-tresnak enbargatzen badira, enbargoa jakinaraziko zaio ordainketa egin behar duenari, ordainketa hori periodikoki edo data jakin batean egin behar denean, edo entitate jaulkitzaileari, haien ukandunaren edo jabearen borondatez ludigarriak edo amortizagarriak direnean. Enbargoaren jakinarazpenari errekerimendua erantsiko zaio, ezartzen duena auzitegiaren eskura atxiki dadila zenbatekoa edo balore edo finantza-tresna bera mugaeguneratzean edo, muga-egunik ez duen kasuan, jakinarazpena jasotzeko unean, bai eta, kasua denean, atxiki daitezela sortzen diren korrituak edo dibidenduak ere.

2. Bigarren mailako merkatu ofizialetan kotizatzen duten baloreak edo finantza-tresnak direnean, artezkaritza-organoari jakinaraziko zaio enbargoa aurreko paragrafoko ondore berberetarako, eta, kasua denean, artezkaritza-organoak jakinaraziko dio konpentsazioaren eta likidazioaren ardura duen entitateari.

3. Sozietate zibiletako, kolektiboetako, komanditarioetako edo erantzukizun mugatuko sozietateetako partaidetzak edo bigarren mailako merkatu ofizialetan kotizatzen ez duten akzioak enbargatzen badira, sozietatearen administratzaileei jakinaraziko zaie enbargoa, eta haiek auzitegiari ezagutarazi beharko diote ea badagoen itunik akzioen eskualdatze askea mugatzen duenik edo estatutu- edo kontratu-klausularik enbargatutako akzioak ukitzen dituenik.

624. artikulua. Ondasun higigarrien enbargo-eginbidea. Enbargoaren bermea.

1. Ondasun higigarriak enbargatu behar direnean, honako puntu hauek jasoko dira enbargo-eginbidearen aktan:

1.) Ondasun enbargatuen zerrenda, ahalik eta zehatzen deskribatuta haien forma eta itxura, ezaugarri nagusiak, erabilera- eta kontserbazio-egoera, bai eta haien balioa txikiagotu dezaketen akatsen edo taren existentzia garbia ere. Horretarako, bulego judizialak dokumentazio grafiko eta bisualerako dituen bitartekoak erabiliko dira, edo alderdietatik edozeinek ekartzen dizkionak haiek hobeto identifikatzeko.

2.) Enbargoan esku hartu dutenek egindako adierazpenak eta, bereziki, enbargatutako gauzen titulartasunari buruzkoak eta hirugarrenek izan ditzaketen eskubideei buruzkoak.

3.) Nor izendatzen den gordailuzain, eta non gordailutzen diren ondasunak.

2. Ondasun higigarrien enbargo-eginbidea jasotzen duen aktaren kopia emango zaie alderdiei.

625. artikulua. Efektu edo ondasuntza publikotzat hartzea.

Enbargatutako diru-zenbatekoak eta gainerako ondasunak efektu edo ondasuntza publikotzat hartuko dira, gordailutzen direnetik edo haiek atxikitzea agintzen denetik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

626. artikulua. Gordailu judiziala. Gordailuzaina izendatzea.

1. Balio berezia duten edo kontserbazio berezia behar duten balore-tituluak edo objektuak enbargatzen badira, gordailutu ahal izango dira establezimendu publiko edo pribatu egokienean.

2. Ondasun higigarri enbargatuak hirugarren baten esku badaude, dekretu bidez egingo zaio errekerimendua auzitegiaren eskura kontserba ditzan, eta gordailuzain judizial izendatuko da, salbu eta Justizia Administrazioaren letraduak zioak emanez beste zerbait ebazten badu.

3. Betearazpenpekoa izendatuko da gordailuzain, baldin eta ondasun enbargatuak ekoizpen-jarduera batean erabiltzen baditu edota haiek garraiatzea edo biltegitratzea zaila edo garestia bada.

4. Aurreko apartatuetan aurreikusitako kasuez bestelakoetan edo komenigarriagoa irizten dionean, Justizia Administrazioaren letraduak hartzekodun betearazlea edo, hari entzunda, hirugarren bat izendatu ahal izango du ondasun enbargatuen gordailuzain dekretu bidez.

Betearazpena bideratzen ari den tokiko prokuradoreen elkargoa izendatu ahal izango da gordailuzain, betiere zerbitzu egoki bat badu bere gain hartzeko gordailuzainarentzat lege ezarritako erantzukizunak. Hala bada, elkargoak ahalmena izango du ondasunak lokalizatzeke, kudeatzeko eta gordailutzeko; ondore horretarako, beharrezkoa den egiaztgutuna emango da.

5. Kontuko idatzoharren erregistroa daraman organoari edo entitateari komunikatuko zaio kontuko idatzoharretan ordezkaturako balioen enbargoa, kasuan kasuko liburuan jaso dezan.

627. artikulua. Gordailuzainaren erantzukizunak. Bitarteko gordailuzainak.

1. Gordailuzain judiziala behartuta egongo da behar adinako arretarekin kontserbatzera ondasunak auzitegiaren eskura, Justizia Administrazioaren letraduak zehazten dizkion baldintzetan erakustera eta hark izendatzen duen pertsonari entregatzera.

Alderdi-eskariz edo ofizioz, baldin eta hark bere betebeharrak betetzen ez baditu, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak kargutik kendu ahal izango du gordailuzaina dekretu bidez, eta beste bat izendatu, hargatik eragotzi gabe kargutik kendutako gordailuzainak izan dezakeen erantzukizun penala eta zibila.

2. Harik eta gordailuzaina izendatu eta hari ondasunak entregatu arte, betearazpenpekoari dagozkio gordailutik eratorritako betebeharrak eta erantzukizunak, aurretiaz onartu edo errekerimendua egin beharrik gabe, eta, enbargoaren berri izanez gero, administratzaileei, ordezkari ei edo arduradunei edo ondasunak eskura aurkitu zitzaizkion hirugarrenari.

628. artikulua. Gordailuaren gastuak.

1. Baldin eta gordailuzaina betearazleaz, betearazpenpekoaz eta gordailuko objektu den ondasun higigarriaren hirugarren edukitzaileaz bestelako pertsona bat bada, eskubidea izango du ondasunen



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

garraioak, kontserbazioak, zaintzak, erakusketak eta administrazioak sortutako gastuak berreskuratzeko, eta betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak antolaketa-eginbide bitartez erabaki ahal izango du betearazleak aurrera dezala zenbatekoren bat, hargatik eragotzi gabe kostuak direla-eta haiek itzul dakizkion duen eskubidea.

Hirugarren gordailuzainak ere eskubidea izango du gordailua dela-eta jasan dituen kalte-galeren ordaina jasotzeko.

2. Gauzak entitate edo establezimendu egokietan gordailutzen direnean 626. artikulua 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak ordainsari bat finkatuko du antolaketa-eginbide bitartez, ohiko prezioekin eta tarifekin bat datorrena. Betearazleak bere gain hartu beharko du ordainsari hori, hargatik eragotzi gabe kostuak direla-eta hura itzul dakion duen eskubidea.

6. atala. Higiezinak eta inskribatzeko moduko bestelako ondasun batzuk enbargatzeko bermeaz

629. artikulua. Enbargoaren prebentziozko idatzoharra.

1. Ondasun higiezinak edo erregistroan inskribatzeko moduko bestelako ondasun edo eskubide batzuk enbargatzen direnean, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak, betearazlearen eskariz, manamendua bidaliko du enbargoaren prebentziozko idatzoharra egin dadin jabetza-erregistroan edo pareko efikaziako idatzoharra egin dadin kasuan kasuko erregistroan. Manamendua egiten den egun berean, Justizia Administrazioaren letraduak jabetza-erregistroari igorriko dio, faxez edo lege honen 162. artikuluan aurreikusitako moduetatik edozeinetan. Erregistratzaileak kasuan kasuko aurkezpen-idazpena egingo du, eta atzeratu egingo da idatzoharra egitea, harik eta jatorrizko dokumentua aurkeztu arte hipoteka-legerian aurreikusten den moduan.

2. Baldin eta ondasuna immatrikulatuta ez badago edo betearazpenpekoaz bestelako pertsona baten alde inskribatuta egonda hura bada betearazpenpekoaren eskubidearen oinarria, enbargoaren idatzoharra atzeratzeko prebentziozko idatzoharra egin ahal izango da, hipoteka-legerian aurreikusitako moduan eta ondoreekin.

7. atala. Administrazio judizialaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

630. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa.

1. Administrazio judiziala eratu ahal izango da enbargatzen denean enpresaren bat edo enpresataldereen bat edo enbargatzen direnean kapital sozialaren, ondare komunaren edo enpresen edo haien ustiapenari atxikitako ondasunen edo eskubideen gehiengoa ordezkatzan duten akzioak edo partaidetzak.

2. 622. artikulua 2. eta 3. apartatueta aurreikusitako kasuetan ere administrazio judiziala eratu ahal izango da fruituen eta errenten enbargoa bermatzeko.

631. artikulua. Administrazioa eratzea. Administrazioaileak eta kontu-hartzaileak izendatzea.

1. Administrazio judiziala eratzeak, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean agertzeko zitazioa egingo zaie alderdiei eta, kasua denean, sozietateen administrazioaileei, haiek betearazpenpeko alderdi ez direnean, bai eta enbargatu gabeko akzio edo partaidetzen bazkideei edo partaideei ere, akordio batera irits daitezene edo alegazio eta frogak egokiak egin ditzaten administrazioaileen izendapenari buruz, kargua bete behar duen pertsonari buruz, kausa galdatzeari edo ez galdatzeari buruz, jarduteko moduari buruz, aurretiaz zegoen administrazioa mantentzeko edo ez mantentzeko buruz, kontu-emateari buruz eta bidezko ordainsariari buruz.

Agertu ez eta hori justifikatzen ez duten interesdunei dagokienez, ulertuko da ados daudela agertutakoek erabakitakoarekin.

Akordioa badago, Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez ezarriko ditu administrazio judizialaren baldintzak, akordioarekin bat etorritik. Akordiorik ez duten edo alderdietakoren baten aurkakotza duten puntuak ebazteko, frogak gauzatu nahi badute, dei egingo zaie, betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiaren aurrean ager daitezene, eta hark bidezkoa deritzona ebazteko du, auto bidez, administrazio judizialari buruz. Frogak gauzatu nahi ez bada, auzitegiari pasako zaizkio jarduketak, bidezkoa dena ebaztean zuzenean.

2. Enpresa baten edo haien taldearen administrazio judiziala erabakitzen bada, Justizia Administrazioaren letraduak kontu-hartzaile bat izendatu beharko du, enbargatutako enpresaren edo enpresen titularrak edo titularrek izendatuta, eta, kapital sozialaren gehiengoa edo enpresa batenak diren edo haren ustiapenari atxikita dauden ondasun edo eskubide gehienak soilik enbargatzen badira, bi kontu-hartzaile izendatuko dira; bata ukitutakoen gehiengoak izendatuko du, eta, bestea, gutxiengoak.

3. Administrazioaile judizialaren izendapena merkataritza-erregistroan inskribatuko da, bidezkoa denean. Jabetza-erregistroan ere egingo da administrazio judizialaren idatzoharra, ondasun higiezinak eragiten dienean.

632. artikulua. Administrazioaile-karguaren edukia.

1. Administrazioaile judizialak aurrez zeuden administrazioaileak ordeztan dituztenean eta besterik xedatzen ez denean, ordeztuak izaera arruntarekin dituztenak izango dira hari dagozkion eskubideak, betebeharrak, ahalmenak eta erantzukizunak, baina betearazpenaren ardura duen Justizia



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Administrazioaren letraduaren baimena beharko du besterentzeko edo kargatzeko enpresako partaidetzak zein enpresak beste batzuetan dituenak, ondasun higiezinak edo beste edozein, haien izaeragatik edo garrantziagatik Justizia Administrazioaren letraduak berariaz zehaztu baditu.

2. Ukituek izendatutako kontu-hartzailerik egonez gero, besterentzea edo zamatzea gauzatzeko, administratzaileak agerraldi batera deituko ditu, eta Justizia Administrazioaren letraduak ebatziko du dekretu bidez.

3. Aurreko bi zenbakietan aurreikusitako ebazpenen aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiaren aurrean.

633. artikulua. Administratzailearen jarduteko modua.

1. Administrazio judiziala erabakita, idazkariak berehalako edukitza emango dio izendatuari, eta betearazpenekoari errekerimendua egingo dio, ordura arte eraman duen administrazioa utz dezan.

2. Betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak ebatziko ditu, dekretu bidez, administratzailearen egintzei buruz sortzen diren desadostasunak, ukituei entzun ondoren eta kalterik egin gabe administratzaileak eman beharreko azken kontuaren aurka jartzeko eskubideari.

3. Alderdiei eta kontu-hartzaileei ikusgai jarriko zaie administratzaileak aurkeztutako azken kontu justifikatua, eta bost eguneko epean aurkaratu ahal izango dute; hogeita hamar egunera arte luzatu ahal izango da epea, kontuaren konplexutasuna kontuan hartuta.

Aurka eginez gero, interesdunak agerraldirako zitatu ondoren ebatziko da. Ematen den dekretuaren aurka, berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da, zuzenean, auzitegiaren aurrean.

IV. KAPITULUA

Premiamendu-prozeduraz

1. atala. Ondasun enbargatuak diru bihurtzeko xedapen orokorrak

634. artikulua. Betearazleari zuzenean entregatzea.

1. Betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak zuzenean entregatuko dizkio betearazleari ondasun enbargatuak, haien balio nominalean, baldin eta hauetarikoak badira:

1.) Eskudirua.

2.) Kontu korronteen eta berehala eskura daitezkeen beste batzuen saldoak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3.) Dibisa bihurtarriak, kasua denean aurretiaz bihurtuta.

4.) Beste edozein ondasun, baldin eta haren balio nominala merkatuan duen balioaren berdina bada, edo, txikiagoa izan arren, hartzekodunak onartzen badu ondasuna entregatzea haren balio nominalen.

2. Justizia Administrazioaren letraduak erabaki ahal izango du enbargatutako zenbatekoak, izaera periodikoa dutenean, ebazpen bat emanez entregatzea, zeinak geroko entregak babestuko baititu printzipala guztiz ordaindu arte. Behin printzipala estalita, eta, hala badagokio, interesak likidatu eta kostuak tasatu ondoren, enbargatutako zenbatekoak aipatutako moduan eta kontzeptu horiengatik entregatzea ere erabaki ahal izango da, ebazpen bakar baten bidez.

3. Kontuko saldo positiboek mugaeguneratze geroratua dutenean, Justizia Administrazioaren letraduak berak hartuko ditu haiek kobratzeko neurri egokiak, eta administratzaile bat izendatu ahal izango du, haiek diru bihurtzeko komenigarria edo beharrezkoa denean.

4. Ondasun higigarrien epekako salmentako kontratuak ez betetzeagatik zor diren zenbatekoak ordaintzera kondenatzen duten epaiak betearaztean, betearazleak hala eskatuz gero, Justizia Administrazioaren letraduak berehala entregatuko dio epeka saldutako edo finantzatutako ondasun higigarria edo higigarriak, kontratuan balio-galerari begira ezarritako erreferentziazko tauletatik edo indizeetatik ondorioztatzen den balioan.

635. artikulua. Akzioak eta beste sozietate-partaidetza mota batzuk.

1. Baldin eta ondasun enbargatuak akzioak, obligazioak edo bigarren mailako merkatu batean negoziatzeko onartutako beste balore batzuk badira, Justizia Administrazioaren letraduak aginduko du besterendu daitezela merkatu horiek arautzen dituzten legeen arabera.

Gauza bera egingo da ondasun enbargatuak edozein merkatu araututan kotizatzen badu edo prezio ofiziala duen merkatu batera irits badaiteke.

2. Baldin eta edozein motatako akzioak edo sozietate-partaidetak enbargatzen badira, burtsan kotizatzen ez dutenak, diru bihurtuko dira kontuan hartuta akzioak edo partaidetak besterentzeko estatutu- edo lege-xedapenak eta, bereziki, lehentasunez eskuratzeko eskubideak.

Xedapen berezirik ezean, enkante judizial bidez bihurtuko dira diru.

636. artikulua. Aurreko artikuluetan ez dauden ondasunak edo eskubideak diru bihurtzea.

1. Alderdiek eta interesdunek hitzartutakoaren arabera bihurtuko dira diru aurreko artikuluetan ez dauden ondasunak edo eskubideak, eta betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak onetsi beharko du hitzarmena, lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Diru bihurtzeko hitzarmenik ezean, honako prozedura hauetakoren bat erabiliz besterenduko dira ondasun enbargatuak:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Pertsona edo erakunde espezializatu bidezko besterentzea, lege honetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

2.) Enkante judiziala.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoari kalterik egin gabe, Justizia Administrazioaren letraduak ondasunak enbargatu ondoren, beharrezkoak diren jardunak egingo dira haien enkante judiziala egiteko, zeina zehaztutako epean gauzatuko baita baldin eta aurretiaz eskatu eta agindu ez bada, lege honetan aurreikusitakoaren arabera, nahitaezko diru-bihurtzea beste era batera gauza dadila.

2. atala. Ondasun enbargatuak baloratzea

637. artikulua. Ondasunen balioespena.

Ondasun enbargatuak ez badira 634. eta 635. artikuluetan aipatuetarikoak, balioetsi egingo dira, non eta betearazlea eta betearazpenpekoa elkarrekin ados jarri ez diren haien balioari buruz, betearazpenaren aurretik edo betearazpenean zehar.

638. artikulua. Aditu tasatzailea izendatzea, errekusatzea eta betearazleak eta betearazpenpekoak esku hartzea tasazioan.

1. Ondasunak baloratzeko, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak egokitzen den aditu tasatzailea izendatuko du Justizia Administrazioan zerbitzuak ematen dituztenen artetik. Halakorik ez badago, administrazio publikoen mendeko organismo edo zerbitzu teknikoei eman ahal izango zaie tasazioaren ardura, pertsonal kalifikatua badute eta beren gain hartu badute konpromisoa Justizia Administrazioarekin ondore horietarako lankidetzan aritzeko, eta organismo edo zerbitzu horietara ere jo ezin bada, aditu tasatzailea izendatuko da zerrenda batean dauden pertsona fisikoen edo juridikoen artetik, zeina osatuko den ondasunak baloratzeko gaikuntzak emateko eskudunak diren erakunde publikoek emandako listekin, bai eta balorazio hori egiteko legezko gaitasuna duten kideez osatutako elkargo profesionalek emandakoekin ere.

2. Justizia Administrazioaren letraduak izendatutako aditua errekusatu ahal izango dute betearazleak eta agertutako betearazpenpekoak.

3. Aditu izendatuak beharrezkotzat jotzen duen funts-hornidura eskatu ahal izango du, bere izendapenetik hurrengo hiru egunetan, azken likidazioaren kontura. Justizia Administrazioaren letraduak eskatu den hornidurari buruz erabakiko du, eta, aurretiaz hura ordainduta, irizpena emango du adituak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

639. artikulua. Aditu izendatuaren jarduna eta alderdien eta geroagoko hartzekodunen esku-hartzea tasazioan.

1. Izendapena aditu izendatuari jakinaraziko zaio, eta hurrengo egunean onartuko du, baldin eta hori eragozten dion abstentzio-kausarik ez badago. Onarpena telematikoki komunikatu ahal izango zaio betearazpenaz arduratzen den organo judizialari.

2. Adituak enkargu-onarpenetik zortzi eguneko epean entregatuko die auzitegiari eta alderdi pertsonatuei, aldi berean, ondasun enbargatuen balorazioa. Kausa justifikatuengatik soilik, zeinak Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez adieraziko dituen, luzatu ahal izango da epe hori, balorazioaren muntaren edo konplexutasunaren arabera.

3. Ondasunen edo eskubideen tasazioa haien merkatu-balioaren arabera egingo da. Ondasun higiezinak direnean, ez dira kontuan hartuko haien gaineko zamak eta kargak; 666. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio zama eta karga horiei dagokienez.

4. Aditu izendatuak ondasunen balorazioa entregatzen duenetik bost egun igaro arte, 659. artikuluan aipatutako alderdiek eta hartzekodunek balorazio horri alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote, bai eta balioespenaren objektu diren ondasunen edo ondasunen balorazio ekonomikoa adierazten duten aditu tasatzaileak sinatutako txostenak ere. Kasu horretan, Justizia Administrazioaren letraduak, formulatutako alegazioak ikusita eta kritika zintzoaren erregelen arabera txosten guztiak hautemanda, behin betiko balorazioa zehaztuko du dekretu bidez, betearazpenaren ondoreetarako.

3. atala. Diru bihurtzeko hitzarmenaz

640. artikulua. Diru bihurtzeko hitzarmena, Justizia Administrazioaren letraduak onetsitakoa.

1. Betearazleak, betearazpenpekoak eta betearazpenean interes zuzena egiaztatzen dutenek eskatu ahal izango diote betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduari agerraldi baterako dei egin dezala, modurik efikazena hitzar dadin betearazpenpeko ondasun hipotekatuak, pignoratuak edo enbargatuak diru bihurtzeko.

2. Betearazlea agerraldiarekin ados badago eta Justizia Administrazioaren letraduak hura ukatzeko zentzuzko ziorik ikusten ez badu, antolaketa-eginbide bitartez erabakiko du, betearazpena eten gabe, eta dei egingo die alderdiei eta prozesuan interesdun posibletzat jasota daudenei.

Agerraldian, zeinean beste pertsona batzuk ere bertara daitezkeen betearazleak edo betearazpenpekoak gonbidatuta, bertaratuek edozein modu proposatu ahal izango dute betearazpenari lotutako ondasunak diru bihur daitezen, eta aurkeztu ahal izango dute pertsona bat, kontsignazioa eginez edo fidantza emanez bere burua eskaintzen duena ondasunak eskuratzeko enkante judizialaren bidez ustez lor daitezkeen prezioetik gora. Beste modu batzuk ere proposatu ahal izango dira betearazlearen eskubidea asebetetzeko.



3. Baldin eta betearazlearen eta betearazpenpekoaren artean akordio bat lortzen bada kalterik egiten ez diona lege honek babestutako eskubideak dituen hirugarrenari, Justizia Administrazioaren letraduak onetsiko du dekretu bidez, eta betearazpena etengo du akordioaren objektu den ondasunari edo ondasunei dagokienez. Era berean onetsiko du akordioa, etete-ondore berarekin, baldin eta akordioak jasotzen badu betearazle eta betearazpenpeko ez diren subjektu ukituen adostasuna.

Hitzarmenean aipatzen badira erregistroan inskribatzeko moduko ondasunak, hitzarmena onesteko beharrezkoa izango da ados egon daitezela hartzekodunak eta hirugarren edukitzaileak, betearazten ari den zamaren ostean kasuan kasuko erregistroan beren eskubideak inskribatu edo idatzohartu zituztenak.

4. Akordioa bete dela egiaztatzen denean, Justizia Administrazioaren letraduak betearazpena largetsiko du hari lotutako ondasunari edo ondasunei dagokienez. Akordioa ez bada betetzen itundutako epearen barruan, edo edozein kausagatik betearazlea asebetetzen ez bada hitzartutako moduan, betearazleak eskatu ahal izango du amai dadila betearazpenaren etendura eta egin dadila enkantea, lege honetan aurreikusitako moduan.

5. Baldin eta artikulua honen hirugarren apartatuan aipatutako akordioa lortzen ez bada, berriro egin ahal izango da hura lortzen saiatzeko agerraldia, artikulua honen lehenengo bi apartatueta aurreikusitako baldintzetan; betiere, Justizia Administrazioaren letraduaren iritziz, kasuaren inguruabarrek hala aholkatzen dutenean ondasunak hobeto diru bihur daitezzen.

4. atala. Pertsonak edo erakunde espezializatuak ondasunak diru bihurtzeaz

641. artikulua. Pertsona edo erakunde espezializatuak ondasunak diru bihurtzea.

1. Betearazlearen eskariz edo betearazlearen adostasunarekin betearazpenpekoaren eskariz eta ondasun enbargatuaren ezaugarriek hala aholkatzen dutenean, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak erabaki ahal izango du, antolaketa-eginbide bitartez, ondasuna diru bihur dezala ondasun horiek salerosteko merkatua ezagutzen duen pertsona espezializatu batek, zeinak betetzen baititu kasuan kasuko merkatuan aritzeko legez galdatutako betekizunak.

Halaber, aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan hala eskatzen denean, Justizia Administrazioaren letraduak erabaki ahal izango du ondasuna besterendu dadila erakunde espezializatu publiko edo pribatu bidez. Hala xedatzen denean, enkantean jartzen edo besterentzen duen etxearen edo erakundearen erregeletara eta usadioetara egokituko da besterentzea, betiere bateraezinak ez badira betearazpenaren xedarekin eta betearazlearen eta betearazpenpekoaren interesak behar bezala babestearekin.

Ondore horietarako, prokuradoreen elkargoak izendatu ahal izango dira ondasun-enkanteko erakunde espezializatu.

2. Aurreko apartatuaren kasuetan, pertsona edo erakunde espezializatuak kauzioa eman beharko du, Justizia Administrazioaren letraduak ezarritako muntakoa, enkargua beteko duela bermatzeko. Ez da



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

kauziorik galdutako diru-bihurtzearen ardura erakunde publiko baten edo prokuradoreen elkargoen esku uzten denean.

3. Eskaeran izendatutako pertsonari edo erakundeari emango zaio diru bihurtzeko ardura, betiere legez galdututako betekizunak betetzen baditu. Ebazpen berean adieraziko da diru-bihurtzea zein baldintzatan egin behar den, alderdiek horri buruz adostutakoarekin bat etorritik. Adostasunik ezean, ondasunak ezin izango dira besterendu balioespenaren ehuneko 50 baino gutxiagoko prezioan. Ondasunen ezaugarriek edo haien balioaren txikiagotze posibleak hala aholkatzen dutenean, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letratuak, betearazlearen adostasunarekin, enkanterako erakunde espezializatutzat izendatu ahal izango du diru bihurtu behar diren ondasun higigarriak 626. artikuluan xedatutakoaren arabera gordailututa dituen prokuradoreen elkargoa.

Ondore horretarako, erregelamendu bidez zehaztuko dira beharrezkoak diren zerbitzuak antolatzeko betekizunak eta modua, eta publizitate egokia berrmatutako zaie enkanteari, enkantean jarritako ondasunei eta enkantearen emaitzari.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, diru bihurtu beharreko ondasunak higiezinak direnean, agerraldi baten ondoren zehaztuko dira zer pertsonari edo erakunderi esleitu zaion diru-bihurtzea eta hura egiteko baldintzak, eta alderdiei eta prozesuan interesdun posibletzat jasota daudenei egingo zaie agerraldirako deialdia. Justizia Administrazioaren letratuak dekretu bidez ebatziko du bidezkoa deritzona, agerraldira joango direnen adierazpenak ikusita, baina ezin izango du besterentzea egiteko baimenik eman prezioa txikiagoa bada higiezinari 666. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik emandako balioaren ehuneko 70 baino, salbu eta alderdien eta interesdun guztien, agerraldira joan ala ez, arteko akordioa jasota badago.

4. Ondasunak diru bihurtu bezain laster, kasuan kasuko pertsonak edo erakundeak gordailuen eta kontsignazioen kontuan sartuko du lortutako zenbatekoa, kenduta egindako gastuak eta bere esku-hartzeagatik dagokiona. Justizia Administrazioaren letratuak eragiketa onetsi beharko du, edo, kasua denean, justifikazio egokiak eskatu beharko ditu diru-bihurtzeari eta haren inguruabarrei buruz. Eragiketa onetsita, itzuli egingo da kauzioa, diru-bihurtzearen ardura eman zitzaion pertsonak edo erakundeak emandakoa.

5. Enkargutik sei hilabete igarota diru-bihurtzea gauzatu ez bada, Justizia Administrazioaren letratuak dekretua emango du, enkargua errebotatzen duena, salbu eta hura bere gain hartu zuen pertsonak edo erakundeak justifikatzen duenean ezen berari egotzi ezin zaizkion zioengatik ezin izan zirela diru bihurtu zehaztutako epean eta, jada zio horiek desagertu direlako edo laster desagertuko direla aurreikusten delako, enkargua bete ahal izango dela eskainiko den epearen barruan; epe horrek ezin izango ditu gainditu hurrengo sei hilabeteak. Azken epe hori igaro eta enkargua bete ez bada, Justizia Administrazioaren letratuak behin betiko errebotatuko du.

Enkargua errebotatuta, betearazpenaren helburuetarako erabiliko da kauzioa, salbu eta kauzio hori eman zuen pertsonak edo erakundeak egiaztatzen badu ezen berari egotzi ezin zaizkion kausengatik ezin izan dela diru bihurtu ondasuna.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

642. artikulua. Zamak irautea eta ezerezteak.

1. Lege honetan zamak irauteari eta ezerezteari buruz xedatutakoa halaber izango da aplikagarria hipotekatutako edo enbargatutako higiezinaren titulartasuna eskualdatzen denean atal honetan eta aurrekoan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondoreetarako, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak onetsi beharko ditu, dekretu bidez, aurreko bi artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritz egiten diren besterentzeak, aurretiaz egiaztatuta ondasuna eskualdatzean alderdi eskuratzailerak bazekiela zein zen zamen ziurtagiritik ondorioztatzen zen erregistro-egoera.

Eskualdatzea onetsita, higiezinaren enkanterako xedatutakoari jarraituko zaio bildutako zenbatekoak banatzeari, eskuratzaileraren eskubidea inskribatzeari eta zamak ezerezteko manamenduari dagokionez.

Jabetza-erregistroarentzat, manamendu nahikoa izango da ondasunaren eskualdatzea onesten duen dekretuaren lekukotza.

5. atala. Ondasun higigarrien enkanteaz

643. artikulua. Enkantea prestatzea. Balio handirik gabeko ondasun enbargatuak.

1. Enkantearen xedea izango da ondasun bat edo batzuk edo ondasun-loteak saltzea, betearazpenaren amaiera onerako komenigarriena denaren arabera. Justizia Administrazioaren letraduari dagokio loteak eratzea, alderdiei entzun ondoren. Ondore horretarako, enkantea iragarri aurretik, bost egunerako epatuko dira alderdiak, komenigarritzat jotzen dutena alega dezaten enkanterako loteak eratzeari buruz.

2. Ez da ondasunen edo ondasun-loteen enkanterako deialdirik egingo, baldin eta haien tasazioaren edo behin betiko balorazioaren arabera aurreikus badaiteke ezen diru bihurtuta lortutako zenbatekoak ez dituela gaindituko, gutxienez, enkanteak berak sortutako gastuak.

644. artikulua. Enkanterako deialdia.

Ondasun higigarri enbargatuen balio justua finkatu ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak, dekretu bidez, enkanterako deialdia egitea erabakiko du.

Enkantea, kasu orotan, elektronikoki egingo da Enkanteen Atarian, Justizia Administrazioaren letraduaren ardurapean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

645. artikulua. Enkantearen iragarkia eta publizitatea.

1. Behin aurreko artikuluan aurreikusitako ebazpena irmoa izanda, Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarriko da enkanterako deialdia, eta iragarkiak jakinarazpenaren balioa izango du pertsonatu ez den betearazpenpekoarentzat. Betearazpen-prozedura bideratzen duen Justizia Administrazioaren letraduak enkanterako deialdiaren iragarkia publikatzen dadila aginduko du, eta hura Estatuko Aldizkari Ofizialera igorriko du, hurrengo artikuluan aipatzen den edukiarekin eta telematikoki. Era berean, eta informazio-ondoreetarako soilik, Justizia Administrazioaren Atarian publikatuko da enkantearen iragarkia.

Gainera, betearazleak edo betearazpenpekoak eskatuta eta betearazpenaren ardura daukan Justizia Administrazioaren letraduak komenigarria irizten badio, zentzuzkoa den publizitatea emango zaio enkanteari, diru bihurtu nahi diren ondasunen izaerarentzat eta balioarentzat egokienak diren bitarteko publikoak eta pribatuak erabiliz.

2. Alderdi bakoitza behartuta egongo da enkantea publikatzeko eskatu dituen neurrietatik eratorritako gastuak ordaintzera, hargatik eragotzi gabe kostu-tasazioan sartzea Estatuko Aldizkari Ofizialean publikatzeagatik betearazleari sortutako gastuak.

646. artikulua. Enkantearen iragarkiaren eta publizitatearen edukia.

1. Estatuko Aldizkari Ofizialean jarritako enkantearen iragarkiak edukiko ditu, soil-soilik, iragarkiaren data, betearazpen-prozedura bideratzen ari den bulego judiziala eta bere identifikazio-zenbakia eta mota, bai eta Enkanteen Atarian enkanteari dagokion helbide elektronikoa ere.

2. Enkanteen Atarian ediktua jarriko da, enkante bakoitzerako bereizita, eta barnean hartuko ditu enkantearen eta enkantean jarriko diren ondasunen baldintza orokorrak eta partikularrak, bai eta enkanterako garrantzitsuak diren datu eta inguruabar guztiak ere, eta, ezinbestean, enkantearen objektu den ondasunaren edo ondasunen balioespina edo balorazioa, enkantean gutxieneko zenbateko gisa erabiliko dena. Datu horiek Enkanteen Atarira igorri beharko dira hark elektronikoki tratatzeko moduan, informazioa eman eta antolatu ahal izateko.

Halaber, bai ediktuan eta bai Enkanteen Atarian jasoko da ulertuko dela ezen lizitatzailerok onartzen duela dagoen titulazioa nahikoa dela edo hura ez dagoela, bai eta haien eskaintzek enkantearen gutxieneko zenbatekoaren ehunekoak, 650. artikuluan ezarritakoak, ez gainditzearen ondorioak ere.

3. Beste bitarteko batzuen bidez egiten den publizitatearen edukia kasu bakoitzean erabiltzen den bitartekoaren izaerari egokituko zaio, kostuen ekonomia ahalik eta handiena bilatuko da, eta mugatu ahal izango da ondasunak edo ondasunen loteak, haien tasazio-balioa, edukitza-egoera eta Enkanteen Atariaren barruan enkanteari dagokion helbide elektronikoa identifikatzeko datu zehatzetara.

647. artikulua. Eskaintza egiteko betekizunak. Betearazle lizitatzailerak.

1. Enkantean parte hartzeko, honako betekizun hauek bete beharko dituzte lizitatzailerak:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Beren burua behar beste identifikatzea.

2.) Enkantearen baldintza orokorrak eta partikularrak ezagutzen dituztela deklaratzeko.

3.) Kasuan kasuko egiaztatzea; horretarako, beharrezkoa izango da ondasunen balioaren ehuneko 5 kontsignatua izatea. Kontsignazioa bitarteko elektronikoez egingo da, Enkanteen Atariaren bitartez, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak haren eskura jarriko dituen zerbitzu telematikoa erabilita; agentzia horrek, halaber, bere entitate laguntzaileen bidez hartuko ditu diru-sarrerak.

2. Betearazleak lizitatzailerik bada soilik hartu ahal izango du parte enkantean, eta egiten diren posturak hobetu ahal izango ditu, zenbatekorik kontsignatzeko beharrik gabe.

3. Betearazleak edo geroagoko hartzekodunek soilik egin ahal izango dute postura errematea hirugarren bati lagatzeko ahalmena berentzat gordeta. Lagapena betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letratuaren aurrean egindako agerraldi bidez gauzatuko da, lagapen-hartzailea bertan izanda, zeinak onartu egin beharko duen, eta, hori guztia, errematearen prezioa ordaindu edo kontsignatu aurretik edo ordaintzeko edo kontsignatzeko unean bertan, zeina dokumentu bidez jaso beharko den. Ahalmen bera izango du betearazleak, baldin eta, aurreikusitako kasuetan, enkantean jarritako ondasuna edo ondasunak adjudika daitezela eskatzen badu.

648. artikulua. Enkante elektronikoa.

Enkante elektronikoa honako erregela hauen arabera egingo da:

1.) Enkantea Estatuko Aldizkari Ofiziala Estatu Agentziaren mendeko Atarian egingo da, enkanteak elektronikoki egitekoan, zeinaren kudeaketa-sistemara bulego judizial guztiek izango duten irispidea. Bulego judizialen eta Enkanteen Atariaren artean egin behar diren informazio-truke guztiak telematikoki egingo dira. Enkante bakoitzak identifikazio-zenbaki bakarra izango du.

2.) Iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean publikatzen denetik gutxienez hogeita lau ordu igarota irekiko da enkantea, hura hasteko beharrezko informazioa Enkanteen Atarira igorri denean.

3.) Behin enkantea irekita, eskaintza elektronikoak soilik egin ahal izango dira, enkantearen gutxieneko zenbatekoei, kontsignazioei eta aplikagarriak diren gainerako erregelei buruz lege honetan ezarritako arauen arabera. Kasu orotan, Enkanteen Atariak eskaintzak badaudela eta haien munta zein den informatuko du enkanteak dirauen bitartean.

4.) Enkante elektronikoa parte hartu ahal izateko, interesdunek alta emanda egon beharko dute sistemaren erabiltzaile gisa, eta bertara sartuko dira Sinadura Elektronikoaren abenduaren 19ko 59/2003 Legean aurreikusitakoarekin bat datozen identifikazio-mekanismo seguruen eta sinadura elektronikoaren bidez, halako moldez non lizitatzailerik erabat identifikatuta egongo diren kasu orotan. Enkanteen Atariaren bitartez emango da alta, identifikazio-mekanismo seguruen eta sinadura elektronikoaren bidez, eta nahitaez jaso beharko dira interesdunaren identifikazio-datu guztiak. Betearazleak identifikatuko dira beraiek hasitako betearazpen-prozeduretatik eratorritako enkanteetan posturagile gisa agertzeko aukera emateko moduan, kontsignaziorik egiteko beharrik gabe.

1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea



5.) Betearazleak, betearazpenpekoak edo hirugarren edukitzaileak, halakorik izanez gero, beren erantzukizunpean eta, kasu orotan, prozedura bideratzen ari den bulego judizialaren bidez, Enkanteen Atarira bidali ahal izango dute lizitazioaren objektua den ondasunari buruz duten informazio guztia, tasazio-txostenetatik edo bestelako dokumentazio ofizialetik etorria, organo judizialengandik zuzenean edo notario bitartez eskuratua eta haien ustez balizko lizitatzailerentzat interesgarria izan daitekeena. Justizia Administrazioaren letraduak ere egin ahal izango du hori bere ekimenez, komenigarri irizten badio.

6.) Eskaintzak telematikoki bidaliko dira, komunikazio-sistema seguruen bidez, Enkanteen Atarira, zeinak hartu-agiri tekniko bat itzuliko duen, denbora-zigilu batekin, postura eta haren munta zein une zehatzetan hartu diren adierazten duena. Posturagileak, halaber, adierazi beharko du ea 652. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoan aipatutako erreserba onartzen duen ala ez eta eskaintza bere izenean egiten duen edo hirugarren baten izenean. Onargarriak izango dira jadanik egindako postura handiena baino zenbateko handiagokoak, txikiagokoak edo haren adinakoak; azken bi kasu horietan ulertuko da une horretatik aurrera onartu egiten dutela kontsignazio-erreserba, eta kontuan hartuko dira eskaintza berdina edo handiena egin duen lizitatzailerak eskuratze-prezioaren gainerakoa azkenean kontsignatzen ez duen kasuan. Zenbateko bereko posturak dauden kasuan, denboran aurrekoa lehenetsiko da. Une horretara arte egindako eskaintzen artetik altuena soilik publikatuko du enkanteen atariak.

649. artikulua. Enkantearen garapena eta amaiera.

1. Enkanteak posturak onartuko ditu irekitzen denetik hogeitaz egun naturaleko epe batean. Enkantea ez da itxiko azken postura egiten denetik ordubete igaro arte, betiere hura une horretara arte egindako onena baino handiagoa bada, nahiz eta horrek ekarri artikulu honetan aipatutako hogeitaz eguneko hasierako epea gehienez ere 24 orduz luzatzea.

Justizia Administrazioaren letraduak zorduna konkurtsoan deklaratu dela jakinez gero, dekretu bidez etengo du betearazpena, eta ondorenik gabe utziko du enkantea, hura jadanik hasita egon arren. Inguruabar hori berehala komunikatuko zaio Enkanteen Atariari.

2. Enkantea hamabost egun baino gehiagoz eteteak berekin ekarriko du kontsignazioak itzultzea, eta egoera atzera eramango da iragarkia publikatu aurre-aurreko unera arte. Enkanteari berriro ekiteko, iragarkiaren beste publikazio bat egingo da, enkante berri bat izango balitz bezala.

3. Enkantearen itxiera-datan, itxieraren ondoren, Enkanteen Atariak Justizia Administrazioaren letraduari igorriko dio postura telematikoki irabazlearen informazio ziurtatua, lizitatzaileraren izenarekin, abizenekin eta helbide elektronikoarekin.

Lizitatzailerik onenak ez badu eskaintako prezioa osatzen, Justizia Administrazioaren letraduak eskatuta, Enkanteen Atariak informazio ziurtatua igorriko dio behearanzko hurrenkeran hurrengo den eskaintzaren zenbatekoari eta hura egin zuen posturagilearen identitateari buruz, betiere posturagileak hautatu badu 652. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoan aipatutako postura-erreserba egitea.

4. Enkantea amaituta eta informazioa hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak hura jasota utziko du, posturagile onenaren izena eta egin zuen postura adierazita.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

650. artikulua. Errematea onestea. Ordainketa. Ondasunak adjudikatzea.

1. Posturarik onena balioespenaren ehuneko 50 edo handiagoa denean, Justizia Administrazioaren letraduak posturagile onenaren aldeko errematea onetsiko du dekretu bidez, enkantea itxi den egun berean edo hurrengoan. Errematatzaileak postura horren zenbatekoa kontsignatu beharko du, gordailuan jarritakoa kenduta, dekretua jakinarazten denetik hamar eguneko epean, eta, kontsignazio hori eginda, ondasunen edukitza emango zaio.

2. Betearazleak egiten badu posturarik onena, balioespenaren ehuneko 50ekoa edo handiagoa, behin errematea onetsita, Justizia Administrazioaren letraduak likidatuko du printzipalagatik eta korrituengatik zor dena, eta, behin likidazio hori jakinarazita, kostu-likidazioaren ondorioz diferentziarik badago, hamar eguneko epean kontsignatuko du betearazleak diferentzia hori.

3. Balioespenaren ehuneko 50etik gorako posturak bakarrik egiten badira, baina epeka ordaintzeko eskaintza eginez goren mugako prezioaren behar besteko banku- edo hipoteka-bermeekin, betearazleari ezagutaraziko zaizkio, eta hark hurrengo bost egunetan eskatu ahal izango du balioespenaren ehuneko 50ean adjudika dakizkiola ondasunak. Betearazleak ez badu eskubide hori baliatzen, postura haietatik onenaren alde onetsiko da errematea.

4. Enkantean eskaintako posturarik onena balioespenaren ehuneko 50etik beherakoa denean, postura hobetzen duen hirugarren bat aurkeztu ahal izango du betearazpenpekoak hamar eguneko epean, hirugarren horrek eskaintzen duen kopurua izanik tasazio-balioaren ehuneko 50etik gorakoa edo, zenbateko horretatik beherakoa bada ere, betearazlearen eskubidea erabat asebetetzeko adinakoa.

Aipatutako epea igarota, betearazpenpekoak aurreko paragrafoan aurreikusitakoa egin ez badu, betearazleak bost eguneko epean eskatu ahal izango du ondasunak adjudika dakizkiola haien tasazio-balioaren erdian edo kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoan, betiere zenbateko hori posturarik onena baino handiagoa denean.

Betearazleak ahalmen hori erabiltzen ez duenean, posturagile onenaren alde onetsiko da errematea, betiere eskaini duen zenbatekoak tasazio-balioaren ehuneko 30 gainditzen badu edo, txikiagoa izanda ere, betearazpena abiarazi duen zenbatekoa estaltzen badu gutxienez, korrituetarako eta kostuetarako aurreikusitakoa barne. Posturarik onenak ez baditu betekizun horiek betetzen, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak, alderdiei entzun ondoren, errematea onesteari buruz ebartziko du, kasuaren inguruabarrak aintzat hartuta eta bereziki kontuan hartuta zer jokabide izan duen zordunak jardutea ekarri duen betebeharra betetzeko, zer aukera dagoen beste ondasun batzuk diru bihurtuz hartzekoduna asebetetzeko, zer kalte ekar diezaikeen errematea onartzeak zordunaren ondasunei eta zer onura lortzen duen hartzekodunak onespentetik. Azken kasu horretan, errematea onesten duen dekretuaren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da, betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiaren aurrean.

Justizia Administrazioaren letraduak errematearen onespena ukatzen duenean, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

5. Eskaintzaren muntagatik betearazpenpekoak edo betearazleak artikuluko honen 3. eta 4. apartatuek ematen dizkieten ahalmenak egikari baditzakete, Justizia Administrazioaren letraduak, zehaztutako epeak igaro ondoren, nahitaezko jakinarazpena egingo dio posturarik onena egin duen lizitatzaleari, edo, kasua denean, komunikatuko dio betearazpenpekoak edo betearazleak beren ahalmenak egikaritu dituztela.

6. Errematea edo betearazleari egindako adjudikazioa onetsi aurreko edozein unetan, betearazpenpekoak bere ondasunak askatu ahal izango ditu, betearazleari zor zaion guztia ordainduta: printzipala, korrituak eta kostuak. Kasu horretan, Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez erabakiko du enkantea eten dadila edo hura ondorerik gabe utz dadila, eta berehala komunikatuko dio, bi kasuetan, Enkanteen Atariari.

7. Errematea onetsita eta, bidezkoa denean, gordailututakoaren eta errematearen guztizko prezioaren arteko aldea gordailuen eta kontsignazioen kontuan kontsignatuta, adjudikazio-dekretua emango da, kasua denean prezioa kontsignatu dela adierazten duena, eta egintza hori Enkanteen Atariari ere ezagutaraziko zaio.

651. artikulua. Ondasunak betearazleari adjudikatzea.

Enkantearen ekitaldian posturagilerik ez badago, hartzekodunak ondasunen adjudikazioa eskatu ahal izango du tasazio-balioaren ehuneko 30ean edo kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoan.

Hartzekodun betearazleak, ezta posturagile errematatzaile gisa diharduenean ere, inoiz ezin izango ditu beretzat adjudikatu ondasunak, ezta errematea edo adjudikazioa hirugarren bati laga ere, tasazio-balioaren ehuneko 30 baino zenbateko txikiagoan.

Hartzekodunak ahalmen hori erabiltzen ez badu hogeit eguneko epean, Justizia Administrazioaren letraduak enbargoa kenduko du, betearazpenpekoaren eskariz.

652. artikulua. Eskaintza egiteko eratutako gordailuen destinoa.

1. Enkantea amaituta, askatu edo itzuli egingo dira posturagileek kontsignatutako zenbatekoak, posturagile onenari dagokiona izan ezik, zeina gordailuan erreserbatuko den betebeharra betetzen delako berme gisa eta, kasua denean, salmenta-prezioaren zati gisa.

Hala ere, gainerako posturagileek eskatzen badute, beraiek kontsignatutako zenbatekoen erreserba ere mantenduko da, errematatzaileak prezioaren gainerakoa epean entregatzen ez badu haren atzetik daudenen alde onets dadin errematea, haien posturen ordenan eta, berdina izanez gero, egin ziren ordena kronologikoan.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera bidezkoak diren itzulketak gordailua egin zuenari itzuliko zaizkio, kontuan hartu gabe posturagileak bere izenean edo beste norbaitenean jardun duen.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

653. artikulua. Enkantearen porrota.

1. Aurreko artikuluan aipatutako errematatzaileetatik batek ere ez badu prezioa kontsignatzen ezarritako epean edo haien erruz ondorerik gabe geratzen bada salmenta, galdu egingo dute egindako gordailua, eta beste enkante bat egingo da, salbu eta betearazlearen kredituaren kapitala eta korrituak eta kostuak ordain badaitezke errematatzaile horiek eratutako gordailuekin.

2. Justizia Administrazioaren letraduak betearazpenaren helburuetarako erabiliko ditu enkantearen porrota eragin zuten errematatzaileen gordailuak, 654. eta 672. artikuluetan xedatutakoaren arabera, baina soberakina, halakorik balego, gordailugileei entregatuko zaie. Gordailuak ez badira nahikoak betearazlearen eskubidea eta kostuak asebetetzeko, enkante berriak sortzen dituen gastuak ordaintzeko erabiliko dira lehenik, eta gainerakoa enkantean lortutakoei gehituko zaie, eta 654. eta 672. artikuluetan xedatutakoaren arabera erabiliko da. Azken kasu horretan, soberakinik egonez gero, betearazpenpekoari entregatuko zaio, harik eta enkantean eskaintako prezioa osatu arte, eta, kasua denean, konpentsatu egingo zaio erremate berrian prezioak izan duen jaitsiera; konpentsazio hori gauzatu ondoren soilik itzuliko zaie gordailugileei geratzen dena.

654. artikulua. Betearazleari ordaintzea, gerakinaren destinoa zehaztea, ordaintetako egozte eta, betearazpena nahikoa ez denean, ordaintzeke dagoen zorra ziurtatzea.

1. Errematearen prezioa betearazleari entregatuko zaio betearazpena abiarazi zuen zenbatekoan, eta, zenbateko hori gaintitzen badu, auzitegiaren eskura atxikiko da gerakina, harik eta likidatu arte betearazleari azkenean zor zaiona eta betearazpenaren kostuen zenbatekoa.

2. Behin betearazlea erabat asebeteta eta kostuak ordainduta, betearazpenpekoari entregatuko zaio ondasunen nahitaezko diru-bihurtzea amaitu ondoren egon litekeen gerakina.

3. Betearazpena nahikoa ez denean betearazpena abiarazi duen guztizko zenbatekoa gehi betearazpenean sortutako korrituak eta kostuak kitatzeko, honako hurrenkera honen arabera egotziko da zenbateko hori: ordain-korrituak, printzipala, berandutze-korrituak eta kostuak. Gainera, auzitegiak ziurtagiria egingo du, errematearen prezioa eta kontzeptu guztiengatik ordaintzeko dagoen zorra egiaztatzen dituen, bereizita utziz zer dagokien printzipalari, ordain-korrituei, berandutze-korrituei eta kostuei.

6. atala. Ondasun higiezinaren enkanteaz

655. artikulua. Atal honen aplikazio-eremua, eta modu osagarrian aplikatzea aurreko ataleko xedapenak.

1. Ondasun higiezinaren enkantei eta haien antzeko erregistro-publizitate baten araubidepean dauden ondasun higigarriak aplikatuko zaizkie atal honetako arauak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Ondasun higigarrien enkantearen arauak aplikagarriak izango dira aurreko apartatuan aipatutako enkanteetan, salbuetsirik hurrengo artikuluetan ezarritako berezitasunak.

655 bis artikulua. Ondasun higiezinaren enkantea.

1. Enkantearen objektu den ondasuna betearazpenpekoaren ohiko etxebizitza den ondasun higiezin bada, eta hartzekoduna etxebizitza-enpresa bat edo etxebizitza-edukitzaile handi bat bada 439. artikulua 6. apartatuaren b letran aurreikusitako baldintzetan, eta aldez aurretik egiaztatu ez bada, auzi-jartzaileak premiamendu-bidea hasi aurretik egiaztatu beharko du zorduna kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagon ala ez.

Betearazpenpeko alderdiaren zaurgarritasun ekonomikoa dagoen ala ez egiaztatzeko, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, indarraldia hiru hilabetetik gorakoa izango ez duena, betearazpenpekoaren aldez aurreko baimenarekin emango dutena etxebizitzaren, gizarte-laguntzaren, gizarte-premiako egoeren ebaluazioaren eta informazioaren eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta ematearen gaian eskumena duten autonomia- eta toki-administrazioetako zerbitzuek, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoaren arabera berariaz izendatuek.

Baldintza hori honako hauen bidez ere bete ahal izango da:

1.) Auzi-jartzaileak emandako erantzukizunpeko adierazpena, agertzen duena lehen aipatutako zerbitzuetara jo duela premiamendu-bidea hasteko eskaera aurkeztu baino bost hilabete lehenago gehienez ere, eta eskaera aurkeztu zuenetik bi hilabeteko epean ez zaiola jaramonik egin edo dagozkion izapideak hasi ez direla, eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiriarekin batera.

Kasu horretan, epaitegiak administrazio eskudunetara joko du, gehienez ere hamar eguneko epean berrets dezaten eragindako familia zaurgarritasun ekonomiko eta, hala badagokio, sozialeko egoeran dagoen, bai eta etxebizitza bat izateko berehala aplikatuko diren aurreikusitako neurriak ere.

2.) Zerbitzu eskudunen egiaztagiria, adierazten duena betearazpenpeko alderdiak ez duela berariaz onartzen bere egoera ekonomikoaren azterketa, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoan aurreikusitakoaren arabera. Dokumentu horrek ezin izango du hiru hilabetetik gorako indarraldia izan.

2. Jasota badago hipoteka-zorduna zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dagoela aurreko apartatuetan aurreikusitakoaren arabera, ez da premiamendu-bidea hasiko baldin eta ez bada egiaztatzen auzi-jartzailea administrazio publiko eskudunek horretarako ezartzen duten adiskidetze- edo bitartekotza-prozeduraren mende jarri dela, oinarritzat hartuta bi alderdien inguruabarren eta etxebizitzaren arloan egon daitezkeen laguntza eta dirulaguntzen azterketa, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoan xedatutakoaren arabera.

Aurreko baldintza hori modu hauetako batean egiaztatu ahal izango da:

1.) Auzi-jartzaileak emandako erantzukizunpeko adierazpena, agertzen duena lehen aipatutako zerbitzuetara jo duela premiamendu-bidea hasteko eskaera aurkeztu baino bost hilabete lehenago gehienez ere, eta eskaera aurkeztu zuenetik bi hilabeteko epean ez zaiola jaramonik egin edo dagozkion izapideak hasi ez direla, eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiriarekin batera.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Kasu horretan, eskaera aurkeztu eta berehala, epaitegiak administrazio eskudunetara joko du, gehienez ere hamar eguneko epean berrets dezaten eragindako familia zaurgarritasun ekonomiko eta, hala badagokio, sozialeko egoeran dagoen, bai eta etxebizitza bat izateko berehala aplikatuko diren aurreikusitako neurriak ere.

2.) Zerbitzu eskudunen egiaztagiria, adiskidetze- edo bitartekaritza-prozeduraren emaitza adierazten duena, non jasoko baitira alderdien nortasuna, eztabaidaren objektua eta alderdietako batek prozeduran parte hartzeari uko egin dion, hala badagokio. Dokumentu horrek ezin izango du hiru hilabetetik gorako indarraldia izan.

Alderdi betearazlea etxebizitza-erakunde publikoa bada, aurreko baldintza horren ordez, hala badagokio, erakundearen beraren bitartekaritza-zerbitzu espezifikoen ekintza gauzatu ahal izango da aldezturik, eta hori aurreko apartatuan adierazitako moduan egiaztatuko da.

656. artikulua. Jabariaren eta zamen ziurtagiria.

1. Enkantearen objektua atal honen eremuan dagoenean, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak manamendua bidaliko dio kasuan kasuko erregistroaren ardura duen erregistratzaileari, honako puntu hauek jasota dituen ziurtagiria igor diezaion epaitegiari:

1.) Ondasun edo eskubide kargatuaren jabariaren eta gainerako eskubide errealeen titulartasuna.

2.) Erregistra daitekeen ondasun enbargatuaren gainean diren eskubideak, edozein izaeratakoak direla; bereziki, kargatzen duten zama inskribatuen zerrenda osoa edo, kasua denean, zamarik ez duela.

Kasu orotan, formatu elektronikoan egingo da ziurtagiria, eta eduki egituratuko informazioa izango du.

2. Erregistratzaileak orri-bazterreko ohar bidez jasoko du aurreko apartatuan aipatutako ziurtagiria egin izana, data eta dagokion prozedura adieraziz.

Erregistratzaileak berehala eta telematikoki jakinaraziko die Justizia Administrazioaren letraduari eta Enkanteen Atariari hasierako informazioa ukitzen edo aldatzen duen beste titulu bat edo batzuk aurkeztu izanaren egitea 667. artikulua ondozondorako.

Enkanteen Atariak erregistroak emandako informazioa bilduko du berehala, eta atariaren edukia kontsultatzen dutenei helaraziko die.

3. Aurrekoari kalterik egin gabe, alderdi betearazlearen prokuradoreak, Justizia Administrazioaren letraduak behar bezala ahalmenak emanda eta enbargoaren idatzoharra egin ondoren, manu honen 1. apartatuan aipatutako ziurtagiria eskatu ahal izango du; ziurtagiria egin izana ere orri-bazterreko oharrean jaso beharko da. Kasu orotan, formatu elektronikoan egingo da ziurtagiria, eta eduki egituratuarekin.

657. artikulua. Azkendutako edo gutxitutako zamen informazioa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1. Betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letradua ofizioz zuzenduko zaie betearazpena abiarazteko balio izan zuen kredituaren aurrekoak diren lehentasunezkoen titularrei eta betearazpenpekoari, ezagutaraz dezaten ea badirauren kreditu bermatuak egun eta zein den egun haren munta. Informazio hori erreklamatzeko zaien ahalik eta zehatzen adierazi beharko dute ea kredituak oraindik badirauren edota edozergatik azkenduta dagoen, eta, iraunez gero, zein den ordaintzeko geratzen den zenbatekoa, zein den mugaeguneratze-data eta, kasua denean, zein epetan eta baldintzetan egin behar den ordainketa. Kreditua mugaeguneratuta eta ordaindu gabe badago, informazioa emango da mugaeguneratutako berandutze-korrituei eta atzerapen-egun bakoitzeko sortutako korrituen zenbatekoari buruz ere. Lehentasuna aurretiazko enbargo-idatzohar batetik datorrenean, zehaztu egingo da zein den printzipalagatik eta mugaeguneratutako korrituengatik ordaindu gabe dagoen zenbatekoa informazioa ematen den datan, bai eta hartzekodunari ordainketa egin gabe igarotzen den egun bakoitzeko sortzen diren berandutza-korrituen zenbatekoa eta kostuen aurreikuspena ere.

Betearazlearen prokuradoreari entregatuko zaizkio aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat egiten diren ofizioak, haiek betetzeaz ardura dadin.

2. Ikusita zer deklaratzeko duten betearazpenpekoak eta aurreko apartatuan aipatutako hartzekodunek kredituen egungo irauteari eta muntari buruz, haiei buruzko adostasunik egonez gero, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak, betearazlearen eskariz, bidezkoak diren manamenduak egingo ditu Hipoteka Legearen 144. artikuluan aurreikusitako ondoretarako. Desadostasunik egonez gero, auzitegiaren aurrean egingo den ikustaldi baterako deialdia egingo die, hurrengo hiru egunen barruan egin beharko dena, eta errekurritzeko modukoa ez den auto bidez ebartziko da, hurrengo bost egunetan.

3. Hamar egun igaroz gero betearazpenpekoari eta hartzekodunei errekerimendua egin zitzaienetik haien erantzunik gabe, ulertuko da, betearazpenaren ondoretarako soilik, zama eguneratuta dagoela errekerimendua egiteko unean lehentasunezko tituluan ezarritakoarekin bat etorritik.

658. artikulua. Betearazpenpekoaz bestelako pertsona baten izenean inskribatutako ondasuna.

Erregistratzaileak egindako ziurtagiritik ondorioztatzen bada ezen ondasun enbargatua betearazpenpekoaz bestelako pertsona baten izenean inskribatuta dagoela, Justizia Administrazioaren letraduak, pertsonatutako alderdiei entzunda, aginduko du ken dadila enbargoa, salbu eta prozedura betearazpenpekoaren aurka jarraitzen denean erregistroan jabe gisa ageri denaren oinordekoa den aldetik edota enbargoa trahatu denean egoera hori kontuan hartuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, enbargoaren idatzoharraren ostekoa bada betearazpenpekoaz bestelako pertsonaren izenean egindako jabari-inskripzioa, enbargo hori mantenduko da, eta 662. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

659. artikulua. Geroago inskribatutako eskubideen titularrak.

1. Erregistratzaileak betearazpena dagoela komunikatuko die zamen ziurtagirian jasotako eskubideen titularrei, baldin eta eskubide horiek agertzen badira betearazlearen eskubidea baino geroagoko idazpenetan, betiere haien egoitza erregistroan jasota badago.

2. Jabariaren eta zamen ziurtagiria egin ondoren inskribatutako eskubideen titularrei ez zaie komunikaziorik egingo, baina, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduari egiaztatzen badiote beren eskubidearen inskripzioa, esku-hartzea emango zaie balioespenean eta eragiten dieten prozeduraren gainerako jardunetan.

3. Betearazten den kargaren ondoren inskribatutako ondasunen titularrek errematea egin baino lehen ordaintzen dituztenean kredituaren zenbatekoa, korrituak eta kostuak, erregistrotik ondorioztatzen den erantzukizunaren mugaren barruan, subrogatuta geratuko dira auzi-jartzailearen eskubideetan ordaindutako zenbatekoraino. Ordainketa eta subrogazioa jasoaraziko dira hartzekodunak zein kargatan subrogatuta geratu eta haren inskripzioaren edo idatzoharraren bazterrean eta haien kredituenetan edo eskubideenetan, erregistroan aurkeztuz aipatutako zenbatekoak entregatu izanaren notario-akta edo, kasua denean, Justizia Administrazioaren letraduak egindako manamendu egokia.

660. artikulua. Komunikazioak egiteko modua.

1. 657. eta 659. artikuluetan aipatutako komunikazioak erregistroan jasotako egoitzan egingo dira, posta ziurtatu hartu-agiridun bidez edo beste bitarteko fede-emaila baten bidez.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondoretarako, ondasun baten gaineko eskubide erreal baten, zamaren edo kargaren edozein erregistro-titularrek lurralde nazionalako egoitza bat jasoarazi ahal izango du erregistroan, betearazpenaren kasuan jakinarazpenak bertan egin dakizkion. Inguruabar hori orri-bazterreko ohar bidez jasoko da bere titulartasunpean duen eskubide errealaren, zamaren edo kargaren inskripzioan. Helbide elektroniko bat ere jasoarazi ahal izango da jakinarazpenak egiteko. Helbide elektroniko bat zehaztuta ulertuko da jakinarazpenak hartzeko prozedura hori onartzen dela, hargatik eragotzi gabe haiek pertsonalei metatuta, eta ez modu alternatiboan, egin ahal izatea. Kasu horretan, epeen zenbaketa egingo da arau prozesalen arabera edo Justizia Administrazioan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arautzen duen uztailaren 5eko 18/2011 Legearen arabera egindako jakinarazpen positiboetatik lehenengoaren hurrengo egunetik hasita. Egoitzaren edo helbide elektronikoaren ezarpena edo aldaketa erregistroari komunikatu ahal izango zaio lege honen 683. artikuluan 2. apartatuan aipatutako moduetatik edozeinetan eta manu berean ezarritako ondoreekin.

656. artikulua aipatutako ziurtagiriak, dela zuzenean erregistratzaileak igorria, dela betearazlearen prokuradoreak ekarria, aipatutako komunikazioak egin direla adierazi beharko du.

Egoitza erregistroan jasota ez dagoen kasuan edo komunikazioa edozein arrazoiengatik itzultzen den kasuan, erregistratzaileak beste komunikazio bat egingo du ediktu bidez, Estatuko Aldizkari Ofizialean jarriko dena.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Erregistroko komunikazioaren gabezia edo komunikazioek izan ditzaketen forma-akatsak ez dira eragozpen izango betearazpenean higiezina eskuratzen duenaren eskubidea inskribatzeko.

661. artikulua. Betearazpena errentariei eta egitezko okupatzaileei komunikatzea. Edukitza-egoeraren publizitatea.

1. Betearazpenpekoak egindako ondasun-azalpenagatik, betearazleak zehazteagatik edo beste edozein modugatik prozeduran jasota dagoenean badaudela pertsona batzuk, betearazpenpekoa izan gabe enbargatutako higiezina okupatu eta identitate ezaguna dutenak, betearazpena dagoela jakinaraziko zaie, haien egoera justifikatzen duten tituluak auzitegiaren aurrean aurkez ditzaten hamar eguneko epean. Jakinarazpen hori egin ahal izango du alderdi betearazlearen prokuradoreak hark hala eskatzen badu edo, inguruabarrak kontuan hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak erabakitzen duenean.

Enkanteen Atarian egiten den enkantearen publizitatean, bai eta, kasua denean, bitarteko publikoetan edo pribatuetan egiten denean ere, higiezinaren edukitza-egoera adieraziko da ahal den xehetasunarekin, edo, aitzitik, okupatu gabe dagoela, inguruabar hori betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduari behar bezala egiaztatzen bazaio.

2. Enkantea iragarri aurretik betearazleak eskatu ahal izango du auzitegiak deklaratu dezala okupatzaileak edo okupatzaileek ez dutela ondasun higiezinaren irauteko eskubiderik higiezina betearazpenean besterendua izan ondoren. Eskabidea 675. artikuluan 3. apartatuan ezarritakoaren arabera izapidetuko da, eta auzitegiak hura onartuko du, eta eskatutako deklarazioa egingo du, auto errekurriekin bidez, okupatzailea edo okupatzaileak egite hutsezkotzat edo titulu nahikorik gabekotzat har daitezkeenean. Bestelako kasuan, deklaratuko du, ondorengo errekurtsorik gabe baita ere, okupatzaileak edo okupatzaileek higiezinaren irauteko eskubidea dutela, etorkizuneko eskuratzailerari haiek higiezina uzteko egokitu dakizkiokeen akzioak salbuetsita.

Aurreko paragrafoan aipatutako deklarazioak enkantearen publizitatean jasoaraziko dira.

662. artikulua. Hirugarren edukitzailea.

1. Ondasun higiezin bat hirugarren edukitzaile baten eskuetara igarotzen bada betearazpenean saldu edo adjudikatu baino lehen eta haren enbargoaren idatzoharra egin ondoren edo premiamendu-prozeduraren hasiera erregistroan jaso ondoren, edukitzaile horrek eskatu ahal izango du, bere tituluaren inskripzioa egiaztatuta, autoak erakutsi dakizkiola bulego judizialean; Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du hori, prozeduraren aribidea geratu gabe, eta edukitzaile horrekin ere gauzatuko dira geroagoko jardunak.

2. Era berean, hirugarren edukitzailetzat hartuko da finka hipotekatuaren edo enbargatuaren gozamena edo jabari erabilgarria soilik edota jabetza soilak edo zuzeneko jabaria eskuratzen duena aurreko apartatuan aipatzen den denboran.

3. Errematea onetsi edo hartzekodunari adjudikazioa egin baino lehenagoko edozein unetan, ondasuna askatu ahal izango du hirugarren edukitzaileak, baldin eta printzipalagatik, korrituengatik eta kostuengatik



hartzekodunari zor zaiona ordaintzen badu ondasuna lotzen duen erantzukizunaren mugen barruan, eta, kasua denean, aplikatzekoa izango da lege honen 613. artikulua 3. apartatuan xedatutakoa.

663. artikulua. Higiezin enbargatuen titulazioa aurkeztea.

1. Ondasun enbargatu higiezinaren jabariaren eta zamen ziurtagiria egiteko agintzen den ebazpen berean, Justizia Administrazioaren letraduak ofizioz edo alderdi-eskariz errekerimendua egin ahal izango dio betearazpenpekoari, antolaketa-eginbide bitartez, hamar eguneko epean aurkez ditzan eskura dituen jabetza-tituluak, baldin eta ondasuna erregistroan inskribatuta badago.

2. Alderdiak hala eskatzen duenean, alderdi betearazlearen prokuradoreak egin ahal izango du aurreko zenbakian aurreikusitako errekerimendua.

Tituluen aurkezpena betearazleari komunikatuko zaio, adieraz dezan ea nahikotzat hartzen dituen edo proposa dezan konpon daitezela haietan nabaritutako akatsak.

664. artikulua. Tituluak ez aurkeztea edo ez egotea.

Betearazpenpekoak ez baditu tituluak aurkeztu lehen aipatutako epearen barruan, Justizia Administrazioaren letraduak, betearazlearen eskariz, aurkeztera behartzeko egoki deritzen premiamenduak erabili ahal izango ditu, eta, kasua denean, tituluak dauden erregistroetatik edo artxiboetatik lortu ahal izango ditu, eta horretarako ahalmena eman ahal izango zaio betearazlearen prokuradoreari, artxiboak eta erregistroak publikoak izanez gero.

Jabari-titulurik ez dagoenean, haien gabezia osatu ahal izango da Hipoteka Legearen VI. tituluaren ezarritako bitartekoekin. Betearazpenaren auzitegia eskuduna bada ondore horretarako egin behar diren jardun judizialak aitortzeko, betearazpen-prozesuaren barruan gauzatuko dira jardun horiek.

665. artikulua. Titulu-gabezia osatu gabeko enkantea.

Hartzekodunaren eskariz, jabetza-tituluen gabezia aldeztatik osatu gabe atera ahal izango dira ondasunak enkante publikora, baina ediktuetan adierazita inguruabar hori. Kasu horretan, kontuan hartuko da Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren 140. artikulua 5. erregelan aurreikusitakoa.

666. artikulua. Higiezinak baloratzea enkantera ateratzeko.

1. Ondasun higiezinak enkantera ateratzeko izango duten balioa izango da betearazpena abiarazi zuen zama baino lehenagoko zama eta eskubide guztien zenbatekoa balioespenari kendu ondoren geratzen dena, balioespena eginik lege honen 637. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, jabariaren eta zamen erregistro-ziurtagiritik haien lehentasuna ondorioztatzen bada.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Eragiketa hori Justizia Administrazioaren letraduak egingo du, higiezinaren tasazio-baliotik kenduta zamen ziurtagiritik ondorioztatzen den guztizko zenbateko bermatua edo, kasua denean, 657. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren arabera erregistroan jasoarazi dena.

2. Zamen edo kargen balioak berdintzen edo gainditzen badu ondasunarentzat zehaztutakoa, Justizia Administrazioaren letraduak etenda utziko du ondasun horren gaineko betearazpena.

667. artikulua. Enkanterako deialdia.

1. Enkanterako deialdia iragarriko da eta publizitatea emango zaio 645. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

2. Enkanteen Ataria kasuan kasuko erregistroarekin komunikatuko da, Erregistratzaileen Elkargoaren sistemen bidez, erregistro horrek presta eta bidal dezan enkantean jarritako finkari edo finkei buruzko erregistro-informazio elektronikoa, zeina etengabe eguneratua egongo den harik eta enkantea amaitu arte eta Enkanteen Atariaren bidez eskainiko den. Era berean, finka oinarri grafikoetan identifikatuta badago, haien informazioa eskuratuko da. Edozein arrazoiengatik, informazio hori ezin bada eman iragarkia publikatzen denetik berrogeita zortzi ordu igaro ondoren, hala adieraziko da, eta enkantea hasi egingo da, hargatik eragotzi gabe ondoren eta enkantea amaitu baino lehen Enkanteen Atarian jarzteaz.

668. artikulua. Iragarkiaren edukia eta enkantearen publizitatea.

1. Enkantearen iragarkiaren edukia eta haren publizitatea 646. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

2. Enkanteen Atarian ediktua jarriko da, enkante bakoitzerako bereizita, eta barnean hartuko ditu, 646. artikuluan zehaztutako datuez gain, enkantearen objektua den finkaren edo finken identifikazioa, haren erregistro-datuak eta, edukiz gero, katastroko erreferentzia, bai eta enkanterako garrantzitsuak diren datu eta inguruabar guztiak ere, eta, ezinbestean, enkantean gutxieneko zenbateko gisa erabiliko den balioespena edo balorazioa, lehentasunezko zamen murrizketa, egonez gero, eta haren edukitza-egoera, betearazpen-prozeduran jasota badago. Era berean, bidezkoa izanez gero, enkantearen objektua den higiezina bisitatzeko aukera adieraziko da, 669. artikulua 3. apartatua aurreikusia. Datu horiek Enkanteen Atarira igorri beharko dira hark elektronikoki tratatzeko moduan, informazioa eman eta antolatu ahal izateko.

Halaber, bai ediktuan eta bai Enkanteen Atarian jasoko da ulertuko dela ezen lizitatzailerok onartzen duela betearazpen-prozeduran dagoen titulazioa nahikoa dela edo hura ez dagoela, bai eta haien eskaintzek enkantearen gutxieneko zenbatekoaren ehunekoak, 670. artikuluan ezarritakoak, ez gainditzearen ondorioak ere. Gainera, adieraziko da auzi-jartzailearen kreditua baino lehenagoko zamek, kargek eta idazpenek iraun egingo dutela, eta lizitatzailerak, enkantean parte hartze hutsagatik, onartu egiten dituela eta haietatik eratorritako erantzukizunean subrogatuta geratzea onartzen duela errematea bere alde adjudikatuz gero.

3. Erregistro-ziurtagiria, kasua denean, Enkanteen Atariaren bidez kontsultatu ahal izango da. Kasuan kasuko erregistroak, Enkanteen Atariaren bidez, lizitazioaren objektua den finka orori buruzko ziurtagiria,



prozedurari hasiera emateko egindakoa, emango du eta, halaber, 667. artikuluan aipatutako erregistro-informazio eguneratua, katastroko erreferentzia —finkari erantsita egonez gero— eta finkari lotutako informazio grafikoa, hirigintzakoa edo ingurumenekoa legean aurreikusitakoaren arabera, posible izanez gero.

669. artikulua. Enkantearen baldintza bereziak.

1. Enkantean parte hartzeko, lege honen 666. artikuluan ezarritakoaren arabera ondasunei emandako balioaren ehuneko 5en balioakidea den zenbateko bat kontsignatu beharko dute posturagileek, aldez aurretik, 647. artikuluan 1. apartatuan ezarritako moduan.

2. Enkantean parte hartze hutsagatik ulertuko da ezen posturagileek onartzen dutela autoetan jasotako titulazioa nahikoa izatea edo titulaziorik ez izatea, eta era berean onartzen dutela subrogatuta geratzea betearazpeneko kreditua baino lehenagoko zemetan, baldin eta errematea beren alde adjudikatzen bada.

3. Lizitazio-aldian, enkantean interesa duen edonork auzitegiari eskatu ahal izango dio higiezin betearazia edo betearaziak ikuskatzea, zeinak edukitza duenari komunikatuko dion eta onarpena eskatuko dion. Edukitzaileak higiezinaren ikuskapena onartzen duenean eta egokitasunez ematen duenean laguntza ondasunaren enkantea hobeto egite aldera auzitegiak egindako errekerimenduen aurrean, zordunak auzitegiari eskatu ahal izango dio zorra murriztu dezala ondasunaren adjudikazio-balioaren ehuneko 2 arte gehienez, baldin eta edukitzailea bada edo haren eskariz jardun badu. Auzitegiak, inguruabarrak aintzat hartuta eta gehienez ere bost eguneko epean aurretiaz betearazleari entzunda, bidezkoa den zor-murrizketa erabakiko du gehienezko kengarriaren barruan.

4. Hamabost egun baino denbora-tarte luzeagoan etenda egon den enkanteari berriro ekiteko, beste iragarki bat publikatuko da, eta erregistro-informazioaren beste eskabide bat egingo da, kasua denean, beste enkante bat izango balitz bezala.

670. artikulua. Errematea onestea. Ordainketa. Ondasunak hartzekodunari adjudikatzea.

1. Posturarik onena ondasuna enkantera ateratako balioaren ehuneko 70 edo handiagoa bada, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letratuak posturagile onenaren aldeko errematea onetsiko du dekretu bidez, enkantea itxi den egun berean edo hurrengoan. Berrogei eguneko epean, gordailututakoaren eta errematearen guztizko prezioaren arteko aldea kontsignatu beharko du errematatzaileak gordailuen eta kontsignazioen kontuan.

2. Betearazleak egiten badu posturarik onena, ondasuna enkantera ateratako balioaren ehuneko 70ekoa edo handiagoa, behin errematea onetsita, Justizia Administrazioaren letratuak likidatuko du printzipalagatik, korrituengatik eta kostuengatik zor dena, eta, behin likidazio hori jakinarazita, diferentziarik badago betearazleak kontsignatuko du diferentzia hori.

3. Ondasuna enkantera ateratako balioaren ehuneko 70etik gorako posturak soilik egiten badira, baina epeka ordaintzeko eskaintza egiten bada geroratutako prezioa behar beste bermatuz banku- nahiz hipoteka-bermeekin, betearazleari ezagutaraziko zaizkio, zeinak, hurrengo hogeitaz egunetan, higiezinaren adjudikazioa

1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea



eskatu ahal izango baitu enkantera ateratako balioaren ehuneko 70ean. Betearazleak ez badu eskubide hori baliatzen, postura haietatik onenaren alde onetsiko da errematea, hartan eskainitako ordainketa-baldintzekin eta bermeekin.

4. Enkantean eskainitako posturarik onena ondasuna enkantera ateratako balioaren ehuneko 70etik beherakoa denean, postura hobetzen duen hirugarrena aurkeztu ahal izango du betearazpenpekoak hamar eguneko epean, tasazio-balioaren ehuneko 70etik gorakoa edo, zenbateko horretatik beherakoa bada ere, betearazlearen eskubidea erabat asebetetzeko adinakoa.

Betearazpenpekoak aurreko paragrafoan aurreikusitakoa egin gabe igaro bada aipatutako epea, betearazleak bost eguneko epean eskatu ahal izango du higiezia adjudikatzeko balio horren % 70ean edo kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoan, betiere zenbateko hori tasazio-balioaren ehuneko hirurogei baino eta posturarik onena baino handiagoa bada.

Betearazleak ahalmen hori erabiltzen ez duenean, posturagile onenaren alde onetsiko da errematea, betiere eskaini duen zenbatekoak tasazio-balioaren ehuneko 50 gainditzen badu edo, txikiagoa izanda ere, betearazpena abiarazi duen zenbatekoa estaltzen badu gutxienez, korrituetarako eta kostuetarako aurreikusitakoa barne. Posturarik onenak ez baditu betekizun horiek betetzen, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak, alderdiei entzun ondoren, errematea onesteari buruz ebatziko du, kasuaren inguruabarrak aintzat hartuta eta bereziki kontuan hartuta zer jokabide izan duen zordunak jardutea ekarri duen betebeharra betetzeko, zer aukera dagoen beste ondasun batzuk diru bihurtuz hartzekoduna asebetetzeko, zer kalte ekar diezaikeen errematea onartzeak zordunaren ondasunei eta zer onura lortzen duen hartzekodunak onespentik. Azken kasu horretan, errematea onesten duen dekretuaren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da, betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiaren aurrean. Justizia Administrazioaren letraduak errematearen onespena ukatzen duenean, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da.

5. Aurreko apartatuetan aurreikusitakoarekin bat etorritik ondasun higiezinaren adjudikaziodun gertatzen denak onartu beharko du aurretiazko zamek edo kargek irautea, halakorik bada, eta subrogatu beharko du haietatik eratorritako erantzukizunean.

6. Hipoteka Legearen 107. artikulua 12. zenbakian aipatutako hipoteka eratzeko erreklamazioa egiten zaionean, Justizia Administrazioaren letraduak berehala egingo du errematea onesten duen dekretuaren lekukotza, prezioa oraindik ordaindu ez arren, hura egitearen xedea jasota. Eskakerak eten egingo du errematearen prezioa ordaintzeko epea, eta berriro ekingo zaio lekukotza eskatzaileari entregatu ondoren.

7. Errematea edo betearazleari egindako adjudikazioa onetsi aurreko edozein unetan, betearazpenpekoak bere ondasunak askatu ahal izango ditu, betearazleari zor zaion guztia ordainduta: printzipala, korrituak eta kostuak. Kasu horretan, Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez erabakiko du enkantea eten dadila edo hura ondorerik gabe utz dadila, eta berehala komunikatuko dio, bi kasuetan, Enkanteen Atariari.

8. Errematea onetsita eta, bidezkoa denean, gordailututakoaren eta errematearen guztizko prezioaren arteko aldea gordailuen eta kontsignazioen kontuan kontsignatuta, adjudikazio-dekretua emango da, adierazten duena, kasua denean, prezioa kontsignatu dela, bai eta hipoteka-legeriaren arabera inskripzioa egiteko beharrezkoak diren gainerako inguruabarrak ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

671. artikulua. Posturagilerik gabeko enkantea.

Enkantean posturagilerik ez badago, hartzekodunak ondasunaren adjudikazioa eskatu ahal izango du, enkantea itxi eta hurrengo hogeieguneko epean. Zordunaren ohiko etxebizitza ez bada, hartzekodunak adjudikazioa eskatu ahal izango du ondasuna enkantera atera zen balioaren ehuneko 50ean edo kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoan. Zordunaren ohiko etxebizitza bada, ondasuna enkantera atera zen balioaren ehuneko 70aren zenbatekoan egingo da adjudikazioa edo, kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoa ehuneko hori baino txikiagoa bada, ehuneko 60an. 654.3 artikuluan dagoen ordainketak egozteko erregela aplikatuko da kasu orotan.

Hartzekodunak ez badu ahalmen hori hogeieguneko epean baliatzen, Justizia Administrazioaren letraduak, betearazpenpekoaren eskariz, kendu egingo du enbargoa.

672. artikulua. Higiezinaren enkantean lortutako zenbatekoen destinoa.

1. 654. artikulua 1. apartatuan aurreikusitako destinoa emango dio Justizia Administrazioaren letraduak errematearen prezioari, baina gerakinik egonez gero, hura atxikiko da eskubidea betearazlearen ostean inskribatuta edo idatzohartuta dutenei ordaintzeko. Hartzekodun horiek asebeteta oraindik gerakinik egonez gero, betearazpenpekoari edo hirugarren edukitzaileari entregatuko zaio.

Artikulu honetan xedatutakoa ulertzen da kalterik egin gabe gerakinari eman behar zaion destinoari, baldin eta gerakina atxiki dadila agindu bada beste betearazpen singular batean edo edozein konkurtso-prozesutan.

2. Betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak errekerimendua egingo die geroagoko kredituen titularrei ezen hogeita hamar eguneko epean egiazta dezaten beren kredituek dirautela eta galdagarriak direla eta aurkez dezaten haien likidazioa.

Aurkeztutako likidazioak Justizia Administrazioaren letraduak helaraziko dizkie alderdiei, hamar eguneko epean alega dezaten beren eskubideari komeni zaiona eta aurkez dezaten eskura duten dokumentu bidezko frogak. Epe hori igarota, Justizia Administrazioaren letraduak dekretu errekurragarri bidez ebatziko du bidezkoa dena, betearazpenean bildutako zenbatekoak banatzeko ondoretarako soilik, salbuetsita geroagoko hartzekodunei beren eskubideak dagokion moduan eta dagokionaren aurka baliatzeko egokitu dakizkiekeen akzioak. Berraztertzean soilik izango da errekurragarria dekretua, eta likidazioa aurkeztu zuten hirugarren hartzekodunak egongo dira hura jartzeko legimitatuta.

673. artikulua. Eskurapenaren inskripzioa: titulua.

Jabetza-erregistroan inskripzioa egiteko titulu nahikoa izango da adjudikazio-dekretuaren lekukotza, Justizia Administrazioaren letraduak egindakoa, bere barnean hartzen dituen errematea onesten duen ebazpena, hartzekodunaren aldeko adjudikazioa edo diru bihurtzeko hitzarmen bidez edo pertsona edo



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

erakunde espezializatu bidez egindako eskualdaketa, eta adierazten duena, kasua denean, prezioa kontsignatu dela, bai eta hipoteka-legeriaren arabera inskripzioa egiteko beharrezkoak diren gainerako inguruabarrak ere.

Lekukotzak adieraziko du, kasua denean, errematatzaileak kreditua lortu duela errematearen prezioaren ordainketari eta, kasua denean, aurretiazko gordailuari aurre egiteko, eta finantzatutako zenbatekoak eta mailegua eman duen erakundea zehaztuko ditu, Hipoteka Legearen 134. artikuluan aurreikusitako ondoretarako.

674. artikulua. Zamak ezerezte.

Eskuratzailearen eskariz, errematea edo adjudikazioa eragin duen zamaren idatzoharraren edo, kasua denean, inskripzioaren ezerezte-manamendua egingo da.

Era berean, geroagoko inskripzio eta idatzohar guztiak ezerezteko aginduko du Justizia Administrazioaren letraduak, 656. artikuluan aurreikusitako ziurtagiriaren ondoren egindakoak barne, eta manamendu berean jasoko da saldutakoaren edo adjudikatutakoaren balioa auzi-jartzailearen kredituaren guztizko zenbatekoaren berdina edo txikiagoa dela eta, gaingiduz gero, interesdunen eskura atxiki zela gerakina.

Manamenduan adieraziko dira, baita ere, ezerezte inskribatzeko hipoteka-legeriak galdatzen dituen gainerako inguruabarrak.

Alderdi-eskariz, adjudikazio-dekretuaren lekukotza eta zamak ezerezteko manamendua elektronikoki igorriko dira kasuan kasuko jabetza-erregistroa edo erregistroetara.

675. artikulua. Edukitza judiziala eta higiezinaren okupatzaileak.

1. Eskuratzaileak eskatuz gero, okupatu gabe dagoen higiezinaren edukitza emango zaio.

2. Higiezina okupatuta badago, Justizia Administrazioaren letraduak berehala erabakiko du botatzea, auzitegiak ebazten duenean, egun eta ordu zehatza finkatuta eta 661. artikuluen 2. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, okupatzailea edo okupatzaileak ez dutela han egoteko eskubiderik. Okupatzaile utzaraziek beren ustez dagozkien eskubideak egikaritu ahal izango dituzte kasuan kasuko judizioan.

Higiezina okupatuta egonda, aurretiaz ez bada jardun 661. artikuluen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera, eskuratzaileak betearazpenaren auzitegiari eskatu ahal izango dio bota daitezela 661. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta egite hutsezko edo titulu nahikorik gabeko okupatzailetzat har daitezkeenak. Eskabidea urtebeteko epean egin beharko da, errematatzaileak edo adjudikaziodunak higiezina eskuratzeko duenetik; epe hori igarota, kasuan kasuko judizioan soilik baliatu ahal izango da higiezina uzteko uzia.

3. Eskuratzaileak zehaztutako okupatzaileei jakinaraziko zaie aurreko apartatuan aipatutako botatze-eskabidea, eta zitazioa egingo zaie Justizia Administrazioaren letraduak hamar eguneko epearen barruan zehaztuko duen ikustaldi baterako, zeinean alegatu eta frogatu ahal izango baitute beren egoerari lotuta



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

egokitzen jotzen dutena. Auzitegiak ondorengo errekurtsorik gabeko auto bidez ebatziko du botatzeari buruz, eta botatze hori dekretatuko du zitatutako okupatzailea edo okupatzaileak arrazoi zuzenik eman gabe agertzen ez diren guztietan.

4. Higiezin baten okupatzaileen botatzeari buruz ebazten duen autoa okupatzaileei jakinarazi beharko zaie eta botatzea egingo den egun eta ordu zehatza finkatuko du, eta, edozein eduki izanda ere, ez die kalterik egingo interesdunen eskubideei; kasuan kasuko judizioan egikaritu ahal izango dira haiek.

7. atala. Ordaintzeko administrazioaz

676. artikulua. Administrazioa eratzea.

1. Betearazleak edozein unetan eskatu ahal izango dio betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduari administrazioan entrega ditzala ondasun enbargatu guztiak edo batzuk, haien etekinak erabil daitezen betearazpenaren printzipala, korrituak eta kostuak ordaintzeko.

Betearazleak erabakitzen badu hirugarrenek gauza dezatela administrazioa, Justizia Administrazioaren letraduak finkatuko du, dekretu bidez eta betearazpenpekoaren kontura, haien ordainsaria.

2. Justizia Administrazioaren letraduak, dekretu bidez, ordaintzeko administrazioa erabakiko du ondasunen izaerak hala aholkatzen duenean, eta xedatuko du ezen, aurretiaz inbentarioa eginda, betearazlearen edukitzan jar daitezela ondasunak eta jakinaren gainean jar daitezela betearazleak berak izendatutako pertsonak.

Administrazioa erabaki aurretik, entzunaldia emango zaie, kasua denean, ondasun enbargatuaren gaineko eskubideen titularrak diren hirugarrenei, baldin eta eskubide horiek betearazlearen eskubidearen ondoren inskribatu edo idatzohartu badira.

3. Betearazlearen eskariz, Justizia Administrazioaren letraduak hertsapen-isunak ezarri ahal izango dizkio administratzailearen ahalmenak egikaritzea eragozten edo zailtzen duen betearazpenpekoari, hargatik eragotzi gabe hark izan ditzakeen gainerako erantzukizunak. Era berean, betearazlearen eskariz, auzitegiak hertsapen-isunak ezarri ahal izango dizkie administratzailearen ahalmenak egikaritzea eragozten edo zailtzen duten hirugarrenei; kasu horretan, 591. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

677. artikulua. Administrazio modua.

Betearazleak eta betearazpenpekoak itundutakoari lotuko zaio ordaintzeko administrazioa; itunik ezean, ulertuko da herrialdeko ohituraren arabera administratu behar direla ondasunak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

678. artikulua. Kontu-ematea.

1. Betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak edo alderdiek besterik erabaki ezean, hartzekodunak urtero emango dizkio ordaintzeko administrazioaren kontuak Justizia Administrazioaren letraduari. Hartzekodunak aurkeztutako kontuak betearazpenpekoaren eskura jarriko dira hamabost eguneko eperako. Betearazpenpekoak alegaziorik formulatuz gero, betearazleari helaraziko zaio, bederatzi eguneko epean adieraz dezan harekin bat datorren ala ez.

2. Haien arteko akordiorik egon ezean, Justizia Administrazioaren letraduak agerraldi baterako dei egingo die bost eguneko epean; proposatutako eta baliagarritzat eta egokitzeak jotzen diren frogak onartuko dira han, eta haiek gauzatzeko zuhurtziazkotzat jotzen den denbora zehaztuko da, hamar egun gainditu ezin izango dituen.

Kasua denean, onartutako frogak gauzatu, Justizia Administrazioaren letraduak bost eguneko epean emango du dekretua, aurkeztutako kontuak onesteari edo zuzentzeari buruz bidezkoa dena ebatziko duena. Dekretu horren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da.

679. artikulua. Administrazioari buruzko eztabaidak.

Kontu-emateari buruzko eztabaidak salbuetsita, hitzezko judiziorako ezarritako izapideen bitartez bideratuko dira, betearazpena baimendu zuen auzitegiaren aurrean, finka enbargatuen administrazioa dela eta hartzekodunaren eta betearazpenpekoaren artean sor daitezkeen gainerako arazo guztiak.

680. artikulua. Administrazioa amaitzea.

1. Betearazleak bere kreditua, korrituak eta kostuak kobratzen dituen administrazioaren ondasunen emaitzarekin, haiek ostera ere geratuko dira betearazpenpekoaren esku.

2. Betearazpenpekoak edozein unetan ordaindu ahal izango du hartzekodunak aurkeztutako kontuaren azken egoeraren arabera bere zorretik ordaintzeko geratzen zaiona; kasu horretan, berehala itzuliko zaio bere ondasunen edukitza, eta hartzekodunak administrazioa utziko du, hargatik eragotzi gabe hurrengo hamabost egunen barruan bere kontu orokorra ematea eta bata zein besteak eskubidez dagozkiela uste duten gainerako erreklamazioak egitea.

3. Betearazleak ez badu bere eskubidea asebetetzen administrazioaren bidez, eskatu ahal izango du betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak amaiera eman diezaiola administrazio horri eta, aurretiaz kontuak emanda, beste bitarteko batzuen bidez egin dadila nahitaezko diru-bihurtzea.

V. KAPITULUA

Ondasun hipotekatu edo pignoratuen gaineko betearazpenaren berezitasunez



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

681. artikulua. Bahi edo hipoteka bidez bermatutako zorren ordainketa galdatzeko prozedura.

1. Bahi edo hipoteka bidez bermatutako zorren ordainketa galdatzeko akzioa zuzenean egikaritu ahal izango da ondasun pignoratuaren edo hipotekatuen aurka; titulu honetan xedatutakoari lotuko zaio egikaritzea, kapitulu honetan ezarritako berezitasunekin.

2. Itsasontzien gaineko hipoteka bidez bermatutako zorren ordainketa erreklamatzeko denean, aurreko apartatuan xedatutakoa egikaritu ahal izango da, soilik, Itsas Nabigazioaren Legearen 140.a) eta e) artikuluetan deskribatutako kasuetan.

Aipatutako artikuluen c) eta d) letretan adierazitako kasuetan, akzioa egikaritu ahal izango da, soilik, itsasontziaren egoera erreala aurretiaz egiaztatzen denean administrazio eskudunak emandako ziurtagiri bidez, eta, b) letren kasuan, beharrezkoa izango da betearazpen-aginduaren lekukotza aurkeztea, konkurtso-deklarazioa jasotzen duena.

682. artikulua. Kapitulu honen eremua.

1. Kapitulu honen arauak aplikagarriak izango dira, soilik, betearazpena zuzentzen denean jardunaren oinarri den zorra bermatzeko ondasun hipotekatuen edo pignoratuaren aurka.

2. Ondasun hipotekatuak pertsegitzen direnean, kapitulu honetako xedapenak aplikatuko dira, aurreko apartatuan xedatutakoaz gain, honako betekizun hauek betetzen diren guztietan:

1.) Hipotekaren eratze-eskrituran interesdunek zehazten dutenean finka edo ondasun hipotekatuaren tasazio-prezioa, enkantearen gutxieneko zenbateko gisa balio dezan, zeina inola ere ezin izango den izan, kasua denean, azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretuaren 18. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik egindako tasazioaren zehaztutako balioaren ehuneko 75etik beherakoa. Errege lege-dekretu horren bidez, arlo hauekin zerikusia duten Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egin da: bermatutako bonuak; inbertsio kolektiboko erakundeen mugaz harandiko banaketa; datu irekiak eta sektore publikoaren informazioa berrerabiltzea; onlineko transmisioei eta irrati eta telebista programen emanaldiei aplikatzen zaizkien egile eskubideak eta antzeko eskubideak gauzatzea; aldi baterako salbuespenak inportazio eta hornigai batzuekin loturik; kontsumitzaileak; errepideko garraiorako ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen sustapena.

2.) Eskritura berean egoitza bat jasotzen denean, zordunak finkatua, errekerimenduak eta jakinarazpenak egiteko.

Komunikazio-egintzak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira beti, helburuko pertsonak legez edo kontratuz behartuta badaude Justizia Administrazioarekiko harremanak bitarteko horien bidez izatera.

Merkataritza-establezimenduen gaineko hipotekan, egoitzatzat ezinbestean hartuko da hipotekatzen den establezimendua instalatuta dagoen lokala.

3. Aurreko apartatuan aipatutako inguruabarrak hipotekaren inskripzioan jasoko ditu erregistratzaileak.

683. artikulua. Errekerimenduak eta jakinarazpenak egiteko zehaztutako egoitza aldatzea.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1. Zordunak eta zordun ez den hipotekatzailleak errekerimenduak eta jakinarazpenak egiteko zehaztutako egoitza aldatu ahal izango dute honako erregela hauek betez:

1.) Ondasun hipotekatuak higiezinak direnean, ez da beharrezkoa izango hartzekodunaren adostasuna, betiere eskrituran zehaztutako herri berean egiten bada aldaketa edo finkak kokatuta dauden mugarteko beste edozeinetan eta horrek epaitegiaren eskumena zehazteko balio badu.

Egoitza hori adierazitakoetatik desberdina den leku batera aldatzeko, beharrezkoa izango da hartzekodunaren adostasuna.

2.) Ondasun higigarrien hipoteka denean, ezin izango da egoitza aldatu hartzekodunaren adostasunik gabe.

3.) Itsasontzien gaineko hipoteka denean, nahikoa izango da egoitza-aldaketa hartzekodunari ezagutaraztea.

Kasu orotan, beharrezkoa izango da hartzekodunari egindako jakinarazpen fede-emailea egiaztatzea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako egoitza-aldaketak erregistroan jasoaraziko dira hipoteka-inskripzioaren orri-bazterrean oharra eginda, dela erregistratzailearen aurrean legitimatutako edo berretsitako sinadura duen eskari bidez, dela erregistroan telematikoki aurkeztutako eskari bidez sinadura elektronikoaren ziurtagiri aitortuarekin bermatuta, dela notario-akta bidez.

3. Errekerimenduen eta jakinarazpenen ondoreetarako, ondasun hipotekatuen hirugarren eskuratzaillearen egoitza izango da eskuratze-inskripzioan izendatuta ageri dena. Kasu orotan, 660. artikulua 1. apartatuan jasotako aurreikuspena aplikatuko da.

684. artikulua. Eskumena.

1. Kapitulu honetan aipatutako prozedurez arduratzeko, eskudun izango da:

1.) Ondasun hipotekatuak higiezinak badira, finka kokatuta dagoen tokiko lehen auzialdiko epaitegia, eta, barruti judizial bat baino gehiagotan kokatuta badago hura, edota batzuk badira eta barruti desberdinetan kokatuta badaude, haietako edozeinetako lehen auzialdiko epaitegia, demandatzailearen aukeran; kasu horretan ez dira aplikagarriak izango lege honetan esanbidezko edo isilbidezko sumisioari buruz jasotako arauak.

2.) Ondasun hipotekatuak itsasontziak badira, hipoteka eratze-erregistroko tituluan alderdiek aukeratutako lehen auzialdiko epaitegia, eta, halakorik ezean, hipoteka eratu zen tokiko epaitegia, itsasontzi hipotekatua dagoen portukoa, demandatuaren egoitzakoa edo hipoteka inskribatu zen erregistroa kokatuta dagoen tokikoa, auzi-jartzailearen aukeran.

3.) Ondasun hipotekatuak higigarriak badira, hipotekaren eratze-eskrituran alderdiek aukeratutako lehen auzialdiko epaitegia, eta, halakorik ezean, hura inskribatu zen barruti judizialekoa. Ondasun hipotekatuak batzuk badira eta erregistro desberdinetan inskribatuta badaude, eskudun izango da kasuan kasuko barruti judizialeatik edozeinetako lehen auzialdiko epaitegia, demandatzailearen aukeran.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4.) Ondasun pignoratuak badira, bermea eratzeko eskrituran edo polizan alderdiek aukeratutako lehen auzialdiko epaitegia, eta, halakorik ezean, ondasunak kokatuta edo biltegitratuta dauden edo gordailutut zat jo daitezkeen tokikoa.

2. Auzitegiak ofizioz aztertuko du bere lurralde-eskumen propioa.

685. artikulua. Demanda betearazlea eta harekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak.

1. Demanda betearazlea zordunaren aurka zuzendu beharko da, eta, kasua denean, zordun ez den hipotekatzailearen aurka edo ondasun hipotekatuen hirugarren edukitzailearen aurka, betiere azken horrek hartzekodunari egiaztatu badio ondasun horiek eskuratu izana.

2. Demandarekin batera aurkeztuko dira, bai kredituaren titulua edo tituluak, lege honek betearazpena abiarazteko galdatzen dituen betekizunak betetzen dituztela, eta bai lege honen 550. artikuluan eta, kasuan-kasuan, 573. eta 574. artikuluetan aipatutako gainerako dokumentuak.

Ondasun hipotekatuak edo lekualdaketa gabeko bahi-araubidepean dauden ondasunak betearazten direnean, ezin bada aurkeztu titulu inskribatua, aurkeztu zaionari erantsi beharko zaio erregistro-ziurtagiria, egiaztatzen duena hipotekaren inskripzioa egin dela eta hipotekak indarrean dirauela.

Ondasun hipotekatuen gaineko betearazpen-demandaren kasuetan, adierazi beharko da demanda horren objektu den higiezia zordunaren ohiko etxebizitza den, bai eta alderdi betearazleak etxebizitza-edukitzaile handiaren izaera duen ere, 439. artikuluan 6. apartatuaren b) letran aurreikusitakoaren arabera.

Edukitzale handia ez dela adieraziz gero, egoera hori berresteko, demandari erantsi beharko zaio jabetza-erregistroaren ziurtagiri bat, alderdi auzi-jartzailearen izenean dauden jabetzen zerrenda jasotzen duena.

Era berean, adierazi beharko da zorduna zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dagoen ala ez.

Zaurgarritasun ekonomikoa dagoen ala ez egiaztatzeko, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, indarraldia hiru hilabetetik gorakoa izango ez duena, hipoteka-zordunaren alde aurreko baimenarekin emango dutena etxebizitzaren, gizarte-laguntzaren, gizarte-premiako egoeren ebaluazioaren eta informazioaren eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta ematearen gaian eskumena duten autonomia- eta toki-administrazioetako zerbitzuek, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoen arabera berariaz izendatuek.

Baldintza hori honako hauen bidez ere bete ahal izango da:

1.) Auzi-jartzaileak emandako erantzukizunpeko adierazpena, agertzen duena lehen aipatutako zerbitzueta jo duela demanda aurkeztu baino bost hilabete lehenago gehienez ere, eta eskaera aurkeztu zuenetik bi hilabeteko epean ez zaiola jaramonik egin edo dagozkion izapideak hasi ez direla, eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiarekin batera.

2.) Zerbitzu eskudunen egiaztagiria, adierazten duena hipoteka-zordunak ez duela berariaz onartzen bere egoera ekonomikoaren azterketa, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoan aurreikusitakoaren arabera. Dokumentu horrek ezin izango du hiru hilabetetik gorako indarraldia izan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Hipoteka-hartzekoduna etxebizitza-edukitzaile handia bada, demandaren objektu den higiezin hipoteka-zordunaren ohiko etxebizitza bada eta, aurreko zenbakien arabera, zordun hori kalteberatasun ekonomikoko egoeran dagoela jakiten bada, ez dira onartuko hipoteka betearazteko demandak, baldin eta ez bada egiaztatzen auzi-jartzailea administrazio publiko eskudunek horretarako ezartzen duten adiskidetze-edo bitartekotza-prozeduraren mende jarri dela, oinarritzat hartuta bi alderdien inguruabarren eta etxebizitzaren arloan egon daitezkeen laguntza eta dirulaguntzen azterketa, etxebizitzaren arloko legedi eta araudi autonomikoan xedatutakoaren arabera.

Aurreko baldintza hori modu hauetako batean egiaztatu ahal izango da:

1.) Auzi-jartzaileak emandako erantzukizunpeko adierazpena, agertzen duena lehen aipatutako zerbitzuetara jo duela demanda aurkeztu baino bost hilabete lehenago gehienez ere, eta eskaera aurkeztu zuenetik bi hilabeteko epean ez zaiola jaramonik egin edo dagozkion izapideak hasi ez direla, eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiriarekin batera.

2.) Zerbitzu eskudunen egiaztagiria, adiskidetze- edo bitartekaritza-prozeduraren emaitza adierazten duena, non jasoko baitira alderdien nortasuna, eztabaidaren objektua eta alderdietako batek prozeduran parte hartzeari uko egin dion, hala badagokio. Dokumentu horrek ezin izango du hiru hilabetetik gorako indarraldia izan.

Hipoteka-hartzekoduna etxebizitza-erakunde publikoa bada, aurreko baldintza horren orde, hala badagokio, erakundearen beraren bitartekaritza-zerbitzu espezifikoen ekintza gauzatu ahal izango da alde aurretik, eta hori aurreko apartatuan adierazitako moduan egiaztatuko da.

3. Kapitulu honetan araututako prozeduraren ondoretarako, betearazpena abiarazteko titulu nahikotzat hartuko da itsasontzien gaineko hipoteka eratzen duen dokumentu pribatua, ondasun higigarrien erregistroan inskribatua Itsas Nabigazioaren Legearen 128. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Hipoteka-zedulak lege egin ditzakeen erakunde baten alde edo, prozedura hastean, hipoteka-bonuak egiteari lotuta dauden kredituak eta maileguak bermatzen dituzten erakundeen alde ondasun higiezinaren gainean eratutako hipotekak betearazteko, nahikoa izango da jabetza-erregistroaren ziurtagiri bat aurkeztea, hipotekaren inskripzioa eta irautea egiaztatzen duena. Ziurtagiri hori hipoteka-eskrituraren edozein kopia baimendurekin osatuko da, zeina partziala izan baitaiteke betearazpenaren objektu den finka edo finkak soilik hartuz barnean.

5. 579. artikulua 1. apartatuan aurreikusitako ondoretarako beharrezkoa izango da, falta den zenbatekoagatik eta dagokien aurka betearazpena abiarazi ahal izateko, hasierako demanda betearazlea haiei jakinaraztea. Jakinarazpen hori egin ahal izango du alderdi betearazlearen prokuradoreak hark hala eskatzen badu edo, inguruabarrak kontuan hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak erabakitzen duenean.

Bertan erreklamatutako zenbatekoa izango da abal-emaileen edo fidatzaileen aurka betearazpena abiarazteko oinarri gisa balioko duena, eta ezin izango da handitu hasierako prozedura betearazlea izapidetzean sortutako berandutze-korrituengatik.

686. artikulua. Ordaintze-errekerimendua.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1. Betearazpena baimentzen eta abiarazten duen autoan, aginduko da zordunari eta kasua denean demanda zuzendu zitzaion hipotekatzaile ez-zordunari edo hirugarren edukitzaileari egin dakiola ordaintze-errekerimendua, erregistroan indarrean dagoen egoitzan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den errekerimenduan 441.5 artikulua jasotako zehaztapenak txertatu beharko dira, eta ondoreak berberak izango dira.

2. Zordunari betearazpena abiarazi dela jakinarazteari kalterik egin gabe, aurreko apartatua aipatutako errekerimendua ez da egingo, 581. artikulua 2. apartatua xedatutakoarekin bat etorritik, errekerimendua edo errekerimenduak estrajudizialki egin direla egiaztatzen denean.

Ondore horietarako, zordunari egindako errekerimendua eta, kasua denean, hirugarren edukitzailea den hipotekatzaile ez-zordunari eta, kasua denean, egikaritzen den hipotekaren eskubide erreala baino geroago inskribatu diren eskubideen titularri egindako jakinarazpenak haietako bakoitzak erregistroan kontsignatu duen egoitzan egin beharko dira. Errekerimendua edo jakinarazpena notarioak egingo dio, notario-legerian ezarritako moduan, helburuko pertsonari, zehaztutako egoitzan egonez gero. Egoitzan ez badago, notarioak eginbidea gauzatuko du bertan egon eta errekerituarekin harreman pertsonala edo lan-harremana daukala adierazten duen adin nagusiko pertsonarekin. Notarioak berariaz jasoko du pertsona horrek zedulaz arduratzeko eman duen adostasuna eta helburuko pertsonari iritsarazteko hark duen betebeharra.

Aurrekoa gorabehera, baliozkoa izango da jabetza-erregistroan jasotako egoitzatik kanpo egindako errekerimendua edo jakinarazpena, betiere helburuko pertsonari egiten bazaio eta, notarioak aldeztu aurretik hura identifikatuta, haren adostasunarekin egiten bada, zeina errekerimenduaren edo jakinarazpenaren aktan adieraziko den.

Helburukoa pertsona juridikoa izanez gero, notarioak eginbidea gauzatuko du erregistroan zehaztutako egoitzan dagoen adin nagusiko pertsonarekin, baldin eta administrazio-organoko kide bada, ahalmen nahikoak dauzkan ordezkaria dela egiaztatzen badu, edo, notarioaren iritziz, pertsona juridikoaren interesekoak diren errekerimendu edo jakinarazpen fede-emaileak hartzeko arduradun gisa modu nabarian diharduen pertsona bada.

3. Erregistroan jasotako egoitzan errekerimendua egiten saiatu baina huts egin, aurreko apartatua aipatutako pertsonarekin hura egin ezin izan eta bulego judizialak zordunaren egoitza zehazteko ikerketa egokiak egin baditu, ediktuak publikatzeko aginduko da 164. artikuluan aurreikusitako moduan.

687. artikulua. Motordun ibilgailu hipotekatuen eta ondasun pignoratuak gordailua.

1. Prozeduraren objektu direnean bahiarekin edo motordun ibilgailuen hipotekarekin bermatutako zorrak, Justizia Administrazioaren letratuak aginduko du hartzekodunaren edo hark izendatutako pertsonaren esku gordailutu daitezela ondasun pignoratuak edo ibilgailu hipotekatuak.

Ibilgailu gordailutuak zigilatu egingo dira, eta ezin izango dira erabili, salbu eta hori posible ez bada xedapen bereziak direla-eta; kasu horretan, kontu-hartzaile bat izendatuko du Justizia Administrazioaren letratuak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez erabakiko du aurreko apartatuan aipatutako gordailua, baldin eta ordainketa estrajudizialki errekeritu bazaio zordunari. Osterantzean, aginduko da zordunari ordaintze-errekerimendua egin dakiola lege honetan aurreikusitakoaren arabera, eta, hark errekerimendua betetzen ez badu, aginduko da gordailua era dadila.

3. Ondasun pignoratuak atzeman ezin direnean, ezta haien gordailua eratu ere, ez da aurrera jarraituko prozedurarekin.

688. artikulua. Jabariaren eta zamen ziurtagiria. Betearazpenaren largespena, hipotekarik ez dagoenean edo hura ezerezten denean.

1. Betearazpena ondasun hipotekatuen gainekoa denean, erregistratzaileari erreklamatuko zaio 656. artikulua 1. apartatuan aipatutako puntuak jasotzen dituen ziurtagiria, bai eta betearaziko den hipotekaren inskripzioa hitzez hitz txerta dadila ere, eta adieraziko da betearazlearen aldeko hipoteka indarrean eta ezereztu gabe dagoela edo, kasua denean, erregistroan jasotako ezerezte edo aldaketak. Kasu orotan, 656. artikulua 3. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

2. Erregistratzaileak orri-bazterreko ohar bidez jasoaraziko du hipoteka-inskripzioan ezen egin dela jabariaren eta zamen ziurtagiria, haren data eta aipatzen duen prozedura badela adierazita.

Orri-bazterreko ohar hori Justizia Administrazioaren letraduaren manamendu bidez ezerezten ez den bitartean, erregistratzaileak ezin izango du hipoteka ezereztu betearazpenarenak berarenak ez diren kausengatik.

3. Ziurtagiritik ondorioztatzen bada ez dagoela edo ezereztu dela betearazlearen erreklamazio-oinarri izan den hipoteka, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, betearazpenari amaiera ematen diona.

689. artikulua. Inskribatutako titularrari eta geroagoko hartzekodunei prozedura komunikatzea.

1. Erregistro-ziurtagiritik ondorioztatzen bada ezen jabariaren azken inskripzioa bere alde duen pertsonari ez zaiola ordaintze-errekerimendurik egin aurreko artikuluetan aurreikusitako notario bidezko moduetatik edo modu judizialeetatik batean ere, prozedura badela jakinaraziko zaio pertsona horri erregistroan jasota dagoen egoitzan, komeni bazaio betearazpenean esku hartu ahal izan dezan, 662. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, edo errematea baino lehen ordaindu ahal izan dezan kredituaren eta korrituen eta kostuen zenbatekoa, haren finkaren hipotekarekin ziurtatuta dagoen partean.

2. Auzi-jartzailearen kreditua bermatzen duen hipotekaren ondoren eratutako zamak edo eskubide errealak daudenean, 659. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

690. artikulua. Finka edo ondasun hipotekatua administratzea.

1. Hamar eguneko epea igarota ordaintze-errekerimendua egin denetik edo, hura estrajudizialki egin denean, betearazpena abiarazi denetik, hartzekodunak eskatu ahal izango du eman dakiola finka edo ondasun hipotekatuen behin-behineko administrazioa edo edukitza. Kasu horretan, hartzekodunak jasoko ditu, bai ordaindu gabeko errenta mugaeguneratuak, hala hizpatu bada, bai eta geroagoko fruituak, errentak eta produktuak ere, eta haiekin estaliko ditu ondasunen kontserbazio- eta ustiapen-gastuak eta, ondoren, bere kreditua.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Lehen aurreikusitako ondoreetarako, higiezinaren okupatzaileari jakinaraziko zaio behin-behineko administrazioa, adierazita behartuta geratzen dela administratzaileari egitera jabeari egin beharreko ordainketak.

Okupatu gabeko higiezinak badira, haien edukitza materiala emango zaio administratzaileari, behin-behinean.

2. Hartzekodunak bat baino gehiago izanez gero, erregistroaren arabera lehentasunezkoa denari egokituko zaio administrazioa, eta, lehentasun bera badute, haietako edozeinek eskatu ahal izango du guztien onurarako; aurreko apartatuan zehaztutakoaren arabera aplikatuko dira fruituak, errentak eta produktuak, auzi-jartzaile guztien kredituen artean hainbanatuta. Lehentasun bera duten zenbaitek eskatzen badute, Justizia Administrazioaren letratuak erabakiko du dekreto bidez, bere zuhurtziazko erabakimenaren arabera.

3. Arau orokor gisa, hartzekodunari emandako behin-behineko administrazioak eta edukitzak ez du iraungo bi urte baino gehiago, higiezinaren hipoteka bada, eta urtebete baino gehiago, higigarriena edo itsasontziena bada. Hura amaitutakoan, hartzekodunak kudeaketaren kontuak emango dizkio betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letratuari, eta hark onetsi egingo ditu bidezkoa bada. Betekizun hori bete ezean, ezin izango du aurrera egin betearazpenak. Zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da idazkariaren ebazpenaren aurka.

4. Motordun ibilgailuaren gaineko hipotekarekin bermatutako zorra dela-eta bideratu denean prozedura, Justizia Administrazioaren letratuak aurreko apartatueta aipatu den administrazioa erabakiko du, soilik baldin eta hura eskatzen duen hartzekodunak behar besteko kauzioa ematen badu 529. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan.

5. Hipoteka-betearazpena eta konkurtso-prozesu bat batera gertatzen direnean, konkurtso-prozesuaz arduratzen ari den auzitegiak xedatutakoari jarraituko zaio behin-behineko administrazioaren edo edukitzaren gaian, prozesu hori arautzen duten arauekin bat etorritik.

691. artikulua. Ondasun hipotekatuen enkanterako deialdia. Deialdiaren iragarkia eta publizitatea.

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa beteta eta ordaintze-errekerimendua eta lehen aipatutako jakinarazpenak egin zirenetik hogeitaz egun igarota, finka edo ondasun hipotekatuaren enkantea egingo da, auzi-jartzailearen, zordunaren edo hirugarren edukitzailearen eskariz.

2. Enkantea iragarriko da eta publizitatea emango zaio 667. eta 668. artikuluetan zehaztutako moduan.

3. Merkataritza-establezimenduaren gaineko hipotekarekin bermatutako zorragatik bideratzen denean prozedura, Enkanteen Atarian publikatuko den ediktuak adieraziko du eskuratzailea lotuta geratuko dela Hiri Errentamenduen Legean xedatutakoari eta, kasua denean, onartu egingo duela kontratua lagatzearen ondorioz errentatzaileak errenta igotzeko duen eskubidea.

4. Ondasun hipotekatuen enkantea, higigarriak nahiz higiezinak izan, lege honetan ondasun higiezinaren enkanterako xedatutakoaren arabera egingo da.

5. Justizia Administrazioaren letratuak zorduna konkurtsoan deklaratu dela dakienean, enkantea etengo du, jadanik hasita egon arren. Kasu horretan enkanteari berriro ekingo zaio egiaztatzen denean,



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

konkurtsoko epailearen ebazpenaren lekukotza bidez, ondasunak edo eskubideak ez direla beharrezkoak zordunaren jardura profesionalarekin edo enpresarialarekin jarraitzeko, aplikatzekoa izanik 649. artikulua 2. apartatua xedatutakoa. Kasu orotan, jabetza-erregistratzaileak prozedura betearazlea bideratzen ari den bulego judizialari jakinaraziko dio finka hipotekatuaren gaineko konkurtsoaren inskripzioa edo idatzoharra, bai eta ondasuna zordunaren jardura profesionalari edo enpresarialari lotuta ez dagoela edo jardura horietarako ez dela beharrezkoa jasotzen duen erregistro-agiria ere.

6. Kapitulu honek aipatzen dituen betearazpen-prozesuetan ere erabili ahal izango dira titulu honen IV. kapituluko 3. eta 4. ataletan araututako hitzarmen bidezko diru-bihurtzea eta pertsona edo erakunde espezializatu bidezkoa.

692. artikulua. Hipoteka-kredituaren ordainketa eta soberakinaren erabilera.

1. Errematearen prezioa erabiliko da, luzamenik gabe, auzi-jartzaileari ordain dakizkion bere kredituaren printzipala, sortutako korrituak eta eragindako kostuak, eta kontzeptu horietako bakoitzarengatik hartzekodunari entregatutakoak ezin izango du gaintitu hipoteka-estalduraren muga; gaintikina, halakorik balego, gordailutu egingo da ondasun hipotekatuaren gainean geroago inskribatutako edo idatzohartutako eskubideen titularren eskura. Kasua denean geroagoko hartzekodunei ordaindu ondoren, ondasun hipotekatuaren jabeari entregatuko zaio gerakina.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ondasun hipotekatuaren jabea zorduna bera denean, betearazpenaren objektu den kredituarengatik betearazleari zor zaiona osorik ordaintzeko erabiliko da errematearen prezioa, hipoteka-estalduraren muga gaintitzen duen muntan, behin ordaindu eta gero hipotekaren ostean inskribatutako edo idatzohartutako kredituak kasua denean, betiere zorduna ez badago ordainketa-etenduran, konkurtsoan edo porrotean.

2. 672. artikulua 2. apartatua aurreikusitako intzidentea sustatu ahal izango du uste duenak eskubidea duela geroagoko hartzekodunei ordaindu ostean gera daitekeen gerakina eskuratzeko.

Apartatu honetan eta aurrekoan xedatutakoa ulertzen da kalterik egin gabe gerakinari eman behar zaion destinoari, baldin eta hura atxiki dadila agindu bada beste betearazpen singular batean edo edozein konkurtso-prozesutan.

3. Betearazlearen kreditua bermatzen zuen hipoteka eta, kasua denean, geroagoko inskripzioak eta idatzoharrak ezerezteko egiten den manamenduan, adieraziko da ezen, 674. artikuluan xedatutakoa ez ezik, 689. artikuluan aipatzen diren jakinarazpenak ere egin zirela.

693. artikulua. Hainbat epetan ordaindu beharreko kapitalaren edo korrituen zati batera mugatutako erreklamazioa. Epekako zorren mugaeguneratze aurreratua.

1. Kapitulu honetan xedatutakoa aplikagarria izango da epeka ordaindu behar den kredituaren kapitalaren edo korrituen zati bat ordaintzen ez den kasuan, baldin eta, zordunak bere ordaintze-betebeharra bete gabe gutxienez hilabeteko hiru epe mugaeguneratu badira edota zordunak bere betebeharra gutxienez hiru hilabetez bete gabe uztearen baliokidea den kuota kopuru bat mugaeguneratu bada. Horrela jasoko du notarioak eratze-eskrituran eta erregistratzaileak kasuan kasuko idazpenean. Kapitalaren edo korrituen epeetakoren bat ordaintzeko beharrezkoa bada ondasun hipotekatua besterentzea

1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea



eta oraindik ere betebeharraren beste epe batzuk mugaeguneratu gabe geratzen badira, salmenta egingo da, eta erosleari finka eskualdatuko zaio ordaindu gabe dagoen kredituaren zatiari dagokion hipotekarekin.

2. Kapitalarengatik eta korrituengatik zor den guztia erreklamatu ahal izango da eratze-eskrituran hala hitzartu eta kasuan kasuko idazpenean jasotakoaren arabera. Mailegua edo kreditua hartzen duena pertsona fisikoa bada eta mailegua edo kreditua etxebizitza baten gaineko hipotekarekin berrmatuta badago edo beraren xedea bizitegi-erabilerako ondasun higiezinak eskuratzea bada, Higiezin Kredituko Kontratuak Arautzen dituen 5/2019 Legeak 24. artikuluan ezartzen duena aplikatuko da, eta, behar den kasuetan, Hipoteka Legeak 129 bis artikuluan ezartzen duena ere bai.

3. Aurreko apartatuan aipatutako kasuan, hartzekodunak eskatu ahal izango du, hargatik eragotzi gabe betearazpena zor osoagatik abiaraztea, zordunari komunika dakiola ondasuna askatu ahal izango duela, enkantea itxi baino lehen, demandaren aurkezpen-datan mugaeguneratuta zegoen printzipalaren eta korrituen zenbateko zehatza kontsignatuz, gehi, kasua denean, prozeduran sortuz doazen eta osorik edo zati batean ordaindu ez diren maileguaren mugaeguneratzeak eta berandutze-korrituak. Ondore horietarako, hartzekodunak eskatu ahal izango du 578. artikuluen 2. apartatuan aurreikusitakoaren arabera jardun dadila.

Ondasun hipotekatua ohiko etxebizitza bada, zordunak ondasuna askatu ahal izango du, hartzekodunaren adostasunik gabe ere, aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak kontsignatuta.

Ondasun bat lehen aldiz askatu ondoren, bigarren aldiz edo gehiagotan askatu ahal izango da, betiere gutxienez hiru urte igaro badira askatze-dataren eta hartzekodunak egindako ordaintze-errekerimendu judizialaren edo estrajudizialaren artean.

Zordunak aurreko apartatuetan aurreikusitako baldintzetan egiten badu ordainketa, kostuak tasatuko dira, zeinak ordaindutako kuota atzeratuen muntaren arabera kalkulatu diren 575.1 bis artikuluan aurreikusitako mugarekin, eta behin haiek ordainduta, Justizia Administrazioaren letratuak dekretua emango du, ondasuna askatuko duena eta prozedura amaitutzat deklaratu duena. Gauza bera erabakiko da ordainketa hirugarren batek betearazlearen adostasunarekin egiten duenean.

694. artikulua. Ondasun pignoratuak diru bihurtzea.

1. Behin ondasun pignoratuaren gordailua eratuta, diru bihurtuko dira haiek, lege honetan premiamendu-prozedurarako xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Ondasun pignoratuak ez direnean titulu honen IV. kapituluaren 1. atalean aipatuotarikoak, aginduko da enkantea iragar dadila lege honen 645. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Bahia eratzeko eskrituran edo polizan finkatutakoa izango da ondasunek enkanterako duten balioa, eta, finkatu ez bada, printzipalagatik, korrituengatik eta kostuengatik erreklamaturako guztizko zenbatekoa.

695. artikulua. Betearazpenari aurka egitea.

1. Kapitulua honetan aipatutako prozeduretan, honako kausa hauetan baino ezin izango da oinarritu betearazpenpekoaren aurkakotza:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Bermea edo bermatutako betebeharra azkentzea, betiere erregistro-ziurtagiria aurkezten bada, hipotekaren ezereztearena edo, kasua denean, lekualdaketarik gabeko bahiarena, edota eskritura publikoa, ordainketa-gutunarena edo bermea ezereztearena.

2.) Okerra egotea zenbateko galdagarriaren zehaztapenean, baldin eta bermatutako zorra bada betearazlearen eta betearazpenpekoaren arteko kontu batek itxieran duen saldoa. Betearazpenpekoak bere libretaren alea aurkeztu beharko du, kontuaren idazpenak jasota dituen, eta aurkakotza onartuko da, soilik baldin eta libreta horrek jasotako saldoa betearazleak aurkeztutakoaz bestelakoa bada.

Ez da beharrezkoa izango libreta aurkeztea, baldin eta prozedura bada kreditu-, aurrezki- edo finantza-erakunde batek egiletsitako merkataritza-kontratuetatik eratorritako kontu korronteak itxetik edo antzeko eragiketetatik ondorioztatutako saldoari buruzkoa eta haietan hitzartu bada ezen betearazpenik egonez gero zenbateko galdagarria izango dela erakunde hartzekodunak emandako ziurtagirian zehaztutakoa, baina betearazpenpekoak behar besteko zehaztasunaz adierazi beharko du zein puntutan ez datorren bat erakundeak egindako likidazioarekin.

3.) Ondasun higigarri hipotekatuak edo lekualdaketarik gabeko bahia dutenak betearazi behar direnean, ondasun horiek lotuta egotea prozeduraren oinarri den karga baino lehen inskribatutako beste bahi bati, higigarrien edo higiezinaren hipoteka bati edo enbargo bati; lotura hori egiaztatu beharko da kasuan kasuko erregistro-ziurtagiri bidez.

4.) Betearazpenaren oinarri den edo zenbateko galdagarria zehaztu duen kontratu-klausula baten abusuzko izaera.

2. Behin aurreko apartatuan aipatutako aurkakotza formulatuta, Justizia Administrazioaren letraduak betearazpena etengo du, eta alderdiei dei egingo die ager daitezen betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiaren aurrean; hamabost eguneko tartea egon beharko du zitaziotik. Agerraldian, auzitegiak alderdiei entzungo die, aurkezten diren dokumentuak onartuko ditu, eta bidezkoa irizten diona erabakiko du, auto-forman, bi egunen barruan.

3. Artikulu honen 1. apartatuaren 1.) eta 3.) kausetan oinarritutako aurkakotza baiesten duen autoak aginduko du betearazpena largets dadila; 2.) kausan oinarritutako aurkakotza baiesten duenak zehaztuko du betearazpenak zein zenbatekorekin jarraitu behar duen.

Baiesten bada 4.) kausa, erabakiko da betearazpena largets dadila, baldin eta kontratu-klausula bada betearazpenaren oinarria. Osterantzean, betearazpenak aurrera jarraituko du abusuzko klausula aplikatu gabe. Autoa berariaz pronuntziatuko da aztertutako klausulen abusuzko izaeraz, eta, irmoa denean, pronuntziamendu horrek gauza epaituaren efikazia izango du.

4. Betearazpena largetea, abusuzko klausula bat ez aplikatzea edo aurreko 1.4.) apartatuan aurreikusitako kausarengatik aurkakotza ezestea agintzen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da.

Kasu horietatik kanpo, ez dira errekurritzeko modukoak izango artikulu honetan aipatzen den aurkakotza erabakitzen duten autoak, eta haien ondoreak haiek eman diren betearazpen-prozedura mugatuko dira eskusiboki.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

696. artikulua. Jabari-hirugarrenengotzak.

1. Kapitulu honetan aipatutako prozeduretan jabari-hirugarrenengotza onartu ahal izateko, bermea eratu baino lehenagoko data fede-emailea duen jabetza-titulua aurkeztu beharko da demandarekin batera. Erregistroren batean inskribatzeko moduko jabaria duten ondasunen kasuan, bermea inskribatu zen data baino lehenago egon beharko da inskribatuta titulu hori hirugarrenengotzadunaren edo haren kausatzailearen alde; hori egiaztatuko da hirugarrenengotzadunaren edo haren kausatzailearen inskripzioa adierazten duen erregistro-ziurtagiri bidez eta kasuan kasuko jabari-idazpena erregistroan azkendu edo ezereztu gabe dagoela adierazten duen ziurtagiri bidez.

2. Hirugarrenengotza-demanda onartzeak eten egingo du hark ukitzen dituen ondasunei dagokien betearazpena, eta, berritukoaren zati bat besterik ez badira ondasun horiek, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du gainerakoei dagokienez, hartzekodunak hala eskatuz gero.

697. artikulua. Betearazpenaren etendura prejudizialitate penalagatik.

Aurreko bi artikuluetan aipatutako kasuetatik at, kapitulu honetan aipatutako prozedurak prejudizialitate penalagatik soilik etengo dira, baldin eta egiaztatzen bada, lege honen 569. artikuluan xedatutakoaren arabera, badela auzi kriminalik tituluaren faltsutasuna, baliaezintasuna edo betearazpena abiaraztearen zilegitasunik eza dakarren delitu-itxurako edozein egitateri dagokienez.

698. artikulua. Aurreko artikuluetan jaso gabeko erreklamazioak.

1. Kasuan kasuko judizioan ebatziko da zordunak, hirugarren edukitzaileak eta edozein interesdunek formula dezaketen edozein erreklamazio, baldin eta ez badago jasota aurreko artikuluetan, barnean hartuta tituluaren deuseztasunari buruzkoak edo zorraren mugaeguneratzeari, ziurtasunari, azkentzeari edo muntari buruzkoak, eta inoiz ez da sortuko kapitulu honetan ezartzen den prozedura eteteko edo oztopatzeko ondorea.

Erregela arrunten bidez zehaztuko da prozesu horretaz arduratzeko eskumena.

2. Aurreko apartatuan aipatutako erreklamazioa formulatzean edo hark bide ematen duen judizioaren aribidean zehar, eskatu ahal izango da judizio horretan emango den epaiaren eraginkortasuna ziurta dadila, kapitulu honetan arautzen den prozeduraren bidez hartzekodunari entregatu behar zaion guztizko zenbatekoa edo haren zati bat atxikita.

Aurkeztutako dokumentuak ikusita, auzitegiak probidentzia bidez dekretatutako du atxikipen hori, baldin eta nahikotzat hartzen baditu alegatutako arrazoiak. Atxikipena eskatzen duenak ez badu ageriko kaudimen nahikorik, auzitegiak aurretiazko berme nahikoa galdatu beharko dio, berandutze-korrituei eta hartzekodunari sor dakizkiokeen beste edozein kalte-galeren medeapenari aurre egiteko.

3. Hartzekodunak auzitegia asetzeko adina fidantzatzen duenean lehenengo apartatuan aipatutako judizioaren ondorioz atxiki beharreko zenbatekoa, amaitutzat emango da atxikipena.

V. TITULUA

Diruzkoa ez den betearazpenaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrez

699. artikulua. Betearazpena abiaraztea.

Zerbait egiteko edo ez egiteko edo diru-zenbatekoaz bestelako gauza bat entregatzeko kondena edo betebeharra dakarrenean titulu betearazleak, betearazpena abiarazten duen autoan errekerimendua egingo zaio betearazpenpekoari, titulu betearazleak ezartzen duena bere horretan bete dezan auzitegiaren iritziz egokia den epearen barruan.

Errekerimenduan, auzitegiak betearazpenpekoari ohartarazi ahal izango dio premiamendu pertsonalak edo diruzko isunak erabil daitezkeela.

700. artikulua. Berme-enbargoa eta ordezkio kauzioa.

Baldin eta zerbait egiteko, ez egiteko edo diru-zenbatekoaz bestelako gauza bat entregatzeko errekerimendua ezin bada berehala bete, Justizia Administrazioaren letraduak, betearazlearen eskariz, erabaki ahal izango ditu kondenaren eraginkortasuna ziurtatzeko egokiak diren berme-neurriak.

Betearazleak eskatzen duenean, kasu orotan erabakiko da enbarga daitezela betearazpenpekoaren ondasunak, balizko ordezkio kalte-ordainen eta betearazpen-kostuen ordainketa ziurtatzeko nahikoa den zenbatekoan. Dekretu horren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da, etete-ondorerik gabe, betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiaren aurrean.

Enbargoa kenduko da, baldin eta betearazpenpekoak kauzio nahikoa ematen badu, Justizia Administrazioaren letraduak enbargoa erabakitzerakoan finkatutako behar besteko muntakoa eta 529. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan.

II. KAPITULUA

Gauzak entregatzeko eginbeharrengatiko betearazpenaz

701. artikulua. Gauza higigarri zehatza entregatzea.

1. Titulu betearazletik gauza higigarri ziurra eta zehatza entregatzeko eginbeharra ondorioztatzen denean, betearazpenpekoak ez badu entrega gauzatzen horretarako ezarri zaion epearen barruan, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak betearazleari emango dio zor den gauzaren edukitza, horretarako erabiliz bere iritziz beharrezkoak diren premiamenduak. Toki itxietara sartu behar bada, baimena eskatuko dio betearazpena agindu zuen auzitegiari, eta, hala behar izenez gero, indar publikoen laguntza izango du.

Higiezinaren erregistro-publizitatearen araubidearen antzeko bat duten ondasun higigarriak direnean, kasuan kasuko erregistroa titulu betearazlerra egokitzeko beharrezkoa dena xedatuko da, halaber.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Ez bada jakiten gauza non dagoen edo bilatu baina aurkitzen ez bada egon beharko lukeen lekuan, ohartarazpena eginda desobedientzian eror daitezkeela, Justizia Administrazioaren letraduak betearazpenpekoa edo hirugarrenak galdekatuko ditu, esan dezaten ea gauza beren esku duten ala ez eta ea badakiten non dagoen.

3. Baldin eta, aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera jardunda, ezin izan bada gauza aurkitu, betearazlearen eskariz auzitegiak probidentzia bidez aginduko du ezen diruzko konpentsazio zuzen baten bidez ordeztu dadila zor den gauza edo gauzak entregatu ez izana, zeina 712. artikularekin eta hurrengoekin bat etorritik ezarriko den.

702. artikulua. Gauza generikoak edo zehaztugabeak entregatzea.

1. Baldin eta merkatuetan eskura daitezkeen gauza generikoak edo zehaztugabeak entregatzeari buruzkoa bada titulu betearazlea eta epea igarota errekerimendua bete ez bada, betearazleak Justizia Administrazioaren letraduari eskatu ahal izango dio eman diezaiola zor diren gauzen edukitza edo betearazpenpekoaren kontura haiek eskuratzeko ahalmena, eta, aldi berean, agin dezala enbarga daitezela eskuraketa ordaintzeko behar besteko ondasun; betearazleak eskuraketaren kontu emango du modu justifikatuan.

2. Baldin eta betearazleak adierazten badu gauza generikoak edo zehaztugabeak aurreko apartatuarekin bat etorritik berandu eskuratzek jada ez duela asebetetzen bere interes legitimoa, diruzko baliokidea zehaztuko da, betearazleari sortu ahal izan zaizkion kalte-galerak barnean hartuta, zeinak likidatuko baitira 712. artikularekin eta hurrengoekin bat etorritik.

703. artikulua. Ondasun higiezinak entregatzea.

1. Baldin eta tituluak ondasun higiezin baten eskualdaketa edo entrega xedatzen badu, behin betearazpena baimentzen eta abiarazten duen autoa emanda, haren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak berehala aginduko du bidezkoa dena kondenaren edukiaren arabera, eta, kasua denean, beharrezkoa dena xedatuko du erregistroa titulu betearazlerra egokitzeko.

Baldin eta titularen objektu ez diren gauzak badaude entregatu behar den higiezinaren, Justizia Administrazioaren letraduak errekerimendua egingo dio betearazpenpekoari, zehaztutako epearen barruan atera ditzan. Ateratzen ez baditu, bertan behera utzitako ondasuntzat joko dira ondore guztietarako.

Zor diren errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatik edo legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatik utzarazpen-kasuetan, atzerapenak saihestu daitezkeen botatzea gauzatzean, Justizia Administrazioaren letraduak aurretik baimenduta, nahikoa izango da kudeatzaile-kategoria duen funtzionario bakar bat egotea bertan, zeinak, kasua denean, indar publikoen laguntza eskatu ahal izango duen.

2. Baldin eta finka utzi behar duenak gauza banaezinen titulartasuna erreibindikatzeko badu botatze-ekitaldian eta gauza horiek badira higiezinaren erabilera arrunterako behar-beharrezkoak diren landaketak edo instalazioak, betearazpenean ebatziko da haien balioa ordaintzeko betebeharrari buruz, interesdunek hala eskatuz gero finka uzten denetik bost eguneko epean.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Botatzean jasoz gero betearazpenpekoak edo okupatzaileek sortutako kalteak dituela higiezinak, erabaki ahal izango da balizko erantzulearen behar beste ondasun atxiki eta gordailutu dadila sortutako kalte-galerei aurre egiteko; kasua denean eta betearazlearen eskariz, 712. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorritik likidatuko dira.

4. Botatzerako finkatutako data baino lehen, baldin eta titulua bada hiri-finka utzarazteko judizio batean emandako epai bat, demandatzaileari benetako edukitza entregatzen bazaio, errentatzaileak hura egiaztatu ondoren betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean, dekretua emango da, epaia betearazi dela deklaritzen duena eta eginbidea ezereztzen, salbu eta demandatzaileak hura mantentzea eskatzen badu finkaren egoerari buruzko akta egin dadin.

704. artikulua. Entregatu beharreko higiezinaren okupatzaileak.

1. Higiezina, zeinaren edukitza entregatu behar den, betearazpenpekoaren edo haren mendeko direnen ohiko etxebizitza denean, Justizia Administrazioaren letraduak hilabeteko epea emango die hura uzteko. Zio oinarrituta badago, epe hori beste hilabetez luzatu ahal izango da.

Aipatutako epeak igarota, berehala ekingo zaio botatzeari, eta horren egun eta ordu zehatza finkatuko da hala hasierako ebazpenean nola luzapena erabakitzen duenean edo geroke edozein ebazpenetan, botatzeko ahalegina lehenago egin izana gorabehera.

2. Baldin eta betearazpenpekoaz eta harekin erabilera partekatzen duten haietaz bestelako hirugarrenek okupatzen badute titulu betearazlearen arabera entregatu beharreko higiezina, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak, horren berri jakin bezain laster jakinaraziko die betearazpena abiarazi dela edo hura ebazkizun dagoela, hamar eguneko epean aurkez ditzaten beren egoera justifikatzen duten tituluak.

Betearazleak auzitegiari eskatu ahal izango dio bota daitezela egite hutsezko edo titulu nahikorik gabeko okupatzaileetat jotzen dituenak. Eskabide hori betearazleak izendatutako pertsonari helaraziko zaie, eta jardunek aurrera jarraituko dute 675. artikulua 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

III. KAPITULUA

Zerbait egiteko eta ez egiteko betebeharrengatik betearazpenaz

705. artikulua. Errekerimendua egitea eta epea finkatzea.

Baldin eta titulu betearazleak zerbait egitera behartzen badu, auzitegiak zordunari errekerimendua egingo dio epe baten barruan egin dezan, zeina finkatuko duen egitekoaren izaera eta gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuta.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

706. artikulua. Guztiz pertsonala ez den zerbait egiteko kondena.

1. Titulu betearazleak behartzen duen egitekoa guztiz pertsonala ez denean, Justizia Administrazioaren letraduak seinalatutako epean egiten ez badu betearazpenpekoak, betearazleak eskatu ahal izango du ahalmena eman dakiola hura hirugarren bati enkargatzeko betearazpenpekoaren kontura, edota kalte-galeren medeapena erreklamatzeko.

Tituluak berariazko xedapen bat daukanean zordunaren ez-betetze kasurako, hark xedatutakoari jarraituko zaio, eta betearazleak ez du aukeratzetik izango hirugarrenak egitearen edo medeatzearen artean.

2. Baldin eta, aurreko apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, betearazleak aukeratzen badu hirugarren bati enkargatzea egitekoa, Justizia Administrazioaren letraduak izendatutako aditu tasatzaile batek aldeztu aurretik baloratuko du egite horren kostua, eta, betearazpenpekoak ez badu gordailutzen hark dekretu bidez onetsitako zenbatekoa, zeinari zuzenean berrikuspen-errekurtsoa jar dakiokkeen betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegian etete-ondorek gabe, edota ez badu ematen ordainketaren fidantza, berehala ekingo zaio ondasunak enbargatzeari eta nahitaez diru bihurtzeari, harik eta beharrezkoa den zenbatekoa lortu arte.

Betearazleak aukeratzen badu kalte-galerak medea daitezela, 712. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorritik kuantifikatuko dira.

707. artikulua. Epaia komunikabideetan publikatzea.

Epaia agintzen duenean prozesuan garaitua izan den alderdiaren kontura publiku edo zabal dadila komunikabideetan bere edukia osorik edo partzialki, betearazpena abiarazi ahal izango da pronuntziamentu horren eraginkortasuna lortzeko, eta Justizia Administrazioaren letraduak betearazpenpekoari errekerimendua egin ahal izango dio bidezkoak diren iragarkiak kontrata ditzan.

Betearazpenpekoak ez badu errekerimendua betetzen seinalatu zaion epean, betearazleak kontratatatu ahal izango du publizitatea, betearazpenpekoaren ondarearen kontura lortu ondoren beharrezko funtsak aurreko artikuluen 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik.

708. artikulua. Borondate-deklarazio bat egitera kondenatzea.

1. Ebazpen judizial edo arbitral irmo batek borondate-deklarazio bat egitera kondenatzen duenean, behin 548. artikulua ezartzen duen hogeitau eguneko epea igarota betearazpenpekoak egin ez badu, auzitegi eskudunak auto bidez ebatziko du egindakotzat hartzen duela borondate-deklarazioa, baldin eta aurretiaz zehaztuta badaude negozioaren funtsezko elementuak. Behin deklarazioa eginda, betearazleak eskatu ahal izango du manamendua bidaltzea betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak, autoaren lekukotzarekin batera, idatzoharra edo inskripzioa egin dadin kasuan kasuko erregistroan edo erregistroetan borondate-deklarazioaren edukia eta objektuaren arabera.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Aurrekoa ulertuko da kalterik egin gabe egintza eta negozio juridikoen formaren eta haiek dokumentatzearen inguruan arau zibilek eta merkataritzakoek ezarritakoari.

2. Baldin eta, aurreko apartatuko kasuetan, aurretiaz zehaztuta ez badaude borondate-deklarazioak ukitu behar duen negozioaren edo kontratuaren elementu ez-funtsezko batzuk, auzitegiak, alderdiak entzunda, deklarazioa egindakotzat hartzen duen ebazpen berean zehaztuko ditu, merkatuan edo trafiko juridikoan ohikoa denaren arabera.

Zehaztugabetasunak borondate-deklarazioak ukitu behar duen negozioaren edo kontratuaren elementu funtsezkoak eragiten dienean, kondenatuak ez badu deklarazio hori egiten, betearazleari sortutako kalte-galerengatik egingo da betearazpena; 712. artikulua eta hurrengoan arabera likidatuko dira kalte-galera horiek.

709. artikulua. Guztiz pertsonala den zerbait egiteko kondena.

1. Titulu betearazlea guztiz pertsonala den egiteko bati buruzkoa denean, betearazpenpekoak auzitegiari adierazi ahal izango dizkio, 699. artikuluan aipatutako errekerimendua betetzeko emandako epearen barruan, zein diren tituluak xedatzen duena egitea ukatzeko zioak, eta komenigarritzat jotzen duena alegatu ahal izango du zor duen prestazioak izaera guztiz pertsonala izateari edo ez izateari buruz. Behin epe hori igarota betearazpenpekoak prestazioa egin ez badu, betearazleak aukeratu ahal izango du, edo betearazpenak aurrera jarraitzea, zerbait egiteko prestazioaren diruzko baliokidea entrega dakion, edo betearazpenpekoari premiamendua egin dakiola eskatzea, isun bat ordain dezan epea amaitzen denetik hura gauzatu gabe igarotzen den hilabete bakoitzeko. Auzitegiak auto bidez ebatziko du bidezkoa dena, eta onartuko du betearazleak eskatu duena irizten dionean kondenaren objektu den prestazioak badituela egiteko guztiz pertsonalaren ezaugarri bereziak. Osterantzean, aginduko du betearazpenak aurrera jarrai dezala 706. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Erabakitzen bada betearazpenak aurrera jarraitzea zor den prestazioaren diruzko baliokidea lor dadin, ebazpen berean isun bakar bat ezarriko zaio betearazpenpekoari 711. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Betearazpenpekoari hileroko isunekin premiamendua egitea erabakitzen denean, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak hiru hilean behin egingo ditu errekerimenduak, harik eta lehenengotik urtebete igaro arte. Baldin eta, urtebete igarota, betearazpenpekoak errefusatzan jarraitzen badu tituluak xedatutakoa egitea, betearazpenak aurrera jarraitu du, betearazleari prestazioaren diruzko baliokide bat entregatzeko edo beste edozein neurri hartzeko, betearazlea asebetetzeko egokiak direnak eta, haren eskariz eta betearazpenpekoari entzun ondoren, auzitegiak erabaki ahal izango dituenak.

4. Artikulu honen aurreko apartatuen xedapenak ez dira aplikatuko titulu betearazleak berriazko xedapen bat daukanean zordunaren ez-betetzearen kasurako. Kasu horretan, han xedatutakoari jarraituko zaio.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

710. artikulua. Zerbait ez egiteko kondenak.

1. Zerbait ez egitera kondenatutakoak epaia urratzen badu, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak betearazlearen eskariz errekerimendua egingo dio gaizki egindakoa desegin dezan ahal izanez gero, sortutako kalte-galeren ordaina eman dezan eta, kasua denean, berriro egin ez dezan urraketa; agintaritza judizialarekiko desobedientzia-delituan erortzeko ohartarazpena egingo dio.

Hala jokatu da kondena betetzen ez duen guztietan, eta gaizki egindakoa desegitera hertsatuko du Justizia Administrazioaren letraduak, isunak ezarriz desegin gabe igarotzen den hilabete bakoitzeko.

2. Baldin eta, zerbait ez egiteko kondenaren izaera kontuan hartuta, ez badago aukerarik kondena berriro ez betetzeko eta gaizki egindakoa desegiteko, betearazpena egingo da betearazleari sortu zaizkion kalte-galerak medeatzeko.

711. artikulua. Hertsapen-isunen munta.

1. Aurreko artikuluetan aurreikusitako isunen munta zehazteko, kontuan hartuko da titulu betearazlean ezarri den egiteko guztiz pertsonalaren prezioa edo kontraprestazioa, eta, han jasota ez badago edo gaizki egindakoa desegin nahi bada, jokabide horiek merkatuan duten diruzko kostua.

Hileroko isunak prezioaren edo balioaren ehuneko 20ra iritsi ahal izango dira, eta isun bakarra, prezio edo balio horren ehuneko 50era.

2. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboak eta interes lausoak defendatzeko bukarazte-akzio bat baiesten duen epaiak, hala ere, seiehun euro eta hirurogei mila euro arteko isuna ezarriko du, epaian ebazpen judiziala betearazteko seinalatutako epea atzeratzen den egun bakoitzeko, sortutako kaltearen izaeraren eta garrantziaren eta kondenatuaren gaitasun ekonomikoaren arabera. Altxor Publikoan sartu beharko da isun hori.

IV. KAPITULUA

Kalte-galeren, fruituen eta errenten likidazioaz eta kontu-emateaz

712. artikulua. Prozeduraren aplikazio-eremua.

Hurrengo artikuluek agintzen duten moduan jardungo da, baldin eta, lege honen arabera, nahitaezko betearazpenean zehaztu behar bada ez-diruzko prestazio baten diruzko baliokidea, edo finkatu behar bada kalte-galerengatik edo edozein motatako fruitu, errenta, onura edo produktuengatik zor den zenbatekoa, edo zehaztu behar bada administrazio baten kontu-ematetik ateratako saldoa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

713. artikulua. Likidazioa eskatzea eta kalte-galeren zerrenda aurkeztea.

1. Kalte-galeren zehaztapen judiziala eskatzen duen idazki ziodunarekin batera, kalte-galerak jasan dituenak haien zerrenda zehatua aurkeztuko du, balorazio eta guzti; egokitzen jotzen dituen irizpenak eta dokumentuak ere aurkez ditzake.

2. Justizia Administrazioaren letraduak kalte-galerak ordaindu behar dituenari helaraziko dizkio idazkia eta kalte-galeren zerrenda zein gainerako dokumentuak, hamar eguneko epean erantzun dezan komenigarritzat jotzen duena.

714. artikulua. Zorduna kalte-galeren zerrendarekin ados egotea.

1. Baldin eta zorduna ados badago kalte-galeren zerrendarekin eta zenbatekoarekin, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak zerrenda hori onetsiko du dekretu bidez, eta diru bihurtuko da adostutako zenbatekoa, 571. artikuluan eta hurrengoetan diruzko betearazpenarentzat ezarritako moduan.

2. Ulertuko da zorduna ados dagoela betearazleak alegatutako egitateekin, baldin eta hamar eguneko epea igarotzen uzten badu helarazpenari erantzun gabe edo mugatzen bada oro har ukatzera kalte-galerak badirela, zehaztu gabe hartzekodunak aurkeztutako zerrendako zein punturekin ez dagoen ados eta adierazi gabe desadostasunaren arrazoiak eta norainokoa.

715. artikulua. Zordunak aurka egitea.

Legezko epearen barruan, zordunak zioak emanez egiten badio aurka auzi-jartzailearen eskabideari, dela kalte-galeren partidei dagokienez, dela diruzko balorazioari dagokionez, hitzezko judizioetarako ezarritako izapideen bitartez bideratuko da kalte-galeren likidazioa, baina betearazpen-agindu orokorra eman zuen auzitegiak aditu bat izendatu ahal izango du, probidentzia bidez, alderdi-eskariz edo ofizioz, beharrezkoa irizten badio, irizpena eman dezan kalteak benetan sortu izanari buruz eta haien diruzko ebaluazioari buruz, aurkakotza aurkaratzeko idazkia aurkeztu ondoren. Kasu horretan, irizpena emateko eta epaitegian entregatzeko epea finkatuko du, eta ahozko ikustaldia ez da egingo hamar egun igaro arte, alderdiei irizpena helarazi zaienetik kontatzen hasita.

716. artikulua. Zenbateko zehatza finkatzen duen autoa.

Ikustaldia egin eta hurrengo bost egunen barruan, auzitegiak bidezkoa irizten dion ebazpena emango du, auto bidez, zeinak finkatuko baitu zenbat ordaindu behar zaion hartzekodunari kalte-galera gisa.

Auto hori apelagarria izango da, etete-ondorerik gabe eta kostuen ezarpenaren berariazko deklarazioa eginez, lege honen 394. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

717. artikulua. Ez-diruzko prestazio baten diruzko baliokidea zehazteko eskabidea.

Eskatzen denean zehatz dadila zein den diru-zenbateko bat entregatzean ez datzan prestazio baten diruzko baliokidea, adieraziko da zein diren prestazio horren diruzko zenbatespenak eta haiek oinarritzeko arrazoiak, eta aurkeztuko dira eskatzaileak bere eskabidea oinarritzeko egokitzat jotzen dituen dokumentuak; Justizia Administrazioaren letraduak ordaindu behar duenari helaraziko dio eskabide hori, hamar eguneko epean erantzun dezan komenigarritzat jotzen duena.

714 eta 716 bitarteko artikuluetan kalte-galerak likidatzeko ezartzen den modu berean bideratu eta ebatziko da eskaera.

718. artikulua. Fruituen eta errenten likidazioa. Eskaera, eta zordunari errekerimendua egitea.

Baldin eta edozein motatako fruitu, errenta, onura edo produktu dela-eta zor den zenbatekoa zehazteko eskatzen bada, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak errekerimendua egingo dio zordunari, likidazioa aurkez dezan kasuaren inguruabarren arabera zehaztuko den epearen barruan, eta tituluak ezartzen dituen oinarriak hartuko ditu kontuan kasua denean.

719. artikulua. Hartzekodunak likidazioa aurkeztea eta hura zordunari helaraztea.

1. Aurreko artikuluan aipatutako edozein motatako fruitu, errenta, onura edo produkturen likidazioa aurkezten badu zordunak, hartzekodunari helaraziko zaio, eta, ados badago, dekretu bidez onetsiko da, eta diru bihurtuko da adostutako zenbatekoa, 571. artikuluan eta hurrengoetan diruzko betearazpenarentzat ezarritako moduan.

Hartzekoduna likidazioarekin ados ez dagoenean, lege honen 715. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz bideratuko da hura.

2. Baldin eta zordunak ez badu epearen barruan aurkezten aurreko apartatuan aipatutako likidazioa, hartzekodunari errekerimendua egingo zaio, aurkez dezan bere ustez zuzena den likidazioa, eta betearazpenpekoari helaraziko zaio; jardunek aurrera egingo dute 714. artikulutik 716.era ezarritakoarekin bat etorritz.

720. artikulua. Administrazio baten kontuak ematea.

718. eta 719. artikuluetan jasotako xedapenak aplikagarriak izango dira titulu betearazlea administrazio baten kontuak emateko eta haien saldoa entregatzeko duen eginbeharrari buruzkoa den kasuan; halere, betearazpenaren ardura duen Justizia Administrazioaren letraduak epeak luzatu ahal izango ditu dekretu bidez, beharrezkoa irizten dionean auzigaiaren garrantzia eta konplexutasuna kontuan hartuta.



VI. TITULUA

Kautela-neurriez

I. KAPITULUA

Kautela-neurriez: xedapen orokorrak

721. artikulua. Beharrezko alderdi-eskaria.

1. Bere erantzukizunpean, auzi-jartzaile orok, nagusiak nahiz errekonbentzio bidezkoak, titulu honetan xedatutakoarekin bat etorriz auzitegiari eskatu ahal izango dio har ditzala beharrezkotzat jotzen dituen kautela-neurriak, ziurta dadin emango den epai baieslean eman daitekeen babes judizialaren eraginkortasuna.

2. Auzitegiak ezin izango ditu ofizioz erabaki titulu honetan aurreikusitako kautela-neurriak, hargatik eragotzi gabe prozesu berezietarako edo 3. apartatuan aurreikusikoetarako xedatutakoa. Halaber, eskatutako neurriak baino astunagorik ezin izango du erabaki.

3. 43. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta, auzitegiak erabakiz gero kontratu-klausula baten abusuzko izaera deklaratzera bideratutako kontsumitzaile baten akzio indibiduala egikaritzen den prozesua etetea, ofizioz erabaki ahal izango ditu, kauziorik eman beharrik gabe, beharrezkotzat jotzen dituen kautela-neurriak, baieste-pronuntziamendu baten efikazia ziurtatzeko, halakorik bada.

722. artikulua. Kautela-neurriak prozedura arbitralean eta atzerriko auzietan.

Auzitegiari kautela-neurriak eskatu ahal izango dizkio egiaztatzen duenak hitzarmen arbitralean alderdi dela jardun arbitralen aurretik. Halaber, haiek eskatu ahal izango ditu egiaztatzen duenak Espainian ebazkizun dagoen prozesu arbitral batean alderdi dela; edo, kasua denean, Arbitrajeko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen 15. artikuluan aipatutako formalizazio judiziala eskatu duela; edo, arbitraje instituzional baten kasuan, dagokion instituzioari haren erregelamenduaren arabera beharrezkoa den eskaera edo enkargua aurkeztu diola.

Kalterik egin gabe aplikatzekoak diren tratatuetan eta hitzarmenetan edo erkidego-arauetan aurreikusitako erregela bereziei, atzerriko herrialde batean bideratzen ari den jurisdikzio- edo arbitraje-prozesu batean alderdi dela egiaztatzen duenak ere eskatu ahal izango dio kautela-neurriak hartzeko Espainiako auzitegi bati, baldin eta legean aurreikusitako aurrebaldintzak betetzen badira, auzigai nagusiaz arduratzeko eskumen eskusiboa Espainiako auzitegiek duten kasuetan izan ezik.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

723. artikulua. Eskumena.

1. Kautela-neurriei buruzko eskaerez arduratzeko auzitegi eskudun izango da lehen auzialdian auzigaiaz arduratzen ari dena edo, prozesua ez bada hasi, demanda nagusiaz arduratzeko eskuduna dena.

2. Bigarren auzialdia edo kasazio-errekurtsoa bideratzean formulatzen diren kautela-neurriei buruzko eskaerez arduratzeko eskudun izango da bigarren auzialdiaz edo errekurtso horretaz arduratzen den auzitegia.

724. artikulua. Eskumena kasu berezietan.

Prozesu arbitral bat edo arbitrajearen formalizazio judiziala ebazkizun dagoela eskatzen direnean kautela-neurriak, laudoa betearazi behar den tokikoa izango da auzitegi eskuduna, eta, halakorik ezean, neurriek efikazia sortu behar duten tokikoa.

Gauza bera beteko da prozesua atzerriko auzitegi baten aurrean bideratzen denean, tratatuetan aurreikusitakoa salbu.

725. artikulua. Eskumena ofizioz aztertzea. Prebentzioz kautela-neurriak agintzea.

1. Kautela-neurriak demanda baino lehenago eskatzen direnean, ez da onartuko lurralde-eskumenik eza oinarritzat duen deklinatoriarik, baina auzitegiak ofizioz aztertuko ditu bere jurisdikzioa, bere eskumen objektiboa eta lurralde-eskumena. Jurisdikziorik edo eskumen objektiborik ez duela baderitzo, arduraz abstenitzen duen autoa emango du Fiskaltzari eta kautela-neurrien eskatzaileari entzun ondoren, eta alderdiei igorriko die, beren eskubidea erabil dezaten dagokionaren aurrean, baldin eta abstentzioaren oinarria ez bada Espainiako auzitegien jurisdikziorik eza. Gauza bera erabakiko da auzitegiaren lurralde-eskumena ezin denean oinarritu judizio nagusian eskatzaileak erreklamatu nahi duena kontuan hartuta aplikagarriak diren legezko foruetatik batean ere, foruok aginduzkoak izan ala ez. Nolanahi ere, legezko foru aplikagarria xedapenezkoa denean, auzitegiak ez du bere eskumena deklinatuko baldin eta alderdiak esanbidez jarri badira bere jurisdikziopean auzigai nagusirako.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kasuetan, auzitegiak iritziz gero berak ez duela lurralde-eskumenik, prebentzioz agindu ahal izango ditu, dena den, urgentzia gehien duten kautela-neurriak, kasuaren inguruabarrek aholkatzen dutenean, eta, ondoren, auzitegi eskudunari igorriko dizkio autoak.

726. artikulua. Kautela-neurrien ezaugarriak.

1. Demandatuaren ondasunei eta eskubideei dagokienez, auzitegiak edozein jardun zuzeneko edo zeharkako erabaki ahal izango du kautela-neurri gisa, honako ezaugarri hauek betetzen baditu:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Esklusiboki zuzendua izatea ahalbidetzera balizko epai baiesle batean eman daitekeen babes judizialaren eraginkortasuna, halako moldez non ezin izango den hura eragotzi edo oztopatu kasuan kasuko prozesua ebazkizun dagoen bitartean sortutako egoerengatik.

2.) Aurreko apartatuaren ondoreetarako, ordezteko modukoa ez izatea efikazia bera izanik demandatuarentzat ez hain astuna edo kaltegarria den beste neurri batekin.

2. Lege honek kautela-neurrientzat aurreikusten duen aldi baterako, behin-behineko, baldintzapeko eta aldatzeko eta kentzeko moduko izaera berarekin, auzitegiak halakotzat erabaki ahal izango ditu prozesuan lortu nahi denaren antzeko edukia duten aginduetan eta debekuetan dautzanak, azkenean emango den epaia aurrez epaitu gabe.

727. artikulua. Kautela-neurri zehatzak.

Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, honako kautela-neurri hauek erabaki ahal izango dira, besteak beste:

1.) Ondasunen prebentziozko enbargoa, ziurta dadin epaiak betearaztea, diru-zenbatekoak edota prezio zehatzak aplikatuz dirutan neur daitezkeen fruituak, errentak edo gauza suntsikorrak entregatzera kondenatzen dutenena.

Aurreko paragrafoko kasuetatik at, prebentziozko enbargoa bidezkoa izango da, halaber, baldin eta neurria egokia bada eta ezin bada ordeztu efikazia bera edo handiagoa duen eta demandatuarentzat karga gutxiago dakarren beste batekin.

2.) Ekoizpen-ondasunen esku-hartze edo administrazio judiziala, epai bat lortu nahi denean kondenatzen duena, ondasun horiek entregatzera jabe moduan, gozamendun moduan edo produktibitatea mantentzeko edo hobetzeko interes legitimoa duen beste edozein modutan, edota produktibitatea berrmatzeak berebiziko interesa duenean ezar daitekeen kondenaren eraginkortasunerako.

3.) Gauza higigarriaren gordailua, hura entregatzeko kondena lortu nahi bada demandarekin eta hura demandatuaren edukitzan badago.

4.) Ondasunen inbentarioak egitea auzitegiak xedatutako baldintzetan.

5.) Demandaren prebentziozko idatzoharra, erregistro publikoetan inskribatzeko modukoak diren ondasunei edo eskubideei buruzkoa denean.

6.) Erregistroko beste idatzohar batzuk, erregistro-publizitatea baliagarria denean betearazpenaren amaiera onerako.

7.) Jarduera bat behin-behinean uzteko agindu judiziala; aldi batez jokabide bat ez egitekoa; edo gauzatzen ari den prestazio bat aldi batez geldiarazteko edo egiteari uzteko debekua.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

8.) Ez-zilegitzat jotako jarduera baten bidez lortutako diru-sarreretan esku hartzea eta diru-sarrera horiek gordailutzea, baldin eta jarduera hori debekatzea edo egiteari uztea lortu nahi bada demandan, bai eta jabetza intelektualaren ordain gisa erreklamatzeko diren zenbatekoak kontsignatzea edo gordailutzea ere.

9.) Jabetza intelektualari eta industrialari buruzko arauak hautsiz ekoiztitzat jotako obren edo objektuen aleen aldi baterako gordailua, bai eta haiek ekoizteko erabilitako materialaren gordailua ere.

10.) Aurkaratutako sozietate-erabakien etendura, demandatzaileak edo demandatzaileek kapital sozialaren ehuneko 1 edo 5 ordezkatzeko dutenean gutxienez, kontuan hartuta sozietate demandatuak bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako baloreak jaulkita dituen ala ez aurkaratzearen unean.

11.) Beste neurri batzuk, legeek berariaz aurreikusten dituztenak eskubide jakin batzuk babesteko edota beharrezkotzat jotzen direnak judizioan emango den epai baielean eman daitekeen babes judizialaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

728. artikulua. Arriskua, berandutze prozesalagatik. Eskubide onaren itxura. Kauzioa.

1. Kautela-neurriak erabaki ahal izango dira, soilik, baldin eta eskatzen dituenak justifikatzen badu ezen, eskatutako neurriak hartu ezean, prozesua ebazkizun dagoen bitartean kasuan-kasuan egoera batzuk sortu ahal direla balizko epai baielean eman daitekeen babesaren eraginkortasuna eragotz edo zaildu dezaketenak.

Ez da kautela-neurriak erabakiko baldin eta haiekin aldatu nahi badira eskatzaileak luzaroan onartutako egiteko egoerak, salbu eta hark behar bezala justifikatzen duenean zer arrazoi dagoen ordura arte neurri horiek ez eskatzeko.

2. Eskaerarekin batera, kautela-neurrien eskatzaileak datuak, argudioak eta dokumentu bidezko justifikazioak aurkeztu beharko ditu, auzitegia bideratuko dutenak oinarritzera, auzigaiaren funtsa aurrez epaitu gabe, eskatzailearen uziaren oinarriaren aldeko judizio bat, behin-behinekoa eta zantzuen arabera. Dokumentu bidezko justifikaziorik ezean, beste frogabide batzuen bidez eskaini ahal izango du hura eskatzaileak; forma egokian proposatu beharko ditu idazki berean.

3. Berariaz besterik xedatu ezean, kautela-neurriaren eskatzaileak behar besteko kauzioa eman beharko du, azkar eta eraginkortasunez aurre egiteko kautela-neurria hartzeak demandatuaren ondareari sor dakizkiokeen kalte-galerei.

Auzitegiak kauzioa zehaztuko du kontuan hartuta uziaren izaera eta edukia eta, aurreko apartatuarekin bat etorritik, neurria eskatzeko oinarriari buruz egiten duen balorazioa.

529. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan eman ahal izango da aurreko paragrafoan aipatutako kauzioa.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes kolektiboak eta interes lausoak defendatzeko bukarazte-akzio bat egikaritzen den prozeduran, auzitegiak kautela-neurriaren eskatzailea lekatu ahal izango du



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

kauzioa emateko eginbeharretik, kontuan hartuta zein diren kasuaren inguruabarrak eta ukitutako interes ezberdinen garrantzi ekonomikoa eta oihartzun soziala.

729. artikulua. Hirugarrengotzak, prebentziozko enbargoa dagoenean.

Prebentziozko enbargoan, jabari-hirugarrengotza jarri ahal izango da, baina ez da onartuko eskubide hobeko hirugarrengotza, salbu eta hura jartzen badu beste prozesu batean zordun berari eskatzen dionak diru-zenbateko bat entrega dezala.

Prebentziozko enbargoa erabaki zuen auzitegiak izango du aurreko paragrafoan aipatutako hirugarrengotzez arduratzeko eskumena.

II. KAPITULUA

Kautela-neurriak hartzeko prozeduraz

730. artikulua. Kautela-neurriak eskatzeko uneak.

1. Kautela-neurriak demanda nagusiarekin batera eskatuko dira, oro har.

2. Demandaren aurretik ere eskatu ahal izango dira kautela-neurriak, baldin eta une horretan eskatzen dituenak urgentzia- edo beharrian-arrazoia alegatzen eta egiaztatzen baditu.

Kasu horretan, ondorerik gabe geldituko dira erabakitako neurriak, baldin eta demanda aurkezten ez bada, neurriok hartu eta hurrengo hogeit hamar egunen barruan, neurriok hartzeaz arduratu zen auzitegi beraren aurrean. Justizia Administrazioaren letratuak, ofizioz, dekretu bidez erabakiko du egindako betetze-egintzak desegin edo erreboka daitezela, eskatzailea kondenatuko du kostuak ordaintzera, eta deklaratu du sortutako kalte-galeren erantzulea dela neurriak ezarri zitzaizkion subjektuari dagokionez.

3. Aurreko apartatuan aipatutako denbora-betekizuna ez da aplikatuko arbitrajearen formalizazio judizialaren edo arbitraje instituzionalaren kasuetan. Kasu horietan, kautela-neurria mantentzeko, nahikoa izango da alderdi onuradunak gauzatzea prozedura arbitrala abian jartzeko jardun guztiak.

4. Demanda aurkeztu ondoren edo errekurtsioa ebazkizun dagoenean, kautela-neurriak har daitezela eskatu ahal izango da, soilik baldin eta eskabidea oinarritzen bada une horietan eskaera justifikatzen duten egitateetan eta inguruabarretan.

Kapitulu honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik bideratuko da eskaera hori.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

731. artikulua. Kautela-neurrien eransgarritasuna. Behin-behineko betearazpena eta kautela-neurriak.

1. Kausa edozein izanda ere, ez da kautela-neurririk mantenduko prozesu nagusia amaitu denean, salbu eta kondena-epaia edo pareko autoa denean; kasu horretan, mantendu egin beharko dira erabakitako neurriak, harik eta lege honen 548. artikuluan aipatutako epea igaro arte. Epe hori igarota, betearazpena eskatzen ez bada, kendu egingo dira hartu ziren neurriak.

Halaber, ezin izango da kautela-neurririk mantendu, baldin eta prozesua sei hilabete baino gehiago etenda geratzen bada neurria eskatu duenari egotz dakizkiokeen kausengatik.

2. Epaia baten behin-behineko betearazpena abiarazten denean, kendu egingo dira erabakitako eta b
3. etearazpen horrekin lotutako kautela-neurriak.

732. artikulua. Kautela-neurrien eskaera.

1. Argiro eta zehatz-mehatz formulatuko da kautela-neurrien eskaera, eta behar bezala justifikatuko da betetzen direla haiek hartzeko legez galdatzen diren aurrebaldintzak.

2. Eskaerarekin batera, hura oinarritzeko dokumentuak aurkeztuko dira harekin batera, edo beste bitarteko batzuk gauzatzea eskainiko da, kautela-neurriak hartzeko baimena ematen duten aurrebaldintzak egiaztatzeko.

Jarduera ez-zilegiak debekatzea edo bukaraztea helburu duten demandekin hasitako prozesuei lotuta eskatzen direnean kautela-neurriak, auzitegiari proposatu ahal izango zaio, halaber, urgentziaz eta eskaera-idazkia helarazi gabe errekeri ditzala txostenak edo agin ditzala ikerketak, eskatzaileak aurkeztu edo gauzatu ezin dituenak eta eskaerari buruz ebazteko beharrezkoak direnak.

Auzi-jartzailearentzat, kautela-neurriak eskatzearekin batera prekluituko da froga proposatzeko aukera.

3. Eskabide-idazkian, kauzio-ematea eskaini beharko da, zein motatakoa eratzea eskaintzen den zehaztuz eta proposatzen den zenbatekoa justifikatuz.

733. artikulua. Demandatuari entzutea. Salbuespenak.

1. Erregela orokor gisa, auzitegiak demandatuari entzun ondoren izapidetuko du kautela-neurrien eskabidea.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, eskatzaileak hala eskatzen duenean eta egiaztatzen duenean urgentziazko arrazoiak daudela edo aurretiazko entzunaldiak arriskuan jar dezakeela kautela-neurriaren amaiera ona, auzitegiak, izapide gehiagorik gabe, bost eguneko epean erabaki ahal izango du neurri hori auto bidez, zeinean bananduta arrazoituko duen betetzen direla kautela-neurriaren betekizunak, bai eta demandatuari entzun gabe hura erabakitzea gomendatu duten arrazoiak ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Ezin izango da errekurtsorik jarri demandatuari aurretiaz entzun gabe kautela-neurriak erabakitzen dituen autoaren aurka, eta titulu honen III. kapituluaren xedatutakoari jarraituko zaio. Autoa luzamenik gabe jakinaraziko zaie alderdiei, eta, lehenago ezin bada, neurriak betearazi eta berehala.

734. artikulua. Alderdiei entzuteko ikustaldia.

1. Eskaera jaso ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak, eskaera demandatuari jakinarazten zaionetik kontatzen hasita bost eguneko epean, ikustaldi baterako dei egingo die alderdiei eginbide bitartez, salbu aurreko artikulua bigarren paragrafoko kasuak; hurrengo hamar egunen barruan egingo da ikustaldia, ebazkizun dauden auzigaien hurrenkerari jarraitzeko beharrik gabe kautela-neurriaren eraginkortasunak hala galdatzen duenean.

2. Ikustaldian, auzi-jartzaileak eta demandatuak azaldu ahal izango dute beren eskubideari komeni zaiona, eskura dituzten frogak guztiez baliatuz; frogak horiek egokiak izanez gero, onartu eta gauzatu egingo dira kautela-neurrien aurrebaldintzak kontuan hartuta. Garrantzitsuak diren puntuak egiaztatzeko beharrezkoa denean, azterketa judiziala egiteko ere eskatu ahal izango dute; azterketa hori bost eguneko epean egingo da, egokitzeak jotzen bada eta ikustaldi-ekitaldian gauzatu ezin bada.

Era berean, alegazioak formulatu ahal izango dira kauzioaren motari eta muntari buruz. Eta kautela-neurria jasan behar duenak auzitegiari eskatu ahal izango dio ezen, haren ordezkari, erabaki dezala onartzea ordezkari kauzioa, lege honen 746. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

3. Ezin izango da errekurtsorik jarri agerraldiaren garapenari, haren edukiari eta proposatutako frogari buruzko auzitegi-ebazpenen aurka, hargatik eragotzi gabe, kasua denean protesta egokia egin ondoren, alegatu ahal izatea kautela-neurriei buruz ebazten duen autoaren aurkako errekurtsoko agerraldian gauzatutako arau-hausteak.

735. artikulua. Kautela-neurriak hartzea erabakitzen duen autoa.

1. Ikustaldia amaituta, auzitegiak bost eguneko epean erabakiko du, auto bidez, kautela-neurrien eskaerari buruz.

2. Baldin eta auzitegiak irizten badiot ezarritako betekizun guztiak betetzen direla eta alegazioak eta justifikazioak ikusita egiaztatutak jotzen badu berandutze prozesalaren arriskua, onartu egingo du neurrien eskaera eskubide onaren itxura kontuan hartuta, zehaztasun osoz finkatuko ditu erabakitako kautela-neurria edo neurriak, zehaztuko du zein araubidepean jarri behar diren haiek, eta kasua denean adieraziko du zein modutan, muntatan eta denboratan eman behar duen eskatzaileak kauzioa.

Apelazio-errekurtsioa jarri ahal izango da kautela-neurriak hartzea erabakitzen duen autoaren aurka, etete-ondorerik gabe.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

736. artikulua. Kautela-neurriak ukatzen dituen autoa. Eskatera berriro egitea, inguruabarrak aldatuz gero.

1. Auzitegiak kautela-neurria ukatzeko ematen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsua soilik jarri ahal izango da, eta lehentasunez izapidetuko da. Kostuak 394. artikuluan ezarritako irizpideen arabera ezarriko dira.

2. Kautela-neurrien eskabidea ukatuta ere, auzi-jartzaileak berriro egin ahal izango du eskaera, eskabidearen unean zeuden inguruabarrak aldatuz gero.

737. artikulua. Kauzioa ematea.

Erabakitako kautela-neurria betetzeko edozein egintzaren aurretik eman beharko da beti kauzioa.

Auzitegiak probidentzia bidez erabakiko du kauzioaren zenbatekoaren egokitasunari eta nahikotasunari buruz.

738. artikulua. Kautela-neurria betearaztea.

1. Behin kautela-neurria hartzea erabakita eta kauzioa emanda, berehala beteko da neurri hori ofizioz, eta, horretarako, beharrezkoak diren bitartekoak erabiliko dira, epaiak betearazteko aurreikusiak barne.

2. Erabakitakoa prebentziozko enbargoa bada, 584. artikuluan eta hurrengoetan betearazpen-prozesuan dekretatutako enbargoetarako aurreikusitakoaren arabera jardungo da, baina zorduna ez da behartuta egongo 589. artikuluan xedatzen den ondasun-azalpena ematera. Auzitegiak hartu beharko ditu, kasua denean, prebentziozko enbargoa hobeteari, murrizteari edo aldatzeari buruzko erabakiak.

Erabakitakoa administrazio judiziala bada, 630. artikuluen eta hurrengoaren arabera jardungo da.

Prebentziozko idatzoharrak direnean, kasuan kasuko erregistroko arauen arabera jardungo da.

3. Kautela-neurri bat ezarri zaien ondasunen edo eskubideen gordailuzainek, administratzaile judizialek edo arduradunek ondasun edo eskubide horiek besterendu ahal izango dituzte, soilik baldin eta auzitegiak aurretiaz probidentzia bidez baimena eman badu eta gertatzen diren inguruabarrak hain salbuespenezkoak badira ezen baitakarte kontserbatzea besterentzea baino astunagoa izatea demandatuaren ondarearentzat.

III. KAPITULUA

Demandatuari entzun gabe hartutako kautela-neurriei aurka egiteaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

739. artikulua. Kautela-neurriari aurka egitea.

Kautela-neurria demandatuari aurretiaz entzun gabe hartu den kasuetan, hark aurkakotza formulatu ahal izango du hogeit eguneko epean, kautela-neurriak erabakitzen dituen autoa jakinarazten denetik kontatzen hasita.

740. artikulua. Aurka egiteko kausak. Ordezko kauzioa eskaintzea.

Kautela-neurriari aurkakotza formulatzen dionak haren kausa gisa baliatu ahal izango ditu, inolako mugarik gabe, zeinahi egitate eta arrazoi, erabakitako neurriaren edo neurrien bidez kotasunari, betekizunei, norainokoari, motari eta gainerako inguruabarrei aurka egiten dietenak.

Ordezko kauzioa ere eskaini ahal izango du, titulu honen V. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

741. artikulua. Aurkakotza eskatzaileari helaraztea, ikustaldian agertzea eta erabakia hartzea.

1. Justizia Administrazioaren letraduak eskatzaileari helaraziko dio aurkakotza-idazkia, eta 734. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo da ondoren.

2. Ikustaldia eginda, auzitegiak bost eguneko epean hartuko du aurkakotzari buruzko erabakia auto-forman.

Erabakitako kautela-neurriak mantentzen baditu, aurka egin duena kondenatuko du aurkakotzaren kostuak ordaintzera.

Kautela-neurriak kentzen baditu, auzi-jartzailea kondenatuko du kostuak eta neurri horiek sortutako kalte-galerak ordaintzera.

3. Aurkakotzari buruz erabakitzen duen autoa apelagarria izango da, etete-ondorerik gabe.

742. artikulua. Kalte-galerak ordainaraztea.

Behin aurkakotza baiesten duen autoa irmoa izanda, zehaztu egingo dira, demandatuaren eskariz eta 712. artikuluan aurreikusitako izapideen bitartez, errebokatutako kautela-neurriak kasua denean sortu dituen kalte-galerak, eta, behin haiek zehaztuta, ordaintzeko errekerimendua egingo zaio neurriaren eskatzaileari; ordaindu ezean, berehala eta nahitaez ordainaraziko zaizkio.

IV. KAPITULUA



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Kautela-neurriak aldatzeaz eta kentzeaz

743. artikulua. Kautela-neurriak aldatu ahal izatea.

Kautela-neurriak aldatu ahal izango dira, baldin eta alegatu eta frogatzen badira haiek eman ziren unean edo haiei aurka egiteko epearen barruan kontuan hartu ezin izan ziren egitateak eta inguruabarrak.

734. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera bideratu eta ebatziko da aldaketa-eskaera.

744. artikulua. Neurria kentzea, epai ez-irmoaren ondoren.

1. Behin lehen edo bigarren auzialdian demandatua absolbituta, Justizia Administrazioaren letraduak aginduko du ken daitezela hartutako kautela-neurriak, baldin eta epaiaren aurkako errekurtsioa jartzeko unean errekurtsogileak eskatzen ez badu haiek mantentzea edo bestelako kautela-neurriren bat har dadila. Kasu horretan, auzitegiari kontu emango zaio, eta hark, aurkako alderdiari entzun ondoren eta epaiaren aurkako errekurtsioa ebazteko organo eskudunari autoak igorri baino lehen, eskaerari buruz bidezkoa dena ebatziko du, kontuan hartuta neurri horiek mantentzea edo har daitezela justifikatzen duten aurrebaldintzek eta inguruabarrek dirauten ala ez.

2. Demanda partzialki baiesten bada, auzitegiak, aurkako alderdiari entzunda, auto bidez hartuko du erabakitako kautela-neurriak mantentzeari, kentzeari edo aldatzeari buruzko erabakia.

745. artikulua. Neurriak kentzea, absoluzio-epai irmoaren ondoren.

Absoluzio-epai bat irmoa izanda, funtsean nahiz auzialdian izan, Justizia Administrazioaren letraduak ofizioz kenduko ditu hartutako kautela-neurri guztiak, eta 742. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da demandatuak jasan ahal izan dituen kalte-galerei dagokienez.

Gauza bera aginduko da akzioari uko egiten zaion kasuetan edo auzialdian atzera egiten denetan.

V. KAPITULUA

Kautela-neurrien ordezkotako kauzioaz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

746. artikulua. Ordezko kauzioa.

1. Kautela-neurriak noren aurka eskatu edo erabaki eta hark auzitegiari eskatu ahal izango dio, ezen neurrien ordezkari onar dezala berak ematea auzitegiaren iritziz behar bestekoa den kauzioa, ziurtatzeko benetan beteko dela ematen den epai baieslea.

2. Ordezko kauzioa onartzeko eskabideari buruz erabakitzeak, auzitegiak aztertuko du zer oinarri dagoen kautela-neurriak eskatzeko, zein den kondena-uziaren izaera eta edukia eta ea itxura juridiko ona duen demandatuaren posizioak. Halaber, auzitegiak kontuan hartuko du ea kautela-neurriak larriki eta proportziorik gabe murriztu edo oztopa dezakeen demandatuaren ondare- edo ekonomia-jarduera, eskatzaileari neurri hori hartzeak ekar diezaiokkeenarekin alderatuta.

747. artikulua. Ordezko kauzioa eskatzea.

1. 734. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik formulatu ahal izango da kautela-neurriaren ordezkari kauzioa emateko eskaera, edo, kautela-neurria dagoeneko hartuta badago, aurkakotza-izapidetan edo idazki ziodun bidez, eta, idazki horrekin batera, komenigarritzat jotzen diren dokumentuak aurkeztu ahal izango dira kaudimenari buruz, neurria hartzearen ondorioei buruz eta berandutze prozesalaren arriskuaren balorazio ahalik eta zehatzenari buruz.

Behin kautela-neurriaren eskatzaileari idazkia bost egunerako helarazita, Justizia Administrazioaren letratuak alderdiei dei egingo die ordezkari kauzioaren eskaerari buruzko ikustaldi batera, 734. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Ikustaldia eginda, auzitegiak auto bidez ebaztuko du bidezkoa deritzona, beste bost eguneko epean.

2. Ezin izango da errekurtsorik jarri ordezkari kauzioa onartzea edo errefusatzeko ebazten duen autoaren aurka.

3. 529. artikuluan 3. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduetatik edozeinetan eman ahal izango da kautela-neurriaren ordezkari kauzioa.

IV. LIBURUA

Prozesu berezietan

I. TITULUA

Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialak xedatzeari, filiazioari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuez



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

I. KAPITULUA

Xedapen orokorreaz

748. artikulua. Titulu honen aplikazio-eremua.

Titulu honetako xedapenak honako prozesu hauei aplikatuko zaizkie:

- 1) Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialak hartzeari buruzkoei.
- 2) Filiaziokoei, aitasunakoei eta amatasunakoei.
- 3) Ezkontza-deuseztasunakoei, banantzekoei eta dibortziokoei, eta haietan hartutako neurriak aldatzekoei.
- 4) Seme-alaba adingabeen zaintzari eta jagoletzari buruzkoak baino ez direnei edo guraso batek seme-alaba adingabeen izenean beste gurasoaren aurka erreklamatutako mantenuari buruzkoak baino ez direnei.
- 5) Ezkontzen gaian elizak emandako ebazpenei edo erabakiei efikazia zibila aitortzekoei.
- 6) Nazioarteko osten kasuetan adingabeak itzultzeko neurriari buruzkoei.
- 7) Adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenei aurka egitea objektutzat dutenei.
- 8) Adopzioan baiezkota emateko beharrari buruzkoei.

749. artikulua. Fiskaltzaren esku-hartzea.

1. Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialak hartzeari buruzko prozesuetan, ezkontza-deuseztasunekoetan, nazioarteko adingabe-ostekoetan eta filiazioa zehaztekoetan eta aurkaratzekoetan Fiskaltza beti izango da alderdi, nahiz eta haien sustatzailea ez izan eta, legearen arabera, alderdietakoren baten defentsa bere gain hartu behar ez izan.

Fiskaltzak prozedura osoan zainduko du desgaitasuna izan eta prozesu horietan parte hartzen duten pertsonen borondatea, nahiak, lehentasunak eta eskubideak, bai eta adingabearen interes gorena ere.

2. Titulu honetan aipatutako gainerako prozesuetan, nahitaezkoa izango da Fiskaltzaren esku-hartzea, betiere prozedurako interesdunetakoren bat adingabea edo desgaitasuna duen pertsona bada edo legezko absentsia-egoeran badago.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

750. artikulua. Alderdien ordezkartza eta defentsa.

1. Legearen arabera Fiskaltzak defendatu behar dituen kasuetatik at, abokatuak lagunduta eta prokuradoreak ordezkatuta jardungo dute alderdiek titulu honetan aipatzen diren prozesuetan.

2. Ezkontideek elkarrekin adostuta eskatutako banantze- edo dibortzio-prozeduretan, defentsa eta ordezkartza bakarraz baliatu ahal izango dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, auzitegiak ez duenean onesten ezkontideek proposatutako itunetakoren bat, Justizia Administrazioaren letraduak errekerimendua egingo die alderdiei, bost eguneko epean adieraz dezaten ea defentsa eta ordezkartza bakararekin jarraitu nahi duten edo ea, aitzitik, nahiago duen bakoitzak bere defentsa eta ordezkartza propioarekin auzitan aritu. Halaber, alderdiek sinatutako eta auzitegiak homologatutako akordioa egonda ere alderdietako batek akordio horren betearazpen judiziala eskatzen badu, Justizia Administrazioaren letraduak errekerimendua egingo dio beste alderdiari, defendatuko eta ordezkatuko duten abokatuak eta prokuradorea izenda ditzan.

751. artikulua. Prozesuaren objektuaren xedaezintasuna.

1. Titulu honetan aipatutako prozesuetan, ez dute ondorerik izango uko-egiteek, amore-emateek eta transakzioek.

2. Atzera-egiteak Fiskaltzaren adostasuna beharko du, honako kasu hauetan izan ezik:

1.) Filiazioari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozesuetan, betiere prozeduran ez badago adingaberik, desgaitasuna izan eta laguntza-neurri judizialak dituen pertsonarik (ordezkartza-eginkizunetarako laguntza izendatuz gero) edo interesa duen absenterik.

2.) Adingabetasunagatik ezkontza deuseztatzeko prozesuetan, adingabe zela ezkondu zen ezkontideak deuseztasun-akzioa egikaritzen duenean adin-nagusitasuna lortu ondoren.

3.) Okerragatik, derrigortzeagatik edo beldur larriagatik ezkontza deuseztatzeko prozesuetan.

4.) Banantzeko eta dibortziatzeko prozesuetan.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, uko-egitearen, amore-ematearen, transakzioaren edo atzera egitearen objektu izan ahalko dira titulu honetan aipatutako prozesuetan formulatu eta legeria zibil aplikagarriaren arabera alderdiek askatasunez xeda ditzaketen gaiak objektutzat dituzten uziak, lege honen I. liburuaren I. tituluaren IV. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera.

752. artikulua. Froga.

1. Eztabaidatu eta frogatutzat jo diren egitateen arabera erabakiko dira titulu honetan aipatzen diren prozesuak, aintzat hartu gabe egitateok zein unetan alegatu diren edo beste modu batera sartu diren prozeduran.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Fiskaltzaren eta gainerako alderdien eskariz gauzatzen diren frogei kalterik egin gabe, auzitegiak ofizioz dekretatu ahal izango ditu egokitzen jotzen dituen froga guztiak.

Alderdiek proposa dezakete edo auzitegiak ofizioz erabaki dezake prozeduraren objekturako egoki eta erabilgarritzat jotzen den aurretiazko froga oro gauzatzea. Kasu horretan, ahaleginak egingo dira onartu edo erabakitako froga horren emaitza ikustaldia egin aurretik izan dadin jardunetan, eta alderdien eskura egon dadin.

2. Alderdiak egitatei buruz ados egoteak ez du auzitegia lotetsiko, eta, halaber, auzitegiak ezin izango du auziaren arazoa erabaki eskusiboki oinarritzat hartuta adostasun hori edo aurkako alderdiak alegatutako egitateen inguruko isiltasuna edo erantzun iheskorak. Era berean, titulu honetan aipatutako prozesuetan, auzitegia ez dute lotetsiko lege honetako xedapenek, baldin eta gaitzat badute alderdien galdeketa, dokumentu publikoen eta dokumentu pribatu aitortuen froga-indarra.

3. Bigarren auzialdian ere aplikagarria izango da aurreko apartatuetan xedatutakoa.

4. Titulu honetan aipatutako prozesuetan formulatu eta legeria zibil aplikagarriaren arabera alderdiek askatasunez xeda ditzaketen gaiak objektutzat dituzten uziei dagokienez, ez dira aplikatzekoak izango aurreko apartatuetako berezitasunak.

753. artikulua. Izapidetzea.

1. Esanbidez besterik xedatu ezean, titulu honek aipatu prozesuak hitzezko epaiketaren izapideei jarraituz gauzatuko dira. Justizia Administrazioaren letraduak demanda helaraziko die Fiskaltzari, bidezkoa denean, eta legearen arabera prozeduran alderdi izan behar duten gainerako pertsonen, demandatuak izan ala ez, eta epatu egingo ditu, hogeitaz eguneko epean erantzun diezaioten, 405. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaitegi zibil batean titulu honetan aipatzen diren prozesuei buruzko demanda bat aurkezten denean, zeinaren gaiaren arabera emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi bat eskuduna izan daitekeen Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, dagokion kontsulta egingo zaio Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistemari, bai eta dagokion kudeaketa prozesaleko sistemari ere, eskumena lege honen 49 bis artikuluen arabera egiaztatzeko.

Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistemari eta dagokion kudeaketa prozesaleko sistemari kontsulta egingo zaie, berriz ere, adostasunik gabeko prozeduraren edo borondatezko jurisdikzioaren ikustaldia edo agerraldia edo elkarrekin adostutako prozedurak berresteko egintza baino lehenago.

Era berean, onarpen-dekretuan alderdiei eskatuko zaie bost eguneko epean komunika dezatela ea emakumearen aurkako indarkeria-prozedurarik dagoen edo egon den ezkontide edo gurasoen artean, haien egungo egoera prozesala, eta ea jasota dauden neurri zibilak edo penalak hartu direla. Era berean, bi alderdiei ohartaraziko zaie ezen, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi baten aurrean edozein prozedura abiarazten badute prozedura zibila izapidetzen ari den bitartean, edota emakumearen aurkako edozein indarkeria-intzidente gertatuz gero, horren berri emango beharko dutela berehala.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Prozesu hauetako hitzezko judizioaren ikustaldian eta lege honen 771. artikuluan aipatutako agerraldian, behin frogak gauzatuta, auzitegiak aukera emango die alderdiei ahoz formulatzeko beren konklusioak, eta 433. artikuluen 2., 3. eta 4. apartatueta ezarritakoa aplikatuko da helburu horretarako.

3. Lehentasunez izapidetuko dira titulu honetan aipatutako prozesuak, betiere prozedurako interesdunetakoren bat adingabea bada edo desgaitasuna izan eta laguntza-neurri judizialak dituen pertsona bada (ordezkaritza-eginkizunetarako laguntza izendatuz gero) edo legezko absentzia-egoeran badago.

754. artikulua. Publizitatea baztertzea.

Titulu honetan aipatutako prozesuetan, auzitegiek probidentzia bidez erabaki ahal izango dute, ofizioz edo alderdi-eskariz, ateak itxita egin daitezela ekitaldiak eta ikustaldiak eta erreserbatuak izan daitezela jardunak, betiere inguruabarrek hori aholkatzen badute, nahiz eta lege honen 138. artikuluen 2. apartatuaren kasuetatik batean ere egon ez.

755. artikulua. Epaiak erregistro publikoetara iristea.

Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du erregistro zibilei ofizioz komunika dakizkiela titulu honetan aipatutako prozeduretan emandako epaiak eta gainerako ebazpenak, kasuan kasuko idazpenak egin ditzaten.

Alderdi-eskariz, jabetza-erregistroari, merkataritza-erregistroari, ondasun higigarrien erregistroari edo beste edozein erregistro publikori ere komunikatuko zaizkio, kasuan-kasuan bidezkoak diren ondoretarako. Laguntzeko neurrien kasuan, laguntza eman zaion pertsonak eskatuta baino ez da egingo komunikazioa.

II. KAPITULUA

Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialak hartzeari buruzko prozesuez

756. artikulua. Aplikazio-eremua eta eskumena.

1. Legeria zibil aplikagarriaren arabera kuradorea izendatzea egokia den kasuetan eta horretarako bideratutako borondatezko jurisdikzioko espedienteen aurkakotza formulatu denean, edo espediente ezin izan denean ebatzi, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera eraenduko da desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialak hartzea.

2. Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurriak hartzeari buruzko demandez arduratzeko eskuduna izango da aurretiazko borondatezko jurisdikzioko espedienteaz arduratu zen agintaritza judiziala, salbu eta eskaeraren xede den pertsona geroago bizilekuz aldatzen bada; kasu horretan, hura bizi den tokiko lehen auzialdiko epailea izango da eskuduna.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Ikustaldia egin aurretik prozesuaren xede den pertsonaren ohiko bizilekua aldatzen bada, jarduketak dagokien epaitegira igorriko dira, dauden egoeran.

757. artikulua. Legitimazioa eta esku-hartze prozesala.

1. Desgaitasuna duen pertsona bati laguntzeko neurriak judizialki hartzeko prozesua interesdunak berak, egitez edo legez bananduta ez dagoen ezkontideak edo antzeko egitezko egoeran dagoenak, haren ondorengoek, aurrekoek edo anai-arrebek susta dezakete.

2. Fiskaltzak prozesu hori sustatu beharko du, baldin eta aurreko apartatuan aipatutako pertsonarik ez badago edo dagokion demanda aurkeztu ez badute, salbu eta ondorioztatzen badu beste bide batzuk daudela interesdunak behar dituen laguntzak lortzeko.

3. Demandarekin batera, laguntzak emateko prozedura hastea, dagozkion laguntza-neurriak eta kuradore jakin bat eskatzen denean, hari helaraziko zaio, egokitzen jotzen duena alega dezan arazo horri buruz.

4. Laguntza-neurri judizialak hartzeko prozesua ezartzeko legitimatuta dauden edo interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsonak beren kontura esku hartu ahal izango dute, 13. artikuluan aurreikusitako ondoreekin.

758. artikulua. Erregistro-ziurtagiria eta demandatua pertsonatzea.

1. Demanda onartuta, Justizia Administrazioaren letraduak ziurtagiria egin dezala eskatuko dio erregistro zibilari eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituen beste erregistro publiko batzuei ere, laguntza-neurri inskribatuei dagokienez.

2. Behin demanda igorpen edo entrega bidez jakinarazita, edo ediktu bidez, interesdunari ezin izan bazaio pertsonalki jakinarazi, demandari erantzuteko aurreikusitako epea igarota interesduna ez bada agertzen epaitegian bere defentsarekin eta ordezkaritzarekin, Justizia Administrazioaren letraduak defendatzaile judizial bat izendatuko dio, salbu eta jada izendatuta badago edo haren defentsa Fiskaltzari badagokio, prozeduraren sustatzailea ez delako. Jarraian, defendatzaile judizialari hogeit eguneko beste epe bat emango zaio demandari erantzun diezaion, bidezkoz jotzen badu.

Justizia Administrazioaren letraduak behar diren jarduketak egingo ditu desgaitasuna duen pertsonak prozeduraren objektua, helburua eta izapideak uler ditzan, 7 bis artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

759. artikulua. Nahitaezko frogak lehen eta bigarren auzialdian.

1. Kapitulu honetan aipatzen diren laguntza-neurriak hartzeari buruzko prozesuetan, 752. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik gauzatzen diren frogaz gain, auzitegiak honako hauek gauzatuko ditu:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Elkarrizketa izango du desgaitasuna duen pertsonarekin.

2.) Entzunaldia emango dio egitez edo legez bananduta ez dagoen ezkontideari edo antzeko egitezko egoeran dagoenari, bai eta desgaitasuna duen pertsonaren ahaiderik gertukoenei ere.

3.) Beharrezkoak edo egokiak diren aditu-txostenak erabakiko ditu demandaren uziei dagokienez, eta ezin izango da erabaki hartu behar diren neurriei buruz aldeztu aurretik ez badago auzitegiak agindutako aditu-irizpenik. Nahitazko irizpen hori emateko, gizarte- eta osasun-arloetako profesional espezializatuak egongo dira beti, eta kasu bakoitzean egokiak diren laguntza-neurriak gomendatzen dituzten beste profesional espezializatu batzuk ere eduki ahal izango dira.

2. Desgaitasuna duen pertsonak berak aurkeztu badu demanda, auzitegiak, hark aldeztu aurretik eskatuta eta salbuespenez, nahitazko entzunaldiak ez egiteko aukera izango du, baldin eta pertsona horren intimitatea babesteko komenigarriagoa bada.

3. Kuradorearen izendapena proposatu ez denean, arazo horri buruz entzungo zaie desgaitasuna duen pertsonari, egitez edo legez banandu gabeko ezkontideari edo antzeko egitezko egoeran dagoenari, ahaiderik gertukoenei eta auzitegiak egokitzen jotzen dituen gainerako pertsonei, eta aurreko apartatuan xedatutakoa ere aplikatuko da.

4. Laguntza-neurriei buruz erabakitzen duen epaia apelatzen bada, bigarren auzialdian ere ofizioz aginduko da gauza daitezela artikulua honen aurreko apartatuetan aipatzen diren nahitazko frogak.

760. artikulua. Epaia.

Agintaritza judizialak epaian hartzen dituen neurriek bat etorri beharko dute aplikagarriak diren zuzenbide zibileko arauetan arazo horri buruz xedatutakoarekin.

761. artikulua. Judizialki hartutako laguntza-neurriak berrikustea.

Emandako epaian jasotako neurriak legeria zibilean aurreikusitakoaren arabera berrikusiko dira, eta Borondatezko Jurisdikzioaren Legean horretarako aurreikusitako izapideei jarraitu beharko zaie.

Aurreko paragrafoan aipatutako berrikuspeneko borondatezko jurisdikzioko espedientean aurkakotza gertatzen bada, edo espediente hori ezin izan bada ebatzi, dagokion auzibidezko prozesua has dadila eskatu beharko da kapitulu honetan aurreikusitakoaren arabera, eta 757. artikuluan 1. apartatuan aipatutako pertsonetako edozeinek sustatu ahal izango du, bai eta desgaitasuna duen pertsonari laguntza ematen dionak ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

762. artikulua. Kautela-neurriak.

1. Auzitegi eskudunak jakiten badu laguntza-neurriak behar dituen desgaitasun-egoeran dagoen pertsona bat dagoela, ofizioz hartuko ditu pertsona hori edo haren ondarea behar bezala babesteko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak, eta Fiskaltzari ezagutaraziko dio egitatea, borondatezko jurisdikzioko espedienteak hasi dezan bidezkoa baderitzo.

2. Fiskaltzak ere, inguruabar berberetan, auzitegiari eskatu ahal izango dio berehala har ditzala aurreko apartatuan aipatutako neurriak.

Neurri horiek hartu ahal izango dira prozeduraren edozein unetan, ofizioz edo alderdi-eskariz.

3. Egoeraren urgentziak eragozten ez badu, desgaitasuna duten pertsonen entzun ondoren erabakiko dira aurreko apartatuetan aipatutako neurriak. Horretarako, lege honen 734., 735. eta 736. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

763. artikulua. Borondatezkoa ez den barneratzea, nahasmendu psikikoagatik.

1. Nahasmendu psikikoa dela-eta pertsona batek ezin badu bere kabuz erabaki barneratzea, baimen judiziala beharko da hura barneratzeko, nahiz eta guraso-ahalaren edo tutoretzaren menpe egon; barneratzeak ukitutako pertsona bizi den tokiko auzitegiari eskatuko zaio baimen hori.

Barneratze horren aurrekoa izango da baimena, salbu eta neurria berehala hartzea beharrezkoa denean urgentziazko arrazoiengatik. Kasu horretan, barneratzea gauzatu den zentroko arduradunak ahalik eta azkarren eman beharko dio horren kontu auzitegi eskudunari, eta, kasu orotan, hogeita lau orduko epearen barruan, neurri horren nahitaezko berrespena egin dezan gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean auzitegiari barneratzea ezagutarazten zaionetik.

Barneratze urgenteen kasuetan, barneratzea gauzatu den zentroa dagoen tokiko auzitegiak izango du neurria berresteko eskumena. Auzitegi horrek lege honen 757. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoaren arabera jardun beharko du kasua denean.

2. Adingabeak beti barneratuko dira beren adinerako egokia den osasun mentaleko establezimenduan, adingabeei laguntza emateko zerbitzuek txostena egin ondoren.

3. Baimena eman aurretik edo jada gauzatu den barneratzea berretsi aurretik, auzitegiak entzun egingo die erabakiak ukitutako pertsonari, Fiskaltzari eta beste edozein pertsonari, baldin eta komenigarritzat jotzen badu azken hori agertzea edo neurriak ukitutakoak eskatzen badio agerraldi hori egiteko. Gainera, kalterik egin gabe kasurako garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein froga gauzatzeari, auzitegiak bere kabuz aztertu beharko du barneratzeak xede duen pertsona, eta entzun beharko du berak izendatutako adituaren irizpena. Jardun guztietan, ordezkaritza eta defentsa eduki ahal izango ditu barneratze-neurriak ukitutako pertsonak, lege honen 758. artikuluan ezarritako moduan.

Kasu orotan, apelazio-errekurtsua jarri ahal izango da auzitegiak barneratzeari buruz hartzen duen erabakiaren aurka.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Barneratzea erabakitzen duen ebazpen berean, adieraziko da ezen barneratutako pertsona artatzen duten adituek betebeharra dutela auzitegia periodikoki informatzeko neurria mantentzeko beharrari buruz, hargatik eragotzi gabe auzitegiak beste txosten batzuk errekeritzea egoki irizten dionean.

Txosten periodikoak sei hilean behin egingo dira, salbu eta auzitegiak epe laburrago bat seinalatzen badu kontuan hartuta barneratzea ekarri zuen nahasmenduaren izaera.

Behin aipatutako txostenak hartuta, auzitegiak erabakiko du barneratzearekin jarraitzeari edo ez jarraitzeari buruz bidezkoa dena, kasua denean ezinbesteko irizten dien jardunak egin ondoren.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoari kalterik egin gabe, barneratutako pertsona artatzen duten adituek uste dutenean ez dela beharrezkoa barneratzea mantentzea, alta emango diote gaixoari, eta berehala komunikatuko diote auzitegi eskudunari.

III. KAPITULUA

Filiaziori, aitaltasunari eta amatasunari buruzko prozesuez

764. artikulua. Filiazioa lege zehaztea, epai irmo bidez.

1. Auzitegiei eskatu ahal izango zaie filiazioa lege zehazteko, eta, halaber, haien aurrean aurkaratu ahal izango da lege zehaztutako filiazioa, legeria zibilean aurreikusitako kasuetan.

2. Auzitegiek errefusatuko dute demanda izapidetzeko onartzea, baldin eta harekin lortu nahi bada aurkaratzea epai irmo bidez deklaraturako filiazioa edo zehaztea epai irmo bidez ezarritako beste baten aurkakoa den filiazioa.

Baldin eta prozesua hasi ondoren egiaztatzen bada badela epai irmo hori, auzitegiak besterik gabe artxibatuko du prozesua.

765. artikulua. Seme edo alaba adingabeari edo desgaitasuna izan eta laguntza behar duen semeari edo alabari dagozkion akzioak egikaritzea. Prozesuko ondorengotza.

1. Filiazioa zehazteko edo aurkaratzeko akzioak, legeria zibilean xedatutakoaren arabera seme edo alaba adingabeari dagozkionak, haren legeko ordezkariak edo Fiskaltzak egikaritu ahal izango ditu, batak zein besteak.

Desgaitasuna izan eta haiek egikaritzeko laguntza-neurriak dituen pertsona bada, berak egikaritu ahal izango ditu akzio horiek, laguntza eman eta horretarako berariaz ahalmena duenak edo, halakorik ezean, Fiskaltzak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Kapitulu honetan aipatutako prozesu guztietan, auzi-jartzailea hiltzean, haren jaraunsleek aurrera jarraitu ahal izango dute jada abiarazitako akzioekin.

766. artikulua. Legitimazio pasiboa.

Kapitulu honetan aipatzen diren prozesuetan, alderdi demandatu izango dira, betiere berek ez badute jarri demanda, prozesuan guraso eta seme edo alaba izaera esleitzen zaien pertsonak, baldin eta filiazioa zehazteko eskatzen bada, eta lege zehaztutako filiazioaren arabera guraso gisa eta seme edo alaba gisa azaltzen direnak, baldin eta filiazioa aurkaratzen bada. Haietatik edozein hilda egonez gero, haien jaraunsleak izango dira alderdi demandatu.

767. artikulua. Berezitasunak prozedura- eta froga-gaiaetan.

1. Inoiz ez da filiazioaren zehaztapenari edo aurkaratzeari buruzko demandarik onartuko, baldin eta harekin batera ez bada aurkezten haren oinarri diren egitateen froga-hastapen bat.

2. Filiazioari buruzko judizioetan, onargarria izango da mota orotako frogez baliatzea aitatasuna eta amatasuna ikertzeko, froga biologikoak barne.

3. Zuzeneko frogarik izan ez arren, filiazioa deklaratu ahal izango da, baldin eta hura ondorioztatzen bada esanbidezko edo isilbidezko aitopenetik, edukitza-egoeratik, ernaltze-garaian amarekin batera bizitzetik edota, era bertsuan, filiazioa ekar dezaketen beste egitate batzuetatik.

4. Aitatasunaren edo amatasunaren froga biologikoa egiteari justifikaziorik gabe ezezkoa eman izanak auzitegia ahalbidetuko du erreklamatutako filiazioa deklaratzeko, betiere aitatasunaren edo amatasunaren beste zantzu batzuk badaude eta haren froga ez bada lortu beste bitarteko batzuen bidez.

768. artikulua. Kautela-neurriak.

1. Filiazioa aurkaratzeko prozedurak dirauten bitartean, auzitegiak babes-neurri egokiak hartuko ditu, guraso gisa azaltzen denaren ahalpean dagoen pertsona eta haren ondasunak babesteko.

2. Behin filiazioa judizialki erreklamatuta, auzitegiak erabaki ahal izango du demandatuak eman dezala behin-behineko mantenua, eta, kasua denean, hartu ahal izango ditu aurreko apartatuan aipatzen diren babes-neurriak.

3. Erregela gisa, ukituak izan daitezkeen pertsonak entzun ondoren hartuko dira aurreko apartatuetan aipatzen diren neurriak. Horretarako, lege honen 734., 735. eta 736. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Dena den, urgentziatzko arrazoiak daudenean, izapide gehiagorik gabe erabaki ahal izango dira neurriak, eta Justizia Administrazioaren letraduak agerraldi baterako zitazioa egingo die interesdunei; hurrengo hamar egunen barruan egingo da agerraldia, eta, bertan, hartutako neurrien bidez kotasunari buruz agertutakoek egindako alegazioak entzun ondoren, bidezkoa dena ebartziko du auzitegiak auto bidez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Prozesu horietan kautela-neurriak hartzeko, ez dago zertan kauziorik galdatu neurriok eskatzen dituenari.

IV. KAPITULUA

Ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuez

769. artikulua. Eskumena.

1. Berariaz besterik xedatu ezean, kapitulu honetan aipatutako prozedurez arduratzeko auzitegi eskudun izango da ezkontideen egoitzaren tokiko lehen auzialdiko epaitegia. Ezkontideak barruti judizial desberdinetan bizi diren kasuan, ezkontideen azken egoitzakoa edo demandatuaren bizilekukoa izango da auzitegi eskuduna, demandatzailearen aukeran.

Egoitza edo bizileku finkorik ez dutenak dauden tokian edo beren azken bizilekuan demandatu ahal izango dira, demandatzailearen aukeran, eta, horrela ere eskumena zehazterik ez badago, auzi-jartzailearen egoitzako auzitegiari egokituko zaio hura.

2. Elkarrekin adostutako banantzearen edo dibortzioaren prozeduran —777. artikuluan aipatutakoa—, azken egoitza erkideko epaitegia edo eskatzaileetatik edozeinen egoitzakoa izango da eskuduna.

3. Prozesua eskusiboki bada seme-alaba adingabeak zaintzeari eta jagoteari buruzkoa edo guraso batek seme-alaba adingabeen izenean besteari mantenua erreklamatzeari buruzkoa, eskudun izango da gurasoen azken egoitza erkidearen tokiko lehen auzialdiko epaitegia. Gurasoak barruti judizial desberdinetan bizi badira, demandatuaren egoitzakoa edo adingabearen bizilekukoa izango da auzitegi eskuduna, demandatzailearen aukeran.

4. Auzitegiak ofizioz aztertuko du bere eskumena.

Deusezak dira alderdien akordioak, artikulua honetan xedatutakoaren aurkakoak badira.

770. artikulua. Prozedura.

Hitzezko judizioaren izapideen bitartez bideratuko dira banantze- eta dibortzio-demandak, 777. artikuluan aurreikusitakoak salbu, ezkontza-deuseztasunekoak eta Kode Zibilarren I. liburuaren IV. tituluaren babesean formulatzen diren gainerakoak, titulu honen I. kapituluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta, gainera, honako erregelak hauek beteko dituzte:

1.) Demandarekin batera, ezkontza-inskripzioaren ziurtagiria eta, kasua denean, seme-alaben jaiotzari buruz erregistro zibilean egindako inskripzioarenak aurkeztu beharko dira, bai eta ezkontideak bere eskubidea oinarritzeko dituen dokumentuak ere. Ondare-izaerako neurriak eskatuz gero, bai alderdi auzi-

1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea



jartzaileak bai alderdi demandatuak aurkeztu beharko dituzte eskura dituzten dokumentuak, ezkontideen eta kasua denean seme-alaben egoera ekonomikoa ebaluatzeko balio dutenak, hala nola tributu-aitorpenak, nominak, banku-ziurtagiriak, jabetza-tituluak edo erregistro-ziurtagiriak. Era berean, familiaren etxebizitza erabiltzeko ebazpen judiziala edo akordioa egiaztatu beharko da, halakorik badago.

2.) Errekonbentzioa demanda-erantzunarekin batera proposatuko da. Auzi-jartzaileak 10 egun izango ditu erantzuteko.

Errekonbentzioa onartuko da, soilik:

- a) Ezkontza-deuseztasunari bide eman diezaiokeen kausetakoren batean oinarritzen denean.
- b) Banantze- edo deuseztasun-demanda zein ezkontideren aurka jarri eta hark dibortzioa lortu nahi duenean.
- c) Deuseztasun-demanda zein ezkontideren aurka jarri eta hark banantzea lortu nahi duenean.
- d) Ezkontide demandatuak behin betiko neurriak har daitezela lortu nahi duenean, baldin eta haiek demandan eskatu ez badira eta auzitegiak ofizioz pronuntziatu behar ez badu haiei buruz.

3.) Beren kabuz agertu beharko dute alderdiek ikustaldira, eta ohartaraziko zaie ezen, agertzen ez badira kausa justifikaturik gabe, onartutzat jo ahal izango direla agertutako alderdiak alegatutako egitateak, ondare-izaerako behin betiko neurriei buruzko eskabideak oinarritzekoak. Halaber, nahitaezkoa izango da bertan izatea alderdi bakoitzaren abokatua.

4.) Ikustaldiaren ekitaldian gauzatu ezin diren frogak auzitegiak zehazten duen epearen barruan gauzatuko dira; epe hori ezin izango da luzatu hogeita hamar egun baino gehiago.

Epe horretan zehar, auzitegiak, legeria zibil aplikagarriarekin bat etorritik, ofizioz erabaki ahal izango ditu frogak, dela beharrezkotzat jotzen dituenak egiaztatzeko betetzen direla deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa dekreta dadin Kode Zibilak kasuan-kasuan galdatzen dituen inguruabarrak, dela egitateei buruzkoak, zeinen menpe baitaude seme-alaba adingabeak edo desgaitasuna izan eta laguntza behar duten adin nagusikoak ukitzen dituzten pronuntziamentuak.

Prozedura auzibidezkoa bada eta ofizioz edo fiskalaren, alderdien edo lantalde tekniko judizialeko kideen edo seme-alaben beraien eskariz beharrezkotzat jotzen bada, hamabi urte baino gutxiago dituztenean entzun ahal izango zaie, eta adin hori beteak badute, kasu guztietan entzun beharko zaie. Entzun egin beharko zaie, halaber, beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar dutenean eta laguntza hori gurasoek ematen dutenean, bai eta desgaitasuna duten seme-alabak direnean ere, familia-etxebizitzaren erabilera eztabaidatzen denean eta hura erabiltzen ari direnean.

Seme-alaba adingabeen edo desgaitasuna izan eta beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten adin nagusikoen entzunaldietan, agintaritza judizialak bermatuko du beren interesak babesteko baldintza egokietan egiten direla, beste pertsona batzuen interferentziarik gabe, eta, salbuespenez, espezialisten laguntza eskatuko du, beharrezkoa denean.

5.) Prozesuaren edozein unetan, 777. artikuluan zehaztutako betekizunak betetzen badira, alderdiek eskatu ahal izango dute prozedurak aurrera jarrai dezala artikulua horretan ezartzen diren izapideen bitartez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

6.) Soil-soilik seme-alaba adingabeen zaintzari eta jagoletzari buruzkoak edo seme-alaba adingabeen izenean erreklamatutako mantenuari buruzkoak diren prozesuetan, prozesu horietarako egokiak diren kautela-neurriak hartzeko, lege honetan ezarritako izapideei jarraituko zaie, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozesuetan aurretiazko, aldebereko edo behin betiko neurriak hartzeko ezarritakoei.

7.) Alderdiek, elkarrekin adostuta, prozesua eten dadila eskatu ahal izango dute, lege honen 19.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, bitartekaritapean jartzeko.

8.) Desgaitasuna dela-eta laguntza-neurriak behar dituzten hamasei urtetik gorako bien seme-alabak dauden ezkontza-prozesuetan, desgaitasuna duen pertsona bati laguntzeko neurriak judizialki hartzeko prozesuetarako lege honetan ezarritako izapideei jarraituko zaie, hala badagokio.

771. artikulua. Behin-behineko neurriak, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda baino lehenagokoak. Eskara, agerraldia eta ebazpena.

1. Kode Zibilaren 102. eta 103. artikuluetan aipatutako ondoreak eta neurriak eska ditzake ezkontzaren deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa demandatu nahi duen ezkontideak bere egoitzako auzitegian.

Prokuradorearen eta abokatuaren esku-hartzea ez da beharrezkoa izango eskaera hori formulatzeko, baina esku-hartze hori beharrezkoa izango da geroagoko idazki eta jardun guztietan.

2. Eskara ikusita, Justizia Administrazioaren letraduak agerraldi baterako zitazioa egingo die ezkontideei eta, seme-alaba adingaberik badago edo desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak dituen seme-alabarik badago, Fiskaltzari, alderdien arteko akordioa lortzen saiatzeko; Justizia Administrazioaren letraduak seinalatuko du agerraldia, eta hurrengo hamar egunen barruan egingo da. Agerraldi horretara, ezkontide demandatuak joan beharko du, bere abokatuak lagunduta eta bere prokuradoreak ordezkaturik.

Auzitegiari egun berean emango dio ebazpen horren kontu, kasuaren urgentziak hala aholkatzen badu berehala erabaki ahal izan ditzan Kode Zibilaren 102. artikuluan aipatzen diren ondoreak eta bidezkoztat jotzen duena seme-alaben zaintzari eta familiaren etxebizitzaren erabilerari, lagun egiteko animalien eratzikitzeari, haiekiko elkarbizitzari eta dituzten beharrei eta ostilamenduaren erabilerari buruz. Ezin izango da errekurtsorik jarri ebazpen horren aurka.

3. Aurreko apartatuan aipatutako agerraldiaren ekitaldian, ezkontideen arteko akordiorik ez badago hartu beharreko neurriei buruz edota auzitegiak, kasua denean Fiskaltzari entzun ondoren, akordio hori onesten ez badu osorik edo zati batean, bertan dauden alegazioak entzungo dira, eta gauzatu egingo da haiek proposatutako frogak, baliaezina edo desegokia ez bada, bai eta auzitegiak ofizioz erabakitzen duena ere. Frogaren bat ezin bada agerraldian gauzatu, hura gauzatzeko data seinalatuko du Justizia Administrazioaren letraduak, egintza-batasunean, hurrengo hamar egunen barruan.

Ezkontideetakoren bat agerraldira joaten ez bada kausa justifikaturik gabe, onartutzat jo ahal izango dira bertaraturako ezkontideak alegatutako egitateak, ondare-izaerako behin-behineko neurriei buruz egiten dituen eskabideak oinarritzekoak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

4. Agerraldia bukatuta edo, kasua denean, agerraldian egin ezin izan zen froga gauzatzeko seinalatutako ekitaldia amaituta, auzitegiak hiru eguneko epean ebatziko du auto bidez; ezin izango da errekurtsorik jarri haren aurka.

5. Artikulu honetan xedatutakoarekin bat etorritik erabakitako ondoreek eta neurriek indarrean jarraituko dute, soilik, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda aurkezten bada haiek hartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

772. artikulua. Demanda baino lehenagoko behin-behineko neurriak konfirmatzea edo aldatzea, hura onartzen denean.

1. Demanda baino lehenago neurriak hartu direnean, behin hura onartuta, Justizia Administrazioaren letratuak neurri horiek hartzeari buruzko jarduketak erantsiko dizkie deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozesuaren autoei; horretarako, kasuan kasuko lekukotza eskatuko da, baldin eta demandaz arduratzen ari den auzitegiak bestelako batean gauzatu badira neurriak buruzko jardunak.

2. Auzitegiak bidezkoztat jotzen duenean aldeztu aurretik erabakitako neurriak osatzea edo aldatzea, orduan bakarrik aginduko du agerraldi baterako dei egitea alderdiei; Justizia Administrazioaren letratuak seinalatuko du agerraldia, eta aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera bideratuko da.

Ezin izango da errekurtsorik jarri ematen den autoaren aurka.

773. artikulua. Behin-behineko neurriak, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda onartzetik eratorritakoak.

1. Ezkontzaren deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa eskatzen duen ezkontideak demandan eskatu ahal izango du hartu beharreko behin-behineko neurriak buruz egokitzea jotzen duena, betiere neurriak aldeztu aurretik hartu ez badira. Halaber, bi ezkontideek auzitegiaren onespeneraren menpe jarri ahal izango dute arazo horiei buruz lortutako akordioa. Akordio hori ez da loteslea izango alderdi bakoitzaren uztentzat, ezta auzitegiak behin betiko neurriak dagokienez har dezakeen erabakiarentzat ere.

2. Behin demanda onartuta, aurreko apartatuan aipatutako eskabideei buruz ebatziko du auzitegiak, eta, halakorik ezean, bidezkoa dena erabakiko du, Kode Zibilarren 103. artikuluan xedatutakoa betez kasu orotan.

3. Auzitegiak eman aurretik aurreko apartatuan aipatzen den ebazpena, Justizia Administrazioaren letratuak agerraldi baterako dei egingo die ezkontideei eta, kasua denean, Fiskaltzari; 771. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik bideratuko da agerraldi hori.

Ezin izango da errekurtsorik jarri ematen den autoaren aurka.

4. Ezkontide demandatuak ere eskatu ahal izango ditu behin-behineko neurriak aurreko apartatueta xedatutakoaren arabera, aurretiaz hartu ez direnean edo auzi-jartzaileak eskatu ez ditutenean. Demanda-erantzunean egin beharko da eskaera, eta ikustaldi nagusian bideratuko da, ikustaldi hori seinalatzen



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

denean erantzun denetik hurrengo hamar egunen barruan, eta auzitegiak auto errekurriezin bidez ebatziko du epaia ezin bada eman ikustaldia egin eta berehala.

Ikustaldia ezin bada seinalatu adierazitako epean, artikuluko honen 3. apartatuan aipatutako agerraldirako dei egingo du Justizia Administrazioaren letraduak.

5. Behin-behineko neurriak ondorerik gabe geratuko dira epaiak behin betiko ezartzen dituenekin ordeztzen direnean edo prozedura beste modu batean amaitzen denean.

774. artikulua. Behin betiko neurriak.

1. Judizio-ikustaldian, alde zuretik egin ez badute, aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera, ezkontideek auzitegiaren menpe jarri ahal izango dituzte lortutako akordioak, deuseztasunaren, banantzearen edo dibortzioaren ondorioak arautzekoak, eta proposatu ahal izango dute frogak, komenigarritzat jotzen dutena akordio horien bidez kotasuna justifikatzeko.

2. Akordiorik ezean, ezkontideek edo Fiskaltzak proposatutako frogak baliagarri eta egokia gauzatuko da, baita auzitegiak ofizioz erabakitakoa ere, hartu beharreko neurriak erabakitzeko garrantzitsuak diren egitatei buruz.

3. Epaian, auzitegiak ezkontideek elkarrekin adostuta eskatutako neurriei buruz ebatziko du, hala bada hartu badira behin-behineko izaerarekin, nola geroago proposatu badira.

4. Ezkontideen arteko akordiorik ezean edo akordioa onetsi ezean, auzitegiak epaian bertan zehaztuko du zein neurriak ordeztuko dituzten seme-alabei, familiaren etxebizitzari, ezkontzaren zamei, lagun egiten duten animalien erabakitzeari, haiekiko elkarbizitzari eta dituzten beharrei, ondasun-erantzukizuna desegiteari eta kasuan kasuko kautelei edo bermeei buruz aurretiaz jada hartutakoak, eta bidezkoak direnak ezarriko ditu, baldin eta neurriak hartu ez bada kontzeptu horietako baterako.

5. Epaia aurka legegaren arabera jartzen diren errekurtsioak ez dute etengo epaian erabakitako neurrien eragikortasuna. Aurkaratzeak neurriei buruzko pronuntziamentuak soilik ukitzen baditu, Justizia Administrazioaren letraduak deklaratu du irmoa dela deuseztasunari, banantzeari edo dibortzioari buruzko pronuntziamentua.

775. artikulua. Behin betiko neurriak aldatzea.

1. Fiskaltzak, seme-alaba adingabeak edo desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak dituzten seme-alabak egonez gero, eta ezkontideek, kasu orotan, behin betiko neurriak hartu zituen auzitegiari eskatu ahal izango diote alda ditzala ezkontideek hitzartutako neurriak edo akordiorik ezean hartutakoak, betiere funtsean aldatu badira neurriak onestean edo erabakitzean aintzat hartutako inguruabarrak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. 770. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz izapidetuko dira eskabide horiek. Aurrekoa gorabehera, bi ezkontideek elkarrekin adostuta eskatzen badute edo batek eskatzen badu bestea ados egonda eta hitzarmen arauemailearen proposamena aurkeztuta, 777. artikuluan ezarritako prozedurak eraenduko du.

3. Aurreko auzi batean emandako behin betiko neurriak behin-behinean aldatzeko eskatu ahal izango dute alderdiek demandan edo erantzunean. 773. artikuluan aurreikusitakoaren arabera bideratuko da eskabide hori.

776. artikulua. Nahitaez betearaztea neurriei buruzko pronuntziamenduak.

Lege honen III. liburuan xedatutakoaren arabera betearaziko dira neurriei buruzko pronuntziamenduak, honako berezitasun hauekin:

1.) Justizia Administrazioaren letraduak hertsapen-isunak ezarri ahal izango dizkio zenbatekoa ordaintzeko dagozkion betebeharrak behin eta berriro betetzen ez dituen ezkontideari edo gurasoari, 711. artikuluan xedatutakoaren arabera eta hargatik eragotzi gabe haren ondarea erabiltzea zor dituen eta ordaindu ez dituen zenbatekoak diru bihurtzeko.

2.) Ez-diruzko betebeharrak guztiz pertsonalak betetzen ez direnean, ez da bidezkoa izango automatikoki ordeztzea 709. artikuluan hirugarren apartatuan aurreikusitako diruzko baliokidearekin, eta, auzitegiak komenigarria baderitzo, hileroko hertsapen-isunak mantendu ahal izango dira manu horretan ezarritako urtebeteko epetik haratago beharrezkoa den denbora guztian.

3.) Baldin eta guraso zaintzaileak edo zaintzailea ez denak behin eta berriro betetzen ez baditu bisita-araubidetik eratorritako betebeharrak, auzitegiak aldatu ahal izango du zaintza- eta bisita-araubidea, baldin eta hori bat badator adingabearen interes gorenari buruz aurretiaz egindako ebaluazioarekin.

4.) Behin betiko edo behin-behineko neurrietan berariaz aurreikusi gabeko ezohiko gastuek izan behar dutenean nahitaezko betearazpenaren objektu, betearazpena abiarazi aurretik eskatu beharko da aparteko gastutzat deklaratu dadila erreklamaturako zenbatekoa. Aurkakoaren eskura jarriko da ezohiko gastutzat deklaratu dadila eskatzeko idazkia, eta, hurrengo bost egunen barruan aurka eginez gero, auzitegiak alderdiei dei egingo die ikustaldi batera, zeina 440. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera bideratuko baita, eta auto bidez ebatziko du.

777. artikulua. Elkarrekin adostuta edo ezkontideetako batek bestea ados egonda eskaturiko banantzea edo dibortzioa.

1. Artikulu honetan ezarritako prozeduraren bidez izapidetuko dira bi ezkontideek elkarrekin adostuta edo batek bestea ados egonda aurkezturiko banantze- edo dibortzio-eskaerak.

2. Prozedura sustatzen duen idazkiarekin batera, ezkontza-inskripzioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da eta, kasua denean, seme-alaben jaiotzari buruz erregistro zibilean egindako inskripzioarenak, bai eta legeria zibilean ezarritakoarekin bat datorren hitzarmen arauemailearen proposamena eta ezkontideak edo ezkontideek beren eskubidea oinarritzeko duen dokumentua edo dokumentuak ere, kasua denean barnean



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

hartuta familia-bitartekaritzaren prozeduran lortutako azken akordioa. Egitate garrantzitsuren bat ezin bada dokumentu bidez frogatu, ezkontideek egitate hori egiaztatzeko baliatu nahi duten froga proposatuko da idazki berean.

3. Behin banantze- edo dibortzio-eskaera onartuta, Justizia Administrazioaren letraduak hurrengo hiru egunen barruan zitatuko ditu ezkontideak, bananduta berrets dezaten beren eskabidea. Ezkontideetakoren batek ez badu hura berresten, Justizia Administrazioaren letraduak berehala erabakiko du jarduketak artxiba daitezela, eta salbu geratuko da ezkontideen eskubidea, 770. artikuluan xedatutakoaren arabera banantzea edo dibortzioa sustatzekoa. Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpen horren aurka, zuzeneko berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango da auzitegiaren aurrean.

4. Behin eskaera bi ezkontideek berretsita, ekarritako dokumentazioa nahikoa ez bada, hura osatzeko hamar eguneko epea emango die eskatzaileei eskuduna den epaile edo Justizia Administrazioaren letraduak. Epe horretan gauzatuko dira, kasua denean, ezkontideek proposatutako froga eta Kode Zibilak kasuan-kasuan galdatutako inguruabarrak gertatzen direla egiaztatzeko eta hitzarmen arauemailearen proposamena onestea bidezkoa den ala ez hautemateko auzitegiak beharrezkotzat jotako gainerakoa.

5. Seme-alaba adingaberik edo desgaitasuna izan eta laguntza-neurriak gurasoei esleituta dituen seme-alaba adin nagusikorik egonez gero, auzitegiak Fiskaltzari eskatuko dio txostena egin dezala hitzarmenak seme-alabei lotuta ezarritakoari buruz, eta, ofizioz edo fiskalaren, alderdien edo lantalde tekniko judizialeko kideen edo seme edo alabaren beraren eskariz beharrezkotzat jotzen denean entzungo zaie. Aurreko apartatuan aipatutako epean zehar gauzatuko dira jardun horiek, edo, epe hori ireki ez bada, bost eguneko epean.

6. Behin aurreko bi apartatuetan xedatutakoa beteta edo, hori beharrezkoa ez bada, ezkontideek berrespena eman eta berehala, auzitegiak epaia emango du, banantzea edo dibortzioa onartzen edo ukatzen duena eta, kasua denean, hitzarmen arauemaileari buruzko pronuntziamendua duena.

7. Behin banantzea edo dibortzioa onartuta, epaiak ez badu onesten osorik edo zati batean hitzarmen arauemailea, hamar eguneko epea emango zaie alderdiei, beste hitzarmen bat proposa dezaten, kasua denean mugatuta egongo dena auzitegiak onetsi ez dituen puntuetara. Behin proposamena aurkeztuta edo emandako epea proposamenik aurkeztu gabe igarota, auzitegiak autoa emango du hiru eguneko epean, eta bidezkoa dena ebatziko du.

8. Apelazioan errekurritu ahal izango dira banantzea edo dibortzioa ukatzen duen epaia eta ezkontideek proposatutako hitzarmenean jasotakotik aldentzen den neurriren bat erabakitzen duen autoa. Neurriei buruz erabakitzen duen autoaren aurka jarritako errekurtsioak ez du haien efikazia etengo, ezta ukituko ere banantzeari edo dibortzioari buruzko epaiaren irimotasuna.

Fiskaltzak soilik errekurritu ahal izango du hitzarmen-proposamena osorik onesten duen epaia edo autoa, seme-alaba adingabeen intereserako edo desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak dituzten seme-alaben borondatearen, lehentasunen eta eskubideen babeserako errekurritu ere.

9. Artikulu honetan aipatutako prozeduretan, artikulu honetan xedatutakoaren arabera bideratuko da hitzarmen arauemailearen edo auzitegiak erabakitako neurrien aldaketa, baldin eta bi ezkontideek elkarrekin adostuta eskatzen badute edo batek eskatzen badu bestea ados egonda eta hitzarmen arauemaile berria proposatzen bada. Osterantzean, 775. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

10. Eskumena Justizia Administrazioaren letraduarena bada, ez dagoelako desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak dituen seme-alabarik edo emantzipatu gabeko seme-alaba adingaberik, hark hitzarmen arauemaileari buruz pronuntziatuko den dekretua emango du, ezkontideek Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean berrespena eman eta berehala.

Hitzarmen arauemailearen proposamena formalizatzen duen dekretuak ezkontideen banantzea edo dibortzioa deklaratu du.

Irizten badio, bere ustez, hitzarmeneko akordioetakoren bat kaltegarria izan dakioketela edo kalte larriak ekar diezazkiokeela ezkontideetako bati edota ukitutako seme-alaba adin nagusi zein adingabe emantzipatuei, egileesleei ohartaraziko die, eta bukatutzat emango du prozedura. Kasu horretan, ezkontideak epailearengana jo ahal izango dute soilik hitzarmen arauemailearen proposamena onesteko.

Dekretua ez da errekurragarria izango.

778. artikulua. Eliza-azitegien ebazpenen edo ezkontza rato eta burutugabeari buruzko erabaki pontifikalen efikazia zibila.

1. Ezkontza kanonikoaren deuseztasunari buruz eliza-azitegiek emandako ebazpenen edo ezkontza rato eta burutugabeari buruzko erabaki pontifikalen efikazia zibila eskatzeko demandetan, eskatzen ez bada neurriak har edo alda daitezela, azitegiak hamar eguneko eperako entzunaldia emango die beste ezkontideari eta Fiskaltzari, eta auto bidez ebartziko du eliza-ebazpenak edo -erabakiak arlo zibilean duen efikaziari buruz bidezkoa dena.

2. Demandan eskatu denean neurriak har edo alda daitezela, neurriei dagokien eskaerarekin batera bideratuko da ebazpen edo erabaki kanonikoak efikazia zibila izatekoa, 770. artikuluan xedatutakoaren arabera egokitzen den prozedurari jarraituz.

778 bis artikulua. Jokabide-arazoak dituzten adingabeak babeseko berariazko zentroetan barneratzea.

1. Adingabe baten tutoretza edo zaintza daukan erakunde publikoa eta Fiskaltza legitimatuta egongo dira jokabide-arazoak dituzten adingabeak babesteko berariazko zentroetan adingabea barnera dadin baimen judiziala eskatzeko; Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren —Kode Zibila eta Prozedura Zibilarrena partzialki aldatzen dituenaren— 25. artikuluan aipatzen dira haiek. Eskaerarekin batera aurkeztu behar dute hura justifikatzen duen balorazio psikosoziala.

2. Zentro horietan adingabe baten barneratzea baimentzeko eskudun izango dira zentroa dagoen tokiko lehen auzialdiko epaitegiak.

3. Baimen judiziala nahitaezkoa izango da, eta aipatutako barneratzearen aurretik emana izan beharko du, salbu eta, urgentziazko arrazoiengatik, neurria berehala hartzea beharrezkoa denean. Kasu horretan, erakunde publikoak edo Fiskaltzak hurrengo hogeita lau orduen barruan komunikatu beharko diote epaitegi eskudunari, neurri horren nahitaezko berrespena egin dezan gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean epaitegiari barneratzea ezagutarazten zaionetik, eta, baimenik ematen ez bada, berehala utziko da ondorerik gabe barneratzea.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Apartatu honetan aurreikusitako kasuetan, barneratze-zentroa dagoen tokiko lehen auzialdiko epaitegiak izango du neurria berresteko eta prozeduraz arduratzen jarraitzeko eskumena.

4. Epaitegiak, baimena emateko edo jadanik gauzatu den barneratzea berresteko, aztertu eta entzun egin beharko ditu, bai adingabea, zeinari barneratzeari buruzko informazioa eman beharko zaion formatu irisgarrietan eta ulergarria zaion eta haren adinera eta inguruabarretara egokitutako moduan, bai erakunde publikoa, bai guraso-ahala edo tutoretza daukaten gurasoak edo tutoreak, baita agerraldia egitea komenigarria irizten zaion edo hura eskatzen zaion edozein pertsona ere, eta Fiskaltzak txostena egingo du. Epaitegiak berak izendatutako aditu baten irizpena eskuratuko du gutxienez, hargatik eragotzi gabe kasurako garrantzitsu deritzon edo eskatzen zaion beste edozein froga gauzatzea. Barneratzeko baimena edo berrespena bidezkoa izango da, soilik, murriztapen gutxiagoko baldintzetan, modu egokian, artatu ezin denean adingabea.

5. Epaitegiak barneratzeko baimenaz edo berrespenaz emandako ebazpenaren aurka, apelazio-errekurtoa jarri ahal izango dute adingabe ukituak, erakunde publikoak, Fiskaltzak edo adingabeen babesaren gaian emandako ebazpenei aurka egiteko legitimazioa izaten jarraitzen duten gurasoek edo tutoreek. Apelazio-errekurtoak ez du etete-ondorerik izango.

6. Barneratzea erabakitzen duen ebazpen berean adieraziko da ezen erakunde publikoak eta zentroko zuzendariak betebeharra dutela epaitegiari eta Fiskaltzari informazioa periodikoki emateko adingabearen inguruabarrei buruz eta neurria mantentzeko beharrari buruz, hargatik eragotzi gabe epaileak, egoki deritzon, beste txosten batzuk eskatu ahal izatea.

Txosten periodikoak hiru hilabetean behin egingo dira, betiere epaileak epe laburrago bat finkatzen ez badu barneratzearen oinarri izan zen jokabidearen izaera kontuan hartuta.

Behin epea igarota eta erakunde publikoaren eta zentroko zuzendariaren txostenak hartuta, epaitegiak, ezinbesteko irizten dien jardunak egin eta adingabeari eta Fiskaltzari entzun ondoren, bidezkoa dena erabakiko du barneratzearekin jarraitzeari edo ez jarraitzeari buruz.

Barneratzeen kontrol periodikoa zentroa dagoen tokiko lehen auzialdiko epaitegiari egokituko zaio. Adingabea jokabide-arazoak dituzten adingabeak babesteko berariazko beste zentro batera lekualdatzen bada, ez da beharrezkoa izango beste baimen judizial bat, eta beste zentro hori dagoen tokiko lehen auzialdiko epaitegiak hartuko du prozeduraren ardura. Lekualdatze-erabakia pertsona interesdunei, adingabeari eta Fiskaltzari jakinaraziko zaie, eta barneratzeaz arduratzen ari den organoaren aurrean errekurritu ahal izango dute; organo horrek ebatzi egingo du zentroari txostena eskatu ondoren eta pertsona interesdunei, adingabeari eta Fiskaltzari entzun ondoren.

7. Adingabeak ez dira zentroan egongo beren behar bereziak artatzeko behar-beharrezko denbora baino gehiago.

Organo judizial eskudunak erabakiko du amaiera, ofizioz edo erakunde publikoak edo Fiskaltzak proposatuta. Alde psikologiko, sozial eta hezkuntzakoen gaineko txosten batean oinarrituko da proposamen hori.

8. Ematen diren ebazpenen berri emango zaio adingabeari.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

778 ter artikulua. Egoitzetara eta gainerako tokietara sartzeari adingabeen babes-neurriak nahitaez betearazteko.

1. Erakunde publikoak berak egoitza duen tokian eskumena daukan lehen auzialdiko epaitegiari eskatu beharko dio egoitzetan eta gainerako eraikinetan eta tokietan sartzeko baimena, erakunde horrek adingabe bat babesteko hartutako neurriak nahitaez betearazteko beharrezkoa denean hura, betiere haietan sartzeko haien titularraren edo okupatzailearen adostasuna behar bada. Ebazpen judizial batek konfirmatutako egintza baten betearazpena denean, hura eman zuen organoari zuzenduko zaio eskaera.

2. Eskaera idazki bidez hasiko da, eta honako puntu hauek jasoaraziko dira, gutxienez, bertan:

- a. Eskaeraren oinarri den administrazio-ebazpena edo espedientea.
- b. Zein egoitzatan edo tokitan sartu nahi den zehazki, eta bertara sartzeko adostasuna eman behar duen titularraren edo okupatzailearen identitatea.
- c. Adostasun hori lortzen saiatu eta emaitzarik lortu ez izanaren edo emaitza negatiboaren justifikazioa. Hura beharrezkoa ez den kasuan, inguruabar hori arrazoiturik jasoaraziko da eskaera-idazkian, eta ez da beharrezkoa izango aipatutako justifikazioa ekartzea.
- d. Sarrera horren beharra erakunde publikoaren ebazpena betearazteko.

3. Behin erakunde publikoak eskaera aurkeztuta, egun berean helaraziko dio hura Justizia Administrazioaren letraduak, egoitzaren edo eraikinaren titularrari edo okupatzaileari, hurrengo 24 orduko epean bere eskubideari komeni zaiona alega dezan baimena ematearen bidez kotasunari buruz soil-soilik.

Aurrekoa gorabehera, erakunde publiko eskatzaileak arrazoiturik eta sarrera erabakitzeko urgentziazko arrazoiak badirela egiaztaturik hala eskatzen duenean, dela administrazio-ebazpena betearazteko atzerapenak adingabearen segurtasunarentzako arriskua sor dezakeelako, dela haren oinarritzko eskubideei benetan eta berehala eragiten zaielako, epaileak hura erabaki ahal izango du berehala autoa eman ez eta, kasu orotan, gehienez jota eskaera hartu eta hurrengo 24 orduko epean, aurretiaz Fiskaltzak txostena eginda. Emandako autoan, bananduta arrazoituko dira neurriaren betekizunak bete izana eta interesdunari entzun gabe erabaki hura hartzea aholkatu duten arrazoiak.

4. Behin interesdunak alegazio-idazkia aurkeztuta edo, hura egin gabe, epea igarota, epaileak sarrera erabakiko edo ukatuko du, auto bidez, gehienez hurrengo 24 orduko epean, Fiskaltzak txostena egin ondoren eta aurretiaz baloratuta artikuluko honen 3. apartatuan aipatutakoak bete diren, erakunde publikoa betearazi nahi den egintza emateko eskuduna den, eta eskatutako sarrera legezkoa, beharrezkoa eta proportzionala den babes-neurriarekin lortu nahi den helburua erdiesteko.

5. Sarrera baimentzen duen autoan, hura gauzatzeko muga materialak eta denborazkoak jasoaraziko dira, zeinak babes-neurria betearazteko beharrezkoak soilik izango diren.

6. Sarrera baimentzen duen autoaren lekukotza erakunde publiko eskatzaileari entregatuko zaio, gauzatu dezan. Autoa luzamenik gabe jakinaraziko zaie prozeduran esku hartu duten alderdiei, eta, esku hartu ez badute edo jakinarazpena ezin izan bazaie egin sartzeko-eginbidea gauzatu aurretik, Justizia Administrazioaren letraduak eginbidea gauzatzean jakinaraziko du hura.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

7. Baimena erabakitzen edo ukatzen duen autoaren aurka, nahiz eta interesdunari aurretiaz entzun gabe eman, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, etete-ondorerik gabe; autoaren jakinarazpenetik kontatzen hasita hurrengo hiru eguneko epean jarri beharko da, eta lehentasunez izapidetuko da.

Eskaera ukatu arren, erakunde publikoak berriro egin ahal izango du hura, eskabidearen unean ziren inguruabarrak aldatuz gero.

8. Justizia Administrazioaren letraduak gauzatuko du egoitzarako sarrera, ezarritako mugen barruan eta erakunde publiko eskatzaileak lagunduta; indar publikoen laguntza izan dezake, beharrezkoa izanez gero. Behin eginbidea amaituta, prozeduraren artxiboa dekretatuko da.

IV BIS KAPITULUA

Adingabeak itzultzeari edo bueltatzeari buruzko neurriak, nazioarteko oste kasuetan

778 quater artikulua. Aplikazio-eremua. Arau orokorrak.

1. Nazioarteko hitzarmen bat edo Europar Batasuneko xedapenak aplikagarriak izanik adingabe bat itzuli edo bere jatorrira bueltatu nahi bada lekualdatze edo atxikitze ez-zilegi baten objektu izan delako eta Espainian badago, kapitulu honetan aurreikusitakoarekin bat etorritz jardungo da. Ez da aplikatzekoa izango adingabeak jatorri duen estatua Europar Batasuneko kidea izan ez eta nazioarteko hitzarmenen bateko partaidea ez bada.

2. Prozesu horietan, eskudun izango da, halakorik balego, probintziako hiriburuko edo Ceutako edo Melillako lehen auzialdiko epaitegia, familia-zuzenbidearen gaian eskumenak dituen, zeinaren muga-barruan lekualdatze edo atxikitze ez-zilegi baten objektu izan den adingabea dagoen, eta, halakorik ezean, banaketa-txandaren arabera egokitzen dena. Auzitegiak ofizios aztertuko du bere eskumena.

3. Prozedura sustatu ahal izango dute adingabearen zaintza eta jagoletza esleitua duen pertsonak, instituzioak edo organismoak, edo adingabearekiko egonaldi- edo bisita-araubidea edo harremanekoa edota komunikaziokoa duenak, kasuan kasuko hitzarmenak ezarritako betebeharrak betetzeaz arduratzen den Espainiako agintaritzak zentralak, kasua denean, eta, haren ordezkartzan, agintaritzak horrek izendatzen duen pertsonak.

4. Alderdiek abokatuak lagunduta eta prokuradoreak ordezkaturak jardun beharko dute. Estatuaren Abokatutzaren esku-hartzea, Espainiako agintaritzak zentralak eskatuta egiten denean, amaitu egingo da itzultzeko edo bueltatzeko eskaeraren egilea bere abokatuarekin eta prokuradorearekin prozesuan agertzen den unetik.

5. Prozedurak urgentziazko eta lehentasunezko izaera izango du. Guztira sei asteko epe saihetsezinean egin beharko da, bi auzialdietan, halakorik balego, adingabea itzultzeko edo bueltatzeko eskaera aurkezten den datatik kontatzen hasita, salbu eta hura ezinezko egiten duten salbuespenezko inguruabarrak badaude.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

6. Ezein kasutan ez da aginduko jardun zibilen etendura prejudizialitate penala egoteagatik, zeinaren zioa adingabe-ostearen gaian akzio penalak egikaritzea izan den.

7. Mota honetako prozesuetan, eta herrialde desberdinetako jurisdikzio-organoen arteko zuzeneko komunikazio judizialak errazteko helburuarekin, posible izanez gero eta epaileak beharrekotzat joz gero, laguntza eskatu ahal izango zaie inplikaturako agintaritzea zentralei, existitzen diren nazioarteko lankidetzak judizialeko sareei, Hagako Konferentziako Epaileen Nazioarteko Sareko kideei eta lotura-epaileei.

8. Epaileak, prozesu osoan zehar, ofizioz, prozeduraren sustatzaileak edo Fiskaltzak eskatuta, 773. artikulua arabera egoki irizten dien kautela-neurri egokiak eta adingabea segurtatzekoak erabaki ahal izango ditu, Kode Zibilarren 158. artikuluan aurreikusten direnez gain.

Modu berean, erabaki ahal izango du adingabeak demandatzailearekin dituen egonaldi- edo bisita-eskubideak, harremanarenak eta komunikazioarenak berma daitezela prozesua izapidetzean, baita gainbegiratuta ere, adingabearen interesentzat komenigarria bada.

778 quinquies artikulua. Prozedura.

1. Prozedura demanda bidez hasiko da, zeinean adingabea itzultzeko edo jatorrira bueltatzeko eskatuko den eta nazioarteko araudi aplikagarriak galdatutako informazio guztia bilduko den, eta, kasu orotan, demandatzailearen, adingabearen edo ustez adingabea ostu edo atxiki duen pertsonaren identitateari buruzkoa, bai eta adingabearen itzulera edo buelta erreklamatzeko oinarri diren zioak ere. Adingabearen lokalizazioari eta ustez harekin dagoen pertsonaren identitateari buruz eskura duen informazio guztia ere ekarri beharko du.

Demandarekin batera aurkeztu beharko dira, kasua denean, kasuan kasuko nazioarteko hitzarmenak edo arauak eskatutako dokumentazioa eta eskatzailearen eskabidearen oinarri den beste edozein.

2. Justizia Administrazioaren letraduak demandaren onarpenari buruz ebartziko du hurrengo 24 orduko epean, eta, ulertzen badu demanda ez dela onargarria, epaileari kontu emango dio, bidezkoa dena ebartz dezan epe horretan.

Demanda onartzen den ebazpen berean, Justizia Administrazioaren letraduak errekerimendua egingo dio adingabea modu ez-zilegian ostu edo atxiki izana egotzen zaion pertsonari, zehazten den datan, zeinak ezin izango dituen gaintitu hurrengo hiru egunak, adingabearekin ager dadin eta adieraz dezan hura itzultzea edo bueltatzea onartzen duen ala hari aurka egiten dion, kasu horretan alegatuz kasuan kasuko nazioarteko hitzarmenean edo arau aplikagarrian ezarritako kausetakoren bat.

Errekerimendua egingo da legezko ohartarazpenekin eta kasuan kasuko nazioarteko hitzarmenaren edo arau aplikagarriaren testua errekerituari entregatuz.

3. Adingabea demandan zehaztutako tokian aurkitzen ez denean eta Justizia Administrazioaren letraduak haren egoitzari edo bizilekuari buruz kasuan kasuko ikerketak egin ondoren haiek antzuak izan direnean, prozedura behin-behinean artxibatuko da hura aurkitu arte.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Adingabea beste probintzia batean aurkitu badute, Justizia Administrazioaren letraduak, Fiskaltzari eta pertsonatutako alderdiei egun bateko epean aurretiaz entzunda, epaileari kontu emango dio, bidezkoa dena hurrengo egunean ebatz dezan, auto bidez, eta, kasua denean, jarduketak lurralde-eskumena duela deritzon auzitegiari igorriko dizkio eta alderdiak epatuko ditu haren aurrean ager daitezen hurrengo hiru eguneko epean.

4. Behin eguna iritsita, errekeritua agertu bada eta onartzen badu adingabea itzultzea edo haren jatorrira bueltatzea, kasuan-kasuan egokitzen dena, Justizia Administrazioaren letraduak akta egingo du, eta epaileak auto bat emango du egun berean, prozesuaren amaiera eta adingabea itzultzea edo bueltatzea erabakitzen duena eta gastuei, bidaietakoak barne, eta prozesuko kostuei buruz pronuntziatzen dena.

Demandatua edozein unetan agertu ahal izango da prozedura bukatu aurretik, eta adingabea entregatzea edo jatorrira bueltatzea onartu; apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko da.

5. Agertzen ez bada edo agertu baina forma egokian egiten ez badu edo aurka egiten ez badu edota, kasu horretan, adingabea entregatzen edo bueltatzen ez badu, Justizia Administrazioaren letraduak egun berean deklaratu du auzi-ihesean dagoela, prozedurak bera gabe jarrai dezala xedatuko du eta demandatzailea eta Fiskaltza soilik zitatuko ditu, gehienez ere hurrengo bost eguneko epean epailearen aurrean egingo den ikustaldi batera, zeina artikulua honen seigarren apartatuan xedatutakoaren arabera egingo den. Ebazpen hori, dena den, demanduari jakinarazi beharko zaio, eta, ondoren, ez zaio beste jakinarazpenik egingo, prozesuari amaiera ematen dion ebazpenari buruzkoa izan ezik.

Epaileak adingabeari begira egoki irizten dien kautela-neurriak dekretatu ahal izango ditu, aldez aurretik hartu ez baditu, 773. artikuluaaren arabera.

6. Kasuan kasuko nazioarteko hitzarmenean edo arau aplikagarrian ezarritako kausen babesean errekerituak lehenengo agerraldian aurka egiten badio adingabea itzultzeari edo bueltatzeari, zeina idatziz egin beharko duen, Justizia Administrazioaren letraduak egun berean helaraziko die aurkakotza interesdun guztiei eta Fiskaltzari eta zitazioa egingo die hurrengo bost eguneko epe luzaezinean egingo den ikustaldi baterako.

7. Demandatzailea agertzen ez bada, ikustaldia ez da atzeratuko. Aurka egin duen demandatua bada agertzen ez dena, epaileak aurkakotzan atzera egindakotzat emango du, eta ikustaldiak aurrera jarraituko du.

Hura egiten den bitartean, agertutako alderdiei entzungo zaie, bidezkotzat jotzen dutena azal diezaieten, zehazki, itzulera edo buelta eskatu zuen pertsonari, Fiskaltzari eta alderdi demandatuari, nahiz eta izapide honetan lehenengo aldiz agertu.

Kasua denean, alderdiek edo Fiskaltzak proposatutako froga baliagarriak eta egokiak eta epaileak ofizioz erabakitakoak gauzatuko dira, zeinak lekualdaketa edo atxikipena zilegia den ala ez erabakitzeko egitate garrantzitsuei eta hartu beharreko neurriei buruzkoak diren, sei eguneko epe luzaezinean. Epaileak, ofizioz edo alderdiaren edota Fiskaltzaren eskariz, egoki irizten dien txostenak ere eskatu ahal izango ditu, eta haiek egitea beste edozein prozesu baino urgenteagoa eta lehentasunezkoagoa izango da.

8. Edozein erabaki hartu aurretik adingabea itzultzeko edo jatorrira bueltatzeko bidezkotasunari edo bidezkotasunik ezari buruz, epaileak, prozesuko edozein unetan eta Fiskaltza aurrean egonda, adingabeari



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

bereizirik entzungo dio, salbu eta adingabearen adina edo heldutasun-maila kontuan hartuta hari entzutea komenigarritzat jotzen ez bada; ebazpen ziodunean jasoaraziko da hori.

Adingabea aztertzean, bere interesak babesteko baldintza egokietan entzun dakiola bermatuko da, beste pertsona batzuen interferentziarik gabe, eta, salbuespenez, espezialisten laguntza eskatuko da, beharrezkoa izanez gero. Jardun hori bideokonferentziaz edo antzeko beste sistema batez egin ahal izango da.

9. Behin ikustaldia eginda eta, kasua denean, froga egokiak gauzatu, hura amaitu eta hurrengo hiru egunen barruan, epaileak epai bat emango du, soilik pronuntziatuko dena lekualdaketa edo atxikipenaren zilegitasunari buruz eta erabakiko duena bidezkoa den ala ez adingabea itzultzea zaintza eta jagoletza esleituta duen pertsonari, instituzioari edo organismoari edo jatorrira bueltatzea, eskatzaileari adingabearekin egonaldi-, komunikazio- edo harreman-araubidea ahalbidetzeko, kontuan hartuta adingabearen interes gorena eta kasuan kasuko hitzarmenean edo Europar Batasunak gai horretan emandako xedapenetan ezarritakoa, kasuaren arabera. Adingabea itzultzea edo bueltatzea erabakitzen duen ebazpenak zehatz-mehatz ezarriko ditu betearazteko modua eta epea, eta adingabearen beste lekualdatze edo atxikitze ez-zilegi bat saihesteko behar diren neurriak hartu ahal izango ditu epaia jakinarazi ondoren.

10. Adingabea itzultzea edo bueltatzea erabakitzen bada, ebazpenean ezarriko da adingabea lekualdatu edo atxiki duen pertsonak ordain ditzala prozesuko kostuak, barnean hartuta eskatzaileak izan dituenak, bidaia-gastuak eta adingabea itzultzeak edo ostua izan baino lehen zuen ohiko bizilekuko estatura bueltatzeak sortutakoak.

Gainerako kasuetan, ofizioz deklaratuko dira prozesuko kostuak.

11. Ematen den ebazpenaren aurka, apelazio-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da, etete-ondoreekin, zeina lehentasunez izapidetuko den eta hogeita hamar eguneko epe luzaezinean ebatzi beharko den.

Apelazio-errekurtsoa izapidetzean honako berezitasun hauek beteko dira:

- Hamar eguneko epean jarriko da errekurtsioa ebatzi behar duen auzitegiaren aurrean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta organo judizialak hura onartu ala ez erabaki beharko du errekurtsioa aurkeztu eta hurrengo hogeita lau orduetan.
- Behin errekurtsioa onartuta, gainerako alderdiek hiru egun izango dituzte errekurtsioari aurka egiteko idazkia edo, kasua denean, hura aurkaratzekoa aurkezteko. Azken kasu horretan, apelatzaile nagusiak ere hiru eguneko epea izango du komenigarritzat jotzen duena adierazteko.
- Froga gauzatu behar bada edo ikustaldia egitea erabakitzen bada, Justizia Administrazioaren letratuak eguna finkatuko du hurrengo hiru egunetarako.
- Ikustaldia amaitu eta hurrengo hiru egunen barruan eman beharko da ebazpena edo, ikustaldirik ezean, apelaziorako auzitegi eskudunean autoak hartu diren egunaren biharamunetik kontatuko dira hiru egunak.

12. Prozesuaren edozein unetan eskatu ahal izango dute bi alderdiek hura eten dadila 19.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, bitartekaritzapean jartzeko. Epaileak ere edozein unetan proposatu ahal izango du, ofizioz edo alderdietako edozeinen eskariz, bitartekaritza-konponbide bat, baldin eta, gertatutako



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

inguruabarrak kontuan hartuta, irizten badio akordio batera irits daitezkeela, betiere horrek ez badakar prozesuaren justifikaziorik gabeko atzerapena. Halakoetan, Justizia Administrazioaren letraduak prozedura eten dadila erabakiko du bitartekaritza izapidetzeko behar den denborarako. Adingabea babesteko funtzioa daukan erakunde publikoak bitartekari gisa esku har dezake, hala eskatuz gero ofizioz, alderdiek edo Fiskaltzak.

Bitartekaritza-prozeduraren iraupena ahalik eta laburrena izango da, eta haren jardunak ahalik eta saio-kopuru txikienean kontzentratuko dira; prozesua bitartekaritzarako etenda ere, inoiz ere ezin izango da gainditu kapitulu honetan aurreikusitako legezko epea.

Berririo ekingo zaio prozedura judizialari alderdietako edozeinek eskatzen badu edo bitartekaritzan akordio bat lortzen bada, zeina epaileak onetsi beharko duen indarrean dagoen araudia eta haurraren interes gorena kontuan hartuta.

13. Adingabea itzultzea edo jatorriko estatura bueltatzea erabakitzen duen epaiaren betearazpenean, agintaritza zentralak beharrezkoa den laguntza emango dio epaitegiari, hura arriskurik gabe egingo dela bermatzeko, eta, kasu bakoitzean, beharrezkoak diren neurri administrazioak hartuko dira.

Adingabea itzultzea edo bueltatzera kondenatua izan den gurasoak aurka egiten badu edo hura betetzea eragozten edo oztopatzen badu, epaileak epaia berehala betearazteko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu, eta gizarte-zerbitzuen eta segurtasuneko indar eta kidegoen laguntzaz baliatu ahal izango da.

778 sexies artikulua. Nazioarteko lekualdaketa edo atxikipen bat zilegia ez dela deklaratzeko.

Espainian ohiko bizilekua duen adingabe bat nazioarteko lekualdatze edo atxikitze baten objektua denean, kasuan kasuko nazioarteko hitzarmenean edo arau aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz, edozein interesdunek jo ahal izango du, haren nazioarteko itzultzea eskatzeko hasiko den prozesua alde batera utzita, Espainian auzigaiaren funtsaz arduratzeko eskumena duen agintaritza judizialarengana lekualdatzea edo atxikitzea zilegia izan ez dela zehazten duen ebazpen bat lortzeko helburuarekin, eta, horretarako, IV. liburuaren I. tituluan eskura dauden bide prozesalak erabili ahal izango dira behin betiko edo behin-behineko neurriak, baita 158. artikuluko neurriak ere, har daitezen Espainian.

Adingabea ukitu duen guraso-erantzukizunari buruzko edozein prozesuz Espainian arduratu den azken agintaritza judiziala izango da eskuduna, Espainian, nazioarteko adingabe-ostearen alderdi zibilei buruzko 1980ko urriaren 25eko Hagako Hitzarmenaren 15. artikuluko erabaki edo ziurtagiri bat emateko, zeinak adingabearen lekualdatzea edo atxikitzea ez zela zilegia izan egiaztatzen duen hitzarmenaren 3. artikuluan aurreikusitako zentzuan, betiere hura ematea posible denean. Halakorik ezean, adingabeak Espainian izandako azken egoitzako lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna. Espainiako agintaritza zentralak ahal duen guztia egingo du eskatzaileari laguntzeko mota horretako erabaki edo ziurtagiri bat lor dezan.

V. KAPITULUA



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenei aurka egiteaz, adopzioan baiezkota eman beharra zehazteko prozeduraz eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak erregistro zibilaren gaian emandako ebazpen eta egintza jakin batzuei aurka egiteaz.

779. artikulua. Prozeduraren lehentasunezko izaera. Eskumena.

Adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenen aurkakotza bideratzen duten prozedurek lehentasunezko izaera izango dute, eta haiek hasi eta hiru hilabeteko epean egin beharko dira. Prozedura-metaketak ez du gehieneko epea etengo.

Haietaz arduratzeko eskudun izango da erakunde publikoaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegia, eta, halakorik ezean edo Kode Zibilaren 179. eta 180. artikuluetako kasuetan, adoptatzailearen egoitzako auzitegia.

780. artikulua. Adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenei aurka egitea.

1. Ez da beharrezkoa izango aurretiaz administrazio-bidean erreklamazioa egitea adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenei auzitegi zibilen aurrean aurka egiteko. Jakinarazten direnetik bi hilabeteko epean egin ahal izango zaie aurka.

Adingabeen babesa gai duten administrazio-ebazpenei aurka egiteko legitimatuta egongo dira, betiere ebazpen horretan interes legitimoa eta zuzena izanez gero, ebazpenak ukitutako adingabeak, gurasoak, tutoreak, harreragileak, zaintzaileak, Fiskaltza eta legeak berariaz legitimazio hori aitortzen dien pertsonak. Auzi-jartzaileak izan ez arren, edozein unetan pertsonatu ahal izango dira prozeduran, jardunek atzera egin beharrik gabe.

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik, adingabeek eskubidea izango dute prozesuan alderdi izateko eta entzunak izateko. Haien legezko ordezkarien bidez, betiere eurekin interes kontrajarriak ez badituzte, edo eurek ordezkatzeko defendatzaile gisa izendatzen den edo eurek izendatzen duten pertsonaren bidez egikaritu dituzte eurak ukitzen dituzten administrazio-ebazpenei lotutako uziak.

2. Adingabeen babesa gai duen administrazio-ebazpen bati aurka egiteko prozesua hasierako idazki bat aurkeztuz abiatuko da, zeinean auzi-jartzaileak labur-labur adieraziko duen uzia eta zein ebazpeni egiten dion aurka.

Idazkian, administrazio-ebazpenaren jakinarazpen-data berariaz jasoko du, eta adingabe horri buruzko prozedurarik baden adieraziko du.

3. Justizia Administrazioaren letraduak espedientearen lekukotza oso bat edo kopia autentiko bat erreklamatu dio administrazio-entitateari, eta hamar eguneko epean ekarri beharko da.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Administrazio-entitatea errekeritu ahal izango da ikustaldia baino lehen auzitegiari adingabearen espedientearen izandako eguneratzeak ekartzeko.

4. Behin administrazio-espedientearen lekukotza edo kopia autentikoa hartuta, Justizia Administrazioaren letratuak, gehienez ere bost eguneko epean, hamar egunerako epatuko du auzi-jartzailea, demanda aurkez dezan; 753. artikuluan aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da demanda.

Judizioa amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan emango da epaia auzitegiak.

5. Ezabatu da.

6. Fiskaltza, alderdiak edo epaile eskuduna jakitun badira adingabe bera babestea gai duten administrazio-ebazpenei aurka egiteko prozedura bat baino gehiago daudela, prozedurarik antzinakoenaz arduratzen den epaitegian meta daitezela eskatuko dute lehenengoei eta xedatuko du bigarrenak, baita ofizioz ere.

Behin metaketa erabakita, 84. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da, baina berezitasun batekin: metatutako gainerako prozesuak seinalamenduak zehaztutako epean izapidetzea posible izanez gero, seinalatutako ikustaldia ez da atzeratuko. Kontrako kasuan, jadanik ikustaldia finkatuta duena atzera dadila erabakiko du Justizia Administrazioaren letratuak, harik eta gainerakoak egoera berean egon arte, eta beste seinalamendu bat egingo du guztientzat, lehentasunezko izaerarekin eta hurrengo hamar egunen barruan betiere.

Metaketa ukatzen duen autoaren aurka, berraztertze-errekurtsoa eta apelaziokoa jarri ahal izango dira, etete-ondorerik gabe. Metaketa erabakitzen duen autoaren aurka, ezin izango da errekurtsorik jarri.

781. artikulua. Adopzioan baiezkoa eman beharra zehazteko prozedura.

1. Adopzioarako beren baiezkoa eman beharra aitortzea nahi duten guraso biologikoak kasuan kasuko adopzio-espedienteaz arduratzen ari den auzitegiaren aurrean agertu ahal izango dira, eta hala adierazi. Justizia Administrazioaren letratuak, espedientea etenda, hamabost eguneko epea emango du demanda aurkezteko; auzitegi bera izango da hartaz arduratzeko eskuduna.

2. Finkatutako epean demanda aurkeztzen ez bada, Justizia Administrazioaren letratuak dekretu bat emango du, izapidea bukatutzat ematen duena eta adopzio-espedientearen etendura amaitutzat ematen duena; borondatezko jurisdikzioaren legerian ezarritakoarekin bat etorritik izapidetzen jarraituko da espedientea. Berrikuspen-errekurtsoa jar daiteke dekretuaren aurka, zuzenean, auzitegiaren aurrean. Ebazpen hori irmoa denean, ez da onartuko subjektu berberen osteko beste erreklamaziorik kasuko adopzioarako baiezkoa eman beharrari buruz.

3. Behin demanda epe barruan aurkeztuta, Justizia Administrazioaren letratuak dekretu bat emango du, adopzio-espedientea auzitara eramatekoa dela deklaratzeko duena, eta erabakiko du aurkeztutako demanda prozedura berean izapidetzea, pieza banandu gisa, 753. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Behin adoptagaiaren guraso biologikoen baiezkoaren beharrari buruzko pieza bananduan emandako ebazpena irmoa izanda, Justizia Administrazioaren letratuak erabakiko du epailearen aurrean agertzeko



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

zitazioa egin dakiela Kode Zibilarren 177. artikuluan zehaztutakoaren arabera adopzioari adostasuna edo baiezkota eman behar dioten edo entzun egin behar zaien pertsonen, oraindik halakorik egin ez badute, eta adopzioari buruz ebatzi beharko du jarraian.

Borondatezko Jurisdikzioaren Legean halako kasuetarako ezarritako arauekin bat etorritz egingo dira zitazioak.

Prozedura amaitzen duen autoaren aurka, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, etete-ondoreak izango dituenak.

Adopzioa erabakitzen duen ebazpen irmoaren lekukotza erregistro zibilera igorriko da, haren inskripzioa egin dadin.

781 bis artikulua. Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak erregistro zibilarren gaian emandako ebazpenei eta egintzei aurka egitea.

1. Ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean formulatu ahal izango da Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak erregistro zibilarren gaiez emandako ebazpenen eta egintzen aurkakotza, salbu eta bizilekuagatiko nazionalitatearen gaian emandakoena, eta ez da beharrezkoa izango aurretiaz erreklamazio administratiboa egitea.

2. Ebazpenei aurka egin nahi dienak hasierako idazki bat aurkeztuko du, eta bertan laburki adieraziko du zein den bere uzia eta zein ebazpeni egiten dion aurka.

3. Justizia Administrazioaren letraduak espedientearen lekukotza oso bat edo kopia autentiko bat erreklamatu dio Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, eta hoguei eguneko epean ekarri beharko da.

4. Behin administrazio-espedientearen lekukotza edo kopia autentikoa hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak hoguei egunerako epatuko du auzi-jartzailea, demanda aurkez dezan; 753. artikuluan aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da demanda.

II. TITULUA

Ondareen zatiketa judizialaz

I. KAPITULUA

Jaraunspenaren zatiketaz

1. atala. Jaraunspena zatitzeko prozeduraz



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

782. artikulua. Jaraunspenaren zatiketa judiziala eskatzea.

1. Edozein jaraunskidek edo zati alikuotaren legatu-hartzailek judizialki erreklamatu ahal izango du jaraunspenaren zatiketa, betiere zatiketa hori komisario edo kontulari-banatzaile izendatu batek egin behar ez badu, testamentugileak edo jaraunskideen arteko akordio bidez edota Justizia Administrazioaren letraduak nahiz notarioak izendatuak.

2. Eskararekin batera, aurkeztu beharko dira heriotza-ziurtagiria, zein pertsonaren oinordetza izan eta harena, eta eskatzailearen jaraunsele edo legatu-hartzaile izaera egiaztatzen duen dokumentua.

3. Hartzekodunek ezin izango dute eskatu zatiketa, baina jaraunspenaren, jaraunspen-erkidegoaren edo jaraunskideen aurka dagozkien akzioak egikaritu ahal izango dituzte kasuan kasuko deklarazio-judizioan, jaraunspena zatitzeko jardunak eten eta oztopatu gabe.

4. Hala ere, testamentuan hartzekoduntzat aitortu direnek edo jaraunskideek halakotzat aitortu dituztenek eta titulu betearazle batean beren eskubidea dokumentatuta daukatenek aurka egin ahal izango diote jaraunspenaren banatzeari, harik eta beren kredituen zenbatekoa ordaindu arte edo fidantzan eman arte. Edozein unetan egin ahal izango da eskabide hori, jaraunsele bakoitzari adjudikatutako ondasunak entregatu baino lehen.

5. Jaraunskide baten edo gehiagoren hartzekodunek beren kontura esku hartu ahal izango dute banaketan, beren eskubideei iruzur edo kalte egin ez dakien zatiketa gauzatzean.

783. artikulua. Batzarrerako deialdia, kontularia eta adituak izendatzeko.

1. Behin jaraunspenaren zatiketa judiziala eskatuta, erabakiko da esku har dadila jaraunspeneko ondasuntzan eta egin dadila inbentarioa, hala eskatu bada eta bidezkoa bada.

2. Aurreko jardunak gauzatuta edo, beharrezkoak ez badira, behin jaraunspena judizialki zatitzeko eskaera ikusita, Justizia Administrazioaren letraduak batzarrerako dei egingo die jaraunseleei, zati alikuotaren legatu-hartzaileari eta alargunari, eta eguna seinalatuko du hurrengo hamar egunen barruan.

3. Jardunetan jada pertsonatuta dauden interesdunak prokuradorearen bidez zitatuko dira. Pertsonatuta ez daudenak pertsonalki zitatuko dira, haien bizilekua ezaguna bada. Ezaguna ez bada, ediktu bidez deituko zaie, 164. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

4. Justizia Administrazioaren letraduak Fiskaltzari ere egingo dio dei, ordezkari ditzan jaraunspenean interesa izan baina ordezkari-tza legitimorik ez duten adingabeak eta egonleku ezezaguna duten absenteak. Fiskaltzaren ordezkari-tza bukatuko da behin adingabeak legezko ordezkariak gaitu eta gero eta, absentei dagokienez, judizioan agertzen direnean edo pertsonalki zitatu daitezkeenean, geroago berriz absente badira ere.

5. Justizia Administrazioaren letraduak batzarrera deituko ditu aurreko artikuluen 5. apartatuan aipatutako hartzekodunak, prozeduran pertsonatuta badaude. Ez dira zitatuko pertsonatuta ez daudenak,



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

baina batzarrean parte hartu ahal izango dute seinalatutako egunean bertaratu eta beren kredituak justifikatzeko tituluak ekartzen badituzte.

784. artikulua. Kontularia eta adituak izendatzea.

1. Seinalatutako egunean eta orduan egingo da batzarra, bertaratzen direnekin, Justizia Administrazioaren letradua buru dela.

2. Interesdunak ados jarri beharko dira ondasuntzaren zatiketa-eragiketak gauzatuko dituen kontulari bat izendatzeko, bai eta ondasunen balioespenean esku hartu behar duen aditua edo adituak izendatzeko ere. Ezin izango da aditu bat baino gehiago izendatu balio justua ezarri behar zaion ondasun-mota bakoitzeko.

3. Batzarrean ez bada adostasunik lortzen kontularia izendatzeko, zozketa bidez izendatuko da bat, 341. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, gaian ezagutza bereziak izan eta judizio-tokian bulego profesionala duten jarduneko abokatuen artean. Adituei buruzko adostasunik ezean, prozedura bera erabiliz izendatuko dira kontulariak edo kontulariek beharrezkotzat jotzen dituztenak balioespenak egiteko, baina inoiz ez da bat baino gehiago izendatuko tasatu behar den ondasun-mota bakoitzeko.

4. Zozketa bidez izendatutako kontulariari aplikagarria izango zaio adituen errekusaziorako eta funts-hornidurarako xedatutakoa.

785. artikulua. Kontulariari dokumentazioa entregatzea. Onartutako enkargua betetzeko betebeharra eta hura egiteko epea.

1. Behin kontularia eta kasua denean adituak aukeratuta, onarpenaren ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak lehenengoari autoak entregatuko dizkio, eta haren eta adituen eskura jarriko ditu objektu, dokumentu eta paper guztiak, beharrezkoak dituztenak inbentarioa egiteko, egiteke egonez gero, eta jaraunspeneko ondasuntza balioesteko, likidatzeko eta zatitzeko.

2. Kontulariaren onarpenak eskubidea emango dio interesdunetako bakoitzari kontularia behartzeko bere enkargua betetzera.

3. Alderdi-eskariz, Justizia Administrazioaren letraduak epe bat finkatu ahal izango dio kontulariari eginbide bitartez, zatiketa-eragiketak aurkez ditzan, eta, aurkezten ez baditu, kalte-galeren erantzulea izango da.

786. artikulua. Zatiketa-eragiketak gauzatzea.

1. Kontulariak kausatzailearen oinordetzari aplikagarria zaion legean xedatutakoaren arabera egingo ditu zatiketa-eragiketak; baina, testamentugileak beste erregela batzuk ezarri baditu bere ondasunen inbentarioa, balioespena, likidazioa eta zatiketa egiteko, bete beharko du haietatik eratorritakoa, betiere



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

kalterik egiten ez badiete nahitaezko jaraunsleen seniparteei. Beti ahaleginduko da indibisioa saihesten, bai eta finken gehiegizko zatiketa ere.

2. Gehien jota, bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dira zatiketa-eragiketak, hasi zirenetik kontatzen hasita, eta kontulariak sinatutako idazki batean bilduko dira, zeinean adieraziko baitira:

- 1.) Ondasuntza banagarria osatzen duten ondasunen zerrenda.
- 2.) Zerrenda horretan bildutakoen balioespena.
- 3.) Ondasuntzaren likidazioa, zatiketa eta partaide bakoitzari egin beharreko adjudikazioa.

787. artikulua. Zatiketa-eragiketak onestea. Haiei aurka egitea.

1. Justizia Administrazioaren letraduak alderdiei helaraziko dizkie zatiketa-eragiketak, eta hamar egunerako epatuko ditu aurkakotza formula dezaten. Epe horretan zehar, alderdiek bulego judizialean aztertu ahal izango dituzte autoak eta zatiketa-eragiketak, eta eskatzen dituzten kopiak lortu ahal izango dituzte beren kontura.

Idatziz formulatu beharko da aurkakotza, bertan adieraziz zatiketa-eragiketen zein punturi egiten zaion aurka eta zein diren horretarako arrazoiak.

2. Behin epemuga hori aurka egin gabe igarota edo interesdunek beren adostasuna adierazi bezain laster, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, zatiketa-eragiketak onesten dituen, eta aginduko du protokoloan jaso daitezela.

3. Denbora baliodunean formalizatu denean zatiketa-eragiketen aurkakotza, Justizia Administrazioaren letraduak kontulariari eta alderdiei deituko die auzitegiaren aurrean egingo den agerraldi batera, zeina hurrengo hamar egunen barruan egingo baita.

4. Agerraldian interesdun guztien adostasuna lortzen bada sustatutako arazoei buruz, erabakitakoa betearaziko da, eta kontulariak aldaketa hitzartuak egingo ditu zatiketa-eragiketetan; artikulua honen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera onetsiko dira aldaketa horiek.

5. Adostasunik egon ezean, auzitegiak alderdiei entzungo die, eta onartuko ditu proposatzen dituzten frogetatik desegokiak edo alferrekoak ez direnak; hitzezko judiziorako xedatutakoaren arabera jarraituko du aurrera prozedurak.

Ematen den epaia hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera betearaziko da, baina ez du izango gauza epaituaren efikaziarik, eta interesdunek baliatu ahal izango dituzte beren ustez dagozkien eskubideak, kasuan kasuko judizio arruntean adjudikatutako ondasunei lotuak.

6. Baldin eta, lege honen 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jardunak eten badira ebazkizun dagoelako auzi penal bat, ikergai duena jaraunspeneko ondasunak balioesterakoan egindako funtzionario-eroskeriaren delitua, Justizia Administrazioaren letraduak, auzia ebazpen irmo bidez bukatzeari itxaron gabe, amaitutzat emango du etendura, interesdunek balioespen aurkaratua alde batera utzi eta beste egitate



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

bat elkarrekin adostuta aurkeztu bezain laster, eta, kasu horretan, hartatik ondorioztatzen denaren arabera emango da epaia.

788. artikulua. Jaraunsle bakoitzari adjudikatutako ondasunak entregatzea.

1. Behin banaketak behin betiko onetsita, Justizia Administrazioaren letraduak interesdunetako bakoitzari entregatuko dizkio haietan adjudikatutakoa eta jabetza-tituluak; aurretiaz, adjudikazioa adierazten duten oharrek egin beharko ditu aktuarioak titulu horietan.

2. Protokoloan jaso bezain laster, Justizia Administrazioaren letraduak hala eskatzen duten partaideei beren hartzekoaren eta adjudikazioaren lekukotza emango die.

3. Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, jaraunspenaren hartzekodunetakoren batek formulatu badu 782. artikuluan 4. apartatuan aipatutako eskabidea, ez zaio jaraunsleetako edo legatu-hartzaileetako bati ere entregatuko ondasunik, harik eta ondasun horiek erabat ordainduta edo bermatuta egon arte hartzekodun hori asebetetzeko moduan.

789. artikulua. Prozedura amaitzea, jaraunskideen akordioagatik.

Judizioaren edozein egoeratan, interesdunek aukera izango dute haren jarraipenetik banantzeko eta komenigarritzat jotzen dituzten akordioak hartzeko. Elkarrekin adostuta eskatzen dutenean, Justizia Administrazioaren letraduak judizioa largetsi beharko du, eta jaraunsteen eskura utzi beharko ditu ondasunak.

2. atala. Jaraunspeneko ondasuntzan esku-hartzeaz

790. artikulua. Jaraunspeneko ondasunak eta hildakoaren dokumentuak segurtatzea.

1. Auzitegiak pertsona baten heriotzaren berri izan eta testamentua badela jasota ez dagoen guztietan, ezta hildakoaren aurrekorik, ondorengorik edota ezkontiderik edo antzeko egitezko egoeran dagoen pertsonarik ere, ezta laugarren gradu arteko albokorik ere, ofizioz hartuko ditu hildakoa lurperatzeko neurririk ezinbestekoenak, beharrezkoa balitz, bai eta ostu edo ezkuta daitezkeen hildakoen ondasunak, liburuak, paperak, posta eta efektuak segurtatzekoak ere.

Era berean jardungo du aurreko paragrafoan aipatutako pertsonak absente daudenean, edo haietakoren bat adingabea izan eta legezko ordezkariak ez duenean.

2. Artikulu honek aipatutako kasuetan, ahaideak agertu bezain laster, edota adingabeei legezko ordezkaria izendatu bezain laster, hildakoaren ondasunak eta efektuak entregatuko zaizkie, eta esku-hartze judiziala amaitu egingo da, hurrengo artikuluan xedatutakoa salbu, eta notarioarengana joan beharko dute jaraunsle-deklarazioaren espedienteari hasiera eman diezaion.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

791. artikulua. Jaraunspenaren gaineko esku-hartze judiziala, jasota ez badago badela testamenturik edo oinordetza legitimora deitutako ahaiderik.

1. Aurreko artikulua 1. apartatuan aipatutako kasuan, behin han aipatzen diren jardunak gauzatuta, Justizia Administrazioaren letraduak eginbide bitartez hartuko ditu ahalik eta neurri egokienak iker dadin ea testamentu-xedapena eginda edo egin barik hil den oinordetzak aztergai duen pertsona, eta, ondore horretarako, aginduko du autoetara ekar daitezela Azken Nahietako Egintzen Erregistro Nagusiaren ziurtagiria eta, ahal izanez gero, heriotza-ziurtagiria.

Beste bitartekorik ezean, auzitegiak probidentzia bidez aginduko du hildakoaren ahaide, lagun edo auzotarrengana jotzea, aztertzeko hura abintestato hil den eta oinordetza legitimorako eskubidea duen ahaiderik dagoen.

2. Hain zuzen ere, testamenturik egin gabe hil bada eta legeak oinordetzara deitutako ahaiderik gabe, auzitegiak honako hau aginduko du, auto bidez:

1.) Hildakoaren liburuak, paperak eta posta-trukea okupa daitezela.

2.) Ondasunen inbentarioa egin eta gordailutu daitezela, eta haien administrazioari buruz bidezkoa dena xedatuko du, lege honetan ezarritakoaren arabera. Auzitegiak pertsona bat izendatu ahal izango du, jaraunspeneko ondasuntzaren kontura, inbentarioa eta gordailua egin eta berma ditzan.

Ebazpen berean ofizioz aginduko du komunika dakiola kasuan kasuko Ekonomia eta Ogasuneko Ordezkaritzari, Estatuaren aldeko abintestato jaraunspenaren deklarazioa bidezkoa den kasurako, eta helaraz dakizkiola 1. apartatuaren babesean gauzatutako eginbideen emaitza eta bildutako dokumentazioa.

3. Estatuko Administrazio Orokorrek edo autonomia-erkidego bateko Administrazioak bera abintestato jaraunspenaren deklaratzeko prozedura bat hasi duela auzitegiari komunikatzen dion unetik, auzitegi horrek erabakiko du hura izenda dadila ondasunen administrazioaile. Kasu horretan, Administrazio Publikoari ez zaio galdutako kauzioa ematea, eta aditu-txostenak egingo ditu, beharrezkoak direnean, zerbitzu tekniko propioen bidez.

Administrazioak auzitegiari komunikatu beharko dio prozedura amaitzen duen ebazpena. Aipatutako ebazpenak ondorioztatzen badu ez dela bidezkoa Administrazioa abintestato jaraunspenaren deklaratzeko, hark ezin izango du jarraitu jaraunspeneko ondasuntzaz arduratzen, eta auzitegiari eskatu beharko dio beste administrazioaile judizial bat izenda dezala komunikazio hori egin eta hilabeteko epean. Hilabeteko epe hori igarota, kasu orotan, administrazioaile-kargua utziko du Administrazioak.

Ebazpen horrek Administrazioa abintestato jaraunspenaren deklaratzeko duenean, jaraunspeneko ondasuntzaren esku hartzeaz arduratzen ari den organo judizialak jaraunspeneko ondasuntza osatzen duten ondasunak eta eskubideak entregatzera bideratutako neurriak hartuko ditu hilabete baino lehen.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

792. artikulua. Jaraunspenaren gaineko esku-hartze judiziala, jaraunsle-deklarazioa edo jaraunspenaren zatiketa judiziala izapidetzen ari den bitartean. Jaraunspenaren hartzekodunen eskariz esku hartzea.

1. Aurreko artikulua 2. apartatua aipatutako jardunak alderdi-eskariz erabaki ahal izango dira honako kasu hauetan:

1.) Ezkontideak edo oinordetza legitimorako eskubidea dutela uste duten ahaideetatik edozeinek eskatuta, betiere abintestato jaraunsleen deklarazioa notarioaren aurrean sustatu dutela egiaztatzen badute edo jaraunspeneko ondasuntzan esku-hartze judiziala eskatzen bada jaraunsleen notario-deklarazioa sustatzean.

2.) Jaraunspenaren zatiketa judiziala eskatzean edozein jaraunskidek edo zati alikuotaren legatu-hartzailek eskatuta, salbu eta esku-hartzea esanbidez debekatu denean testamentu-xedapen bidez.

3.) Administrazio Publikoak eskatuta, zeinak prozedura bat hasi duen bera abintestato jaraunsle deklaratzeko.

2. Aurreko artikulua 2. apartatua ezarritakoaren arabera, jaraunspeneko ondasuntzan esku hartzeko eskatu ahal izango dute, halaber, testamentuan hartzekoduntzat aitortu direnek edo jaraunskideek halakotzat aitortu dituztenek eta titulu betearazle batean beren eskubidea dokumentatuta daukateneak.

793. artikulua. Lehenengo jardunak eta interesdunak zitatzea inbentarioa egiteko.

1. Aurreko artikuluetan aipatutako kasuetatik edozeinetan, behin jaraunspeneko ondasuntzan esku hartzea erabakita, auzitegiak auto bidez aginduko du har daitezela ondasunak segurtatzeko ezinbesteko neurriak, bai eta ostu edo ezkuta daitezkeen hildakoaren liburuak, paperak, posta eta efektuak segurtatzekoak ere, baldin eta beharrezkoa bada eta aldez aurretik hartu ez badira.

2. Behin ebazpen hori emanda, inbentarioa egiteko eguna eta ordua seinalatuko ditu Justizia Administrazioaren letraduak, eta interesdunak zitzatu daitezela aginduko du.

3. Honako hauek zitzatu beharko dira inbentarioa egiteko:

1.) Bizirik dirauen ezkontidea.

2.) Jaraunspenerako eskubidea eduki dezaketen eta ezagunak diren ahaideak, baldin eta jasota ez badago badela testamenturik edota egin ez bada abintestato jaraunsleen deklarazioa.

3.) Jaraunsleak edo zati alikuotaren legatu-hartzaileak.

4.) Jaraunspeneko ondasuntzan esku har dadila dekretatzeko eskaera egin duten hartzekodunak eta, kasua denean, jaraunspena zatitzeko prozeduran pertsonatu direnak.

5.) Fiskaltza, betiere oinordetza legitimorako eskubidea duten ahaide ezezagunak egon badaitezke, edota jaraunspenerako eskubidea duen ahaide ezagunetakoren bat edo jaraunsleetakoren bat edo zati



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

alikuotaren legatu-hartzaileetakoren bat pertsonalki zitzatu ezin bada bizileku ezagunik ez izateagatik, edota interesdunetako edozein adingabea izan eta legezko ordezkariarik ez badu.

6.) Estatuaren abokatua edo, legean aurreikusitako kasuetan, autonomia-erkidegoetako zerbitzu juridikoak, baldin eta jasota ez badago badela testamenturik edo oinordetza legitimorako eskubidea eduki dezakeen ezkontiderik nahiz ahaiderik.

794. artikulua. Inbentarioa egitea.

1. Behin zitazioa eginda seinalatutako egunean eta orduan aurreko artikuluan aipatutako guztiei, Justizia Administrazioaren letraduak inbentarioa egingo du bertaratuekin, eta inbentario horretan bilduko da jaraunspeneko ondasunen zerrenda, bai eta aurkitutako eskritura, dokumentu eta paper garrantzitsuen ere.

2. Testamentu-xedapen bidez erregela bereziak ezarri badira jaraunspeneko ondasunen inbentarioa egiteko, erregela horien arabera egin beharko da inbentarioa.

3. Inbentarioa ezin bada seinalatutako egunean amaitu, hurrengoetan amaituko da.

4. Eztabaida sortzen bada inbentarioan ondasunak sartzeari edo ez sartzeari buruz, Justizia Administrazioaren letraduak aktan jasoaraziko ditu alderdietako bakoitzak ondasun horiei buruz dituen uziak eta haien zuzenbideko oinarriak, eta ikustaldi baterako zitazioa egingo die interesdunei; hitzezko judiziorako aurreikusitakoarekin bat etorritik jarraituko dute aurrera izapideek.

Inbentarioan ondasunak sartzeari edo ez sartzeari buruz pronuntziatzen den epaiak ez die kalterik egingo hirugarrenen eskubideei.

795. artikulua. Jaraunspeneko ondasuntza administratzeari, zaintzeari eta kontserbatzeari buruzko ebazpena.

Behin inbentarioa eginda, auzitegiak auto bidez zehaztuko du inguruabarrak kontuan hartuta zer egokitzen den ondasuntza administratzeari, zaintzeari eta kontserbatzeari buruz, eta kasua denean lotuko zaio testamentugileak gai horiei buruz xedatutakoari, eta, halakorik ezean, honako erregela hauen arabera egin beharko da:

1.) Eskudirua eta efektu publikoak zuzenbidearen arabera gordailutuko dira.

2.) Administratzaile izendatuko da bizirik dirauen ezkontidea eta, halakorik ezean, jaraunspenean zatirik handiena daukan jaraunsolea edo zati alikuotaren legatu-hartzailea. Halakorik ez badago edo, auzitegiaren iritziz, kargua betetzeko behar besteko gaitasunik ez badute, auzitegiak administratzaile izendatu ahal izango du jaraunsoleetako edo zati alikuotaren legatu-hartzaileetako edozein, halakorik badago, edo hirugarren bat.

3.) Administratzaileak entregatzen zaizkion ondasunei aurre egiteko behar besteko kausioa eman beharko du lege honek baimendutako edozein modutan; auzitegiak finkatuko du kausio hori. Dena den,



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

kauzioa ematetik lekatu ahal izango du ezkontide alarguna edo administratzaile izendatutako jaraunslea, hark nahikoa ondasun badu entregatu zaizkionei aurre egiteko.

4.) Jaraunsleek eta zati alikuotaren legatu-hartzaileek administratzailea lekatu ahal izango dute kauzioa emateko eginbeharretik. Horri buruzko adostasunik izan ezean, kauzioa proportzionala izango da adostasunik eman ez dutenek ondasuntzan duten interesarekiko. Beti eratuko da kauzioa legezko ordezkariak ez duten adingabeek jaraunspenean duten parte-hartzeari dagokionez, bai eta egonleku ezezaguna izateagatik zitu ezin izan diren absenteen parte hartzeari dagokionez ere.

796. artikulua. Jaraunspenaren gaineko esku-hartze judiziala amaitzea.

1. Jaraunseleen deklarazioa egiten denean amaituko da jaraunspenaren gaineko esku-hartze judiziala, non eta haietakoren batek ez duen eskatzen jaraunspenaren zatiketa judiziala; kasu horretan, esku-hartzeak iraun ahal izango du, hala eskatuz gero, jaraunse bakoitzari adjudikatu zaizkion ondasunak entregatu arte.

2. Jaraunspenaren zatiketa judizialaren prozedura bideratzen ari den bitartean, jaraunselek, elkarrekin adostuta, eskatu ahal izango dute amai dadila esku-hartze judiziala. Justizia Administrazioaren letraduak hala erabakiko du dekreto bidez, salbu eta interesdunetakoren bat adingabea izanik legezko ordezkariak ez duenean edota egonleku ezezaguna izateagatik zitu ezin izan den jaraunse absenteren bat dagoenean.

3. Hartzekodunak egonik, testamentuan halakotzat aitortu direnak edota jaraunskideek halakotzat aitortu dituztenak edota titulu betearazle batean dokumentatutako eskubidea dutenak, aurka egiten badiote jaraunspena banatzeari harik eta beren kredituen zenbatekoa ordaindu edo fidantza eman arte, ez da esku-hartzearen amaiera erabakiko harik eta ordainketa egin edo fidantza eman arte.

3. atala. Jaraunspeneko ondasuntza administratzeaz

797. artikulua. Jaraunspen-administratzailearen karguaren jabetza.

1. Behin administratzailea izendatuta eta hark kauzioa emanda, Justizia Administrazioaren letraduak karguaren jabetza emango dio, eta haren berri emango die administratzaileak bere egitekoa gauzatzeko harremanak izan behar dituen pertsonen artetik berak izendatzen dituenek.

2. Bere ordezkaritza egiaztatu ahal izan dezan, Justizia Administrazioaren letraduak lekukotza edo kopia autentikoa emango dio, izendapena eta karguaren jabe dela jasotzen dituenak.

3. Jabetza-erregistroan jaso ahal izango dira jaraunspeneko finken administrazioaren egoera eta administratzailearen izendapena, hipoteka-legerian aurreikusitako betekizunekin bat etorritik Justizia Administrazioaren letraduak egindako kasuan kasuko manamenduaren bidez.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

798. artikulua. Jaraunspena administratzaileak ordezkatzeari.

Jaraunspena jaraunspena onartzen ez duten bitartean, ondasunen administratzaileak ordezkatzeko du jaraunspena kausatzailea hildakoan sustatzen diren edo jada hasita dauden auzi guztietan, eta, ordezkari horietan, berak egikaritutako dituen hildakoari legezkoak diren akzioak, harik eta jaraunspenaren deklarazioa egin arte.

Behin jaraunspena onartuta, administratzaileak ordezkari izango du ondasuntza administratzei, zaintzei eta kontserbatzei zuzenean dagokionez bakarrik, eta kontzeptu horietan kudeatu ahal eta behar izango du horretarako egoki dena, bidezkoak diren akzioak egikaritzuz.

799. artikulua. Kontuak periodikoki ematea.

1. Administratzaileak auzitegiak seinalatzen dizkion epeetan emango du kontu justifikatua; epeok proportzionalak izango dira ondasuntzaren garrantziarekiko eta baldintzekiko, eta inoiz ere ezin izango dira urtebetetik gorakoak izan.

2. Kontua ematean, administratzaileak hartatik eratorritako saldoa kontsignatuko du, edo jatorrizko ordezkariak aurkeztuko du, egiaztatzen duena saldoa gordailututa dela horretarako zehaztutako establezimenduan. Lehenengo kasuan, Justizia Administrazioaren letratuak berehala erabakiko du gordailua eginbide bitartez, eta, bigarrenetan, autoetan jar dadila gordailuaren data eta zenbatekoa adierazten dituen eginbidea.

3. Kontuen jakitun egiteko eta administrazioa ikuskatzeko edo haien zuzenketari edo onespeneri buruzko edozein neurri sustatzeko, bulego judizialean ikusgai jarriko zaizkio edonoiz hori eskatzen duen alderdiari.

800. artikulua. Azken kontu-ematea. Kontuak aurkaratzea.

1. Administratzaileak kargua uzten duenean, azken kontu bat emango du, jada aurkeztutako osagarria.

2. Administratzaileak kargua uzten duenean, haren kontu guztiak, baita azkena ere, ikusgai jarriko zaizkie alderdiei bulego judizialean, epemuga komun batean, zeina Justizia Administrazioaren letratuak eginbide bitartez seinalatuko baitu kontu horien garrantziaren arabera.

3. Kontuei aurka egin gabe igaro bada epemuga hori, Justizia Administrazioaren letratuak dekretua emango du, haiek onesten dituen eta deklaratu duena administratzailea erantzukizunetik salbuetsita geratzen dela. Dekretu berean, aginduko du itzul dakiola administratzaileari berak eman zuen kaudia.

4. Kontuak denbora baliodunean aurkaratzen badira, aurkaratze-idazkia helaraziko zaio kontu-emalari, 438. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik erantzun dezan. Alderdiek ikustaldia egiteko eskatu ahal izango dute aurkaratzeko eta hari erantzuteko idazkietan, hurrenez hurren; hitzeko judiziorako xedatutakoaren arabera jarraituko dute aurrera izapideek.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

801. artikulua. Jaraunspeneko ondasunak kontserbatzea.

1. Administrazioa behartuta dago, bere erantzukizunpean, jaraunspeneko ondasunak kaltetu gabe kontserbatzera, eta ahaleginak egitera kasuan kasuko errentak, emaitzak edo onurak eman ditzaten.

2. Helburu horretarako, ondasunak kontserbatzeko ezinbestekoak diren ohiko konponketak egin beharko ditu. Ezohiko konponketak edo gastuak beharrezkoak direnean, epaitegiari ezagutaraziko dio, eta epaitegiak bidezkoa deritzona ebatziko du kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak ondore horretarako seinalatutako egunean eta orduan agerraldi batean 793. artikuluan 3. apartatuan aipatzen diren interesdunei entzun ondoren eta aditu-azterketa eta aurrekontua egin ondoren.

802. artikulua. Administrazioak karguan aritzean bildutako zenbatekoen destinoa.

1. Administrazioak luzamenik gabe gordailutuko ditu, epaitegiaren esku, bere karguan aritzean bildutako zenbatekoak, eta soil-soilik atxikiko ditu auzien edo notarioen gastuei, kontribuzio-ordainketari eta gainerako betebeharrak arruntei aurre egiteko beharrezkoak direnak.

2. Aurreko artikuluan aipatutako ezohiko gastuei aurre egiteko, auzitegiak, probidentzia bidez, administrazioaren esku utzi ahal izango du ustez beharrezkoa den zenbatekoa, eta aginduko du gordailutik atera dadila, baldin eta ohiko sarrekin estali ezin bada. Azken hori aginduko da, orobat, ohiko gasturen bat egin behar izan eta administrazioak ez duenean behar besteko zenbatekorik, jaraunspen-administrazioetik eratorritakorik.

803. artikulua. Inbentarioko ondasunak besterentzeko debekua. Debeku horren salbuespenak.

1. Administrazioak ezin izango ditu besterendu inbentarioko ondasunak, ezta kargatu ere.

2. Erregela horretatik salbuesten dira:

1.) Narria daitezkeenak.

2.) Kontserbatzeko zailak eta garestiak direnak.

3.) Fruituak, baldin eta haiek besterentzeko inguruabarrak abantailatsutzat jotzen badira.

4.) Gainerako ondasunak, baldin eta haiek besterentzea beharrezkoa bada zorrak ordaintzeko edo jaraunspen-administrazioaren beste behar batzuk estaltzeko.

3. Administrazioak proposatuta eta 793. artikuluan 3. apartatuan aipatutako interesdunei entzun ondoren, auzitegiak probidentzia bidez dekretatu ahal izango du ondasun horietako edozeinen salmenta, zeina enkante publikoan egingo den notario-legerian edo borondatezko jurisdikzioaren prozeduran ezarritakoarekin bat etorritz.

Kotizazio ofizialean onartutako baloreak merkatu horren bidez salduko dira.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

804. artikulua. Administrazioaren ordainsaria.

1. Administrazioak honako ordainsari honetarako baino ez du izango eskubidea:

1.) Ehuneko 2 jasoko du inbentarioko fruituen eta beste ondasun higigarri batzuen salmentatik lortutako produktu likidotik.

2.) Ehuneko 1, ondasun higiezin salmentatik eta edozein motatako baloreak kobratzetik lortutako produktu likidotik.

3.) Ehuneko erdia, efektu publikoen salmentatik lortutako produktu likidotik.

4.) Justizia Administrazioaren letraduak ehuneko 4tik 10era zehaztuko dio administrazioan dauden gainerako diru-sarreretatik, aurreko paragrafoetan adierazitako kontzeptuak ez bezalakoengatik, kontuan hartuta ondasuntzaren produktuak eta administrazioaren lana.

2. Halaber, Justizia Administrazioaren letraduak, zuzena deritzon, dekretu bidez erabaki ahal izango du administrazioari ordain dakizkiola karguan aritzeko egin behar izan dituen bidaia-gastuak.

805. artikulua. Mendeko administrazioak.

1. Mantendu egingo dira hildakoak bere ondasunak zaintzeko zituen mendeko administrazioak, hark emandako ordainsari eta ahalmen berberekin.

2. Administrazio horiek beren kontuak emango dituzte, eta bildutakoa igorriko diote administrazio judizialari; haren mendekotzat hartuko dira, eta hark ezin izango ditu banandu, baizik eta arrazoi zuzenagatik eta Justizia Administrazioaren letraduak dekretu bidez emandako baimenarekin.

3. Baimen berarekin, hutsik geratutako karguak bete ahal izango ditu administrazio judizialak bere erantzukizunpean.

II. KAPITULUA

Ezkontzaren ondasun-erantzukizunaren likidatzeko prozeduraz

806. artikulua. Aplikazio-eremua.

Ezkontzaren arteko akordioak ezean, kapitulu honetan eta aplikagarriak diren arau zibiletan xedatutakoaren arabera likidatuko da ezkontzaren edozein ondasun-erantzukizun, baldin eta ezkontza-itunen



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

bidez edo lege-xedapenaren bidez zehazten bada badagoela ondasun- eta eskubide-masa komun bat, zama eta betebeharrak zehatzei lotuta dagoena.

807. artikulua. Eskumena.

Likidazio-prozeduraz arduratzeko epaitegi eskudun izango da deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozesuaz arduratzen ari den, arduratu den edo arduratzeko eskumena izango zukeen lehen auzialdikoa edo emakumeen aurkako indarkeriaren arlokoa, edota legeria zibilean aurreikusitako kausetakoren bat dela- eta ezkontzaren ondasun-eraentzaren desegiteari buruzko jardunak bideratzen ari dena edo bideratu dituen.

808. artikulua. Inbentarioa eskatzea.

1. Behin deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda onartuta edota ezkontzaren ondasun-eraentza desegiteko eskatu den prozesua hasita, ezkontideetako edozeinek edo haren jaraunsleek eskatu ahal izango dute egin dadila inbentarioa.

2. Aurreko apartatuan aipatutako eskaera proposamen batekin batera aurkeztu beharko da, zeinean behar bezala bananduta jasoko diren legeria zibilaren arabera inbentarioan sartu behar baitira partida guztiak.

Eskaerarekin batera, halaber, proposamenean sartutako partida guztiak justifikatzen dituzten dokumentuak aurkeztuko dira.

809. artikulua. Inbentarioa egitea.

1. Aurreko artikuluan aipatutako eskaera ikusita, Justizia Administrazioaren letraduak eguna eta ordua seinalatuko ditu, inbentarioa egin dadin gehienez ere hamar eguneko epean, eta aginduko du ezkontideei zitalazioa egin dakiela.

Seinalatutako egun eta orduan, Justizia Administrazioaren letraduak ezkontza-erkidegoaren inbentarioa egingo du ezkontideekin batera, legeria zibilak kasuan kasuko ezkontzaren ondasun-eraentzarako xedatutakoari loturik.

Baldin eta kausa justifikaturik gabe ezkontideetakoren bat seinalatutako egunean agertzen ez bada, ulertuko da ados dagoela agertu den ezkontideak egindako inbentario-proposamenarekin. Kasu horretan, bai eta bi ezkontideak agertu eta akordio bat lortzen dutenean ere, aktan jasoko da akordio hori, eta amaitutzat emango da ekitaldia.

Egun berean edo hurrengoan, auzitegiak bidezkoa dena ebatziko du inbentarioan sartutako ondasunen administrazioari eta xedapenari buruz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. Eztabaida sortzen bada inbentarioan kontzepturen bat sartzeari edo ez sartzeari buruz edota edozein partidaren zenbatekoari buruz, Justizia Administrazioaren letraduak aktan jasoaraziko ditu alderdietako bakoitzak ondasun horiei buruz dituen uziak eta haien zuzenbideko oinarriak, eta ikustaldi baterako zitazioa egingo die interesdunei; hitzezko judiziorako aurreikusitakoarekin bat etorritik jarraituko dute aurrera izapideek.

Planteatutako arazo guztiei buruz ebatziko du epaiak, ezkontza-erkidegoaren inbentarioa onetsiko du, eta bidezkoa dena xedatuko du ondasun erkideak administratzeari eta xedatzeari buruz.

810. artikulua. Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzea.

1. Behin inbentarioa burututa eta, kasua bada, behin irmoa izanda ezkontzaren ondasun-eraentza desegin dela deklaritzen duen ebazpena, ezkontideetako edozeinek edo, hilez gero, haren jaraunsleek eskatu ahal izango dute likida dadila eraentza.

2. Eskaerarekin batera, likidazio-proposamen bat aurkeztu beharko da, barnean hartzen dituen ezkontide bakoitzari zor zaizkion kalte-galeren eta itzulketen ordainketa eta gerakinaren zatiketa, egokitzen den proportzioan, kontuan hartuta arau zibil aplikagarriek ezartzen dituzten lehentasunak loteak eratzeko.

3. Behin likidazio-eskaera izapidetzeko onartuta, Justizia Administrazioaren letraduak eguna eta ordua seinalatuko ditu gehienez ere hamar eguneko epean, ezkontideak edo, hilez gero, haien jaraunsleak haren aurrean ager daitezen akordio bat lortzeko eta, halakorik lortu ezean, kontularia eta kasua denean adituak izendatzeko, zatiketa-eragiketak egin ditzaten.

4. Baldin eta, kausa justifikaturik gabe ezkontideetakoren bat edo, hilez gero, haren jaraunsleek seinalatutako egunean agertzen ez badira, ulertuko da ados dagoela agertu den ezkontideak edo, hilez gero, jaraunsleak egindako likidazio-proposamenarekin. Kasu horretan, bai eta bi ezkontideak edo, hilez gero, haien jaraunsleak agertu eta akordio bat lortzen dutenean ere, aktan jasoko da akordio hori, amaitutzat emango da ekitaldia, eta lege honen 788. artikuluan lehenengo bi apartatuetan aurreikusitakoarekin bat etorritik gauzatuko da lortutako akordioa.

5. Ezkontideek edo, hilez gero, haien jaraunsleak akordiorik lortzen ez badute ezkontzaren ondasun-eraentzaren likidazioari buruz, kontularia eta kasua denean adituak izendatuko dira eginbide bitartez, lege honen 784. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta 785. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera jarraituko dute aurrera izapideek.

811. artikulua. Partaidetza-eraentza likidatzea.

1. Ezin izango da eskatu partaidetza-eraentza likida dadila harik eta irmoa izan arte ezkontzaren ondasun-eraentza desegin dela deklaritzen duen ebazpena.

2. Eskaerarekin batera, likidazio-proposamen bat aurkeztu beharko da, barnean hartzen duena ezkontide bakoitzaren hasierako eta amaierako ondarearen zenbatespena, eta kasua denean adierazten duena zein den ondarean gehikuntzarik handiena izan duen ezkontideak ordaindu behar duen zenbatekoa.



3. Likidazio-eskaera ikusita, Justizia Administrazioaren letraduak eguna eta ordua seinalatuko ditu gehienez ere hamar eguneko epean, ezkontideak beraren aurrean ager daitezen akordio bat lortzeko.

4. Baldin eta, kausa justifikaturik gabe ezkontideetakoren bat seinalatutako egunean agertzen ez bada, ulertuko da ados dagoela agertu den ezkontideak egindako likidazio-proposamenarekin. Kasu horretan, bai eta bi ezkontideak agertu eta akordio bat lortzen dutenean ere, aktan jasoko da akordio hori, eta amaitutzat emango da ekitaldia.

5. Ezkontideek akordiorik lortzen ez badute, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldi batera zitatuko ditu, eta izapideek aurrera jarraituko dute hitzezko judiziorako aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Epaiak planteatu diren arazo guztiei buruz ebatziko du, eta ezkontide bakoitzaren hasierako eta amaierako ondarea zehaztuko ditu, bai eta, kasua denean, zein den ondarean gehikuntzarik handiena izan duen ezkontideak ordaindu behar duen zenbatekoa eta nola egin behar den ordainketa.

III. TITULUA

Prozesu monitorioaz eta kanbio-prozesuaz

I. KAPITULUA

Prozesu monitorioaz

812. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa prozesu monitorioa.

1. Norbaiti edozein zenbatekoko diru-zor likido, zehatz, mugaeguneratu eta galdagarria eskatu nahi dionak jo ahal izango du prozesu monitoriora, baldin eta honako modu hauetakoren batean egiaztatzen bada zorra:

1.) Dokumentuen bidez, edozein izanik ere haien forma eta mota edota haiek jasotzen dituen euskarri fisikoa, betiere baldin badute zordunaren sinadura nahiz haren zigilua, lorratza edo marka, nahiz beste edozein seinale fisiko edo elektroniko.

2.) Fakturen, entrega-albaranen, ziurtagirien, telegramen, faxaren edo beste edozein dokumenturen bidez, baldin eta, hartzekodunak alde bakarrez sortu arren, hartzekodunaren eta zordunaren artean dagoen harreman-motan kredituak eta zorrak jaso ohi dituztenetakoak badira.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe eta zorrak apartatu horretan ezarritako betekizunak betetzen badituzte, honako kasu hauetan ere jo ahal izango da prozesu monitoriora zor horiek ordainarazteko:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1.) Lehenagoko harreman iraunkor bat egiaztatzen duten merkataritza-dokumentuak aurkezten direnean zorra jasotzen duen dokumentuarekin batera.

2.) Zorra egiaztatzen denean agiri bidez, zeinak ziurtatzen baitute hiri-lurreko higiezinetak jabeen erkidegoen gastu erkideen kontzeptuan zor diren zenbatekoak ordaindu ez direla.

813. artikulua. Eskumena.

Prozesu monitoriorako eskumen eskusiboa izango du zordunaren egoitzako nahiz bizilekuko lehen auzialdiko epaitegiak edo, egoitza nahiz bizilekua ezaguna ez bada, auzitegiak ordaintze-errekerimendua egin ahal izateko zorduna aurki daitekeen tokikoak, salbu eta 812. artikuluen 2. apartatuaren 2.) zenbakian aipatutako zorraren erreklamazioa denean, kasu horretan finka dagoen tokiko epaitegia ere izango baita eskudun, eskatzailearen aukeran.

Kasu orotan, ez dira aplikatzekoak izango I. liburuaren II. tituluaren II. kapituluaren 2. atalean jasotako esanbidezko edo isilbidezko sumisioari buruzko arauak.

Baldin eta Justizia Administrazioaren letraduak egoitzari edo bizilekuari buruz kasuan kasuko ikerketak egin ondoren haiek antzuak izan badira edo zorduna beste barruti judizial batean lokalizatu bada, epaileak prozesua amaitutzat ematen duen autoa emango du, non jasoaraziko baitu inguruabar hori eta hartzekodunari erreserbatuko baitio epaitegi eskudunaren aurrean prozesua berriro hasteko eskubidea.

814. artikulua. Prozedura monitorioaren hasierako eskabidea.

1. Prozedura monitorioa hartzekodunaren eskabide bitartez hasiko da, zeinean adieraziko baitira zordunaren identitatea, hartzekodunaren eta zordunaren egoitza edo egoitzak edo haiek bizi diren edo aurki daitezkeen tokia eta zorraren jatorria eta munta; 812. artikuluan aipatutako dokumentua edo dokumentuak aurkeztuko dira eskabidearekin batera.

Eskabidea paperean edo egoitza elektronikoaren bidez lortutako inprimakian edo formularioan egin ahal izango da, aurreko apartatuan aipatutako puntuak adieraztea errazte aldera.

2. Prozedura monitorioaren hasierako eskabidea aurkezteko, ez da beharrezkoa izango prokuradoreaz eta abokatuaz baliatzea.

815. artikulua. Eskabidea onartzea eta ordaintze-errekerimendua egitea.

1. Eskabidearekin ekarritako dokumentuak 812. artikuluen 2. apartatuan aurreikusitakoak badira edo eskatzailearen eskubidearen frogatutako bat badira, eskabidean adierazitakoagatik konfirmatuta, Justizia Administrazioaren letraduak errekerimendua egingo dio zordunari, hoge eguneko epean eskatzaileari ordain diezaion eta hori auzitegian egiaztatu dezan edota haren aurrean ager dadin, eta erreklamaturako zenbatekoa osorik zein zati batean zor ez duela uste izateko arrazoiak alega ditzan aurka egiteko idatzkian, modu



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

oinarrituan eta arrazoituan. Kontrako kasuan, epaileari kontu emango dio egokitzen dena ebatz dezan hasierako eskabidea izapidetzeko onartzeari buruz.

161. artikuluan aurreikusitako moduan jakinaraziko da errekerimendua, eta ohartaraziko zaio ezen, ordaindu ezean edo ordainketari ezezkoa emateko arrazoiak alegatzera agertu ezean, betearazpena abiaraziko zaiola, hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Artikulu honen hurrengo apartatuan araututako kasuan baino ez da onartuko demandatuari ediktu bidez egitea errekerimendua.

2. 812. artikulua 2. apartatuaren 2. zenbakizkoan aipatutako zorren erreklamazioetan, zordunak aldeztetik izendatutako egoitzan egin beharko da jakinarazpena, jabeen erkidegoaren auzigaiekin lotuta dauden mota orotako jakinarazpenetarako eta zitazioetarako izendatutakoan. Egoitza hori izendatu ez bada, ahaleginak egingo dira komunikazioa etxebizitzan edo lokalean egiteko, eta, modu horretan ere ezin bada jakinarazi, lege honen 164. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaio.

3. Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen bada erreklamaturako zenbatekoa ez dela zuzena, Justizia Administrazioaren letratuak epaileari helaraziko dio, eta, kasua denean, epaileak auto bidez aukera eman ahal izango dio eskatzaileari onar edo errefusa dezan ordaintze-errekerimenduaren proposamen bat, hasieran eskatutakoa baino zenbateko txikiagokoa eta hark zehaztutakoa.

Era berean, irizten bazaio zorra enpresaburu edo profesional baten eta kontsumitzaile edo erabiltzaile baten artean egindako kontratu batean oinarritzen dela, Justizia Administrazioaren letratuak, ordaintze-errekerimendua egin aurretik, epaileari kontu emango dio, eta hark uste badu eskaeraren oinarri diren edo eska daitekeen zenbatekoa zehaztu duten klausuletako bat abusuzkotzat jo daitekeela, ordaintze-errekerimenduaren proposamen bat planteatu ahal du auto bidez, zeinaren zenbatekoa izango baita erreklamaturako zenbatekotik klausula aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa kentzearen ondoriozkoa.

Bi kasuetan, egindako proposamena onartu edo baztertu beharko du demandatzaileak hamar eguneko epean, eta onartutzat joko da epea igarotzen bada inolako adierazpenik egin gabe. Demandatzailearen onarpena inoiz ez da hartuko haren uziari partzialki uko egitetzat, eta ordaindu ez zaion zatia dagokion deklarazio-prozeduran soilik baliatu ahal izango du.

Proposamena onartzen bada, zenbateko hori ordaintzeko errekerimendua egingo zaio demandatuari.

Bestela, demandatzailea atzera egindakotzat emango da, eta dagokion deklarazio-prozeduran soilik baliarazi ahal izango du bere uzia.

Azken kasu horretan ematen den autoa zuzenean apelatu ahal izango du prozeduran pertsonatutako alderdiak.

4. Auzitegiak ez badu arrazoirik hautematen ordaintze-errekerimendua eskatzen zaion zenbatekoa murrizteko, hala deklaratu du, eta Justizia Administrazioaren letratuak zordunari errekerimendua egingo dio 1. apartatuan aurreikusitako moduan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

816. artikulua. Zordun errekeritua ez agertzea eta betearazpena abiaraztea. Korrituak.

1. Zordunak ordaintze-errekerimendua betetzen ez badu edo agertzen ez bada, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, prozesu monitorioa amaitutzat ematen duena, eta hartzekodunari helaraziko dio, betearazpena abiaraz dadila eska dezan; horretarako, nahikoa izango da eskaera soila, lege honen 548. artikuluan aurreikusitako hogeiei eguneko epea igarotzeko beharrik gabe.

2. Behin betearazpena abiarazita, aurrera egingo du epai judizialen betearazpenerako xedatutakoaren arabera, eta formulatu ahal izango da kasu horietako aurreikusitako aurkakotza, baina prozesu monitorioaren eskatzaileak eta betearazpenpeko zordunak ezin izango dute gerora prozesu arruntean eskatu monitorioan erreklamaturako zenbatekoa edo betearazpenaren bidez lortutakoaren itzulketa.

Betearazpena abiarazten duen autoa ematen denetik, zorrak 576. artikuluan aipatzen den korritua sortuko du.

817. artikulua. Zordunak ordaintzea.

Zordunak ordaintze-errekerimendua betetz gero, hori egiaztatu bezain laster, Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du jarduketak artxiba daitezela.

818. artikulua. Zordunak aurka egitea.

1. Zordunak epe barruan aurkezten badu aurkakotza-idazkia, auzigaia behin betiko ebatziko da kasuan kasuko judizioan, eta ematen den epaiak gauza epaituaren indarra izango du.

Abokatuak eta prokuradoreak sinatu beharko dute aurkakotza-idazkia, erregela orokorren arabera muntagatik beharrezkoa denean haiek esku hartzea.

Gehiegizko eskabidean oinarritzen bada zordunaren aurkakotza, lege honen 21. artikulua bigarren apartatuan xedatutakoaren arabera jardungo da zor gisa aitortutako zenbatekoari dagokionez.

2. Uziaren muntak hitzeko judizioarena berarena gaintitzen ez duenean, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, prozesu monitorioa amaitutzat emango duena, eta erabakiko du izapideek aurrera jarrai dezatela judizio-mota horretarako aurreikusitakoaren arabera; aurkakotza auzi-jartzaileari helaraziko zaio, zeinak idatziz aurkaratu ahal izango duen hamar eguneko epean. Alderdiek, aurkakotzako eta hura aurkaratzeko idazkietan, hurrenez hurren, ikustaldia egin dadila eskatu ahal izango dute, 438. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako izapideei jarraituz.

Erreklamazioaren zenbatekoak kopuru hori gaintitzen duenean, eskatzaileak kasuan kasuko demanda jartzen ez badu aurkakotza-idazkia helarazten denetik hilabeteko epearen barruan, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du, jardunak largesten dituen eta hartzekoduna kostuak ordaintzera kondenatzen duena. Demanda aurkezten badu, prozesu monitorioari amaiera ematen dion dekretuan erabakiko du hura demandatuari helaraztea 404. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

bat etorri, salbu eta hura onartzea bidezkoa ez bada; kasu horretan, epaileari kontu ematea erabakiko du, egokitzen dena ebatz dezan.

3. Kasu orotan, hiri-finkaren errentariak zor dituen errentak edo zenbatekoak erreklamatzeko badira eta hark aurkakotza formulatzen badu, auzigaia behin betiko ebatziko da hitzezko judizioaren izapideen bitartez, munta edozein izanda ere.

II. KAPITULUA

Kanbio-judizioaz

819. artikulua. Zer kasutan den bidezkoa.

Soilik izango da bidezkoa kanbio-judizioa baldin eta hura hastean aurkeztu bada kanbio-letra, txekea edo ordaindukoa, Kanbio-agirien eta Txekearen Legean aurreikusitako betekizunak betetzen dituen.

820. artikulua. Eskumena.

Kanbio-judiziorako epaitegi eskudun izango da demandatuaren egoitzako lehen auzialdikoa.

Tituluaren ukandunak zordun batzuk demandatu baditu eta zordun horien betebeharra titulu beretik sortzen bada, eskudun izango da haietako edozeinen egoitzakoa, eta ordezkaritza independente baten bidez agertu ahal izango dira judizioan.

Ez dira aplikagarriak izango I. liburuaren II. tituluaren II. kapituluaren 2. atalean jasotako esanbidezko edo isilbidezko sumisioari buruzko arauak.

821. artikulua. Hasiera. Demanda. Ordaintze-errekerimendua eta prebentziozko enbargoa.

1. Demanda labur bidez hasiko da kanbio-judizioa, eta kanbio-titulua aurkeztuko da harekin batera.

2. Auzitegiak kanbio-tituluaren forma-egokitasuna aztertuko du auto bidez, eta, egokia irizten badio, honako neurri hauek hartuko ditu izapide gehiagorik gabe:

1.) Zordunari errekerimendua egitea, hamar eguneko epean ordain dezan.

2.) Agintzea berehala egin dadila zordunaren ondasunen berehalako prebentziozko enbargoa titulu betearazlean jasotako zenbatekoan, bai eta, ordaintze-errekerimendua betetzen ez denerako, berandutze-korrituentzat, gastuentzat eta kostuentzat aurreikusitako zenbatekoan ere.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3. Aurreko apartatua aipatutako neurriak har daitezela ukatzen duen autoaren aurka, 552. artikulua
2. apartatua aipatzen diren errekursoak jarri ahal izango ditu demandatzaileak.

822. artikulua. Ordainketa.

Kanbio-zordunak ordaintze-errekerimendua betetzen badu, 583. artikuluan xedatzen den moduan jardungo da, baina zordunaren kontura izango dira kostuak.

823. artikulua. Enbargoa kentzea.

1. Zorduna bere kabuz edo ordezkari bidez pertsonatzen bada ordaintze-errekerimendua egin eta hurrengo bost egunen barruan eta zeharo ukatzen badu bere sinaduraren autentikotasuna edo alegatzen badu erabateko ordezkariarik eza, auzitegiak, kontuan hartuta kasuaren inguruabarrak eta ekarritako dokumentazioa, kendu ahal izango ditu erabaki ziren enbargoak eta, komenigarritzat joz gero, galdatu kauzio edo berme egokia.

2. Enbargoa ez da kenduko honako kasu hauetan:

1.) Merkataritzako artekari elkargokideak esku hartu duenean igorpenean, onarpenean, abalean edo endosuan, data adierazita, edota notarioak kasuan kasuko sinadurak legitimatu dituen letran bertan.

2.) Protestoan edo notario bidezko ordaintze-errekerimenduan kanbio-zordunak zeharo ukatu ez duenean autentikoa dela tituluan azaltzen den bere sinadura edota ez duenean alegatu erabateko ordezkariarik eza.

3.) Kanbio-betebeharpekoak judizialki edo dokumentu publikoan aitortu duenean berea dela sinadura.

824. artikulua. Kanbio-aurkakotza.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, ordaintze-errekerimendua egin eta hurrengo hamar egunen barruan jarri ahal izango du zordunak kanbio-judizioari aurka egiteko demanda.

2. Demanda-forman egingo da aurkakotza. Kanbio-zordunak baliatu ahal izango ditu Kanbio-agirien eta Txekearen Legearen 67. artikuluan aurreikusitako aurkakotza-kausa edo -zio guztiak letraren, txekearen edo ordaindukoaren ukandunaren aurka.

825. artikulua. Aurkakotzarik ezaren ondoreak.

Zordunak aurkakotza-demandarik jartzen ez duenean ezarritako epean, auzitegiak betearazpena abiaraziko du erreklamaturako zenbatekoetan, eta, ondoren, Justizia Administrazioaren letratuak enbargoa



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

trabatuko du, baldin eta hura gauzatu ezin izan bada edo, 823. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kendu egin bada.

Lege honetan epaientzat eta ebazpen judizialentzat eta arbitralentzat aurreikusitakoarekin bat etorriz bideratuko da kasu horretan abiarazitako betearazpena.

826. artikulua. Kanbio-aurkakotza bideratzea.

Behin zordunak aurkakotza-idazkia aurkeztuta, Justizia Administrazioaren letraduak hura helaraziko dio hartzekodunari, idatziz aurkara dezan hamar eguneko epean. Alderdiek, aurkakotzako eta hura aurkaratzeko idazkietan, hurrenez hurren, ikustaldia egin dadila eskatu ahal izango dute, 438. artikuluan eta hurrengoetan hitzezko judiziorako aurreikusitako izapideei jarraituz.

Ikustaldia eskatzen ez bada edo auzitegiak ez baderitzo bidezkoa hura egiteari, izapide gehiagorik gabe ebatziko da aurkakotza.

Ikustaldia egitea erabakitzen denean, zorduna agertzen ez bada, aurkakotzan atzera egindakotzat hartuko du auzitegiak, eta aurreko artikuluan aurreikusitako ebazpenak emango ditu. Hartzekoduna agertzen ez bada, auzitegiak hari entzun gabe ebatziko du aurkakotzari buruz.

827. artikulua. Aurkakotzari buruzko epaia. Efikazia.

1. Hamar eguneko epean, aurkakotzari buruz ebazten duen epaia emango du auzitegiak. Aurkakotza ezetsi bada eta epaia errekurritzen bada, behin-behinean izango da betearazgarria lege honetan xedatutakoaren arabera.

2. Aurkakotza baiesten duen epaia errekurritzen bada, 744. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da trabatutako prebentziozko enbargoei dagokienez.

3. Kanbio-judizioan emandako epai irmoak gauza epaituaren ondoreak sortuko ditu judizio horretan alegatutako eta eztabaidatutako arazoei dagokienez, eta gainerako arazoak kasuan kasuko judizioan planteatu ahal izango dira.

Lehenengo xedapen gehigarria. Izaera arrunta eta eskumen-titulua.

1. Lege hau arrunta da, 763., 778 bis eta 778 ter artikulua salbuetsita, haiek izaera organikoa baitute eta Konstituzioaren 81. artikulua babesean eman baitira.

2. Konstituzioaren 149.1.6 artikulua arabera Estatuari dagokion eskumenaren babesean ematen da lege hau, alde batera utzi gabe arlo honetan autonomia-erkidegoen zuzenbide substantiboaren berezkitasunak dakartzan nahitaezko berezitasunak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Bigarren xedapen gehigarria. Muntak eguneratzea.

1. Gobernuak, errege-dekretu bidez, bost urtean behin eguneratu ahal izango ditu lege honetan zehaztutako muntak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena egin eta Estatuko Kontseiluak irizpena eman ondoren.

2. Europako dirua (euroa) erabat ezarri baino sei hilabete lehenago gutxienez, Gobernuak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena egin eta Estatuko Kontseiluak irizpena eman ondoren, diru horretara bihurtuko ditu lege honetan pezetatan ezarritako muntak, ezabatu egingo ditu diru horren zatikiak, eta eurotan ezarriko ditu zenbatekoak, erraz erabiltzeko moduan, gure legeetan ohikoa den bezala. Aurrekoa gorabehera, Europako diruan adierazitako munta berriekin batera, eutsi egingo zaie lege honek pezetatan ezarri dituen jarraitu behar den judizio-mota zehazteari eta errekursoak baliatzeari buruzko erregeletan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ikustaldiak, entzunaldiak eta agerraldiak jasota uzteko bitarteko materialak eta giza baliabideak.

Lege hau onesten denetik urtebeteko epean, Nazioko Gobernuak eta kasuan kasuko eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoetako gobernu-kontseiluek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, epaitegiek eta auzitegiek nahitaezko bitarteko materialak eta giza baliabideak izan ditzaten lege honen 147. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik ahozko jardunak jasota uzteko.

Laugarren xedapen gehigarria. Dokumentuen eta tresnen kopiak lortzeko tasak.

Lege hau onesten denetik sei hilabeteko epean, Nazioko Gobernuak prezio tasatuen sistema bat onetsiko du errege-dekretu bidez, autoetan jasotako eta prozesuko alderdiek eskatutako dokumentuen eta tresnen kopia soilak lortzeko buruzkoa.

Bosgarren xedapen gehigarria. Prozesu zibil jakin batzuk arintzeko neurriak.

1. **Justizia Ministerioak, gaian eskumenak dituen kasuan kasuko autonomia-erkidegoarekin bat etorritik** eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aldeko txostena egin ondoren, data berehala seinatzeko bulegoak sortu ahal izango ditu lehen auzialdiko epaitegiak eta instrukzioko epaitegiak bananduta dituzten barruti judizialean.

Kontuan izan Auzitegi Konstituzionalaren azaroaren 29ko 224/2012 Epaia bidez deklaratu dela testu-zati nabarmendua Konstituzioaren kontrakoa eta deuseza dela. Erref. BOE-A-2012-15758.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Zerbitzu erkide prozesalaren izaera izango dute bulego horiek, eta erregistroko, banaketako eta ikustaldiak, agerraldiak eta jardunak seinalatzeko funtzioak beteko dituzte xedapen gehigarri honetan aipatutako prozeduretan.

2. Data berehala seinalatzeko bulegoak eratzen diren barruti judizialetan, haien aurrean aurkeztuko dira honako gai hauei buruzko demandak eta eskaerak, betiere demandatzaileak edo eskatzaileak demandatuaren egoitza edo bizileku bat izenda badezake demandatua zitzatzeko:

- a. Zenbatekoen erreklamazioak, lege honen 250. artikuluen 2. apartatuan aipatutakoak.
- b. Hiri-finken utzarazpenak, legezko edo kontratuzko epea amaitzeagatikoak edota zor diren errentak edo zenbatekoak ez ordaintzeagatikoak, eta, kasua denean, errenta edo zenbateko horien erreklamazioak, erreklamazio-akzioa utzarazpen-akzioari metatzen zaionean.
- c. Kautela-neurriak, demandaren aurrekoak edo aldiberekoak, 770. artikuluen 6.) erregelari aipatutakoak.
- d. Deuseztasuneko, banantzeko edo dibortzioko behin-behineko neurriak, demandaren aurrekoak edo aldiberekoak, 771. eta 773.1 artikuluetan aurreikusitakoak.
- e. Banantze- edo dibortzio-demandak, ezkontideek elkarrekin adostuta edo ezkontideetako batek bestearen adostasunarekin eskatutakoak.

3. Lege honen arauekin bat etorritik izapidetuko dira data berehala seinalatzeko bulegoetan aurkeztutako demanda eta eskaera horiek, honako berezitasun hauek dituztela:

Lehenengoa. Izapidetzeko onartu aurretik, aurkeztu ziren egun berean edo ezinezkoa izanez gero hurrengo egun baliodunean, data berehala seinalatzeko bulegoek eginbide bakar batean:

a) Erregistratuko dituzte aurreko apartatuan aurreikusitako demandetatik edo eskaeretatik haien aurrean aurkeztu direnak.

b) Erabakiko dute kasuan kasuko epaitegiari banatzea, eta zuzenean seinalatuko dituzte 440.1 artikuluan aipatutako ikustaldia, 771.2 eta 773.3 artikuluetan aurreikusitako agerraldia, 777.3 artikuluan demanda berresteko aurreikusten den agerraldia eta, 440.3 artikuluko kasuan, botatzea gauzatu beharreko data eta ordua.

c) Aginduko dute, eta ondore horretarako bidali, kasuan kasuko zitazioak eta ofizioak gauza daitezela, haiek egin daitezen jakinarazpen-zerbitzu erkidearen bidez edo kasua denean hala eskatzen duen prokuradorearen bidez, eta zuzenean entrega dakizkion beteta kasuan kasuko epaitegiari.

d) Errekerimendua egingo diote alderdi auzi-jartzaileari, beharrezkoa izanez gero demandaren edo eskaeraren aurkezpenak izan ditzakeen akats prozesalak konpon ditzan gehienez ere hiru eguneko epean.

e) Kasuan kasuko epaitegiari berehala igorriko diote aurkeztutako demanda edo eskaera.

Bigarrena. Lege honetan kasu bakoitzerako aurreikusitako errekerimenduak eta ohartarazpenak edukiko dituzte aurreko erregelari aipatutako agerraldietarako eta ikustaldietarako zitazioek. Halaber, 440. artikuluen 3. apartatuan aipatutako puntuak zehaztuko dituzte.

Era berean, zitazioan adieraziko da ezen, demandatuak doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitor dakiola eskatzen badu edo 33.2 artikuluen kasuan ofiziozko abokatua eta prokuradorea izenda



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

dakizkiola eskatzen badu, zitazioa hartzen denetik hiru eguneko epean eskatu beharko duela epaitegiaren aurrean.

Hirugarrena. Demanda edo eskaera hartuta, bidezkoa dena erabakiko da hura izapidetzeko onartzeari buruz. Demanda onartzen den kasuan, egindako seinalamenduari jarraituko zaio. Izapidetzeko onartzen ez bada, ondorenik gabe utziko da seinalamendua, eta epaitegiak inguruabar hori komunikatuko die jada zitatutako zirenei, komunikazio-egintzen zerbitzu erkidearen bidez edo kasua denean hala eskatu duen prokuradorearen bidez.

Alderdietakoren batek doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitor dakiola edo ofiziozko abokatua eta prokuradorea izenda dakizkiola eskatzen duenean, 33. artikularen 3. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik berehala profesionalak izenda daitezela errekerituko da demanda onartzen duen ebazpen berean, ordurako eskaera hori ezagutzen bada, edo, kontrako kasuan, geroagoko dekretuan. Kasu horretan, seinalatutako ikustaldia edo agerraldia egin behar den datarako esleitutako profesionalen alde egingo da izendapena, abokatuen eta prokuradoreen elkargoek horretarako ezarritako laguntza-txanda bereziarekin bat etorritik.

Laugarrena. Data berehala seinalatzeko bulegoek seinalamenduen sistema programatu batekin bat etorritik txandaren arabera egokitzen den lehen auzialdiko epaitegiaren aurrean egingo dituzte xedapen honen lehenengoaren 3. apartatuaren b) paragrafoan aipatutako seinalamenduak, libre dauden egun eta ordu baliodunetatik gertuenean, eta, kasu orotan, honako epe hauetan:

a) 440.1 artikuluan zehaztutako epeetan egingo dira manu berean aipatzen diren ikustaldietarako seinalamenduak, eta epe horiek kontatzen hasitako dira data berehala seinalatzeko bulegoan demanda aurkeztu eta hurrengo bosgarren egunetik.

b) Data berehala seinalatzeko bulegoan eskaera edo demanda aurkeztu eta hurrengo bosgarren eta hamargarren egunaren artean egingo dira 771.2 eta 773.3 artikuluetan aurreikusitako agerraldietarako seinalamenduak.

c) Kasuan kasuko demanda aurkeztu eta hurrengo hiru egunen barruan egingo dira 777.3 artikuluan demanda berresteko aurreikusten diren agerraldien seinalamenduak.

d) Kasuan kasuko ikustaldirako zehaztutako datatik kontatzen hasita hilabete baino epe laburragoan finkatuko dira, 440. artikularen 3. apartatuaren azkeneko esaldian aurreikusitakoarekin bat etorritik, botatzea gauzatu beharreko data eta ordua, halakorik balego.

Bosgarrena. Data berehala seinalatzeko bulegoak eratzen diren barruti judizialean, lehen auzialdiko epaitegi bakoitzak bere agenda osoa erreserbatu beharko du laguntza etengabeko txandan jardutea egokitzen zaion datetarako, seinalamendu horiek zuzenean egin ditzan data berehala seinalatzeko bulegoak.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justizia Ministerioak aldeko txostena egin ondoren, beharrezkoak diren erregelamenduak emango ditu, arautu daitezkeen seinalamenduen sistema programatuaren antolaketa eta jardunbidea, lehen auzialdiko epaitegien laguntza etengabeko txanden ezarpena eta seinalamenduak zuzenean egiteko ordutegi-tarteen zatiketa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Seigarrena. Data berehala seinalatzeko bulegoak eratzen diren barruti judizialetako banaketa-arauek xedapen honen 2. apartatuko prozeduren ardura esleituko diote lehen auzialdiko epaitegietatik laguntza etengabeko txandan jardun behar duenari laugarren erregelari aipatzen diren ikustaldien eta agerraldien seinalamenduak egiteko datan.

4. Xedapen gehigarri honen eremuan egiten diren jardunetan, jakinarazpenak, zitazioak, epatzeak eta errekerimenduak gauzatu ahal izango dituzte pertsonatutako alderdien prokuradoreek, hala eskatuz gero eta ordezkatzan duten alderdiaren kontura, lege honetan oro har onartutako bitartekoetatik edozein erabiliz.

Baliozkotasunez egindakotzat hartuko dira komunikazio-egintza horiek, baldin eta behar beste jasota uzten bada helburuko pertsonari egin zaizkiola edo haren egoitzan egin direla.

Ondore horietarako, komunikazio-egintzaren hartzailaren identitatea eta izaera egiaztatuko ditu prokuradoreak bere erantzukizun pertsonalpean, eta arduratuko da kopian jaso daitezela haren sinadura eta komunikazioa gauzatu zen data.

Komunikazioak egin behar direnean ebazpenaren kopia edo zedula helburuko pertsonaren egoitzan entregatuz, 161. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, aplikagarria den neurrian, eta prokuradoreak egiaztatu beharko du betetzen direla manu horretan jasotako inguruabarrak; bi lekukoren laguntzaz edo beste edozein bitarteko egokiz baliatu ahal izango da horretarako.

Seigarren xedapen gehigarria. Ondasun higiezinak adjudikatzea.

Hartzekodun betearazleak III. liburuaren IV. tituluaren IV. kapituluaren VI. atalean aurreikusitako moduan eskatutako adjudikazioen kasuan eta betiere posturagilerik izan ez duten enkanteak egiten direnean zordunaren ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezinaren gainean, hartzekodunak eskatu ahal izango du ondasunak adjudikatzeko haien tasazio-balioaren ehuneko berrogeita hamarrean edo zenbateko handiagoan edota kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoan.

Era berean, aipatutako atalean aurreikusitako moduan eta zordunaren ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezin aipatuen kasuan, eskainitako posturarik onena ondasuna enkantera ateratako balioaren ehuneko 70etik beherakoa izan eta betearazpenpekoak ez badu posturagilerik aurkeztu, hartzekodunak eskatu ahal izango du higiezina adjudikatzeko ehuneko 70ean edo kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoan, betiere posturarik onena baino handiagoa bada zenbateko hori.

Zazpigarren xedapen gehigarria.

Zigor Kodearen 245. artikuluen 2. zenbakian jasotako usurpazio-delituagatik jarraitzen diren prozedura penaletan, delituaren objektu den higiezina uzteko eta edukitzeaile legitimoari itzultzeko neurria kautelazko izaerarekin bideratzen bada, eta etxebizitza okupatzen dutenen artean mendeko pertsonak badaude, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 2. artikuluen 2. zenbakian xedatutakoaren arabera, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak edo adingabeak, etxebizitzaren, gizarte-laguntzaren, gizarte-premiako egoeren ebaluazioaren eta informazioaren eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

berehalako arreta ematearen gaian eskumena duten autonomia- eta toki-administrazioei helaraziko zaie, dagozkien babes-neurriak har ditzaten.

Aurreikuspen berberak hartuko dira etxebizitza uztea epaian erabakitzen denean.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Aurrekariak bitarteko elektronikoen bidez bidaltzea.

Auzitegi, bulego judizial edo bulego fiskal batek espediente judizial elektronikoko oso bat edo haren zati bat beste bati igortzeko, sistema elektronikoen horretarako aukera ematen badute, elementu horietarako sarbide segurua eta kontrolatua emango da.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Sistema elektronikoen gauzatutako funtzio prozesalak.

Organo judizialen esku dauden kudeaketa prozesaleko sistemak edo beste sistema elektronikoko batzuek ahalbidetzen badute automatikoki gauzatzea lege honen 145. artikuluan jasotako informazio- eta ziurtapen-funtzioak, liburuak sortzekoak, bai eta lege honek edo beste edozein lege prozesalek Justizia Administrazioaren letratuak edo bulego judizialari esleitzen dizkion jasotze, kontu-emate eta bultzatze funtzio prozesalak ere, administrazio eskudunen erantzukizuna izango da funtzionarioak behar bezala prestatzea, sistema horiek behar bezala erabiltzeko betebeharra bete dezaten. Justizia Administrazioaren letratuaren erantzukizuna izango da zuzen eta egoki erabiltzen direla zaintzea, funtzionalitate horien efikaziari begira, bai eta zerbitzua gainbegiratzea ere.

Lege honek edo beste batzuek bulego judizialaren, epaitegiaren edo auzitegiaren egoitzari egiten dizkion erreferentziak egoitza judizial elektronikoki eta Justizia Karpeteri ere egindakotzat hartuko dira, baldin eta horrek edo hark eskueran badituzte izapidea, aurkezpena edo jarduketa telematikoki egiteko aukera ematen duten zerbitzuak edo aplikazioak.

Hamargarren xedapen gehigarria. Irtenbide teknologikoak seguruak izatea.

Administrazio judizial elektronikoen Estatuko batzorde teknikoak zehaztu ahal izango ditu irtenbide teknologikoen bete behar dituzten baldintzak arau prozesalean lortu nahi diren helburuak betetzen direla ziurtatzeko.

Lehenengo xedapen iragankorra. Ebazpen interlokutorioen edo behin betikoak ez diren ebazpenen aurkako errekurtsoen araubidea.

Lege honetan ezartzen den errekurtsu arrunten araubidea aplikatuko zaie lege hau indarrean sartu ondoren prozesu edo auzialdi mota orotan ematen diren ebazpen interlokutorioei edo behin betikoak ez diren ebazpenei.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Bigarren xedapen iragankorra. Prozesuak lehen auzialdian.

Salbuetsirik lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoa, lege hau indarrean sartzerakoan lehen auzialdian dauden deklarazio-prozesuak aurreko legeria prozesalaren arabera jarraituko dira bideratzen harik eta lehen auzialdian epaia eman arte. Apelazioari, bigarren auzialdiari, betearazpenari, behin-behinekoa barne, eta aparteko errekurtsoei dagokienez, lege honen xedapenak izango dira aplikagarriak.

Hirugarren xedapen iragankorra. Prozesuak bigarren auzialdian.

Salbuetsirik lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoa, lege hau indarrean sartzerakoan deklarazio-prozesuak bigarren auzialdian daudenean, aurreko legearen arabera bideratuko da auzialdi hori, eta, epaia eman ondoren, lege hau aplikatuko da ondore guztietarako.

Aurrekoa gorabehera, lege honetan xedatutakoaren arabera eskatu ahal izango da ezen behin-behinean betearaz dadila apelatutako epai baieslea.

Laugarren xedapen iragankorra. Auzigaiak kasazioan.

Lege hau indarrean sartzerakoan kasazio-errekurtsua ebazteke duten auzigaiak aurreko legearen arabera bideratuko eta erabakiko dira, baina, lege honekin bat eskatu ahal izango da behin-behinean betearaz dadila kasazioan errekurritutako epai baieslea.

Bosgarren xedapen iragankorra. Judizio betearazleak.

Oinarri duten titulua edozein izanda ere, lege hau indarrean sartzerakoan ebazkizun dauden judizio betearazleak aurreko legearen arabera izapidetzen jarraituko dira, baina, jardunak premiamendu-prozedurara iritsi ez badira, une hori iristean aplikatuko da lege hau prozedura horri dagokionez.

Seigarren xedapen iragankorra. Nahitaezko betearazpena.

Betearazlea erabat asebate arte oraindik gauza edo alda daitezkeen jardun betearazleei buruz lege honetan xedatutakoaren arabera eraenduko dira lege hau indarrean sartzerakoan hasita dauden betearazpen-prozesuak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Zazpigarren xedapen iragankorra. Kautela-neurriak.

1. Lege honetan xedatutakoarekin bat eraenduko dira lege hau indarrean sartu baino lehen hasitako prozesuetan lege hau indarrean sartu ondoren eskatzen diren kautela-neurriak.

2. Aurreko legeko xedapenekin bat eraenduko dira lege hau indarrean sartu baino lehen jada hartuta dauden kautela-neurriak, baina eskatu eta lortu ahal izango da lege honen arabera berrikustea eta aldatzea.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

1. Indargabetu egiten da 1881eko otsailaren 3ko Errege Dekretu bidez onetsitako Prozedura Zibilarren Legea, honako salbuespen hauekin:

1.) II. liburuaren XII. eta XIII. tituluak eta III. liburua; haiek indarrean jarraituko dute harik eta indarrean sartu arte Konkurtso Legea eta Borondatezko Jurisdikzioaren Legea hurrenez hurren, salbuetsirik 1827. artikulua eta 1880.etik 1900.era artekoak, azken hori barne, indargabetuta geratzen baitira.

Halaber, aipatutako legeak indarrean sartu arte, indarrean jarraituko dute, orobat, 4. artikuluen 1.) eta 5.) zenbakiek, 10. artikuluen 1.) eta 3.) zenbakiek eta 63. artikuluen 8.), 9.), 16.), 17.), 18.), 19.), 22.), 23.), 24.), 25.), 26.) eta 27.) erregelek, guztiak 1881eko Prozedura Zibilarren Legearenak.

Konkurtso Legea indarrean sartzen ez den bitartean, lege honetan intzidentek izapidetzeko xedatutakoarekin bat eraenduko dira konkurtso-prozesuetan sortzen diren intzidentek.

Borondatezko Jurisdikzioaren Legea indarrean sartzen ez den bitartean, ulertuko da ezen hitzezko judizioari egiten zaizkiola adostasunik gabeko bidezko prozedurari egiten zaizkion aipamenak, III. liburuokoa.

2.) II. liburuaren I. tituluak, bai eta 11. artikulua ere, adiskidetzeari buruzkoa, eta II. liburuaren IX. tituluaren 2. atala, abintestato jaraunsleen deklarazioari buruzkoa; haiek indarrean jarraituko dute harik eta indarrean sartu arte Borondatezko Jurisdikzioaren Legean bi gai horiei buruz araututakoa.

3.) 951.etik 958.era arteko artikulak, atzerriko auzitegiek emandako epaiek Espainian duten efikaziari buruzkoak; haiek indarrean jarraituko dute harik eta Gai Zibileko Nazioarteko Lankidetzaren Juridikoaren Legea indarrean sartu arte.

2. Indargabetuta geratzen dira honako manu, lege eta xedapen hauek ere:

1.) 8. artikuluen bigarren apartatua; 12. artikuluen seigarren apartatuaren bigarren paragrafoa; 127. artikulutik 130.era artekoak, azken hori barne; 134. artikuluen bigarren paragrafoa eta 135. artikulua; 202. artikulutik 214.era artekoak, azken hori barne; 294.etik 296.era artekoak, azken hori barne, eta 298.a; eta 1214., 1215., 1226. artikulak eta 1231.etik 1253.era artekoak, azken hori barne, haiek guztiak Kode Zibilekoak.

2.) Sozietate Anonimoen Legearen, abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bateginaren, 119., 120., 121. eta 122.1 artikulak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

3.) Pertsonaren Oinarrizko Eskubideen Babes Jurisdikzionalerako abenduaren 26ko 62/1978 Legearen 11., 12., 13., 14. eta 15. artikulua.

4.) 1908ko uztailaren 23ko Legearen 2., 8., 12. eta 13. artikulua, mailegu-kontratu jakin batzuen deuseztasunari buruzkoak.

5.) Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilar eta Asegurari buruzko Legearen, martxoaren 21eko 632/1968 Dekretuak onetsitako testu bateginaren, 17. eta 18. artikulua.

6.) Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 38. artikulutik 40.era artekoak, azken hori barne.

7.) Landa Errentamenduen abenduaren 31ko 83/1980 Legearen 123. artikulutik 137.era.

8.) Ondasun Higigarrien Hipotekari eta Edukitzaren Lekualdaketarik gabeko Bahiari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 82., 83., 84., 85., 92. eta 93. artikulua.

9.) Itsasontzi Hipotekaren 1893ko abuztuaren 21eko Legearen 41. eta 42. artikulua.

10.) Kode Zibileko ezkontza-eraentza aldatzen duen eta deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-kausetan jarraitu beharreko prozedurak zehazten dituen uztailaren 7ko 30/1981 Legearen lehenengo xedapen gehigarritik bederatzigarrenera.

11.) Lehia Desleialari buruzko urtarilaren 10eko 3/1991 Legearen 23., 25. eta 26. artikulua.

12.) Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorren 29., 30. eta 33. artikulua.

13.) Jabetza Intelektualari buruzko Legearen, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren, 142. artikulua.

14.) Patenteen martxoaren 20ko 11/1986 Legearen 125. artikulua hiru garren eta laugarren apartatuak, 133. artikulua bigarren apartatua, 135. artikulua eta 136. artikulua lehenengo eta bigarren apartatuak.

15.) Kontratatueto Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legearen 9. artikulua hiru garren apartatua eta 14., 15., 18. eta 20. artikulua.

16.) Ondasun Higigarriak Epeka Saltzei buruzko uztailaren 13ko 28/1998 Legearen 12. artikulua.

17.) Enpresak Enbargatzen diren kasuetan Administrazio Judizialari buruzko urriaren 20ko 18/1969 Lege Dekretua.

18.) 1952ko azaroaren 21eko Dekretua, udal-justizian aplikagarriak diren arau prozesalei buruzko 1944ko uztailaren 19ko Legearen hamargarren oinarria garatzen duena.

19.) Probintzia-azitegiei Gai Zibiletan Eskumenak emateari buruzko ekainaren 20ko 10/1968 Legea.

20.) Autoak eta Jardun Judizialak Berregiteari buruzko 1940ko otsailaren 23ko Dekretua.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

21.) Abuztuko egun guztiak ondore judizialearako baliogabe deklaratzeari buruzko uztailaren 17ko 5/1973 Lege Dekretua.

3. Halaber, indargabetutzat hartzen dira, Kode Zibilaren 2. artikuluaaren bigarren apartatuarekin bat etorritik, lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten edo harekin bateraezinak diren arau guztiak.

Indarrean dirau azaroaren 27ko 52/1997 Legeak, Estatuari eta Institutio Publikoei Laguntza Juridikoa emateari buruzkoak.

Azken xedapenetako lehenengoa. Jabetza Horizontalaren Legearen erreforma.

1. Honela geratzen da idatzita Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 7. artikuluaen 2. apartatuaren hirugarren paragrafoa, apirilaren 6ko 8/1999 Legeak aldatua:

“Arau-hausleak bere jokabideari eusten badio, jabeen batzarako arauzko deialdia egingo da, eta, horrek baimena eman eta gero, presidenteak bukarazte-akzioa jarri ahal izango du haren aurka; artikulua honetan berariaz agindu ez diren arazoetan, akzio hori judizio arruntaren bitartez gauzatuko da.”

2. Honela geratuko da idatzita Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 21. artikulua:

“1. Etxebizitza edo lokalaren jabeak bete beharko ditu 9. artikuluko e) eta f) apartatuek aipatzen dituzten betebeharrak, batzak ezarritako epean eta moduan. Bestela, presidenteak edo administratzaileak, jabeen batzak hala erabakitzen badu, judizio bidez eska diezaioke betetzea jabeari, prozesu monitorioaren bitartez.

2. Prozedura monitorioa erabiltzeko, alde zuzenetik batzaren erabakiari buruzko ziurtagiria lortu behar da. Erabaki horretan onetsi behar da jabeen erkidegoarekin izandako zorraren likidazioa; erkidegoan idazkari-zeregina betetzen duenak egingo du likidazio hori, presidentearen ikus-onespenarekin. Horrez gain, prozedura monitorioa erabiltzeko nahitaezkoa izango da ukitutako jabe guztiei erabakia jakinaraztea, 9. artikuluan ezarritako moduan.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera, kopuru zehatza erreklamatzeko denean, kopuru horri gehitu behar zaizkio aurretiazko ordaintze-errekerimenduen gastuak, baldin eta dokumentu bidez egiaztatzen bada errekerimendu hori egin dela, eta, eskaerarekin batera, egintza horien egiaztatzea aurkezten bada.

4. Etxebizitzaren edo lokalaren aurreko jabeak erantzukizun solidarioa duenean zorraren ordainketaren gainean, horren aurka zuzen daiteke hasierako eskabidea, horrek egungo jabearen aurka duen berreskaera-eskubideari kalterik egin gabe. Erreklamazioa egin dakioke, halaber, erregistro-titularrari, eta horrek ere izango du aurretiaz aipatutako eskubide berbera.

Kasu horietan guztietan, hasierako eskabidea betebeharrekoetatik edozeinen aurka jar daiteke, edo, bestela, betebeharreko guztien aurka aldi berean.

5. Zorduna prozesu monitorioaren hasierako eskabidearen aurka jartzen denean, hartzekodunak eska dezake, beharrezkoa den neurrian, haren ondasunen gaineko prebentziozko enbargoa, horrekin erreklamaziopeko kopuruari, korrituei eta kostuei aurre egiteko.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Edozein kasutan ere, auzitegiak prebentziozko enbargoa erabakiko du, eta ez da beharrezkoa izango hartzekodunak kauzioa ematea. Edonola ere, zordunak ezerezean utz dezake enbargoa, horretarako banku-abala ematen badu, epaileak dekretatu izan duen munta horretan.

6. Prozesu monitorioaren hasierako eskaeran, abokatuaren eta prokuradorearen lanbide-zerbitzuak erabiltzen direnean, erkidegoari zor zaizkion kopuruak erreklamatzeko, zordunak ordaindu beharko ditu bion esku-hartzearen ondorioz sortutako zerbitzu-sariak eta eskubideak, bai zordunak ordainketa-errekerimenduari kasu egiten dionean, bai auzitegian agertzen ez denean ere; edozein kasutan ere, Prozedura Zibilaren Legearen 394. artikulua hirugarren apartatuan ezarritako mugak errespetatu beharko dira. Aurkakotasuna dagoen kasuetan, erregela orokorrak aplikatuko dira kostuen arloan; baina epaia hartzekodunaren interesentzat guztiz onuragarria baldin bada, kostu horien artean sartu beharko dira abokatuaren zerbitzu-sariak eta prokuradorearen eskubideak, haiek esku hartu badute, nahiz eta esku-hartze hori aginduzkoa izan ez.”

Azken xedapenetako bigarrena. Jabetza Intelektualari buruzko Legearen erreforma.

1. Honela geratuko da idatzita Jabetza Intelektualari buruzko Legearen, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren, 25.20 artikulua:

“20. Aurreko apartatuan adierazitako kasuan eta ordainsaria ordaindu ez den beste edozeinetan, entitate kudeatzaileak edo kudeatzaileek edo, hala badagokio, ordezkariak edo elkarte kudeatzaileak, hargatik eragotzi gabe balia ditzaketen akzio zibil eta penalak, auzitegiari eskatu ahal izango diote Prozedura Zibilaren Legean xedatutakoaren arabera dagozkion kautela-neurriak hartzeko eta, zehazki, dagozkion ekipo, tresna eta euskarri materialak enbargatzeko. Hala enbargatutako ondasunak erreklamatzeko den ordainsaria eta dagozkion kalte-galerak ordaintzeari loturik geratuko dira.”

2. Honela geratuko da idatzita Jabetza Intelektualari buruzko Legearen, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren, 103. artikulua:

“103. artikulua. Babes-neurriak.

Titulu honetan aitorturiko eskubideen titularrak lege honen III. liburuko I. tituluan izaera orokorrean xedatzen diren akzioak eta prozedurak eta dagozkion kautela-neurriak galdatu ahal izango ditu, Prozedura Zibilaren legean xedatutakoaren arabera.”

3. Honela geratuko da idatzita Jabetza Intelektualari buruzko Legearen, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren, 143. artikulua:

“143. artikulua. Auzi kriminalak.

Lege honetan aitorturiko eskubideak urratzeagatik abian diren auzi kriminaletan, prozedura zibiletan bidezko diren kautela-neurriak hartu ahal izango dira, Prozedura Zibilaren Legean xedatutakoaren arabera. Neurri horiek ez dute eragotziko legeria prozesal penalean ezarritako beste zeinahi ere hartzea.”

4. Honela geratuko da idatzita Jabetza Intelektualari buruzko Legearen, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateginaren, 150. artikulua:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

“150. artikulua. Legitimazioa.

Entitate kudeatzaileak, baimenduak izan ondoren, beren estatutuetan jasota dagoen moduan egongo dira legitimaturik kudeatzeko enkargatu zaizkien eskubideak baliatzeko eta era guztietako prozedura administratibo zein judizialean haiek baliarazteko.

Legitimazio horren egiaztagarri, entitate kudeatzaileak aski izango du estatutuen kopia eta administrazio-baimenaren ziurtagiria aurkeztea prozesuaren hasieran. Demandatuak puntu hauetan baino ez du oinarritu ahal izango bere kontrakotasuna: demandatzaileak ordezkagaitasunik ez izatea, eskubide eskusiboaren titularraren baimena, edo dagokion ordainsaria ordaindu izatea.”

Azken xedapenetako hirugarrena. Sozietate Anonimoen Legearen erreforma.

1. Honela geratuko da idatzita abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuaren, Sozietate Anonimoen Legearen testuategina onesten duenaren, 118. artikulua:

“Sozietatearen erabakiak aurkaratzeko, judizio arruntaren izapideei jarraituko zaie eta Prozedura Zibilarren Legean jasotako xedapenak aplikatuko dira.”

2. Aipatutako Sozietate Anonimoen Legearen testuaren 122. artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoak artikulua horren lehenengo eta bigarren paragrafoak izango dira hurrenez hurren.

Azken xedapenetako laugarrena. Lehia Desleialari buruzko Legearen erreforma.

Honela geratuko da idatzita Lehia Desleialari buruzko urtarilaren 10eko 3/1991 Legearen 22. artikulua:

“22. artikulua. Prozedura.

Prozedura Zibilarren Legean judizio arrunterako xedatutakoaren arabera izapidetuko dira lehia desleiala gai duten prozesuak.”

Azken xedapenetako bosgarrena. Patenteen Legearen erreforma.

1. Honela geratuko da idatzita Patenteen martxoaren 20ko 11/1986 Legearen 125. artikulua lehenengo apartatua:

“1. Prozedura Zibilarren Legearen arabera egokitzen den judizioan ebatziko dira lege honen babesean sor daitezkeen auzi zibilak.”

2. Honela geratuko da idatzita Patenteen martxoaren 20ko 11/1986 Legearen 133. artikulua:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

“Lege honetan aurreikusitako akzioetakoren bat egikaritzen duenak edo egikarituko duenak hartaz arduratu behar duen organo judizialari eskatu ahal izango dio har ditzala kautela-neurriak, akzio horien eraginkortasuna ziurtatzekoak, betiere justifikatzen badu lege honen 83. artikulua araberaz ustiatzen dela akzioaren objektu den patentea edota prestaketa serioak eta eraginkorrak hasi dituela ondore horietarako.”

Azken xedapenetako seigarrena. Kontratueto Baldintza Orokorrei buruzko Legearen erreforma.

1. Honela geratuko da idatzita Kontratueto Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legearen 12. artikulua bigarren apartatua:

“2. Bukarazte-akzioaren bidez, lortu nahi da demandatua bere baldintza orokorretatik deuseztat jotzen direnak kentzera eta aurrerantzean ez erabiltzera kondenatuko duen epai bat ematea, hartan zehaztuz eta argituz, behar izanez gero, kontratuaren zer zati jo behar den baliozko eta efikaztat.

Bukarazte-akzioari metatu ahal izango zaio, osagarri gisa, kobratu diren kopuruak itzultzekoa, epaiak adierazten dituen baldintzen araberaz, eta orobat kalte-galerak ordaintzekoa, halakorik sortzen badu aipatutako baldintzak aplikatzeak.”

2. Honela geratuko da idatzita Kontratueto Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legearen 12. artikulua hirugarren apartatua:

“3. Erretraktatze-akzioaren bidez, eskatuko da epai baten bitartez adieraz dadila demandatua behartua dagoela, aurre-ezartzailea bera izan edo ez, deusez jotzen diren baldintza orokorretako klausulak erabiltzeko berak emandako gomendiotik erretraktatzera eta aurrerantzean ez gomendatzera.”

3. Honela geratuko da idatzita Kontratueto Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legearen 12. artikulua laugarren apartatua:

“4. Deklaratze-akzioaren xedea da epai baten bitartez aitortzea klausula bat kontratueto baldintza orokorra dela eta agintzea klausula hori inskribatu dadila, hala badagokio, lege honen 11. artikuluko 2. apartatuaren azken puntuan aurreikusitakoaren araberaz.”

4. Beste paragrafo bat gehitzen zaio amaieran Kontratueto Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legearen 16. artikuluari, eta honela geratuko da:

“Entitate horiek pertsonatu ahal izango dira haietariko beste edozeinek sustatutako prozesuetan, egoki irizten badiote ordezkatzeko dituzten interesak defendatzeko.”

5. Laugarren xedapen gehigarri bat gehitzen zaio Kontratueto Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legeari, eta honela geratuko da:

“Laugarren xedapen gehigarria.

Prozedura Zibilarren Legean kontsumitzaile eta erabiltzaileak aipatzen direnean, ulertu behar da atxikimendu-emaile oro aipatzen dela, izan kontsumitzaile edo erabiltzaile edo ez, Kontratueto Baldintza Orokorren Lege honetatik eratorritako azalduetako akzio indibidual edo kolektiboak baliatzen diren auzietan.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Halaber, Prozedura Zibilaren Legean kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak aipatzen direnean, ulertu behar da berdin aplika dakiekeela, halaber, Kontratueta Baldintza Orokorren Lege honetan jasotako akzio kolektiboak egikaritzen diren auzietan haiek egikaritzeko legitimazio aktiboa duten gainerako pertsona eta erakundeei ere.”

Azken xedapenetako zazpigarrena. Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko Legearen erreforma.

1. Honela geratuko da idatzita Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko uztailaren 13ko 28/1998 Legearen 15. artikulua hiru garren apartatuaren lehenengo paragrafoa:

“3. Ondasun higigarrien prebentziozko enbargoa edo nahitaezko betearazpena dagoenean, largetsi egingo da ondasun horien edo haien produktuen edo errenten premiamendu-prozedura oro, erregistratzailearen ziurtagiri bidez autoetan jaso bezain laster aipatutako ondasunen gainean eskubideak inskribatuta daudela enbargoa zein pertsonaren aurka dekretatu edo prozedura zein pertsonaren aurka bideratu eta pertsona hori ez den beste baten alde, non eta ez den haren aurka akzioa zuzendu erregistroan jabe gisa agertzen denaren jaraunsle moduan. Hartzekodun betearazleari bere akzioa erreserbatuta geratuko zaio, judizio berean pertsegi ditzan zordunaren beste ondasun batzuk eta kasuan kasuko judizioan ebatz dadin ustez duen eskubidea prozedura eten zaien ondasunei dagokienez.”

2. Honela geratuko da idatzita Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko uztailaren 13ko 28/1998 Legearen 16. artikulua lehenengo apartatua:

“1. Hartzekodunak eskatu ahal izango du bete daitezela lege honetan araututako kontratuetatik eratorritako betebeharrak, deklarazio-prozesu arruntetan, prozesu monitorioan edo betearazpen-prozesuan egokitzen diren akzioak egikaritzuz Prozedura Zibilaren Legearen arabera.

Zordunaren ondarearen gaineko akzio betearazlea oinarritzeko behar besteko titulua eratuko dute, soilik, ondasun higigarriak epeka saltzeko kontratuak, Prozedura Zibilaren Legearen 517. artikulua bigarren apartatuaren 4.) eta 5.) zenbakietan aipatutako dokumentuetakoren batean jasota daudenek.”

3. Honela geratuko da idatzita Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko uztailaren 13ko 28/1998 Legearen 16. artikulua bigarren apartatuaren d) letra:

d) Zordunak ez duenean galdatutako zenbatekoa ordaintzen ezta ondasunak entregatzen ere aurreko letran aipatutako enkante publikoan besterentzeko, hartzekodunak bere eskubidearen babes sumarioa erreklamatu ahal izango dio auzitegi eskudunari, Prozedura Zibilaren Legearen 250. artikulua lehenengo apartatuaren 10.) eta 11.) zenbakietan aurreikusitako akzioak egikaritzuz.”

4. Honela geratuko da idatzita Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko uztailaren 13ko 28/1998 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren bigarren apartatua:

“Finantza-errentatzaileak eskatu ahal izango du bete daitezela lege honetan araututako kontratuetatik eratorritako betebeharrak, Prozedura Zibilaren Legearen arabera deklarazio-prozesu arruntetan, prozesu monitorioan edo betearazpen-prozesuan dagozkion akzioak egikaritzuz.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Zordunaren ondarearen gaineko akzio betearazlea oinarritzeko behar besteko titulua eratuko dute, soilik, finantza-errentamenduko kontratuek, Prozedura Zibilaren Legearen 517. artikuluaen bigarren apartatuaren 4.) eta 5.) zenbakietan aipatutako dokumentuetakoren batean jasota daudenez.”

5. Honela geratuko dira idatzita Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko uztailaren 13ko 28/1998 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren hirugarren apartatuaren lehenengo paragrafoa eta c) letra:

“3. Finantza-errentamenduko kontratu bat betetzen ez denean, Prozedura Zibilaren Legearen 517. artikuluaen bigarren apartatuaren 4.) eta 5.) zenbakietan aipatutako dokumentuetakoren batean jasotakoa edota Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzko Erregistroan inskribatutakoa eta ondore horretarako ezarritako eredu ofizial batean formalizatutakoa, errentatzaileak ondasuna berreskuratu ahal izango du honako erregelaren hauen arabera:

c) Zordunak ez duenean ordaintzen galdatutako zenbatekoa edota finantza-errentatzaileari ondasunak entregatzen ez dizkionean, errentatzaile horrek auzitegi eskudunari erreklamatu ahal izango dio berehala berreskuratzeko finantza-errentamenduan lagatutako ondasunak, Prozedura Zibilaren Legearen 250. artikuluaen lehenengo apartatuaren 11.) zenbakian aurreikusitako akzioak egikaritzuz.”

Azken xedapenetako zortzigarrena. Arbitrajeko Legearen erreforma.

Honela geratuko da idatzita Arbitrajeko abenduaren 5eko 36/1988 Legearen 11. artikulua:

“1. Hitzarmen arbitralak hitzartutakoa betetzera behartzen ditu alderdiak eta eragotzi egingo die auzitegiei arbitrajepean jarritako auzibidezko arazoez arduratzea, interesa duen alderdiak deklinatoria bidez hala eskatzen duen bakoitzean.”

“2. Alderdiek hitzarmen bidez uko egin ahal izango diote itundutako arbitrajeari, eta zabalik geratuko da bide judiziala. Nolanahi ere, ulertuko da uko egiten diotela baldin eta, behin haietako edozeinek demanda jarrita, demandatuak edo demandatu guztiek, hainbat izanez gero, deklinatoria forma egokian proposatzeaz bestelako edozein izapide prozesal egiten badute judizioan pertsonatu ondoren.”

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Hipoteka Legearen erreforma.

1946ko otsailaren 8ko Hipoteka Legearen 41., 86., 107., 129., 130., 131., 132., 133., 134. eta 135. artikulua aldatzen dira, eta honela geratuko dira idatzita:

1. 41. artikulua

“Erregistroan inskribatutako eskubideek eratortzen dituzten akzio errealak egikaritzeko, Prozedura Zibilaren Legean araututako hitzezko judizioa gauzatu behar da honako hauen kontra: erregistroan inskribatutako titulurik izan gabe, eskubide inskribatuaren aurka jardun edo eskubide horien egikaritzea oztopatzen duten guztien kontra. Akzio horien oinarria da 38. artikulua aintzatetsitako erregistro-legitimazioa, eta, halakoak egikaritu ahal izateko, erregistratzailearen ziurtagiri bidez egiaztatu behar da kasuan kasuko idazpena indarrean dagoela, inolako kontraesanik gabe.”



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2. 86. artikulua

“Prebentziozko idatzoharren jatorria edozein izanda ere, horiek egin eta lau urteko epearen buruan iraungitzen dira, salbu eta legearen aginduz epe laburragoa dagoenean. Dena dela, idatzoharren indarraldia beste lau urtetan luza daiteke, baldin eta interesdunek hala eskatzen badute, edota idatzoharra agindu zuten agintariek hala ezartzen badute. Horretarako, luzapena agintzeko manamendua idazpena iraungi baino lehen aurkeztu behar da. Luzatutako idatzoharra lau urteko epean iraungiko da, luzapenaren idatzoharra egin zenetik zenbatzen hasita. Gero, jarraikako luzapenak egin daitezke, baldintza berberetan.

Prebentziozko idatzoharren iraungitzea erregistroan jasoaraziko da, ondasun higiezin edo eskubide erreal ukituaren ugazabak halaxe eskatuta.”

3. 107.12.) artikulua

“12.) Prozedura judizialean adjudikatu diren ondasun higiezinen gain errematatzaileak duen eskubidea. Behin errematearen prezioa ordaindu eta jabaria errematatzailearen izenean inskribatu ostean, hipotekak bere horretan irauten du, adjudikaturiko ondasunen gain.”

4. 129. artikulua

“Hipoteka-akzioa zuzenean egikari daiteke ondasun hipotekatuen aurka; kasu horretan, Prozedura Zibilaren Legearen III. liburuaren IV. tituluaren xedatutakoa bete behar da, V. kapituluaren ezarritako berezitasunak kontuan izanda. Horrez gain, hipotekaren eratze-eskrituran itun daiteke bermaturiko betebeharra betetzen ez bada, ondasun hipotekatua estrajudizialki saltzea, Kode Zibilaren 1858. artikulua arioren arioren. Salmenta estrajudiziala notario bidez egin behar da, Hipoteka Erregelamenduan ezarritako formalitateak kontuan izanda.”

5. 130. artikulua

“Ondasun hipotekatuen aurkako zuzeneko betearazpen-prozedura hipoteka inskribatua gauzatzeko bakarrik erabil daiteke; inskripzioa eratzailea denez gero, kasuan kasuko idazpenean jasotako datuak hartu behar dira prozedura horren oinarritzat.

6. 131. artikulua

“Hipotekaren deuseztasun-demandari buruzko prebentziozko idatzoharrak eta betearazpena eteteko arrazoiaren batean oinarritzen ez direnak 133. artikuluko ezerezte-manamenduaren bitartez ezerezten dira, baldin eta zamen ziurtagiria egin izanaren orri-bazterreko oharren ostekoak badira idatzohar horiek. Ezin daiteke hipotekaren inguruko ordainagiririk inskribatu, orri-bazterreko ohar hori manamendu judizialaren bitartez ezereztu arte.”

7. 132. artikulua

“Ondasun hipotekatuen gaineko zuzeneko betearazpen-prozedurak dakartzan inskripzio nahiz ezerezteen ondoretarako, erregistratzaileak honako hauek kalifikatu behar ditu:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

1. Demanda eta ordainketa-errekerimendua bidali zaizkiola, bai zordunari, bai zordun ez den hipotekatzaileari, bai hirugarren edukitzaileei, azken horiek euren eskubidea erregistroan inskribatuta badute, prozeduran zamen ziurtagiria egiten den unean.

2. Hartzekodun nahiz hirugarrenei prozedura jakinarazi zaiela, haien eskubidearen inskripzioa edo idatzoharra hipotekaren ostean egin bada; zamen ziurtagiria egin izanaren orri-bazterreko oharra egin ostean agertu diren hartzekodun eta edukitzaileen kasuan, jakinarazpena ez da beharrezkoa, orri-bazterreko oharrak horren ondoreak sortzen dituelako.

3. Hartzekodunari kredituaren printzipala, sortutako korrituak eta eragindako kostuak ordaintzeko eman zaionak ez duela gainditzen kasuan kasuko hipotekaren estaldura.

4. Saldu edo adjudikaturikoaren balioa auzi-jartzaileak duen kreditu osoaren zenbatekoaren bestekoa edo txikiagoa dela, edota handiagoa izanez gero, gaindikina horrexetarako establezimendu publiko batean kontsignatu zela, gero hartzekodunen esku."

8. 133. artikulua

"Idazkari judizialak erremate edo adjudikazioari buruzko autoa jasotzen duen lekukotza egin behar du, eta, batzuetan, lekukotza horrek dakar prezioa kontsignatu behar izatea. Lekukotza titulu askietsia da adjudikatutako finka edo eskubidea errematatzaile nahiz adjudikaziodunaren izenean inskribatzeko, baldin eta lekukotza horrekin batera zamak ezerezteko manamendua aurkezten bada, Prozedura Zibilaren Legearen 674. artikulua aipatu bezala.

Zamak ezerezteko manamendu judiziala eta erremateari edo adjudikazioari buruzko autoaren lekukotza dokumentu bakarrera bil daitezke; betiere, dokumentu horretan jasoarazi behar da inskripzioa zein ezerezteagatik aurreko artikulua aipatzen dituen betekizunak eta inguruabarrak betetzen direla."

9. 134. artikulua

"Adjudikazio-autoari buruzko lekukotzak eta zamak ezerezteko manamenduak dakarte finka zein eskubidea adjudikaziodunaren izenean inskribatzea eta betearazpena eragin zuen hipoteka ezerezteagatik. Halaber, gero zamak, kargak zein hirugarren edukitzailearen aldeko inskripzioak ezereztuko dira, inolako salbuespenik gabe, bai eta prozeduran zamen ziurtagiria egin izanaren orri-bazterreko oharren ostean egindakoak ere.

Geroko obra berrien adierazpenek eta zatiketa horizontalek bakarrik iraungo dute indarrean, hipoteka-inskripzioak eratortzen duenean hipoteka hori eraikin berrietara hedatzen dela, legearen aginduz zein itun bidez."

10. 135. artikulua

"Betearazpen-prozedura zein epaileren aurrean bideratu eta erregistratzaileak epaile horri eman behar dio gero idazpenen berri, idazpenok betearazpena uki dezaketenean. Hori horrela izango da, prozedura ondasun hipotekatuen kontrakoa denean ere."



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Azken xedapenetako hamargarrena. Kanbio-letra eta Txekeari buruzko Legearen erreforma.

1. Kanbio-letra eta Txekeari buruzko uztailaren 16ko 19/1985 Legearen 67. artikulua azkeneko paragrafoa aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

“Kambio-akzioa egikaritzen denean, artikulua honetan aipatutako salbuespenak bakarrik jar daitezke.”

2. Kanbio-letra eta Txekeari buruzko uztailaren 16ko 19/1985 Legearen 49. artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da: "...bai betearazpen-bidean..." esamoldearen ordez "...bai kanbio-prozesu berezian..." ezartzen da.

3. Kanbio-letra eta Txekeari buruzko uztailaren 16ko 19/1985 Legearen 66. artikulua aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

“Kambio-letrak betearazpena dakar, eta, horretarako Prozedura Zibilarren Legeak IV. liburuko III. tituluaren II. kapituluaren araututako kanbio-judizioa gauzatuko da; judizio horretan, tituluak zehaztutako zenbatekoa eta bestelako kopuruak erreklamatu dira, lege honen 58, 59 eta 62. artikuluek ezarritakoaren arabera, eta ez da beharrezkoa izango epaileak sinadurak aintzatestea.”

4. Kanbio-letra eta Txekeari buruzko uztailaren 16ko 19/1985 Legearen 68. artikulua aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

Kambio-akzioa kanbio-prozesu bereziaren bitartez egikaritzen denean, Prozedura Zibilarren Legean ezarritako prozedura erabiliko da.”

Azken xedapenetako hamaikagarrena. Lan-arloko Prozeduraren Legearen erreforma.

Apirilaren 7ko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren, Lan-arloko Prozeduraren Legearen testu bategina onesten duenaren, 2., 15., 47., 50., 183., 186., 234., 235. eta 261. artikulua aldatzen dira, eta honela geratuko dira idatzita:

1. 2. artikulua

“d) Kideen eta mutualitateen artekoak, profesionalen elkargoek ezarritakoak izan ezik. Halako auzigaietan, Aseguru Pribatuaren Antolamendu eta Gainbegiratzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legeak 64. artikuluan eta hurrengoetan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian dioena aplikatu beharko da. Halaber, lan-fundazioen artean edo haien eta beren onuradunen artean sortuak, obligazio berezien eta ondare-eskubideen betetzea, izatea edo deklaratzeko dela eta, erakunde horiei dagozkien xede eta obligazioei loturik.”

2. 15. artikulua

“1. Abstentzio eta errekusazioetan, kausei dagokienez, Botere Judizialaren Lege Organikoak aginduko du; prozedurari dagokionez, berriz, Prozedura Zibilarren Legeak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Adiskidetze eta judizio-ekitaldiak baino lehen proposatu beharko da errekusazioa auzialdian; errekursoetan, berriz, bozketa eta epaitzarako jarritako eguna baino lehen, edo, hala badagokio, ikustaldirako jarritako eguna baino lehen.

Errekusazioa proposatzeak ez du betearazpena etengo.

2. Errekusazio-intzidenteen instruitzaile izango dira:

a) Auzitegi Goreneko Gizarte-arloko Salako, justizia-auzitegi nagusietako gizarte-arloko saletako edo Auzitegi Nazionaleko Gizarte-arloko Salako presidentea edo haietako magistratu bat edo gehiago errekusatuz gero, errekusatuaren salako magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren arabera txandan izendatua.

b) Justizia-sala bateko magistratu guztiak errekusatzen badira, dagokion auzitegia osatzen dutenetatik antzinasunez egokitzen zaiona, errekusazioak hari eragiten ez badio; dagokion auzitegiko gizarte-arloko sala osatzen duten magistratu guztiak errekusatzen badira, berriz, administrazioarekiko auzien salako magistratu bat, zozketaz izendatua.

c) Errekusatua gizarte-arloko epailea bada, justizia-auzitegi nagusiko gizarte-arloko salako magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren arabera txandan izendatua.

Antzinasuna erabakitzeko, karrera judizialeko eskalafoi-hurrenkerari jarraituko zaio.

Aurreko paragrafoetan esandakoa ezin bete den kasuetan, dagokion auzitegiko gobernu-salak izendatuko du instruktoea; errekusatua edo errekusatuak baino kategoria handiagokoa, ahal dela, edo gutxienez antzinasun handiagokoa.

3. Errekusazio-intzidenteen erabakitzaile izango dira:

a) Botere Judizialaren Lege Organikoaren 61. artikuluan aurreikusitako sala, errekusatua Gizarte-arloko Salako presidentea edo sala bereko bi magistratu edo gehiago badira.

b) Auzitegi Goreneko Gizarte-arloko Sala, sala horretako magistratuetariko bat errekusatzen bada.

c) Botere Judizialaren Lege Organikoaren 77. artikuluan adierazitako sala, errekusatu goi auzitegi horretako Gizarte-arloko Salako presidentea bada.

d) Botere Judizialaren Lege Organikoaren 69. artikuluan adierazitako sala, errekusatu bada Auzitegi Nazionaleko Gizarte-arloko Salako presidentea edo sala horretako atalen bateko magistratuetariko bi baino gehiago.

e) Auzitegi Nazionaleko Gizarte-arloko Salako magistratuetariko bat edo bi errekusatuz gero, errekusatuarena ez den atala izango da erabakitzaile, edo errekusatuaren atalaren hurrengo, zenbaki-hurrenkeran.

f) Justizia-auzitegi nagusietako gizarte-arloko saletako magistratu bat edo bi errekusatuz gero, sala osoa izango da erabakitzaile, ataletan banatua ez badago; ataletan banatua badago, berriz, errekusatuarena ez den atala edo errekusatuaren atalaren hurrengo, zenbaki-hurrenkeran.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

g) Errekusatua gizarte-arloko epailea bada, dagokion justizia-auzitegi nagusiko gizarte-arloko sala, osorik, ataletan banatua ez badago; ataletan banatua badago, berriz, lehenengo atala.”

3. 47.2 artikulua

“2. Interesdun ororen eskura egongo da Prozedura Zibilaren Legearen 213. artikuluan aipatzen den epai-liburua.”

4. 50.1 artikulua

“1. Epaileak, judizioa amaitzean, ahoz eman ahal izango du epaia, eta aktan jasoko da, Prozedura Zibilaren Legeak ezartzen dituen eduki eta betekizunekin. Orobat eman dezake epaitza soilik, eta epaitza hori aktan jasoko da idazkari judizialaren fedearen bidez, nahiz gero epaia erredaktatu, legeak aurreikusitako epe eta moduan.”

5. 183. artikulua lehenengo paragrafoa

“Demandatua bertan izan gabe egiten diren prozesuetan, Prozedura Zibilaren Legearen II. liburuko V. tituluaren bilduriko arauak aplikatuko dira, berezitasun hauekin:”

6. 183. artikulua 3. erregela

“Entzunaldia eskatzeko epea hiru hilabetekoa izango da, epaia jakinarazten denetik hasita. Dagokion “aldizkari ofizialean” egingo da jakinarazpena, Prozedura Zibilaren Legearen 501. artikuluan aurreikusitako kasu eta baldintzetan.”

7. 186. artikulua

“Berraztertze- eta erregu-errekurtsoak bideratzean, Prozedura Zibilaren Legean berraztertze-errekurtsorako ezarritakoari jarraituko zaio.”

8. 234. artikulua

“Gizarte-arloko jurisdikzio-ordenako organoek emaniko edozein epairen aurka jar daiteke Prozedura Zibilaren Legean aurreikusitako berrikuspen-errekurtsoa. Errekurtso hori Auzitegi Goreneko Gizarte-arloko Salaren aurrean jarriko da, eta Prozedura Zibilaren Legean xedatutakoaren arabera ebatzi beharko du hark, baina errekurritzeko gordailuaren munta, nolanahi ere, lege honetan kasazio-errekurtsoetarako ezartzen dena izango da.”

9. 235.1 artikulua

“1. Epaien betearazpenari buruz Prozedura Zibilaren Legean ezarritako moduan gauzatuko dira epai irmoak, lege honetan aurreikusitako berezitasunekin.”

10. 261.2 artikulua

“2. Baloreak badira enbargaturikoak, Prozedura Zibilaren Legean haiek saltzeko ezarritako moduan salduko dira.”



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Azken xedapenetako hamabigarrena. Prozedura Kriminalaren Legearen erreforma.

1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez aldarrikatutako Prozedura Kriminalaren Legearen 54., 56., 63., 68., 201. eta 852. artikulua aldatzen dira, eta honela geratuko dira idatzita:

1. 54. artikulua

“Abstentzio eta errekusazioetan, kausei dagokienez, Botere Judizialaren Lege Organikoak aginduko du; prozedurari dagokionez, berriz, Prozedura Zibilarren Legeak.”

2. 56. artikulua

“Oinarritzen duen kausa ezagutu orduko proposatu beharko da errekusazioa; izan ere, osterantzean, ez da izapidetzeko onartuko. Zehazki, errekusazioak ez dira onartuko:

1. Prozesuaren edozein alditan estreinako agertzean edo esku hartzean proposatzen ez direnean, baldin eta errekusazio-kausa ezagutzen bada prozesua hasi baino lehen.

2. Prozesua hasita dagoenean proposatzen direnean, baldin eta errekusazio-kausa ezagutzen bada errekusazioa proposatzen den une prozesala baino lehen.”

3. 63. artikulua

“Errekusazio-intzidenteen instruitzaile izango dira:

a) Auzitegi Goreneko Arlo Penaleko Salako, justizia-auzitegi nagusietako arlo penaleko saletako edo Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salako presidentea edo magistratu bat edo gehiago errekusatuz gero, errekusatua kide den salako magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren arabera txandan izendatua.

b) Probintzia-auzitegiko presidentea edo magistratu bat edo gehiago errekusatuz gero, errekusatua kide ez den atal bateko magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren arabera txandan izendatua. Atal bakarra egonez gero, Prozedura Zibilarren Legearen 107. artikulua bigarren apartatua ezarritakoaren arabera jardungo da.

c) Justizia-sala bateko magistratu guztiak errekusatzen badira, kasuan kasuko auzitegia osatzen duten magistratuetako bat, antzinasun-hurrenkeraren arabera txandan izendatua, errekusazioak hari eragiten ez badio. Kasuan kasuko auzitegi-salako magistratu guztiak errekusatzen badira, lurralde-esparru bereko auzitegiek osatzen dituzten gainerako jurisdikzio-ordenetako magistratu guztietatik, zozketa bitartez izendatutako magistratua.

d) Arlo penaleko epaile zentrala edo instrukzioko epaile zentrala errekusatzen bada, Auzitegi Nazionaleko arlo penaleko salako magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren arabera txandan izendatua.

e) Instrukzioko epailea edo arlo penaleko epailea errekusatzen bada, probintzia-auzitegi eskuduneko magistratu bat, antzinasun-hurrenkeraren arabera txandan izendatua.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

f) Errekusatua bake-epailea bada, dagokion barrutiko instrukzioko epailea edo, instrukzioko epaitegi bat baino gehiago badaude, epaile titularra, antzintasun-hurrenkeraren arabera txandan izendatutakoa.”

4. 68. artikulua

“Errekusazio-intzidenteen erabakitzaile izango dira:

a) Botere Judizialaren Lege Organikoaren 61. artikuluan aurreikusitako sala, errekusatua bada Auzitegi Gorenko presidentea, Arlo Penaleko Salako presidentea edo sala bereko bi magistratu edo gehiago.

b) Auzitegi Gorenko Arlo Penaleko Sala, sala horretako magistratuetariko bat errekusatzen bada.

c) Botere Judizialaren Lege Organikoaren 77. artikuluan aipatutako sala, errekusatu bada justizia-auzitegi nagusiko presidentea, auzitegi nagusi horretako arlo zibil eta penaleko salako presidentea edo autonomia-erkidegoan egoitza duen probintzia-auzitegiko presidentea edo probintzia-auzitegi bateko sala edo atal bateko magistratu bi edo gehiago.

d) Botere Judizialaren Lege Organikoaren 69. artikuluan aipatutako sala, errekusatu bada Auzitegi Nazionaleko presidentea, auzitegi horretako arlo penaleko salaren presidentea edo sala horretako atal bateko magistratu bi baino gehiago.

e) Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Sala, bertako magistratu bat edo bi errekusatzen badira.

f) Justizia-auzitegi nagusietako arlo zibil eta penaleko sala, bertako magistratu bat errekusatzen bada.

g) Probintzia-auzitegi bateko magistratu bat errekusatu bada, probintzia-auzitegi osoa; eta probintzia-auzitegiak bi atal edo gehiago izanez gero, errekusatuari dagokion atala ez baizik bestea edo, zenbaki-hurrenkeraren arabera, errekusatuari dagokion atalaren hurrengoa.

h) Epaile zentrala errekusatzen bada, errekusazioari buruz erabakiko du, txandaren arabera, Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salaren atalak. Txanda hori auzitegi horretako gobernu-salak ezarriko du, eta txanda horretatik baztertuko da errekusatua zein epaitegitako titular izan eta horrek emandako errekurtsioen gaineko ardura duen atala.

i) Errekusatua arlo penaleko epailea edo instrukzioko epailea bada, probintzia-auzitegia, edo, probintzia-auzitegiak bi atal edo gehiago izanez gero, bigarren atala.

j) Errekusatua bake-epailea bada, errekusazio-intzidentea instruitu duen epaile berak ebatziko du.”

5. 201. artikulua

“Baliodunak izango dira urteko egun eta ordu guztiak auzi kriminalen instrukzioa egiteko, berariaz baliodun bihurtu beharrik gabe.”

6. 852. artikulua

“Edozein kasutan, kasazio-errekurtsioa jar daiteke, horren oinarri bada Konstituzioaren manuren bat haustea.”



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Azken xedapenetako hamahirugarrena. Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilar eta Aseguruari buruzko Legearen erreforma.

(Indargabetua)

Azken xedapenetako hamalagarrena. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen erreforma.

1. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua bosgarren apartatua bigarren paragrafo bat gehitzen da, eta honela geratuko da idatzita:

“Administrazioarekiko auzien epaitegiei dagokie, halaber, osasun-arloko agintariek osasun publikorako presazko eta beharrezko jotzen dituzten neurriak judizialki baimentzea edo berrestea, neurriok askatasuna edo beste oinarritzko eskubide bat kentzea edo murriztea dakartenean.”

2. Honela geratuko da idatzita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 87. artikulua hirugarren apartatua:

“3. Aurreko apartatueta aurreikusitako kasuetan kasazio-errekurtsoa prestatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da aurrez erregu-errekurtsoa jartzea.”

Azken xedapenetako hamabosgarrena. Doako Laguntza Juridikoaren Legearen erreforma.

Doako Laguntza Juridikoaren urtarilaren 10eko 1/1996 Legearen 6. artikulua 6. zenbakia aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

“6. Prozesuan adituen doako laguntza izatea. Laguntza hori jurisdikzio-organismoetara atxikitako langile teknikoek edo, haiek ezin badute, administrazio publikoen mendeko funtzionarioek, organismoek edo zerbitzu teknikoek emango dute.

Salbuespen gisa, eta, dagokion esparruko teknikariak ez izateagatik, jurisdikzio-organismoen edo administrazio publikoen mendeko adituek laguntza hori eman ezin dutenean, teknikari pribatuen artean lege prozesalen arabera izendatutako adituek emango dute, epaileak edo auzitegiak ebazpen ziodun bidez egokitzen jotzen badu.”

Azken xedapenetako hamaseigarrena. Araubide iragankorra aparteko errekurtsoen gaian.

(Ezabatuta)



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Azken xedapenetako hamazazpigarrena. Araubide iragankorra abstentzioari eta errekusazioari, jardunen deuseztasunari eta ebazpenak argitzeari eta zuzentzeari buruzko gaietan.

Botere Judizialaren Lege Organikoa jarraian aipatzen diren gaietan erreformatzen ez den bitartean, ez dira aplikatzekoak izango lege honen 101. artikulutik 119.era artekoak, epaileen, magistratuen eta idazkari judizialen abstentzioari eta errekusazioari buruzkoak, ez eta azken xedapenetako hamaikagarrenaren 2. apartatua eta azken xedapenetako hamabigarrenaren 1., 2., 3., eta 4. apartatuak ere. Halaber, aipatutako lege organikoa aldatzen ez den bitartean, ez dira aplikatuko lege honen 225. artikulutik 230.era artekoak eta 214.a, jardunen deuseztasunari eta ebazpenak argitzeari eta zuzentzeari buruzkoak hurrenez hurren.

Azken xedapenetako hemezortzigarrena. Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legearen proiektua.

Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, Gobernuak Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legearen proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei.

Azken xedapenetako hemeretzigarrena. Konkurtso Legearen proiektua.

Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, Gobernuak Konkurtso Legearen proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei.

Azken xedapenetako hogeigarrena. Gai Zibileko Nazioarteko Lankidetzak Juridikoari buruzko Legearen proiektua.

Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, Gobernuak Gai Zibileko Nazioarteko Lankidetzak Juridikoari buruzko Legearen proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei.

Azken xedapenetako hogeita batgarrena. 805/2004 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 21ekoa —aurkaratu ez diren kredituentzat Europako titulu betearazle bat ezartzen duena—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.

1. Bananduta eta probidentzia bidez erabakiko da Europako titulu betearazle baten ziurtagiri judiziala ematea, 805/2004 (EE) Erregelamenduaren I. eranskinean aurreikusitako moduan.

Ebazpena eman zuen auzitegi berak izango du Europako titulu betearazle bat egiaztatzeko eskumena.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 267. artikuluen lehenengo hiru apartatuetan aurreikusitako moduan ebatziko da Europako titulu betearazle bateko okerrak zuzentzeko prozedura, 805/2004 (EE) Erregelamenduaren 10.1.a) artikuluan aurreikusitakoa.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Prozedura Zibilaren urtarilaren 7ko 1/2000 Legean araututako berraztertze-errekursoarentzat aurreikusitakoarekin bat izapidetuko eta ebatziko da Europako titulu betearazle baten ziurtagiria egin dadila errebokatzeko prozedura, 805/2004 (EE) Erregelamenduaren 10.1.b) artikuluan aipatutakoa, kontuan hartu gabe auzitegiaren jurisdikzio-ordena.

Bananduta eta probidentzia bidez erabakiko da ez egitea Europako titulu betearazle baten ziurtagiria, eta berraztertze-errekursoaren izapideen bitartez aurkaratu ahal izango da.

2. Transakzioak onesten edo homologatzen dituzten ebazpen judizialak Europako titulu betearazle gisa ziurtatzeko, aurreko apartatua aplikatuko da, eta 805/2004 (EE) Erregelamenduaren II. eranskinean aurreikusitako moduan egingo da.

3. Notario eskuesleak edota protokoloan legez ordeztzen duenak edo jarraitzen dionak izango du eskumena 805/2004 (EE) Erregelamenduaren 25.1 artikuluan eta III. eranskinean aurreikusitako ziurtagiria egiteko. Egin izanaren lekukotza ohar bidez utziko du matrizean edo polizan jasota, eta jatorrizkoa artxibatuko du, kopia bidez zirkulatuko baitu.

Europako titulu betearazle ziurtatua protokoloan daukan notarioari egokituko zaio ziurtagiria egitea 805/2004 (EE) Erregelamenduaren 10.1 artikuluan aurreikusitako oker materialengatiko zuzenketari eta errebokazioari buruz, bai eta betearazgarritasun-gabeziatik edo mugatik eratorritakoa ere, erregelamendu bereko 6.2 artikuluan eta IV. eranskinean ezarritakoarekin bat etorritz.

Salbuespen da ebazpen judizial batetik eratorritako betearazgarritasun-galera; xedapen gehigarri honen 1. apartatuari jarraituko zaio hari buruzko ziurtagiria egiteko.

Kasu orotan, betearazgarritasunaren zuzenketa, errebokazioa, gabezia edo muga jaso beharko da matrizean edo polizan.

Notarioak ezezkoa ematen badio errekeritu zaizkion ziurtagiriak egiteari, interesdunak Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean aurkaratu ahal izango du, notario-legerian kexa-errekursoarentzat aurreikusitako izapideen bitartez. Zuzendaritza-organo horren ebazpenaren aurka, errekurtoa jarri ahal izango da, auzialdi bakarrean, notarioak egoitza daukan probintziako hiriburuko lehen auzialdiko epailearen aurrean, eta hitzezko judizioaren izapideen bitartez ebatziko da.

4. Ebazpena eman zuen administrazio- edo jurisdikzio-organoak egingo du 805/2004 (EE) Erregelamenduaren V. eranskinean aipatutako ziurtagiria.

5. Demandatuaren egoitzako edo betearazpenaren tokiko lehen auzialdiko epaitegiak izango du lurralde-eskumena Europako titulu betearazle gisa ziurtatutako ebazpenak, transakzio judizialak eta dokumentu publikoak betearazteko.

6. Gobernuak beharrezkoak diren arauak emango ditu xedapen gehigarri hau garatzeko.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Azken xedapenetako hogeita bigarrena. 2201/2003 (EE) Erregelamendua, Kontseiluarena, 2003ko azaroaren 27koa —ezkontza eta guraso-erantzukizuna gai duten ebazpen judizialen eskumenari, aitorpenari eta betearazpenari buruzkoa— Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.

1. Ezkontza eta guraso-erantzukizuna gai duten ebazpen judizialei buruzko ziurtagiria, 2201/2003 (EE) Erregelamenduaren 39. artikuluan aurreikusitakoa, Justizia Administrazioaren letraduak egingo du, bananduta eta eginbide bitartez, aipatutako erregelamenduaren I. eta II. eranskinetan dagoen kasuan kasuko formularioa betez.

2. 2201/2003 (EE) Erregelamenduaren 41. artikuluen 1. apartatuan aurreikusten diren bisita-eskubideari buruzko ebazpen judizialen gaineko ziurtagiri judiziala epaileak egingo du, bananduta eta probidentzia bidez, aipatutako erregelamenduaren III. eranskinean dagoen formularioa betez.

3. 2201/2003 (EE) Erregelamenduaren 42. artikuluen 1. apartatuan aurreikusten diren adingabea itzultzeari buruzko ebazpen judizialen gaineko ziurtagiri judiziala epaileak egingo du, bananduta eta probidentzia bidez, aipatutako erregelamenduaren IV. eranskinean dagoen formularioa betez.

4. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 267. artikuluen lehenengo hiru apartatuetan ezarritakoaren arabera ebatziko da ziurtagiri judizialeko okerrak zuzentzeko prozedura, 2001/2003 (EE) Erregelamenduaren 43.1 artikuluan aurreikusitakoa. Ezin izango da errekurtsorik jarri aurreko bi apartatuak aipatzen duten ziurtagiri judiziala argitzeari edo zuzentzeari buruz ebazten duen ebazpenaren aurka.

5. Artikulu honen 1., 2. eta 3. apartatuak aipatzen duten ziurtagiria egiteko ukapena bananduta eta dekretu bidez emango da, 1. apartatuaren kasuan, eta auto bidez, 2. eta 3. apartatuen kasuan, eta zuzeneko berrikuspen-errekurtsoren izapideen bitartez aurkaratu ahal izango da, 1. apartatuaren kasuan, eta berraztertze-errekurtsoren izapideen bitartez, 2. eta 3. apartatuen kasuan.

6. 2201/2003 (EE) Erregelamenduaren 11.6 artikuluan aipatutako igorpenak barnean hartuko ditu 1980ko urriaren 25eko Hagako Hitzarmenaren 13. artikuluekin bat etorritik emandako ez itzultzeko ebazpen judizialaren kopia bat eta ikustaldiaren aktaren jatorrizko grabazioaren kopia bat, soinua eta irudia grabatzeko eta erreproduzitzeko euskarri egokian egongo dena, bai eta jurisdikzio-organismoak Erregelamenduaren 10. eta 11. artikuluetako galdakizunak bete direla egiaztatzeko kasuan-kasuan eranstea egoki deritzon dokumentuak ere.

7. Indarrean dagoen Prozedura Zibilarren Legean seme-alaba adingabeen zaintzari eta jagoletzari buruzko prozesuetarako eskusiboki aurreikusitako prozeduraren arabera bideratuko da 2201/2003 (EE) Erregelamenduaren 11.7 artikuluan aipatutako erreklamazioa, baina hartaz arduratzeko eskumen judiziala zehaztuko da nazioarteko osten kasuetan adingabeak itzultzeari buruzko neurriak arautzen dituen prozesurako aurreikusitakoaren arabera.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Azken xedapenetako hogeita hirugarrena. 1896/2006 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa —Europako prozesu monitorioa ezartzen duena—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.

1. Lehen auzialdiko epaitegiari dagokio arduratzea, modu eskusiboan eta baztertzailan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 1896/2006 (EE) Erregelamenduan arautzen den Europako prozesu monitorioaren auzialdiaz.

Gai zibileko eta merkataritzako ebazpen judizialen eskumen judizialari, aintzatespenari eta betearazpenari buruzko Kontseiluaren 2000ko abenduaren 22ko 44/2001 (EE) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera zehaztuko da lurralde-eskumena, eta, aurreikusi gabekoan, Espainiako legeria prozesalaren arabera.

2. 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren I. eranskinean ageri den formularioaren bidez aurkeztuko da Europako ordaintze-errekerimenduaren eskabidea, dokumentaziorik aurkezteko beharrik gabe, eta, aurkeztuz gero, ez da onartuko, salbu eta Europako ordaintze-errekerimenduaren eskaerak, enpresaburu edo profesional baten eta kontsumitzaile edo erabiltzaile baten arteko kontratu batean oinarritzen direnak, epaileak klausulen abusuzkotasunaren kontrola ofizioz gauzatu ahal izateko eskatzen duenean.

3. Behin Europako ordaintze-errekerimenduaren eskabide bat formulatuta, Justizia Administrazioaren letratuak eskatu ahal izango dio demandatzaileari, dekretu bidez eta 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren II. eranskineko B formularioan aurreikusitako moduan, eskabidea osa edo zuzen dezala, salbu eta hura argi eta garbi bada oinarririk gabea edo onartezina, aipatutako erregelamenduaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik; kasu horretan, auto bidez ebatziko du epaileak.

4. Eskabidearen zati batean soilik betetzen badira 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren 2., 3., 4., 6. eta 7. artikuluetan ezarritako betekizunak, Justizia Administrazioaren letratuak epaileari helaraziko dio, eta, kasua denean, epaileak, auto bidez eta III. eranskineko C formularioan aurreikusitako moduan, demandatzaileari aukera emango dio onartzeko edo errefusatzeko Europako ordaintze-errekerimendu baten proposamena, zehazten duen zenbatekokoa, aipatutako erregelamenduaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Proposamenean, demandatzaileari ezagutarazi beharko zaio ezen, erantzuna bidaltzen ez badu edo erantzuna uko egitea bada, osorik ezetsiko dela Europako ordaintze-errekerimenduaren eskabidea, hargatik eragotzi gabe nazioko edo erkidegoko arau prozesalen arabera kasuan kasuko judizioaren bidez kreditua erreklamatzeko dagoen aukera.

Demandatzaileak C formularioa itzuliz erantzungo du, horretarako zehaztutako epean. Europako ordaintze-errekerimendu partzialaren proposamena onartzen bada, nazioko edo erkidegoko arau prozesalen arabera egokitzen den judizioaren bidez erreklamatu ahal izango da hasierako kredituaren gainerako zatia.

5. Auto bidez erabakiko da Europako ordaintze-errekerimenduaren eskabidea ezestea, 11. artikuluekin bat etorritik. Era berean, demandatzaileari informazioa emango zaio ezesteko zioei buruz, 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren IV. eranskineko D formularioan aurreikusitako moduan. Auto hori ez da errekurritzeko modukoa izango.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

6. Dekretu bidez hartuko da Europako ordaintze-errekerimendu bat egiteko erabakia, eskabidea aurkezten denetik gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, eta 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren V. eranskineko E formularioan aurreikusitako moduan, aipatutako erregelamenduaren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hogeita hamar eguneko epeak ez du barnean hartuko demandatzaileak eskabidea osatzeko, zuzentzeko edo aldatzeko erabilitako denbora.

7. Demandatuak aurkakotza-idazkia aurkeztu ahal izango du errekerimendua jakinarazten zaionetik hogeita hamar eguneko epean, 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren VI. eranskineko F formularioa erabilia eta erregelamendu horren 16. artikuluekin bat etorritik.

Errekerimendua jakinaraztean, demandatuari ohartaraziko zaio epeak zenbatuko direla Epeei, datei eta epemugei aplikagarriak zaizkien arauak zehazten dituen Kontseiluaren 1971ko ekainaren 3ko 1182/71 Erregelamenduaren arabera, egun baliogabeak baztertu gabe.

8. Aurkakotza-idazkia zehaztutako epean aurkezten den kasuan, Justizia Administrazioaren letraduak demandatzaileari komunikatuko dio ezen auzigaiak aurrera jarrai dezala eskatu behar duela Espainiako arau prozesalen arabera egokitzen den prozeduraren bidez kasuan kasuko lehen auzialdiko, merkataritzako edo gizarte-arloko epaitegiaren aurrean, salbu eta berariaz jada eskatu duenean prozesua amai dadila kasu horretan.

Zehaztutako epean aurkakotza formulatzen ez den edo zorra ordaintzen ez den kasuan, Justizia Administrazioaren letraduak amaiera emango dio prozesu monitorioari, Europako ordaintze-errekerimendua betearaztekoa dela deklaraturik dekretu bidez eta 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren VII. eranskineko G formularioan aurreikusitako moduan, aipatutako erregelamenduaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Europako ordaintze-errekerimendua demandatzaileari entregatuko zaio, Justizia Administrazioaren letraduak behar bezala eginda lekukotza, dela jatorrizkoaren dela kopiaren gainean, eta jasoaraziko da inguruabar hori.

9. Europako ordaintze-errekerimendua egin zuen jurisdikzio-organo berak izango du hura berrikusteko eskumena. 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren 20.1 artikuluan aurreikusitako kausak direla-eta Europako ordaintze-errekerimendu bat berrikusteko prozedura izapidetzeko eta ebazteko, kontuan hartuko da lege honen 501. artikuluan eta horrekin bat datozenetan auzilari auzi-iheslariaren eskariz epai irmoak hutsaltzeko aurreikusitakoa.

1896/2006 (EE) Erregelamenduaren 20.2 artikuluan aurreikusitako berrikuspena izapidetuko da Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 241. artikuluan aurreikusten den egintza judizialak deuseztatzeko intzidentearen bidez.

10. Lege honetan xedatutakoaren arabera gauzatuko dira Europako prozesu monitorio bat izapidetzearen ondorioz eta Europako ordaintze-errekerimendu bat egitearen ondorioz auzitegiak egindako jakinarazpenak, betiere 1896/2006 (EE) Erregelamenduan aurreikusitako komunikazio-bideak badira; lehentasunez, bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko dira, eta, halakorik ezean, beste edozein bitarteko, demandatuari komunikazio-egintza entregatu zaiola jasota uzteko aukera ematen duena.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

11. Lege honetan prozesu monitorioarentzat aurreikusitakoarekin bat etorritik eraenduko dira 1896/2006 (EE) Erregelamenduan Europako ordaintze-errekerimendu bat egiteko aurreikusten ez diren arazo prozesalak.

12. 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren eranskinetan jasotako formularioen jatorrizkoek osatuko dute prozedura, hala Espainiako estatuak igortzen duenean Europako ordaintze-errekerimendua, nola Espainia denean hura betearazi behar duen estatu. Egokiak diren ondoretarako, kasuan kasuko kopia lekukotzadunak egingo dira.

13. Demandatuaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegiak izango du betearazte-indarra lortu duen Europako ordaintze-errekerimendu bat Espainian betearazteko eskumena.

Era berean, berari egokituko zaio ukatzea, demandatuaren eskariz, Europako ordaintze-errekerimenduaren betearazpena, bai eta mugatzea betearazpena, eratzea bermea edo etetea betearazpen-prozedura ere, 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren 22. eta 23. artikuluetan aipatuak.

14. Kalterik egin gabe 1896/2006 (EE) Erregelamenduko arauak xedatutakoari, lege honetan xedatutakoaren arabera eraenduko dira beste estatu kide batzuetan egindako Europako ordaintze-errekerimenduak Espainian betearazteko prozedurak.

Lege honen 556. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera egingo da Europako ordaintze-errekerimenduaren betearazpena ukatzearen izapidetzea, bai eta betearazpenaren mugaketa, haren etendura edo bermearen eraketa ere, eta errekurritzeko modukoa ez den auto bidez ebartziko dira.

15. Europako ordaintze-errekerimendu bat Espainian betearazi behar denean, demandatzaileak epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu beharko du gaztelaniazko itzulpen ofiziala edota aipatutako errekerimenduko jardun judizialak gauzatu diren lurraldeko autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialekoa, 1896/2006 (EE) Erregelamenduaren 21. artikuluan aurreikusitako moduan egiaztatuta.

Azken xedapenetako hogeita laugarrena. 861/2007 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2007ko uztailaren 11koa —Europako munta txikiko prozesua ezartzen duena—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.

1. Lehen auzialdiko edo merkataritza-arloko epaitegiari dagokio, erreklamazioaren objektua aintzat hartuta, lehen auzialdian arduratzea Europako munta txikiko prozesuaz, zeina Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko uztailaren 11ko 861/2007 (EE) Erregelamenduan arautzen baita.

Lurralde-eskumena zehazteko, aintzat hartuko da Gai zibileko eta merkataritzako ebazpen judizialen eskumen judizialari, aintzatespenari eta betearazpenari buruzko Kontseiluaren 2000ko abenduaren 22ko 44/2001 (EE) Erregelamenduan xedatutakoa, eta, aurreikusi gabekoan, Espainiako legeria prozesalean xedatutakoa.

2. 861/2007 (EE) Erregelamenduan aurreikusitako moduan eta haren eranskinetan jasotako formularioen arabera hasi eta izapidetuko da Europako munta txikiko prozesua.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Lege honetan hitzezko judizioarentzat aurreikusitakoarekin bat etorritik eraenduko dira 861/2007 (EE) Erregelamenduan aurreikusi gabeko arazo prozesalak.

Epeak zenbatzeko, kontuan izango da Epeei, datei eta epemugei aplikagarriak zaizkien arauak zehazten dituen Kontseiluaren 1971ko ekainaren 3ko 1182/71 Erregelamendua, egun baliogabeak baztertu gabe.

3. Justizia Administrazioaren letraduaren dekretu bidez erabakiko dira 861/2007 (EE) Erregelamenduaren 4. artikuluen 3. eta 4. apartatuetan aipatutako arazoak, salbu eta demanda ezestea badakarte; kasu horretan, epaileak ebatziko du auto bidez. Bi kasuetan, hamar eguneko epe bat emango zaio demandatzaileari, adieraz dezan artikulur horri lotuta bere eskubideari komeni zaiona.

4. Demandatuak alegatzen badu prozedura desegokia dela ez-diruzko demandaren erreklamazioak 861/2007 (EE) Erregelamenduaren 2. artikuluen 1. apartatuan ezarritako balioa gainditzeko duelako, epaileak demandatzaileari alegazioak formulatzeko helarazten zaionetik kontatzen hasita hogeita hamar eguneko epean auto bidez erabakiko du ea prozedura honen bidez izapidetu behar den demanda ala Espainiako arau prozesalekin bat etorritik egokitzen den prozedurara bihurtu behar den. Ezin izango da errekursorik jarri auto horren aurka, hargatik eragotzi gabe berriro alegatzea beste prozedura batean emandako epaiaren aurkako apelazioan.

Demandatuak errekonbentzioa formulatu eta errekonbentzio horrek gainditzeko badu 861/2007 (EE) Erregelamenduaren 2.1 artikuluan ezarritako muntaren muga, epaileak auto bidez ebatziko du izapidetu dadila auzigaia Espainiako arau prozesalen arabera egokitzen den prozeduraren bidez.

5. Lege honetan xedatutakoaren arabera gauzatuko dira Europako munta txikiko prozesu bat izapidetzearen ondorioz egindako jakinarazpenak, betiere 861/2007 (EE) Erregelamenduan aurreikusitako komunikazio-bideak badira; lehentasunez, bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko dira, eta, halakorik ezean, beste edozein bitarteko, demandatuari komunikazio-egintza entregatu zaiola jasota uzteko aukera ematen duena.

6. Europako munta txikiko prozesuari amaiera ematen dion epaiaren aurka, lege honen arabera egokitzen den errekurtsua jarri ahal izango da.

7. Demandatuaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegiak izango du eskumena Europar Batasuneko beste estatu kide batean eman eta Europako munta txikiko prozesu bati amaiera ematen dion epai bat Espainian betearazteko.

Era berean, berari egokituko zaio, demandatuaren eskariz, ukatzea epaiaren betearazpena, bai eta mugatzea betearazpena, eratzea bermea edo etetea betearazpen-prozedura ere, 861/2007 (EE) Erregelamenduaren 22. eta 23. artikuluetan aipatuak.

8. Lege honetan xedatutakoaren arabera eraenduko dira Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan eman eta Europako munta txikiko prozesu bati amaiera ematen dioten epaiak betearazteko prozedurak.

Lege honen 556. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera egingo da epaiaren betearazpena ukatzearen izapidetzea, bai eta betearazpenaren mugaketa, haren etendura edo bermearen



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

eraketa ere, baina inoiz ezin izango da autoa berrikusi funtsari dagokionez, eta errekurritzeko modukoa ez den auto bidez ebatziko da.

9. Espainian betearazi behar denean Europar Batasuneko beste estatu kide batean eman eta Europako munta txikiko prozesu bati amaiera ematen dion epai bat, demandatzaileak epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu beharko du gaztelaniazko itzulpen ofiziala edota aipatutako errekerimenduko jardun judizialak gauzatuko diren lurraldeko autonomia-erkidegoko hizkuntza ofiziala, 861/2007 (EE) Erregelamenduaren 21. artikuluan 2. apartatuan aurreikusitako moduan egiaztatuta.

10. 861/2007 (EE) Erregelamenduaren eranskinetan jasotako formularioen jatorrizkoek osatuko dituzte autoak, hala Espainiako auzitegiak ebazten duenean Europako munta txikiko prozesua, nola Espainia denen hura betearazi behar duen estatua ere. Egokiak diren ondoreetarako, kasuan kasuko kopia lekukotzadunak egingo dira.

Azken xedapenetako hogeita bosgarrena. 1215/2012 (EB) Erregelamendua, Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko abenduaren 12koa —gai zibileko eta merkataritzako ebazpen judizialen eskumen judizialari, aintzatespenari eta betearazpenari buruzkoa—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.

1. 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren babesean Europar Batasuneko estatu kide batek emandako ebazpenak aintzatesteari buruzko erregelak.

1.) 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartutako eta Europar Batasuneko estatu kide batean emandako ebazpenak aintzatestsi egingo dira Espainian, inolako prozedurarik bideratu beharrik gabe.

2.) Aintzatespenaren ukapena arazo intzidental baten moduan inbokatzen bada organo judizial baten aurrean, organo hori eskuduna izango da hartaz arduratzeko, eta lege honen 388. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedurari jarraituko zaio; aintzatespen horren efikazia intzidentearen oinarriko prozesu nagusian ebatzitzakora geratuko da mugatuta, eta ezin izango da eragotzi ebazpenaren aintzatespenari buruz ebaztea gai nagusia hori izango duen prozesu bereizi batean.

3.) Beste estatu kide batean emandako ebazpen bat Espainian inbokatu nahi duen alderdiak 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 37. artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu, eta hura zein organo judizialen edo agintaritzaren aurrean inbokatu eta hark artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako itzulpenak edo transkripzioak eskatu ahal izango ditu.

4.) Beste estatu kide batean emandako ebazpena zein organo judizialen edo agintaritzaren aurrean inbokatu eta hark prozedura eten ahal izango du, 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 38. artikuluan aurreikusitako zioetan oinarrituta.

5.) Behin alderdi interesdunetatik edozeinek eskatuta, ebazpenaren aintzatespena ukatu egingo da 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 45. artikuluan zioetakoren batean oinarrituta eta azken xedapen honen 4. apartatuan aurreikusitako prozedurarekin bat etorriz. Lege honen 50. eta 51. artikuluen arabera egokitzen den lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

6.) Xedapen honen 4. apartatuan aurreikusitako prozedura berberari jarraitu beharko zaio alderdi interesdunak eskatzen duenean deklaratu dadila atzerriko ebazpenak ez duela Erregelamenduaren 45. artikuluan jasotako aintzatespena ukatzeko ziorik. Lege honen 50. eta 51. artikuluen arabera egokitzen den lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna.

2. 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren babesean Europar Batasuneko estatu kide batek emandako betearazte-indardun ebazpenak betearazteari buruzko erregelak.

1.) Estatu kide batean eman eta bertan betearazte-indarra duten ebazpenek indar hori ere izango dute Espainian, haien betearazte-indarra deklaratu beharrik gabe, eta Espainian eman balira bezalako baldintza berberetan betearaziko dira, 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 39. artikulutik 44.era bitartekoetan eta xedapen honetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurrekoa gorabehera eta 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 2.a) artikuluen bigarren paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, behin-behineko edo kautelazko neurri bat agintzen duen ebazpena izanez gero, Espainian betearaziko da, soilik, baldin eta hura eman duen jurisdikzio-organismoak egiaztatu badu eskuduna dela auzigaiaren funtsari dagokionez.

2.) Betearazte-indardun ebazpen baten betearazpenaren ondoreetarako, 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 42.1 artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztuko ditu eskatzaileak, edo erregelamendu beraren 42.2 artikuluan aurreikusitakoak, behin-behineko edo kautelazko neurri bat agintzen duen ebazpena bada, bai eta erregelamendu horren 42.3 artikuluan aurreikusitako ziurtagiriaren itzulpena ere, baldin eta organo judizial eskudunak galdatzen badu. Eskatzaileari ebazpenaren itzulpen bat aurkezteko galdatu ahal izango zaio soilik hura gabe eginbideek aurrera jarraitu ezin badute.

3.) Estatu kide batek emandako betearazte-indardun ebazpenen betearazpena lege honen xedapenen arabera egingo da Espainian kasu orotan.

4.) Estatu kide batek eman eta betearazte-indarra duen ebazpen orok berarekin ekarriko du lege honetan aurreikusitako kautela-neurriak aplikatzeko ahalmena, bertan aurreikusitako prozedurarekin bat etorritik.

3. Ez egiaztatzea ziurtagiriaren jakinarazpena, eta atzerriko ebazpenaren itzulpena.

1.) 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 43.1 artikulua aplikatzearen ondoreetarako, lehenengo betearazpen-neurria hartu aurretik, betearazleak egiaztatzen ez duenean 53. artikuluan aurreikusitako ziurtagiria eta atzerriko ebazpena jada jakinarazi zaizkiola betearazpena noren aurka eskatu eta pertsona horri, azken horri jakinarazi beharko zaio bata ala bestea, edo, kasua denean, biak, betearazpena abiarazten duen autoarekin batera.

2.) 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 43.2 artikulua aplikatzearen ondoreetarako, betearazpena noren aurka eskatu eta pertsona horrek bost eguneko epea izango du atzerriko ebazpenaren itzulpena eskatzeko, betearazpena abiarazi dela jakinarazi denetik kontatzen hasita, baldin eta aldez aurretik jakinarazi ez bazaio eta ebazpen horren itzulpen bat erantsi ez bazaio betearazpen-demandari.

3.) Itzulpen hori entregatzen ez zaion bitartean, etenda geratuko da lege honen 556.1 artikuluan betearazpenari aurka egiteko aurreikusitako epea, bai eta hurrengo apartatuan aurreikusitako erantzun-epea



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

ere. Epaileak betearazpena largetsiko du, baldin eta hilabeteko epean itzulpen hori ekartzen ez badu betearazleak.

4.) Apartatu hau ez zaio aplikatuko ebazpen baten kautela-neurrien betearazpenari, edo betearazpena eskatu duen pertsonak kautela-neurriak eskatzen dituenean xedapen honen 2. apartatuko 4.) erregelarekin bat etorritz.

4. 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren babesean Europar Batasuneko estatu kide batek emandako betearazte-indardun ebazpenak ukatzeari buruzko erregelak.

Lege honetan aurreikusten diren betearazpenari aurka egiteko zioei kalterik egin gabe, betearazpena noren aurka eskatu eta pertsona horrek eskatuta, betearazte-indarra duen ebazpen baten betearazpena ukatuko da, 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 45. artikuluan jasotzen diren aintzatespenari uko egiteko zioetako bat edo batzuk egoteagatik, hitzeko judizioaren bideetatik, honako berezitasun hauekin:

1.) Betearazpenaz arduratzen den lehen auzialdiko epaitegiak izango du eskumena.

2.) Lege honen 437. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz aurkeztu beharko da demanda, demandatuari betearazpena abiarazi dela jakinarazten zaion datatik kontatzen hasita hamar eguneko epean, kasua denean; demandarekin batera aurkeztu beharko dira 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 47.3 artikuluan aipatutako dokumentuak eta haren uzia justifikatzen duen beste edozein, eta, kasua denean, auzi-jartzaileak egiteko eskatu dituen frogabideen proposamena jasoko du demandak.

3.) Auzi-jartzaileak 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 44.1 artikuluan aurreikusitako neurriak eska ditzake. Auzi-jartzaileak eskatuta ere, erregelamendu bereko 44.2 artikulua kasuan, prozedura eteteko erabakia hartuko da, luzamenik gabe.

4.) Justizia Administrazioaren letraduak demanda helaraziko dio demandatuari, 10 eguneko epean erantzun dezan. Erantzunean, bere aurkakotza justifikatzeko dokumentuak aurkeztu beharko ditu, eta baliatu nahi dituen frogabide guztiak proposatu. Auzi-jartzaileari helaraziko zaizkio idazki hori eta harekin batera aurkeztutako dokumentuak.

5.) Behin demanda erantzunda edo kasuan kasuko epea igarota, Justizia Administrazioaren letraduak ikustaldirako zitazioa egingo die alderdiei, baldin eta hala eskatzen badute beren demanda- eta erantzun-idazkietan. Ikustaldia egiteko eskaerarik egin ez badute beren idazkietan, edo proposatutako froga bakarra dokumentu bidezkoa denean eta dokumentu horiek prozesura ekarri direnean aurkaratuak izan gabe, edo aditu-txostenen kasuan berrespena beharrezkoa ez denean, epaileak auto bidez ebatziko du, izapide gehiagorik gabe.

6.) Auto horren aurka apelazio-errekurtsoa jar daiteke. Bigarren auzialdian emandako epaiaren aurka, kasua denean, kasazio-errekurtsoa jarri ahal izango da, lege honetan aurreikusitakoaren arabera. Errekurtso horietakoren baten ardura duen organo judizialak prozedura eten ahal izango du, baldin eta jatorriko estatu kidean ebazpenaren aurka errekurtso arrunt bat aurkeztu bada edo hura jartzeko epea oraindik amaitu ez bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko abenduaren 12ko 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 51. artikulua arabera. Erregelamendu hori gai zibileko eta merkataritzako ebazpen judizialen eskumen judizialari, aintzatespenari eta betearazpenari buruzkoa da. Ondore horietarako,



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

ebazpena Irlandan, Zipren edo Erresuma Batuan eman denean, errekurso arruntzat joko da jatorriko estatu kide horietakoren batean aurreikusitako edozein errekurso.

5. Ziurtagiria egitea.

1.) 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 53. artikulua aplikatzearen ondoreetarako, manu horretan aurreikusitako ziurtagiria egin dadila berebat bidez eskatu ahal izango da demandan, epaiarekin batera egin dadin. Kasu orotan, bananduta eta probidentzia bidez egingo da, artikulua horretan aipatutako formulario-eredua erabiliz.

Transakzio judizialak direnean, modu berean egingo da ziurtagiria, 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 60. artikulua onoreetarako, artikulua horretan aurreikusitako formulario-eredua erabiliz.

2.) Betearazte-indardun dokumentu publikoen kasuan, notario eskuesleak edo protokoloan legez ordeztzen duenak edo jarraitzen dionak beteko du 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 60. artikuluan aipatutako formulario-eredua. Bete izana matrizean edo polizan jasoko du, ohar bidez, eta kopia autentikoa txertatuko du bertan, zirkulatuko duen dokumentua ziurtagiriaren jatorrizkoa izanik.

6. Egokitzea.

1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 54. artikulua aplikatzearen ondoreetarako, atzerriko ebazpen baten aintzatespenari edo betearazpenari buruz ebazten duen agintaritzak manu horretan aurreikusitakoaren arabera egokituko du hura. Atzerriko neurria edo agindua egokitzeari buruzko erabakiaren aurka, legeria prozesalean jasotako errekursoak jarri ahal izango dira, kasuan kasuko ebazpen-motaren eta prozeduraren arabera.

7. Dokumentu publikoen betearazte-indarra.

1.) Jatorriko estatu kidean betearazte-indardun dokumentu publikoek indar hori ere izango dute Espainian, haien betearazte-indarra deklaratu beharrik gabe; betearazpena ukatu ahal izango da, soilik, ordena publikoaren aurkakoa denean argi eta garbi. Jatorriko estatu kidean autentikotzat hartzeko beharrezkoak diren betekizunak izan behar ditu aurkeztutako dokumentu publikoak.

2.) Betearazpenaren ukapena eskatu ahal izango du betearazpena noren aurka eskatu eta pertsona horrek, xedapen honen 4. apartatuan aurreikusitako prozedurarekin bat etorritik.

3.) Estatu kide batean egindako dokumentu publikoen betearazpena, kasu orotan, xedapen honen arauak aplikatuz gauzatuko da Espainian, lege honen xedapenekin bat etorritik.

8. Transakzio judizialen betearazte-indarra.

Jatorriko estatu kidean betearazte-indardun transakzio judizialak aurreko apartatuan dokumentu publikoentzat aurreikusitako baldintza berberetan betearaziko dira Espainian.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Azken xedapenetako hogeita seigarrena. 650/2012 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko uztailaren 4koa —eskumenari, lege aplikagarriari, ebazpenen aintzatespenari eta betearazpenari buruzkoa, «mortis causa» oinordetzen gaian dokumentu publikoen onarpenari eta betearazpenari buruzkoa eta Europako oinordetza-ziurtagiria sortzeari buruzkoa—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.

1. 650/2012 (EB) Erregelamenduaren babesean Europar Batasuneko estatu kide batek emandako ebazpenak betearazteko eta aintzatesteko erregelak.

1.) Edozein alderdi interesdunek eskatu ahal izango du deklaratu dadila ebazpen batek Espainian betearazte-indarra izatea, baldin eta ebazpen hori 650/2012 (EB) Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartuta badago eta Europar Batasuneko estatu kide batean eman eta bertan betearazte-indarra badu, xedapen honen 2.) apartatutik 7.)era aurreikusitako prozeduraren arabera.

2.) Europar Batasuneko estatu kide batean emandako ebazpenak aintzatsi egingo dira Espainian, inolako prozedurarik bideratu beharrik gabe. Aurrekoa gorabehera, aurka eginez gero, ebazpen hori aintzatsi dadila eskatu ahal izango du mota horretako ebazpen bat titulu nagusi gisa aintzatsi dadila inbokatzen duen edozein alderdi interesdunek, 1.) apartatuan aurreikusitako prozedura beraren bidez.

Aintzatespenaren ukapena arazo intzidental baten moduan inbokatzen bada organo judizial baten aurrean, organo hori eskuduna izango da hartaz arduratzeko, eta lege honen 388. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedurari jarraituko zaio; aintzatespen horren efikazia intzidentearen oinarriko prozesu nagusian ebatzita geratuko da mugatuta, eta ezin izango da eragotzi ebazpenaren aintzatespenari buruz ebaztea gai nagusia hori izango duen prozesu bereizi batean.

Edozein kasutan, aintzatespena zein organo judizialen aurrean eskatu eta hark prozedura eten ahal izango du, baldin eta ebazpen hori errekurso arrunt baten objektua bada jatorriko estatu kidean.

2. Eskumena.

Aintzatespen- edo betearazpen-eskaera zein alderdiren aurka egin eta haren egoitzako lehen auzialdiko epaitegiak izango du betearazte-indarraren prozeduraz arduratzeko eskumena, edo betearazteko tokioak, zeinean ebazpenak bere ondoreak sortu behar dituen.

3. Doako laguntza juridikoa.

1.) Espainian aplikagarriak diren arau orokorrak bete beharko ditu doako laguntza juridikoak prozedura honetan.

2.) Aurreko apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe, jatorriko estatu kidean osorik edo partzialki doako laguntza juridikoaren edo kostuen eta gastuen salbuespenaren onura lortu duen eskatzaileak doako laguntza juridikoaren onurarik mesedegarriena edo ahalik eta salbuespenik zabalena izango du prozedura honetan, Espainian aplikagarri diren arau orokorrekin bat etorritik.

4. Ebazpen baten betearazte-indarra deklaratzeko prozedura.

1.) Betearazte-indarra deklaratzeko eskaera demanda bidez aurkeztuko da; demandak lege honen 437. artikulua betekizunak bete beharko ditu, eta honako dokumentu hauekin batera aurkeztu beharko da:



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

a) Ebazpenaren kopia autentiko bat.

b) 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 46.3.b) artikuluan aurreikusitako ziurtagiria.

2.) Aurreko apartatuan aurreikusitako ziurtagiria aurkezten ez bada, organo judizialak epe bat finkatu ahal izango du hura aurkezteko, dokumentu baliokide bat onartu ahal izango du, edo haiek lekatu ahal izango ditu informazio nahikoa duela irizten badio.

Organo judizialak, halaber, dokumentuen itzulpen bat eskatu ahal izango du, estatu kideetako batean itzulpenak egiteko kualifikatutako pertsona batek egindakoa.

3.) Eskatzaileak ez du posta-helbidea Espainian edukitzeko betebeharra izango, ezta prokuradoreak ordezkatuta eta letratuak lagunduta jardutekoa ere.

4.) Eskatzaileak behin-behineko neurriak edo kautelazkoak har daitezela eskatu ahal izango du, lege honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Betearazte-indarraren deklarazioak barnean hartuko du edozein kautela-neurri hartzeko baimena.

5.) Behin 1.) eta 2.) erregeletan aurreikusitako formalitateak beteta, epaileak, auto bidez, berehala deklaratu du ebazpenaren betearazte-indarra, deklarazioa zein alderdiren aurka eskatu eta hari alegazioak egiteko helarazi gabe eta 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 40. artikuluan aurreikusitako zioak, aintzatespena ukatzekoak, aztertu gabe.

Deklarazioaren objektu den ebazpenak uzi batzuk baditu eta ezin bada haien guztien betearazte-indarra deklaratu, bidezkoak direnen betearazte-indarra deklaratu du autoak.

6.) Deklarazioa zein alderdiren aurka eskatu eta hari zuzendutako jakinarazpena apartatu honen 1.) eta 2.) erregeletan aipatutako dokumentuekin batera aurkeztuko da.

5. Betearazte-indarra deklaratzeko eskaerari buruzko ebazpenaren aurkako errekursoak.

1.) Betearazte-indarra deklaratzeko eskaerari buruzko ebazpena alderdietako edozeinek errekurritu ahal izango du hogeita hamar egun naturaleko epean. Deklarazioa zein alderdiren aurka eskatu eta hark egoitza Espainiatik kanpo edukiz gero, hirurogei egun naturaleko epea izango du errekurtsua jartzeko; epe horrek ez du luzapenik onartuko haren egoitzatik Espainiara dagoen distantzia dela-eta.

Probintzia-auzitegiak izango du errekurtsuaz arduratzeko eskumena.

2.) Betearazte-indarraren deklarazioaren aurkako errekurtsuaren epean eta hari buruz ebatzi arte, betearazpena zein alderdiren aurka eskatu eta haren ondasunen gaineko kautela-neurriak soilik hartu ahal izango dira.

3.) Bigarren auzialdian emandako epaiaren aurka, kasua denean, kasazio-errekurtsua jarri ahal izango da, lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

6. Betearazte-indarra deklaratzeko eskaerari buruzko ebazpenaren aurkako errekurtsuaren prozedura.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Aurreko apartatuaren 1.) erregelan aurreikusitako errekurtsua apelazio-errekurtsoren bideetatik bideratuko da, prozesuko ordezkariari eta defentsa teknikoari buruzko arauak barne, honako berezitasun hauek dituela:

a) Arau edo berme prozesalak hautsi izana lehen auzialdian alegatzeari kalterik egin gabe, errekurtsua oinarritu ahal izango da soilik 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 40. artikuluan aurreikusitako zioetakoren batean edo batzuetan; errekurtsogileak bere uziak justifikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak aurkeztuko ditu errekurtsua jartzeko idazkiarekin batera, eta, kasua denean, egiteko eskatu dituen frogabideen proposamena jasoko du idazkiak.

b) Justizia Administrazioaren letraduak gainerako alderdiei helaraziko dizkie errekurtsu-idazkia eta harekin batera aurkeztutako dokumentuak, eta epatu egingo ditu, hoguei egun naturaleko epean aurka egiteko edo aurkaratzeko idazkia aurkez dezaten; beharrezkotzat jotzen dituzten justifikatze-dokumentuak erantsiko dizkiote hari, eta, kasua denean, egiteko eskatu dituzten frogabideen proposamena jasoko da bertan.

c) Betearazte-indarraren deklarazioa zein alderdiren aurka eskatu eta hura agertu ezean, 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da haren ohiko bizilekua Espainiatik kanpo egonez gero.

7. Errekurtsoen etendura.

5. apartatuan aurreikusitako errekurtsuetatik edozein zein auzitegiren aurrean jarri eta hark prozedura etengo du, betearazte-indarra deklaratzeko eskaera zein alderdiren aurka egin eta hark eskatuta, baldin eta betearazte-indar hori jatorriko estatu kidean eten egin bada errekurtsu bat jartzeagatik.

8. Dokumentu publikoen betearazte-indarra.

Jatorriko estatu kidean betearazte-indardun dokumentu publikoak betearazte-indardun deklaratu dira Espainian, alderdi interesdunetako edozeinen eskariz, azken xedapen honen 2. apartatutik 7.era bitartekoetan araututako prozedurarekin bat etorriz; 4.1.) b) apartatuan aurreikusitako ziurtagiria aurkeztu beharko da, 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 60.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Xedapen honen 16. apartatuan aurreikusitako errekurtsuetatik edozein zein auzitegiren aurrean jarri eta hark dokumentu publiko baten betearazte-indarraren deklarazioa ezetsiko edo errebokatuko du, soilik, hura ordena publikoaren aurkakoa denean argi eta garbi.

9. Transakzio judizialen betearazte-indarra.

Jatorriko estatu kidean betearazte-indardun transakzio judizialak betearazte-indardun deklaratu dira Espainian, alderdi interesdunetako edozeinen eskariz, azken xedapen honen 2. apartatutik 7.era bitartekoetan araututako prozedurarekin bat etorriz; 4.1.) b) apartatuan aurreikusitako ziurtagiria aurkeztu beharko da, 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 61.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

5. apartatuan aurreikusitako errekurtsuetatik edozein zein auzitegiren aurrean jarri eta hark transakzio judizial baten betearazte-indarraren deklarazioa ezetsiko edo errebokatuko du, soilik, hura ordena publikoaren aurkakoa denean argi eta garbi.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

10. Ebazpen, dokumentu publiko edo transakzio judizial baten ziurtagiria egitea, beste estatu kide batean haren betearazte-indarraren ondoreetarako.

1.) Erregelamenduaren 46.3 artikulua aplikazioaren ondoreetarako, ebazpena eman duen organo judizialari egokituko zaio manu honetan aurreikusitako ziurtagiria egitea, eta bananduta egingo da, probidentzia bidez, artikulua horretan aurreikusitako formulario-eredua erabiliz.

Gauza bera egingo da, Erregelamenduaren 61. artikulua aplikazioaren ondoreetarako, transakzio judizial bat denean, eta artikulua horretan aurreikusitako formulario-eredua erabiliko da ziurtagiria egiteko.

2.) Dokumentu publikoen kasuan, notario eskuesleak edo protokoloan legez ordeztzen duenak edo jarraitzen dionak egingo du Erregelamenduaren 60. artikuluan aipatzen den ziurtagiria, artikulua horretan aurreikusitako formulario-eredua erabiliz. Egin izana matrizean jasoko da, ohar bidez, eta kopia autentikoa txertatuko da bertan, zirkulatuko duen dokumentua ziurtagiriaren jatorrizkoa izanik. Matrizean txertatu ezin bada, ohar bidez lotuko zaio osteko aktari, eta han txertatu beharko da.

11. Europako oinordetza-ziurtagiria organo judizialak egitea.

1.) Organo judizialak probidentzia bidez eta bananduta egingo du Europako oinordetza-ziurtagiria, 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 67. artikuluan aurreikusitako moduan eta aldezturik eskatuta; erregelamendu beraren 65.2 artikuluan aurreikusitako formularioaren bidez aurkeztu ahal izango da eskaera.

2.) Oinordetza bideratzen ari den edo bideratu duen auzitegi berak izango du Europako oinordetza-ziurtagiri bat judizialki egiteko eskumena. Oinordetza-ziurtagiriaren lekukotza egingo da, eta eskatzaileari entregatuko zaio.

3.) Ziurtagiri bat eskatzeko eskubidea duen pertsona orok errekurritu ahal izango ditu kasuan kasuko organo judizialak hartutako erabakiak.

12. Organo judizial batek egindako Europako oinordetza-ziurtagiria zuzentzea, aldatzea edo deuseztatzea.

1.) Europako oinordetza-ziurtagiri bat zuzentzeko prozedura uztailaren 1eko Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoaren 267. artikulua 1. apartatutik 4.era bitartekoetan aurreikusitako moduan ebatziko da, 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 71.1 artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

2.) 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 71.1 artikuluan aipatutako Europako oinordetza-ziurtagiri bat aldatzeko edo deuseztatzeko prozedura lege honetan berraztertze-errekurtsoarentzat aurreikusitakoarekin bat etorritik izapidetuko da eta ebatziko da, auzialdi bakarrean.

3.) Kasu orotan, 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 71.3 artikuluekin bat etorritik, erregelamendu beraren 70.1 artikulua arabera ziurtagiriaren kopia autentikoa entregatu zitzaizkien pertsona guztiei atzerapenik gabe komunikatuko die auzitegiak ziurtagiriaren edozein zuzenketa, aldatzea edo deuseztatzea.

13. Organo judizial batek uko egitea Europako oinordetza-ziurtagiria egiteari.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Europako oinordetza-ziurtagiri bat egiteko ukapena bananduta egingo da, auto bidez, eta berraztertze-errekurtsoaren izapideen bitartez aurkaratu ahal izango da, auzialdi bakarrean.

14. Europako oinordetza-ziurtagiria notarioak egitea.

1.) Aldez aurretik eskatuta, oinordetza edo haren elementuetakoren bat deklaritzen duen notarioak edo protokoloan legez ordeztzen duenak edo jarraitzen dionak dauka 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 62. artikuluan aurreikusitako ziurtagiria egiteko eskumena; horretarako, erregelamendu beraren 67. artikuluan aipatutako formularioa erabili beharko du. Oinordetza-ziurtagiri bat egiteko eskaera erregelamendu beraren 65.2 artikuluan aurreikusitako formularioaren bidez aurkeztu ahal izango da.

2.) Aipatutako Europako oinordetza-ziurtagiria egin izana jasota utziko da egintza edo negozioa bideratu duen eskrituraren matrizean, ohar bidez, 1862ko maiatzaren 28ko Notariotzaren Legearen 17. artikulua araberaz ziurtagiriak dokumentu publikoaren izaera izango baitu; ziurtagiriaren jatorrizkoa txertatuko da bertan, eta kopia autentikoa entregatuko zaio eskatzaileari.

Matrizean txertatu ezin bada, ohar bidez lotuko zaio osteko aktari, eta han txertatu beharko da ziurtagiriaren jatorrizkoa.

15. Notario batek egindako Europako oinordetza-ziurtagiria zuzentzea, aldatzea edo deuseztatzea.

1.) Europako oinordetza-ziurtagirian oker material bat antzemanek gero, ziurtagiri hori dagoen protokolo notarioari egokituko zaio haren zuzenketa egitea, bai eta 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 71.1 artikuluan aurreikusitako aldaketa edo deuseztapena egitea ere.

2.) Kasu orotan, 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 71.3 artikuluekin bat etorritik, notarioak atzerapenik gabe komunikatuko die haren edozein zuzenketa, aldaketa edo deuseztapen erregelamendu beraren 70.1 artikulua araberaz ziurtagiriaren kopia autentikoa entregatu zitzaizkien pertsona guztiei.

16. Errekurtsoa.

1.) 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 63.1 eta 65. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik interes legitimoa duenak errekurritu ahal izango ditu Europako oinordetza-ziurtagiri bati lotuta notario batek hartutako erabakiak.

2.) 650/2012 (EB) Erregelamenduaren 71. artikulua eta 73. artikulua 1. apartatuaren a) letran aurreikusitakoarekin bat etorritik interes legitimoa duenak errekurritu ahal izango du Europako oinordetza-ziurtagiri bat zuzentzeko, aldatzeko, deuseztatzeko edo egiteko notario baten ezezkoa.

3.) Apartatu honen 1.) eta 2.) erregeletan aipatutako erabakien aurkako errekurtsoa notarioaren bizileku ofizialaren tokiko lehen auzialdiko epailearen aurrean jarriko da zuzenean, auzialdi bakarrean, eta hitzezko judizioaren izapideen bitartez bideratuko da.

17. Errekurtsoaren ondoreak.

1.) Aurreko apartatuan aurreikusitako errekurtsoaren ondorioz egiaztatuta geratu bada egindako Europako oinordetza-ziurtagiria ez datorrela errealitatearekin bat, organo judizial eskudunak hura egin duen notarioari aginduko dio emandako ebazpen judizialaren arabera zuzen, alda edo deusezta dezala.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

2.) Errekurtsoaren ondorioz egiaztatuta geratzen bada Europako oinordetza-ziurtagiria egiteko ezezkoa justifikatugabea zela, organo judizial eskudunak ziurtagiria egingo du edo bermatuko du hura egin duen notarioak kasua berriro azter dezala eta emandako ebazpen judizialarekin bat datorren beste erabaki bat har dezala.

3) Kasu orotan, egintza edo negozioa bideratu duen eskrituraren matrizean eta egindako Europako oinordetza-ziurtagiria protokoloan jasotzeko aktan jaso beharko du egindako zuzenketaren, aldaketaren edo deuseztapenaren oharra, bai eta errekurtsoa jarri izanarena eta bertan emandako ebazpen judizialarena ere.

Azken xedapenetako hogeita zazpigarrena. 655 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko maiatzaren 15ekoa —kontuak atxikitzeke Europako aginduari buruzko prozedura ezartzen duena gai zibileko eta merkataritzako zorren mugaz gaindiko kobrantzak sinplifikatzeko helburuarekin—, Espainian aplikatzea bideratzeko neurriak.

1. Lege honen 545. artikulua 3. apartatuarekin bat etorritik zehaztuko da betearazte-indarra duen dokumentu publiko batean zehaztutako kredituari buruzko agindua emateko eskumena. Era berean, eskudun izango da, eskatzailearen aukeran, eskaera oinarritzen duen dokumentua formalizatu den tokiko lehen auzialdiko epaitegia.

2. Beste estatu kide batean emandako atxikitzeko-agindua betearazteko eskudun izango da banku-kontua mantentzen den tokiko lehen auzialdiko epaitegia eta, toki desberdinetan badaude kontuak, haietako edozeini dagokion lehen auzialdiko epaitegia.

3. Espainian egoitza duen zordunari 655/2014 (EB) Erregelamenduaren 28. artikulua 3. apartatuan aurreikusitako jakinarazpena egiteko eskudun izango da zordunaren egoitzako lehen auzialdiko epaitegia.

4. 655/2014 (EB) Erregelamenduaren 34. artikulua 3. apartatuarekin bat etorritik, beste estatu kide batean emandako agindua betearazi duen epaitegiak edo auzitegiak ebatziko du betearazpen horren aurka zordunak egindako aurkaratzea.

5. 655/2014 (EB) Erregelamenduaren 14. artikuluan aipatzen den kontuen informazioa lortzearen ondoretarako, Espainiako informazio-agintaritzak elkarlana eskatu ahal izango dio zordunaren kreditu-erakundeak eta kontuak identifikatzea ahalbidetzen duen informazioa duen edozein erakunde publiko eta pribaturi, baldin eta hala eskatzen badu atxikitzeko-agindua zein jurisdikzio-organoren aurrean aurkeztu eta hark. Ondore horietarako, erakunde horiek behartuta egongo dira informazio hori ematera.

Azken xedapenetako hogeita zortzigarrena. Europar Batasuneko arauetan araututako prozesuen edo tresna prozesalen formularioak.

Justizia administrazioari baliabide materialak hornitzeko eskumena duten administrazio publikoek jurisdikzio-organoen eta herritarren eskura jarriko dituzte Europar Batasuneko arauetan jasotako formulario prozesalak.



1/2000 Legea, urtarilaren 7koa, Prozedura Zibilarrena.

2000/01/08ko «BOE», 7. zk.

2023/12/20an argitaratutako eguneratzea

Azken xedapenetako hogeita bederatzigarrena. Indarrean sartzea.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera sartuko da indarrean.

Horrenbestez,

Espainiar guztiei, partikular zein agintariei, agintzen diet lege hau bete eta betearaz dezatela.

Madriren, 2000ko urtarilaren 7an.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,

JOSÉ MARÍA AZNAR LÓPEZ.